

AGIRRE ASTEASUKOAREN  
*ERACUSALDIAC:*

SERMOIA IKUSPEGI SOZIO-DISKURTSIBOAREN ARGITAN

AGIRRE ASTEASUKOAREN  
*ERACUSALDIAC:*

SERMOIA IKUSPEGI SOZIO-DISKURTSIBOAREN ARGITAN



AGIRRE ASTEASUKOAREN  
*ERACUSALDIAC:*

SERMOIA IKUSPEGI SOZIO-DISKURTSIBOAREN ARGITAN

AGIRRE ASTEASUKOAREN  
*ERACUSALDIAC:*

SERMOIA IKUSPEGI SOZIO-DISKURTSIBOAREN ARGITAN

**iker - 24**



**ARANTZA OZAETA ELORTZA**

**AGIRRE ASTEASUKOAREN  
*ERACUSALDIAC.***

**SERMOIA IKUSPEGI SOZIO-DISKURTSIBOAREN  
ARGITAN**

**IKER-24**

EUSKALTZAINDIA  
2010

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

© Arantza Ozaeta Elortza

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

© Mondragon Unibertsitatea

Es kubide guztiak jabe duna dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berea transmititzea, aipamenterako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.  
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao

Inprimategia: GRAPHICEMS, Gráficas CEMS, S.L.  
San Miguel industriagunea  
31132 Villatuerta  
Nafarroa / Navarra

ISBN: 978-84-95438-63-8

Lege-gordailua: NA-XXXX-2010

*Amari  
eta amamari*



“Seul l’Adam mythique abordant avec sa première parole un monde pas encore mis en question, vierge, seul Adam-le-solitaire pouvait éviter totalement cette orientation dialogique sur l’objet avec la parole d’autrui.”

Bajtin, 1934

“Surrexit, non est hic”

Marc, 16





## AGURRA

Bada euskal klasikoen artean, eta aipamenez aipamen, XIX. mendea betetzen duena, prosa erlijiosoaren alorrean eta Gipuzkoako herrialdean. Agirre Asteasukoa da hura. Bereak ditugu, besteak beste, *Eracusalldiac*, lan luzeak (hiru liburuki) zein laburrak (*Confesioco eta Comunioco Sacramentuen gainecoac*).

Nago, ospe eta sona handikoa izanik ere, ez ote duen Agirrereren prosak besterik eskatzen, azterketa eta ikerketaren aldetik. Horixe da, izan ere, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle den Arantza Ozaetak eskaintzen diguna argitalpen honetan. Hain zuzen ere, gipuzkoar idazlearen prosa hura, ikusmolde sozio-diskurtsiboaren argitan arakaturia eta xehetua.

Agirre Asteasukoaren *Erakusalldiac* da, beraz, Euskaltzaindiaren IKER bildumara datorren ekarpen berriaren muina eta ardatza, Ozaeta anderearen doktorego-tesiaren bidez. Bistan da, bestalde, testua, argigarria ez ezik, gogoe-tarako aproposa ere izan daitekeena, gure klasikoen sua beste behin ere bizten duelako jendaurrean, ikusmolde ezohikoez eta unibertsitate mailako jakituriaz hornitua.

Jakin-min berriak behar ditugu euskarazko testu klasikoak miatzerakoan. Inor gutxik jarriko du hori zalantzan. Metodologia berriak ere bai, beste horrenbeste. Horixe egin du egileak liburu honetan eta Agirre Asteasukoaren irakurketa osterantzekoa proposatu digu, pragmatikaren eta diskurtsoaren teoria artean direla.

Horrexegatik bada, atseginez eta ohore handiz hartu dugu IKER bilduman lan hau, etorkizunean ere bide beretik etor daitezkeen adierazgarri.

Gaztea da liburuaren egilea. Heldutasun handikoa, alabaina, egintza eta irakaskuntzan. Halakoxea da, modu berean, Mondragon Unibertsitatea, indartsu agertu dena Euskal Autonomia Erkidegoaren unibertsitate esparruan.

Hainbatez, Euskaltzaindiak beti izan du arreta berezia euskararen herrialdeetan diharduten unibertsitateekin harreman lehenetsiak estutzeko, ondotxo baitaki euskararen Akademiak hizkuntzaren zortea barne-barnetik goi-mailako irakaskuntzarekin loturik dagoela.

Horrextarako sinatu dute Euskaltzaindiak eta Mondragon Unibertsitateak halako hitzarmena, aurtengo urriaren hamahiruan, berori izango delakoan, aurrerantzean ere, tresnarik erabilgarriena eta zutaberik nagusiena liburu honekin hasten den elkarlanean.

Hortaz, hona hemen elkarlan horren lehen fruitua.

Mila esker liburu hau egingarri bihurtu duten guztiei eta gera bedi, esan legez, gerogarrenean etorriko diren bestelako lanen iragarle.

ANDRES URRUTIA, EUSKALTZAINBURUA

## HITZAURREA

Hitzaurre koxkor bat idaztea eskatu didate. Atsegin handiz egingo dut.

Tesi-lan bat burutzean, halako lotura bat sortzen omen da egilearen, zuzendariaren eta lanaren beraren artean. Horregatik edo, tesi-zuzendari baten-tzat ez da arriskurik gabea doktoregai izan duen egilearen lana aurkeztea. Arrisku horri aurre egite aldera, hiztegia jo dut, eta hona definizio labur bat: “Liburu nahiz hitzaldi baten hasieran egiten den sarrera gisako argitasuna”(\*). Jakina, eta zer da “argitasuna”? Ez gara amaiera gabeko bide antzuegitan sartuko. Bi dira, besteak beste, saihestu beharreko arriskuak: aurrena, egilearen gorazarretan aritzea, eta bigarrena, aurkibide gisako zerbait bilakatzea.

Eskuartean dugun lan hau, tesi-lan gisa sortua dugu. Eta horrek badu berea, tesi-lanak ez baitira irakurtzeko errazak izaten. Baditu aldaketa eta zuzenketa txiki batzuk ere, batez ere epaimahaiko jaun-andreen eta iritzi egokien ildotik eginak, baina, oro har, lehen “bertsioa” hura aurkezten da.

Nire esatekoak antolatze aldera, lanaren banaketari jarraituko diot.

Tesi-lanaren motibazio-iturrien gainekoa da nire lehen “argitasuna”. Egia esan, egileak berak ederki asko argitzen ditu lanaren motibazio iturriak. Baina, baten batek galde dezake ez ote den arraroa literatura atsegin duen batek Agirre Asteasukorengana jotzea “literatur balio” bila, haren maila ez baita “segurua”. Galdetzaila zorrotz hori ulertzaile makalagoa ez bada, berehala ohartuko da Asteasuko Agirreraren “eracusaldiac” corpustzat hautatzeak baduela holako “errebindikazio” kutsu bat ere. Ozaeta irakaslearen ustetan Agirreraren prosak –sermoigintzak– badu aintzat hartu beharreko balio literarioirik. Eta halatan abiatu zen. Haren hitzak dira: “Pentsatu nuen Agirre Asteasukoaren sermoigin-

---

\* *Bostak Bat* taldea (2005). *Eskola hiztegia. Oinarrizko hiztegia. Irudiduna*. Hiztegia XXI S.L. Bilbo, 2005, 260. or.

tza azter zitekeela erretorika klasikoaren laguntzarekin”. Horrela, aldi luze batez, erretorika lagun, “eracusaldien” azterketari ekin zion. Niregana jo zue-nean, dagoeneko ehun orrialde baino gehiago idatziak zituen, izenburu eta guzti: “*Agirre: Aita Zorrotza*”.

Nolanahi ere, labur eta mugatu geratu zitzaion erretorikaren bidea. Agirre ez da tropo eta figura erretorikoetan aberatsa, holakoetarik badu ere. Sermoi- en deskripzioari ekiteko beste talaia baten bila hasiko da. Beste planteamendu teoriko-metodologiko baten bila. Ez du erretorika behin-betiko baztertuko, zintzilik utziko baizik; beste hierarkia baten barruan kokatuko du gerora.

Xede, asmo eta irakurketa berriagoak tarteko, *Interakzionismo Sozio-dizkurtsiboa* (ISD) deitu ikusmoldera eta metodologiara lerratuko da. Bidegurutze honetan lanerako behar zuen koadro metodologikoa (“*Etxeak behar, eta bideak ekarri*”) Roulet et ali (2001) autoreek ekarriko diote. Oraingo honetan, sermoiak hizkuntza-jarduera gisa hartuko dira, mintzairaren eta giza jardueraren arteko elkarreteragin espazioan. Hauxe da printzipio nagusia: “eracusaldietako” sermoiak enuntziatio-baldintza sozio-historiko jakinei lotuak daudela erakustea. Beste hitzetan esanik, komunikazio-egoera jakin batek enuntziatioaren egitura harrapatzen duela, eta mugatzen (linguistikoki eta diskurtsiboki).

Helburua, baina, ez zuen/du eskura izan egileak. Ez da lerra-arriskurik (irrist-arriskurik) gabeko erroka izan. Besteak beste, ez dugu gure artean ildo honi jarraiki eginiko lanik, eta, beraz, hortik ezer gutxi izan du egileak bere azterketaren xedea gauzatzeko. Halaz ere, ahalegindu da marko teoriko eta metodologiko berriak azaltzen eta egokitzen. Horrela, 5 modulu egin ditu sermoi- en azterketari egiteko. Ohar bedi modulu horiek ez direla zerbait itxiak, corpora deskribatzeko egindako hipotesiak baizik.

Lehen kapitulu- en *koordinada biografiko eta espazial-kronologiko* oinarritzko batzuk ematen zaizkigu. Labur esanda, sermoi- en egilearen inskripzio soziala. Kapitulu hau sermoi- en testuinguru sozio-historikoa hobeto ezagutzeko dago jarria, praktika diskurtsibo jakin baten alderdi soziala hobeto karakterizatzeko, hain zuzen. Zertara datorkigu Asteasuko Erretorea? Itzala eman nahi zion sermoiari, eta ospea Elizari eta Jaunaren lanari. Agirrek ere lan egin zuen *A(d) M(aiorem) D(ei) G(loriam)* lelo pean, holako akronimorik erabili ez bazuen ere. Lelo horren azpian buru-belarri borrokatu zen modernismoaren aurka. Ahozkotik idatzira pasatzean, hots, sermoiak “litterae” bihurtzean, lotu egin nahi zituen erlijioa eta artea. Agirre plan zabalago –hots, instantzia diskurtsibo zabalago– bateko partaide dugu, eta hortik izango du legitimizazioa ere.

Bigarren modulua sermoien *testu-egiturari* dagokio. Agirre Asteasukoaren lan desberdinek trilogia bat osatzen dute. Tesigileak dienez ez dago hiru liburuki horien artean oposizio esanguratsurik, bai, ordea, liburukiotan agertzen diren sermoi-moldeen artean (“*Eracusalldiac*”, “*Platicac*”, “*Bederatziurrenac*”). Egileak liburu bakoitzaren atalketa edo barne-egitura azaltzen du. Era berean, egitura-eskema horien semantikaz eta zentzu-esanahiaz ari da. Egileak dio sermoiak oso lan kalkulatu baten arkitektura duela, obra lotua eta justifikatua dela, aurre diseinu bati erantzuten diona. Gauzak horrela, sermoiak mintzairakentza *egituratuak dira, konbentzionalitate* handiko ekoizpenak. Jakina, horrek badu komunikazioan eraginik, eta hartzaileengan (entzuleengan) ere bai.

Hirugarren moduluan sermoiak ezaugarritzeko beste urrats bat ematen da, ilokuzio-pragmatikaren laguntzarekin. Hipotesia da sermoia *hitzezko makro-egintza berezia* dela, haren azken helburua edo ilokuzio-balio globala *motibatzea, ziztatzea* litzatekeelarik.

Jakina, arazoa da nola egin eta zein garantiarekin –hots, edozein arbitrarioritasun uxatuz– hitzezko-egintza aleetatik makro-hizketa-egintzarako jauzia. Eskema batean eman ditu ikerlariak “*motibarazterainoko*” jauziaren pausoak. Hitzezko egintza nagusia ebazteko orduan, aldezturik testu-planaren barruan dauden hitzezko egintza desberdinen *garrantzia erlatiboa* zehazten da, eta beroriek makro-egintzaren barruan duten *hierarkia ilokuzionarioa* definitzen. Horrela, justifikatuak agertzen dira bidea eta azken emaitza.

Gatozen orain laugarren modulura. Ilokuzio pragmatikatik interakzio pragmatikara jotzen da bertan. Berau dugu zatirik luzeena eta ziurrenik ekarpen nagusia ere bai. ISDaren ildotik abiatuz, urrats metodologikoak seinalatzeko dira. Bi azter-objektoren gainean egiten da azterketa: *pertsona-izenordainak* eta *berbaldi ekarria* (zuzeneko diskurtsoa, zeharkako diskurtsoa). Horien azalpena hiru mailatan egiten da: hizkuntza mailan, interakzio mailan eta interdiskurtso mailan. Ezinbestekoa da hiru informazio edo balio horiek kontuan hartzea azalpen oso-beterik emango bada. Kontuan hartzen dira azterunitateen presentzia, maiztasuna, banaketa eta konfigurazioa. Azterketan argi eta garbi erakusten da pertsona-izenordainak ez direla neutroak eta indiferenteak instantzia diskurtsiboekiko, oso “konprometituak” baizik. Bergauza gertatzen da berbaldi *ekarri* edo erreferituarekin ere. Eta garrantzitsuago dena: diskurtso ekarri edo erreferituaren forma ezberdinek (zuzeneko diskurtsoak zein zeharkakoak) interes eta asmo jakinen arabera dantzatzeko dute. Horrela, aipugintza bazter ezinek gertakaria da sermoiaren taxuzko karakterizazioa egingo bada. Bereziki da azpimarratzekoa “aipua-iruzkina” bikotearen betekizun diskurtsiboa. Aintzat hartzekoa da ondorengo baieztapen hau: “Historian

zehir ez da izan beste instantziarik horrenbesteko garrantzirik eman dionik aipuari. Eta ez da beste diskurtsorik horrela jokutzen duenik”. Aipatu bikote horri esker, kristau-diskurtsoa amaierarik gabeko diskurtsoa da, nahi adina errepika daitekeena. Horra hor kristau-diskurtsoaren –eta sermoiaren!– originaltasuna. Gauzak horrela izatera, honek guztiak isats luzea du ondorio gisa.

Azken modulua, bosgarrena, erretorikaz ari da. Zer diren gauzak: hasieran baztertu erretorika hura berriz datorkigu mahai gainera, sermoiaren karakterizazioa laguntzera. Baina, bada diferentzia bat: erakusaldiak ez datoz erretorika “erakustera”, ez dira erretorika lanak, alderantziz baizik, diskurtsoa bera dugu erretorikaren atzetik dabilena. Agirreren sermoiak bere horretan edozein sermoilarik erabiltzeko eginak dira, buruz ikasi eta bere horretan botatzekoak. Elizkizun festatsu eta ederrak nahi ditu Agirre Asteasukoak, Jaunari eskerrak emateko. Elizaren festa eta ospakizun adierazgarriak jartzen ditu kristauen begien aurrean eta belarrietan, hala nola, Jesukristoren Piztuera egunean, Saindu guztien egunean... Oro har, egitura “pro-klimatikoa” dagokio sermoiari. Hau da, klimax batetik beste batera doana.

Zer esan konklusio orokor gisa?

Lanean bada zer zorrotzu, hala marko teorikoari dagokionean nola metodologiari dagokionean. Zenbaitetan eklektiko samar jokatu du tesigileak, “brikolage” itxura hartzeraino. Baina, lanak badu nolabaiteko barne koherentzia, helburutik datorkiona eta helburuari dagokiona. Nire aldetik, kalte baino mesede gehiago ikusi diot moduluak egiteari.

Ez dakit zein modulu edo kapituluk aurkituko duen irakurle-multzo zabalena: litekeena da modulu guztiek irakurleria bera ez izatea. Izan daiteke, orobat, kapitulu guztiek ez izatea interes bera ere. Irakurle batek sermoia ilokuzio-egintza den neurrian izango du interesa; hots, zein den sermoilariaren asmoa. Besteren batek erakusaldiaren egiturari eta banaketari egingo die arreta. Hirugarren bati erretorika interesatuko zaio. Diskurtso kontuetan adituari, labur samar geratuko zaio seguruenik. Nolanahi ere, hasiera da eta moduluen hasieretan oinarritzat hartuko dituen teoriak lanen berrikuspen guztiz baliotsua eskaintzen zaio irakurleari. Hainbat eta hainbat kontzeptu argitzen zaizkigu hurbilketa pragmatiko desberdinak jorratuz. Eta hori ere ez da ahalegin makala.

Bi ohartxo amaitu baino lehen.

Asmorik onenaz ibilita ere, gisa honetako hurbilketa bat akats eta ahuldade gabea eta irakurle guztien gustukoa izatea, oraingoz ezinezkoa iruditzen zait.

*HITZAURREA*

Honako hau, edozein kasutan, hitzaurrea da, beti ere azken hitzik esateko asmorik gabe burutua. Halatan, bestek –eta zuk zeuk, irakurle– esango du hitzostea.

Ugaldu dadila gure baratzean diskurtso-azterketaren lorea.

Ernetzen ikusi duguna, aldi bat igaro ondoren, mardula(goa) aurkitu dezagula.

LUIS MARIA LARRINGAN





## ESKER ONAK

Oso jende gutxik irakurri ahal izan du lan hau orain arte, lehen bertsioan; izan ere, tesi lan bat zen, eta tesiek ez dute bide samurra izaten mundu akademikotik mundu zabalagora igarotzeko. Nire lan honek zorte hori izan du, mundu zabaleko argia ikusteko, eta Euskaltzaindiaren eskutik egiteko zoriona egokitu zaio gainera.

Liburu hau doktorego tesiaren bertsio ukitua da, Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketa sailean mamitua, eta Gasteizko Letra Fakultatean irakurri zena 2009ko otsailean. Tesiaren epaimahaian izan ziren Joxe Azurmendi, Jean-Paul Bronckart, Helena Calsamiglia, Itziar Idiazabal eta Matilde Sainz Osigana irakasleak, eta eskertu nahi dizkiet egindako oharrek eta galderak, lagungarriak izan baitzaizkit argitalpen honi ekiteko orduan.

Liburuak sermoia zer den azaltzea du xede, beti ere, sermoia hizkuntzazko gertaera eta objektu diskurtsibo gisa kontsideraturik. Norbaitek galde lezake nola gertatu ote zen sermoia aukeratzearen kontua, zergatik aukeratu hain justu genero hau, eta ez beste bat. Joseph Conradengan aurkitu nuen erantzun posible bat, alegia, hizkuntza ez duela norberak aukeratzeko, ezpada hizkuntzak berak aukeratzeko dituela bere idazleak...

Orrialde hauek ez dira, hala ere, lan bakarti eta pertsonalaren fruitu soilik. Bada, ideia, enuntziatu, hautu lexiko eta sintaktiko bakoitzean, beste ahots askoren oihartzuna, agerian izan edo inplizituan. Eta hala, ahots multzo aberats horrek gidatu, bideratu, lagundu, maitatu (norbaitzuk jasan ere bai...) esku artean duzun lan hau.

Eskerrik asko familia eta lagunei euren ahotsak izan direlakoadore-iturri eta babes eta akuilu.

Eskerrik asko Mondragon Unibertsitateari eta HUHEZI fakultateari ere lan hau egiteko eman didan babesagatik. HUHEZIKo Miker taldeko kideekin

kitatu ezin daitekeen zorra dut, Eneritz Garro, Karmele Perez Lizarralde, Diego Egizabal, eta, bereziki, Matilde Sainz Osingarekin. Eskerrik asko Pili Sagastari ere, haizea beti bizkarretik bideratzen dakielako. ELEA taldeko kideak ere solaskide egoki izan ditut: Amelia Barquín, Nerea Alzola, Monika Madinabeitia eta Ane Urizar. Eta lankide estimatu diren Arantza Mongelos, Begoña Pedrosa eta Julia Barnes. Aipatu nahi ditut Pello Añorga, Xabier Arregi eta Maite Garcia ere. Baita Josune Zabala adiskidea.

Eskerrik asko Eskoriatzako Irakasle eskolan izan nituen irakasleei, Jesus Garmendiari bereziki, eta Julen Arexolaleiba, Mitxel Kaltzakorta eta Xabier Mendigureni. Gasteizko Letren Fakultatean asko ikasi nuen Joseba Lakarra, Lourdes Oñederra, Koldo Zuazo eta Iñaki Caminorekin, eta beti eman nahi izan dizkiet eskerrak horregatik.

Eskerrik asko urte hauetan izan ditudan ikasleei, euren oihartzunak ere hemen dira, mintzairaren inguruko lanean, lanok didaktikarekin lotzeko nahiean.

Eskerrik asko Zarauzko frantziskotarren komentuko liburuzain Aita Berazari, Agirre Asteasukoaren obra eskura jartzeagatik. Baita Gasteizko Seminarioko liburuzain Andres Ibañezi ere, Agirre Asteasukoaren liburutegiaren gaineko irakurketa kualifikatua egiteagatik. Pello Joxe Aranbururi, emandako materialengatik. Eta bereziki Emiliano Ozaeta beneditarrari Estibalizko monastegiko liburutegian eskaini zidan arratsaldeagatik.

Eskertu nahi dut, orobat, Itziar Idiazabal irakaslea euskararen testu eta diskurtso analisirako jarritako bideengatik.

Eskerrik asko Euskaltzaindiari lan hau argitara emateko aukera eskaintzeagatik.

Eta azkenik, eskerrik asko tesiaren zuzendaria Luis Mari Larringan irakasleari tesia den *itinerarium linguae* eta *itinerarium vitae* horretan bidaide izan dudalako, ideia emaila etengabe, zorrotz eta berritzaile. Beraren ahotsa dago indartsu hemen, eta baita ezinbestean, etorkizuneko lanetan ere.

# AURKIBIDEA

<b>0. SARRERA</b> .....	1
0.0. Xede-asmo zahar eta berriagoak .....	3
0.1. “Etxeak behar, eta bideak ekarri”: Roulet, Filliettaz & Grobet (2001) ..	7
0.2. Lanaren egitura .....	9
0.2.1. <i>Corpusa</i> dela-eta .....	9
0.2.2. Kapituluaren –moduluaren– ibilbidea, hurrenkera eta eraketa ....	10
0.3. Oharrak .....	13
<b>1. KAPITULUA: DISKURTSOAREN PRODUKZIO BALDINTZAK. AGIRRE ASTEASUKOA (1742-1821): GIZONA ETA MENDEA.</b> ....	15
1.0. Atarikoak .....	17
1.1. Agirrearen bizitza .....	21
1.1.1. Agirre apaiz .....	22
1.2. Agirrearen mendea (diskurtoaren espazio-denborak) .....	25
1.3. Agirre idazle .....	29
1.3.1. Sermoa produktu historiko gisa .....	29
1.3.2. Agirrearen proiektua .....	34
1.3.3. <i>Confesioco eta Comunioco Sacramentuen gañean Eracusaldiac</i> (1803) .....	35
1.3.4. <i>Eracusaldiac</i> (1850) .....	36
<b>2. KAPITULUA: SERMOIA TESTU-SEMANTIKAREN ARGITAN.</b> ....	41
2.0. Moduluarri sarrera .....	43
2.1. Oinarri teorikoa .....	44
2.2. Lan-metodologia .....	48
2.3. Hipotesiak .....	49

2.4. Analisia eta iruzkinak . . . . .	49
2.4.1. <i>Eracusalldiac</i> trilogia: liburukien egitura eta banaketa . . . . .	52
2.4.2. Hiru izendatze: “Eracusalldiac”, “Itzalldiac edo Platicac” eta “Bederatziurrenac” . . . . .	56
2.4.2.1. “Eracusalldiac” . . . . .	56
a) Hasiera fasea . . . . .	57
b) Itxiera fasea . . . . .	59
c) Garapen fasea . . . . .	60
c.1) Garapen fasea eta garapen eskemak . . . . .	61
c.2) Garapen fasea irizpide modalen argitan . . . . .	63
2.4.2.2. “Itzaldi edo Platicac” . . . . .	65
a) A moldeko Platicak eta B moldekoak . . . . .	66
2.4.2.3. “Bederatziurrenac” . . . . .	71
a) Hasiera fasea . . . . .	73
b) Itxiera fasea . . . . .	74
c) Garapen fasea . . . . .	74
2.4.3. Testu moten erkatzea: ondorioak . . . . .	75
a) Hasiera faseak . . . . .	75
b) Itxiera faseak . . . . .	76
c) Garapen faseak . . . . .	76
2.4.4. Sermoiene paragrafoak . . . . .	79
2.5. Konklusioak . . . . .	79
<b>3. KAPITULUA: SERMOIA ILOKUZIO-PRAGMATIKAREN ARGITAN .</b>	<b>81</b>
3.0. Moduluari sarrera . . . . .	83
3.1. Oinarri teorikoa: hizketa-egintzen teoria . . . . .	84
3.1.1. Abiapuntua: Austin . . . . .	84
3.1.2. Searle-ren ekarpena . . . . .	86
3.1.2.1. Hizketa-egintza motak eta ilokuzio ahalmena . . . . .	88
3.1.2.2. Ilokuzio ahalmena edo potentzial ilokuzionala . . . . .	88
3.1.2.3. “Hizketa-egintza” edo “hizketa-egintza”? . . . . .	90
3.1.2.4. Ilokuzio-esanahia atzemateko irizpideak . . . . .	92
3.2. Hipotesiak . . . . .	93
3.3. Analisia eta iruzkinak . . . . .	93
3.3.1. Hizketa-egintza asertziozkoak . . . . .	94
3.3.2. Hizketa-egintza deklaratioak . . . . .	95
3.3.3. Hizketa-egintza preskriptiboak . . . . .	96
3.3.4. Hizketa-egintza promisiiboak . . . . .	97

3.3.5. Hizketa-egintza erregulatzailerak . . . . .	98
3.3.6. Hizketa-egintza kontrolatzaileak . . . . .	99
3.3.7. Hizketa-egintza adierazkorrak . . . . .	101
3.3.8. Zenbait iruzkin . . . . .	102
3.3.9. Makro-egintzaren premian eta xerkan . . . . .	104
3.4. Konklusioak . . . . .	114
<b>4. KAPITULUA: SERMOIA INTERAKZIONISMO SOZIO-DISKURTSIBOAREN ARGITAN: PERTSONA IZEN-ORDAINAK ETA BERBALDI EKARRIA . . . . .</b>	<b>117</b>
4.0. Moduluari sarrera . . . . .	119
4.1. Oinarri teorikoa: Nozio batzuk argituz . . . . .	122
4.1.1. Diskurtsoa . . . . .	123
4.1.2. Enuntziazioa . . . . .	124
4.2. Metodologiako erabakiak . . . . .	128
4.2.1. Roulet, Fillietz eta Grobet (2001) . . . . .	129
4.2.2. Ducrot (1984) . . . . .	130
4.3. Hipotesiak . . . . .	133
4.4. Analisia eta iruzkinak . . . . .	134
4.4.1. Pertsona-izenordainak . . . . .	134
4.4.1.1. Informazio linguistikoa . . . . .	134
4.4.1.1.1. Gramatikaren ikuspegia . . . . .	134
4.4.1.1.2. Ikuspegia hedatuz . . . . .	136
a) Pertsona-izenordainen elkarrekinak: aditz eta esamoldeak . . . . .	137
b) Izenordainak banaka eta elkarrekiko . . . . .	145
b.1. NI . . . . .	145
b.2. ZU/ZUEK . . . . .	150
b.3. GU . . . . .	151
b.4. HURA/HAIEK . . . . .	154
4.4.1.2. Interakzio-informazioa . . . . .	156
4.4.1.2.1. Izenordain eta predikatuen interakzio-baldia . . . . .	157
4.4.1.2.2. Izenordainak banaka eta elkarrekiko . . . . .	160
a) Gai jartzaile eta programaren ardura-dun . . . . .	160
b) Hitzaldia hasi, itxi, moztu, aldatu . . . . .	162
c) Bideratzaile eta programatzaile rola . . . . .	162
d) Irtenbideak, aholkularitza eta gidaritza . . . . .	163

e) Ebaluatzailea . . . . .	164
f) Erreziprozitatetik eza . . . . .	164
g) NI-ren urtzea . . . . .	167
4.4.1.3. Informazio sozio-diskurtsiboa . . . . .	167
4.4.1.3.1. Pertsona-izernordainen banaketa kontrola- tua . . . . .	168
4.4.1.4. Konklusioak . . . . .	171
4.2. Analisia eta iruzkinak: Berbaldi ekarria . . . . .	172
4.2.1. Izenaz eta izanaz . . . . .	172
4.2.2. Hipotesiak . . . . .	175
4.2.3. Berbaldi ekarriaren sailkapenak . . . . .	175
4.2.3.1. Berbaldi <i>ekoiztua</i> vs berbaldi <i>ekarria</i> . . . . .	176
4.2.3.2. Berbaldi <i>izenatua</i> vs <i>formulatua</i> vs <i>implizitua</i> . . . . .	178
4.2.3.3. Berbaldi <i>autofonikoa</i> vs <i>diafonikoa</i> vs <i>polifonikoa</i> . . . . .	180
4.2.3.4. Berbaldi <i>benetakoa</i> vs <i>birtuala</i> . . . . .	181
4.2.4. Berbaldi ekarria: Informazio linguistikoa . . . . .	185
4.2.4.1. Ezaugarri sintaktikoak eta beste adierazle batzuk . . . . .	185
a) Berbaldi ekarria markatzeko baliabideak . . . . .	185
b) Esatezko aditzak . . . . .	189
c) Esatezko aditzaren kokagunea . . . . .	189
d) Sarrera-aditzen ispilu-jokoa . . . . .	192
e) Tipografiaren erabilera . . . . .	194
f) Latina . . . . .	195
g) Adierazle axiologikoak . . . . .	195
h) “Ala-bezala-dioenez” . . . . .	197
i) Erreferentzia zehaztugabeko berbaldi ekarriak . . . . .	200
4.2.5. Berbaldi ekarria: Interakzio-informazioa . . . . .	203
a) Kopurua . . . . .	203
b) Zuzeneko Berbaldia eta Zehar Berbaldia . . . . .	204
c) Esatezko aditzak . . . . .	209
d) Esatezko aditzen kokagunea . . . . .	209
e) Sarrera-aditzen ispilu-jokoa . . . . .	211
f) Tipografiaren erabilera eta latinaren balio enuntziatiboa . . . . .	212
g) Adierazle axiologikoak . . . . .	213
h) “Ala-bezala-dioenez” . . . . .	213
i) Erreferentzia zehaztugabeak . . . . .	214
4.2.6. Berbaldi ekarria: Informazio sozio-diskurtsiboa . . . . .	221
a) Hiru barruti: A/B/C . . . . .	221
b) Berbaldi ekarriaren ugaritasuna bai, ez edozein, ordea . . . . .	226
c) ZuBe/ZeBe modalitateen balio sozio-diskurtsiboa . . . . .	227

d) Aipuen harrobia dela-eta . . . . .	230
e) Aipua-iruzkina bikotea . . . . .	231
4.2.7. Konklusioak . . . . .	233
<b>5. KAPITULUA: SERMOIA ERRETORIKAREN ARGITAN . . . . .</b>	<b>235</b>
5.0. Sarrera . . . . .	237
5.1. Oinarri teorikoa . . . . .	240
5.2. Lan metodologia . . . . .	243
5.3. Analisia eta emaitzak . . . . .	244
5.3.1. Intentsitatea eta extentsitatea . . . . .	244
5.3.2. Kontuhartze enuntziatiboa . . . . .	250
4.4. Konklusioak . . . . .	253
<b>KONKLUSIO OROKORRAK . . . . .</b>	<b>257</b>
<b>BIBLIOGRAFIA . . . . .</b>	<b>267</b>
<b>ERANSKINAK . . . . .</b>	<b>289</b>
I. <i>Eracusalldiac-1</i> liburukiaren antolaketa . . . . .	291
II. <i>Eracusalldiac-2</i> liburukiaren antolaketa . . . . .	293
III. Sermoi-moldeen adibideak . . . . .	295
<i>Eracusalldiac</i> . . . . .	296
<i>Platicac</i> . . . . .	309
<i>Bederatziurrenac</i> . . . . .	334





## **0. SARRERA**



## 0.0. XEDE-ASMO ZAHARRAK ETA BERRIAK

Idazle “klasiko” bat irakurtzea (edo berrirakurtzea), egun, erakargarria izan ohi da irakurlearentzat, “pixka bat denetik” irakurtzen duen horrentzat. “Euskal” idazle “klasiko” bat aukeratzeak, ia ezinbestean, harremanetan jartzen gaitu prosa erlijiosoarekin. Euskararen kasuan, prosa literarioaren (eta zibilaren) jatorriak aztertuko badira, prosa erlijiosora jo beharko da. Eta hemen sortzen da galdera: sermoia objektu literariotzat hartu? Gure literaturaren historietan, dakigun bezala, halakotzat jotzen da ezinbestean. Lan honi ekiteko orduan, gure posizioa ere horixe izan da, objektu literariotzat hartzea sermoiak, biltzen dituelakoan Bronckart-ek (1997: 13) seinalatzen dituen bi ezaugarriok:

“Une oeuvre est littéraire si d’une part elle témoigne d’une mise en oeuvre originale et habile des ressources de la langue, et si d’autre part elle véhicule et organise des thématiques et des valeurs susceptibles d’“enrichir” les lecteurs. Combinaison donc d’un critère esthétique et d’un critère moral”. Bronckart (1997: 13)

Jakina, literaturaren kontzeptio horrek modu estatikoan kontenplaten ditu balore estetikoak eta moralak, kontuan hartu gabe euren dimentsio historiko edota sozialak. Baina, balore estetiko eta moralak, norentzat? Zein formazio sozialentzarako? (“enrichissement moral pour qui, au bénéfice de quelle formation sociale?; Beauté formelle aux yeux de qui, de quelle classe et/ou de quelle génération?” (Bronckart, idem).

Sermoia objektu literarioa ote? Nork eta zerk ebazten du *literaturtasuna*? Sermoia objektu literario ote den zehaztea ez litzateke lan hutsala izango, bereziki gure literaturaren historian *genus sermocinandiak* duen toki eta garrantziagatik. Ez da hori, nolana ere, liburu honen egiteko lehena. Edozein ka-

sutan, kapituluetan barrena irakurleak topo egingo du literaturtasun zantzu batekin: pertsuasioarekin, planteamendu platonikoekin (mundu erreal/mundua ideal), erretorikaren harilkatzearekin... Horrenbestez, gure ikuspuntutik sermoia “L larriz” idazten den Literatura ez bada, “l letra ttikia” onartzen duen literaturatzat hartuko dugu, bederen.

Tesiak izan du bere historia (nork eta zerk ez!). Lan honen hasieratan, artean sermoia literatura ote zen planteatzen ez nuen garaietan, pentsatu nuen Agirre Asteasukoaren sermoigintza azter zitekeela erretorika klasikoaren markoaren baitan. Hautua logikoa eta justifikatua ere bazen, idazle “klasiko” baten testuen analisisa egin, diskurtsoak ontzeko/aztertzeke molde “klasikoaren” talaiari baliatuz. Ez da sekretu erlijio idazleek/predikariek erretorika erabili dutela asmo proselitistekin, erlijioak hedatzeko asmoz. Barthes-en esaldiak ere bazuen iradokizunik asko: “Mundua erretorika zaharrez beterik dago” (1979: 7). Erretorika, egia da, hitz balioanitz dela: Michel Meyer-ek (1994: 16-18), esaterako, zazpi adiera aitortzen dizkio “ongi” hitz egiteari. Horietako adiera bat, alderdi *elokutiboa*, tropoena eta figurena (“faire usage d’un langage figuré et stylisé, le littéraire”, Meyer op.cit. 18. or.), erabat neutralizatu zen poetikarekin, eta bazegoen alderdi horretatik sermoia literaturarekin lotzerik, Salaberrik Axularrekin egin zuen bezala (*Axularren prosa erretorikaren argitan* 1997). Guk hurbil genuen Salaberrik Axularri eskainitako lan hori eta, baita ere, ave fenixa bezala berpiztu den erretorikarekin lan egin duten beste lan garrantzitsu batzuk, idazle “klasiko” eta erretorika “klasikoa” uztartzen dutenak. Salaberrirenaz gain beste obra paradigmatico bat aipatzearen, horra López Muñoz-en *Fray Luis de Granada y la Retórica* (2000). Pentsatu nuen, hortaz, arrazoibide egokiak aurki zitezkeela haietan Agirre argitzeko.

Baina, zer diren gauzak!, erretorikaren “argitan” egin behar zen lana beste lan bat bilakatu zen. Dena, edo ia dena, beste modu batean gertatu zen. Zergatik, ordea? Arrazoi bat baino gehiago.

Gure *corpuseko* sermoiak erretorikaren begiradarekin ezaugarritzen hasita, ez ginen ahogozatu erretorikaren injinerutzak eskaintzen zigun bidearekin. Agirrerren obra ez da aberatsa tropo linguistikoetan: estilistikoki “pobrea” ere badela esaten ausart gintezke zentzu horretan. Hala ere, aberatsak eta konplexuak dira Agirrerren sermoiak, irakurleak segituan antzematen dio. Zertan dira aberatsak? Mintzaira praktika eta diskurtso praktika baten erakusgarri diren aldetik dira aberatsak eta kontuan hartzekoak.

Erretorikaren erredukzionismotik aldenduz (soilik edo nagusiki *elocutio* aztertuz), bestelako operazio erretorikoak ere har ginitzakeen, erretorika

*orokorra* deritzanari jarraituz, *inventio* eta *dispositio* ere aintzat hartuz (*actio* hain garrantzitsua izanik ere, erabat eskuragaitza zenez). Baina, orduan, ez ote zitzaigun llabur eta mugatu gelditzen lana? Ez ote zegoen sermoien deskripzioari ekiteko beste talaia berriagorik hizkuntzalaritzan? Hau da, bazegoen aipatu aberastasun eta konplexutasun haiek antzemateko modurik pragmatikaren eremu zabalean, literatura-analisiaren bide berrietan?

Ordurako, baina, gertatu zen beste “aldaketarik” ere: mintzairari buruzko nire ikuspegia aldatuaz joan zen, irakurketak tarteko: Bajtin, Voloshinov, Bronckart... “Aurkikuntza” egin nuen, hots, *Interakzionismo Sozio-Diskurtsiboa* (ISD) topatu nuen. Eta aipatu autore horien hurbilbideak eta planteamenduak kontuan hartzen hasi nintzen.

Halatan, sermoiak ISD terminotan pentsatuz, esango dugu “mintzairajardueraren produktuak” direla. Mintza-jarduera oso anitza dela irudituko zaigu, erreperitorio ugariako hiztun baikara, baina, beti ere “antolatua” dago mintzaira, “funtzio jakin” batzuk ditu, “generoan” txertatuko da. Hala dio Bajtin-ek:

“En cualquier esfera existen y se aplican sus propios géneros, que responden a las condiciones específicas de una esfera dada; ( ). Una función determinada (científica, técnica, periodística, oficial, cotidiana) y unas condiciones determinadas, específicas para cada esfera de la comunicación discursiva, generan determinados géneros, es decir, unos tipos temáticos, composicionales y estilísticos de enunciados determinados y relativamente estables”. Bajtin (1994 [1929]: 254)

Arrazoibide horiek haizaturik, eta izanik sermoia horren praktika egonkorra eta errekonoziblea gure hizkuntzan (Agirre Asteasukoaren trilogia ikusi besterik ez dago), nola kontenplatu mintzaira? Objektu ukroniko eta utopiko gisa hartu, “inongoa eta inoizkoa” ez dena? Ala, kontrara, ez ote da mintzaira moldatuaz joan historiaren joan-etorrian interakzio-fenomenoerik esker? Ez ote zen posible hizkuntza erakundeekin lotzea, eta aro jakinekin? Hizkuntza, finean, “pour la vie social” egina delarik... (Saussure, Bronckart-ek aipatua 2005: 153). Sermoiak ere “pour la vie social” burutuak izan ziren dudarik gabe... Kontsiderazio hauek erakargarri egiten zitzaizkidan. Eta hortik jotzea deliberatu nuen.

Mintzairaren eta hizkuntzaren esparruan gaudela, izan ere, bada, gaur egun, haren analisi objektua hedatzeko ahaleginik. Mintzaira eta hizkuntza fenomenoak aztertzen dituzten zenbait ikuspegik eta korrontek, –azterketa pragmatiko guztiek, esaterako– analisi sintagmatikoak eta sintaktikoak

gainditzea dute helburu, eta hori betetzeko jotzen da, alde batetik, testu-inguruaren alderdia kontuan hartuz, eta bestetik, mintzairaren planteamendu funtzionala proposatuz, edota, azken boladan, baita hizkuntza giza jarduera sozial gisa ikustera ere. Mintzaira, erabilerari dagokionez, historiari, gizarteari eta kulturari estu-estu lotuta dagoela ikusten da. Ildo horretatik, are gehiago ere esango dugu oraindik: mintzaira gizakiontzat *elkarreragin* tresna ez ezik, *elkarreraginaren* produktu ere bada. Hala izanik kontuak, ISDak kontsideratzen ditu testua eta berbaldia (diskurtsoa) “mintzaira-ekintzaren” (*action langagiere, acción del lenguaje*) produktu gisa; eta mintzaira bera historian zehar sortutako lanabesa da, balio sinbolikoak hartu dituen.

Horrenbestez, bada, egoki iruditu zitzaigun sermoiak “jarduera diskurtzibo” gisa pentsatzea, edo, bestela esanda, txanponaren bi alderdi bereiz ezin bailiran, sermoia “jarduera sozial” espezifiko gisa ere hartzea. Eta, hortaz, egoki ere ontzea lana planteamendu horretan, hau da, ISDaren perspektiba kontuan hartuz. Horrela bada, tesirako eginkizun gisa sermoia genero bezala ezaugarritzea hartu nuen helburu.

Jakina, artean ere, egiteko luzeenak egiteke nituen. Lehena, nola definitu eta mugatu interakzionismo sozio-diskurtsiboa?; eta bigarrena, dimentsio horren mekanismoak zedarritzeko zein metodologia erabili?

Bronckart autoreak interakzionismo edo elkarreragin fenomenoaren analizean, hainbat mota bereizten ditu; gu geu lehenengoan kokatuko gara. Halaxe azaltzen du Bronckartek lehenengo interakzio mota zertan den:

“[...] parce que leurs caractéristiques dépendent aussi des choix délibérés effectués par certaines formations sociales, en fonction de leurs enjeux et de leurs objectifs propres (cf. La notion de *formations discursives* de Foucault 1969). Ces textes sont par ailleurs des unités *dépendentes*, en ce que leurs conditions d’ouverture et de fermeture sont déterminées par l’activité elle-même: [...] Ces deux caractéristiques témoignent d’un *premier type d’interaction, entre l’activité sociale et la langue*: ce sont globalement les propriétés de l’activité ordinaire, qui déterminent les formes de réalisation effective de la langue que constituent les différents genres de textes”. (Bronckart 2005: 153-154) (geuk azpiramatua)

Horrela, bada, elkarreragin motak edo mailak bereiziz, generoen sorreran kokatuz eta “diskurtso-formazioa” (*formations discursives*) nozioa ekarriz, aukera ematen zaigu diskurtsoaren analisi korronte(eta)ko ekarriak baliatzeko (Foucault bera, Maingueneau, eta abar).

Izan ere, argi dago interakzioen berri emateko “berbaldiaren analisi” (*analyse de discours, análisis del discurso*) deitutako korronteetara hurbildu beharra dagoela. Baina berbaldiaren analisiaren barruan metodo eta eredu ugari dago. Ba ote dago metodologia egokirik interakzionismoaren perspektibarekin lotzeko? Nola lotu elkarreragin perspektiba eta berbaldiaren analisia?

Arazo metodologikoa, izan ere, partez soilik geneukan konpondua berbal-di analisiaren bidez; zeren, esan bezala, gure asmoa sermoia ezaugarritzea baitzen, modu globalean ezaugarritu ere: praktika testual eta diskurtsibo gisa zer tasun izatezko zituen zedarritzea. Horretarako eta ISDaren aldeko hautua egina genuenez, deskribatu beharra genituen, batetik, *eredu bertikala*, eta, bestetik, *eredu horizontala*. Bestela esanda, uztartu beharra genuen arestian aipatu dugun “aktibitate sozialetik” eta erakundetik eratortzen den mintzaira-moldea (Voloshinoven hitzetan esateko, begirada “deszendente” edo “goitik-beherakoa” baliatuz 1992 [1929]); eta, bestetik, eredu “horizontalean”, sermoia unitateen eta kategorien deskripzioari ekin behar zitzaion. Ez zen samurra metodologiaren hautua. Denbora guztian Bajtinen hitzek akuilatzen gintuzten, “masa berbal handiak” nola deskribatu? Euren “sintaxia” nola zedarritu?:

“La linguistique [...] n’a absolument pas défriché la section dont devraient relever les grands ensembles verbaux : longs énoncés de la vie courante, dialogues, discours, traités, romans, etc. car ces énoncés-là peuvent et doivent être définis et étudiés, eux aussi, de façon purement linguistique, comme des phénomènes du langage. [...] La syntaxe des grandes masses verbales [...] attend encore d’être fondée ; jusqu’à présent, la linguistique n’a pas avancé scientifiquement au-delà de la phrase complexe : c’est le phénomène linguistique le plus long que ait été scientifiquement exploré. On dirait que le langage méthodiquement pur de la linguistique s’arrête ici”. (Bakhtine 1978: 59, Adam 2002: 83-tik hartua eta geuk azpimarratua)

Nola deskribatu gure *corpuseko* testuen “masa berbala”, nola heldu sermoien konplexutasun eta aberastasunei? Lan honen bigarren “aurkikuntza” egin genuen, horra.

## 0.1. “ETXEAK BEHAR, ETA BIDEAK EKARRI”: ROULET, FILLIETTAZ & GROBET (2001)

Bidegurutze honetan, gure “etxea” lanerako marko metodologiko baten premian zegoen, eta Roulet, Fillietaz eta Grobet autoreek ekarri digute. (Esan

behar da, bidenabar, Bronckart-ek berak ere ahalegin seriotzat hartzen duela proposamena; Bronckart 2004: 79-81; ikus orain lan horren gaztelerazko bertsioa in Miño & Dávila editores 2007). Eredu hori ez dago garatuta Voloshinoven (1991 [1929]) arabera, baina halaz guztiz bateragarria da haren proposamenekin, jarraian azalduko dugunez.

Hasteko, baliatuko dugun eredu honetan onartzen da interakzionismoaren “goitik-beherako” planteamendu metodologikoa, hau da, abiaburuak jartzea ezaugarri global edo antropologikoetan, gero erreparatzeko barne antolaketan gordetzen diren propietateei. Azken finean, propietate horiek mintzairaren moldaketa historiko partikularren arabera taxutuak izan dira.

Roulet, Filliettaz eta Grobet-en eredu honek *modulu* bidezko lanabesa edo dispositiboa proposatzen du; hau da, objektu bat konplexua izanik, posible da atalkatzea. Horrela, objektu bat zatikatu daiteke *informazio simple* eta *nozionalki* independente diren sistema-kopuru batean, lanaren *antolaketa moduak* determinatzen dituztenak (op.cit. 42. or.).

Bestalde, eredu modularra hautatzea eta interakzionismoaren ikuspegia bateragarriak dira. Onartzen da elkartzeko hau eta ontzat ematen, bi baldintzapean: a) Planteamendu modularra egiten da *corpusa* deskribatzeko *ad hoc* egindako hipotesien arabera, beraz, soilik *hipotesi metodologiko* gisa hartzen bada; b) Moduluak ez dira hartu behar konpartimendu itxi, autarkiko edo beregain gisa, baizik eta elkarri begira egon behar dute, elkarren osagarri.

Galde daiteke orain: zergatik behar dugu “modulua” metodologia gisa? Zer abantaila ekartzen digu horrela planteatzeak? Gure ustez, modularitateak ahalbidetzen digu *corpuseko* testuen konplexutasunari aurre egitea, izan ere, testuaren gaineko hegaldiak (*volet*) egitea ontzat ematen digu, egindako hipotesien arabera beti, eta uko egin gabe mintzairari buruz dugun ikuspegi interaktiboari eta historikoari. Horrenbestez, sermoiak duen konplexutasunari (unitate guztiak konkurrenteak direnez gero), aurre egiteko ate bat irekitzen zaigu.

Gauzak horrela, sermoiak aztertze bost modulu egitea erabaki dugu. Ikusiko dugun moduan, analisiari berari lau eskainiko dizkiogu. Modulu bakoitzari kapitulu bana esleitu diogu:

1. Modulua: Jakingarri soziologikoak aurkezten dira (idazlearen bizitza, garai historikoa eta obra);
2. Modulua: Sermoiak testu diren aldetik aztertzen dira (esanahi testuala eta testu-semantika antzematen dira);



3. Modulus: Sermoien ilokuzio-esanahia antzematen da (hizketa-egintzen azterketa eginez);
4. Modulus: Sermoien analisi enuntziatibo-diskurtsiboa egiten da (beti ere alderdi sozio-diskurtsibo edo “goitik-beherako” norabide horren bila);
5. Sermoien erretorika nola zedarritu proposatzen da (sermoin eredu erretorikoaren analisisia).

Bistan denez, lehen modulus –edo kapitulua– ez da mintzaira barnekoa, analogiaz izendapen hori eman diogun arren. Baina beharrezkoa dugu, lagungarria baita elkarreragin alderdiak argitzeko. Instantzia enuntziatiboaren eta mintzairaren arteko hartu-emanak deskribatu behar ditugunez, behar dugu jakin zein testuingurutan txertatzen den enuntziazioa bera.

Ondorengo puntuan, modulu bakoitzaren nondik norakoak aurkezten ditugu, baita *corpusa* hautatzeko arrazoiak ere.

## 0.2. LANAREN EGITURA

### 0.2.1. *CORPUSA DELA-ETA*

Agirre Asteasukoa hautatzeko irizpideak *corpusaren* ezaugarriek baldintzatzen dituzte, kantitatez eta kalitatez esanguratsua denez gero *Eracusaldiac* obra. Agirrerren prosari, gainera, prosa erlijiosoan gutxitan ikusten den sen, “jatortasun” eta irakurketa gozatsua atzematen zaizkio.

Gure hautua *Eracusaldiac* (1850) aztertzea izan da, sermoi dotrinalez osaturiko trilogia bat. Albo batera uzten dugu publikatu zuen beste obra (bizitzan publikatu zuen bakarra), *Confesioco eta Comunioco Sacramentuen gañean Eracusaldiac* (1803). Bi arrazoi izan ditugu hautu hau egiteko: batetik, izanik azken obra honen parte bat umeentzako dotrina, *corpusaren* homogeneotasuna galduko genukeelako; bestetik, liburu horretan erabilitako gaiak eta moldeak oso ugari aurkitzen direlako *Eracusaldiac* obran. Beraz, ez da idazle baten obra osoaren azterketa, molde batzuen idazlanen azterketa baizik

Agirrerren sermoiak, orobat, ez ziren Asteasuko parrokiari esateko idatzi, edo ez bederen han soilik esateko sortu. Aitzitik, sermoiak beste apaiz batzuek erabiltzeko idatziak izan ziren, sermoi *eredu* izateko (cf. obraren eskaintza, hiru liburukietan, “Esqueintzen diezte Apaiz Euscaldunai”, ikus eranskinak,

296, 309, 348. or.). *Corpusaren* ezaugarri horrek bihurtzen du pertinente sermoia genero bezala ezaugarritzeari ekitea. Kuantitatiboki ere garrantzia du obrak, *Eracusaldiac* hiru liburukiz osaturiko obra mardula da, 1.500 orrialde baino gehiago batzen ditu guztira.

Esango dugu, orobat, ISDaren ikuspegitik, sermoia ekoizpen “instituzionalizatua” dela, hau da, enuntziatio mailan oso mugatutako mintzaira praktika, praktika hori gauzatu delarik historikoki, gauzatu ere, lehenik ahozko mintzairan eta ondoren idatziz (gero, praxian, alderantziz izango den arren: lehenik idatzi, eta gero ahoz jaulki). Sermoiak idazteari ekite hori gure Mendebaldean XVII. mendetik aurrera gauzatuko da.

Sermoietako testuak beti ere tradiziozko hizkera-molde batzuen buruztapan eta arrastoak dira: genero berekoak, esango genuke. Gisa horretara, testu horietan gorabehera sozio-historikoak (mintzairan *erregulartasun diskurtsibo* gisa agertuko direnak) errazago antzeman ahalko dira.

Ezaugarri horiek guztiek, eta *corpusaren* homogeneotasunak, eragiten dute egin dugun planteamendurako. Ondorioz, pentsatzen dugu konklusioek ere hedatze indarra irabazten dutela.

### 0.2.2. KAPITULUEN –MODULUEN– IBILBIDEA, HURRENKERA ETA ERAKETA

Lan honek, sarrera orokor honetaz gain, 5 kapitulu (modulu) ditu eta hondar-konklusioak. Modulu bakoitza, esan bezala, hegaldi bat da *corpusaren* gainean, metodologikoki egin testuaren konplexutasuna “atalkatu” beharrez. Kapitulu bakoitzaren barnean ematen dira dagozkion argibideak, hots, moduluen justifikazioa, zer ezaugarri duen, eta nondik-norakoa. Adierazten dira, halaber: marko teorikoa, metodologia, emaitzak eta iruzkinak. Gauzak horrela, eman lezake kapitulu horietako bakoitza beregaina edo autonomia dela. Baina, gorago esan bezala, bata besteari irekita dago, inklusiboak dira; banatzea “nozionala” da soilik. Guztiek lan egiten dute lan honen ideia nagusiaren alde: *sermoien ezaugarritze diskurtsiboa* egitea, egin ere, produktu interaktibo gisa harturik.

Hona, labur, bost modulu horien aurkezpena:

1) Aurreneko kapituluan (“Diskurtsoaren produkzio baldintzak. Agirre Asteasu-koa (1742-1821): gizona eta mendea”), egilearen, idazlearen eta idatzizko lanen berri ematen da. Halaber, bizi izan zituen gorabeherak eta men-

deari eta garaiari buruzko zenbait jakingarri hartarazten da. Ducrot autorea (1984) “être du monde” izendatuko lukeen hori aurkezten da, koordenada biografiko, espazial eta kronologikoetan. Kapitulu hau idaztea ez da formalitate bat guretzako, hau da, idaztea horrela egin ohi delako gisa honetako lanetan. Gure kasuan, mintzairaz dugun ikuspegiarekin estuki loturik dago (gizartea eta diskurtsoa, uztartuta ikusten baititugu hortik “sozio-diskurtziboa”).

Izan ere, enuntziatio-egoera zedarritzeko, ez da aski genero baten sartzea edo kokatzea, zeren eta ezinbestekoa da enuntziatio-egoeraino iristea, gora jotzea. Beste hitz batzuez esanda: diskurtso-formazioak (*formations discursives*, Foucault 1969) talde soziologikoen aurpegi linguistikoak dira. Beraz, talde soziologikoei dagozkien datuak ez dira linguistikaren baitakoak baina parametro determinatzaileak dira. Diskurtso-formazioak mintza-eszena ekoizten du, eta eszenako mintzaira-ekintza hori bermatzen eta legitimizatzen du. Horixe ditugu hitzaren protagonistak (enuntziatzailea, enuntziatzaile-kidea, espazioa, denbora), hots, interakzio-protagonistak eta gainerako parametroak. Eta beren posizioak –posizio sozialak– mintzairaren *bitartez* gauzatzen dira, eta mintzaira unitateen *kontrola* eragiten dute. Horregatik, pertinentea deritzogu talde sozialen gaineko datuak ere aurkeztea eta eskura izatea.

2) Bigarren modulu/kapituluan (“Sermioia testu-semantikaren argitan”) sermioen esanahi testuala estudiatzen da. Testua –ohartarazten gaitu testu-hizkuntzalaritzak– komunikazio unitatea da, ez da esaldi edo enuntziatuen batura edo multzoa; testuak bere ezaugarri propioak ditu, bere *berezkotasuna*. Testua zeinu bilakatzen da. Eta zeinu bada, zeren zeinu da? Zeinu horren adierazletzat hartu ditugu, oraingo honetan: mikro-egitura, makro-egitura eta super-egitura (van Dijk 1983). Halaber, paragrafoen egitura ere. Eta adierazle horien adierazia ezaugarritzeko hipotesi tipologikoa egin dugu, hots, *corpuseko* idazleak hainbat sermoi-molde bereizten dituelarik, badute egitura propiorik? Testu-generoaren ezaugarritzeari ekiteko ezinbesteko dugu balio tipologikoa atzematea. Halatan, sermioiak helburu jakin bat duten komunikazio gertaerak dira, eta egitura propioa izateak oso laguntzen du elkar ulertzea.

3) Hirugarren moduluan (“Sermioia ilokuzio-pragmatikaren argitan”) sermioen azterketa edo ezaugarritze ilokuzionala egiten da. Azterketa hori hizketa-egintzen teoriaren ekarriak kontuan hartuz egiten da, hau da, hizkuntza “gauzak egiteko” erabiltzen dugularik, Austinek (1961) esango zukeenez, ikusiko dugu sermioa zer gauza egiteko etorri zen. Hala ere, hizketa-egintzen hurbilbideak eta analisisa egiteko moduak baditu muga me-

metodologikoak, zeren eta enuntziatuen gainean egiten baita nagusiki. Gauzak horrela, gure lanean, hizketa-egintza partikularrak aztertzea inkoherentea zen aurreko kapituluan hartutako bidearekin, testua dugularik komunikazio unitate gisa. Beraz, erreduktionismo metodologiko hori gainditze aldera, sermoia makro-egintza bezala deskribatzeko hipotesia egingo dugu, eta aurrerapauso batzuk eman norabide horretako ezaugarritzean. Hizketa-egintzak, izan ere, hierarkizatu egin daitezke eta ekintza nagusi eta subsidiarioen artean bereizi. Sermoia den generoa berezia zein hizketa-egintza den zehazten saiatuko gara.

4) Kapitulu honek bete-betean jotzen du ISDaren alorra (“Sermoia interakzionismo sozio-diskurtsiboaren argitan: pertsona izen-ordainak eta berbal-di ekarria”). Bi adierazle aukeratzen eta aztertzen dira lotura hori erakusteko: batetik, pertsona-izenordainak, eta, bestetik, berbaldi ekarria (*discours rapporté, discurso referido*).

*Corpusean* bildutako testuen hizkuntza formak eta mekanismoak beti ere enuntziatio-egoerarekin kontsideratuz azaldu beharra dago, egoera horretatik baitute abiaburua eta azken hitza (Voloshinov 1992 [1929]). Hortik hartzen dute, orobat, estatutua, bermea eta legitimazioa. Mintzaira fenomenoak, izan ere, egitura enuntziatibo baten ondorio dira. Egitura horren elementuak polifonikoak eta dialogikoak dira, eta, ikusiko dugunez, alderdi sozio-diskurtsiboen menpe daude. Ondorioz, enuntziatio-instantziak ematen du “rola” (gure kasuan, sermoilaria/predikatzailea) eta aldi berean ematen du “testua” ere (gure kasuan, sermoia).

Modulu honetan gure hipotesia zera da: badagoela lotzerik alderdi diskurtsiboa marko sozial eta instituzionalekin. Beraz, estudiatu daiteke mintzaira gizarte harremanak sortzeko eta ezartzeko modu gisa; aldi berean, gizarte harremanok bideratzen dituzte diskurtso molde batzuk. Sermoia, horrela bada, instantzia enuntziatibo edo sozio-diskurtsiboak baldintzatutako eta legitimatutako praktika diskurtsiboa da.

5) Azken moduluan toki bat egiten diogu erretorikari. Badugu arrazoirik alderdi hori ez abandonatzeko. Izan ere, instantzia diskurtsiboak inposatzen dio sermoiarri erretorika molde bat, esateko modu batzuk, helburua (*movere, mugiarazi*) beteko badu.

Erretorika estilistika arazo gisa planteatuko dugu, eta horrenbestez, ahalegina egingo da erretorikaren inguruko banaketa historikoa (erretorika “osoa” eta figuren erretorika) gainditzen.

### 0.3. OHARRAK

XIX. mendeko testu baten irakurketa errazteko, bereziki filologia formazioziorik ez duen irakurleari begira, zenbait ohar egingo ditugu. Horrela bada, har bedi kontuan lan honetan zehar topatuko diren adibideetan agertzen diren kurtsibak testu orijinalean agertzen direnak direla. Kurtsibak hainbat bider eta eginkizun desberdinetarako darabiltza Agirre Asteasukoak: zitazio fenomenoetan ez ezik, nabarmendu nahi dituen hitzetan ere. Beraz, dakartzagun adibideetan guk geuk nabarmendu nahi duguna markatzeko letrakera grisantxa erabiliko da, eta kurtsibaz ageri diren atalak, gogoan izan, Agirrek berak jarritakoak dira. Lanean zehar hartaratzen diren azalpenetan eta argudioetan guk dabilzagun kurtsibak zerbait nabarmentzeko funtzioa izango dute.

Adibideen grafiari dagokionez, orobat, gorde dugu *Eracusaldiac* obran egileak erabilitakoa (hortaz, “Cerua”, “Cristauac”, “eguia”, “berarequin” eta abar topatuko du irakurleak). Ber gauza egin dugu puntuazioari dagokionez, obra orijinalean dauden bezala erreproduzitu ditugu puntuazio ikurrak gure adibideetan, eta, hala, ugari baino ugariago diren komak antzemango dira, gaur egungo irizpideekin bat egiten ez duen sistema batean.

Hartaratuko ditugun adibideetan barrena hainbat letra ager daiteke testuan integraturik, modu honetan agertu ere “(a)”, “(b)”, “(c)”, eta abar. Letra horiek sermoilariak jarriak dira eta erreferentzia egiten diete sermoi ostean agertzen diren aipu eta oharrei.

*Eracusaldiac* obrako hiru liburukiak A, B eta C izendatu ditugu. Letra horiek ez dira inondik ere nahastu behar 2. kapituluan bereiztu ditugun A, B eta C blokeekin, eta ezta 4. kapituluan bereiztu ditugun A, B eta C barrutiek ere. Letrak berberak izan arren, erabilera testuinguruak argitzen du tokian-tokian zein den letron funtzioa. *Eracusaldiac* izendapena darabilgunean, obra osoari egiten diogu erreferentzia (hiru liburukiei). Baina obraren barruan egileak hiru sermoi-molde bereizten dituelarik: “Eracusaldia”, “Itzaldia edo Platica” eta “Bederatziurrena”; horiek izendatzeko *Eracus*, *Plat* eta *Bed* laburdurak baliatzen ditugu, hurrenez hurren. Modu horretan saihestu nahi da irakurleak ez bereiztea noiz den obra osoa erreferentzia, eta noiz obraren baitan dagoen sermoi-moldea.

Egun Agirreraren *Eracusaldiac* obra osorik eskuratzea zaila da, horregatik irakurleak hiru moldeetako sermoi ale batzuk topatuko ditu “Eranskinak” atalean, eta bereziki da gomendagarria hara jotzea 2. kapituluan, testu-azalera deskribatzen denean. Hain justu, 2. kapituluan aipatzen diren sermoietako batzuk aukeratu ditugu eranskinetan jartzeko.

Gure lanean zehar *Eracusaldiac* obratik ekarritako adibideen hasieran, parentesi artean, bina zenbaki agertzen dira. Aurrenak, kapituluari egiten dio erreferentzia; bigarrenak, berriz, kapitulu horretako adibide zenbakiari.

Marratxoia soilik erabili da gure gaierekiko espezifikoak diren hitz elkarke-tetan: *mintzaira-jarduera*, *komunikazio-egintza*, *hizketa-egintza*, eta abar seinatatzeko, eta irakurketa erraztu aldera. Osterantzean, hitz elkarketa arruntagoak gertatzean, ez da marratxorik erabili, Euskaltzaindiako araudiak ezartzen dituenak salbu.

Eranskinetara dagokienez, lan honen bukaeran jarri ditugu *Eracusaldiac* obraren sermoi batzuk irakurleak eskura izan dezan Agirrerren obra originalaren “arnasa” bere horretan, letra motarekin, puntuazioarekin, grafiarekin. Testu horiek Hordagok 1978an egin zuen edizio faksimiletik aterata daude, baina gaur egun agortuta dago eta zaila izan daiteke obra hura eskuratzea. Eranskin horietara jotzeko oharrak egiten dira, baina ez daude eranskinetan lanean zehar aipatzen diren sermoi guztiak. Horrenbestez, gure lanean zehar aipatzen diren zenbait testu ale irakurtzeko, irakurleak jo dezake Fidel Altunaren antologiara edota *Susa* argitaletxearen web orrialdeko “*klasikoen gordailua*” atalera (<http://klasikoak.armiarma.com>).

1. KAPITULUA

**DISKURTSOAREN PRODUKZIO  
BALDINTZAK. AGIRRE ASTEASUKOA  
(1742-1821): GIZONA ETA MENDEA**





## 1.0. ATARIKOAK

Juan Bautista Agirrerren obra nagusia, *Eracusaldiac*, ikertzea da lan honen jomuga. Obra aski oparoa utzi zuen, publikaturik 2.000 orrialde inguru eta argia ikusi ez duten beste mailako batzuk. Nagusiki sermoi generoa, *genus sermocinandi*, jorratu zuen Agirrek, nahiz eta Vinson-ek, bere *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*, nahiago izan Agirre "Instructions et conseils" sailean sartu "Sermons" sailean baino. Jite preskriptibo eta erregulatzaila berez zor zaio sermoiaren generoari, ikusiko dugunez; baina Asteasuko Agirrek soilik periferikoki erabiltzen du sermoi hitza, nahiago du bere lanari "Eracusaldi" izendapena eman, hortik Vinsonen irizpidea. Agirre Asteasukoak bat egiten du horrela XVIII. mende hondarreko Ilustrazio giroari zerion formazio nahi eta didaktismoarekin, nahiz eta bera beste tradizio batetik zetorren. Irakaspena obraren ezaugarrietarik nahi eta, horra, titulu nagusira altxatu, *Eracusaldiac*.

Gure asmoa Agirrerren sermoigintza ezaugarritzeko ahalegina da, baina sinisturik gaude enuntziatuak soilik deskriba daitezkeela garai bakoitzean erabiltzen diren sistema semiotikoen barnean, eta horiek estuki loturik daudela bai praktika diskurtsiboekin, bai beroien produkzio prozesuan parte hartzen duten posizio ideologikoekin eta bai enuntziazioaren baldintza sozialekin ere. Horregatik, gure hasierako kapitulu hau koordenada biografiko, eta espazial-kronologiko oinarrizko batzuk emateko da. Ez, inondik ere, Agirrerren bizitzaren alderdi berriak argitara emateko edo bizi izan zuen garaian sakontzeko.

Zergatik Agirre? Arrazoen artean argudia daiteke Agirrek bizi izan zuen mende muga (XVIII. mende erdialdea eta XIX. mende hasiera) interes handikoa dela: orduan gauzatzen da Erregimen Zaharrarekiko haustura, apurketa ideologikoa, gizaki indibidualaren sorkuntza, gizartearen kontrola exekutatzeko

modu berrien asmatzea (Foucault 1999). Garai gatazkatsu hark Euskal Herrian izan zituen ondorenen azterketa ideologikorik bada (Belen Altuna 2000, Torregarai eta Villoslada 1997, 1998, 1999), baita historikorik ere (Larrañaga 1969; García de Cortázar 1979; Olaechea 1985). Hizkuntzaren ikuspegiarekin eta *hizkuntzatik* egindakorik ere bada (besteak beste, Altzibar 1985, 1989, 1999; Oyarçabal 2001; Garai 2004). Edozein modutan, alderdi diskurtsiboei buruz beren beregi egindako lanik ia ez dago, bide batez egindako ohar xume batzuetatik kanpo. Eta bada zer aztertua: Hego Euskal Herrian milaka eta milaka orrialde dago orduan idatzirik, Larramendiren osteko ez tandan. Gauza jakina baita eta inork zalantzan jartzen ez duena, Larramendiren aitzindaritzza Hegoaldeko idatzizko produkzioaren gorakadan. Idazle kopuru kontsideragarria gartsu lotu zitzaizkion idazteari, sermoiginan: Juan Antonio Mogel, Fray Bartolome, Añibarro, Lizarraga Elkanokoa, eta, Agirregandik oso hurbil, Gerriko, Amundarain eta Otegi (Villasante 1979; Elortza 1996), soilik ezagunenak aipatzearen. Idazle horietako askok, beraiek baino lehenxeago predikatzen aritu ziren Mendiburu eta Kardaberazen (hots, jesuiten) moldeak jarraitu zituzten, baita frantziskotarrenak ere, bereziki Zarauzko komentukoena.

Idea zentraletako bat zera da: Agirrek bizi izan zuen garaian erlijio katolikoa ideologia hegemonikoa zen, eta, gure ustez, garai horretako sermoien kodeak deszifratzea eta ezaugarritzea paradigmatikoa da: zer da sermoia, xedeasmoak, molde-erregelak, erretorika... Ezin baitira ulertu XVIII. eta XIX. mendeak Euskal Herrian sermoien izaera ezagutu eta aintzat hartu gabe.

Idazle horietan guztietan, baina, zergatik Agirre? Agirrerren sermoiek oraindaino ustiari ez den balio erantsi bat dute: sermoiak ez dira Asteasuko parrokiaren esandakoak soilik. Agirrerren obra nagusia, aztertuko dugun *Eracusaldiac*, sermoi *eredu* izateko idatzi zen; bestela esanik, Eracusaldi aleak nonahi erreproduzitzeko modeloak dira. Sermoi soil baino gehiago lirateke, beraz, “artxisermoiak” edo eredu modulagarriak, tokian-tokian egokitzeko eta erabiltzeko eta orduko predikazio beharrari (Trentoko Kontzilioaren kontsignak eta Ilustrazioaren ideologia berriaren mamuari) erantzuteko asmoz, beste apaizen predikazio lanen lagungarri taiutuak (cf. obraren eskaintza “Esqueintzen diezte Apaiz Euscaldunai”, eta abar). Kontu horiek oso inportanteak zaizkigu, sermoia bainoago, izan ere, *genero homiletikoa* izango baikenuke aurrez aurre, eta, horrenbestez, garai batean instituzio batek homologaturik duen sermoi prototipo bat, erakundeak balidatua edo ontzat emana. Halatan, Agirrek predikaziorako erabili zituen molde horiek ezaugarriturik, sermoi ereduak eta eredugarriak diren aldetik, ezaugarritu dezakegu instituzioaren praktika diskurtsiboa. Gure lanaren hipotesi eta helburuei begira

ondorio garrantzitsuak dakartza Agirrerren sermoien izaera horrek: Eliza erakundearen alderdi edo aurpegi linguistikoa zedarritzea eta langai hartzea<sup>1</sup>.

Eta hain juxtu iker galdera hori, posible ote den Elizaren “hizkuntza” homiletikoa deskribatzea, izan da gure lanaren iker galdera nagusia.

Baina Agirrerren lanak badu beste xarmarik ere, eta irabazi du ikerlarien eta idazleen begirunea eta miresmena. Emiliano Ozaetak eta Fidel Altunak egindako lanetan bildu dira Agirrerren idaztankerak irabazi dituen gorazarretako batzuk. Guk ez ditugu haiek guztiak berriz errepikatuko. Agirre puntako idazletzat hartu izan dutenen artean Orixe, Villasante eta Mitxelena dira. Literatoak ere mintzatu dira Agirrerren prosaz, Bernardo Atxaga (2002: 23) eta Mujika Iraola, besteak beste. Azken honek, gainera, exemplen bilduma bat apailatu zuen (*Arpoi baten eran*. Alberdania 1996) bide batez literatura balioa aitortuz asteasuarraren testuei (egin kontu, gurean salbu, oratoria erlijioso aintzat hartu gabe egin ohi direla literatur historiak). Sarreran esan dugunez, sermoia literatur generotzat hartu beharko litzatekeen ala ez, beste eztabaida bat da. Orainago Joxe Aranzabalek (2008: 107) Agirre Asteasukoaren idazmoldeari jarraitzea gomendatu du idazketa digitalerako.

Agirre prosista bikaina izan arren, eta orrialde asko idatzitako idazlea, ez ditu irabazi garaikide izan zituen Mogel, Mendiburu, Kardaberaz edo Fray Bartolomek, kasu, izan dituzten lan, azterketa edota edizio bereziak. Jesus lagunei dagokienez, Mendibururi anarteko kideek egin dizkiete edizioak eta argitara gabeko lanek ere argia ikusi dute (Altuna 1982), eta Kardaberazek ere jaso du arretarik (Garai 2004 argitara gabe; cf. orobat, Pérez Gaztelu eta Zulaika Ijurko (ed): *Agustin Kardaberaz, Hirugarren Mendeurrena (1703-2003)*, Deus-tuko Unibertsitatea). Ildo beretik, Fray Bartolome karmeldarrari eskaini zaio lan-azterketarik ordena bereko ikerlarien edota aldizkariaren eskutik (*Karmel* 1999-1; 1999-2). Zer esanik ez Mogeli ere, apaiz sekularra izanagatik Agirre bezala, ezin ahaztu *Peru Abarca* idatzi zuela. Zoritxarrez, Agirrerren argitara gabeko lanak Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan dautza, oraingoz, lo eta zain.

Guztiarekin ere, badira Agirrerren inguruan hiru lan monografiko eta oso, Agirrek hitzari buruz zuen balio pertsuasiboaren kontzientzia erakusten dutenak eta ikerketa honetarako baliagarri zaizkigunak. Ikus ditzagun jarraian.

---

<sup>1</sup> Praktika hori, sermoi ereduak idaztea alegia, ez da inondik ere berria mugaz haraindiko idazleetan, baina mende bat lehenago gertatzen da fenomeno, XVII. mendeko literatur loral-dian, hartara Oyharçabalek idatzi bezala: “Belapeyrek argi eta garbi erran zuen apaizentzat eta errejententzat egin zuela bere katixima, Leizarragak egin zuen bezala” (2001: 16).

Lehenengo lan sakona Emiliano Ozaeta beneditarrari zor zaio. Tesina benetan aipagarria atondu zuen, argitara gabea: *Juan Bautista Aguirre. Kristau ikasbidearen euskal irakasle. Asteasu 1742-1823*, Estibalitz 1973. Bertan Agirreren lehenbiziko obraren xede-helburuen berri ematen du, hots: *Confesioco eta Comunioco Sacramentuen gañean eracusaldia*; obra horretan, Asteasuko Erretoreak dotrina euskaraz irakasteko metodologia bat eratu zuen, Trentoren dotrina irakasteko agindua betetzeko<sup>2</sup>; bestalde, Ozaetak Agirreren baitan kontzeptu teologikoek hartzen duten esanahia zehazteko ahalegina egiten du. Ahalegin hori bukatu gabea da, tamalez.

Aranburuk dokumentu historikoak bilatu ditu Agirreren biografiaren alderdi batzuk argitu dizkigutenak. Horrez gainera, haren biblioteka eta testamentua argitara eman ditu (*Juan Bautista Agirre Elola 1742-1823. Gizon eta apaiz eredugarria*. Asteasuko udala 1995).

Hirugarrenik, Fidel Altunak, Luis Villasanteren (Villasante 1979: 224) proposamena aintzakotzat hartuz “La publicación de una antología con trozos selectos tomandos de las obras de Juan Bautista Aguirre sería de gran utilidad y valor formativo dada la calidad del autor”, Agirreren lan mardularen aukeraketa bat publikatu zuen Euskal Idazleen Elkarteko “Klasikoak” Sailean (*Juan Bautista Agirre. Erakusaldiak. Antologia* 1999). Antologia apailatzeko lana hartu ez eze, edizioaren sarrerak ekarpen berririk badu Agirreren obraren inguruan: batetik, *Eracusaldia* lanaren (3 liburukien) datazio zehatza; bestetik, Agirreren eragin edo erreferentzien gainean argi berririk badakar (Larramendiren hiztegia erruz erabili zuela, orain arte haren erudetatik urruti kokatu izan den arren, eta abar). Azkenik, Asteasukoaren grafia eta hizkuntzaren azterketa dakartza orain arte alderdiori buruz egin den lanik luze eta sakonenean.

Arestiko lanetan aurkitu daitezke Agirre Asteasukoaren bizitza, obra eta hizkeraren inguruko berriak eta haietara jo dezake xehetasunak nahi dituenak. Geure egingo ditugu aipatu lanetako hainbat datu: biografiakoak Ozaeta eta Aranburutik, eta obrarenak, bereziki datazio lanetarako eta obraren antolamendu orokorarentzako, Ozaeta eta Fidel Altunatik. Agirreren harreman eta eragin sarerako Fidel Altunari jarraituko diogu.

---

<sup>2</sup> “Trento ondoko Euskal Herriko gozaiak asko sailu ziren, eta lortu ere asko lortu zuten katekesi arlo honetan. Agirre bizi izan zen sasoi hartan bi hutsune nabari ziren lanbide honetan. Batetik, guraso batzuek eta erretoreak ez ziren gehiegi saiatzen umeei eta gazteei dotrina erakusten; bestetik, orduko katekesia antolaketak ez ziren gipuzkoar lurraldetarako egokiak.” Ozaeta, op.cit. 143. or.

## 1.1. AGIRREREN BIZITZA

Juan Bautista Agirre, Asteasun jaio, bizi eta hil zen. Beharbada horregatik, euskal literaturan Agirre “Asteasukoa” izendapenez ezagutzen da. *Idogarate* baserrian jaio zen 1742ean; Aranbururen arabera, maiatzaren 2an bataiatu zutenez, apiril amaieran jaioko zen; Emiliano Ozaetaren arabera, azaroaren 2an jaio eta 4an bataiatu zuten.

Agirrerren gurasoak larrauldarrak ziren eta Larraulen ezkondu ziren 1725. urtean. Martin Agirre-Andiak eta Ana Maria Elolak zazpi seme-alaba izan zituzten: Domingo (1726), Josefa Frantziska, Maria Teresa<sup>3</sup>, Juan Millan<sup>4</sup> (1736), Jose Antonio (1740), Juan Bautista (1742) eta Jose Antonio (1747)<sup>5</sup>.

Agirretarren aita hargina izan zen ogibidez, baita haren aitona ere. Dio amak bere testamentuan ezkondu zirenean ez zutela ezkontza-hitzarmenik egin “a falta de bienes” eta “ni despues aca ha havido gananzia ni conquista alguna” (Aranburu, 103. or.). Gurasoek hiru baserri zituzten Larraulen eta seme biri ikasketak eman zizkieten. 1760 hamarkadan hil ziren biak. Badirudi zorrek inagari direla dokumentu zaharretan; hala ere, maiorazkoak izan ziren.

Amaren neba batek, Inazio Elolak, Ameriketara emigratu eta Peruko Ciudad de los Reyesen eta Liman bizi izan zen. Osabaren babesarekin, Ameriketatik etorritako dirualdi haiei esker, XVIII. mende bukaeran Agirre sendiak maila ekonomiko-soziala aipagarria lortu zuen. Caracaseko Erret Konpainia Gipuzkoarrean akzioak zituzten, bai eta Filipinetako konpainian ere. Akzio-dunak Juan Bautista eta haren anaia gazteena, Jose Antonio, ziren. Bi anaiek harreman estua izan zuten, familiaren gorabeherak eta haziendak kudeatu, eta elkarrekin bizi izan ziren urte luzez Asteasuko *Elizegi* etxean.

1813an, Independentzia Gerran, nola ez dakigula, frantses bala batek Agirre zauritu zuen. 71 urte zituen. Badirudi Elizegi etxera erretiratu zela, baina Asteasuko parroko izaten jarraitu zuen 1815. urtera arte. Eta idazten ere jarraitu zuen: Fidel Altunaren arabera hainbat sermoi 1817 inguruan idatziak dira. Agirrek printzipiodun gizona dirudi, bizitzako eginkizuna garbi izaten duten horietakoa. Haren idazle izaeraz edo “profesionaltasunaz” ere zerbait esaten digu datu horrek.

<sup>3</sup> Arreben jaiotze data ez dira ezagutzen.

<sup>4</sup> Ozaetak Juan Miguel dakar (25. or.)

<sup>5</sup> Jose Antonio bi agertzen dira. Aranburuk (1995: 100) dio Jose Antonio anaia zaharra hil egingo zela eta haren izena azken umeari jarriko ziotela.

Karrera eklesiastiko aipagarria egin zuen, kargu altuak izan zituen (berezi-ki Gipuzkoako Artzapezgoko Diputatu Nagusi). Predikari moduan, estimazioa izango zuen: gozo irakurtzen dira haren sermoiak, erritmo eta “jatortasun” berezia darie. Egin behar dugu kontu, Agirre 53 urte inguru dituen hasten dela idazten (haren lehen sermoiak, publikaturik ezagutzen ditugun lehenak, 1795koak direla suposatzen badugu). Beraz, prosari ekin baino lehenago, esperientzia oso handia du predikari gisa, 23 urtekin apaiztu zela go-goan izanik (Misioetan predikari ibili ote zen ez dakigu). Agirre Asteasukoa, gainera, euskaltzalea da eta estudiatu du euskara sermoiak idatzi aurretik; ildo horretatik dio Fidel Altunak badagoela saiakera bat Agirrerengan euskara “batu” bat egitekoa bere sermoiak hedatzeko asmoz egina. Horregatik, gure aburuz, Agirre Asteasukoa ezbairik gabe dago Mogelen pentsamenduan *Peru Abarca* liburuaren hitzaurrean ondoko hitzak idazten dituenen:

“Es verdad que desde la época en que trabajaron y publicaron algunas obras los diestros bascongados Mendiburu, Cardaveras, y Larramendi, se nota más cultura en los sermones, y hay en Guipúzcoa no pocos eclesiásticos que han hecho un estudio serio del bascuence y que le hablan con gallardía”, (Altzibar 1992: 326).

Sasoiko idazle askok bezala, Agirre bera hil eta gero ikusi zuten haren obrek argia. “XIX. mendeko gudate, matxinada, legezaharreko eta berrikoen arteko etsaigo eta agintaldi aldaketa... baldintzatzen dute garaian garaiko idazlangintza eta argitalpena” (Altzibar op.cit. 328. or.). Garaien lekukotza gisa, Agirrek bizitzan bere obrarik txikiena ikusi zuen argitaraturik, *Confesioco eta Comunioco Sacramentuen gañean Eracusaldiac* (1803) (aurrerantzean, CC). Haren obra nagusia, *Eracusaldiac* mardularen 3 liburukiak, 1850ean publikatu ziren Tolosan. Baina Juan Bautista Agirre hila zen ordurako: Asteasun hil zen ekainaren erdialdera, 1823an.

### 1.1.1. Agirre apaiz

Agirre Asteasukoa 23 urte zeuzkala apaiztu zen anaia Jose Antoniorekin batera. Bost urte geroago Asteasuko benefiziadu bilakatu zen (Asteasuko parrokian XVIII-XIX. mendeetan bost apaiz zeuden, denak herrikoak bertakoak). Handik gutxira Gipuzkoako Artzapezgo Nagusian *Herniobea* Korriedoko diputatu hautatu zuten eta hamabost urtean jardun zuen (1784-1799). Artzapezgo Nagusian ardura garrantzitsua esleitu zitzaion, “Plan Benefiziala” bideratzeko ardura. Plan Benefizialaren bidez, XVIII. mendearen azken here-

nean, ordura arteko Elizaren egitura eta antolamendu orokorraren berrikuntzari ekin zitzaion Iruñeko elizbarrutiko bazter askotan<sup>6</sup>.

Mende aldaketarekin bat, 1800. urtean, Juan Bautista Agirrek oso kargu eklesiastiko altua eskuratu zuen: Gipuzkoako Artzapezgoko Diputatu Nagusi izatea. Ozaetaren arabera (24. or.), Gipuzkoako apaizen artean nahiko ezaguna zen 1800a baino lehen. Diputatu Nagusi izateak *de facto* ekartzen zuen Gipuzkoako Elizbarrutiko apaizen buru izatea. Postu hori, elizaren orduko antolaketa kontuan hartuz, apezpikuaren ondorengo postua zen<sup>7</sup>. Agirre figura publikoa izango zen instituzio erlijiosoetan, eta beharbada baita zibiletan ere.

Hala ere, ez bide zuen nahi izan kargu hura, ez ziren garai baketsuak: Konbentzioko Gerra pasatu berria zen (1795), eta erlijio munduak talka egiten zuen Europatik zetozen Ilustrazioaren ideiekin. Baietza eman zuen, hala ere, eta badirudi paper garrantzitsua izan zuela frantsesen aurkako Independentzia Gerran. Diputatu Nagusi kargua hartu, eta hurrengo urtean, 1801.ean, lehengo bilera antolatu zuen Tolosan. Berehala, 1802.an, bere liburu zabalduenaren aurkezpena egin zuen (CC). Lan hori, dotrina irakasteko metodoa, urte bat geroago publikatuko zen Tolosan, Andres Gorosabelen moldiztegian.

1803an Asteasuko Parroko izendatu zuten. Anaia Jose Antonio izan zuen lankide, benefiziatua baitzen berau 1783tik. Juan Bautista Agirrek Diputatu Nagusi kargua 1815. urtean utzi zuen, eta Asteasuko parroko soil moduan eman zituen azken urteak.

Bada alderdi harrigarri bat Agirrereren bizitzan. Zer ikasketa egin zuen? Ez dago datu zehatzik zer eta non ikasi zuen esateko. Haren aita Martin Agirrek Asteasuko alkateari bere seme Juan Bautistaren hidalgia froga eskatu zion 1762an. Agirrek Valladoliden ziharduen teologiako ikasketak egiten. Ameriketako osabaren gutun baten arabera, 1763an Agirrek Iruñean ziharduen teologiako 2. kurtsoan jesuitekin. Eta horixe da dakigun guztia.

Aldiz, Jose Antonio anaiaren ikasketei buruz datu asko dago. Oñatiko *Santi Spiritus* Unibertsitateko erretoreak 1778. urtean luzatu zituen dokumentue-

---

<sup>6</sup> Asteasuko parrokia Iruñeko diozesiaren barruan kokatzen zen. Orduko antolamenduen arabera, Hegoaldeko euskal diozesiak bi ziren: Calahorrakoa eta Iruñekoa. Errioxakoan zeuden Bizkaia ia osoa, Araba eta Gipuzkoako Leintz-Oñati aldeak; Iruñeko diozesian Nafarroa eta Gipuzkoa zeuden.

<sup>7</sup> Ozaetak bere tesina hondarrean bilduriko gutuneria aztertzea aski da Agirrereren itzalaz erreparatzeko. Bertan, Amundarain, Otegi eta bestek Agirren aldeko bozka ematen dute sasoiko erabakiei aurre egin diezaien Asteasukoak (Ozaeta, III. eranskina)

tan Jose Antonioren gradu akademiko eta ahalmen hauek baietsi zituen: Iruñean filosofia ikasia zen hiru urtez eta Zaragozan bi urtez teologia eskolastikoa. 1769an kanonetan batxiler zen; 1770an beka lortu zuen; 1773-1774 bitartean lege ikasketak egin eta 1775-1776an katedratiko bihurtu zen. 1783an Asteasun benefiziadu izateko aukeratu zuten (eta hantxe jardun zuen 1814an hil arte).

Emiliano Ozaetak (24. or.) erreparatu zuenez, Agirrek sinatutako dokumentuetan ez da inoiz agertzen doktore, lizentziatu edo batxiller bezala, nahiz ondoko lagunek titulu horiekin izenpetu. Eta jarraitzen du Ozaetak:

“Valladolideko unibertsitatean egon zen 1762an, hogeitau urte zituelarik. Horik aurrera ez dakigu. Ikasi ote zuen Tolosako prantziskotarrekin, Iruñeko Jesus lagundikoeekin, ala bere kontuz?”.

Auzia inkognita da. Baina ezbairik gabe jesuitekiko harremanak izan ziren haren obran nagusi, Mendibururen *Otoitz gaiak* bereziki (ikus Altuna xcvi). Jesus lagunek erlijioari funtzio pedagogikoa emateko bidea egina zuten, eta Agirre, bai horiei, eta bai Zarauzko frantziskotarren ildoei, jarraituko zitzaizkien. Harreman horiek ispiatzen dira hala darabiltzan iturrietan, nola testamentuan: Agirre hiltzean, Zarauzko frantziskotarrei utzi zien Berak liburutegia euskarazko predikazioaren inguruan erakutsitako ardura eta konpromisoagatik (ohar ordu-rako itzuliak zirela erbestetik Jesus lagunak, 1815ean, zehazki).

Eta Asteasukoak liburutegi ondo hornitua zuen (“...declaro que tengo una biblioteca decente y muy propia para un eclesiástico...” (Aranburu 1996: 493). Ikusten da gizon arduratsua, ikasi zalea, hizkuntzari garrantzia ematen diona. Biblioteka konpentsatua da: teologia eta moralak, eskolastika, zuzenbide kanonikoa, euskal gaiak, literatura, idazle klasikoak, erretorika liburuak, sermoiak. Kontsulta liburutik ere asko dago. Biblioteka horren ispilu-edo, Agirrereren sermoietan zitak eta aipuak, 4. kapituluan ikusiko dugu, ugari dira, ugari direnez.

Liburutegiak salatzen du nolabait Agirrereren izaera. Haren bizitza eta obra irakurtzen duenari begitantzen zaio itzala zuela. Pertsonaia garrantzitsua izango zen Gipuzkoan XIX. mende hasieran, beste apaizek jakintsutzat izango zuten. Finean, Artzapezgoko Diputatu Nagusia izan zen hamabost urtez, Elizarentzat erosoak izan ez zen garaian (Independentzia gerra tarteko). Orobat, badago erreparatu beharreko beste alderdi bat ere: aztarnak badira XVIII-XIX mende mugan idazle talde indartsu bat osatu zela Agirrereren inguruan (Altuna xiv): Gerriko, Amundarain, Otegi... Horiek guztiak, indarrak batuz, Trentoren misioari erantzunez idatzi zuten, euskaraz idatzi ere.



Izan ere, Erromako elizak Erreforma protestantearen esperientziaren bidez atera zuen ikasketa zera izan zen: Europako kristauek doktrina katolikoa ez zutela ondo ezagutzen. Gabezia horri erremedioa ipintzeko, Trentoko Kontzilioak Kontraerreformari ekingo dio, herria fedean hezteko eta eraso berrietatik babesteko, horretarako, predikazioan arreta berezia jarriko duelarik. Erretorika sakratuaren pizkundera iritsiko da, eta XVII. mendez geroztik gartsu predikatuko da. Trentoko Kontzilioak eman zion bultzada eta babes erabakigarria prediku lanari, eta XVII. mendetik aurrera gero eta garrantzi handiagoko jarduera bihurtu zen.

Trentoren garrantzia ukatu gabe, aztergai dugun sasoirako aintzat hartzekoa da European barrena hedatzen ari zen izpiritu ilustratua ere, gertaera historiko bietan biztu baitzen erlijio katolikoari aurre egiteko “kontradiskurtso” bat eratzeko bidea; eta arrisku horri itzuri egiteko edo erantzuteko, gorpuztu eta blindatu zen kristautasunaren aldeko diskurtso modu bat. Gurean oso emankorra izan zen bide hura: sasoi hartan finkatu ziren literatur gipuzkera, eta neurri txikiagoan, literatur bizkaiera, literatur euskalkion sustatzaile nagusi Larramendi dela (Urgell 1991: 222). Predikari multzo garrantzitsu bat gorpuzten delarik, sermoien kemen eta oldarrarekin, orduantxe altxatu zen bereziki Hegoaldean sermoi generoa “literatur nazionalaren” mailara, jesus lagunak eta frantziskotarrak su handiz aritu baitziren Hego Euskal Herrian barrena Misio Sainduetan sermoi esaten (Altuna 2003). Frantzian, sasoi bertsuari, fenomeno antzekoa ezagutu zen Bossuet, Bourdaloue, Masillon eta abarrekin. Agirrek egiazki egin zion prozesu honi bere ekarpena.

## 1.2. AGIRREREN MENDEA (DISKURTSOAREN ESPAZIO-DENBORAK)

Sermoigintza begiratu behar dugularik, beharrezkoa da beronen produktio baldintza espazial eta kronologikoak aztertzea. Lan honen ardatzetako bat, finean, forma enuntziatiboen eta berauek inskribatzen diren testuinguruaren arteko hartu-emanaren agertzea da-eta.

Agirre (1742-1821), XVIII. mendearen bigarren erdian eta XIX. mendearen lehen erdian bizi izan zen, hots, Erregimen Zaharra, European bezala Euskal Herrian ere, desegiten eta maldan beheratzen hasi zen unean. Carlos III.aren heriotzarekin hasi zen Espainian Absolutismo Ilustratuaren amaiera. Frantziako Iraultzaren oihartzunak iristen ziren eta baita iraultzaileen nahia ere haien ideologia kanpoaldean hedatzeko. Inkisizioak eta Koroak bat egin zuten,

interes bateratuak zituzten frantziar iraultzaileen aurka, eta gurutzada erlijioso bati ekin zioten: Jainkoaren eta “Ordena”ren etsaien aurka borrokatzen zen. Agirre Asteasukoak mende mugak zekartzan aldaketak gertutik ezagutu zituen, izan ere, haren bizitzaren helduaroa krisialdi honen guztiaren erdian kokatzen da: antzinatasuna/berritasun dialektika amorratuan. Ohar Agirrerri hiru gerrate bizitzea egokitu zitzaioela, izan ere, Erregimen Zaharraren kontrako erasoak traumatikoki gauzatu ziren: Konbentzio Gerratea, 1793-1795; Independentzia Gerratea, 1808-1814; eta Hiru Urteko konstituzionala, 1820-1823. (Ezin ahaztu gerora bi gerrate karlistak ere piztu zirela).

Batez ere Errenazimendutik aurrera, gizaki berria sortzen ari zen Europan: “gizaki indibiduala” kontsidera litekeena. Espiritu hori areagotu egin zen XVIII. mendean, eta, hala, “arrazoia mendea”, “argiaren mendea” esan zitzaion Pascal eta Descartesi esker. Espiritu “aske” hori, jakina denez, gauzatu zen bereziki Frantziako Iraultzarekin (1789).

Kontestu horretan, egoera filosofiko berriarekin (Montesquieu, Voltaire, Rousseau, eta abar), mundua eta gizakiaren existentzia arrazoia bidez azaltzen saiatu ziren, ez teologia ez mistikari jarraituz. Gizakia bere baitan zen gai natura menderatzeko eta mundua ulertzeko. Deskartesaren arabera, soilik lor zitekeen egia arazoitze logikoaren bidez. Frantziako ilustrazioan gora egin zuten ateismoak eta materialismoak, halaber kristautasunaren kontrako kritikak. Ezkon ezinak bihurtu ziren arazoia eta erlijioa. Korrante filosofiko berrietan lurreko zorion eta atseginei eman zitzairen arreta eta garrantzia, eta bizitza loriatzeko joera horrek kezka mistikoak alboratzea ekarri zuen. Mentalitate kristauak mehatsu gisa hartu zuen ideologia hura, immoralitate eta dekadentzia gisa ulertu zuen, azalkeria eta *vanitas* isla<sup>8</sup>...

Erregimen Zaharrak zein berezitasun zuen Euskal Herrian? Ekonomian nekazal jarduerak nagusitzen ziren (Agirrerengan *exemplen* nolakotasuna aztertzea besterik ez dago: soroak, lanak, laborantzako tresnak...); nekazaritzak ez ezik, burdinolak ere inportanteak ziren, eta zehazki Asteasu hargin tokia zen<sup>9</sup>. Gizar-tearen antolakuntzari dagokionez, eskubide, bizimodu eta botere mailen araberrako desberdintasun nabarmenak zeuden biztanleen artean, krisi ekonomiko egoeretan areagotzen zirenak. Alderdi horiek, idiosinkrasiari dagozkionak, ederki asko jaso daitezke Agirrerren testuak irakurriz, Koldo Mitxelena esan bezala:

<sup>8</sup> Agirre bera, orduko sermoietan ohiko topiko zenez, luxuen eta moden aurka arituko da. Kontrara, ilustratu jendeak luxua aurrerakuntza adierazletzat hartuko du (Martín Gaité 1994: 34).

<sup>9</sup> “...los oficiales y canteros que construyeron el Monasterio de El Escorial eran oriundos de Asteasu...” idatzi zuen Hipolito Usabiagak Siguenza kronistan oinarriturik (Aranburu op.cit. 62. or.).

“Fuente importante para el conocimiento de ideas y costumbres guipuzcoana en el cruce de dos siglos que desgraciadamente no han sido bien aprovechados” (1988: 117).

Baina Euskal Herrian Erregimen Zaharraren nortasun-agiri ekonomikorik eta ideologikorik badago, inondik ere, Foruak dira. XVIII. mendearen bigarren erditik aurrera, Foruen alde eta kontra dauden taldeek eztabaida eta desberdintasun geroz eta ozenagoak izango dituzte. Merkatari eta lurjabe handiek Foruak garapen ekonomikoaren oztopo bezala ikusten dituzte; aldiz, herri xeheak Foruak “elikagaiak merkeago lortzeko bidetzat” (Urkiza 1999: 156). Foruak pentsamendu identitario eta politikoa ere inplikatzan du Monrealen arabera (1992: 102):

“la ideología foral del Antiguo Régimen cumplirá una finalidad doble y crucial: explica por una parte la existencia de un título original y excepcional de nobleza para los vascongados, y sirve por otra parte para dar un fundamento incontestable a la autoctonía del Derecho propio” (Monreal 106).

Agirreraren kasuan funtsezkoa da alderdi politiko-ideologikoa aintzakotzat hartzea. Ilustrazioarekin “Erregimen zaharraren” krisialdia hasiko da, eta gatazka sortuko mundu tradizionalaren eta “moderniaren” artean. Agirre orduko sektore tradizionalak bezala, garbi lerratuko da tradizioaren alde (*Eracusaldia* gizarte tradizionalaren pentsamoldearen “kultur orokorraren” isla ere badira). Larramendi izan zen gure artean gertaera hauei ondorio politikoak egotzi zizkien lehena (ikus Arzalluz 1992; Elorza 1992; Fernández Albadalejo 1992; Monreal 1992).

Guztiarekin ere, kontsentsua dago esateko Ilustrazioa ez zela gurean fenomeno periferikoa baizik izan eta gutxiengo batena. Ezaxola eta oposizioa topatu zituen: Elizaren aldetik, zeinak bere organo errepresiboa (Inkiszioa) erabili baitzuen ilustratu famatuaren kontra (Olabide, Samaniego, Iztueta...). Unibertsitatearen aldetik ere, nagusiki jesuiten esku zegoena (nagusigo horrek eragingo zuen neurri batean konpainiaren kanporatzea). Baita herritarren aldetik ere, analfabetoa eta sektore tradizionalak ideologizatua.

Euskal Herrian, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak (1763) sortutako Bergarako Erret Seminarioak gorpuztu zuen “Euskal Ilustrazioa” deritzona. Berau izan zen liberalismoaren gune garrantzitsuena, baina Altunaren (2000: 20) eta Larrañagaren (1991) ustez, Bascongadako lagunartea gai zientifiko eta teknikoetan berritzailea bazen ere (irakasle famatuak izan zituen, Samaniego, Chebanaux, Elhuyar anaiak, eta abar), ezin dira kontsideratu RSVAPa eta

Seminarioa bera gune liberal gisa, ez baitzioten elizaren botereari aurre egin, hots, kontzientzi eta ohituren zaindaritzan ezartzen zuen zorroztasuna ezbaian jarri. Zentzu honetan, ohar hainbat elizgizon Soziedadeko partaide izan zirela (Juan Antonio Mogel tartean, eta baita Agirrerren aurretik Diputatu Nagusi izan zena ere). Erret Seminarioa, orobat, ez zen aurrerakoa izan hizkuntzaren plagintzan: euskararako ez zuen proiekturik artikulatzen jakin, Elizako eduki moraletatik haratago (Oyharçabal 2001: 37-40)<sup>10</sup>.

Zentzu orokorrean mintzatuz, XVIII-XIX. mende mugan kontrajartzen dira Ilustrazioaren lelotzat hartu izan dena, hau da, Kanten *Sapere aude* (ausart jakitera), eta Eliza katolikoaren moral heteronomia. Kantek aldarrikatuko du mundua eta bizitza ulertzeko ikuspegi *antropozentrikoa*, eta Eliza Katolikoak ikuspegi *teozentrikoa* (Altuna op.cit. 20. or.). Ilustrazioaren mugimenduak sortuko du gure Herrian erreakzioa, “Euskal Kontrailustrazioa” deritzana. Eta bi proposamenak bihurtuko dira erabat desberdinak, manikeoki tratatuko direnak.

Elizak, Kontrailustrazioari aurrerabidea emateko, ebanjelizazio kanpaina sakon bati eman zion hasiera. Aktibitate misiolaria aurrera eraman behar zela-eta, euskal sermoilari multzo bat prestatu beharra zegoen. Euskal populuaren kristautasuna ahulduaz zihoan nonbait<sup>11</sup>. Kontuan hartu behar da, XVIII. mendea, alde batetik, Trenton diseinaturiko erreformaren gauzatzea ikusiko duen mendea dela; eta, beste alde batetik, Ilustrazioarekin eta Frantziako Iraultzarekin *deskristautzea* hasten den unea ere. (Altuna op.cit. 53. or.).

Ebanjelizazio lan horren edukiak eta asmoak Trentoko Kontzilioan laburbiltzen ziren. Haraxe jo zen. Izan ere, Trento ondoren, Eliza katolikoak doktrinamendu orokorraren bulkada abian jarri zuen (Kontrarreforma egin beharra zegoen Lutero eta kalbinisten aurka). Hala ere, Eliza Katolikoak Trentoren ostean hasitako lanaren fruituak ez ditu bete-betean jasoko XVIII. mendeak aurrera egin arte. K. Mitxelenak horrela dakusa Trentoren auzia Euskal Herriarekiko eta euskararekiko:

“Si un hecho en la historia moderna ha tenido una profunda repercusión en Vasconia, éste es el Concilio de Trento... Se toman entonces medidas sistemáticas

<sup>10</sup> Zentzu honetan, bada Hegoaldean, XIX. mende hasieran, euskararen aldeko mugimendu suhartsu bat, lehen aldiz historian horren agerikoa dena euskararen alde. Milaka eta milaka orrialde idatzi ziren euskaraz. Oraindik, hala ere, azterkizun dago indar hori nola urtu eta desagin zen. XIX.mendeko gerla karlistek izan zuten eraginik, noski, baina ez dakigu arrazoi hori nahikoa ote den auzia osotoro azaltzeko.

<sup>11</sup> “Baña ai! Gerraren aitzakian oztu edo itzali da askoren siniste edo fedea...” (Agirre, C 59).

para que los sacerdotes se ocupen de una manera regular y efectiva de la instrucción religiosa de los fieles, actividad que hasta esas fechas parecen haber tenido muy abandonada en muchos lugares. Los obispos de Calahorra y Pamplona se preocuparon además de que tanto la enseñanza del catecismo como la predicación se hicieran en lengua vernácula: constituciones sinodales y mandatos de visita establecen que todos los cristianos deben llegar a saber “en su propia lengua” la doctrina cristiana”. Mitxelena (1988: 61-62)

Trentoren praxia betetzeko, beharrezkoa zen apaizen heziketa liturgikoa prediku-lanetarako, sakramentuen ezagutzea eta aplikazioa, eta abar. Agirren obran, Trentoko Kontzilioa erreferentzia ardatzekoa da, etengabe dakartzatza aipu gisa kontzilioaren zehaztapenak eta eskaerak. Beste kontzilio batzuen aldean (Florentziako Kontzilioa, eta abar) hegemonikoa agertuko da Trento, eta hara lerratuko da Asteasukoa. Haren lana, orobat, beste apaizen probetxurako izango da.

### **1.3. AGIRRE IDAZLE**

#### **1.3.1. SERMOIA PRODUKTU HISTORIKO GISA**

Sermoiak eta sermoigintzak pentsatzen denean, sermoien abiaburuak aztertu ohi dira. Esaten da protestanteen lanek izan zutela eraginik sermoien sorreran, bereziki, hizkuntzak “bernakulatzen” egin zuten lanarengatik. Sermoiaren erretorika ere aztertu izan da askotan. Esan da, orobat, gaurko prosa ereduak jarduera horretan duela jatorria; esan da, halaber, testu edo diskurtso horretatik erraz pasatu ahal dela entsegura (Garai 2004: 2), eta abar.

Ez dago dudarik aktore eragile asko badela sermoien eta sermoigintzaren inguruan. Eta ez ditugu guk korapilo guztiak agertuko, hain gutxi askatuko, baina kontsiderazio batzuk egin beharrekoak dira.

Trentok pulpituaren erreforma praktikoa eskatzen zuen, eta horrek arazoa planteatzen zuen diskurtso erlijiosoaren “mamiaren” eta “azalaren” inguruan: oratoria erlijiosoaren erreforma lehen mailako xede bihurtu zen. Eta ekin zitzaion diskurtso erlijioso guztien eredu, kausa formal eta pertzeptiba hobetzeari (López Muñoz 2000: 53).

Testu-inguratze berri horretan, faktore sozio-kulturalak presente zeuden. Batetik, sermoiak eta gisa horretako testuak atera eta argitara beharra zegoen. Bidegurutze horretan molde erretoriko berriak topatzeari ekin zitzaion eta,

sermoia idatzira pasatzean, erlijioa eta artea lotu egingo dira<sup>12</sup>. Ezagutzaren ahozkotik idatzira pasatzean, sermoia letrara ekarri zen, *littera* egin zen, literatura, baina asmo eta intentzio jakin bat duen literatura, ez dibertimendu hutsa denekoa. Idatziz jartzeari berezkitasuna eman zitzaion horrela, ahozkoak bezala berezkitasunik bazuen idatziak ere, eta funtzio pedagogiko-erlijiosoa izatetik, funtzio pedagogiko-literarioa izatera pasatu zen sermoia. Hots, izkribuzkoa ahozkoaren irudia baino zerbait gehiago bilakatu zen. Idatzian jartzean ahozko hizkuntzaren transposizio bat baino gehiago egin zen. Hala gauzak, sermoiak taxutzea zuen, aurre prestaketa. Egin kontu sermoigintzan gaizki ikusi izan zirela beti inprobisazioa eta “egiaren berezko indarra” bezalako printzipioak.

Horrela bada, sermoiak eta sermoigintza ahozko mintzaira egituratze aldera eginiko jarduera metodiko baten emaitzak dira, ahozko mintzaira izan zuena abiapuntu. Ahalegin handiak egin izan dira predikazioa eraginkor bihurtzeko: lehenbizikoz San Agustinekin; eta, denbora-garrenean, erretorikaren kristautze prozesua ekingo zaio. Prozesu hori XVI. mendean, Fray Luis de Granadaren lanarekin, lortuko da osotoro eta ekarriko ditu erlijioaren eta erretorikaren beraren urrezko mendea (gurean Axular dugula loraldiaren lekuko gorena); geroago, erretorika Jesus lagunen ikasketa programan derrigorrezko ikasgai bezala, “Ratio Studiorum” formazioaren barruan, XVII. mendean geroztik eta konpainia erbestera arteraino. Gure corpuseko testuen garaian, XVIII-XIX. mendeetan, oraindik ere teknika nagusietako bat da diskurtso erlijiosoa ontzeko eta, berezki, *eraginkor* egiteko.

Beraz, antzinatek zetorren aurrez elaboratutako eta ondutako diskurtsoen aldeko hautua. Nolanahi ere, bereziki gauzatuko da aldaketa hau XVIII. mendean modernitateak abiatutako prozesu sekularizatzailea dela-eta. Estrukturatze ahalegin metodiko horrek sermoien “homologazioa” eragin zuen, sermoiak egiteko bideak urratu eta erraztu ziren, bideak jarri, “patentea” edo makinaria sortu<sup>13</sup>. Horrek prosagintzan ere eragina izan zuen (alderdi linguistiko eta

---

<sup>12</sup> Arterik handiena halaz ere arte itxura kentzea zen: “La mayor honra del arte de predicar es ocultar su cualidad de arte, de modo que el sermón no parezca construido y preparado a propósito por mor de señalar un punto artificioso, dar muestras de ingenio y presumir de memoria. La obra del arte es el sermón” Johann Reuchlin, 1502, *Liber congregatorum de arte praedicandi* (López Muñoz 2000: 90).

<sup>13</sup> *Egituratze jarduera* deritzoguna ez dago literaturan edo sermoigintzan bakarrik, jokabide horren ondorio ulertu behar da Larramendiren *El imposible vencido* bera ere. Halaber, Kardaberaren *Euskeraren Berri Onac* “lehen euskal idazkuntzarako hausnarketa”, Koldo Garaien arabera (2004: 1 hh), edo “gida-txostena hezkuntza profesionaleri zuzendutakoa, euren jardue-

erretorikoei dagokienez). Kontu honetan eragin zuzena eta handia izan zuten ordena erlijiosoek, batez ere frantziskotarrek eta, are gehiago, jesuitek. Ezin da ahaztu Jesusen Lagundiaren fundatzaile Ignazio Loiolakoaren lana hitz erlijiosoaren inguruko erreflexioan. Barthes-en arabera Loiolakoak lortu zuen “inventar un lenguaje” (1997/1977: 58), hizkuntza bat formulatu eta “sortu”, Jainkoarekin hitz egiteko hizkuntza hain zuzen. Horiek horrela, homologazio eta estrukturatze honetan, azpi-azpian dagoen dimentsio bat garrantzizkoa da: XVII. eta XVIII. mendeetan kultura katolikoa Erdi Aroko balioetan oinarritu zen, eta horiek baliatu zituen edukia, erregelak eta esateko moduak finkatzeko. Neurri handi batean, Eliza nahikoa intolerantea agertzen zen, esan nahi da, itxia eta printzipio bakarreko (*Biblia*); ezagutza eta ezagutza erdiesteko moduak eta erak oraindik ere “berbalistak” ziren, hots, hitz egite hutsean oinarrituak, hitza zen unibertsoaren eta munduaren ardatz. Era berean, sermoia Erdi Aroko oralitate kristauaren gainean eratu eta eraiki zen, hain zuzen ere, gaiak behin eta berriz errepikatzean; jakintza eremu itxiegia eta eztabaida ezinezkoak; memorizazioa arrazoiaren aurretik jartzean; testu irudia elementu edo osagai pedagogikotzat hartzean; errealitatearen alegorizazioa egitean...

Sermoia, beraz, metahizkuntza bezala ulertu behar da, ahozko ala idatzizko ekoizpen bezala, aurrez pentsatua/prestatua. Inprobisazioa zeruko inspirazioaren aitzakiatan ez da sekula ondo ikusi izan sermoian, aurrez elaboratua eta ikasia izan behar zuen (Mortara Garavelli 1991: 272).

Laburbilduz, sermoia erlijiosoaren homologazioa ahozkotik idatzira pasatzean gertatu zen, hizkuntza barbaroak latinaren eta *latinitas* zibilizazioan sartu beharrrak sustaturik, arrazoi erlijiosoak eta historikoak tartean. Hizkuntzaren auziak bazuen garrantzia hizkuntza herrikoen kasuan, bereziki ahozkotik idatzira pasatze horrek sortzen zituen dudak, hala deskribatzen du Oyharçabalak:

“Jakinkoari berari laidogarri ez ote zekioken gerta mintzaira basa, nahasi, aurarik gabeko batean haren irakaspenen ezartzea? Hain urrun joan gabe ere, hizkuntza landugabeetan ba ote zen jenderik erlijio gaiak behar bezala erabiltzeko gai zenik?” Oyharçabal (2001: 20)

---

nean hizkuntza bernakularrek hartutako bideari ekin diezaioten” (Garai op.cit. 4. or.). Ildo “estrukturatzaile” berekoa lirakeke, orobat, Mogelek egin itzulpenak 1802an, *Versiones Bascongadas de Varias Arengas y Oraciones Selectas de los mejores autores latinos*. Hala dio hitzaurrean: “Lehenbizikoz mintzo dira euskaraz Cicero, Salustio, Tacito, Tito Livio...” (1999: 29), ahalegin horrek idazle klasikoen “homologazioa” suposatuko zukeen. Ohar aipatu ditugun euskal idazleak jesusen lagundikoak direla, edota, Mogel hala ez bazen ere, hezkuntza behintzat haiekin jaso zuela.

Baina, guztiarekin ere, egin zen euskaraz ere homologazio hori:

“18. mendean, garaiak ekarri aldaketan ondorioaz, eta, segurenaz ere, behe-mailako irakaskintzaren hedatzearekin, elizagizon talde batek, Larramendiren gidaritzapean, euskarari beste toki bat eta beste itxura bat eman nahi izan zion lehenik ahozko predikuetan, eta gero idatzizkoetan ere,”. Oyharçabal (op.cit. 41.or.)

Dakigunez, euskara *ere* homologatua gertatu zen sasoi hartan. Neurri handi batean euskarazko sermoia-aren estrukturazioa, sasoi-ko Jesus lagun ospetsuenetakoen esku geratu zen, bestela esanik, Kardaberaz eta Mendibururen esku, gartsu ibili baitziren misio eta sermoigintzan, bai ahoz<sup>14</sup>, bai idatziz<sup>15</sup>. Han eta hemen batera aipatzen diren Larramendi, Kardaberaz eta Mendiburuk egiteko desberdinak izan zituzten hizkuntzaren auzian. Larramendi ezin da kontsideratu sermoigintza alorrean eredugarri, salbuespenak salbuespen (“Azkoitiko sermoia”, Lakarra 1985). Hori bai, euskararen aldeko mugimendu horri euskarria eta itzala eman zizkion<sup>16</sup>.

Hala ere, ezin da ukatu hiru jesuisten oratoriaren gaitasunak eta prestakuntza teologiko eta apostolikoak aldaketa sakona ekarri zizkiela hala euskarari, nola euskarazko predikazioari (predikatze bide desberdinak izan bide zituzten: Kardaberazek herrikoiagoa; Mendiburuk jasoago, jantziagoa eta hizkuntza mailan dirdiratsua). Biek ala biek hizkuntzaren kezka bizia izan zuten. Mogelen aipuak berriz ere argia dakargu:

“Es verdad que desde la época en que trabajaron y publicaron algunas obras los diestros bascongados Mendiburu, Cardaveras, y Larramendi, se nota más cultura en los sermones, y hay en Guipúzcoa no pocos eclesiásticos que han hecho un estudio serio del bascuence y que le hablan con gallardía” (idem aurrekoa)

<sup>14</sup> Mendiburu misioetan ibili zen hotegeita hamar urtean (1737-1767), batez ere Nafarroako iparraldean eta Gipuzkoan (Altuna 1982). Kardaberaz, berriz, Araban eta Bizkaian ibili zen, inkernu handiz azken hau ere, 150 misio emateraino (Garai, 1.or.).

<sup>15</sup> Idatziz jartzeko pausua haien testuak beste apaiz batzuentzat eredugarri eta lagungarri kontsideratetik letorke. Hona zer dioten Larramendik Mendibururen kristau-dotrinaren inguruan “y que es obra no solo util, pero aun necesaria para los Países Bascongados y obra acomodada y de alivio para Curas, Predicadores, etc.”. (Altuna 1982: xxxiii)

<sup>16</sup> Kardaberazek zera aurpegiatzen zion Larramendiri, azken honek hernaniarraren dotrinari ohar eta zuzenketa gehiagi-edo egin zizkiola-eta: “V.Rev. que ha escrito a la maravilla y tantos libros sobre el bascuence y del bascuence, ni uno ha escrito en bascuence. ¡Ojalá hubiera escrito muchos y muchos sermones y aun más doctrina! Nos hubiera hecho a todos otro favor mayor y nos hubiera enseñado prácticamente a hablar, escribir, etc”. (Tellechea Idígoras 1968: 6, azpimarrak geureak).



“Kultura” hori izan liteke Mogelentzat, guretzat estrukturazio eta homologazio dena. Interesgarria da, orobat, Agirrerren *Eracusaldiac* obraren sarrera orokorraren lehen esaldian erreparatzea: “*Finalmente* he puesto *legibles* las pláticas, que sobre los Sacramentos he hecho al pueblo en Misas mayores ” (azpimarrak geureak). Non “finalmente” horrek adieraz dezakeen “azkenean ere” jarri dituela ahoz esanikoak paperean, hau da, “legibles”. Esan dugunez, Agirre ez da idazle prekoza, *Eracusaldiac* liburuaren aurkezpena, hots, “Finalmente he puesto legibles...” hori idaztean, 1808. urtean, 66 urte zituen eta aurretik sermoilari gisa eskarmentua eta prestigioa zituzkeen.

Agirrerren iturriei gagozkiela, arrazoi bat baino gehiago dugu esateko Mendiburu dela erreferentzia nagusi, Fidel Altunak aztertu bezala (cix). Agirrek ez du Kardaberaz obra bere liburutegian, harrigarria bada ere. Aldiz, Mendibururen *Otoitzgaietako* 11 liburuetatik 10 dauzka<sup>17</sup>, eta esplizituki aipatzen du haietan oinarrituko dela. Mendibururengandik zati osoak hartu ez eze, estilo kontuetan ere inspiragarri izango du: hitz bikoteak, esateko moduak... Kardaberaz eraginik ba ote den ez da horren agerikoa “ez grafia ez bestelako ezaugarrietan”, baina Kardaberaz dotrina darabil Agirrek erabat 1803ko liburuan (id. cv). Esan bai, esaten du Kardaberaz aginduez baliatzen dela<sup>18</sup>, nahiz eta ez duen haren obra aipatzen. Aldiz, Agirrek Mendibururen ereduari jarraituko diola azaltzen du esplizituki:

“Yo procuraré tirar las pláticas con miramiento á todos estos actos, pero ceñido siempre á puntos correspondientes á este admirable Sacramento. Me valdré de los materiales, que contiene el Padre Mendiburu, y pondré en lugar de exordio las instrucciones breves del librito vascongado de la primera Comunión” (A 326)

Agirrerren kasua ez da izango isolatua. Gerora, hainbat idazlek jarraitu bide zituzten Jesus lagunenen ereduak. Zentzu horretan argia dirudi, Arejitarren arabera, Mogelen zorra haiekiko<sup>19</sup>.

<sup>17</sup> Mendiburuk, Altunak erakusten digunez (1984: lviii), *Urte guziko igande eta festegunetarako Irakurraldiak* liburuari hitzaurrean “iracurtz” edo “iracur-aldi” deitu arren, gaztelaniaz *Sermones* edo *Discursos Morales* antzeko bilduma egiteko asmoa zuen. Cf. Agirrerren obraren titulua eta asmoa.

<sup>18</sup> El año de 1742 el R. P. Agustín Cardaberaz estableció en ésta, y otras parroquias la Congregación del Corazón de Jesús, cuyo fin es...” (A 322).

<sup>19</sup> “Geroakgarrenean ere Mogel abadea eskerroneko agertuko da Jesusen Lagundiarekin, euskal testuetan egiten dituen aipuetan. Nolanahi ere, eliz lagundi horrekiko harremana etenik geratu bide zen, Karlos III.ak 1767an erreinutik ate jaurtiki zituenean. [...] Kardaberaz eta Mendiburu predikari eta euskal idazle eginak euren zahartzaro betean. Juan Antonio Mogel

Horiek horrela<sup>20</sup>, sermoiaren tasun fundazional batzuk berreskura ditzagun: errepikapena, zirkularitatea, gaiak jiran-biran ematea... Agirreraren obrari ere aitortu behar zaizkio ezaugarri horiek, horren ugari dira errepikapenak eta joan-etorriak. Gogora bedi sermoi generoak eskatzen duela testua memoriari lotzea, eta memoriari testua.

Ezin da ahaztu hizkuntzaren hautua, euskara. Sermoiak *ongiari* buruz hitz egiteko premia ez ezik, *ongi* hitz egiteko premia ere badu (jesuitek horren estimatu izan duten Kintilianoren erretorikak gomendatzen duen bezala). Erretorika sakratuaren testu-inguru honetan kokatu behar da euskara lantzea eta itxuratzea. Predikazio hizkuntzak euskararekiko eta euskaldun batzuekiko erakusten duen lotura horrengatik sortu izan da gerora “euskaldun, fededun” asoziazioa.

Azkenik, hurbilagotik ikus dezagun Agirre Asteasuakoaren lana.

### 1.3.2. AGIRREREN PROIEKTUA

Agirrek, ikusi dugu, garrantzia eman zien irakurtzeari eta idazteari, nahiz eta bizitzan gutxi publikatu. Idazleaz eta obraz oso gutxi dakigun arren, are gutxiago dakigu, ohi den bezala, irakurleaz eta entzuleaz. Bi obra nagusi ditu: 1803an publikaturiko dotrina eta aztertuko dugun *Eracusalldiac* obra, 1850ean publikatua. Kontsideratzen dugu bere obra, Ozaetaren ideia ildotik (1974) proiektu orokor bat euskal hartzaile mota baten hezkuntza erlijiosorako: bategatik, *CC*, haurrei dotrina irakasteko modelo bat litzateke (metodo laikoekin pareka daitekeena); eta, bestetik, *Eracusalldiac*. Bi obra horiek osatuko lirateke Agirrek 1795an, agi denez, itzuli zuen Astetearekin.

Bere proiektuak, erreparatuz gero, kutsu programatikoa du, bi tratadu egin (*CC* edo umeentzako dotrina (kartila) bat elkarrizketa forman, erlijio katolikoaren bidean sartzeko kontzientzia hartze bat; eta *Eracusalldiac* “cristau aziai” zuzendua, alegia, helduek izen behar duten ezagutza eta kontzientzia bizitzaren

---

abade gazteak haien liburuetan hartu zuen eskola, euskaraz predikatuak egin eta batez ere euskaraz idazteko” (Arejita 1999: 9-10).

<sup>20</sup> Ez dugu aztertuko frantziskotarren ekarpena sermoiaren egituraketari, misiolari-sermoiari gogotsu aritu baziren ere. Zarauzko misiolarien artean honakoak nabarmentzen ditu Altunak (2000: 103 eta hh) Francisco Antonio Palacios, Pedro Antonio Añibarro, Juan Mateo Zabala, Jose Kruz Etxeberria. Badakigu, Fidel Altunari esker berriz ere, Agirrek Añibarroekin harremana izan zuela.

helmuga trszendenterako. Erabat osagarriak dira bi obrok, erreparatuz gero. Azpian datzan ideia formazio erlijiosoa lan metodiko batez lantzea da, giza bizitzaren Alfa eta Omega, CC eta *Eracusaldiac* bideratzea. Perfekzio bidea erdies-terko amaraun sarea da Agirrerren proiektua, adin desberdineko hartzaileak hartzen dituen (haurrak, senar-emazteak, zaharrak, gaztetxoak... “cristau aziac”), urteko sasoi guztiak (Garizuma, Pazkoa, Abendua...), denbora orotarako (festa eta lana), toki orotan (etxean, elizan, soroan, eta abar). Ezagutzen ditugun bi lanak (CC-k eta *Eracusaldiac*) hedatzeko asmoz pentsaturiko eta gauzaturiko obrak dira: lehena *Euscaldunai* eskainia eta bigarrena apaizei (*Ezqueintzen diezte Apaiz Euscaldunai*). Bi hartzaile mota izango ditu, hortaz, Agirrerren proiektuak: batetik, CCn dotrina irakasleak eta, bestetik, haurrak. *Eracusaldiei* gagozkiela, hartzaileak apaizak eurak ez ezik, apaizen aurrean igandero Elizan bilduko diren herritarrak. Agirrerren asmoa betez apaizek izan zezaketen asti gehiago beste lan batzuei ekiteko eta predikazioaren hizkuntza “kalitatea” bermaturik zatekeen; Agirrerren hizkerak, izan ere, aisa gaintzen ditu Larramendiren kritikak euskal gaizto egiten zuten predikariei<sup>21</sup>. Bi lan horietan, erredakzio txukuna topatuko dugu, beraz, eta erlijio katolikoaren oinarriko printzipioen aurkezpen eta maneiu ona. Horren erakusgarri, Gipuzkoako Artzapezgo Nagusiak publikatu zituen biak. Eta horrela, autoritate bat izango dira, hala Agirre nola haren obra. Esate baterako, CC hainbat bider berrargitaratuko da (ikus behegoko), obra autorizatu eta gomendatu bezala.

Badira, agi denez, Agirrerren lan argitaragabeak ere. Astete baten itzulpena egin zuela dirudi, 1795 baino lehen. Halaber, Kardaberzen dotrina berrargitaratu zenean gatzelaniazko sarrera eta euskarazko ohar ugari erantsi zizkien. Agirrerren gutunak ere, Ozaetak argitaraturiko alea salbu, publikatu gabe daude.

Hona, lan nagusiak, alez ale:

### 1.3.3. **COMUNIO ETA CONFESIOAREN GAINEKO ERACUSALDIAC (1803)**

Obra honek 1803an ikusi zuen argia Tolosan. Argitalpen gehien izan duen obra izanik, beharbada ezagunena izan da (1823, 1868, 1899 eta 1900).

---

<sup>21</sup> “badarazate pulpitan hitzera naasi bat, bein Euskera, bein Erdera, bein Latiñera, guzia leudatua, zikindua, barastua: zeñean dirudien, igo dirala gain artara enzuleei burla egitera: eta arritu oi naz, nola asko ta asko, bulzaka ordu gaistoan aientzat, botatzen eztituzten andikan bera”. Manuel Larramendiren euskal testuak: 35, Oyharçabalek aipatua, 38.or)

Sarrera luzea eta interesgarria du, 9 orrialde (gazteleraz). Emiliano Ozaetak tesina bereziki obra honi eskaini zion, erakutsiz Agirrek metodo bat osatu zuela kristau dotrina irakasteko. Obraren hartzaileak lehenbiziko Komunioa egin behar duten haurrak lirateke. Katekesi euskalduna jasotzeko bidea eman nahi izan zien Gipuzkoako orografia malkorra eta bizi baldintzak kontuan hartuz. Formazio proiektu horrek hartzen ditu liburuaren lehen eta bigarren atalak. Lehenengo atalak Konfesioko Sakramentuaren jakingarriak dakartza; bigarrena Komunioari eskainia dago. Bi kapituluok galdera-erantzunetan antolatuta daude. Liburuaren hirugarren eta laugarren zatiak beste hartzaile batzuk dituzte, kristau haziak. Liburua *Euscaldunai* eskainia dago eta 330 orrialde ditu.

Fidel Altunak egindako datatzearen arabera, liburua 1802an idatzia izan zen, eta hurrengo urtean gipuzkoar abadeek berau argitaratzea erabaki zuten. (ikus, halaber, Ozaeta 1973: 102-103).

Obra hau, esan bezala, gure azterketatik kanpo utziko dugu. Liburu honen ekarpenik handiena dotrina metodo bat umeentzat euskaraz moldatzea izan zen. Haatik, laugarren zatiko gaiak (zatirik luzeena) erruz topatuko ditugu *Eracusaldietan* errepikaturik. Gainera, *Eracusaldiac* “Apaiz Euscaldunai” eskainia dago: gure ustez, eskaintza horrek moldatzen du sermoiak taiutzeko modu bat, *corpus* homogeneous, gure lanean zedarritzen eta deskribatzen saiatuko garena.

#### 1.3.4. *ERACUSALDIAC* (1850)

Obra mardul hau (3 liburuki), Agirre hil eta 27 urtera argitaratu zen, Tolosan. Ez zuen beste argitalpenik izan 1978. urtera arte, Hordagok edizio haren faksimila egin zuen arte, euskal klasikoen bilduman. Gaur egun zaila da Agirrerren obra osoa paperean lortzea, baina eskuragarri dago sarean ([www.armiarma.com/klasikoen\\_gordailua](http://www.armiarma.com/klasikoen_gordailua)). Irakurleak Asteasukoaren testuak eskuztatu nahi baditu, jo dezake Altunaren antologiara, edota Mujika Iraolaren *exempla* bildumara. Lehenean, testu osoak irakur daitezke (*CC* eta *Eracusaldiac* obrena), eta bigarrenean sermoi zatiak, hots, adibideak eta *exemplak*, prosa didaktikoan hain garrantzitsuak eta, egilearen literatura trebetasunaren erakusgarri ere bai.

*Eracusaldien* lehen edizioan 700 ale argitaratu ziren eta saldu ez zirenak Tolosako parrokiako artxiboan gorde ziren. Ale gehienak Gipuzkoara joan

ziren, baina beste ale batzuk Nafarroara, Bizkaira eta baita Araba aldera ere<sup>22</sup>. Obraren eskaintza honakoa da (ikus eranskinak, 296, 309, 348. orr.):

“DON JUAN BAUTISTA AGUIRRE ASTEASUCO ERRETORE, ETA GIPUZKOAKO ARZIPRESTAZCO NAGUSIAN DIPUTADU GENERALAC, CRISTAU ACIAI MEZA NAGUSIETAN EGUIÑAC.

Esqueintzen diezte Apaiz Euscaldunai”.

Horren obra handiak (lehen liburukiak 634 orrialde ditu; bigarrenak 526; hirugarrenak 642) ez dio 1. liburukian ageri den datari (1808 abuztuaren 10a) erantzuten. Obra bakoitzaren datazioaren gorabeherak zertan dauden azaltzeko Fidel Altunaren lan zehatzaz baliatuko gara. Hona hemen liburuki bakoitzaren deskripzioa:

**b.1) *Jesu-Cristoc bere elizari utzi ciozcan, zazpi sacramentuen gañean eracusaldiac***

Lehen liburukia (hemendik aurrera, A) *Eracusaldiz* osatua dago, hau da, obra osoari titulua ematen dion sermoi moldearekin. Beste bi liburukiak anitzagoak diren arren, 1. liburu hau erabat homogeneoa da. Sakramentuak ditu aipagai eta banan-banan azaltzen eta aletzen ditu liburukian zehar. Praxi eskaerarekin batera, noski. Orotara 63 *eracusaldi* ditu eta hitzaurre bat.

Obraren abiaburuz hitz egiten du idazleak hitzaurrean: “Finalmente he puesto legibles las pláticas que he hecho al Pueblo en Misas Mayores”. Agirrek argi ageri du bere helburua: “Si a estas pláticas se añadiesen las de los Misterios del Señor, y de su Santísima Madre, creo que serían un alivio grande para los Párrocos bascongados”. Fidel Altunaren datazioaz baliatuz, 1. liburukia 1808koa litzateke, gerraren erreferentziarik ez dago: frantsesen aurkako gerratea hasi gabe zegoen artean.

**b.2) *Jaungoicoaren legueco amar aguinteen gañean eracusaldiac***

Liburuki hau (aurrerantzean, B) ez da homogeneoa. Batetik, hartzaile desberdinentzako idatzia dago eta, bestetik, hiru sermoi mota dakartza: *Era-*

---

<sup>22</sup> Hona Ozaetaren datuak (86. orr.): “Agirrerren lanak 59.325 erreal eta 6 marabedi kostatu ziren. 700 ale inprimatu ziren. Horietatik 440 harpidedunek eskuratu zituzten. Gehienak Gipuzkoan gelditu ziren, baina beste batzuk Araban, Nafarroan eta Bizkaia aldera joan ziren. Astigarragako erretoarek 22 ale eskatu zituen, beste hainbeste lagunen artean banatzeko noski. Elorrio aldean 27 ale eskatu zituzten. Araban, aramaioarrak 7. Leintz-Oñati aldekoak 27, eta apaiz naparrak 90 inguru”.

*cusaldiac*, *Platicac* eta *Bederatziurrenac*. Hiru zatitan banatuta dago, eta gorabeheratsua da horien historia. Agirrek bere testamentuan bigarren liburu-ki hau hiru tomotan bereizi zuela zehaztu zuen. Baina, publikatzeko orduan, editoreek kendu egin zuten Agirrek prestaturik zeukan lehen zatia, izan ere, CC-ko sermoi asko ia hitzez hitz kopiaturik zeuden. Beste guztia berdin utzi zuten editoreek. Liburuak, modu horretan, bi zati gorde zituen, Agirrereren testamentuan bi liburu desberdinei zegozkienak. Bi zati horiez gain, argitaratu ez zuten lehen zati hartatik bi sermoi berreskuratuz zituzten.

Bigarren liburuki honen lehenengo zatian Aginteak edo Mandamentuak azaltzen dira. Bigarren zatian gaztetxoentzako dotrina bat agertzen da (osaturik dagoena *Eracusaldiac* izeneko sermoiekin –berriz ere *Eracusaldi* izendape-na berreskuratuz– eta Bederatziurren batekin). Liburukiaren tituluari erreparaturaz gero, *Jaungoicoaren legueco amar aguinteen gañean eracusaldiac*, beronek soilik jasoko luke 1. zatia (Agirrereren planetan 3. zatia zena), 3-230 bitarteko orrialdeak. Bertan jorratzen dira aginduak. Giro zorrotza dario lehen atal horri: Mandamentuen azalpenez gain, ohartarazpenak eta portaera erregulazioak ageri dira, eta bigarrenak nagusitzen dira.

Begirada globaletik, liburu orekatua gelditu zen: 1. atalak 25 Platika ditu; 2. atalak beste 25 (baina Platika barik, *Eracusaldi*); eta Bederatziurrenak, 9 + 2. Bukaerako bi sermoi horiek eranskinak dira, oso laburrak, bederatziurrenen ostean esatekoak (“Jaunartze egunean Bataioaren hitzak berri-tzeko”; “Bizitza onean irauteko”).

Orotara, 62 sermoi, beraz. Obra honen datari dagokionez, 1814an idatzia litzateke, *Independentzia* gerra amaitu berri den zantzuak ageri dituztelako testuek.

### **b.3) *Jesu-Cristo, eta Virginia chit santaren misterioen, eta beste cembait gauca gañean eracusaldiac***

Hirugarren zenbaki hau (aurrerantzean, C) genuke zenbakirik heterogeneoena. Agirrereren testamentuan ez da agertu ere egiten, editoreek atondua da osorik. Oso obra mardula dugu (650 or.). Urteko jai bakoitzerako erakusaldi bat edo batzuk dakartza. Erakusaldi bakoitzean gai eta sasoi desberdina darabil: Pazkotan hasten da Garizumaraino. Badirudi Agirrereren ahalegin bat dela urte guztiko jai eta ospakizunetarako propio eta egoki den sermoia idaztea. Halako zerbait adierazi nahiko luke editoreen oharrak, ezen, jai batzuetarako sermoirik ez dagoela erreparaturik, eta hutsuneaz oharturik, zera ezarri zuten liburukiaren aurreneko orrian:

“El lector echará de menos algunos sermones correspondientes a varios misterios y fiestas principales que celebra la Santa Madre Iglesia, y por lo tanto se advierte que entre los escritos del Autor no se han encontrado más que los que se publican en esta obra”.

Hiru atal lituzke obra honek: lehenengo atalak 46 hitzaldi hartuko lituzke, baina soilik 10 dagozkio 3. zenbakiaren tituluari (liburuaren hasieran daudenak). Lehen zatiko beste hitzaldiek oso gai anitzak jorratzen dituzte (“Comunio gaiztoen gañean”, “Ordiqueraren gañean”, “Ceñ andia dan gure Jaungoicoa”, eta abar).

Bigarren atalak bilduko lituzke Abenduko eta Garizuma igandeetako sermoiak (8 sermoi Abendukoak eta 4 Garizumakoak). Hirugarren atalak lituzke 3 dotrina grina eta pasio gaiztoen gainean.

Orotara, 61 hitzaldi. Garai desberdinetan idatzitako sermoiak lirateke Al-tunaren arabera: Amarbirjinen sermoiak 1817koak dira, kenduta 1.a eta 2.a; lehen zatiko ostantzeko aleak 1795koak lirateke. Dotrinak eta Garizumako eta Abenduko sermoiak, halatsu, 1795koak lirateke.

Obra eta liburukien ezaugarri batzuk aurkezturik, hemendik aurrera, Agirre Asteasukoaren testuetan murgilduko gara. Ohar, halaz ere, gure ikuspuntutik, sermoien erantzukizuna ezin zaiola esatari bakar eta bakartuari leporatu, itxura antropomorfikoa duen horri, ez eta izaki diskurtsiboari ere (gutxiago oraindik esatari hori multiplikatzeke asmoz pentsatu den obra batean). *Auto-rializazioaren* arazoa da: gure lokutorea autore singularra da, baina ez da subjektu beregaina: erakunde baten izenean hitz egiten du, haren bozgorailu eta bozeramaile gisa; hark delegatu du eginkizun bat esatariaren bizkar. Pertsona egokia delakoan eginkizun hori betetzeko: dotrina irakasteko metodo bat idatzi, taktika pedagogiko baten aplikazioa, homologazioa duena sermoigintzan, generoaren ezaugarriak betez (egiturazkoak, helburuzkoak, forma linguistiko batzuekin). Hots, testuaren enuntziatzailea *enuntziatzaile instituzionala* da. Lokutore batengan delegatzen den aparatu baten diskurtsioa. Horregatik gehiago interesatzen zaigu diskurtsioa bera, enuntziatioaren bidez ber-eraiki daitezkeen ezaugarrietarik karakterizagarria. Lan unitate minimoa testua da, eta testuari (generoari) utziko diogu bere buruaz hitz egiten. Bertan agertuko dira ikuspuntuak, inplikazioak, bisioak eta misioak... Beraz, Agirre Asteasukoa *esataria* eta *enuntziatzailea* da aurrerantzean.





2. KAPITULUA

**SERMOIA TESTU-SEMANTIKAREN  
ARGITAN**



## 2.0. MODULUARI SARRERA

Obraren alderdi historikoak eta biografikoak alde batera utzirik, modulu honetan *corpusean* bildutako testuen analisiari ekingo diogu. Lehen analisi honetan *testu egituraz* arituko gara. Beraz, sermoiaren gainean egingo dugun lehenbiziko hegaldia edo begirada testuala izango da. Are gehiago, sermoiak *testuak* direla baieztatuko dugu, idatzizko testuak, gure kasuan. Esan dugu jada sermoia “estrukturazio” baten fruitua dela, ahozko mintzairan oinarritu zen praktika idatzia. Hortaz, orain galdetuko dugu zer den testu bat. Eranztungo da, hasteko eta intuizioz berba eginez, hizkuntza produkzioak direla, edo hizkuntza “materializazioak”. Eta teorizazioan aurrera eginez eta haren argitan, esango da perpausa baino unitate zabalagoa dela testua, eta perpausa baino goragokoa ere bai. Dena den, hurbilbide teorikoaren arabera, autore batzuek defendatuko dute perpausaren parean badagoela beste kategoria gramatikalik ere. Esango dute, ondorioz, testua perpaus-multzo bat dela, eta ez izaera berezia duen errealitatea. Jakina denez, kontsiderazio horien azpian hautu teorikoak eta metodologiko desberdinak dautza.

Gure ikuspuntutik, testuak izaera berezkoa eta beregaina dauka (Beaugrande & Dresler 1997), eta printzipio horrek abiatzen du azterketa. Baina, horiek horrela, onartzen da testuak ez direla mintzaira-produktu puruak edo “aratzak”, ezen zenbait osagai historiko-komunikatibo bereganatu baitituzte denboraren bilbean. Onartu behar da funtsean giza komunikazioren baitako errealitateak direla, eta, horrenbestez, hainbat faktoreri estuki lotutako errealitate, ezinbestean. Horra hor, besteren artean: ekoizpen baldintzak, bidaltzailea eta hartzailea, kodetze eta ulertze kontuak, koherentzia, lotura sozio-historikoak, ideologia... Alderdi horien guztien gertaleku da testua. Testuak, izan ere, testuinguru jakin batean osatzen eta ontzen dira (erabili ere bai), eta beren balio osoa hortxe hartzen dute hain juxtu.

Testuaren testuinguru osoa bere horretan kontuan hartuz, eta erredukzionismo metodologikoa gainditu guran, esango da testua objektu empirikoa eta semiotikoa dela (Albert Galera 1990). Beste batzuek, eta guk geuk ere bai, esango dugu testua mintzaira-ekintzaren produktua dela, interakzionismo sozio-diskurtsiboarena; hots, produktu historiko eta soziologikoa.

Gauzak horrela, komeni da testuen izaera esplikatuko duen marko teorikoa zirriborratzea, testuaren gainean egindako planteamenduak eta ekarriak hona biltzea.

Esana dugu jada, guretzat, garapen historikoaren barrena eskuratutako tresna dela mintzaira. Mintzaira (elkar)ekintzen bidez burutzen den giza-jarduera da. Eta testua mintzaira horren bidez gauzaturiko produktua, elkarreragin sozialeko produktua, hots, erabilera-produktua. Eta horregatixe, erabilera horri estuki lotua, erabilera baten *menpe* ere badagoen zerbait da. Izan ere, komunikazioan gertatzen diren elkar-jarduerek forma semiotizatuak sortzen dituzte, molde eta formetan semiotizatuak. Testua, horrela bada, zera dugu: mintzaira-ekintzaren adierazlea, erakuslea, eta, aldi berean, produktua ere bai.

## 2.1. OINARRI TEORIKOA

Oinarri teorikoa osatzeko, testu-hizkuntzalaritza deritzan hurbilbidera joko dugu. Hona hemen zenbait zertzelada.

Testu nozioa, bere adiera teknikoan eta modernoan, jaio berria da: testu-gramatika deituriko korrontean du abiaburua (zehazki Alemanian, 60ko hamarkadan). Hurbiltze horren ahalegin lehena eta nagusienetarikoa testua den hori ez-testuarekiko bereiztea izan zen, eta ahalegin horren atzean bi arrazoi zeuden: batetik, esaldiaren nagusitasun absolutua hautsi nahia, eta, bestetik, hizkuntzalaritzaren mugetatik objektu berrietara hedatzeko beharra. “Testua” unitatea sartzeko hizkuntza sistemako unitateen hierarkia zabaltzea eta hedatzea ekarri zuen.

Gerora, beste arazo eta gai batzuk agertzen dira: 70. hamarkadan testuaren izaera komunikatiboa, edota testua/diskurtsoa bikotea, testu-generoak edo testu-tipologia sailkatzeko irizpideak, eta abar. Ugariak izango dira ildo horietatik egindako saioak eta proposamenak. 80. hamarkadan gogotik ekin zitzaizkien aurreko gaiak eta sailkapen empirikoak eta azalpen teorikoak eskaini ziren. Hor dago baita ere testu/diskurtso bikotearen arteko bereizketa. Garai honetan, van Dijk autoreak (1983) testuaren erlazio semantikoetan jartzen du

interesa, eta koherentzia terminoaren bigarren adiera ekartzen du: testuaren *koherentzia globalaz* mintzo da. Hamarkada hura, baita hurrengoa ere, garai emankorra izan zen testuaren gaineko azterketen alorrean.

90ko hamarkadan, Adam autoreak, Bajtini jarraituz, sekuentzien eredia sortzen du Werlich-en oinarri testualetatik abiatuta. Kontzepzio honen azpian, testua estruktura abstraktua kontsideratzen da, harreman sare hierarkiko bat biltzen duena.

Bronckartek (1996) ISDaren eredutik, planteatzen du testuak elaborazio maila desberdinean enpirikoki aztertzekeo beharra. Bronckartek berak testu generotzat edota generoaren barneko testu-moldetzat hartuko ditu testuok. Eta are gehiago: Bronckartek produktu historiko eta soziologiko gisa hartuko ditu testuak.

Slakta autoreak (1975) bereizketa interesgarria egin zuen. Izan ere, kontzeptu-sail paraleloak egin zituen: bata, *testua-esaldia-monema* ikuspegiari dagokiona, eta bestea, *diskurtoa-enuntziatua-hitza* ikuspegiari datxekiona. Bereizketa hau, besteak beste, Bronckartek eta Adamek ere onartu dute.

Gatozen orain testu-hizkuntzalaritzaren ekarpen orokorrak eta nagusiak zertzelatzera.

Testua ez da edozein esaldi edo paragrafo-multzo, zenbait baldintza bete beharko dituen multzoa baizik: zerbait egituratua eta koherentea da testua. Esanahi aldetik osotasuna du, eta, luzea izan edo ez, testua komunikazio-unitatea da. Testuari nolabaiteko konplexutasuna erakusten duen hizkuntza forma dagokio: a) testuak biltzen dituen hizkuntza osagaiek ere forma dute; b) testuak, beti ere, mezu bat bideratzen du; c) testua komunikazio-egintzari kateaturik dago.

Eta modu positiboz definitzen delarik: testuaren esanahia esaldi desberdinen eta guztien batura baino zerbait gehiago da. Horrekin esan nahi da testuak baduela *esanahi erantsi bat* testu atalei ezinbestean mugatzen ez zaiena. Testua bera ere “zeinua” da.

Testuaren esanahia ulertzeko eta bideratzeko erabilitako operazioak *gaitasun* edo *kompetentzia* mailakoak direla esaten da. Hau da, hizkuntzaren sistemaren baitakoak direla. Zentzu honetan, testu mailako gertakariak hizkuntzagaitasunaren osagai dira. Halatan: a) testua osatzen duten perpausen interpretazioa super-egitura semantikoan integratzen ahal da; b) testuaren eta bera osatzen duten perpausen artean bateragarritasun baldintzak gertatzen

dira; c) testua bere osotasunean modu koherentean ulertua izan dadin, testu hori osatzen duten segmentuen artean baliokidetzaz-erlazioak izan behar dira.

Van Dijkek (1983) honako ibilbidea proposatzen du aipatu interpretazio semantiko hori egiteko. Aurrena, *mikro-egitura maila* aztertu beharko da. Mikro-egitura hori aztertzeke, ezinbesteko da hitzen esanahia ezagutzeta, baina hori ez da nahikoa, zeren eta hitz horiek proposizio ere bai-baitira, hots, argumentuak eta predikatuak dira, eta rol semantikoak atzeman ahal dizkiegu, baita nolabaiteko ilokuzio-indarra edo balio pragmatikoa ere. Beste hitzetan esanda, proposiziook *ideia* bat adierazten dute. Horrela, proposizioerrepresentazioak azpi-egituretan biltzen dira, hots, mikro-egiturak osatzen dituzte. Horrela gauzak, mikro-egiturak testuaren linealtasunari oratzen dio, eta bertan bereziki honako gaiak hartzen dira kontuan: hitzen *esanahia*, gaia-*ren harilkatzea* (zer den ezaguna eta zer berria) eta proposizioen arteko *kateatzea*. Mikro-egituren egitekoa, beraz, testuaren esplizitate urratsa litzateke.

Baina testuaren analisisa hori baino emankorragoa da. Van Dijkek beste maila batera jo beharra ikusten du, aurrekoa baino maila altu edo orokorrago batera: *makro-egitura mailako* analisira, hain zuzen. Maila honetan aurrekoan ez bezalako eragiketak ageri zaizkigu. Makro-egitura mailako antolamendua-*ren premia*, hala ere, ez da soilik linguistikoa, kognitiboa ere bada, testuaren esanahi globala edo mezua “zertaz zihoan” ulertu ahal izateko.

Makro-egiturak beti ere testuaren *ideia globalei* egiten die erreferentzia, hau da, testu sekuentziei eta hurrenkerei. Ideia horiek maiz paragrafoei egokitzen zaizkiela gogoratu behar da, nahiz eta ez derrigorrez (ikus beherago “Analisia eta iruzkinak” atalean makro-egituren errekurtsibotasunaz esango dena). Horrela, bada, eta orain artekoa laburbilduz, badira bigarren mailako egitura-*tzeak*, egituratze nagusiak eta are oraindik nagusiagoak ere. Halaber: badaude bigarren mailako gaiak, gai nagusiak eta are nagusiagoak ere.

“La macroestructura –dio van Dijkek– no se obtiene por creación de uniones locales suplementarias, sino que es el resultado de una especie de transformación semántica, que asocia las secuencias de proposiciones del texto con macroproposiciones de un contenido más abstracto, más general, más global” (van Dijk, op.cit. 116. or)

Makro-egiturak agertu mikro-egituren bidez agertzen dira eta batetik bestera pasatzeko lau operazio edo *makroerregela* aipatzen ditu van Dijkek (ezabaketa edo omisioa; hautaketa edo selekzioa; orokortzea edo generalizazioa eta integrazioa). Baina mikro-egituraz eta makro-egituraz gain, van

Dijkek testuaren beste egitura-maila bat proposatzen du, *super-egitura* deritzana. Super-egitura esatean zera adierazi nahi da: testuaren *antolamendu globala* (ohar makro-egiturak testuaren *esanahi globalari* erreparatzen diola) eta hura kokatzeko testuinguru kognitibo egoki baten burutzea. Super-egiturari esker, testu bateko ideiei garrantzi maila jakin bat eman dakieke. Super-egitura horrek gidatzen du hiztunaren ulermena, osagai berriei zentzua emateko egitura batez hornitzen baitu.

Super-egitura testuari dagokion tasuna da, hau da, ez dagokie ideiei eta ideien arteko erlazioei (makro-egiturei), ezta ideien testuratze-mekanismoei ere (mikro-egiturei). Super-egitura maila zehazteko, zeresan handia dute irakurleak eta haren ezagutza entziklopedikoek. Nozio hau tresna baliagarria izan daiteke hizkuntzaren erabilera modu azkarragoan eta ziurragoan ulertzeko. Ondo dator bereziki testuak sozializatuak eta instituzionalizatuak direnean, gure kasuan gertatzen den bezala.

Super-egitura ateratzeko makro-egitura operazioak martxan jarri behar dira (gorago aipatu lau erregelak), eta horrek prezio kognitibo handi samarra du irakurle/entzuleareantzat. Lana erraztu egiten zaio, nolana ere, irakurle edo entzule horri, testu hori zein generotakoa den ezagutzen badu, zeren eta generoak eskema ohikoa edo konbentzionala izaten baitu, atal edo gai desberdinak izan arren. Interpretazioa, funtsean, erraztu egiten da diskurtso bat “super-egitura” bati asoziatuz gero.

Testu batek gutxienez bi egitura-maila izan behar ditu; baina soilik makro-egitura da ezinbestekoa testueltasuna gerta dadin; hots, ideia bat transmititu behar du. Baina super-egitura (antolaketa globala) ez da beti ezinbestekoa. Gauzak horrela, pentsatzen da egituratze-antolamendua hiru mailatan gertatzeak, testu-generoa definitzeko eta karakterizatzeke indar handia duela.

Paragrafoa, bestalde, testu-egituraren osagai litzateke; eta adierazle eta eragile ere bai, bereziki makro-egiturarena, bistan denez. Ziurrenik, idatzizko hizkuntzan, makro-egituren existentzia agerian jartzen duen mekanismorik argienetakoa, epigrafeekin batera, paragrafoa da. Alegia, paragrafo batek sekuentzia bat markatzen du: bere osagarriak nolabait topiko berberaren zati dira. Horregatik esan dezakegu testu globala ez dela esaldien loturaz osatzen, baizik eta esaldi sekuentzien loturaz. Beraz, bidezkoa da paragrafoari izaera makro-egiturazko hori aitortzea (ikus gure artean, Makazaga 1996). Nola lortu paragrafoen hurrenkera testu bilakatzea? Gure aldetik, paragrafoen analisirako Longacre autorearen (1979) planteamendu klasikoa hartuko dugu aintzat.

## 2.2. LAN-METODOLOGIA

Aurreko puntuan ikusi bezala, testuek konposizio eta egitura konplexua dute. Van Dijk autoreari jarraiki, hiru osaera-maila bereiz dakizkioke testuari: mikro-egitura, makro-egitura eta super-egitura. Testu batek horietako bi izan behar ditu testu izateko, eta horietako bat, makro-egitura, ezinbestekoa da.

Bestalde, Longrace autoreari jarraikiz, paragrafoen egituratzea ere postula daiteke, testuaren planteamenduaren tresna den bezainbatean. Nola moldatzen dira paragrafoak? Ideien harilkatzearekin lotuta dago paragrafoa, ideien arteko loturarekin eta progresioarekin. Garapen moduak askotarikoak izan daitezke: lineala, tematikoa, logikoa, psikologikoa...

Orain arte ikusitakoaren arabera, testuaren analisiari heltzeko azter-objektuak honakoak izango lirateke:

- mikro-egitura
- makro-egitura
- super-egitura
- paragrafoa.

Halaz guztiz, nozio horiek ez dute munta bera gure azterketan eta arreta bereziki makro-egiturei eta super-egiturei eskainiko zaie. Paragrafoen inportantzia osagarria izango da.

Gogora bedi makro-egitura nozioa errekurtsibotasunarekin loturik dagoela, hots, bere antolamenduak maila bakarreko eta berekoak baino goragoak ere errepresenta ditzakeela. Zentzu horretan, makro-egitura behin eta berriro erabil daiteke eta malgutasuna ematen du.

Esate baterako, eta diogunaren haritik, *corpuseko* sermoiak hiru liburukitan banatuta daude; halaz ere, nozio honek hiru liburuki horietako sermoi-testu guztiak erlazio hierarkia beraren azpian sartzeko aukera ematen digu, hau da, M(akroegitura) berberaren azpian (ikus beherago taula 51. or.).

Nolanahi ere, egileak/sermoilariak hiru liburukietako sermoi-testuei izendatze desberdina ematen die, berehala aurkeztuko ditugun hiru izendatzeak: 1) *Eracusaldiac*, 2) *Platicac* edo *Itzaldiac*, eta 3) *Bederatziurrena*. Ikusi egin beharko da, izenak izen, ea makro-egitura eta super-egitura desberdinak dituzten hirurek ere, eta, desberdintasunik balego, zein mailatakoa den berori (makro, mikro ala super).

Gatozen, honenbestez, hipotesiak formulatzera.



## 2.3. HIPOTESIAK

- a) *Corpusean* bildutako sermoiak testuak dira eta, testu diren aldetik, mintzaira-ekintza egituratuak dira, konbentzionalitate handiko ekoizpenak; hots, zeinuak dira. Zeinuaren adierazlea, gure kasuan, hirukoitza da: hiru deituren azpian agertzen dira (*Eracusaldi/Platica/Bederatziurren*), baina denak egitura-eskema berekoak direla jartzen dugu hipotesipean, eta hirurek ere egitura-maila hirukoitza dutela (mikro, makro, super), nahiz eta guk bi soilik kontuan hartu (makro eta super). Zeinuaren adieraziaz den bezainbatean, hots, esanahia edo balioa, tipologikoa da, generoaren baitakoa. Hala bada, sermoiak –izendapena gorabehera– indar handiko komunikazio tresna dira, osagai ugariz osaturiko egonkortasun handiko konfigurazioak baitira; berriz esateko, testu-genero horri zor zaizkion tasunekin. Eta horrela izateak, gainera, sermoiei komunikazioan zuzenago eta sakonago eragiteko indarra damaie. Egitura-eskema berberaren presentzia komunitatearen antolaketa erlijioso-liturgikoaren emaitza da. Orobat da esatariaren ekintza testual eta diskurtsiboa. Baina, oraingoz, soilik dimentsio testuala aztertuko dugu.
- b) Paragrafoa testuen barne-egitura eta barne-antolaketa aztertzeko bide izan daiteke. Uste da, orobat, paragrafoa sermoien arteko bariazioak definitzeko balio dezakeela.

## 2.4. ANALISIA ETA IRUZKINAK

Agirre Asteasukoaren *Eracusaldiac* lanak 3 liburuki biltzen ditu (*Eracusaldiac-1*; *Eracusaldiac-2* eta *Eracusaldiac-3*). Lana, semiotikoki kontsideratuz, gorputz osoa da, baina triptiko baten presentazioa dauka, hots, *Eracusaldiac* obra trilogia da. Trilogia eta hirutasunak badu garrantzia eta lekua obran barrena, hiru zenbakiak erro sakonak ditu; esate baterako: *Eracusaldiac-2* eta *Eracusaldiac-3* liburukiak hiruna ataletan banatuta daude. Hor daude, baita ere, kristauak aldatu behar diren hiru gauzak (hitzak, pentsamenduak eta ekintzak). Jesukristoren hirutasuna ere agertuko da (Aita, Semea eta Espiritu Santua); eta hiru dira, gisa berean, zerua ez erdiesteko arriskuak (deabrua, mundua eta haragia). Ildo horretatik, ikusiko dugun bezala, Agirrek bereizten dituen sermoi motak ere hiru izango dira. Modu horretan, *Eracusaldiac* obrak ez dio iskin egiten hiru zenbakiak Erlijio Katolikoaren kulturen duen sinbologiari. Agerian uzten du obraren idazleak, ale-

tuaz joango garen beste zenbait ezaugarriekin nahasi, egoki dominatzen eta aurkezten dituela erlijio katolikoaren dogma eta esentziak. Azken buruan, esan dugun bezala, estamentuak balidatutako eta onartutako liburu autorizatua eta gomendatua da.

Egia da, bestalde, liburuak desberdinak direla eta asmo-antolaketa desberdinak izan zituela egileak, publikatu zen edizioaren erkatuz gero. Baina gogoratu behar da Agirreren testamentuan esplizitu agertzen dela *Eracusalldiac* hiru tomotan banatzeko asmoa (ikus gorago 1.3.4. atala, baita Altunaren sarrera 1999). Horiek horrela, eta kontuan izanik editoreek egin zuten lan serioa edo “profesionala” (idazlearen asmoak kontuan hartu eta horrela hirutasunari jarraibidea eman, eta horrela, gainera, 3. liburukia osotoro atontzea ez edozelan baizik eta 2. liburukiaren egiturari –hirutasunari– jarraituz, eta abar). Arrazoi horiengatik, guretzat onargarria da hiru liburukiak domeinu beraren azpian jartzea, *Eracusalldiac* lanaren azpian, hain zuzen. Obraren barruan aldeak eta desberdintasunak izan badira, jakina, kontuan izanik gainera 1795 eta 1817. urteen bitartean idatzirik daudela liburukiak, eta denbora tarterik asko ere badela gauzak aldatzeko. Baina, gure ustez, desberdintasunek beste iturri bat dute, zeren eta aldeak ez baitatoz inondik ere sermoia liburuki batean edo bestean aurkitzetik. Guretzat, liburukia ez da oposizio irizpide baliagarria, baizik eta liburukiotan agertzen diren sermoi-moldeak; horiek bai dira desberdinak eta kontuan hartzekoak. Bide batez esanda, liburuki bakoitza 62-63 sermoiz osaturik dago, eta, horrenbestez, bakoitzak urtebeterako plangintza bilduko luke bere baitan. Hortaz, hiru liburukiak hiru urterako lirarteke, urteko liburuki bana. Pentsa dezakegunez, hiru urteok bukatutakoan, berriro hasieratik ekingo zen.

Liburukien auzia eta beren pertinentzia alde batera utzita, heldu diezaio- gun gaiari. Hots, *Eracusalldiac* obrako sermoien izendapenean gorabeherak daude. Sermoi guztiek ez dute izen bera, dakigunez, hiru “mota” bereizten ditu egileak: *Eracusalldiac*, *Itzaldiac* edo *Platicac* eta *Bederatziurrenac*<sup>23</sup>. Izenak izen, hirurak antz handikoak dira eta familia berekotzat har litezke, “familia aire” bat dutela esan daiteke (Klieber 1988). Bestela esanda, ez dirudi izen bakoitzari *izan* desberdina dagokionik. Baina horren xerkan ari gara, ea hirurak egituratze-eskema berekoak diren, ala ez. Horixe dugu, gogora bedi, azterkizun modulu honetan.

---


<sup>23</sup> Garizuma eta Abendua denbora bereziak dira, eta sermoiak luzeagoak eta landuagoak dira. Haatik ez dugu elementu bereizgarririk topatu *Eracus* eta sermoi horien artean, egiturari dagokionez.

Sermoi en testu altasunaren azter-unitatetzat makro-egitura hartuko dugularik nagusiki, ez dago soberan ohartarazpen bat edo beste egitea nozio honi buruz. Hala, garrantzitsua da errepikatzea nozio hau errekursiboa dela, hau da, behin eta berriro aplikatu daitekeela maila desberdinetan:

“Llamaremos simplemente *la* macroestructura del texto a la macroestructura más general y global de un texto completo, mientras que determinadas partes del texto pueden tener sendas macroestructuras. Como resultado obtenemos una estructura jerárquica posible de las macroestructuras en diferentes niveles.”  
(van Dijk, op.cit. 56. or.)

Makro-egituraren bidez, hortaz, joan daiteke esaldi sekuentzia batetik gorago dauden makro-egituretara. Aipatu sekuentziak izan daitezke lokalak, esate baterako, paragrafoa, atala, kapitulua; edota izan daitezke sekuentzia globalak, esate baterako, testu osoa. Edota, hortik gorago ere joan daiteke, gure kasuan bezala, liburuki osora. Horrela, bada, mega-tresna gisa erabili dezakegu makro-egitura nozioa. Testu bat makro-egitura-maila desberdinak dituen e-  
struktura hierarkikoa eta erlatiboa da.

Hona jarraian van Dijk autoreak darabilen eskema (op.cit. 56. or.):



Guretzat eskema hori, esan bezala, garrantzitsua da zeren aukera ematen baitigu *Eracusalldiac* obra osoa, hiru liburukiak, makro-egitura bezala kontsideratzeko. Horrela, hierarkikoki mailarik altuenetik zehatzagoetara joan-etorriak egin daitezke.

#### 2.4.1. **ERACUSALLDIAC TRILOGIA: LIBURUKIEN EGITURA ETA BANAKETA**

Arestian esandakoaren haritik, liburukiak “testutzat” hartuko ditugu, bes-tela esanda, zenbait sermoi alez osaturiko bildumatzat. Interesgarria da, hasteko, liburu bakoitzaren atalketa edo barne egitura azaleratzea. *Eracusalldiac* obraren baitan dautzan sermoi-molde edo “ekintza-unitate” desberdinak izango ditugu aztergai, horra hor, *Eracusalldiac*, *Platicac*, *Bederatziurrenac* (aurretartzean *Eracus*, *Plat* eta *Bed*).

Jarraian *Eracusalldien* hiru liburukien deskripzio zehatza egingo da. Gogoan izan, hala ere, izendapenak (*Eracus*, *Plat* eta *Bed*) ez datozela bat liburukien banaketarekin. Hala, *Eracus* sermoiak agertuko dira hiru liburukiotan barrena, eta *Plat* eta *Bed* soilik bigarren liburukian.

- *Eracusalldiac-1: Jesu-Cristoc bere elizari utzi ciozcan, zazpi sacramentuen gañean eracusalldiac*

Lehen liburuki honetan *Eracus* motako sermoia agertzen dela soilik. Liburuaren makro-egiturari dagokionez, honakoa da:

- Sarrera orokorra (Kristo aurreko aldia, *Eracus* ale 1)
- Sakramentuei buruzko sarrera (4 *Eracus* ale)
- Sakramentuak banaka:
  - Bataioa (5 *Eracus* ale)
  - Konfirmazioa (*Eracus* ale 1)
  - Konfesioa (21 *Eracus* ale)
  - Komunioa (17 *Eracus* ale)
  - Mezako sakrifizioa (4 *Eracus* ale)
  - Oleazioa (*Eracus* ale 1)
  - Ordena (*Eracus* ale 1)
  - Ezkontza (6 *Eracus* ale)

– Beste batzuk:

- Espiritu santuaren doainak (*Eracus* ale 1)
- Zorion edo doatasunak (*Eracus* ale 1)

Guztira, 1. liburukian, 63 *Eracus* daude.

■ *Eracusalldiac-2: Jaungoicoaren legueco amar aguinteen gañean eracusalldiac*

- Lehen atala (Hitzaldi edo Platikak Mandamentuen gainean) (25 *Plat* ale)
- Bigarren atala (Eracusalldiak gazteentzako) (25 *Eracus* ale)
- Hirugarren atala (Bederatziurren bat eta bi sermoi eraskin gisa) (9 *Bed* ale)

Guztira, 62 sermoi daude 2. liburukian.


■ *Eracusalldiac-3: Jesu-Cristo, eta Virginia chit santaren misterioen, eta beste cembait gaucen gañean eracusalldiac*

- Lehen atala: (46 ale *Eracus*)
- Bigarren atala: (Abenduko eta Garizumako sermoiak, 8 + 4 ale)
- Hirugarren atala: (Hiru dotrina)

Hirugarren liburuki hau genuke zenbakirik heterogeneoena, Agirrerren testamentuan agertzen ez dena, editoreek osorik atondua. Bertan jaso zituzten haiek Agirrek idatzirik zituen sermoiak, eta horregatik daude metatuta bertan horren urte desberdinetako idazkiak, batzuk 1795. urtekoak eta beste batzuk 1817koak.

Orotara, hirugarren zenbakiak 61 hitzaldi ditu. Kontuan izanda urteak 60 inguru igande izaten dituela, pentsatzekoa da, esan dugunez, egileak liburuki bakoitza urtebeterako atondu izatea.

Liburukien edukiari gagozkiola, badakigu testuaren atal bakoitza beste atalekin lotuta dagoela, batetik, *erlazio hierarkikoan* (makro-egituretan) eta, bestetik, *erlazio linealean* (mikro-egituretan). Gogoratu makro-egiturak mikro-egituren bidez azaltzen direla, baina makro-egiturak unitate beregainak dira eta beren baitan analizagarriak. Jarraian, *Eracusalldiac* obra osoaren erlazio hierarkikoa agerian utziko dugu eskema batean eta, horren bidez, ekingo diogu sermoiaren super-egitura eraikitzeke lanari.



Zer esan daiteke egitura-eskema horren semantikaz eta zentzu-esanahiaz? Esan daiteke *Eracusaldiac* obraren hiru liburukien bidez, obraren egileak ia urte guztiko jai eta misterioak jorratzen dituela, eta ia urte guztirako balioko lukeen plangintza oso bat dakusagula. Modu honetan konfirmatuko litzateke, neurri batean behintzat, obrak lukeen helburua: beste apaiz batzuei laguntzea predikazio lanetan, eta horrela haiei eskua libre uztea eta asti gehiago izatea beste eginkizun batzuei ekiteko:

[I 1] “Si a estas pláticas se añadiesen las de los Misterios del Señor, y de su Santísima Madre, creo que serian un alivio grande para los Párrocos vascongados”. (Hitzaurrea, *Eracusaldiac-1*. liburukia)

Egiazki, lan oso eta kalkulatu baten arkitektura antzematen du hiru liburukiak irakurtzeko beta hartzen duenak. Arkitektura hori dagozkion atal eta azalpenez horniturik dator gainera. Atal horietako batzuetan sarrera interesgarriak txertatzen ditu idazleak atalaren praxiari buruz, batzuetan euskaraz, nagusiki gazteleraz. Halatan, egilea bera ere mintzo da kalkulatu duen obraren iraupenaz, edota xehetasunak ematen ditu kontenplatu dituen hartzaileen inguruan. Adibidez, hona hemen 2. liburukiaren gaineko plangintza nola azaltzen duen:

[I 2] “...nire asmoa da **aurten** gazteaquin jardutea. Lenengo Eracusaldietan cerbait itzegingo det Aldareco Sacramento guciz miragarriaren gañean. Guero, Confesioco Sacramentua izango da dembora lucean itzeguiteco gaya, eta ondoren cerbait uquituco det, Comunio-aurreco unean gorde bear dan, modu ederraren gañean. Ona **Avenduraño** nere eguitecoa. **Garizuma** sartu baño len asico da, Virgíña chit Santa, gure becatuacgatic naigabez betearen onran Bederatziurren bat, ez nolana, baicic ongui confesatzeco bear dan prestaera gucia eguiten dala. Gaur aditzera eman nai dizuet...” (B 249)

Obra lotua eta justifikatua da, dudarik gabe, aurre diseinu lan bati erantzuten diona. Egileak plangintza horren berri xehetasunez ematen du liburu bakoitzaren barruan idatzi dituen atalen sarreretan (nola jokatu duen, zergatik, aurrez nola saiatu den, norentzakoa...). Beste apaiz batzuentzako oharrak dira, eta jardunbidea azaltzeko balio dute nagusiki, printzipio katolikoaren irakaspenaren praxia nola egin zehazteko. Gure egileak kezka du beregan delegatu den eginbehar hori ondo egiteko, eta arduratsu jokatzeko du. Ezin aipatu gabe utzi sermoi ostean agertzen diren ohar eta aipu ugari horiek ere (bibliografia erreferentziak direnak, nagusiki). Erruz darabiltza egileak erreferentziak eta iturriak (Ikus eranskinetan, 308 eta 317. or., esate baterako). Eta alde horretatik

ere, nabari uzten du obra autorizatua dela *Eracusalldiac*, eta egileak komunitate erlijiosoaren barruan estatus bat duela, jakintza batzuk, zeren eta sermoiak letraz ezartzeko ez ezik, teologikoki ere funtsatzeko gai baita.

Tarteka-marteka, sermoien praxiari buruzko oharrek sermoi barruan bertan ere ematen ditu: zenbat luzatuko den sakramentu batekin, zergatik landu beste bat laburrago, eta abar. Bistan denez, hartzaille desberdinei begira eginak daude ohar horiek: liburu barruko atalen sarrerak eta sermoi ostekoak apaizen esku daude soilik; baina sermoi barruan daudenak herritarrentzat dira. Esana dugu jada *Eracusalldiac* obrak hainbat hartzaille duela jomuga; esatariak, esan dugun bidetik, arazorik gabe konpontzen du hartzaille desberdinen konplikazioa.

Laburbilduz, *Eracusalldiac* obraren makro-egitura eskema molde baten arabera egina dago, eta horrela lortzen du egokitzea erkidego kristau edo sinistunen erlijio-antolaketa; zehazki, hiruki honi: herritarrari zuzendutako bizitzaren programa kristauari, Elizari, eta predikatzaille taldeari.

Horiek horrela, gatozen orain sermoietara. Zelan taituta daude *Eracus*, *Plat* eta *Bed* testuak? Zein egitura-antolamendu nabari zaie? Gorago esplikaturiko nozioez baliatuz ekingo diogu lanari. Modu horretan, makro- eta super-egiturez baliatuz, sermoi-moldeen arteko antzekotasunak eta aldeak atzeman ahalko ditugu.

Berriz esateko, desberdintasunak egotekotan ez dira liburukien artekoak izango. Egotekotan sermoi-molde diren aldetik gertatuko direla pentsatzen dugu, izendatze desberdina baitute.

## **2.4.2. HIRU IZENDATZE: ERACUSALDIAC, ITZALDIAC EDO PLATICAC ETA BEDERATZIURRENAC**

### **2.4.2.1. *Eracusalldiac***

Nagusiki, *Eracus* izeneko testuak hartuko ditugu aztergai, berauek dira-eta hedatuenak eta ugarienak, agertzen baitira 1., 2. eta 3. liburukietan. Lehen liburukiaren gainean egingo da egituratze-mota, idazleak gehien eta gertuen kontrolatu zuen liburukia delarik. Dakigunez, 1. liburukiak (aurrerantzean A) Sakramentuak jorratzen ditu.

Sermoi bakoitzean, idazleak atal batzuk bereizten ditu zenbaki erromatarrak erabiliz (ikus Eranskinak): I, II, III eta IV. atalak. Atal bakoitzak baditu bere funtzioak noski. Guk, horiez gain, 0 atala asmatu dugu metodologikoki lagun-



garria delako, eta izendatuko dugu “irekitze fasea” bezala. Postulatzen dugu sermoiek “irekitze fase” horrez gainera, beste bi fase nagusi ere badituztela, geroxe-ago ikusiko dugun bezala. Uste dugu, gainera, egileak fase horiek era sistematikoan errepikatzen dituela *Eracus* testu guztietan, eta epigrafeen bidez bereizten dituela atalok (I, II eta abar); alegia, grafikoki ere bereizten dituela sermoi-atalak. Horixe da jarraian aztertu nahi duguna hain zuzen: *Eracus*-en *fase nagusiak* zeintzuk diren. Fase nagusi horiek bi norabide lituzkete: igorleari testua taituzten lagunduko liokete, eta hartzaileari mezua jarraitzen (makro-egituren berri jasoko bailuke). Horrela gauzak, entzuleek balukete gaitasuna esatariak darabiltzan mekanismoen funtzioak ulertzeko, eta beraz, entzuleek, sermoia entzunda, jakingo zuketean non zeuden: hasieran, erdialdean edo bukaera aldean.

*Eracus* testuen antolaketa, hots, 63 sermoiak epigrafeka ikusteko (jo eranskinera, 291. or.)

*Eracus* testuek, eranskinean ikusten denez, faseak dituzte eta fase bakoitzak bere funtzioak. Esan daiteke, zentzu horretan, *Eracus* testuak *testu tipikoak* direla. Erreparatuko diogu testu-molde honetan *derrigorrezko* diren osagaiei. Testu azalerari dagokionez, honako egitura dauka *Eracus* testu batek:

### Hasiera + garapena + bukaera + aipua eta oharra

Osagai bakoitzaren berri emango dugu jarraian.

#### a) Hasiera fasea

Irekitze faseak honako makro-egitura eskema izango luke:

1. *Idazpurua*:
  - a) hasiera absolutua eta erlatiboa, seriazioa = *Izendapena*;
  - b) errituzko formula (Alabatua &), hitza hartu baino lehenagoko sarrera.
2. *Irekitze fasea*:
  - a) gaiaren *aurkezpena* eta sarrera;
  - b) errekapitulazioa (aurreko sermoiaren edukia berrartzea) eta zenbait ohar egitea helburuari buruz;
  - c) aipua CC liburutik;
  - d) I epigrafeari heldu aurretik, *divitio* edo gaiaren atalketa;
  - e) Leloa (“Enzun arretaz”, “Entzun contuz, Cristaua”, eta abar).

Titulu orokor batek abiatzen du *Eracus* sermoia beti, sistematikoki. Titulu nagusi horren jarraian, azalera testualak beste osagai linguistiko batzuk ditu, estruktura grafiko-linguistiko konbentzionalak: letra tamaina handiagoa eta maiuskulak, letra etzanak... Ebidentzia grafiko horiek antolaketa agerian jartzeko dira, "titulazio" mekanismoak, eta aldi berean, topikalizazio mekanismoak, alegia, makro-proposizioa iragartzeko modu bat.

Testu-hasiera baino lehenagoko puntuek, aipaturiko hiru gorputzek, testuaren *idazpurua* osatzen dute eta *aurkezpen* lanak egiten dituzte testu-irekiera eta honen osagaien aurretik. Idazpuruaren elementuak errepikakorrak dira eta hartzaileak erraz antzeman dezake *Eracus* zenbaki absolutua eta erlatiboa: *Eracus* zenbakia, eta *Eracus* zein sakramenturi dagokion eta zenbagarren zenbakia. Haatik, galde dezakegu: norentzat ote dira titulu horiek?

Esatariak, dakigun bezala, hartzaile ugari kontenplatu zituen: meza denborako entzuleak eta irakurleak ("Apaiz euscaldunac" eta Eliza erakundea)

Hona hemen *Eracus*-ale baten hasiera (ikus 297, 321. or., esaterako).

[I 3]

### BIGARREN ERACUSALDIA,

*Eta Jesu-Cristoc bere Elizari utzi ciozcan zazpi Sacramentuen gañean lenengoa.*

#### ALABATUA ☩

Lenengo Eracusaldian itzeguin nizun, Cristaua, munduaren asieratic Jesu-Cristo etorri zan artean izan ciran Sacramentuen gañean. Aditu cenduan orduan, nola gure lenvico gurasoac autsi zuen Jaunaren Aguintea, eta galdu zuen Jaunaren gracia, eta Ceruraco escu gucia, ala berentzat, nola ondorengoentzat.

(...)

Zazpi iturri, edo Sacramentu oen gañean itzeguingo dizut gaur nere Cristaua. Aurrena beguiratu bear degu, ceñ miragarria dan zazpi Sacramentu oec ipintzean, Jesusec aguertu digun ontasun, eta amorioa. Urrena, nola erazun diogun ontasun, eta amorio oni. Enzun arretaz." (A 13-14)

Beraz, ondokoak genituzke irekitze fasean: lotura tematikoa, zeri ekingo dion adieraztea, eta zein asmorekin. Erlazio mota bat ezartzen du tituluaren eta irakurlearen artean (edo entzulearen artean), eta erlazio hori oinarritzen da esatariak ezartzen duen *instrukzio behar* batean. Inherentek ditu sermoiak tono serioa, autoritatezkoa eta traszendentea. Esatariak, halaber, *gogoratze* eta

*esplizitate* beharra ikusten du hartzailea sermoi-ekintza magikoari (?) bihotzez ireki dakion eta horretan murgil dadin, hau da: Egia transmitzen duen Hitzaren produkzioari eta entzuteari irekitzeko.

Sermoian bizitza kristauaren baloreak aurkezten dira eta konpartitutako beharrak... eta horiek komunikazio egoera zehazten dute, hau da, *Eracus* alearen beharra, zergatia eta beroni eskaini beharreko dedikazioa. Horrela gauzak, aurkezpen fasean Sakramentuen gaineko instrukzioa edo irakaspena *beharrian* moduan planteatzen da. Beste hitzetan esanda, eguneko *Eracus* alea gai egoki eta garrantzitsu bezala ezartzen da.

Irekitze-aurkezpen honen egoera komunikatibo-enuntziatibotik, halako *konklusio* kutsuko mezua sortzen da: hizketa-egintza nagusiak, ilokuzio zentralak egun horretarako lana azaltzen du. Eta kontua da jarraian datorrenak, hau da, sermoiaren gorputzak, are arreta handiagoa eskatzen duela oraindik, zeren orain arte sarrera baino ez baitugu egin. Baina leloarekin (“Entzun arretarequin”, “Entzun contuz” horrekin), esatariak aldaketa garrantzitsua dakar, intentsitatea eskatzen du eta, beraz, areagotu egiten da “arreta erritmoa”. Hor-tik aurrera hasten da I epigrafea eta kristauak eskaini behar duen atentzioa bideratuta dago *Eracus*-aren *gunea* eta mamia hortxe hasten dela markatzera (“Entzun arretarequin”).

## b) Itxiera fasea

Itxiera fasearen makro-estrukturaren eskema ondokoa litzateke. Formulazio aldetik, modu beretsuan emango da ale guztietan:

- a) Biltzea eta gogoratzea (errekapitulazioa);  
Eustea (insistentzia);
- b) Itxitura formula: slogan gisakoa (“Ecuste dezu...”, “Orra, ...”);  
Eskaera-erregua (egin ezazu, konpli ezazu...);  
Promesa (“betico bizitza”);  
Amen.

Non hasten da *Eracus*-en bukaera? Eranskinetan, *Eracusalodiac-1* liburu-kiaren eskema orokorra ikustean, erreparatu dugu hainbat epigrafe darabilela esatariak sermoien atalak bereizteko: I, II, III eta, inoiz, IV. Epigrafeen argitan esan dezakegu sermoiek, irekitze faseaz gain, badutela beste atal nagusi garrantzitsua: konklusio edo *itxiera fasea*.

Sermoi laburretan konklusio-aldia hasten da II. epigrafean; luzeetan aldiz III. epigrafean. Konklusio-aldia hasi daiteke bai epigrafe ostean, bai epigrafearen bukaeran, baina egonleku desberdinak gorabehera, beti dago konklusio-aldia, testu itxia eta burugaina baita *Eracus*.

*Eracus* ale baten azken hitza, beti eta sistematikoki, errituzko formula bat da: “Amen”. Bi formula nagusi ditugu, beraz, sermoiaren barrutia definitzen: batetik, “Amen” formula bukaeran, bestetik, hasierako “ALABATUA &” formula. Bi formula horien bitartean gauzatzen da *Eracus* mintza-jarduna.

*Eracusen* bukaerara iritsi aurretik hartzaileak ere erraz ezagutu dezake bukaeraren gertutasun hori, mezuaren “saturazio partzialetik” “saturazio totalera” (Bessonat 1988: 88) iristen ari garela. Pauso hori markatzeko esatariak esankizun perfomatibo bat darabil maiz asko: “*Asco da gaurco*”, “*Baña asco da gaurco*”, eta abar. Espaide horrek aktibatzen du bukaera, beti ere modu bertsuan etorriko dena, konklusio gisara: “Ecusten dezu, Cristaua...”, “Orra, Cristaua...”:

[I 4] “Orra, nere Cristaua, ceñ arreta guchi degun [confesioco Sacramentua] requin gure animac garbitzeko, eta sendatzeko. Ez ote guera noiz bait centzatuco? Ea, eguin dezagun aleguiña, emendic aurrera Sacramentu enec (sic) escatzen dituan gauzac leyalqui eguiteco, vici gaitecen Cristauari dagocan eran, eta onela iritsiko degu betico vicitza doatsua. Amen.” (A 128-129)

### c) Garapen fasea

*Eracusaldiac-1* liburukiko *Eracus* ale guztiak aztertu ondoren (1. liburukia izanik homogeneona<sup>24</sup>), modu enpirikoan esan dezakegu *Eracusek* baduela osagai multzo super-estrukturatua modu erregularrean agertzen dena (gutxienez minimoki) eta ordena konbentzionalean. Super-egitura horrek honako makro-egiturak ditu, orain arte ikusi dugunez.

Igorleak, *Eracusen* testu-garapenean, indikatzaile batzuk darabiltza (&, I, II...) irakurle/entzulearen lana gidatzen dutenak; izan ere, indikatzaile horiek multzo makro-egituratu koherente eta tipifikatua errekonozitzen laguntzen baitiote. Dena dela, alderdi honetan markatzeko moduko bariazioak eta erregularita-

---


<sup>24</sup> Egia esanda, *Eracusaldiac-2* liburuko erakusaldi testuak ere 1. liburuko erakusaldien berdinak dira egituraz eta baita gai aldetik ere. Bereizten dira hartzaileak, kasu honetan gazteak dira. Halaz ere, eta espero genuen kontrara, ez dago berrikuntzarik egitura eta edukietan. Halaber, 3. liburukiko erakusaldiak ere egonkorak dira egituran zein tematikan. Errepikapen eta egonkortasun horien arrazioak 4. kapituluaren 2. atalean emango dira.

sun ezak topa ditzakegu. Hala, egilea ez da beti erregularra, eta ez du sistematikoki betetzen epigrafeen banaketa irizpidea. Guztiarekin ere, ez du koherentziarik gal-tzen, epigrafeen zerrenda osoan ikus daitekeenez. Hiru liburukiak globalki begira-tuta, badira desbideraketak baina kontuan har bedi 22 urte eman zituela idazleak obra osoa izkribatzeko (cf. Altuna 1999, sarrera). “Erruduna”, beraz, denbora tar-tea litzateke. Hala ere, markatu beharra dago, bariazioak bariazio, obra osoa dela eta sendoa *Eracusaldiac* obra. Hala, 1. liburukia bera homogeneoa da oso.

### c.1) Garapen fasea eta garapen eskemak

Gatozen *Eracus* testuen garapen fasea deskribatzera. Esan behar da, lehenik, beste fase biak baino konplexuago dela. Fase honetan ere erregularitasunak an-tzematen dira, eta, gainera, testuek edukia garatzeko moduak eta tankerak ager-tzen dituzte. Edukiaren garapen molde horien eskema hiru irizpideren arabera egingo dugu: i) gaiaren progresio-modua; ii) kausalitate erregimena; eta, iii) in-formazioaren banaketa. Hona gaiaren progresioaren eskema-moldeak:

i) Gaiaren progresioari dagokionez, gai bera mantentzea da, hau da, gaiak hipertema gisa funtzionatzen du, eta zenbait alderdi nabarmentzen da haren az-pian. Demagun, “Acto Contriciozcoa”ri buruzko *Eracus* testua:




Horrela bada, gaia zenbait gunetan banatzen da (lauzpabost). Gerora, gune bakoitza lantzen da: arrazoiak, iruzkinak, usteak, azalpenak... metatuz. Hasiera batean esaldi topikal batzuk edo interesgune batzuk markatzen dira eta horren inguruan biltzen esatekoak. *Explanandum* gisa funtzionatzen dute gune horiek. (Ikus, esaterako, 2., 3. eta 19. *Eracus*; ikus eranskinetan, 301, 305. or.).

Beste batzuetan, bi gune bereiz daitezke *Eracus* testu batean:

- a) Jesukristoren obraren azalpena (“Beguiratu Jesusec agueru digun on-tasun, eta amorioa”).
- b) Kristauaren erantzun apala obrarekiko (“Nola eranzun degun”).


Horrelakoetan, bi gune horietara ekartzen dira esatekoak, arrazoiak eta ilustrazioak, gune bakoitzaren azpian pilatuz eta zintzilik utziz (mahats mordo baten irudira) argudioak. Erritmo bizikoak dira horrelako *Eracus* aleak. Sermoilaria joan-etorrika aritzen da, gaiak zabalduz, atzera-aurrera arituz (cf. 19. *Eracus*, “*Peccavi. Egin det becatu*”).

Eskema hau, nolabait esateko, errepikakorra ez ezik ziklikoa ere bilakatzen da. Horregatixe erraz gordetzen eta memorizatzen da. Hona eskemaren hezur-dura:



ii) Kausalitate erregimenari gagozkiola, esan behar da *Eracus* testuek, oro har, goitik beherako kausalitatea dutela, eta orokorretik zehatzera. Izan ere, bada erlijio katolikoan jakintza multzo bat, *thesaurus* komuna: Jesukristoren bizitza, Biblia, Elizaren Historia, Dotrina... Eta, noski, argudio horiek ondorio batzuk izan behar dituzte testuan. Hala, edukien aurkezpena egitean, egitura kontsekutibo itxura hartzen du mezuak, *thesaurus* horren argitan jokatu behar da, “A beraz B” formularen argitan. Egitura hori bideratzen da, batetik, edukion aurkezpenagatik, eta, bestetik, azalpenaren osteko iruzkinaren bidez; baita iruzkinarekin batera datozen adibide, anekdota eta ilustrazioaren bidez ere.

Kausalitate erregimen horren erakusgarri izan daiteke 5. *Eracus*, non egileak “deskonposatzen” duen “Bataioko Sacramentua” ondoko ataletan: Bataiatzeko lehengaia, Ura; nola bete bataioa; zein hitz baliatu eta zein baldintzak bete behar dituen bataiatzaileak. *Eracus* mota honetakoak lirarteke hain usu agertzen diren paragrafo paralelodun erakusaldiak: “Lehenengo neurria... Bigarren neurria...; Irugarren neurria...; Laugarren neurria...”. Edota “Gauza bearra da bigarren lecuan...”, “Gauza bearra da irugarren lecuan...”, eta abar. Eskema honakoa litzateke:



*Eracus* sermoietan egiten den gaiaren trataerari buruz esan behar da, harri-garria gerta daitekeen arren, *Eracusen* esatariak ez dituela Sakramentuak esplikatzen edo azaltzen. Bestela esanda, sermoietan ez dago *explicandum*-ik edo gertaera esplikatiborik. Izan ere, zergati eta arrazoi gisa, “argumentu” gisa, sermolariak iritzia edo balorazio bat ematen du. Alderdi hauek sakonago jorratzen dira 4. eta 5. kapituluetan.

iii) *Eracusen* informazio banaketari dagokionez, estruktura ia beti emendiozkoa da, errepikapenezkoa, hots, aditiboa. Batzuetan estruktura lineala izan daiteke, horrela salbamenaren historiaren oihartzuna gordez eta eutsiz. Informazioaren hierarkiaren iturriak honakoak dira: Biblia eta Eliza, santuak eta teologoak, baita kontzilioak ere. Inoiz ere ez herritarrak.

## c.2.) Garapen fasea irizpide modalen argitan

Gaiaren garapenean makro-egiturak nola antolatzen diren esateko sakonago ere zula daiteke; eta horretarako irizpide modala erabili daiteke. *Eracus* testu batean, eskuarki, hiru bloke egin ahal dira eduki aldetik:

A blokea) Bloke hau, oro har, *positiboa* eta *euforikoa* da. Bloke honetan agertzen da Jaungoikoaren Obra. Sermoilariak Salbazioaren Historia laburbiltzen du Jesukristoren optikatik. Oso argiak eta erabakigarriak dira modalitate apreziatiboak eta aldeko hautaketa lexikoak. Bloke hau harmonikoa eta ederra da.

B blokea) Bloke *negatiboa* edo *disforikoa*. Gizakiaren obra eta erantzuna da; baita kontra-jokabidearen espazioa ere (Luzifer eta etsai desberdinak: Lutero, Ilustrazioa besarkatu dutenak, eta abar). Sentsazio negatiboa eta disforikoa uzten du bloke honek *Eracus* testuetan, zeren eta ekintza-subjektuak (gizakia eta kristaua) hutsuneetan behin eta berriz amiltzen diren. Bertan agertzen dira kristauaren erantzukizuna, bete gabeko lanak, bekatuak eta desbiazioak. Ager-

tzen dira “egin-ezina”, “egin-nahi-ezina”, eta baita, “egiten-jakin-eza”: dotrina ahaztea, Mandamentuak urratzea... Modu horretan, *Eracusen* agerkera eta aktuzioa eskubidezko ekintza gisa aurkezten da.

C blokea) Bloke *negatibo-positiboa*, edo *disforiko-euforikoa*. Guztiarekin ere... Gizakiari/kristauari ematen zaion formazio (“Eracusaldi”), “medizina” eta *grazia* horiekin ere, ez da erdiesten helbururik. Eta ez biderik edo modurik jarri ez delako, horra hor: Jainkoak emandako laguntzak, Jesus, Espiritu Santua, Eliza eta Amabirjina... bestela esanda, Sakramentuetan inhereenteak diren propietateak; baizik eta horien “dohain” eta “abantaila” guztiak gaizki edo bat ere erabili ez direlako. Bloke hau kontzesiboa da, norabidea aldatzekoa, “halataguztikoa”. Igorle eta hartzailearen arteko interakzioz betetako blokea da, badira konpromiso eskaerak, “itzulera” posible eta beharrezkoa seinalatzea, eta abar.

Hiru bloke horiez gainera, *Eracus* testuetan hegemonikoa ez den arren, badago D bloke bat ere, erabat disforikoa dena eta “Beguiria” (latinezko *Queritur*) aginduak ardatzen duena. D bloke hau nagusiki *Plat* eta *Bed* testuetan agertzen den arren, topaten dugu *Eracus* testuetan ere. Zehazki, *Eracusi* dago-kionez, topatzen dugu Aldareko Sakramentuaren gainean diharduenean, 33-53. *Eracusetan*. Erreparatzekoa da D blokea agertzen dela arestiko A eta B blokeen ostean, eta erabat dela preskriptiboa eta lan ezartzailea; orobat, barne azterketara bideratua. Erreparatu sermoilariak zenbatu egiten dituela puntuak, erabat modu preskriptiboan. Hona hemen adibidea:

[I 5]

“1. Beguiria, Cristaua, ceñ gauza miragarriac eguiten dituan Jesusec...

2. Begira urrena, cer eguin degun guc...” (A 364)

Agindu edo formula horrek Loiolako Ignaziok bere *Ejercicios* lanean luke oinarri, barne examina funtsezko ikusiko baitu errotik kristautzeko. Egitura hau, geroago, erruz topatuko dugu, jada esan dugunez, bai *Plat* eta bai *Bed* sermoi-moldeetan ere.

Laburbilduz, *Eracus* testuek badute holako egitura edo arkitektura bat, *Eracus* diren seinale eta erakusgarri. Honako egituratze-eskema errepara dakieke: a) gaiarekin kontaktuan jartzea, kontestua ematea (girotzea, mintzagaia seinalatzea...) eta gaiarekiko interesa sortaraztea. Hori egiteko baliabide desberdinak ditu: metadiskurtsoa eta *divitio*; dotrinaren atalak ekarriz; b) garapena eta sakontzea: etapa honetan agertzen dira azalpenak, deskripzioak, kasuen ekartzea, ilustrazioak ipintzea, konparazioak egitea, kronikak egitea...; c) itxiera



eta konklusio aldia: errekapitulazioa, apelazioa, slogana, betiko bizitzaren promesa eta amen.

Orain arazoa sortzen zaigu: eskema tipiko honetatik at, badago beste barietate bat? Eskema hau esportatu daiteke eta aplikatu dakieke beste sermoi biei, hau da, *Plat* eta *Bed* izenekoei?

#### 2.4.2.2. “Itzaldi edo *Platicac*”

*Eracusaldiac-2* liburuan, batetik, “*Itzaldi* edo *Platica*” datoz hasieran (1-25 sermoiak). Horien jarraian agertzen da gazteei zuzendutako sermoi sorta (25 sermoi); bertan berreskuratzen du *Eracusaldia* izena berriz ere. Hirugarrenik, beste sermoi bat dugu liburuaren amaieran: “*Bederatziurrena*”. Beraz, bigarren liburu honetan agertzen dira, esatariaren baitan intuizioz eta izenez bereizten diren *platicac* eta *bederatziurrenac* (aurrerantzean, *Plat* eta *Bed*).

*Eracusaldiac-2* liburukiaren gaia Aginteak edo Mandamentuak dira. Aginteak jorratzen dira liburuaren 1. atalean (hots, *Plat* testuetan); eta bestetik, bukaeran, *bederatziurren*etan. Beraz, liburu osoari titulua bi atalok ematen diote. *Plat* testuei dagokienez, lehen begiratu batean gauza asko aldatzen da Aginduak azaltzerakoan vs *Eracus* testuetan, nahiz esatariak giza proiektu bera izan. *Plat* testuek badukete zerbait propioa eduki aldetik eta makro-egitura aldetik, *Eracusek* ez dutena.

*Eracusaldiac-2* liburuko estruktura globala ikus daiteke (ikus eranskinak 293. or.). Sermoi bakoitzean egileak atal batzuk bereizten ditu, oraingoan epigrafeak eta zenbaki erromatarrak bereizten ditu. Eranskinen ikus daitezke barietateak.

Egileak grafikoki markatzen ditu sermoiaren atalak; testuetan marka desberdinak darabiltza (*Platen* marrak, *Eracus* eta *Beden* zenbaki erromatarrak). Alegia, idazleak grafikoki ere markatzen du testu tipologia desberdina. Testuetan, eskuarki, markaturik agertzen dira faseak (I, II eta III). *Platerako* ere, ikus dezakegunez, ez dago homogeneotasun osorik atalak markatzerakoan. Esatariak badu sistema sermoiak taiutzeko, molde finko batzuk, baina epigrafeetan ez da horren sistematikoa. Esate baterako, bukaerak markatzen hasten da epigrafeen bidez (*Plat* 1etik 6rarte), baina gero ez du koherentzia hori gordetzen.

*Eracusaldiac-2* liburuaren makro-egiturak zenbat diren antzemateko aski da liburuak dituen sermoi moldeei begiratzea: hiru sermoi molde, hiru plani-

fikazio desberdin. Egileak sarreratxo bana idatzi die 2. eta 3. atalei. Sarrera horietan ohar zehatzak egiten ditu atalaren zertarakoaz, edota atal horrek izango duen hartzaileaz. Modu honetan, ikusten da egileak antolaketa “logiko” bat daramala, hurrenkera programatikoa, asmo didaktikoei begira egina. Egilea pertsona kualifikatu bezala agertzen da lan hori egiteko, idazle eta arima salbatzaile bezala duen rolak hartaratu. *Eracusalldiac-2* liburuak, *Eracusalldiac-1* liburuak bezala, aurre plana du.

Hartzaileari gagozkiola, ez dago aldaketarik (Eliza-erakundea, apaiz euskaldunak eta herriko entzuleak).

Aldaketa handiena atalketa da. Esatariak liburuaren egituraren berri ematen du atalen sarreretan. Hala, 1. eta 3. atalak aurkeztu egiten ditu.

*Platen* egitura honakoa da: gorputza (testua) + oharrak. Super-egiturari dagokionez, *Eracusen* egitura berbera du. *Plat* testuek, hala ere, hainbat elementu bereizgarri dituzte; A moldeko eta B moldeko *Plat* testuak daude. Eta berezitasun horiek markatuko ditugu soilik, *Eracuserako* esanak ez errepikatzeke. Honakoak hain zuzen:

#### a) A moldeko *Platikak* eta B moldekoak

Elementu bereizgarri lehena eta garrantzitsua zera da: *Plat* moldeak taldean egiten dute lan; *Plat* alea ez da burugaina, baizik eta osaera bat duena, taldekatze bat: 1 + 1 osaera, edo 1 + 2 osaera. “Multzo” horretan, lehenbiziko alean Madamentuaren “azalpena” dago eta jarraian legearen urraketak zorrozki aztertzen dira zerrenda gisara, “Beguiria” formularekin gidatutako examinan. Sermoilariak aditz nagusi desberdinak darabiltza molde bat eta bestea aurkezteko ere: batetik dugu “*Azaltzen da* Jaunaren Legueco bigarren Aguintea”; eta, bestetik, “*Uquitzen dira* Jaunaren Legueco bigarren Agintearen contra guertatzen diran becatuac” (geuk azpimarratua) (ikus eranskinetan 310-324. or.).

Horrela, bada, *Plat* testuetan *erregela kombinatorio* bat medio, uztartzen dira bi sermoi molde: sermoi batzuk azalpenezkoak dira, eta, beste batzuk erabat erregulatzailak. Mandamentuek propietate kanoniko bikoitza dute: batetik, prezeptu bat dauka eta, bestetik, Mandamentuen betetzea, transgresioa eta debekua. Gure corpusean, propietate horiek sermoi desberdinetan banatuta emango dira. B moldeko *Plat* testuaren tituluan iradokitzen da nolabait gaia subjektibitatez edo espekulazioz jorratu ahal dela. B moldeko *Platen* kontzientzia azterketa, akzio edo *praxi* eskaera dakar. Koerzio ekintza ere izan daitezke pragmatikoki aztertuz gero. Bertan egingo da bestearikiko sakontze animikoa

eta psikologikoa estuen eta zorrotzen. *De facto*, enunziaztailea bere kabuz ariko balitz bezala ikusiko dugu, teologiak baztertu eta “lurrera” edo “eguneroko bizitzara” jaitsita. “B” moldearen gaia mandamentuen urraketen inguruko bekatuak dira. Bekatuen taxonomia oso fina da.

A moldeko *Plat* azalpenezkoa da eta *Eracusen* oso antzekoa dugu, ondoren ikusiko dugunez. Aldeak, B *Plat* moldean daude.

Mandamentuak honela antolatuta daude: 25 platiketarik 11 dira B motakoak. Baina “azalpenezkoak” diren *Plat* testuetan ere asko dago erregulaziotik, paragrafo paralelo asko eta disforia. Ikus kombinatoria ondoko taulan. Sermoi kopuruan errepara daitekeenez, Mandamentuen inguruko erregulazioa irakaspena bezain inportantea da:

Sarrera orokorra (A mota)

1. Agintea: 2. eta 3. *Plat* ( 2. *Plat* = A; 3. *Plat* = B)
2. Agintea: 4. eta 5. *Plat* (4. = A; 5. = B)
3. Agintea: 6., 7. eta 8. *Plat* (6. eta 7. = A; 8. = B)
4. Agintea: 9. eta 10. *Plat* (9. = A; 10. = B)
5. Agintea: 15., 16. eta 17. *Plat* (15. = A; 16. eta 17. = B)
6. eta 9. Aginteak: 18. eta 19. *Plat* (18. = A; 19. = B)
7. eta 10. Aginteak: 20., 21., 22. eta 23. *Plat* (20. = A; 21., 22. eta 23. = B)
8. Agintea: 24. eta 25. *Plat* (24. = A; 25. = B)

B motako platiketan esataria jokabide-arau zehatzak ematen ikus daiteke, preskripzio kutsua eta giro zorrotza nagusi. Efektu arau-emaile hori sermoien gorputza kohesionatzeko erabili elementu tipografikoek areagotu egiten dute: bekatuak zerrendaturik datoz zenbaki bidez (1, 2, 3...), inperatibo batekin hasten dira “Beguiria”, eta abar (ikus adibide gehiago eranskinean, 324, 325, 327, 328. or.):

[I 6]

1. Beguiria, dotrina icasteco, eta eracusten dituan gauzac ongui aditzeco, sayatu ote ceran...
2. Beguiria, icasi dezun nola molda zaitzquean zure becatuen damu eguiazcoa sortzeco...
3. Begira sarritan eguin dituzun Acto fedecoac? Dotrina ongui daquianac...

4. Begira, fedeco gauzaren bat ucatu dezun, dala bacarric zaudela, dala lagun artean, egin dezagun kontu...
5. Begira, fedeco gauzaren bat, osotoro ucatu ez, baña dudan ipiñi ote dezun
6. Begira, etsi ote dezun Jaunaren urrikaltasunaz... (B 3. *Plat*)

B motako *Platek* bukaera laburragoa du *Eracusek* baino, baina elementu komunak ere badira.

Plat testuek, *Eracus* testuekin erkatuz, dakartzaten aldaketek badute eragirik esatariaren rolean? Gure irudirako Isaiasen ildotik ikusten du sermoilariak bere egitekoa (ohar bedi, hain zuzen ere, *Plat* testuek Isaiasen aipua dutela goiburu, “Clama, ne cesses, quasi tuba exalta vocem tuam, et annuntia populo meo scelera eorum”. Isaias 58. Agirrek modu honetan itzultzen duena: *Otseguizu, ez isildu: trompeta baten eran eguizu deadar, eta aditzera eman guiozcatzu nere erriari bere becatuac, dio Jaunac Isayasen autic*). Esataria, oraingo liburu honetan, profeta bezalakoa da: *mezua* aldarrikatu beharra ikusten du, “tronpeta baten eran” aldarrikatu ere, lau haizeetara. Lehen liburuan, ia teologo lanetan ziharduen azalpen gisakoetan murgildurik. Rol aldaketa horrek markak uzten ditu testuan, jakina; B motako platiketan nabarmena da testu gorputza desberdina dela, aldaketa garrantzitsuak dituela *Eracus*-en aldean eta *Plat* A-ren aldean. Paragrafogintza argi eta garbi bereizten da B motan, eta horrelakorik ez da horren garbi egiten, ez A moldean, ez *Eracusen*.

Giza proiektu bera dute sermoi guztiek, pertsonaren identitatea eraikitzeko diskurtso bat, kristauaren tasun batzuk: “Kristaua X da, ez Y”. Komunikazio kontratuaren arabera, esataria moralaren begirale eta zaintzaile da. Aldaketa gutxi dago, guztiarekin ere, irekitze eta itxiera faseetan: hasieran berdin errepikatzen ditu “Alabatua”, clama eta otseguizu (Isaiasen aipua). Sarre-raraino luzatzen da hasiera eta egiten ditu: errekapitulazioa, *divitioa* eta leloa “Enzun arretarequin”. A motarekiko aldaketarik ez, (ikus errepresentazioa eranskinean, 314, 323. or.).

Itxiera fasean, konklusioa edo epilogoak analizatu behar da. Forma aldetik, ez du aniztasunik erakusten, erregularra da eta *Eracusen* funtzio berberak betetzera dator: errekapitulazio minimo bat egin, borondatean eragin (praxira bultzatu) eta diskurtsoaren bukaeraz abisatu:

[I 7] “Ea gurasoa, aditu dituzu cere ume, eta mirabeai beguiratzeco dituzun eguin bideac, eta oen contra guertatzen diran utseguiteac. Oraindañoocoaz Jaunari escatu deguiogun umilqui barcacioa, eta aurrera vici gaitecen beraren legue Santac eracusten digun bezala, onela iristeco betico vicitza. Amen.” (B 86)

Kontuan hartu behar da, hala ere, “Beguiria” paragrafoetan ez dela sistematikoki esaldi metalinguistiko bat erabiltzen konklusio aldia abiatzeko<sup>25</sup>. B motan itxiera fasea laburragoa da, izan ere, B *Platen* presio sentsazioa handia da. Dentsitate horrek ez luke onartuko *peroratio*-rik. *Saturazio totala* oso hurbil dago. Hona hemen bukaera adibide bat:

[I 8] “Orra, nere Cristaua, lenengo aguintearen contraco becatuac. Gorde dezagun Jaunaren legue Santa leyalqui, eta emango digu, aguindu digun, betico vicitza. Amen” (B 23)

Hala ere, eta bukaerak laburrak izan arren, bada hor eragiketa multzo bat: hasteko, frogaldiaren bukaera irudikatzen duen erakusle bat: “Orra”. Jarraian, laburpen orokorra: “lehengo aguintearen contraco becatuac”. Ondoren, eskaera edo erregu bat: “Gorde dezagun Jaunaren legue Santa...” eta, bukatzeko, agindua edo promesa: “eta emango digu, aguindu digun, betico vicitza”. Sermoiaren denbora ixten duen “Amen” azkenik. Bete da sermoiaren denbora eta sermoiaren aditzea, horra hor, “saturazio totala”.

Nolanahi ere, bukaera patetikoa duten B *Plat* badira (cf. 17. *Platen peroratio* luzea, orrialde bat ingurukoa). Bukaeran, dena den, betiko eskema: 1) eskaera, “eguin dezagun au gucioc”; 2) promesa “onela iristeco gure utseguiteen barcacioa, eta betico Cerua”, eta, 3) azken hitza: “Amen”.

Galde daiteke zergatik ote dauden desberdintasun hauek bukaeretan, kontuan izanik egonkorra eta erregularra dela gure idazlea. Zergatik, tarteka, eskemetan sartzen ez diren hizkuntza erabakiak? Luze-laburrak, bariazioak ordenan, adibideak espero ez diren tokietan... Hartzaileari begira eginak ote? Harritzeko eta ez gogaitzeko? Ezen oso ezaguna eta prebisiblea baita egitura. Gerta liteke idazleak hizkuntzari berari uztea hitz egiten, eta hizkuntza berak egitea bidea *itinerarium linguae* batean?

Ondorioz, forma egonkorak darabiltza esatariak bukaerak markatzeko. Ez dago kategoria berezirik *Eracus*-en aldean. A eta B motetako bukaerak ez dakarte berrikuntzarik. Bai, ordea, garapen faseak.

Garapen fasea zerrendaren bidez antolatzen da (1, 2, 3...), eta “Beguiria” hitzarekin hasten dira (latinezko *Queritur*-en itzulpen gisara) sistematikoki.

<sup>25</sup> Batzuetan agertzen da “Asco da” (cf. 3., 4.) “Asco degu” (17.) “Asco degu gaurco” (21.), “Baña asco da” (25.). Baina ez da egonkorra. Gehienetan zuzen-zuzenean jotzen du konklusioaldira (cf. 5., 8., 10., 12., 16., 19., 22., 23.) Epigrafe bidez ez du beti markatzen bukaera: aldatzen du 3., 4., 5. eta azken platikan, 25. Baina ez du aldatzen: 8, 10, 12, 16, 17, 19, 21, 22.

Interesgarria da nola latinez agertzen den galdera ikurra ere ageri den euskara-zko bertsioan. Baina ez da galdera egiten, ilokutiboki duten balorea agindua da. (Ikus eranskinetan, 324. or., adibidez).

Orobat, “Beguiria” askoren ondoan galdetzen da: “astean zenbat bider?, hilean zenbat bidera?”, eta abar. Aginduaren intensifikatzaile moduan egiten dute lan galdera horiek. Sermoiak inherentea du erregulazioa, eta bereizki *Plat* testuetan egiten da nabari norabide-markatze hori, inperatiboaren bidez eta zerrendaketaren bidez. Bide batez metatu egiten dira alderdi horiek, sermoiaren intentsitatearen alde egiten dutena eta sermoiaren erretorika ikus-tean bistaratuko dena. Zentzu honetan, B motako *Plat* testuak erabat dira disforikoak: gizakiaren obra edo erantzuna dute ardatz, eta erantzun hori negatiboa da beti.

*Plat* sermoiotan informazioa oso zatiturik ematen da. Mandamentu edo Aginte bat jorratzeak egitura bitarra dauka (A + B moldeak, alegia). Bistan da modu horretan errepikapen eta erredundantzia handiak gertatzen direla, maila askotan gertatu ere, lexikoan, informazioan, intentsitatean. Lokailuak erruz darabiltza sermoiak, ahozko testu idatzi jasoaren ezaugarriak ezinhobeto jarraituz horrela; izan ere, konexio eta kohesio maila altuak behar ditu testuak mezua entzunez jarraitu ahal izateko.

A *Plat*, aldiz, ilustratiboa da, aditzera ematen du mandamentua, eta badu praxiari lotutako bukaera bat, *Eracusen* bezala. Izan ere, A motako *Plat*, *Eracus* motatik oso-oso hurbil dago. Bi mota horien antzekotasuna (A motako *Plat* eta *Eracus* moldeak) frogatzeko elementu paratestualak erabili daitezke, izan ere, makro-proposizioaren markatzaile zerbaki erromatarra erabiltzen da *Platen* eta *Eracusen* epigrafeak. Hala ere, jada 6. *Platen* epigrafeak erabiltzeari ekiten dio zerbaki erromatarren kaltetan, eta 7. *Platen* azalpenaren motore bezala dotrinako liburuak aipua dakar, berriz ere, hasiera fasean (gogora bedi, *Eracus* testuen hasieretan bezala). Testuotan gaiak aldatu egin dira, eta egitura, nolabait ere bai, baina gaude azaleko ukituak baino ez direla, eta bereziki gertazen direla aldaketok hasiera fasean.

A motako sermoietan paragrafo paralelotan planteatzen da testu-gorputza, horrela lauzpabost beharizan planteatzen ditu, paragrafoko bat. Paragrafo paraleloak testuaren gaiak edo makro-proposizioak buruan iltzatzeko eta gogorarazteko darabiltza esatariak. Izan ere, zerrendaketa horrek helburu bi lituzke: entzuleari gaia jarraitzen eta ordenatzen lagundu; eta, bestetik esatariari testua memorian gordetzen lagundu. Ikus adibidea jarraian:

[I 9]

“Zuc, guizon ezcondua, **bigarren lecuan** eguin bear dezuna da...

Guizonac **irugarren lecuan** opa bear dio bere emazteari...

Guizonac **laugarren lecuan** eguin bear duan gauza da ordu onean echeratzea, albadu...

Guizonac **bostgarren lecuan** eguin bear duan gauza da, Jaunaren itzagandic, obra on, eta Sacramentuetatic iguesi ez ibiltzea.” (B 97-98)

A motako paragrafo hauek, *Eracus* testuetan ere agertzen dira maiz.

### 2.4.2.3. “Bederatziurrenac”

Bederatziurrenak (aurrerantzean *Bed*) testu ukitu berezia eta propioa dute, gure ustez. Ez dira *Eracusalodiac* obra osoan barrena hedatzen, *Eracusalodiac-2* liburukoak dira eksklusiboki) (ikus eranskinetan 334. orrialdetik aurrera).

Bederatziurrena 9 sermoi ale dira, izenak dioen bezala; horren ostean, eta liburuaren bukaeran bi sermoi osagarri daude. *Bed* testuen gai ardatza bekatuen konfesioa bideratzea da eta Amabirjinari eskainia dago, haren ontasuna dela bide barkazioa erdiets dadin. Obraren antolaketa globala den bezanbatan, *Bed* honetan egiten da *CC* liburuaren (hots, Agirreren beste obraren) lehen atalaren birpasa, editoreek 2. liburukitik kendu egin zutena ez errepikatzegatik. Hartzaileak esplizitaturik datoz, gazteak. Baina baliteke espektro zabalagoa izatea praktikan, *Bed* sailaren portadan hartzaileak gazteak direla esanagatik ere, portadaren jarraian duen sarrera txikian (B 397) beste batzuk ere kontuan hartuak ditu (“Prestaera au ongui eguin deceen gazteac, eta oequin batean zarrac”)<sup>26</sup>.

*Bed* testuek ere herriaren ebanjelizazioa dute jomuga; dena dela, testuen hartzaileak apaizak ere badira: Bederatziurrenaren sarreran “Iracurleari” egiten zaizkion oharrek (B 398, ikus eranskinean 332. or.) garbiro ebazten dute auzia. Are oraindik dira oharrok interesgarriagoak, *Bed* alearen “antzespen” edo ejekuzioaren deskribapen zehatza baitakarte. Horren gutxi ezagutzen dugun alderdi batez mintzo dira: erretorikaren *actio*, edo alderdi proxemikoaz. Zein “teatralizazio” jartzen zen martxan?:

<sup>26</sup> Bide batez, Agirrek bere testamentuan (1816) ere esaten du zaharrentzako ere badela bederatziurrena.

[I 10]

1. Ipintzen zan Birjiña txit Santa Doloreetacoa Aldare nagusian.
2. Bederatziurrenera etortzeko jayera zuenac ugari ecarri oi zituen candelac; crazequitzen ziran bederatziurrena asitzean, eta bucatzen zanean, egun oro artzen zuan bacoitzac bere candela.
3. Platica bucatzean Arzaya, edo beste Apaizen bat jartzen zan Aldare-aurrean *Sobrepelliz, estola, eta caparekin*.
4. Corutic cantatzen zan *Miserere*.
5. Au bucatzen zanean, Aldareaurreco Apaizac esaten zuan: *Ora pro nobis Virgo dolorosissima*: Coruac: *Ut digni efficiamur pronissionibus Chti*: Apaizac Ore-mus: *Deus in cuius Passione &*. (B 398)

Espazio fisikoaren atontze horrek, kapa jazteak, musika entzunez korutik, kandelak pizturik, latinezko hitzak (hizkuntza ezezagun eta misterioitsuaren funtzioak hartuz)... ezbairik gabe, enuntziazio-egoera berezia, mistikoa edo magikoa sortuko zuten. Era berean, espektakulu gisa ere ikus zitekeen teatralizazio hori (gogora bedi sermoiari “funtzio” ere esan izan zaiola); beraz, apika, harridura sortzea, gozamen hartzea edo entretenitzea helburuen artean ba ote zegoen kontuan hartu beharko litzateke.

Bederatziurrenak atalaren sarreran datoz denboralizazioari buruzko oharrak eta jakingarriak. Interesgarria da, halaber, *Bed* testuak “aplikatzeko” formula desberdinak ematea, herri txikietarako izan, edo handietarako. Berriz ere, idazleak dituen asmoak ageri dira: sermoi prototipo batzuk sortu, askotariko egoeratarako egokitzeko gai, malguak, baina “erakutsi” beharreko minimoei eutsiz:

[I 11] “Era onetan ederqui irteten zan *Bederatziurren* au, eta beti ongui irten-go lizaque Donostian, Hernanin, Tolosan, eta edocñ erri andietan, ceren erritarac erraz joan ditezquean Elizara, naiz goicean, naiz arratsaldean, egun jarraitutetan; baña ez da onelaco eraric erri chiquietan, eta Elizatic urruti echeac dituen aetan. Orregatic aurtan asmoa artu det eguiteco Bederatziurren au igandeetan, Meza nagusian bertan, asitzen naizala garizuma baño len.” (B 398)

Esatariak bekatugintzaren taxonomia finak egiten ditu. Gai zentrala eta kantitatean garrantzitsua, ezbairik gabe, konfesioa da. *Eracusalldiac-2* liburuan 25 *Eracusetik* 18 konfesioaz dira, eta baita bederatziurrena ere. Agi denez, badago arduratza teologikoa eta eklesiastikoa konfesioaren sakramentuen gainean (baita komunikaren gainean ere, gogoratu *CC* liburukia bi sakramentu horiei eskainia dela eskusiboki).

Jeremiasen aipu batek gidatzen du *Bed* sermoi-saila: *Scrutemur vias nostras, et quaeramus, et revertamur ad Dominum*. Aipu horrek dituen bi atalek



egituratzen dute *Bed* testua: batetik, I epigrafean, “*scrutemur vias nostras*” da enuntziatioaren motorea. Kontrol eta arakatzeko faseak gertatzen dira. Zentzu honetan, *Bed* testuek badute B motako *Platen* antzik. Egitura berbera topatzen da: 1, 2, 3... eta “Beguiria” agindua. *Plat* B testuetan herriari bere bekatuak aldarrikatzen zitzaizkion (*Clama, ne cesses..*); oraingoan bekatuak egiten ote den arakatzeko da gure *bide* eta ibileretan, *vias nostras*.

II epigrafeak makro-proposizio berria aurkezten du, ezkontzen dena Jeremiasen zitaren bigarren atalarekin: “*et quaeramus, et revertamur ad Dominum*”. “Atal” honetan egiten dira azalpen, argudio, iruzkin, ilustratzeak... Jesusen obraren inguruan, munduaren sorrera (Genesia), Apokalipsia, eta abar.

Egitura erraz idoro da *Bed* testuetan ere. Sermoilariak bi fase nagusi bereizten ditu: examina denbora eta azalpenaren denbora; bukaeran, itxiera (Amen). Testuen hedadurari dagokionez, orain arteko luzeenak dira. Luzeenak eta baita errepikakorrenak ere: fideltasunez ber-hartzen dira platiketan aipatutakoak. Bigarren liburuki honen egitura orokorra ez dator bat esatariak pentsatutakoarekin eta testamentuan agertu zuenarekin, baina egia da editoreek atondu zuten moduan eginda, liburua zabaldu eta itxi mandamenduekin egiten dela eta egitura zirkularra hartzen duela.

*Bed* testuen azalerak ere, ondorioz, *Eracusen* super-egitura dauka.

Sermoi guztietarako, beraz, elementu super-estruturalak berdinak dira (*Eracus, Plat, Bed*), baina badaude desberdintasunak makro-egitura mailan, bereziki makro-egituren ordenean, sermoian duten kokapenean hain zuzen.

### a) Hasiera fasea

Honako erregulartasunak lituzke idazpuruan:

- |   |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Otoitza</li> <li>b) Gaiaren justifikazioa</li> <li>c) Esaldi metalinguistikoa hurrengo atala aurkezteko</li> <li>d) <i>Divitioa</i>, jorratuko diren gaiak aurkeztuz</li> <li>e) Leloa: “enzun contuz esatera noana”, “hasi gaitecen bertatic”</li> </ul> |
|---|

Elementu estrukturaletan otoitzaren balioa garrantzitsua da. Horixe irekitze fasean derrigorrezko dena. Garapen fasea bi zutabetan egiten da: I epigra-

fea, “Begira” fasea, eta II epigrafea “azalpen” fasea. *Bed* testuek, beraz, jasotzen dute zerbait *Eracus*-etik eta zerbait *Plat* testuetatik, hibridoak bailiran. Berreskuratzen ditu epigrafeetako zenbaki erromatarrak eta funtzio desberdina esleitzen die. (Ikus eranskinetan, 337. or.).

### b) Itxiera fasea

Itxiera fasea dator bereizita epigrafearekin. Eskuarki, II epigrafearen barruan dago bukaera. Honako elementuak aurkitzen dira sistematikoki:

- a) Bukaera markatzeko, frogaldia ixteko: “Orra, nere Cristaua...” (B 418).
- b) Eskaera-erregua: “Vici gaitecen ” (B 430); “Cer ote da oraiñ, nere Cristaua, guc eguin bear deguna?...” (B 452).
- c) Promesa: “eta emango digu hainbeste costaric prestatu digun betico vicitza.” (B 430); “Au guerta dedilla zuequin, eta nerequin.” (B 452).
- d) Amen.

### c) Garapen fasea

Hona hemen eskematikoki garapen fasea:

#### I Epigrafea

- a) Aipua Jeremias (berriz errepikatua)
- b) Otoitza: “Atoz, o Espiritu Santua...”
- c) “Begira” fasea (examina fasea, erregulazio fasea)

#### II Epigrafea

- a) Errekapitulazioa: “Aditu cenduan, Cristaua, azqueneco aldian...”
- b) *Divitioa*
- c) “Azalpena” edo *narratio*.
- d) Konklusio aldia: “Ecusten, edo aditzen dezu, Cristaua, ...”
- e) Eskaera
- f) Promesa: “eta emango digu betico vicitza”
- g) Azken hitza: “Amen”. Bukaera markatzailea, zigilua eta bermea.

*Bed* testuen enuntziatio-egoera eta asmoa beste bat dira (*Eracus* eta *Plat* testuekin alderatuz beti ere). Horrek baditu ondorioak gaiaren izaeran eta tratamenduan, baina aldaketak azalekoak dira soilik. Desberdintasun horiek hona ekartzen saiatu gara.

### 2.4.3. TESTU MOTEN ERKATZEA: ONDORIOAK

Jarraian, aztertu ditugun hiru testu-moldeen ezaugarriak batera paratuko ditugu. Badituzte guztiak elementu ziur batzuk, derrigorrezkoak, *klase* direnak. Modu kontrastiboan ikus ditzakegu aztertu ditugun hiru testu-moldeak: *Eracus*, *Plat*, *Bed*.

#### a) Hasiera faseak

##### ***Eracus* sermoiak**

##### 1. *Idazpurua:*

- a) hasiera absolutua edo/eta erlatiboa (seriazioa) = *Izendapena*;
- b) errituzko formula (Alabatua &), hitza hartu baino lehenagoko sarrera;

##### 2. *Irekitze fasea:*

- a) gaiaren *aurkezpena* eta sarrera;
- b) errekapitulazioa eta zenbait ohar helburuari buruz;
- c) aipua *CC* liburutik;
- d) *divitioa*;
- e) leloa (entzun arretarekin).

##### ***Plat* sermoiak:**

##### 1. *Idazpurua:*

- a) hasiera absolutua edo/eta erlatiboa (seriazioa) = *Izendapena*;
- b) errituzko formula (Alabatua &).
- c) aipua latinez eta euskaraz (Isaias) (hitza hartu baino lehen);

##### 2. *Irekitze fasea:*

- a) errekapitulazioa;
- b) *divitioa*;
- c) Leloa (entzun arretarekin).

##### ***Bed* sermoiak:**

##### 1. *Idazpurua:*

- a) hasiera absolutua edo/eta erlatiboa (seriazioa) = *Izendapena*;
- b) aipua latinez (Jeremias);
- c) otoitza: Amabirjina txit santa...

b) **Itxiera faseak**

<b>Eracus</b>	<b>Plat</b>	<b>Bed</b>
a) Biltzea eta gogoratzea (errekapitulazioa). Insistentzia (“Ecusten dezu...”, “Orra...”)	a) Biltzea eta gogoratzea (errekapitulazioa). Insistentzia (“Ecusten dezu...”, “Orra...”)	a) Biltzea eta gogoratzea (errekapitulazioa). Insistentzia (“Ecuste dezu...”, “Orra...”)
b) Itxitura formula:	b) Itxitura formula:	b) Itxitura formula:
b.1) Eskaera-erregua (egin ezazu, konpli ezazu, ohitu zaitetz...).	b.1) Eskaera-erregua: (egin ezazu, konpli ezazu, onra ezazu...)	b.1.) Eskaera-erregua (egin ezazu, konpli ezazu, eta abar)
b.2) Promesa (betiko bizitza)	b.2) Promesa (betiko bizitza)	b.2.) Promesa (betiko bizitza)
b.3) Amen	b.3) Amen	b.3) Amen
Oharrak eta aipuak	Oharrak eta aipuak	Oharrak eta aipuak

c) **Garapen faseak**

<b>Eracus</b>	<b>Plat</b>	<b>Bed</b>
A Blokea: positibo eta euforikoa ( <i>narratio</i> edo “azalpen” fasea)	<i>A moldea:</i> A Blokea: positibo eta euforikoa ( <i>narratio</i> edo “azalpen” fasea)	D Blokea: disforikoa: (preskripzio fasea).
B Blokea: negatibo edo disforikoa ( <i>argumentatio</i> fasea)	B Blokea: negatibo edo disforikoa ( <i>argumentatio</i> fasea)	A Blokea: positibo edo euforikoa ( <i>narratio</i> edo “azalpen” fasea)
C Blokea: negatibo-positiboa, disforiko-euforikoa	C Blokea: negatibo-positiboa, disforiko-euforikoa	C Blokea: negatibo-positiboa, disforiko-euforikoa
D Blokea <sup>27</sup> : disforikoa (preskripzio fasea)	<i>B moldea:</i> D Blokea: disforikoa: (preskripzio fasea)	

<sup>27</sup> Gogora bedi agertzen dela D blokea *Eracusaldiac-1* liburukian Komunioaren gaineko sermoietan, hots, 33-53. *Eracus* bitartean. Horietan, 2 edo 3 puntu daude “Beguiria” egiturarekin, eta ez dira paragrafo hasieretan agertzen, epigrafe bezala baizik. Baina estrukturaliki funtzio bera dute. D blokea dagoenean, C blokea bertan txertatzen da.

Hiru testu-molde bereiztu ditugu: *Eracus*, *Plat* eta *Bed*. Hiru testuek ezau-garri komunak dituzte, ez dira itxuraz ematen duten bezain desberdinak. Ezaugarri komunaren konbinatoria bat dago. Ardatz biko testuak dira denak, oinarrian: batetik, bloke euforikoa-positiboa; eta, bestetik, bloke disforiko-negatiboa (C blokea, euforiko-disforikoa bi horien konbinatoriatzat hartzen dugu). Eta bi gune horiek garapen fasean ikusi ditugun garapen-eskemei erantzuten diete.

Gainera, badago D bloke bat ere, B blokearen modalitatetzat kontsidera dezakeguna, edo *disforiko-disforikoa*. Preskripzioa edo direktzio markatzea nagusitzen da.

Garapen fasea, beraz, bloke horiez osatuta dago eta testu-moldearen arabera konbinatzen dira euren artean. *Bed* testuak hibrido bat dira *Plat* eta *Eracus*en artean. *Plat* (A mota) eta *Eracus*, funtsean, gauza bera dira. Eta *Plat* (B mota) *Bed* testuaren parte da. Ondorioz, ez ditugu hiru sermoi prototipiko, baizik eta, *mutatis mutandi*, modelo finko bat, bertsalitate handikoa. Horrela, aldaketak itxurazkoak izango lirateke, beti ere, enuntziatio-egoerako aldagai batzuen arabera eginak: aipagaiaren arabera (Sakramentuak, Aginduak), hartzaileren arabera (kristau haziak, gazteak), denboraren arabera (Garizuma, Pazkoa). Baina finean, sermoiak molde bakarra izango luke, eta bariazioak sermoia muntatzeko makinaria eta “sermoiaren arte” baten ondorenak.

Hala ere, esatariaren sermoirik propioena *Eracus* motakoa litzateke, hedatuena ez ezik, obra osoari titulua ematen diona izaki. Bestalde, *Plat* eta *Bed* testuak elkarrengandik hurbil daude, bi-biak izendatzen ditu “itzaldi”.

Blokeez bi hitz, bukatzeko. A, B eta C blokeak bereizi ditugu. Blokeok finkoak edo zurrinak ez, baina malguak eta mugikorak dira. Aniztasuna dago luze-laburrean ere. Orobat, sermoi ale positiboagoak eta negatiboagoak ditugu. Negatiboan, dudarik gabe, D blokekoak dira (“Begira, begira...”). Positiboan sermoi sail bati hasieran ematen diotenak: Sakramentuen sailari, Mandamentuen sailari. Bertan ematen da gaiaren iturburuen berri, Obra noiz eta nola hasi zuen Jesukristok. Atal horiek euforikoak dira erabat, eta tasun positiboz beterikoak.

Esan dugu blokeak ez direla zurrinak. Galde daiteke zergatik dauden aldaketak sermoi sail berean ere. Hots, zergatik diren desberdinak euren artean bi *Eracus* ale, edo bi *Bed* ale. Sakonean, ikusi dugu, bloke makro-egituratu bat dira. Arrazoa inon topatzekotan bariazio beharrean legoke: orain exempla gehiago sartu, bestean azalpen luzeagoa egin... Hartzailerek ondo ezagutzen

zuten sermoiaren eskema eta beraz prebisibilitatea handia zen. Asperduraren arazoa saihestea izan liteke aldaketa eta bariazio horren funtsa: Finean Elizak hasieratik izan baitzuen arretaren arazoa<sup>28</sup>. Gure aburuz, horrek justifikatuko luke sermoien bariazioa A blokearen (*narratio*) eta B blokearen (*argumentatio*) faseetan.

Ezen sermoiak errepikakorrak eta errekurtsiboak dira: batetik, formazio beharrari loturik; bestetik, sermoiak ahozkoatasunaren zirkularitatean oinarri hartu zuelako, eta, hirugarrenik, diskurtso erlijisoaren ezaugarrietarik bat errepikapen beharra delako, 4. kapituluan jorratuko dugunez. Beraz, sermoi generoak tasun egonkorak eta derrigorrezkoak ditu, beste genero batekiko bereizgarriak.

Entzulearentzat denak lirateke sermoiak; horietako batzuk bederatzituren aitzakiatan eginak lirateke, baina horiek ere lehengo lepotik lukete burua. Izan ere, osagaien presentzian dagoen aldaketa ordenari dagozkionak dira, eta, hala izanik ere, erregulartasunak nabarmenak dira. Ikusi dugunez, osagai batzuk derrigorrezkoak ditu sermoiak, klase mailako osagaiak liratekeenak.

Saiatu gara diskurtsoaren atalak deskribatzen eta saiatu gara azaltzen atalon maneiua eta zergatia. Maneiu hau konbentzionala denez gero, entzulearen ezagutzen barne dago, eta super-egitura horiek ez ezagutzeak eragin dezake testuari zentzurik ez ematea, edota, testuaren ulermen eta memorizazioan horren emaitza onak ez izatea. Identifikatu dugun sermoiaren egitura “simple” horrek helburu bi lituzke: entzulari gaia jarraitzen eta ordenatzen laguntzea; eta, bestetik, sermoilariari testua memorizatzea erraztea. Erretorikaren *memoria* eta *actio* faseak gidatzeko balioko lukete, izan ere, XVIII-XIX eta are XX. mende erdira arte, gaizki ikusia baitzegoen sermoia irakurtzea.

---

<sup>28</sup> Zaharrak dira predikazioaren historian publikoaren arreta falta eta asperdura: “No son nuevas las dificultades del servicio homilético, desde el mismo Cristo Jesús que en la primera homilía en su pueblo de Nazaret estuvo a punto de ser arrojado por un barranco, hasta Pablo, a quien se le durmió un joven en su plática de Tróade, y San Agustín, que, a pesar de la vivacidad pedagógica de su lenguaje, se quejaba de que algunos abandonaban la asamblea durante las homilías, muchos predicadores cristianos han sentido la oposición o la apatía del pueblo frente a esta faceta de su ministerio pastoral.” (Floristan eta Tamayo 1993: 159). Gure esatariak ere ez zuen arazoa itzuri ahal izan: “baicic Jesusi iseca eguitera etorri balira bezala; batzuec beguic armatu batera, eta bestera beguiratuaz; besteac itzeguiten; batzuec auzabalca, besteac ordu erdi bat ezin igaroric. Au da, nere Cristauac, Jesusi zor diozcagun esquer onac, ta adoracioac ematea?” (C 67).

#### 2.4.4. SERMOIEN PARAGRAFOAK

Jakina denez, paragrafoak ere testu egituraren karakterizatzailerik izan daitezke. Gure kasuan, ezar daiteke testuaren antolaketa globalerako paragrafogintzarik? Guk uste izan dugu baietz, identifikatu ahal ditugula erregularitasun batzuk, paragrafoen semantikara hurbilpen bat egin daitekeela blokeka. Hala uste genuen eta azterketari ere ekin genion.

Hasiera bateko hurbilpenean, iruditu zitzaigun gure idazlea “klasikoa” izanagatik, paragrafogintza nahikoa ondo bereizita zeukala XVIII–XIX. mendeetarako, hots: sekuentziak ondo markaturik, paragrafo paraleloak, esaldi topikalen kokapena (paragrafo hasieran edo bukaeran). Jakineko gauzak ere baziruditen: testuak aurre prestaketa bat jasanak ziren, helburuarekin bat zetorrena, entzuleak gidatzeko, eta abar.

Baina analisi sakonago batek paragrafogintzaren irizpidea kontuan hartuz atzeratu gintuen. Oso luzeak dira, oro har, sermoigintzaren paragrafoak eta zail da erreferente gisa hartu genuen Longacre autorearen lana (1979) kontuan hartuz jardutea. Saiatu ginen autore horren sailkapena aplikatzen, hau da, paragrafo motak: konjuntziozkoak, denborazkoak, logikoak... bereizten. Esan bezala, antzua gertatu da bide hori, izan ere sermoia ahozko praktika den aldetik, ez du behar paragrafogintza mailako konjekzio sendorik. Hala ere, esan beharrekoa da paragrafogintza pertinetza dela kasu batzuetan, B moldeko *Platen*, bloke disforiko eta erregulatzailan, non paragrafoak zenbaki bidez banatzen diren. Banaketa horrek pilaketa eta metaketa efektua sortzen du, erretorikoki emozioan eta intentsitatean eragiten duena. Osteratzean, paragrafogintza ez da sermoien taiuketarako irizpide gisa hartu.

#### 2.5. KONKLUSIOAK

Ondorioztatu dezakegu sermoiak mintzaira-ekintza egituratuak direla, konbentzionalitate eta egonkortasun handiko ekoizpenak. Esan daiteke denak egitura-eskema berekoak direla, bereziki *Eracus* izenekoak direnean. Nolanahi ere, badira zenbait aldaera. Sermoiak irakurri ahala eta sermoi asko irakurri ondoren, irakurleak erraz asmatzen du sermoia zein unetan dagoen eta nora joko duen. Alegia, irakurleak erraz jakin dezake hasieran, bukaeran edo garapen fasean dagoen. Eta horrela izateak komunikazio zuzenago eta sakonago sortzeko indarra du. Areago: sistematizazio horrek ulertzeko ez eze, sermoiak idazteko ere erraztasuna ematen du.

Egitura jakin honen helburua, beraz, komunikazioa da. Eta antolatzeko era horrek testuaren eraginkortasuna dakar. Sermoilariak testuak idazteko “makina” sortzen du. Apaiz euskaldunen erkidegoari begira, ereduez baliatzeak bere abantailak ditu, egiazki. Gure *corpuseko* sermoiek elementu super-estrutural berberei eusten dieten arren, gauza berberak modu desberdinean aurkezten dira. Egonkortasuna bada, zeren sermoiek behar zituzten elementuak (entzuleak jarraitzeko, testu tipifikatuak idazteko) jada emanak zeuden, historian bilduak. Bariazioak bai esateko moduetan, joan-etorriak eta aldakuntzak, baina beti ere errekurtsibotasun baten barruan. Errekurtsibotasun hori sermoien ezaugarri garrantzitsuenetakoa da gainera.

Egin dugun hipotesi tipologikoak, beraz, eraman gaitu ikustera hiru moldeak (*Eracus/Plat/Bed*) elementu super-estruturatu bakarrera errenditzen direla, ez direla mota bereziak, baizik eta eredu bakarraren aldagaiak, eredu zentrala *Eracus* izanik (*Plat* eta *Bed*, biak izendatzen ditu “hitzaldi”. Bestalde, Bederatziurren izena “elizkizunari” egokitzen zaio hizkuntza jardunari baino gehiago. Horregatik, neurri batean, utzi egingo diogu hirurak bereizteari, eta hiru iturrietatik hartuko ditugu aipuak).

Paragrafogintza ez da irizpide ezaugarritzailea sermoigintza ahozko praktika den heinean. Ez da bereizketa pertinentea informazioaren banaketa atzertzeko ere, nahiz eta sermoien barne kausalitatea den nagusi artikulazio nagusian.



3. KAPITULUA

**SERMOIA ILOKUZIO-PRAGMATIKAREN  
ARGITAN**



### 3.0. MODULUARI SARRERA

Sarrera orokorrean adierazi bezala, modulu bakoitzean hegaldi bat egingo dugu *corpuseko* testuen inguruan, helburu dugula sermoiaren ezaugarritze diskurtsiboa egitea. Modulu honetan, hizketa-egintzen teoriaren kale kantoi-tik aztertuko dira sermoiak. Teoria aldatuz, bistan da, azter unitatea ere aldatu beharra dago. Horrela bada, aurreko kapituluan testua komunikazio unitate gisa hartzen genuen, eta testuan oinarrituta aztertzen genituen sermoiak. Oraingoan, testuari loturik jarraituko dugun arren, sermoiei begiratzeko oinarriko unitatea *hizketa-egintza* izango da. Searle autoreak, jakina den bezala, unitate horixe eta ez beste jotzen du komunikazioaren unitate oinarritzotzat:

“La razón para concentrarse en el estudio de los actos de habla es simplemente ésta: toda comunicación lingüística incluye actos lingüísticos. La unidad de la comunicación lingüística no es, como se ha supuesto generalmente, el símbolo, palabra, oración, ni tan siquiera la instancia del símbolo, palabra u oración, sino más bien la producción o emisión del símbolo, palabra u oración al realizar el acto de habla. [...] y los actos de habla son las unidades básicas o mínimas de la comunicación lingüística.” (Searle 1980: 26)

Giza komunikazioaren arloan hizketa-egintzaren erdigunetza aldarrikatzea, XX. mende Erdiko hizkuntzalaritzan pragmatikak ekarriko duen iraultzaren ondorio da. Aurrekariak hizkuntzaren filosofiatik etorriak ziren: lehenik, Wittgenstein-ek (2002 [1958]) ondorioztatu zuen hizkuntza bat hitz egitea praktika eta ekintza sistema oso batean murgiltzea dela, hau da, “hizkuntza jokoak” egitea, eta, beraz, hitzekin *gauzak egitea*. Beste filosofo bat, John L. Austin (1911-60), izango zen hitzak erabiltzeagatik zein gauza mota egiten ote dugun sistematikoki ikertu zuena. Zer “gauza” egiten dira hitzekin? Gure *corpusera* itzulirik, eta jada ikusirik sermoiak testu direla (edo produktu

makro-egituratu bat), zera galdetzen dugu orain: sermoiak zer gauza “egitera” etorri ziren? Zertara atera zen sermoilaria plazara? Zer erdietsi nahi zuen sermoia den testuaren bidez? Hipotesipean jarriko dugu sermoia hizketa-egintzen teoriaren argitan zedarrri daitekeela, eta, beraz, lan horri ekingo diogu jarraian. Ondorioz, erabat murgilduko gara pragmatika ilokutiboaren uretan.

Sermoiaren azterketa ilokutiboari ekiteko aurre egin beharko diegu pragmatika mota horren arazo biri: batetik, esanahiaren eraikitzearen auziari, hau da, zein harreman dagoen esandakoarekin esan denaren, eta horrek adierazi nahi duenaren artean. Jakin baitakigu hiztunak ez duela bere komunikazio asmoa modu esplizitu eta literalean kodetzen beti. Bestela esanda, enuntziatuak prozesatzen badira soilik eduki linguistikoari jarraituz, *esanahia* izango dugu; baina horrek ez du bermatzen deszifratuko dugunik hiztunak benetan *esan nahi* izan zuena. Lotura horri, esan bezala, heldu egin beharko diogu: eduki proposizionalaren eta esanahi pragmatikoaren arteko loturari. Bestetik, hizketa-egintza *zeharkako*en problematikari ere heldu beharrean izango gara.

### 3.1. OINARRI TEORIKOA: HIZKETA-EGINTZEN TEORIA

#### 3.1.1. ABIAPUNTUA: AUSTIN

*Hizketa-egintzen* teoria izenez da ezaguna Austin britaniarrak<sup>29</sup> eta Jonh Searle<sup>30</sup> haren ikasle estatubatuarrek (1969) landutako planteamendua.

Austinek lehenbiziko teorizazioan enuntziatu performatiboak eta enuntziatu konstatatiboak bereiztu zituen<sup>31</sup>. Beraz, bi enuntziatu mota horiek age-

<sup>29</sup> Austin, 1962 *How to do things with words*. Oxford, Oxford University Press. Gaztelerazko bertsioa: *Cómo hacer cosas con las palabras*, Buenos Aires, Paidós: 1982. Orobat, edizio berriari, *Cómo hacer cosas con palabras: palabras y acciones*, Bartzelona, Paidós Ibérica, 2004).

<sup>30</sup> (Searle J. (1980): *Speech Acts. An essay in the Philosophy of Language*. Cambridge, Cambridge University Press. Gaztelerazko itzulpena: *Actos de habla: ensayo de filosofía del lenguaje*. Madril; Cátedra).

<sup>31</sup> Enuntziatu performatiboan esaten dena eta “egiten” dena bat datoz: “*Itsasontzi hau inauguratzen dut*”, “*Nik ezkontzen zaituztet*”. Enuntziatuok behar den testuinguruan jaulkita, hitzetatik haratagoko errealitateak konfiguratzeko dituzte (barku bat inauguratzea, ezkontzea). Bestalde, enuntziatu konstatatiboak litzateke esatea “*Gaur eguraldi ederra dago*”. Baina, gerora, ohartu zen Austin konstatatiboek ere *orientatzen* zutela akzioa, arestiko horrek, demagun, horrelako efektua sor lezake: “*Hondartzara joango gara*”, “*Baratzeko lanak egingo ditugu*”, eta abar).

rian jartzen dute enuntziatio-egintza bera berez egintza bat dela (besteetatik berezia) eta ez-linguistikoa soilik. Performatibitatea, oro har, konbentzio sozialek arautua dago, horren antzeko balioa duten beste egintza ez-linguistikoak dauden bezala.

Performatibitatearen kontzeptutik abiatuta, orokortuz, Austinek *ilokuzio-ekintzaren* kontzeptua sortu zuen. Enuntziatu orok, bere esanahi justuaz aparte, badu ilokuzio-indarra ere, eta berau izan daiteke esplizitua zein implizitua.

Horrela, bada, Austinek formulatzen ditu hizketa-egintzen teoriaren hiru alderdiak, ezein enuntziaturen ekoizpenean hiztunak egingo dituenak:

a) Lokuzio-ekintza (*locutionary act*) da “zerbait” ESATEA, ahoskatzea. Ekintza lokutiboa, Austinen hitzetara ekarrita zera da (1962: 153): “*acto que de forma aproximada equivale a expresar cierta oración con un cierto sentido y referencia, lo que a su vez es aproximadamente equivalente al “significado” en el sentido tradicional*”.

b) Ekintza ilokutiboa (*illocutionary act*) da “zerbait” ESATEAN egiten dena (*IN saying something*). Ekintza ilokutiboa identifikatzeko zehaztu behar da nola ari garen erabiltzen jaulkitako lokuzioa. Lokuzio ekintza egiteak beti dakar ilokuzio ekintza bat egitea. Esate baterako: esaten duenak “Txakurra zaunka dabil” egiten du esaldi bat euskaraz. Baina, hori *esatean*, zerbait gehiagotan ere ari da: demagun abisatzen edo ohartarazten (= zerbait gertatzen ari da). Alderdi hau bereziki interesatzen zaigu, gorago esan den bezala, inplikatzeko baitu esaten dugun horrek orientazio bat duela:

“Cuando realizamos un acto locucionario, usamos el habla; pero ¿en qué modo preciso lo estamos usando en esta ocasión? Porque hay muchísimas funciones o maneras en que usamos el lenguaje, y constituye una gran diferencia para nuestro acto en algún sentido de qué manera y en qué *sentido* la estábamos “usando” en esta ocasión. Es muy diferente que estemos aconsejando, o meramente sugiriendo, o realmente ordenando, o que estemos prometiendo en un sentido estricto o sólo anunciando una vaga intención, etc.” (Austin 1962: 143)

c) Perlokuzio ekintza da zerbait ESATEAGATIK egiten dena (*BY saying something*). Perlokuzioa ekintza horren *efektuei* dagokie: “*Normalmente, decir algo producirá ciertas consecuencias o efectos sobre los sentimientos, pensamientos o acciones del auditorio*” (Austin 1962: 145).

Eskuarki horrela agertzen da arestiko teorizazioa:

<b>Ekintza</b>	<b>Indarra</b>	<b>Efektua/Eragina</b>
LOKUZIONALA	ILOKUZIONALA	PERLOKUZIONALA

### 3.1.2. SEARLE-REN EKARPENA

Ilokuzio pragmatikaren abiaburuak Austinek jarri bazituen ere, haren ikasle eta jarraitzaile John Searlek (1969, 1975) egin du teoriaren sistematizazio eraginkorrena. Ildo beretik, Vanderveken autoreak, Searle-ren lankideztaz (Searle & Vanderveken 1985) kasu batzuetan, zein bere aldetik (Vanderveken 1991), urrats bat gehiago emanez, “logika ilokuzional sistema” gisa formalizatu du hizketa-egintzen teoria.

Hizketa-egintza, horrenbestez, hartzen da oinarritzko komunikazio-unitatetzat eta, are, hizkuntzaren funtzionamenduaren oinarritzat. Hona hipotesi nagusiaren oinarria: bada harreman edo elkargune analitikorik honako elementuen artean: hizketa-egintzen nozioaren, hiztunak esan nahi duenaren, esaldiak (edo bestelako osagai linguistikoak) esan nahi duenaren, hiztunaren asmoaren, entzuleak ulertzen duenaren eta osagai linguistiko horiek gobernatzen dituzten erregelen artean. Nolanahi ere, Searlek ilokuzio ekintzari eskaini dio arreta berezia, eta horren azpian dauden erregulartasunen analisisa egiteari. Hona, labur, hizketa-egintza nozioaren deskripzioa.

Hizketa-egintza orok bi alderdi biltzen ditu: batetik, proposizio edukia (p) (hitzak, sintagmak, esaldiak, eta abar, egia logikoaren aurreuposizioaren arabera jaulkiak) eta ilokuzio-indarra (F) (hiztunaren intentzioa edo xede-asmoa). Proposizio edukiaren xede-asmoa zehazten da azentuaren, hitz-ordenen, puntuazioaren, hiztegi hautatzearen... bitartez, ikus Searle eta Vanderveken (1985: 1). Hitztunok ondo dakigunez, baina, ez dago harreman biunibokorik adierazpen formaren eta hizketa-egintzaren artean (galderen azpian ager daitezke aginduak: “Egingo duzu txostena?”; informazio pean datozen pertsuasioak, mehatxuak edo promesak, eta abar). Eta horrek makina bat ktramila eta buruhauste sortzen digu eguneroko bizitzan

Searleren analisiak, bestalde, agerian jarri du badirela, alde batetik, errege-la *arautzaileak* eta, bestetik, erregelak *eraikitzaileak*. Lehenengoek lehenagotik dauden portaerak gobernatzen dituzte: esate baterako, kortesiazko formulak; bigarrenek, portaera-modu berriak sortu edo definitzen dituzte. Futboleko erregelek edo xakekoek, esaterako, ez dute adierazten futbolean edo xakean

nola jokutzen den bakarrik, nolabait esateko, joko hori egiteko posibilitatea bera ere sortzen dute (1969/72).

Searle saiatzen da zedarrizten zeintzuk diren baldintza “beharrezkoak eta nahikoak” hizketa-egintza jakin bat gertatzeko (1969 [1980], 3. kap):

- (I) *Hasierako baldintzak*; baldintza hauek bermatzen dute komunikazio linguistiko “serio eta literal” bat.
- (II) *Eduki proposizionalaren baldintzak*; zein ezaugarri bete behar dituen hizketa-egintza bat adierazten duen proposizioak. Esate baterako, ilokuzio-indarrak muga batzuk ezar diezazkioke proposizio edukiari, horrela, nik ezin dut agindu (prometitu) beste batek zerbait egingo duela.
- (III) *Gertatze baldintzak*; hizketa-egintza betetzeko behar diren testuinguru-ezaugarriak zehazten dituzte; baldintza hauek dira prestatzen dutenak hizketa-egintza *egoki* betetzea. Searlek dio direla “*sine quibus non*”. Baldintza hauek dira, esaterako, egintzaren egileak egintza egiteko duen eskubidea, zein autoritate duen horretarako, eta, halaber, zein baldintza bete behar den egoera konkretu batean egintza gauzatzea posible izateko.
- (IV) *Zintzotasun baldintzak*; hiztunaren desirak eta sinismenak zehazten dituzte.
- (V) *Oinarrizko baldintzak*; zein motatako egintza egin den zehazten dute. Egintza ilokutibo bat betetzeak egintza hori burutu duena zenbait sinismen eta asmo beregain hartzera konprometitzen du. Beraz, baldintza hauek zerikusia dute hiztunak gauza batzuk edo beste batzuk esateagatik hartzen dituen konpromisoekin.
- (VI) *Esanahiaren baldintza*; baldin entzuleak erreparatuko badu hiztunak bere adierazpenean zein efektu ilokutibo jarri nahi duen, jakin beharko du hiztunak darabilen adierazpen linguistiko horrek zein esanahi konbentzional duen.

(I) eta (VI) baldintzak modu orokorrean aplikatzen zaizkio egintza ilokutibo guztiei. Eta (II-V) baldintzetan oinarriturik, erregela semantiko multzo bat postulatu du.

Honako lau erregelok zehazten dute ilokuzio-indarraren hornidura:

- 1) *Eduki proposizionalaren erregelak*
- 2) *Gertatze baldintzak*
- 3) *Zintzotasun erregela*
- 4) *Oinarrizko erregela*

### 3.1.2.1. *Hizketa-egintza motak eta ilokuzio abalmena*

Zenbat hizketa-egintza dago? Bereiztu daiteke motarik edo kategoria oinarrizkorik? Hizketa-egintzen lehenbiziko bereizketa honakoa da: batetik, zuzeneko hizketa-egintzak daude, eta, bestetik, zeharkako hizketa-egintzak. Askotan gertatzen da hiztunak adierazten duen hori baino *beste* zerbait esan nahi izatea. Horrelakoetan, esaten da hiztunak hizketa-egintza *zeharkakoak* egiten dituela. Enuntziatuan esanahi literalak ez du adierazten berorren ilokuzio-indarra. Ez da ezinbesteko loturarik forma linguistikoaren eta ilokuzio-indarren artean<sup>32</sup>.

Hizketa-egintzak agertzen duen xede-asmoa edo helmuga (*point*) kontuan hartuz gero, bost hizketa-egintza bereiztu ohi dira: *asertziozkoa* (*errepresentatiboa*), *komisiboa* (*promisiboa*), *direktiboa*, *deklaratiboa* eta *adierazkorra*. Mota horiek denak dira zuzenekoak. Zeharkakoak definitzeko, helburuaren irizpidez gain beste kriterio batzuk ere erabili beharra dago.

Zeharkako hizketa-egintzek, nolana ere, arazo handia dakarkiete gramatika ilokutiboari, ez baitago erlazio egonkorrik forma gramatikalaren eta egintza ilokutiboaren artean. Ezein enuntziatuk dauka hainbat esanahi adierazteko *potentziala*, forma linguistikoak dioenera makurtu gabe. Hizketa-egintza zeharkakoen ezaugarrietako bat potentzial horixe da hain zuzen, eta jarraian sakonago mintzatuko gara horretaz. Esan dezagun, hala ere, ilokuzio-indarra atzematea eta definitzea beti ere prozesu interpretatibo bidez egiten dela.

Searlek (1976), esan bezala, hizketa-egintza ilokutiboaren taxonomia proposatzen du, eta honakoa da. Gogoan izan sailkapen hau zuzeneko hizketa-egintzen gainean eginda dagoela:

1. *Errepresentatiboak edo asertziozkoak (baierako xedea)*. Hitzuna konprometitzen da adierazitako proposizioaren egiaz. Konpromiso horrek hainbat gradu izan ditzake (*hipotetikoki planteatu p... dela / baieztatu p... dela*). Norabidea: hitzetik-mundura, eta hizlariaren egoera psikologikoa, sinismena.
2. *Direktiboak edo preskripziozkoak (zuzentzeko xedea)*. Hitzunek entzuleari zerbait egin arazteko ahalegina egiten dute. Intentsitate gehiago edo gutxiago izan dezakete, iradokizunetik agindurainoko tartea dago. Norabidea: mundutik-hitza. Zintzotasun baldintza: hiztunak

---

<sup>32</sup> Adibide tipikoa da honako hau: “Gatza pasako didazu?” proposizioarekin ez gara galdera egiten ari, eskaera baizik. Hizketa-egintza zeharkakoa dugu, beraz.



nahi du entzuleak modu jakin batean joka dezan. Esan behar da alabaina direktiboen eduki proposizionala beti dagokiola etorkizuneko egingiza bati.

3. *Komisiboak (konpromiso xedea)*. Hitzuna konprometitzen da etorkizuneari egingo dituen ekintza multzo batekin. Promesak dira konpromisokoen adibiderik argienak. Direktiboen kasuan bezala, norabidea: mundutik-hitzera, eta eduki proposizionala etorkizuneko ekintza bati dagokio. Hitzunaren jarrera zera da: esaten duena betetzea.
4. *Adierazkorrak (adierazteko xedea)*. Beren helburu ilokutiboa jarrera bat adieraztea da proposizioan aurkeztu den gauzen egoeraren gainean. Ez dago norabiderik, osagai frastikoaren egia aurreuposatu egiten baita. Ez da hitzen egokitzerik egiten, ez eta gauzen egoerarik aldatzen ere. Ez da transformaziorik.
5. *Deklaratiboak (agerbidezko xedea)*. Bat datoz Austinek bere lehen proposameneari definitu zituen enuntziatu performatibo instituzionalekin. Ezaugarriak behinena zera da: “la realización con éxito de sus miembros da lugar a la correspondencia entre el contenido proposicional y la realidad”. Oro har, behar izaten dute instituzio extralinguistikoa, zeinaren baitan hitzun eta entzuleek funtzio jakin batzuk dituzten.

### 3.1.2.2. *Ilokuzio abalmena edo potentzial ilokuzionala*

Hizketa-egintza motak ezagutzen ditugularik, eta badakigunez hizketa-egintzak ilokuzio-indarraren arabera zedarritzen direla, beste pausu bat egingo dugu aurrera. Kontua da ilokuzio-indar edo esanahi hori *ahuldu* edo *potentziatu* egin daitekeela. Bestela esanda, nahiz eta hizketa-egintzaren gunea edo *point* delakoa bat-bera izan, egintza batzuetako ilokuzioa ahuldu edo potentziatu egin daiteke eta horrela ilokuzio-indarraren gradua jaitsi edo igo. Adibidez: “eskaera” eta “erregua” bereiztu egin daitezke; erregua gogorragoa da, *potentziaturik* dago “eskaera”; bestela esanda, indartsuagoa da “eskaera”. Eta alderantziz. Indartzeko edo ahultzeko, baterako eta besterako, estrategiak asmatu ahal ditugu hitzunok. Estrategia horiek gure intentzio-asmoa argiago gera dadin leudeke bideratuak. Eta modu eta mekanismo desberdinak balia daitezke: tonuera, azentua, harridurazko esapideak, galderak, esagerazioak, baliabide hipokoristikoa... Eta modu diskurtsiboan ere egin dezakegu: “behin eta berriz esango dizut” bezalako birformulazioak eginez, konparazioak eginez, errepikatuz, adibideak ekarriz, hiperboleak eta ahoberokeriak esanez...

Azken batean, ilokuzio-indarra ahultzeko edo potentziatzeko hainbat baliabide baliatu ahal dira. Alderdi horiek kontuan hartu beharko ditugu hizketa-egintzen ilokuzio-esanahia (eta indarra) zehazterakoan.

Searleren arabera (1986 [1969]: 66) enuntziatu bati galdera baten ilokuzio-indarra aitortzeko, honako baldintza hauek izan behar dira: *gertatze baldintzek* (preparatorioak) eskatzen dute hiztunak galderaren erantzuna ez jakitea; *zintzotasun baldintzek* eskatzen dute hiztunak informazio hori jakin nahi izatea; *ezinbesteko baldintzen* arabera, enuntziatua da informazio hori lortzeko saiakera bat.

Koxka hementxe dago: zein da *esan* denaren eta *esan nahi* denaren arteko aldea? Hizkuntzaren erabiltzaile gisa harrigarria da zein gaitasun dugun deduzitzeko, mezu literaletik, hiztunaren benetako komunikazio-asmoa. Adibide paradigmatico bat antifrasia edo ironia izan daiteke, hiztunak *esan nahi* duenaren kontrakoa adierazten duenean gertatzen dena.

Esanahia eraikitzeko beste argi-iturri bat *kombentzionalitatea* da (Searle 1975, in Blum-Kulka 2000: 78). Halatan, badira kombentzio zehatz batzuk lotzen dituztenak hizketa-egintza baten enuntziatu zeharkakoak egintza hori betetzeko behar diren aurrebaldintza jakin batzuekin.

### 3.1.2.3. “Hizketa-ekintza” edo “hizketa-egintza”?

Pragmatikari buruzko irakurketak egitean euskaraz, irakurlea berehala ohar-tzen da autore batzuek “hizketa-egintza” adierazpena erabiltzen dutela eta, beste batzuek, ostera, “hizketa-ekintza”. Ezer baino lehen, zehaztapen bat egin behar da “*egintza*” nozioaren inguruan, izendapen horren azpian, izan ere, bada aldea azterketa ulertzeko moduari zuzen-zuzen dagokiona. Gure hautua argitu aldera, “hizketa-egintza” eta “aldaketa kontestula” nozioak ukituko ditugu.

Austinen liburuaren gaztelarazko itzulpenak –Carrió eta Rabossi-ren bertsioak (1962), hain zuzen– titulu gisa dakar *Cómo hacer cosas con palabras* eta azpтитulu gisa, *Palabras y acciones*; halaber liburuaren azken bertsioak ere (2008ko edizioak). Beraz, euskaraz, “ekintza” hor nonbait.

Guk, hala ere, “hizketa-egintza” erabiliko dugu, eta baliatuko dugu “ekin-tza” egintzaren azpi-dimentsio bat izendatzeko, hots: “lokuzio-ekintza”, “ilokuzio-ekintza”, edota “perlokuzio-ekintza”. Gauzak horrela, “egintzaren” definiziorako Sbisá (1983) eta Gazdar (1981) autoreei jarraituko gaitzaizkie (ikus ildo beretik Isard ere, 1975).

“Egintza” diogunean, baina, zertaz ari gara zehazki? Bi teoria daude “egintza” nozioa definitzen laguntzeko. Batetik, Davidson autorearen (1980) *egintzaren teoria kausala* genuke. Teoria honek definitzen du ekintza kausa partikular batek sortzen duen gertaera bezala, zeinak agerian jartzen duen agentearen subjektibitatea (intentzioa edo/eta beste jarreraren bat). Ekintza lotuta dago, beraz, subjektibitatearekin, eta arriskua du subjektua produktu psikologiko bihurtzeko.

Beste teoriak, semiotikoak hain zuzen (Greimas & Courtés 1990 [1979]) egintzaren teoria elaboratzeko hartzen duen sustraia zera da: hizketa-egintzak “zerbait *izan-arazi*” sortzen du, hau da, egoera bat sortzen du edota egoera baten aldaketa eragiten. Egintza da, hain zuzen, “*izan arazi* egiten duen hura”, “*sortarazten* duen hura”, sortarazi ere, alde zuzenetik ez zegoen zerbait. Eta subjektua (aurre)suposatuta egiten da. Ikuskera honetan ez da eztabaidatzen subjektuari buruz; interesatzen zaigu soilik egintzaren bidez sortzen den emaitza.

Guk geuk laketago dugu definizio semiotikoan inspiratzen den egintza nozioaren interpretazioa. Horren arabera, egintzaren ideia eramaten da “*izan-araztera*”, edo esplikatzen da “*izan-arazi*” batetik. Jakina, hautua egokiagoago gerta daiteke sermogitzan ari garela kontuan izanda.

Definizio horren eskema modu honetan egin daiteke: elkarreragin egoera batean bi partaide daude, P1 eta P2; esango da P1-ek egintza burutu duela baldin eta P2-k atzematen badu egoera berri (E2) bati ematen zaiola hasiera (E1-ekiko bestelakoa).

Aldaketa horiek testuan zehar egingo dira; edo testuak bideratzen dituen transformazioak izango dira, eta horietan subjektuak burutuko dituen *egintzak*. Horrela bada, kontu horiek oso gertu jartzen gaituzte semiotika narratibotik. Bestela esanda, egintza horretan badago estadoen transformazioa hasieratik bukaerara, egon ere aktante baten ekintzaren kausaz. Hona Sbisá-k (1983) horren kariaz dakarren eskema:

$$P1 \longleftarrow [E1 \rightarrow E2] \longrightarrow P2$$

Non  $E1 \rightarrow E2$ -rako transformazioa egintza den, eta bertan *testuinguru aldaketa* bat gertatu den. Baina zer adierazi nahi da nozio horrekin? Kasu honetan “testuingurua” konpromiso multzo gisa deskribatu ahal da, hots, partaide bakoitzak dituen konpromiso multzo gisara. Bi egoera ditugu: E1, ezkerrekoa, eta E2, eskuinekoa, egintzaren aurrekoa eta ondorengoa. Bi egoera horien artean “aldaketa” gertatu da, aktante baten hizketa-egin-

tzari esker gertatu ere (gure kasuan, sermoilaria litzatekeena). Gazdar (1981) autoreak proposatzen du ulertzeko edo definitzeko modua: hizketa-egintza testuinguru batek beste batean duen funtzio gisa ulertu behar dela, hau da, hurbileko testuinguru aldaketa gisa. Subjektuak egin dituen egintzak, horrenbestez, testuan eragindako transformazioak izango dira. Horrela, sermoiaren kasuan, entzuleak egingo du *itinerarium* bat mundu terrenaletik trszendentera, sermoian bertan eta sermoiaren bilbean, hots, “Enzun arretaz, Cristaua” hasieratik eta harik eta bukaera arte, promesa eta “Amen” bitartean. Testu barruan mugituko gara, semiotika narratiboaren haritik, horixe baita guk orain eta hemen kristauaren transformazioa behatzeko dugun toki enpiriko bakarra (ezin dugu jakin zehazki gure sermoiek zein eragin izen zuten gizartean). Beraz, “testuinguru” hitza darabilgunean nozio hori hartu behar da “ko-testuaren” baliokidetzat; bestela esanda, ez dio erreferentzia egiten testutik kanpoko testuinguruari.

Horrenbestez, gure analisisan hizketa-egintzen ilokuzio-balioa zehaztu eta interpretatzerakoan, Searleren irizpideak baliatuko ditugu, eta baita “testuinguru aldaketa” kontzeptua ere. Jarraian zehazten ditugu Searleren irizpideak ilokuzio-esanahia atzemateko.

### ***3.1.2.4. Ilokuzio-esanahia atzemateko irizpideak***

Ilokuzio-indarra esplizitatzea, normalean, prozesu konplexua da. Bestela esanda, hizketa-egintzaren ilokuzio-indarra/esanahia zehazteko zenbait urrats igaro behar dira (ikus Searle eta Vanderveken 1985: 12-19). Nola atzeman ilokuzio-esanahia? Zein bidetatik ekin? Honako urrats hauek aipatzen ditu Searlek:

“La fuerza ilocucionaria se determina una vez que se especifican su punto ilocucionario, sus condiciones preparatorias, el modo de consecución de su punto ilocucionario, el grado de fuerza de su punto ilocucionario, las condiciones de su contenido proposicional, sus condiciones de sinceridad, y el grado de fuerza de sus condiciones de sinceridad.” (Searle 1985: 20)

Guk ez ditugu baldintza guztiak kontuan hartuko, honako laurok baizik: a) xede-asmoaren baldintzak; b) gertatze baldintzak; c) zintzotasun baldintzak; eta, d) oinarritzko baldintzak.

### 3.2. HIPOTESIAK

Sermoietakoz hizketa-egintzek, oro har, nahiz eta ugariak eta askotarikoak izan, helburu bera dute, hau da, zerbaiten alde/kontra ekarrita daude azken buruan. Jakin dakigu ilokuzio-esanahia interpretazio kontua dela, eta, beraz, ondorioztatu daiteke ez dagoela esanahi hori enuntziatu isolatuen edota enuntziatu-aleen gainean egiterik. Hala balitz, gainera, aurreko kapituluan jorraturako bideari uko egingo genioke (testua hartu dugularik komunikazio unitate bezala, hain zuzen). Beraz, hizketa-egintza noziotik *gorago* joan beharra dago. Gauzak horrela, ikusi beharko da hizketa-egintzak zein motatakoak diren eta, gainera, zein *hierarkia* duten testuaren barruan, hots, euren garrantzia erlatiboia “*hizketa makro-egintza*” eraikitzeke. Ildo honetatik, hizketa-egintzak sailkatzea bera ere hipotesizat hartu beharra dago. Sermoiak duten azken helburua argitzeko ahalegina egin nahi badugu, nekez onartuko da hizketa-egintzen artean erlazio hierarkikorik ez dagoenik.

Laburbilduz, gure hipotesia da sermoia *hizketa makro-egintza* berezia dela, *zeharkako hizketa-egintza* berezi gisa deskriba daitekeena. Zeren eta gauza bat da sermoi bakoitzeko hizketa-egintzak identifikatzea eta deskribatzea, eta beste gauza bat hizketa-egintza horiek zeren zerbitzutan dauden zedarritzea. Horrela bada, gure *corpuseko* sermoiak *Eracusalodiac* izanagatik titulua, postulatzen dugu makro-egintza nagusia ez dela, paradoxikoa bada ere, irakastea, baizik eta motibatzea, ziztatzea, onbideratzea. Kristaua gehiago kristautzea. Egia esan, zaila da aditz zehatz bakarrean laburbiltzea sermoiaren helburua, arestian esandakoez gain, leudeke induzitzea edota grinatzea. Horregatik, sermoiaren makro-egintza deskribatzerakoan, hitz bakarra erabili gabe, perifrasi edo deskripzioa egingo dugu.

### 3.3. ANALISIA ETA IRUZKINAK

Aurrenik, sermoietan antzeman daitezkeen hizketa-egintzak identifikatu, deskribatu eta sailkatu egingo ditugu.

Esan bezala, ilokuzio-indarra esplizitatzea, normalean, prozesu konplexua izaten da, hura zehazteko zenbait fase edo urrats igaro behar baitira. Eginkizun honetarako, baliatuko gara Searlek aipaturako lau irizpideez eta aintzat hartuko dugu, baita ere, testuinguru aldaketa; hau da, hizketa-egintzak zein aldaketa sortarazten duen testuaren barruan, arestian azaldu duguna.

Sermoiak azterturik, honako hizketa-egintzak antzeman ditugu.

### 3.3.1. HIZKETA-EGINTZA ASERTZIOZKOAK

*Proposizio edukia:* Hizlariak nahi du kristaua salbamen historiarekin jabetu dadin. “Jabetzea, jakinaren gainean egotea, zerbaiten berri izatea...” litzateke entzulearen egintza. Hizlariak mezua benetako egoera gisa enuntziatzen du. Egokiera edo norantza, hitzetatik mundurakoa da. Geroago ikusiko denez, atal hau sendoa da eta ondo horniturik agertzen da sermoietan. Baina, azken buruan, bada beste xede-asmorik hor informatzeaz gain.

*Gertatze-erregelak:* besterik litzateke Jesukristoren eta bere obraren berri-rik ez izatea. Komenigarria da horren notizia izatea, kristaua horren premian dago.

*Zintotasun erregela:* esatariak badu arrazoirik mezua hartzailearen onerako izango dela pentsatzeko.

*Oinarrizko erregela:* hizlaria ziur dago eta asumitua dauka A (edukia) munta handikoa dela hartzailearentzat. Informazio horiek hizlariaren geroko ideia eta sentimenduetan eragiten dute.

Eta aldaketa kontestualari dagokionez:

- Testuinguru 1 (ezkerrekoa): bada salbazio plan bat, eta berau ahalik eta gehien hedatu beharrekoa da. Munduaren egungo egoera ekartzen da.
- Testuinguru 2 (eskuinekoa): egitasmo hori indarrean dago, eta orain eta hemen horren berri ematen da eta hura esplizititzen. Hartzailea kontzienteago egiten da.
- Aldaketa kontestuala: errealitate bat zehazten duen asertzio edo baieztapena jaulki da.

Sermoiak, dudarik gabe, informazioa dakarte “produktuaz” (Sakramentuak, Aginduak... = Jesukristoren legea). *Point-a* edo xedea informazioa ematea da, irakastea, lehen begiratu batean behintzat, horra obraren titulu nagusia: *Eracusaldiac*. Sermoilariaren helburua Trentoko Kontzilioak agindutakoa betetzea da: herria dotrinan jaztea, dotrina jakiteko behar intelektuala eta morala preskribatzea, dotrinarekiko ezjakintasuna haustea, huraxe kontzilioaren ondorio. Sermoilariak badu *misio pedagogiko* hori (ikus Ozaeta op.cit.). Sermoietan bada jardun didaktiko bat, erretorikako *docere* edo irakatsi. Bestela esanda, *JAKIN ARAZI* pragmatiko bat. Sermoilariaren pasio doktrinala hementxe ispliatzen da, dogmaren barreiatzean eta zaindaritzan. Hona adibide batzuk:

[III 1] “Fedeco eguia da, eguin zuala Jaunac guizona bera amatzeco, eta beti-cotasun gucian berarequin batean Ceruan doatsu izateco” (B 516)

[III 2] “Ala Jesu-Cristo sartu zan Apostoluetara, oec ceuden echeco ateaac ichiac arquitzen baciran ere” (B 507)

[III 3] “Eguin guinduan bera ezagutzeko, ezagututa amatzeko...” (A 5)

[III 4] “..bidaldu zuan lurrera Aita beticoac bere Seme bacarra eta onec eracutsi cigun Aita gurearen otoiz” (A 6)

[III 5] “Emen iru gauza aditzera eman nai dizquitzur” (A 8)

[III 6] “Orra cer eracusten dizun dotrinac, Sacramentu guzien gañean” (A 20)

[III 7] “gauza bearra da bein, ta berriz, eta ascotan azaltzea, eta aguertzea dotrinac emen eracusten diguna” (A 20)

Goiko adibideetan ikusten den bezala, azalpenak edo *explicandak* egonik (“eracutsi”, “aditzera eman”, “azaltzea” eta abar), esan genezake irakastea eta jakintza barreatzea direla xede nagusi. Nolanahi ere, konklusio partziala litzateke hori. Nekez esan daiteke sermoietako hizlariak rol dibulgatzailea duenik soilik, edota hitz sakratuaren hedapena egiten duela soilik. Bitartekari lanetan ari da, bai, baina kontua ez da soilik herritarra eta kristaua jakitun(ago) egitea, edota aditu(ago). Kontu honek berebiziko garrantzia izango du makro-egintza edo sermoiaren hizketa-egintza nagusia zehaztean. Zerbait aurreratu alde esango dugu, gure ustez, sermoien helburua ez datzala ezagutzen eta jakintzen dibulgazioa egitean, nahiz eta baden ikasketa edo erlijioaren ezagutza dogmatiko nagusien irakaspena (Sakramentuak, Aginduak, eta abar). Helburua, ahatik, bihotza, barrua (“arima”) aldatzea da. Zentzu honetan, sermoiek makro-egintza berezia eta bere-berea dute. Ez dira dotrina edo katekisma saioak.

### 3.3.2. HIZKETA-EGINTZA DEKLARATIBOAK

*Proposizio edukia:* zerbaiten eraikuntza egiten da hitzez. Egokieraren norantza, mundutik hitzetarakoa eta hitzetatik mundurakoa.

*Gertatze erregela:* esaten dena errealitatea bera da, hari lotuta dago erabat.

*Zintzotasun erregela:* esataria doituta dago hizketa-egintza horiek egiteko, legitimatuta. Baldintza psiko-sozialak betetzen dira. Sermoilariak, izan ere, enuntziatu horien berri ematen du, baina “gogora-araziz”, transmisore eta lekuko lanak eginez.

*Oinarrizko erregela:* esaten dena hala asumitu beharra dago. Daitekeena da hartzailearen gustukoa ez izatea. Hori badaki sermoilariak.

- Testuinguru 1: aurretiaz ez dago errealitate erlijiosorik (moralik, gauza fedezkorik...).
- Testuinguru 2: oraingo honetan errealitate erlijioso bat ageri da, eta unuziatu horri esker sortzen da berau.
- Aldaketa kontestuala: errealitate erlijioso berri baten sorkuntza, horra.

Ikus daitekeenez, salbamen egitasmoari hizkuntza adierazpena egokitzen zaio; asertzioen kasuan, kristautzeko informazio baten berri ematen zen soilik. Deklaratiboetan ordezkari eta bitartekari egiten da, baina “ozenago” egi-na dago:

[III 8] “eta besteric esatea da heregia, eta, escomicu nagusiarequin Elizac debecatua daucan, gauza, *Anathema sit.*” (A 14)

[III 9] “*Ni naiz, ni bacarric zure Jaun Jaungoicoa.* Orra zer esan zien Jaunak Israeldarrai lenengo aguintean.” (B 9)

[III 10] “*Otseguizu, ez ixildu: tronpeta baten eran eguizu deadar, eta aditzera eman guiozcatzu nere erriari bere becatuac*” (B 3)

### 3.3.3. HIZKETA-EGINTZA PRESKRIPTIBOAK

Proposizio edukia: zerbait positiboa egin beharra. Direktiboen baitakoa da.

*Gertatze erregela:* daitekeena da hartzaileak/kristauak ez izatea horren berri gaurkoturik. Eta normalena “araua” ez betetzea da. Ohikoa da horrelako gauzak gertatzea, ahaztea.

*Zintotasun erregela:* ez da, seguruenik, hartzailea ahogozatzekoa, baina horixe da hizlariren konpromisoa. Izan ere “huts egiteko” arrisku erreala du hartzaileak.

*Oinarrizko erregela:* onartzen da egintzaren asumitzea hartzailearen bete-beharretarik dela, eta holakoak nekez direla gustukoak. Preskripzio horiek erabat sinesgarriak dira.

Egokieraren norantza: mundutik hitzetara; jarrera eta ekintzetatik, hizkuntzara.



- Testuinguru 1: hartzaileek (kristauek, gizonek, emakumeek, gazteek, herritarrek...) beren eginkizunen eta betebeharren artean, *ez* dituzte betebeharrak batzuk. Edota ez dute horien kontzientziarik.
- Testuinguru 2: betebeharrak horiek dituzte, preskripzio horien pean jarritzen dira. Bestela esanda: hartzailea preskripzio subjektu bilakatzen da, zentzu pasiboan, jaso eta jasan beharra.
- Aldaketa kontestuala: hartzaileei dagozkien eginbeharrak sortzea. Oraingo honetan, zigorra edo saria jaso dezakete:

[III 11] “Gauaz, eta egunaz beldur izango cera, cer ecusi bear ote dezun: goicean esango dezu: *norc* eman leguiquedan arratsaldea? eta arratsaldean esango dezu: *norc* eman leguiquedan goiza iristea? (Vide Deutoren. 28)” (B 7)

[III 12] “Eta eztaquizu amar Aguinte aec berac gorde bear ditugula guc ere? Eztaquizu, au ez eguitera, gure gañera etorrico dirala Jaunaren aserre, ta madaricacio guciac? (B 7-8)

[III 13] “Orra, Cristaua, Jaunac bere lenengo Mandamentuan aguintzen diraguna. Amatu bear degu gure Jaun Jaungoicoa, fedearen arguiarekin beraren Ontasun baztergabeari beguiratzen diogula. Amatu bear degu sarritan, eta amatu bear degu gauza guciac gañetik, esan nai det, añ biotz prestuarequin, non prest egon bear degun edozeñ neque, eta calte irozotzeko, Jaunaren onrac ala escatzen badu” (B 14)

### 3.3.4. HIZKETA-EGINTZA PROMISIBOAK

Hizketa-egintza hauek estatutu berezia dute: beste norbaiten aginduak, promesak gogorarazten baitira. Promesa horiek dagoeneko bete dira: Jainkoak agindutakoa bete da Jesukristoren pertsonan. Beraz, ez da promesa hutsa. Kristauari onartzea dagokio, baina onartze hori ez da soilik baietz esatea, norbera entregatzea baizik.

*Proposizio edukia:* etorkizunean beteko den edukia, baina dagoeneko gertatu ere gertatu dena. Ez dira promesa hutsak.

*Gertatze erregela:* baldintza horiek bete izan dira dagoeneko eta aurrerantzean ere beteko dira. Hizlari ez da ari txantxetan, edota fantasian. Errealitate ere bada.

*Zintzotasun erregela:* horixe da fedearen edukietariko bat. Onartuta dago hori horrela dela.

*Oinarrizko erregela:* Jainkoak ez du hitzik “jaten” eta bere seme Jesukristo da horren lekuko. Sermoilaria bera taldearen/estamenduaren baitakoa da. Promesek gizonaren asebetetzea dakarte:

- Testuinguru 1: hizlariak, berez, ez ditu zenbait betebeharrak; egia esan, aginduak, promesak ez dira berak eginak, bai aldarrikatuak.
- Testuinguru 2: hizlariak bere gain hartu du aldarrikatzea. Eta horretan arriskatzen da. Aldaketa kontestuala: bidaltzaileak betebeharrak batzuk ditu, aldezturik ez dituenak. Edozein kasutan, kristau-fedeak dio bete direla, baldin eta entzuleak hala nahi badu:

[III 14] “gure saria izango da ugaria, au da betico vicitza doatsua. Amen.” (A 11)

[III 15] “Eguin dezagun au venaz, eta gogotic, eta emango digu Jaunac guretzat prestatuic daucan betico vicitza. Amen”. (B 8)

[III 16] “...aldegain dezagun becatuaren bideetatic, onela iristeco betico vicitza doatsua. Amen”. (B 14)

[III 17] “aleguiña egiten degula bear dan damua sortzeco, eta confesatzeco, barcatuco dizquigula gure becatuac, eta emango digula aguindurik daucan betico vicitza: gañera emango digula Cerurako bidean bear degun guzia. Uste edo esperanza au da Cristauaren gurutze, eta neque guzien gozagarria”. (B 11)

### 3.3.5. HIZKETA-EGINTZA ERREGULATZAILEAK

*Proposizio edukiaren erregela:* erregulazioaren helburua bide jakin batera –zerurako bidera– onez iristeko gidatzea da. Bide gidariarena egiten da, beraz. Proposizioa beti ere orainari edo geroari lotzen zaio. Ez da atzera begira egiten. Prospektiboa da, antizipazioak egiten dira. Hizlariaren betebeharrak aktiboa da, eta hartzailearena pasiboa.

Egokitzearen norantza: jarrera eta portaeretatik hitzetarakoa. Ohartarazpenak eta aholkuak ere barnean dira.

*Gertatze erregela:* hizlariak uste eta arrazoi sendoa du entzulearen onerako direla erregulazioak. Eta horiek ezean kristauak kale egiteko arriskua duela. Areago, ziurtasunez jokatzea ekarriko dute.

*Zintzotasun erregela:* daitekeena da zenbaitetan gogor egitea eta arreta gutxi jartzea.

*Oinarrizko erregela:* aurreikusten du, eragozpenak eragozpen eta dudamudak tarteko, entzuleak onartuko duela erregulazio hori. Urratzeak desbideratzea dakar ondorio gisa:

- Testuingurua 1: egin behar duenaren segurantzarik ez du entzuleak; ez daki nola jokatu zenbaitetan, nahastuta baitago edota egon daiteke.
- Testuingurua 2: bidea asmatu du. Horrela, kristaua konfesatu da, utzi ditu lagun txarrak...
- Aldaketa kontestuala: bidea garbitu zaio eta badaki nola jokatu.

[III 18] “Orra, Cristaua, Jaunac bere lenengo Mandamentuan aguintzen diguna” (B 14)

[III 19] “Lenengo aguinte oni guc ongi eranzuteco gauza bearra da bigarren lecuca Jaunagan uste, edo esperanza izatea, Jesusen eriotza bitarteco dala...” (B 11)

[III 20] “Eztaquizu *Aita* gurea? Esazu sarritan, eta egingo dituzu Acto esperanzacoac. Eztaquizu *Acto Contriziozcoa*? Esazu maiz biotzetic, eta onela egingo dituzu *Acto Caridadezco, eta Contriziozcoac*.” (B 13)

[III 21] “Amatu bear degu gure Jaun Jaungoicoa, fedearen arguiarequin be-  
raren Ontasun baztergabeari beguiratzen diogula” (B 14).

### 3.3.6. HIZKETA-EGINTZA KONTROLATZAILEAK

*Proposizio edukiaren erregela:* gizabanakoaren bat-batekotasuna edo inozotasuna mugatzen eta murrizten dute. Kontrola atzera begira egin dago batez ere. Zein kontrol eremu dauka sermoiak eta sermoilariak? Ikus beherago kontrol eremuak horiek.

*Gertatze erregela:* hizlariak arrazoi ugari du pentsatzeko entzuleak ez duela bekatuak garbitzeko joerarik. Kontrol hori egin ezean ez du hartzaileak horren berririk emango.

*Zintzotasun erregela:* kontrola ez da hartzailearen gustukoa. Galderak, kontzientzia azterketak... ez dira entzulearentzat atseginak.

*Oinarrizko erregela:* aldapa gora egiten zaio entzulari, eta ahalmena ukatzen zaio. Ezinbesteko zaio laguntza, beraz.

Egokitzearen norantza: mundutik edo gauzetatik hitzetarakoa:

- Testuinguru 1: bada eta existitzen da jardun-obra-pentsamendu askatasun eta espontaneitate bat; gizakia nahiko aske ibili ahal da.
- Testuinguru 2: ez da existitzen bat-batekotasun hori; murrizturik dago.
- Aldaketa kontestuala: gertatu da mugatze edo errestrikzio bat.

Sermoietan kontrol egintzak ugariak dira. Kontrol hori zertan den gehiago zehaztu daiteke, gertaleku desberdinak baititu gure ustez. Gorago esan bezala, kontrolak eremu desberdinak hartzen ditu, honako hauek atzeman ditzakegu:

- a) *Enuntziazioaren* gaineko kontrola. Igorleak bere enuntziazioaren izaera kontrolatzen eta erabakitzen du. Sermoilariak esan ohi du bere enuntziazioak ze balio duen: baieztapen balioa atxikitu dio, agindu balioa, galdera balioa... Alderdi horretatik, bat datoz, askotan, proposizio edukia eta ilokuzio balioa. Kontu hauek, enuntziazioaren gaineko kontrola, sakonago aztertzen dira, hala ere, hurrengo kapituluan, izenordainen eta zenbait predikaturen arteko elkartzean.
- b) *Enuntziatuaren* gaineko kontrola. Enuntziatzaileak erabakitzen eta kontrolatzen du enuntziatuaren egia balioa. Bi motatakoa da kontrol hori: batetik, epistemikoa, eta, bestetik, kristauaren erantzunari dagokiona. Epistemikoa sermoi barruko eta sermoi osteko zita eta aipu ugarietan ikusten dugu. Kristauen jardun eta erantzunari dagokionez, hona hemen adibide batzuk:

[III 22] “Cer esango degu zure asmoaz? Cer, *ezpada zure asmoa zala antzua, logorra, nai eta ez nai edo iduripen utsa?*” (A 604)

[III 23] “*Batzuec esaten due [...] Baña engañatu dira.*” (C 65)

[III 24] “*Ez det uste, inguru oetara zabaldu dela onelaco usanza itsusia*” (A 604)

- c) *Enuntziatuko erreferentearen* gaineko kontrola. Hauxe da kontrolik sendoena eta indartsuena. Ugariak dira gure sermoietan. Adibidez:

[III 25] “*Eta besterik esatea da heregia, eta, escomicu nagusiarequin Elizac debecatua daucan, gauza, Anathema sit.*” (A 14)

[III 26] “*Fedeco eguia da...*” (B 516)

[III 27] “*Esan behar diozu confesoriari...*” (C 125)

[III 28] “Au da heregia bat...” (A 604)

[III 29] “Adan eta Eva gure lenvico gurasoac, eguin cituan Jaunac Ceruraco. Au da gure siniste onac eracusten diguna, eta abere biurtu ez diranac aitorzten duena” (B 129)

Hainbat dira inozotasunari jarritako kontrol-neurriak, autoritate hitzean dautzan balioak kontzientziaren zirrikitu orotan txertatu nahiez eginak. Esate baterako:

[III 30] “Au da gaur ongui beguiratu bear degun gauza, eta oraingo Eracusal-diaren gaya. Enzun, contuz.” (A 209)

[III 31] “Batzuc diote... beste batzuc... baña Santo Tomas Teologoak dio...” (A 187-188)

[III 32] “Zuc, Cristaua, uste dezu, aurrera becaturic ez eguitemo asmo oso, ta eraguillearequin arkitzen cerala. Ezagutzen det, diozu, Daviden eran nere becatua [...]: baña ona ni damuz beteric, eta prest aurrera becaturic ez eguitemo ecer-gatic, ez eta vicitzagatic, edo eriotzagatic ere. Ongi nere Cristaua; baña zure asmo ori eraguillea ote da? Asmo orrec azcartu ote zaitu aurrera becaturic ez eguitemo neurri egoquiatic artzera? Azcartu ezpazaitu, zure asmoac izan dira anzuac; baña equin badiezu venaz becaturic ez eguitemo neurri egoquiatic, orduan uste izan dite-que, zure asmoa dela *osoa*, ta eraguillea. Au ezagutzeco, atoz nerequin, eta beguiraldi bat eman deguiogun, vicitza ontzeco, edo aurrera becaturic ez eguitemo neurri egoquiatic.” (A 209-10)

### 3.3.7. HIZKETA-EGINTZA ADIERAZKORRAK

Hizketa-egintza adierazgarrien *point*-a hizlariren egoera eta jarrera psikologikoa da.

Searleren ustetan ez dute norantzarik erakusten. Edozein modutan, ugarriak dira sermoietan eta kontuan hartzekoak.

*Proposizio edukiaren erregela*: gizabanakoaren emozioa moldatzen du. Zer-bait positibatu eta beste zer-bait negatibizatu egiten da. Mandamentuak, Sakramentuak betetzea eta jakitea *versus* ez betetzea, ez jakitea.

*Gertatze erregela*: igorleak tasun positiboz betetzen ditu Elizaren prezeptu eta sinistek, eta alderantziz. Hartzailea konzientziara ekarri behar da, ezjakintasunetik jakintzara ekarri.

*Zintzotasun erregela*: objektu batzuk desiragarriak dira; beste batzuk ar-buiagarriak. Erljio katolikoa desiragarria da, aldiz, herejia, ilustrazioa, beka-tua... ez.

*Oinarrizko erregela*: entzuleak onartu egingo du gauzak horrela direla, eta kristau on izateak merezi duela igo beharreko aldapa.

Egokitzearen norantza: ez dago.

- Testuinguru 1: “errealitate” batzuk daude, potentzialki hainbat tasunez hornituak, positiboz eta negatiboz.
- Testuinguru 2: errealitatea zatikatu egiten da eta “modalizatu”: tasun positiboak eta negatiboak banatu enuntziatzailearen uste eta sinismenen arabera.
- Aldaketa kontestuala: gertatu da “errealitateari” buruzko errepresentazio baten zabaltzea:

[III 33] “Baciñaqui, Cristaua ceñ miragarria dan doai au!” (A 23)

[III 34] “Ay! Eta alaere daldu (sic) degu doai au añ erraz, edo ecerezagatic?” (A 27)

[III 35] “... becatuaren perill urcoetan sartzea, esaten duala batec beregan: *joango naiz, baña uste det gordeco nauala Jaunac, edo Ama Birjiñac becatutic. Au da centzugabeco ustea.*” (B 11-12)

[III 36] “Onelako asco izango dira gaurco egunean erri andietan; badira alabaña chorasca asco, gure auzoco gudarietatic fedearen contrako gauzac icasi di-tuenac.” (B 10)

[III 37] “Guizon jaquintsu ascoren iritzia da, euscaldunen artean etzuala ido-latriaric lecuric izan gende arrotzac Españan sartu ciran artean, eta ez dala arqui-tzen gure lecuetan idoloen arrasto, edo aztarnaric.” (B 5)

[III 38] “Nola cerez dezun arguitasunarequin iguerritzen dezun Jauna dala guciz on, eder eta maitagarria” (B 12).

### 3.3.8. ZENBAIT IRUZKIN

Hizketa-egintza errepresentatiboak, asertzio-enuntziatu bidez ematen di-renak, asko dira. Ondorioz, pentsa daiteke sermoiak azalpen edo instrukzio testuak direla, egileak berak dioen bezala, “Eracusaldiac”. Kontzientzian iraka-

tsi eta kontzientziarako: prezeptuak, Sakramentuak, Aginduak, dotrinaren esentziak, aitzakiarik gabe jakin behar direnak. Horretatik asko dago, dudarik gabe. Baina analisi sakonago batek diosku hizketa-egintza mota horiek testuaren fase eta une jakinetan agertzen direla soilik. Hala, hasiera fasean eta garapenean; nekezago, ostera, azkenean. Eta bukaerak iparrarena egiten du. Sermoian azalpenak emango dira, konparazioak egingo, analogiak erabiliko, adibideak ekarriko, anekdotak eta digresioak egingo... Joan-etorrika bata eta bestea (garapen fasean nagusiki). Baina bukaera fasean beti helburu edo toki berera itzuliko da.

Azalpenak ematean, narrazio sekuentzia luzeak txertatzen dira; sermoiotako idazleak erreproduzitu egiten ditu Jesukristoren hitzak zuzeneko berbaldia (estilo zuzena) edo zeharkako berbaldia (zehir estiloa) erabiliz. Garrantzitsua den alderdi bat konstatatzen da horrela: testuotako idazlea Jesukristoren legearen eta herriaren ( + beste apaiz batzuen ) artean kokatzen da “transmisio katea” gisa, zubi lanak edo *mediatizazio* lanak eginez bi munduren artean: Jakintzaren edo komunitate espezializatuen, eta “ikasleen” artean. Sermoilariak egiten du transmisio bat, Jacqueline Authierren (1982: 34) hitzetan esateko: “activité de diffusion, vers *l'extérieur*, de connaissances déjà produites et circulant à *l'intérieur* d'une communauté plus restreinte”. Horrek implikazio diskurtsibo batzuk ditu, besteak beste, edukiaren berformulazioa, dibulgazioaren izenean:

[III 39] “Galdetzen dio batayatzalleac: *Urlia*: ta oraiñ *artu nai dezu batayoa? Vis baptizari?* Esaten balio bezala: aditu dezu, nola peleatu bear dan Demonioaren, munduaren, eta gura charren contra: ezpadezu biotzic iru etsai oec garaitzeco, biur zaitezque echera; etzera alabaña gauza Jesu-Cristoren gudari, edo soldadu izateco. Baña baldin prest, eta alai bazaude, au gucia eguiteco, ona ni ere prest, zuri batayoa emateco.” (A 87)

Baina, horiek horrela, gure sermoietako esataria ez da “dibulgatzailea”, ez da ari dibulgazio lanetan, edo horretan bakarrik behintzat. Kontua kristaua kristauagoa egitea da, hau da, motibaraztea, grinatzea, kosta ala kosta bide onera (zerurako bidera) ekartzea. Eta xede eta postulatu horien azpian kokatu behar dira kristauaren ekintza guztiak: bekatuak aitortzea, sermoiak entzutea, sakramentuak hartzea, aginduak betetzea, eta abar. Horiek guztiak jakitea eta, are, *egitea*, gidaritza espiritualaren parte lirateke: bidean jartzeko *motibazio* lirateke gure esatariarentzat.

Hizketa-egintza deklaratiboei dagokionez, sermoilariak gogoratu egiten ditu soilik, izan ere, beren autoretza Elizaren eskuetan dago. Noiz datoz eta

zertara deklarati boak? Errealitatea finkatzera, esandakoa blindatzera, eta, Jainkoak aparta, “heterodoxiaren” hatzaparretara inguratzean, handik agudo uxatzera (*Anathema sit*). Hizketa-egintza deklarati boen funtzio diskurtsi boia, maiz positi boia, zera da: hizketa-egintzakitsu-itsuan eta besterik gabe onartzea. Hizketa-egintzok benetako bidearekin oso lotuta daude.

Preskripzio-enuntziatuak, erregulatuzaileak eta kontrolatuzaileak ere ugari baino ugariago dira, atergabe agertzen dira. Pentsa daiteke, kopuruz ez ezik, estatutu z ere ez ote diren nagusi eta hegemonikoak. Kristauak sinistu behar duena, nola jokatu, zer otoitz egin, zer itxaron behar duen... Gauzak horrela galdera sortzen zaigu: ez ote dira sermoiak logika preskripzional bateko osagaiak? Izan ere, ugariak dira inperati boak, subjuntiboak, baldintzak, galdera kontrolatuzaileak... Bai *Plat* eta bai *Bed* testuetan kontzientzia azterketa sakinak eta estuak zuzentzen zaizkio kristauari... Eta ziplo dator zigorra ere. Dimensio hau agerikoa da eta bere-berea du sermoiak, instrukzio moral koerziti boia, Aginduetan eta Sakramentuetan oinarriturik. Esan genuen 1. kapitulu an sermoia modelo literario bat dela tradizio batetik datorrena. Gainera, modelo prezepti bo bat ere bada. Berau ote hizketa-egintza hegemonikoena eta nagusia? Kantitatez, agian, bai. Baina jarrai dezagun aurrera oraingoz.

Hizketa-egintza adierazkorrak ere ugari dira. Eta, gure ustean, zeresan handia dute motibazioaren mamitzean. Bereziki, motibazio “negati boaren” sorkuntzan, hau da, aldentze-mugimenduak gauzatzean: beldurra, ikara, itsukeria... eragiteko moti boak gauzatzean.

### 3.3.9. MAKRO-EGINTZAREN PREMIA N ETA XERKAN

Arestiko arrazonamenduaren ildotik, hots, hizketa-egintza mailako sailka-pena eta azterketa eginik, pragmatika ilokuti boaren muga metodologi ko batekin egiten dugu topo: aski ote da hizketa-egintzak bere horretan identifikatzea eta deskribatzea sermoiaren ilokuzio-indarraren berri emateko? Are gehiago, aski da nagusitasun kuantitati boia kontuan hartzea eta horren arabera egitea sermoiaren karakterizazioa?

Hasiera batean, bide horri ekin genion eta enuntziatu z enuntziatu bidezko azterketa ere egin genuen (deitura bakoitzeko lehen hiru testuak aztertuz *Era-cus/Plat/Bed*). Hizketa-egintza desberdinen kopurua zenbatu eta horren arabera erabakiak hartu genituen. Baina bide honek ez gintuen asetu, zeren nagusi izatea edo hegemoni ko izatea ez zegoen *kantitatean*. Desberdintasun bat egitea funtsezkoa da hemen: gauza bat da deskribatzea sermoiaren barruan



funtzionatzen duten hizketa-egintza desberdinak, eta beste gauza bat sermoia den egintza linguistiko berezia ezaugarritzea.

Beharrik, beste autore batzuk ere ohartu dira ilokuzio pragmatikaren enuntziatuz enuntziatuko muga honetaz, eta gainditzeko irtenbideak seinalatu dituzte. Guztiarekin ere, sermoien irakurketatik eratorrita (“zentzu efektu” gisa), testua testu bat baino “zerbait gehiago” dela esan dugunez, eta zeharkako hizketa-egintzen problematikaz hitz egin dugunez, honako galdera hauek derigorrez planteatu behar dira: sermoiaren igorleak jaulkitzen dituen irakaspen horiek ote dira hizketa-egintza hegemonikoak? Ote dira nagusi, bestalde, erregulazioak eta kontu-hartzeak? Formaz baieztapenak eta informazio emateak direnak, edota direktiboak, lokutiboki eta ilokutiboki ezkondukeri ageri diren hizketa-egintzak, hierarkikoki gorago, beste maila bat dute. Bestela esanda, igorlearen ustez, Sakramentuak jakitea eta betetzea *bide* bat besterik ez da: Jesukristok gizona salbatzeko utzitako injinerutza bat, salbamen ekipamendu bat. Baina sermoien azken helburua ez da *jakitea*, baizik eta *egitea* eta, areago, *izatea*. Dotrinaren arau-prezeptu multzo horiek ezagutzea ez da aski gizakia salbatzeko: beharrezkoa da, gisa berean, sakramentuekiko sua, *miresmena* Jainkoaren obrarekiko. Horra hor hizketa-egintza adierazkor hori toki estrategikoan, obra osoaren lehenbiziko hitzetan:

[III 40] “Cein on, eta maitagarria gure Jaun eta Aita cerucoa, gu betico doastea eguiteco artu dituan, neurri ederretan!” (A 5)

“Neurri ederrak” sakramentuak dira, esan bezala, zerurako bidea laguntzeko eta leuntzeko modua. Interesgarria da informazioaren aurkezpena: Jesukristoren irudia “on eta maitagarri” ageri da, balorazio positibo batek altxatua, formulazio adierazkorrez, eta abar. Sermoietan orpoz orpo ari dira azalpenak eta balorazioak. Agertzen den informazio hori modalizatuta dago, igorlearen arrimura ekarria. Azalpenarekin elkarbizitzan, mediatizazio lanean, erruz aurkitzen dira iruzkin eta balorazioak.

Makro-egintzaren bidean ari garela, garrantzitsua zaigu Haverkatek (1979) definituriko hizketa-egintza berria hona ekartzea, ez Austinekin, eta ez Searlek kontentatu ez zutena: *egintza alokuzionarioa*, hain zuten. Egintza horren oinarritzko funtzioa litzateke hizlariak elkar-ekintzan zein estrategia erabiltzen duen zehaztea, hau da, zein da *globalki* darabilen estrategia, elkarrekintza hori ziprizzintzen edo barnebiltzen duena. Haverkatek aplikatzen du analisi modu hau hainbat agindu, eskaera, erregu eta abar aztertzeko, eta ondorioztatzen du egintza horiek ez direla benetako ilokuzio ekintzak, baizik eta ilokuzio ekintza bakarraren aldakiak, egintza inposatzailearena.

Oraintsuago, beste autore batzuek ere arazo bera planteatu dute, hau da, egintzak multzokatzearena eta hierarkizatzearena. Blum-Kulka, House & Kasper lirateke lehenak (1989: 17, in Manno 1998: 43). Urrats edo jauzi hori eman ezik, dio Moeschler-ek (1985) hizketa-egintzen planteamendu hori gutxiegi litzateke eta alferrikoa. Kontua zera da: testualtasuna ez hartzea hizketa-egintza segida bezala, batuketa linealaren fruitu dena. Baizik eta testua kontenplatzea sekuentzia lotuak dituen ale gisa, balio ilokutibo *globala* ezartzea ahalbidetzen duena; alegia, testuaren *makro-egintza*. Puntu honetan agertzen da *diskurtso-generoen* arazoa. Hartzaileak ulertzen badu zein generoren parte den enunziatu-multzoa (igandeko sermoia, iragarkia, panfleto politikoa, eta abar), interpretazio egokia edo pertinentea egingo du, eta interpretazio hori ez da eratorriko hizketa-egintza oinarritzkoen batuketa egiteagatik.

Kontua da bide hori, hizketa-egintza aleetatik makro-hizketa-egintzarako jauzia, garantiekin egitea. Norabide horretan argi apur bat ematen diguten ekarpen batzuk dakartzagu jarraian.

Nef autoreak (1980, in Manno 1998: 46) kontsideratzen du idatzizko testu bat beti dela “macro-act de discours” bat. Horrela, testu bateko makro-egintza batek, kasu ideal batean, bideratuko luke soilik balore ilokuzionario bat; balio hori litzateke gutxi gora-behera testuaren laburpena, hau da, batek testuaren gainean izan dezakeen pertzepzio globala. Adibidez: lana bilatzeko bidaltzen den eskutitza (+ curriculum) errefuxatzeko idazten diren gutunak, zer komunikazio helburu luke? Nef autorearen arabera, hautagaiaren eskutitza eta curriculumarekin errefuxatzeko gutun batek helburu komunikatibo bakarra luke, hots, ezezko bat adieraztea. Nolanahi ere, gutun horrek (erantzunak) bilduko lituzke hainbat ekintza diskurtsibo, edo bestela esanda, ilokuzio-ekintza anitzak genituzke: eskerrak ematea, hautagaiaren curriculumaren balorazioa, haren gaitasunen aitortzea, hautagaia (ber)orientatzea, beste baterako esperantzak... Halaz guztiz ere, arestiko hizketa-egintza horiek lirateke egintza nagusi edo printzipalaren lagungarriak (alegia, izango lirateke ekintza subordinatuak edo subsidiarioak). Hizketa-egintza nagusia, alokuzionarioa edo makro-egintza ebazteko orduan, garrantzitsua zera da, testu-planaren barruan dauden hizketa-egintza desberdinen *garrantzia erlatiboa* zehaztea, hots, hizketa-egintzok makro-egintzaren barruan duten *hierarkia ilokuzionarioa* definitzea.


Horixe diote beste autore batzuek ere. Brandt & Rosengren autoreen arabera (1992, idem) egintza subsidiarioen egitekoa egintza dominatzailearen berri ematea litzateke. Horrela, egintza subsidiarioek funtzioztat lukete egintza nagusia azpimarratzea edo ulergarriagoa egitea; edota egintza nagusia segurtatzea, azaltzea, norabidea markatzea, orientatzea...

Rolf autorea urrutiago joan da eta proposatu (1993, idem) idatzizko testuen tipologia bat *hierarkia ilokuzionarioaren* printzipioan oinarriturik. Tipologia horretan testuaren balore globala zehazten da diskurtsoaren egintza dominantearen arabera (esaterako, eguraldi aurrikuspenak asertzio-testu lirateke, eta faktura abisatzen duten testuak direktiboak, eta abar).

Habermas autoreak (1987) proposatzen du hizketa-egintzen teoria berrinterpretatzea. Beronen arabera, diskurtsoa ez dago soilik printzipio logikoen arabera antolaturik, baizik eta, baita ere, egitura logiko-komunikatiboen arabera. Izan ere, erlazio mota bat eta errekonozimendu erreziproko bat ezartzen da partaideen arabera.

Horiek guztiak esanik ere, bide zati bat falta zaigu oraindik: egintza-aleetatik edo egintza subsidiarioetatik, makro-egintzara edo egintza nagusi edo dominatzaileara pasatzeko bidea. Ba dago bide hau zehazterik? Operatibiza daitezke urratsak?

Mannok (1998: 45) horrela aurkezten du hizketa-egintza nagusia (*macro-act/ macro-act, head-act...*) eta egintza subsidiarioen arteko erlazioa, non EN “egintza nagusi” litzatekeen, eta ES “egintza subsidiarioa”:




(Manno1998: 45)

Gure kasuan, sermoiek erakusten dute hizketa-egintza sorta bat, zeintzuek balio edota indar ilokutibo desberdinak dituzten. Egintza bakoitzak, aldi berean, egintza “lokalagoak” ditu.

Sermoian bada pertsuasio deklarazio ixil-gorde bat, inferentziaz edo ostentioz (Sperber & Wilson 1994 [1986]) atera behar dena. Indarra jartzen da

“informazioen” transmisioa modu eraginkorrean egiteko. Puntu honetan arreta jarri behar dugu alderdi batean: zuzeneko hizketa-egintza bezala definitu ditugun hizketa-egintzak, egoera subordinatuan daude, hizketa-egintza dominatzailea (kasu idealetan bakarria izan beharko lukeena, cf. arestian aipaturiko Nef autore) barreiatua edo “desfokalizatua” dago, hots, sermoiak balio ilokutibo direktiboa du, bai, baina ko(n)testuak inplikatzeko duena ere hartu beharko da aintzat. Bestalde, ilokuzio-ekintza nagusia, sermoilariaren arabera, konstatatiboa da esplizituki eta inplizituki direktiboa. Beraz, testu-molde honen balio ilokutiboa identifikatzeko, kontsideratu behar dugu sermoiaren makro-egintzaren indarra bete-betean direktiboa dela. Orobat, faktore ko(n) testualek bihurtzen dute ilokuzio mota hori hegemoniko.

Lagungarri gerta dakiguke, orobat, “aldaketa kontestualaren” nozioa, izan ere, sermoiaren egitasmo narratiboaren ispilu baita. Aldaketa kontestuala narrazioaren barruan gertatzen da. Esatariak programa narratibo bat dauka, sermoiaren barneko programa narratiboa, berea propio dena, hain zuzen ere. Eta programa horretan eramaten da kristaua sermoi testuaren barnean eta bilbean, bukaeraraino, “Zerura...”. Sermoiak efektu hori (perlokuzio efektua) mamitzen du sermoiaren barruan bertan, Zerua edo klimaxa sermoiaren testu-planak determinaturik dago, diskurtso erretorikoaren atalak bideraturik, *exordioa*, *proposizioa*, *divitioa*... harik eta *peroratoraino* (bukaera patetiko eta emozionaleraino). Azkenean, dinamika eta praktika aszendente baten bidez, iristen da kristaua sermoiaren barruan dagoen Zerura edo klimax testualera. Beste hitz batzuekin esanda, sermoietan eman dira betiko bizitza erdiesteko “pausoak”, horra hor, prezeptuak jakin, prezeptuen arabera jardun, eta abar, modu horretara iristeko Zerua, “goratasuna”, “lur prometitua”, “loria”. Betetzen da, beraz, sermoi testuaren baitan semiotika narratiboaren logika: badago subjektuaren transformazioa aktante baten eraginez (eta testua memorian iltzatzen da aktanteen errepikapenari esker ere bai). Horrela gauzak, transformazioaren “pauso” horien bidez jakin ahal dugu nondik-norako bidea egiten den sermoietan, eta erabaki zein den, azken buruan, hizketa-egintza nagusia. Edo, hobeto esanda, definitu sermoia den hizketa-egintza berezia. Hurrengo eske-man deskribatzen da:



Eskema honen arabera zein da sermoia den hizketa-egintza nagusia? Egiten dugun lehen konstatazioa zera da: ez dugu aurkitzen subjektuaren edo kristauaren konpetentziari buruzko enuntziaturik edo hizketa-egintzarik. Hots, agertzen diren hizketa-egintza guztiak EGIN modalitatekoak direla, eta ez JAKIN eta AHAL esparrukoak. Gaitasunari buruzko hizketa-egintzak deskriptiboak dira, eta soilik esleitzen zaizkie Jaungoikoari eta Elizari. Kristauaren “ezjakintasun” horrengatik dauka sermoilariak kezka teologiko hori etengabe kristauak Sakramentuak eta Aginduak ikas ditzan. Bereziki lehen Sakramentua, beste guztien iturburu eta kausa. Kristauaren ahalera ere ez-baian jartzen da (paradoxa agerian jarriz: horrenbeste sermoi, dotrina eta “medizina” ematen zaio, eta hala ere, ezinka ari da beti, erdietsi ezinka perfekzio bidea). Kristauaren “hutsune” horrengatik da sermoia testu didaktikoa. Baina sermoiak errebelatutako egia ere badu, eta behin eta berriz eskatzen zaio kris-

tauari ez apurtzeko Jainkoarekiko hurbiltasuna, bere *jokabideak* ez dezala graziatik urrundu, eta, bereziki, teologia dogmatikoa sostengatzen duten Sakramentu eta Aginduen urraketatik ez dadin. Bestela esanda, bekatuan eror ez dadin. Horrela gauzak, sermoietan bildutako hizketa-egintzen helburua ia beti zerbait *egitea* da: jakin-arazi, mugi-arazi, ohart-arazi, motiba-arazi, bidera etor-arazi...

Horiek horrela, baina, zein da sermoien xede-asmo nagusia? Zein da sermoien *point*-a, edo proposizio edukia? Taulari jarraituz, goitik beherako bidea egingo dugu, helburu nagusitik tokikoetara, makro-egintzetatik mikro-egintzetara.

Gure aburuz, sermoia “bide zuzenera” ekartzeko ahalegina da, horretara bideraturik daude bitarteko egintza guztiak. Esango dugu sermoia helburua MOTIBATZEA dela bere adiera zabal eta abstraktuan. Grinatzea, akuilatzea, indutzea... edo gisa horretako aditz edo predikatu bat. Erretorikoki esanda, *movere* edo mugiarazi. Perspektiba honetatik begiratuta, sermoian barreiatzen diren ezagutza morala (Sakramentuak, Aginteak) eta ekin-tzen erregulazioa (ohartarazpenak eta kontuan hartzeak) motibarazpen horren *bide* baino ez lirakeke izango. Hots, hizketa-egintza laguntzaileak, sermoiak eta sermoilariak “gidaritzatza espirituala” modukoa lortu alde jarriak.

Motibatzea, baina, modu positiboan edota negatiboan egin daiteke. Maiz ikusten da motiboek aldeko mugimenduak bultzatzen dituztela: sermoien euforia, balorazio positiboak, gertaera mistikoak, otoitzak. Aitzitik, beste batzuetan, aldentze-mugimenduak ditugu motibazioan: uxatzea, beldurra sortzea, galera sentimenduak zabaltzea, estigmak... Sermoiak sufrimendua eta erruduntasuna emozio negatiboak maiz ikusten dira, Bravo Arriaga autoreak (2001: 99) “pedagogía del sufrimiento” izendatzen duena, eta erlijio katolikoak fededunei asumitzen irakatsi diena. Bravo Arriagak (idem) hitz gutxitan laburbiltzen du emozio positibo eta negatiboen auzia: “*En general, la enseñanza práctica del catolicismo se cifra más sobre el Cristo de la Pasión que sobre el Cristo de la Resurrección*”. Auzi honetan sermoiak motibarazteko dauzkan moduak daude jokoan: exemplak, adibideak, ilustrazioak, analogiak, bukaera txarreko ibilbideak...

[III 41] “Otseguizu, ez ixildu: tronpetan baten eran eguizu deadar, eta aditzera eman guiozcatzu nere herriari bere becatuak” (A 3)

Kristauaren ez-jakintasun eta ez-gaitasun horiek abiatzen eta gidatzen dituzte sermoien beste printzipio garrantzitsu bi. Batetik, sermoien esataria

persona saiatua da, ekin eta ekin egiten dio “artaldera” ekartzeko “ardi galdua”, baina arrakasta gutxi dauka. Bere ahotsak balio gutxi du (*Vox clamantis in deserto*), ez bailitz aski kristauak “bide zuzena” hartzeko. Beste printzipioa, aurrekotik eratorria, ekinaren ekina da, argudiatzea, pertsuaditzea, esana beresatea (*Argue, obsecra, increpa in omni patientia et doctrina*):

[III 42] “Oetatic batec dio: *Poztucu nintzateque ni, baldin Misio batean Jau-nagana biurtzen direnetatic eunetatic ogue ta amarrac iraugo balue, becurata biurtu gabe: baña esan deguiquezuet, ozta dirala ogui.*” (C 286)

Taula berriz hartzen badugu, kristaua kokatzen da beheko marran –posizio horretan, esan denez, ez zaio GAITASUN modalitatearik aitortzen–. Rengstorf (1976) autorearen arabera GAITASUNAREN modalitateak bi bertsiotitu: barneko modalitatea eta kanpoko modalitatea. Horrela, GAITASUNAREN barneko modalitatea JAKINTZA da; berriz, GAITASUNAREN kanpoaldeko modalitatea BOTEREA. Kristauari, ohar, ez zaiola horrelako modalitatearik onartzen; bestela esanda, kristaua kokatzen da -GAITASUN, -BOTEREA tokian. Soilik ekintza maila dagokio, *arazi* mailako esleipena. Aldiz, sermoilaria kategorizatzen da JAKINTZA eta BOTERE subjektu bezala. Ez dira negoziatzen autoritatea, legitimitatea, edota bakoitzaren toki (*place*) diskurtsiboa, eta abar.

Beraz, kristaua motibarazi egin behar delarik, MOTIBARAZTE horrek, bere zentzu zabalean hartuta, bi alderdi edo dimentsio ditu: batetik, barnealdea edo NAHI IZAN, eta, bestetik, kanpoaldea edo BETEBEHARRA.

Era berean, NAHI IZAN horren azpian hizketa-egintza batzuk daude; batetik, barnealde bat erakusten dutenak, DESIOA/GOGOIA piztea kristaurengan; eta, bestetik, kanpoaldea erakusten dutenak: ASMOA edo INTENTZIOA. Desioa piztearen azpian leudeke hizketa-egintza adierazkorrak “Baziñaqui Cristaua”, baita asertibo batzuk (jakinarazpenak eta deskripzioak), konparazioak, iruzkinak. Desioa gidatzen duen printzipioetarik bat jakitea da. Beraz, azalpenak eta jakinarazpenak ere hemen leudeke. Atal hau ondo hornituta dago. Asmoaren modalitateari dagokionez, azpian leudeke kristauak beti ere hartzen dituen erabakiak: “Jaiquico naiz eta joango naiz Jaungoicoarengana” eta iruzkina jarraian.

Ildo beretik, BETEBEHARRAK ere bi alde ditu, kanpoaldea: BEHARRIZANA edo PREMIA; eta barnealdea: OBLIGAZIOA. Lehenengoari gagozkiolarik, BEHARRIZANARI, hementxe agertuko lirateke kristauak ez-jakitearen ondorioak “Ez gara gay edo gauza Jesus bat esateko...” (A 6) iruzkinak,

penuriak, gutxiespenak... Ez-jakitea eta ez-jakitearen ondorioak markatzen dituzten hizketa-egintzak leudeke bertan. Atal hau ere oso hornituta dago. Baina oraindik ez gara preskripzioara iritsi. Izan ere OBLIGAZIOaren modalitatean leudeke preskripziozko hizketa-egintza guztiak. OBLIGAZIOaren modalitate hau, gogora ekar bedi hizketa-egintzak potentziatzeaz eta ahultzeaz esan duguna (cf. supra 3.1.2.2.) litzateke BETEBEHARRAREN bertsio gogorragoa, *point*-a potentziaturik lukeena, eta alderantziz. OBLIGAZIOaren modalitate hau ere horniturik asko dago.

Gauzak horrela, gure ustez, sermoietako hizketa-egintzak lau dinamika edo logika horietan kokatzen dira: desioaren logika; intentzioaren logika; beharri-zanaren logika; eta obligazioaren logika. Eta hizketa-egintza aleetatik edo lokaletatik, gorago egin eta makro-egintzara iristen dira. Logika horietan sar daitezke hizketa-egintza laguntzaileak edo subsidiarioak. Taulari goitik beherako norabideak ematen dio zentzua, baina interpretazioa behetik gora ere egin dezakegu. Seinalatu ditugun hizketa-egintzetako batzuk zuzenekoak dira, baina, erakusten saiatu garenez, beste logika batek menderatzen ditu egintza-zuzen horiek, alegia, egintza erretoreak gobernatu ere, eta hori zeharkako hizketa-egintzez ematen da. Egintza subsidiarioak edo periferikoak, zuzenekoak gure kasuan, ixilpean gordetzen den erretore edo nuklear horren azpian leudeke.

Gure ustez, testuaren elaborazioa martxan jartzen duen motiboa kezka da “Jauna bear bezala ezagutu eta amatzeco” kristauak behar duen formazioa eta ardura. Azpimarratzen da kristauak ez dakiela (“baña eguingo ditu gizonac oec, oen berriric ezpadu?, eta abar). Kezka dago, halaber, gizonak dotrinari kasu gutxi egiteagatik (“Dotrinac eracusten dizu, baina asco dira cristauen artean dotrinac dacarrena aditzen ez duenac”). Kristaua lozorroan dago, eta sermoilariaren lana horiek esnatzea da. “Orregatic gauza bearra da bein ta berriz eta ascotan azaltzea eta aguertzea dotrinac emen eracusten diguna”. Beraz, “artzaiak” atoz nerekin esaten dio kristauari, “Ceruco bidera”.

Gauzak horrela, bekatuak aurrez aurre jartzea, edota dogmak, zigorrak eta mehatxuak egitea, ez da sermoilariaren zeregin eta asmo nagusia, instrumentu edo bitarteko tresna baizik. Azken batean erregulazio horiek ez dira egintza nagusi, subordinatu baizik. Onartzen dugu hizketa-egintza indibidualak daukela, baina hizketa-egintza horiek intentzio eta ekintza estrategia batek lotuak ditu: komunikazio-ekintza baten parte eta bideratzaile dira.

Garrantzitsuena, ezer baino lehenago egiteko, lo dagoena esnatzea da. Eta horretarako sensibilizazio eta “kontzientizazio” egitasmo batzuk daude, kristauak ez baitaki... baina baleki!



[III 43] “Baciñaqui, Cristaua ceñ miragarria dan doai au! Nai dezu au nole-rebait ezagutu? (A 23)

[III 44] “Baciñaqui, ceñ miragarria dan zure animan Espiritu Santuac isuri zuan gradiaren doaya!” (A 31)

Nolabait, *animatu* nahi da gizona Jesukristok utziriko doaiak hartzera, eta horretarako ez da falta elementu apologetikorik ere:

[III 45] “Atozea orain, nire Cristaua: ez da alde onetatic *guciz miragarria gradiaren doaya?*” (A 41)

[III 46] “Bedeincatua izan bedi beticotasun *gucian, onembeste ontasun, eta amorio aguertu digun Jauna*” (A 51)

[III 47] “Nere Cristaua, Sacramentu miragarri orren *ondasun añ andiac galdu naico dituzu emengo aurqueri, eta emengo ecer ezagatic? Non da zure fede, edo sinistea?*” (A 386)

Kontestu horretan ulertu behar dira, beraz, ohararazpenak eta erregulazioak. Gizona bekatuan dagoelarik, ezin izan daiteke Jesukristoren “lagun”. Horregatik egiten ditu salaketak edo eskatzen du damutzea, lotsatzea, egingdakoaz oroitzea, barkamena eskatzea, eta abar:

[III 48] “Baña *guchi dira Espiritu Santuaren iturri eder au gordetzen duenac, eta gueyenac vici dira becatuaren ur ustelac edaten dituala*” (A 41)

[III 49] “Ay” Eta *alaere galdu degu doai au añ erraz edo ecerezagatic! Galdu Jesus onac aimbeste nequerequin guretzat irabaci zuan apaindura ederra? Eta ezagaturic au *gucia, ez guera damuz deseguingo? Lotsa gaitecen gure centzugabeque-riaz...*” (A 27)*

Talaia honetatik begira, konfesioa eta komunioa, gai errekurrenteak eta kuantitatiboki garrantzitsuak, bekatuak garbitzeko eta Jesukristoren ondoan egoteko bitartekari dira, hots, liberazio eta erredentzio modu bat.

Eta subjektua transformatu da? Batzuk, dirudienez, bai. Jarraian datozen adibideak subjektuen “transformazio” horren lekuko dira:

[III 50] “Atseguin andiarequin *ecusi det*, aurrac, iracurtzen ez daquienac ere, *icasi duela* lenengo Partean ipiñi dedan *gucia*” (Eracusaldien atalari sarrera B 233)

[III 51] “Uste det eracusaldi oequin *arguiro ecusi duela* zuetatic batzuec, nola Confesio gaiztoac eguin dituen, edo vicitza ontzeco asmo osoa sortu gabez, uste

det gañera, gazteac ezecic cembait zarrec ere ezagutu duela, era ascotara confesio gaiztoac eguin dituela, eta confesio on bat eguiteco prestatu bearrean daudela” (Bederatziurrenei sarrera, B 397)

### 3.4. KONKLUSIOAK

Uste genuen bezala, sermoian askotariko hizketa-egintzak ageri dira, eta batzuk beste batzuk baino garrantzitsuago dira kuantitatiboki. Gehiago izateak ez du esan nahi, hala ere, hegemonikoagoak direnik. Zentzu honetan, ikusi uste dugu ezinbestekoa dela hizketa-egintzak makro-egintzarekiko joan-etorrian definitzea, nuklearra eta periferikoa bereiztu ahal izateko.

Beste konstatazio hau ere egin dugu. Sermoiaren helburuaren berri egoki eman gura bada, enuntziatuen gainean zehazten diren hizketa-egintzak murriz gertatzen dira, eta perspektiba zabalago batean sartu behar dira. Metodologikoki, gure ustez, bidea lautzen du hizketa-egintza nagusiaren eta hizketa-egintza menpekoen arteko banaketa egitea.

Eta, hala, sermoien makro hizketa-egintza ez da eratoritzen hizketa-egintza zuzenekoan azterketa kuantitatibotik, baizik eta zeharkako hizketa-egintza bezala erdietsi beharra dago, hots, zuzenekoan laguntzaz eta orientazioaz.

Azterketaren bidez azaleratu denez, sermoien jomuga nagusia ez dituzte asmo didaktikoak eta programatikoak gidatzen (*Eracusalldiac*). Era berean, moral eta dotrina planteamenduak ere ez dira nahikoak, nahiz eta hegemoniko izan kuantitatiboki. Sermoiaren eraikuntza, gauzak horrela, informazio eta erregulatze arazo bainoago, emozio eta sentimendu terminotan planteatu beharra dago. Estilo aldetik, sermoien erretorikan eragina izango du faktore horrek. Eduki aldetik ere, arazo teologikoak baino gehiago, nozio-entitate jaso eta finak baino gehiago, katolikoki bizitzeko pausuak emango dira.

Erakutsi dugu sermoiak badutela makro-egintza bat, argigarri gertatzen dena haien azken helburua definitzeko. Santo Tomasek esana, “Agere sequitur esse” (“denak, egiten du”, akzioak izateari jarraitzen dio). Sortu nahi da “homo religiosoa” eta sermoia izango da kristautze bektore.

Horiek horrela, sermoia testu etnolinguistiko gisa aurkezten zaigu. Sermoiak, izan ere, garai historikoan txertatuta existitu behar du, eta garai historikoaren berri ematen du. Hala, gure corpuseko sermoiei “izan-arazi” mailako hizketa-egintza esleitu badiegu ere egintza errektore bezala, ezin da sermoiek

duten prezeptu tonoinherentea markatu gabe utzi. Ezin esan liteke esan, zentzu horretan, XVIII. mendeko arrazionalismoari aurre egiteko planteatu zen kristautze-planari, alegia Trentotik zetorren doktrinamendu asmoari, termino “espiritualetan” erantzun zitzaionik. Izan ere, XVIII. eta XIX. mendeko espiritualtasunari hurbiltzeko baliatuko balira sermoiak, topo egingo genuke Erljio Katolikoak ezartzen zituen dominazio eta erregulazioekin. Beraz, arrazionalismoari, “argien” eta “arrazoien” mendeari ez zitzaion kontrajarri bide “espiritualik”. Ez zen “iraultza espiritualarekin” erantzun.



#### 4. KAPITULUA

### **SERMOIA INTERAKZIONISMO SOZIO- -DISKURTSIBOAREN ARGITAN: PERTSONA IZEN-ORDAINAK ETA BERBALDI EKARRIA**



## 4.0. SARRERA

Aurreko kapituluan “hitzekin gauzak egiten direla”, hizkuntza oroz gainetik gauzak egiteko erabiltzen dela ikusi dugu (Austin 1962); horrela, hizketa-egintzen teoriaren ildotik (Searle 1969, 1975) *corpuseko* hizketa-egintzak identifikatzen eta sailkatzen ahalegindu gara. Besteren artean ikusi da garrantzitsuena ez dela jarririk gelditzen den proposizio edukia, baizik eta horren bidez *egin* eta *esan nahi* dena. Horrela bada, saiakera egin dugu sermoietan *esan nahi* den hori eta *egin* nahi den hori argitara ekartzen, zer izan zen sermoien barneko xede-asmoa zehazten. Orobat ahalegindu gara zein den sermoien hizketa-egintza errektorea edo nagusia agerian jartzen.

Orain urrats bat gehiago eman nahi dugu, hau da, beste hegaldi bat egin *corpuseko* testuen gainean. Jada hainbatetan esan den legez, sermoiak *elkarre-ragin sozio-diskurtsibo* diren aldetik analizatu nahi dira. Horrela bada, modulu honetan sermoien beste ezaugarritze bat egingo dugu, eta horretarako marko teoriko baten beharrea gaude, bai eta azter unitate egokien beharrea ere.

Oinarri teorikoari gagozkiola, elkarregin sozio-diskurtsiboari heltzeko aintzat hartu behar dira berbaldi analisiaren oinarri metodologikoak. Bronckart-ek dioen bezala (2004: 72-74), Voloshinov (1977 [1929]) eta Bajtin (1978, 1984) autoreen lanetan kokatzen dira berbaldi analisiaren iturriak, nahiz eta gaur egun ugariak eta desberdinak diren berbaldia aztertzeko erabili daitezkeen hurbilketak. Berbaldi analisiaren baitan dauden hurbilketa eta korrante guztiak, ordea, ez dira arestiko autoreen ikuspegiak ezkongarriak. Esate baterako, badira uste dutenak hizketa-egintzen teoria ere (aurreko kapituluan ikusi duguna) berbaldi analisiaren baitan kokatzen dela. Aldiz, beste batzuek pentsatzen dute berbaldi analisia esatean, analisi *enuntziatibo-diskurtsiboa* egiten dela, eta bi analisi mota horiek oso gauza desberdinak direla. Analisi mo-

taren kariaz dudak eta galderak daude; hala ere, esan behar da berbaldi analisiaren barruan badela ikuspeirik korrante errusiarrarekin lot daiteekenik. Eta ikuspegi horietara lerratuko gara gu.

Baina sakondu dezagun aipatu berri dugun banaketa horretan. Ilokuzio-pragmatika, hizketa-egintzen azterketa, ez al da hurbilbide diskurtsiboa eta enuntziatiboa? Edota, kontrara, galdetu dezakegu: balio sozio-diskurtsiboei erreferentzia egiten diegunean, ez al dira balio horiek ilokuzio mailakoak? “Ilokuzioa” eta “enuntziatibo-diskurtsiboa” ez ote dira jokamolde beraren aldakiak? Bereizketa ez ote da soilik izendapen kontu bat?

Galdera horiek zenbait ikertzailek ere egin ditu dagoeneko eta guk ere egin dizkiogu geure buruari: hizketa-egintzen teoriak ba al du *elkarreragin fenomenoei* eta *enuntziazio alderdiei* erantzuteko ahalmen teoriko eta metodologiko nahikorik? Ba al du lanabes teoriko eta praktikoko egokirik alderdi horien azterketa planteatzeko eta bideratzeko?

Aldeko eta aurkako erantzunak daude.

Moeschler autoreak (1979: 31-33), esaterako, hizketa-egintzen ikuspegi teoriko eta metodologikotik hurbil ikusten du “esanahi enuntziatiboa”. Hasteko, ilokuzio-esanahia, esanahi enuntziatiboa litzateke. Ilokuzio-ekintzaren barruan alderdi intentzionalak, hitzarmenezkoak eta instituzionalak bereizten ditu. Areago, Ducrot autoreari jarraikiz, “*pretention*” terminoa erabiltzen du, eta esaten instituzioaren ondorioa dela ilokuzioa, edo, hobeto esanda, solaskiddeen arteko erlazioak mintza-instituzioaren barruan jartzaren ondorio.

Ducrot eta Shaffer autoreak (1995: 111-114) ez dira iritzi bereko: bi pragmatika bereizten dituzte. Batetik, “hitzeekin gauzak egiten” duen teoria, hizketa-egintzarena (autoreon arabera “Pragmatika 1” litzatekeena). Eta “Pragmatika 2”: edo estudiantzea hitzak duen efektua edo eragina enuntziatio-egoeraren *gainean*. Hizketa-egintzek agerian utz dezakete esaten denarekiko *distantzia* bat, edota, aldiz, erakutsi erabat *konprometitua* dagoela bat bere hitzarekin. Alderdi hau, *modalizazioa*, Pragmatika 1etik landa gelditzen da, ilokuzio pragmatikak ezin baitu honen berririk eman.

Berthoud autoreak (1999), bere aldetik, begirada kritikoz ikuskatzen du hizketa-egintzen teoria. Kontsideratzen du hizketa-egintzen teoriak desbideratu eta zaildu egiten duela, lagundu baino gehiago, esanahi enuntziatiboaren planteamendua.

Achard autoreak (1995: 82 eta hh) dio, enuntziatioak, hizketa-egintzen teoriak ez bezala, kontsideratzen duela esanahia eraikitzen dela komunikazio



egoeraren barneko dinamika batean. Enuntziatioaren linguistikak, linguistika den aldetik, ez ditu diskurtsoak beren baitan behatzen, baizik eta prozesu formalen propietate erregularrak, egoera errealetan diskurtsoak artikulatzea ahalbidetzen dutenak. Austini interesatzen zaio enuntziatuen eta egintzen arteko erlazioen sailkapen bat; eta, aldiz, Benvenisteren hizkuntzalaritza enuntziatiboak aintzat hartzen ditu enuntziatuaren eta egoeraren arteko erlazioak.

Jacques-ek dio (1983) hizketa-egintzen teoria garatu dela elkarrekintza linguistikoaren teoriatik kanpo, axioma austiniarraren azpian, alegia, enuntziatuak lokutore bakarraren aktibitate diskurtsiboaren produktu direla (ikus bereziki 67-69. orr.). Benetan da zorrotza Jacques kritika egiten, disziplinen arteko integrazio saio baten baldintzen aurkezpena egiten duelarik.

Bange autoreak (1983) aitortzen du bi korronte horiek etorki edo abia-buru desberdina dutela (batak, filosofia analitikoa; besteak, hizkuntzalaritza), eta baliatutako oinarritzko kontzeptuak ere bestelakoak direla, baita deskripzioen norabideak eta helburuak ere. Hala eta guztiz ere, baieztatzen du bi korronteok ez direla ezinbestean eta bete-betean dibergenteak eta ezkonezinak.

Iritzi horiek horrela, badirudi ilokuzio pragmatikak azalpenik gabeko eremuak uzten dituela; areago, zenbait alderdi ikusteaz egiten ere dituela, hala nola, *pertsonen arteko elkarreagana*, edota *diskurtso mailako enuntziatio fenomeno*. Hutsune hori agerian geratzen da, esaterako, dimentsio diskurtsiboen eta enuntziatio-egoeraren arteko lotura eta erlazioei dagokienez. Aipatu berri diren dimentsio-diskurtsiboaz eta enuntziatio fenomenoaz, eta euren arteko diferentziaz, hurrengo puntuan arituko gara.

Ikerlaria mugatzen bada deskripzioa hizketa-egintza mailan egitera, hau da, enuntziatuen eta hizketa-egintzen arteko loturen deskripzioa egitera, aurreko kapituluan egin dugun bezala, iristen da egintzen deskripzio taxonomiko batera. Eta orduan arrisku bat sortzen da: begien bistan ez izatea hizkuntza formen eta komunikazio egoeraren (hots, instantzia sozio-diskurtsiboaren) arteko lotura. Gure sermoien kasuan, zehazki, galduko genuke aukeratu ditugun bi azter-unitateen lotura aktiboa fenomenook gertatzen diren komunikazio egoerarekin; bestela esanda, ez genuke jakingo izernordainak eta diskurtso ekarria (“bestearen diskurtsoaren”) nola lotzen diren enuntziatio-instantziarekin, gure kasuan, Elizaren aurpegi linguistiko batekin, sermoiarekin. Gogora bedi sarreran esan dugula fenomeno linguistikoak “goitik beherako” norabidean aztertu beharrean gaudela. Jarraian dakartzagu argibide gehiago.

#### 4.1. OINARRI TEORIKOA: NOZIO BATZUK ARGITUZ

Modulu honetan sermoien analisia interakzionismo sozio-diskurtsiboaren ikuspegi eta planteamenduaren barruan egin nahi da, Bronckart autorearen eta Genevako Eskolaren ikusmoldeei jarraiki. Zein opzio teoriko daude eredu horren oinarrian?

Hasteko, mintzaira-jarduera (*activité langagiere*), jarduera konplexua da. Jarduera horren adierazpen behagarriak testuak dira, berezko hizkuntza (hizkuntza natural) batean ekoizten diren testu ahozko zein idatziak. Testuak, bada, errealitate enpirikoak dira, eta komunikazio-unitate globalak. Testuak hainbat osagai biltzen du eta osagai horiek *lorratzak* (*traces*) uzten dituzte, testuaren ezaugarriak ikusgarri eta behagarri bihurtzen dituztenak. Besteak beste, interakzio egoeraren ezaugarriak, testuaren erreferentearen gaineko ezaugarriak, eta baita, maila sakonagoan, haren sorkuntzarako baldintza sozio-historikoak ere.

Bestalde, mintzaira-portaera giza espezieari dagozkion elkarlan sozialen alorrekoa da. Horrenbestez, mintzaira-portaera nahitaez erakunde sozial baten parte da: erlijiosoa, politikoa, irakaskuntzakoa... Helburuen arabera gauzaten da (konbentzitu, libertitu, irakatsi, informatu...). Eta, hirugarrenik, estatutu sozial jakin bat duten hartzaileei zuzenduta dago, nahiz eta hartzaile horiek bakoiztu edo indibidualizatu ahal diren.

Interakzio nozioari dagokionez, beti ere “goitik beherako” ibilbidean ulertu beharra dago (Bronckart 2004: 72). Analisia goitik behera egin behar hau Voloshinov eta Bajtin autoreei zor zaie. Aldarrikapen honen oinarrian datzan ideia zera da: praktika diskurtsibo edo linguistikoak definitzen dituzten ezaugarriak eta ezaugarri horien garapena, estuki loturik daude faktore materialekin. Horrela, testuen ezaugarriak, zenbait *formazio sozialek* egindako beraiazko eta borondatezko hautuen arabera dira, euren joko eta helburuen arabera egin ere (Foucault-en “formation discursive” nozioa, 1969). Formazio soziala ulertu behar da, horrela, giza ekintzaren erakundeek hartzen dituzten forma konkretu bezala, testuinguru fisiko, ekonomiko eta historikoen arabera. Formazio horiek arauak sortzen dituzte, normak, baloreak eta abar, eta horiek harremanetan daude talde horren kideen interakzio modalitateekin:

“Les *formations sociales* sont les formes concrètes que prennent, en fonctions des contextes physique, économique et historique, les organisations de l’activité humaine, et plus généralement de la vie humaine. Ces formations sont génératrices de règles, de normes, des valeurs, etc., qui ont trait aux modalités de régulation des interactions entre membres d’un groupe”. (Bronckart 2004: 104).

Bronckartek dioenez (2005: 154-155), hiru elkarreragin-mota bereizi ahal dira testuetan/diskurtsoetan. Gure azterketa lehen elkarreragin-motaren baitakoa da, hots, elkarreragina *jarduera sozialaren* eta *hizkuntzaren* artean gertatzen den motakoa. Bronckarten lan honen aitzindaritzan leudeke, esan dugunez, Valentin Voloshinov nahiz Mijail Bajtin autoreen lanak<sup>33</sup>.

Nozioak argitzen ari garela, une egokia delakoan gaude ardatzezkoak diren biri buruz luzeago jarduteko, ezen kapitulu osoa ez ezik lan osoa ere zeharkatzen baitute: diskurtsoa eta enuntziazioa.

#### 4.1.1. DISKURTSOA

Berbaldiari buruzko analisia egiten ari garela, lehenengo bereizkuntza honakoa da: Diskurtsoa *vs* berbaldia. Euskaraz biak ere sinonimo gisa erabili izan dira, nahiz “berbaldi analisi” nahiz “diskurtso analisi”, bi-biak erabili dira *analyse de discours* edo *análisis del discurso* delakoa izendatzeko. Hala ere, dugun ikuspuntua sozio-diskurtsiboa izanik, beharrezko deritzogu nozio biak bereiztea.

Berbaldia datu gordina da, eskura dugun hurbileko datu zuzena, enpirikoa. Berbaldia izan daiteke “solasaldiren” baliokide, bai “conversation” edo “discourse analyse” anglosaxoiarena ere. Aldiz, diskurtsoa ez dugu eskura, objektu normatiboa eta teorizatua da; ez da objektu naturala, teknikoa baizik, horregatik esaten da “diskurtso politikoa”, “diskurtso zientifikoa”, eta abar (eta ez “berbaldi politikoa”, “berbaldi zientifikoa”...).

Diskurtsoa testua sortzeko eta testua burutzeko prozesu-multzoa edo mekanismoa da; mekanismo hori, baina, estuki lotua dago enuntziatioari eta prozesu intersubjektiboari. Bi alderdi horiek faktore eragileak direnez gero, norma edo norabidea markatzen dute. Bestela esanda, alderdi intersubjektiboak (azken buruan, sozio-diskurtsiboak) faktore erregulatuak dira, hau da, eredu bati (elizakoari, zientifikoari, eta abar) datzekien arau orokorrak gordetzea behartzen duten faktoreak. Kontua da mekanismo hori egitura sintaktiko erregularren bidez gertatzen dela, eta, horrexegatik da, hain zuzen, analizagarria.

---

<sup>33</sup> Voloshinov: *El marxismo y la filosofía del lenguaje*. Madril, Alianza Universidad, 1992; frantseseko edizioa Bakhtine/Voloshinov. *Le Marxisme et la philosophie du langage*, Minuit, Paris 1977. Bai eta Mijail Bajtin bera ere (1995/1979). *Estética de la creación verbal*. Madril, Siglo veintiuno editores. “El problema de los géneros discursivos” (4. kapitulu); Bakhtin (1984) *Esthétique de la création verbale*, “Le problème du texte” kapitulu (309-338. orr.).

Diskurtsibo izenondoak, orobat, iradokitzen digu interakziozko erlazioa dagoela diskurtso baten eta diskurtso hori gauzatzen den egoera, instituzio edo gizarte egituraren artean. Eta eragin hori norabide bietan gertatzen da; hots, elkar baldintzatzen dute. Beraz, testuaren eta komunikazio- edo ekoizpen-egoeraren arteko erlazio hau azal daiteke esanez gizarteak moldatzen duela diskurtsoa baina diskurtsoak, era berean, egiten ere duela gizartea: egiten du jakintzagaiak definitu, pertsonen identitate soziala sortu eta mamitu, eta baita pertsonen eta taldeen arteko erlazioak eratu ere. Diskurtsoa “praktika soziala” da. Elkarreagin sozio-diskurtsiboa, horra.

Ikus daitekeenez, guk darabilgun adieran, diskurtso terminoaz forma eta zentzuaren arteko erlazioa hartzen da kontuan, sozialki egonkorturik dauden hizkuntza jokoan barruan.

Beste nozioari erreparatuz gero, “berbaldia” hitzak azpimarratzen du mintzairaren erabilera, beti ere sozialki estrukturaturik dauden aktibitateen arteko aktibitate bezala. Baina adiera horrek ez du kontuan hartzen erlazioaren estabilizazioa (esate baterako, *irregularitate diskurtsibo* nozioa). Ezen “diskurtsoaz” berba egiten dugunean, nozio horrek harremanetan jartzen gaitu hizkuntza jokoan egonkortasun sozial jakin batzuekin. “Diskurtsoan” interakzioen antolaketa espazio sozial jakin batean gertatzen da, eta berauen erregulazioa ez dago aktore indibidualak ezarri nahi dien intentzioaren kontrolaren esku, ihes egiten baitiote neurri handi batean. Zentzu honetan hitz egingo da “formazio diskurtsibo” nozioaz (Foucault 1969), hau da, diskurtsoen antolaketa instituzio sozialen hitzezko alderdi bezala. Gure irudirako, “berbaldi” hitzarekin ez diogu erreferentziarik egiten hitzezko praktiken antolaketa sozialari. Eta mintzaira praktika soziala da, soziala denez, esfera guzietan, baita estrukturazio semantiko abstraktuenetan ere:

“La forma et le contenu ne font qu’un dans le discours compris comme phénomène social: il est social dans toutes les sphères de son existence et dans tous ses éléments, depuis l’image auditive, jusqu’aux stratifications sémantiques les plus abstraites.” (Bajtín 1978, 88; Bronckart 1996: 17-tik hartua) (azpimarrak geureak).

#### 4.1.2. ENUNTZIAZIOA

Sermoiaren alderdi diskurtsiboak analizatzeari ekin behar diogula-eta, azterketa hori enuntziazio terminotan egingo dela iragarri dugu. Baina enuntziazioaz ere hitz erdi bat esan beharra dago eta teoriar sakondu, enuntziazio

nozioa ere ez baita nozio unibokoa. Nozio zaharra da, historia luzea dauka eta denboraren joanean berrikuntza ugari izan dituen, nozio polisemikoa bihurtu da. Aldaketen berri jakin nahiez gero, ikus Catherine Fuchs autoreak (1981) egiten duen errepaso hasieratik gaurdaino (errepaso historikoa eta kritikoa, argigarria bere laburrean).

Enuntziatio terminora lerraturik, gutxienez hiru fenomeno biltzen ditu gaur egun:

- a) *Enuntziatio-instantzia(k)*, hots, enuntziatio-eragiketaren *aktoreak*: subjektu *enuntziatzailea* eta subjektu *enuntziataria*<sup>34</sup>. Azkenengo hau, testuaren interpretazioak hala eskatuz ager daiteke. Lehena, enuntziatzailea alegia, eskuarki hiru elementuk definiturik agertzen da: *Ni-Orain-Hemen*, hurrenez hurren ondoko edukien arabera: *Aktorializazioa-Denbora-Espazioa*.
- b) *Enuntziatio-operazioak*, hau da, Saussuren hizkuntzatik hizketara pasatzeko erabilitako operazioak dira. Bi nozio horiek ez dira jada bi entitate ezkonetzin, ezpada operazio berberaren elementu aldi berean osagarri eta osakin: hizkuntzatik diskurtsora (Benvenisteren terminologian) jauziarena. Diskurtsuan eta berbaldean jartzea da (la mise en discours) operazio hauen egitekoa. Operazio honi *actualisation* eta *actualización* deritzen. Euskaraz “aktualdu” baliotuko dugu, “gauzatea” eta “zertzea” irekiegiak eta zehazgabeegiak begitantzen baitzaizkigu.

<sup>34</sup> Subjektu *enuntziatzailea* edo “esataria” (“lokutore” zentzuan) baliokide gisa erabiltzen dira askotan, eta bada bereizketarik euren artean (ikus beherago 4.2.2. atalean Ducrotek egingo duen bereizketa). Subjektu *enuntziataria*-ri dagokionez, ez da nahastu behar “solaskide” nozioarekin (*interlocutor* zentzuan). Izan ere, solaskide presente dagoen subjektua litzateke; eta enuntziataria (guk enuntziatzaile-kide izendatuko duguna) “destinatario” ideala, kristaua. Nozioen artean bada katramilarik, egile eta ikusputu desberdinen hautuei zor baitzaizkie. Nolabait laburbilduz, ondoko bikoteetara ekar daitezke:

enuntziatzaile ↔ enuntziataria (enuntziatzaile-kide) lokutore (esatari) ↔ alokutario (solaskide) destinador ↔ destinatario
--

Guk gure lan honetarako “igorlea” izendatzeko *esatari* erabili dugu (2. kapituluan) eta 3. kapitulutik aurrera “*esatari*” edo “*enuntziatzaile*” baliatuko ditugu, eta nagusiki “enuntziatzaile”, aurreko biak lotzeko duen erraztasunagatik (azalpenetarako, ikus aurrego Ducrot). Sermoi “hartzailei” dagokienez, esan bezala, sermoilariak “aurrez aurre” daukana izendatzeko “solaskide” baliatuko dugu eta obra osoarena, Asteasuko sermoian presente ez dagoen auditorio zabal horri begira, “enuntziatzaile-kide”.

- c) *Enuntziazio enuntziatua*: enuntziatzaileak, enuntziazio-operazioen bidez, arrastoak uzten ditu enuntziatuaren azalean. Enuntziazio horri esker, izan ere, esatariak bere markak, seinaleak eta zantzuak ezartzen dizkio berbaldiari ezinbestean, ezaba ezin daitezkeenak. Operazio horien markarik gabe ez dago testurik, ez berbaldirik.

Enuntziazio-instantziaren izaeraz eta nolakoaz, baita auzi-arazo berriez ere, gehiago sakontzea onuragarria izan daiteke, nozio honen ezagutzan, konzeptualizazioan eta operatibizazioan aurrera egin ahal izateko. Funtsezkoa da apur bat luzatzea azalpenean, tesiaren jitea ulertuko bada:

- Berbaldiaren solaskideak ez dira izaki enpirikoen baliokide. Esataria eta solaskidea enuntziazio-instantzia gisa ulertzen dira, berbaldiaren bidez eta berbaldian zehar onduak eta mamituak. Enuntziazio-instantzia, horrela bada, ez dago subjektuen psikologiari atxikitua. Subjektuak ez dira existitzen enuntziazioaren aurretik, beti ere enuntziazioaren “garrikide” baitira. “*Enunciación: se llama al acontecimiento, al hecho que constituye la aparición de un enunciado*” (Ducrot 1980: 33); “*La enunciación es necesariamente contemporánea del enunciado*” (Anscombe 1980: 63).
- Gauzak horrela, toki, rol, posizio... enuntziatiboak diskurtsoaren al-tzoan eta diskurtsoaren bidez gauzatzen dira. Beraz, esan behar da enuntziazio-instantzia estuki lotua dagoela berbaldiari.
- Enuntziazio-instantzia enuntziatu baten “efektua” da, enuntziatu batek solaskide batengan eragindako “zirkin”. Haatik, horrek ez du esan nahi inolaz ere enuntziazio oro enuntziatua behar denik izan. Izan ere, enuntziatu-efektuaren presentzia ez da ezinbestean marka jakinen bidez agertzen, hau da, ez da adierazle morfo-sintaktiko, edota semantiko-sintaktiko propioen bidez markatua agertzen; efektu edo emaitza hori *interpretazio* bidez ber-eraiki behar da, ez baitator zuzenean edo adierazle jakinen bidez bideratua.
- Nolatan ber-eraikitzen da, baina? Nolako honi erantzuterakoan, bi auzi-arazo sortzen dira: batetik, enuntziazioaren konbentzionalitateari dagokiona; bestetik, enuntziazioaren eta esanahiaren arteko erlazioari dagokiona.
- Konbentzionalitateari dagokionez, esan behar da enuntziazioaren presentzia ez dela “enpirikoa”, hots, marka konbentzional eta jakinen bidez datorrena.

Horregatik, enuntziatio-hizkuntzalaritzak “diskurtso itxurapean datorren enuntziatioari” egingo dio arreta. Enuntziatua eta enuntziatioa ez dira erlazio baten presuposiziozko bi mutur (kausa-efektu gisakoak), “rección” erlazio gisako osagaiak baizik. Badago osagai eraikitzaile bat (enuntziatioa), alde bate-tik, eta bestetik, osagai karakterizatzaile bat (enuntziatua):

- Zer erlazio edo zer zerikusi dago enuntziatioaren eta esanahiaren artean? Enuntziatioa *corpusari* erantsi behar zaion “gehigarria” da eta *corpusa* enuntziatua. Gauzak horrela, enuntziatioa agerian jartzea *metadiskurtso* bidez, edota *transposizio* bidez egin daiteke soilik (Parret 1983: 97).

Dominique Maingeneau autoretik (1987, bereziki II. kap, eta 53-56) hartu ditugu enuntziatio teoriaren hipotesi formalak:

- Enuntziatioak arrastoak uzten ditu enuntziatuan, eta, halaber, informazio inplizituak; inplizitu horien gainean eraikitzen da zentzua, hots, enuntziatio-esanahia;
- Inplizitu horren egitura edo antolamendua asmatzea ez zaio batere erraza, ez soilik ikertzaileari, baita, zenbaitetan, unean eta gunean aurkitzen den entzuleari ere. Nolanahi ere, enuntziatio enuntziatua zerbait osoa eta estrukturagarria da.
- Enuntziatioa *vs* enuntziatua oposizioa independientea da, ez dago baliatutako adierazpenari ezinbestean lotuta.
- Kontua da antolaketa horri esker bakarrik atzeman ahal dela zer mota-tako “enuntziatio-lana” egiten duen esatariak.
- Tokien, rolen eta posizio enuntziatiboen determinazioa diskurtsoaren bidez eta diskurtsoaren altzoan egiten da, ezen, hain zuzen, determinazio hori ekoiztutako mezuaren zentzuaren zati eta parte baita.
- Eta puntu hau enuntziatioaren giltzetako bat da. *Hitzezko materialak ez ditugu tratatzen informazio garraiari bezala*. Esateak alderik alde zeharkatzen du esana. Enuntziatioa berbaldiaren *figura antolatzaile* da (López Alonso 1989: 391).

Horrenbestez bukatzen dugu alderdi teorikoen gaineko aurkezpenari. Luze aritu gara nozioak argitzen, baina gure artean ez da nozio horiek baliatze-ko ohiturarik, eta sena eta erosotasuna falta zaigu.

## 4.2. METODOLOGIAZKO ERABAKIAK

Esan dugu jada interakzionismo sozio-diskurtsiboaren azterketa enuntziatio terminotan egingo dela eta berezki bi azter-unitateri ekingo diegula: pertsona izen-ordainei eta berbaldi ekarriari. Pentsatzen dugu bi fenomenook sermoia ezaugarritzeko gune onak direla. Baina teoriaren operatibizazioaren auzia agertzen zaigu berriz: nola ekin azterketari?

Testuak ez dira instantzia bakarrekoak; testuetako instantziak ugariak eta anitzak izan ohi dira, testuak fenomeno enuntziatibo-diskurtsibo ugari baitaude osaturik, beste hitz batzuetan esanda, *enuntziatio-heterogeneotasuna* da testuetan nagusi. Testuetan, orobat, subjektua –bere diskurtsoaren iturri den partez–, alde guztietan dago present berbaldian zehar. Era berean, gertaera enuntziatibo desberdinak present daude enuntziatuetan eta berbaldietan, alde guztietan egon ere. Hau da, antolaketa edo egitura enuntziatiboa maila desberdinetan osatzen da.

Zeri ekin? Nola? Zein entitate enuntziatibo hautatu?

Enuntziatio fenomenoaren inguruan hainbat azter-unitate hautatu ditzake ikerlariak, besteak beste, klasikoak diren aktorializazioa, espazioa eta denbora. Ikerlariaren xede-asmoek ere garrantzi handia dute hautaketa honegan. Guk geuk analisirako bi gertakariren antolaketa hautatu dugu: batetik, pertsona izen-ordainena, eta, bestetik, diskurtso ekarriarena (*discours rapporté, discurso referido*). Esan dugunez, fenomeno enuntziatibo-diskurtsiboa alderik alde zeharkatzen du enuntziatio-heterogeneotasunak, eta, zehazki, heterogeneetasunaren bi alderdi adierazgarri eta “klasiko” aukeratu ditugu sermoiak analizatzeko. Gure aburuz, *corpuseko* testuen egitura enuntziatibo-diskurtsiboa behatzeko azter-gune onak edo “pribilegiatuak” dira. Azken buruan, sermoia den lan enuntziatiboaren oinarritzko helbururako prozedura behineta-rikoak baitira. Elementu dialogiko eta polifonikoak dira.

Baina, galde daiteke, zergatik bi horiek?:

- Batetik, pertsona kategoria aztertzea, eta, bereziki, izenordainen erabile-ra abiapuntu tradizionala edo kanonikoa da berbaldiaren analisisa egite-rakoan Benvenisteren teorizazioaren ondotik (aktorializazioa-espazio-denbora). Eszena enuntziatiboa aztertzeke, pertsonen arteko erlazioak ebazteke, eta posizio diskurtsiboak atzemateke bide ziurtzat jotzen da. Ikus beherago izenordainen gainean Benvenistek dioena.
- Eta berbaldi ekarria hautatzeaz den bezainbatean, zera esan behar: berbaldi ekarriak presentzia altua du sermoietan; areago: osagai zentrala da,



bazter ezinezkoa sermoiak ezaugarritu nahi badira. Ezin izango genuke sermoien deskripzio edo karakterizaziorik egin, berbaldi ekarria saihe-tsean utziko bagenu. Leku bat egin behar zaio, inolaz ere. Luze arituko gara alderdi hauez eta aurrera joan ahala irakurlea ohartuko da hautuak ez direla arbitrarioak izan.

Horratx lanaren oinarri enpirikoa, objektuak berak “eskatutakoa”, hain zuzen. Gaude planteamendu enuntziatibo-diskurtsiboa egoki uztartzen dela *corpus*aren nolakoaz. Gainera, aurrerago ikusiko dugunez, bi errealitate horien artean lotura estua dago, elkarri begira dauden alderdiak topatuko ditugu.

Nola ekin, metodologikoki, azterketa hauei?

#### 4.2.1. ROULET, FILLIETTAZ ETA GROBET (2001)

Enuntziatioaren eta diskurtsuaren analisiaren bueltan hainbat metodolo-gia garatu da, eta aukera bat baino gehiago dago. Guri geuri, testuen enun-tziazio-egitura aztertzeko egokia iruditzen zaigu, oro har, Roulet, Fillietaz eta Grobet (2001) autoreen proposamena. Beraz, hautatu ditugun bi azter-unitate edo hizkuntza gertakariak metodologia horren argitan aztertuko dira. Egileon eskemaren arabera, hiru motatako informazioak eskuratu beharko ditugu gure azter-unitateen inguruan: *a) informazio linguistikoa*, *b) interakzio-infor-mazioa*, eta, *c) erreferentzia-informazio sozio-diskurtsiboa*. Beste hitz batzuetan esanda, lehenbizi, aztergaiaren deskripzio fenomenologiko bat egingo dugu, hizkuntza markak kontuan hartuz; ondoren azter-unitateon elkarreragin-ba-lioa deskribatuko da; eta, azkenik, berbaldiaren barruan duen funtzio diskur-tsiboa edota interdiskurtsiboa emango dugu. Azken honi eduki “erreferen-tziala” ere dei geniezaioke. Horrenbestez, hiru pauso horiek emanda, aztergai diren bi fenomenoak, marka-arrasto izatetik, dimentsio sozio-diskurtsiboraino aztertzen dira. Bide osoa egin nahi da.

Kontu hauek beste modu batean ere deskriba litezke. Aztergai ditugun entitateak –pertsona-izenordainak eta berbaldi ekarriaren bi modalitate kla-sikoak– gertakari hirukoitza osatzen dute: hizkuntzazkoa, interakziozkoa eta sozio-dikurtsiboa.

Lehen mailako azterketari ekiteko, hots, hizkuntzako informazioa jaso-tzeko, azaleko egitura hartuko dugu kontuan; lan horretarako gramatika tra-dizionalean oinarritzen diren deskripzioetara joko dugu, eta handik jasoko dugu gure lanerako pertinente dena. Beste bi informazio iturriak –hots, inte-

rakziozkoa eta erreferentziala (edo diskurtsiboa)– enuntziazio terminotan landuko dira, jada esan dugunez.

Interakzio mailari dagokionez, elkarregin nozioak inklusio/exklusio, bat etortze/baztertze, hierarkizazio eta antzeko erlazioei egiten die erreferentzia. Hau da, subjektuen arteko balioen eta harremanen kudeaketari. Hirugarrenik, informazio diskurtsiboa esatean, mintza-praktika moduz ari gara, diskurtsoko erregularitateez, polifonia mekanismoez eta abar. Bibliografia zabalena bi fenomenoek deskribzioaren eta funtzioaren gainekoa da (persona izen-ordainen balio gramatikalak, eta abar). Baina oso urria da berbaldi ekarriaren alderdi interaktiboek buruzko bibliografia, eta eskasagoa oraindik beraren alderdi sozio-diskurtsiboen gainekoa. Gure lanerako, haatik, informaziorik pertinenteenak interakziozkoa eta erreferentziala dira. Fuentes autorearengan (2000: 19-20) ikus daiteke sakonago interakzio eta erreferentzial nozioen arteko bereizketa.

Bi aztergaien analisisian Ducrot autorearen bereizkuntza baliatuko dugu neurri handi batean, kontzeptualizazio lanetarako.

#### 4.2.2. DUCROT (1984)

Esana da jada interakzioaren eta interdiskurtsoaren analisisia enuntziazio terminotan egingo dugula. Orain, Ducroten teorizazioaren bidez, jasoko dugu enuntziazioaren arazoetako bat, ilokuzio-pragmatikak jasotzen ez duena, alegia, esatari bakarraren problematika. Esan dugu gorago enuntziazioa ez dagoela subjektuaren psikologiari lotuta, edota izaki enpirikoari. Eta, noski, enuntziazioaren iturria anitza izanik, polifoniaren teoria funtsatzen da. Ondorengo lerroetan begiratu bat emango diogu polifonia arazoez argienik diharduen planteamendu eta kontzeptualizazio bati, Ducroten teoriari hain zuzen.

Orain artean inplizituki onartu dugu diskurtso ororen iturburuan enuntziatzaile bakarra dagoela, hau da, enuntziatu bakoitzak autore bakarrera eramaten gaituela, esatariarekin identifikatzen den autorera, Ducroten terminologiaz esateko, “Ni” esaten duen horretara. Haatik, polifonia eta dialogismo nozioek, bi-biek, diote diskurtso oro *beste* diskurtso batzuetatik datorrela, haien emari gisa.

Polifoniaren teoria ducrotiarra ezaguna eta erabilia da enuntziazioaren azterketan. Hurbilbide hau oso bereizkuntza finak egiteko gai da subjektu enuntziatzailearen inguruan, ahalbideratzen duena polifoniaren teoria funtsatzen.

Zentzu horretan dakargu gure lanera, Agirre izaki diskurtsibo gisa (eta ez munduko gizaki bezala) aurkezteko talaia eskaintzen baitigu. Polifonia nozioa –izenari dagokionez– Bajtinengandik hartu, eta semantikan sartzen du Ducrotek. Baina nozio horren benetako izanak eta baldintzek Bally autorearen (1932) planteamenduan dute iturburua, zentzuari buruzko enuntziatio planteamenduan, hain zuzen. Ducrotek bi iturri horietatik edaten du.

Polifonia diogunean, baina, berdin esanenez *dialogismo* ere. Egia da bi nozio horien artean nolabaiteko bereizkuntza egin ahal dela (Perrin 2004). Halatan, lehenak iradokitzen du ahots orkestratu baten presentzia mintzairan; bigarrenak, dialogismoak alegia, adierazten du ahots horiek elkar interpelatu eta erantzuten dutela. Halaber, ikuspuntu teoriko batetik proposa daiteke, guk egin dugun bezala, enuntziatuek eragin bikoitza dutela: batetik *interlokutiboa* eta bestetik *interdiskurtsiboa* (edo intertestuala). Enuntziatuek oihartzun interdiskurtsiboa edo intertestuala dute, izan ere, enuntziatuetan beraietan agertzen baitira, oihartzun baten moduan, hitz beraien bidez edo gai beraren inguruan jada esanikoak. Enuntziatuak, zentzu horretan, jada esandakoaren eta esandako moduen ber-aktualteak dira. Garrok dioen bezala “bestea ez da solaskidea bakarrik” (19-20. or.) Horregatik, arrunta da enuntziatioaz hitz egitean polifoniaz hitz egitea, edota “heterogeneitate” enuntziatiboen gainean, “alteritatez”, “heterologiaz”, “ahotsen zirkulazioaz” eta abar (Garro, id.). Terminologiari dagokionez, polifoniaren edo dialogismoaren nozioek elkar osatzen dute, txanpon beraren bi alde dira, eta behin baino gehiagotan baliokidetzat hartzen dira.

Horrela bada, baztertu egin nahi du Ducrotek hitzun bakarraren ideia, enuntziatu bakoitzak egile bakarra eta bat bakarra duen ideia, “hizkuntzalaritza modernoa” deitutakoaren azpian antzeman daitekeena: “*L’objectif de cet chapitre est de contester –et, si possible, de remplacer– un postulat qui me paraît un oréable du sujet parlant*” (op. cit. 170. or.). Enuntziatiozko subjektua bakarra den teoria kritikatu eta ordezkatu nahi du, “enuntziatu bat-subjektu bat” teoria hain zuzen.

Gauzak horrela, Ducrotek polifoniaren teoria proposatzen du, problematika honi irtenbide egokiagoa eman nahian (id. 197. or.). Ducroten aburuz, enuntziatio batean polifonia dago “pertsonaia” mota bi bereiztu daitezkeen, *énonciateurs* (guk “enuntziatzaile” izendatuko digunak) eta *locuteurs* (guk “esataria” esango duguna):

- “Esataria” ulertuko dugu izaki bat enuntziatuaren arduraduna litzatekeena, enuntziatuaren erantzukizuna eman behar zaion norbait.

Esataria fikzio diskurtsibo bat da, eta ez dator bat derrigorrez enuntziatuaren ekoizle fisikoarekin.

- Ducrotek, esataria nozioaren baitan, izan ere, bi nozio bereiztea proposatzen du: batetik, esataria munduko izaki bezala (*locuteur en tant qu'être du monde*), λ deitura emango diona, hezur-haragizkoa litzatekeena (199-203. or.); eta bestetik, esataria (*locuteur en tant que tel*), L laburdu-raz izendatzen duena. L(ocuteur) izango da enuntziazioaren arduraduna; λ, berriz, pertsona “osotzat”, izaki biografikoa, beste ezaugarri batzuen artean, enuntziatuaren sortzaile izatea duena. Lokutorea edo esataria aurkezten da hitzen aukeraketaren arduradun gisa, estiloarena eta *ethos* eta *pathos* diskurtsiboena. Hortaz, enuntziatioari loturiko emozio edo beste egoera psikologiko batzuk beregain hartzen ditu, hots, enuntziatioagatik “esatariari” loturiko ezaugarriak L horri dagozkio. Aitzitik, esatari horrek bere buruaren gainean munduko izaki bezala hitz egiten badu, λ egongo da inplikaturik. Autokritikan, esaterako, L afirmatzen da λ desbalorizatuz edo gutxietsiz.
- Baina bada beste bereizkuntza bat ere, esatari eta enuntziatzailearen artekoa hain zuzen. Enuntziatuak, izan ere, esatariarenak ez diren ahotsak agerrerez ditzake. *Enuntziatzaile* deitzen die enuntziatioaren bidez espresatzen diren izakiei. Eurek “hitz egiten” dute, enuntziatioan euren ikuspuntua, jarrera adieraziko balute bezala, baina ez derrigorrez adierazpen zehatzak erabiliz. Bestela esanda, esatariak bere enuntziatuan eszenan jar ditzake berearekiko desberdinak diren posizioak. Ducrotek konparazio bat egiten du desberdintasun honen kariaz: pertsonaia egilearentzat dena da enuntziatzailea esatariarentzat.

Laburbilduz, Ducrotek diskurtsioa gauzatzen den gertaera polifonikoa justifikatzeko ondoko “igorleak” bereizten ditu: *sujet parlant*, *locuteur* eta *énonciateur*. Lehena da “*l'auteur empirique de l'énoncé, son producteur [ ] extérieur au sens de l'énoncé*” (194 eta 207. or.); bigarrena “*un être qui, dans le sens même de l'énoncé, est présenté comme son responsable*” (193. or.); eta hirugarrena, enuntziatioaren beraren izakia “*un être de pure énonciation*”, determinatzen duena zein ikuspuntu hartuko den gertaerak aurkezteko. Bereizkuntza honek uzten dio, esan bezala, polifoniaren arazoa planteatzen eta jorratzen. Laguntzen dio, halaber, enuntziatzailearen eta enuntziatzaile-kidearen arteko erlazioak planteatzen.

Orain ohar bat egin beharrean gaude gure azterketarako argigarria izan daitekeelakoan. Sermoiak irakurri ahala, berehala ohartzen da irakurlea tes-

tuetan ageri diren ahotsak eta subjektuak asoziazio eta disoziazioen menpe daudela. Polifonia eta ahotsen zirkulazioa badago sermoietan, badagonez, baina ekartzen diren ahotsak eta ahots horien subjektuak ez dira berdin aurkezten, ez kontuan hartzen testuetan barrena. “Deshomogeneizazio” printzipio baten existentziaz mintzatu beharko gara. Printzipio horren arabera, sermoietan hiru ahots mota edo ahots-barruti bereiztu daiteke, eta subjektuak, bere tasunen arabera, barruti batean edo bestean kokatuko dira. Barruti horiek A/B/C izendatu ditugu. A barrutiak *ortodoxiaren* ahotsa jasotzen du (Bibliako aipuak, santu-santak, eta abar). Barruti honek balorazio eta estatutu positiboak ditu. B barrutia *doxari* dagokio, herritarren ahotsak eta diskurtsoak jasotzen ditu eta, oro har, balorazio ahula du. C barrutia, azkenik, *heterodoxia-rena* da eta ahots-diskurtso hori erabat dago gaitzetsia. Barruti horiek barruti ideologikoak dira, eta axiologema gisa funtzionatzen dute, hots, balore eta ideologia emaitze dira. Gauzak horrela, fenomenoaren artean “konfigurazioak” agertzen dira. A eta C barrutien arteko oposizioa erabatekoa da: bi muturrak kontradiktorioak dira, eta eskusiozko erlazioan daude. A eta B-ren arteko erlazioa behin-behinekoa da, nahiz eta azalean antagonistak diren. Sermoiaren “egituraren” giltzarrizko oposizioak dira. Barruti horiek, ahots horiek edo “heterogeneotasun” horiek ez dira kontu hutsalak; eragin zuzena dute eta oso kontuan hartzeko aztergai ditugu hizkuntza unitateetan materializazioan eta banaketan. Ekin diezaiogun hipotesiei eta azterketei, bada.

### 4.3. HIPOTESIAK

Moduluan barrena bilduaz joan garen teoriaren eta ikuspuntuen ildotik, gurekiko, hizkuntza forma eta mekanismoak beti ere enuntziatio-egoerari begira azaldu beharra dago, “goitik beherako” norabidetik, instantzia sozio-diskurtsiboan baitute abiaburua hizkuntza mekanismook, hantxe baitute posizio-estatutua, garantia eta legitimazioa.

Aztergai ditugun bi fenomenoak, bai pertsona-izenordainen eta baita berbaldekarriaren erabilpena, esatari bakoitzaren gurariaren arabera geratzen dela pentsatzen da. Hau da, esatariak nahi duen erara –indibidualki zein erretorikoki– bideratu ohi duela bi fenomenoan erabilpena. Uste hori oso zabaldua da, bistan da. Horiek erabat ukatu gabe, baina, baieztatu daiteke unitate eta erabilpen horien atzean, arrazoi sozio-diskurtsibo eta elkarreraginezko sakonak daudela eragile gisa. Azken buruan, Benvenistek geroxeago esango digun bezala, unitate eta erabilpen horien atzean “ekintzak” daude eta hautu linguistikoak ez dira “zorizkoak”.

Horrela bada, pertsona-izenordainen egitekoa ez da soilik esatari-solaskidearen arteko hartu-eman formalki agertzeraz eta mantentzeraz mugatzen. Pertsona markek, gainera, erreferentzia zehatz multzo bat garraiatzen dute aldean, zeintzuen bidez erlazio intersubjektiboak bideratzen eta ezartzen diren: domeinuzkoak, banatze/elkartzeak, justifikaziozkoak, autoritatezkoak, kontrolezkoak, menpekotasunezkoak, eta abar. Areago oraindik, horien konfigurazioa instantzia sozio-diskurtsibo jakinek mugatzen dute.

Berbaldi ekarriaren kasuan, beste zenbait faktorez gain (idatzia/ahozkoa, testuinguru erraztaileak, aditz jakinen presentzia, testuinguru gardena/iluna...), faktore sozio-diskurtsiboak daude, eta hori horrela da gure *corpuseko* testuei dagokienez. Hipotesi honetan gehiago sakonduko dugu berbaldi ekarriari ekitean.

#### **4.4. ANALISIA ETA IRUZKINAK**

Gorago esan dugun bezala, izenordainen eta berbaldi ekarriaren analisia hiru mailaren arabera egingo da: maila linguistikoa, maila interakzionala eta maila erreferentziala (Roulet, Filliettaz & Grobet 2001: 281-290).

##### **4.4.1. PERTSONA-IZENORDAINAK**

Honenbestez, modulu honen lehen unitatearen azterketari ekingo diogu, moduluaren lehen azpi atala izango dena. Askotan esan dugunez, bi azpi multzoz osaturik dago analisia/modulua, eta biak ala biak hautu metodologiko beraren ikuspegiarekin aztertuko dira. Sermoiaren pertsona-izenordainen xerkan abaituko gara.

##### **4.4.1.1. Informazio linguistikoa**

Jarraian pertsona izen-ordainen informazio linguistikoa estudiantzeari ekingo diogu, estudiatu ere hainbat talaiatatik ekinez. Ikuspegi tradizionalak eta ikuspegi berriagoak bisitatuko ditugu.

##### *4.4.1.1.1. Gramatikaren ikuspegia*

Pertsona-izenordainak zer motatako hizkuntza entitateak diren euskal gramatikatan aurki daiteke. Sermoiaren agertzen diren pertsona-markak ho-

nakoak dira: *ni, hi, zu, hura, gu, zuek, haiek* (+ *berori*). Jatorriz erakusleak diren arren, 3. pertsonak izenordaintzat hartuko ditugu.

Gure testuetan aurkitzen ahal dira:

- Pertsona-izenordain arruntak
- Errespetuzko pertsona-izenordainak
- Pertsona-izenordain indartuak
- Forma deklinatuak.

Aditzean, dakigunez, hiru pertsona-motaren markak ager daitezke: NOR-NORI-NORK (edo hobeto, ZER-ZERI-ZERK) kasuei dagozkien pertsona-markak. Pertsona-markek forma desberdinak har ditzakete kokagunearen arabera. Marka horiek edozein euskal gramatikatan aurki daitezke<sup>35</sup>.

Zer esaten da horietan pertsona-izenordain hauei buruz?

- NI: beti hiztunari dagokio. Benvenistek esango luke: “*Est ego qui dit ego*” (1974: 260).
- ZU; HI: hiztunak bere aurrean duen entzulea izan ohi da; bigarren forma (HI), ZU-ren parekoa da baina lagunen artekoa-edo; askoz ere murriztagoa.
- GU: lehen pertsona pluraleko izenordaina, pertsona bati baino gehiagori dagokio, baina pertsona horien artean hiztuna ere sartzen da. Hots, GU = NI + beste zenbait pertsona.
- ZUEK: bigarren pertsona pluraleko izenordaina. Pertsona bat baino gehiago aipatzen da, eta horien artean bigarren pertsona (HI edo ZU) ere, hots, hiztunaren aurrean dagoen entzulea, sartzen da. Hots, ZUEK = HI edo ZU + beste zenbait pertsona.
- HURA: ez du pertsona-markarik, ez baita, berez, pertsona. Ez du marka propiorik.

Errespetuzko formak berbaldi ekarrietan agertzen dira soilik, eta beraz, azterketatik kanpo utziko ditugu.

---

<sup>35</sup> Ikus Euskaltzaindia 1985, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-I*, Iruñea (75-86. or.); orobat Zubiri eta Zubiri, *Euskal Gramatika osoa*, Elkar, Donostia (109-17 eta 423-424. or.).

4.4.1.1.2. *Ikuspegia hedatuz*

Gramatika datu horiez gain, egoki dakusagu izenordainen beste ezaugarri batzuk hona ekartzea, pisudunak baitira gabiltzan arazorako. Benvenistek (1974: 172-178) gauza asko diosku izenordainen auzi honetaz. Aipua luzea den arren, zitazioaren garrantziak justifikatzen duelakoan gaude:

“...los pronombres no constituyen una clase unitaria, sino especies diferentes según el modo del lenguaje del que sean signos. Los unos pertenecen a la sintaxis de la lengua, los otros son característicos de lo que llamaremos las “instancias” discursivas, es decir, los actos discretos y cada vez únicos merced a los que la lengua se actualiza en palabra en un locutor.” (op.cit. 172. or.)

“Debe considerarse ante todo la situación de los pronombres personales. (...) hay que ver que la definición ordinaria de los pronombres como consistente en los tres términos *yo*, *tu*, *él*, precisamente suprime la noción de “persona”. Ésta es propia tan sólo de *yo/tú*, y falta *él*.” (id. 172. or.)

“¿Cuál es, pues, la “realidad” a la que se refiere *yo* o *tú*? Tan sólo una “realidad del discurso”, que es cosa muy singular. *Yo* no puede ser definido más que en términos de “locución”, no en términos de objetos, como lo es un signo nominal. *Yo* significa “la persona que enuncia la presente instancia de discurso que contiene *yo*” (id. 173. or.)

“Así, pues, los pronombres son marcadores lingüísticos del anclaje del locutor en su discurso, unidades multifuncionales”. (id. 173. or.)

Horrela gauzak, gehiago sakondu daiteke izenordainen informazio linguistikoa osatze aldera. Bi iturri baliatuko ditugu guk sakontze lan horretarako: lehenbizi, ikusiko dugu aditz edo erlazio predikatu batzuen eta pertsona-izenordainen artean zer-nolako elkartzea edo korrespondentzia dagoen; bigarrenik, pertsona-izenordainek kasu bakoitzean duten erreferentea izango dugu aztergai. Batak zein besteak zerikusi estua du interakzio alderdiekin, eta bereziki bigarrena erabat lotuta dago polifonia ducrotiarrarekin.

Aurrenik, baina, pertsona-izenordainen elkartzeak ikusiko ditugu. Gure abururako, elkartze horrek adierazten du eginbeharreko eginkizunaren aurrean zein ikuspuntu edo posizio subjektibo duen aktante bakoitzak, eta baita rol aktantziala ere. Era berean, pertsona izen-ordainen eta aditzen elkartzeek, uste dugu, agerian jartzen dute aktante batek beregain hartzen duen posizioa sermoia den eginkizunean, homilia egiten edo jasaten duen modua hain zuzen. Ikusten uzten digu, laburbilduz, testuak duen mamitzeko modua, sermoian bakoitzari esleitutako rola.



### a) Pertsona-izen ordainen elkartzeak: aditzak eta esamoldeak

Pertsona izen-ordainak harturik, hiru elkartze mota bereiziko ditugu. Elkartze horiek *corpuseko* testuetan duten presentziak eta estatutuak hartaraturik egingo ditugu: batetik, izen-ordainak eta aditz jakin batzuekiko osakera aztertuko dugu; eta bigarrenik, pertsona-izenordaina duten zenbait esamoldez eginiko osakera bisitatuko dugu:

- Pertsona-izenordainen eta aditz jakin batzuen arteko elkartzeari dagokionez, hona sermoiaren zenbait aditz-giltza: “*uquitu*”, “*ecusi*”, “*aditzera eman*”, “*itzeguin*”, “*esan*”, “*aditu*”. Aditz horiek konbinatu daitezke, edo ez, “*behar*” eta “*nahi*” aditzekin. Modalitate horiek aintzat hartuko ditugu, ikusiko dugunez, munta handikoak baitira analisisian. Galdera zera da: zein pertsona-izenordain agertzen da zerrendaturiko aditz horiei loturik?
- Zenbait formulatan ere pertsona-izendordainak ageri dira, eta agintera-subjuntiboaren baitakoa da aditza:
  - *Dacuscun...*
  - *Demagun...*
  - *Asi gaitecen bertatic.*
  - *Gatozen...*
  - *Uquitu dezagun...*
  - *Asco da lasco degu gaurco.*
- Adierazpen zenbait ere, pertsona izen-ordainekin loturik daude:
  - “Enzun arretaz, Cristaua...”.

Predikatu horiei guztiei zorrotz samar begiratu gero, ezaugarri komun bat dutela ikusten dugu, alegia: zerbaiti buruz hitz egitea, zeri buruz den jarduna, gaia aurkeztea eta harilkatzearen ildoak seinatzea. Eta adiera hori duten aldetik eta neurrian egiten diegu arreta, hau da, jarduera norekiko enuntziatzen den estudiantuko dugu, zein izenordainekin lotzen den, zein rol duen bakoitzak bertan. Azken buruan, aditz eta formula horien analisiak komunitate enuntziatiboaren behaketa bideratuko digu.

Jarraian ikus daitezke jaso ditugun datuak:

- a.1) Lehenik, “**UQUITU**” aditzaren predikazio erlazioen kokatze enuntziatiboari ekingo diogu: zein izenordainekin konbinatzen den, eta kokatze moduak. Zera datxeko “*uquitu*”ri.

- **Forma inperzonal**, 3. gradua: “Azqueneco aldian uqitu ciran seigarren” (B 164). “Izkutatze” enuntziatiboa, kokatze inperzonal; “Azqueneco itzaldian **uqitu ciran zapigarren...** Gaur **uquituco dira...**” (B 181).
- “**NI**”-rekin konbinaturik agertzen da: “Orregatic ez ditut **nic uquituco** itsusienac...” (B 140). “Azqueneco itzaldi edo Platican aditzera eman nuan... Gaur **uquituco ditut** Aguinte oen contra guertatu oi diran cembait lapurreta”. (B 175). Baina NI-rekin hasitakoak gero GU bihurtzen dira, esaterako “eta batzuec len **uqitu ditut**” (A 71) esan arren, aurrerago “GU”rekiko kokatzen du egitasmoa.
- “**GU**”-rekin ere ageri da: “uqitu ditugu”/“genduan”, baita “uqitu dezagun” ere. “**Uqitu dezagun** orain, cer aguintzen digun zortzigarren Aguinteac”.
- “**ZU**”-rekin ez du agerrerarik: \*uqitu zenduan/\*uquituco dezu, eta abarrik ez dago.
- “**BEAR + DA**” eta “**BEAR + GU**” agerraldiak dira gehien agertzen direnak (“Uqitu behar da” eta “uqitu behar degu”). Ez da agertzen inoiz “**BEAR + NI**” (\*“bear deI” erakoa). “Azqueneco aldian itzeguin nizuen Jaunaren... ; gaur **uqitu bear ditugu...**” (B 221); “Orain **uqitu bear ditugu...**” (B 111; B 77; B 80; B 221); “Gaur **uqitu bear ditugu...**” (B 221).
- “**NAI + det**” da gehien ageri den asoziazioa. “Gaur **uquituco ditut...**” Agerrera ezezko forman: “Ez **det** uqitu **nai** emen (C 556).
- Orain, zerbait esatea komeni da izen-ordainen agerrera progresiboaren eta regresiboaren inguruan. Beste hitz batzuekin esanda, aditz bat (uqitu aditza, kasu) erabil daiteke sermoia aurkezteko: “uquituco det” (adiera progresiboa). Baina agertu daiteke aditz hori hurrengo sermoian, hots, lehenengo agerrerraren osteko sermoian, modu honetan “uqitu nuan”, “uqitu genduan” forman (adiera regresiboa). Gure irakurketa-tik, arestiko erabilera bakoitzak balio desberdina du: erabilera progresiboek balio performatibo altuagoa dute; aldiz, erabilera regresiboek balio deskriptiboa lukete gehiago. Bestela esanda, batetik, balio preskriptiboak ditugu, eta, bestetik, deskriptiboak edo narratiboak.

Hona hemen erabilera progresiboen eta regresiboen adibideak:

[IV 1] “Gaur uquituco ditut, Aguinte onen contra egin oi dituen, becatuac. Enzun arretaz”. (B 66)

Goiko adibide honetan erabilera progresiboa egiten da. Baina hurrengo sermoia horrela hasten da:

[IV 2] “Azqueneco itzaldian uquitu nituan, umeac, morroi, eta nescameac laugarren aguintearen contra egin oi dituen, becatuac”. (B 80)

Eta, beraz, [IV 2] adibidean aditzaren erabilera regresiboa egiten da, narratiboa eta deskriptiboa.

### a.2.) “ECUSI”

- “Ecusi” aditzarekin forma inbertsonala agertzen da “**Ecusita dago...**”.
- “**NI**” rekin konbinazioak urriak dira, “Atseguin andiarequin **ecusi det...**” (B 233). Oso gutxi dira NI-rekiko kokatzeak \*ecusten det/\*ecusico det/\*ecusi nuan.
- “**GU**” rekiko agerrerek ugariak dira, bai “GU” rekin eta bai “ZU” rekin komunzki dator: “**Ecusi guenduan** azqueneco aldian... Gaur itzeguin nai dizut” (B 374); “**Ecusi degu** leneco Eracusaldietan, Sacramentu miragarri orrek, bear dan prestaerarekin artzen bada... **Ecusi degu**, ematen dituala” (A 200).
- “**ZU**” rekin agertzen da nagusiki “Ecusi” aditza, “GU” rekin batera: “ecusten dezu”, “ecusico dezu” eta abar.
- “**BEAR + GU**” ohikoa da, “bear degu”. Ez da agertzen “**BEHAR + NI**” (\*Bear det). “Orregatic gaur **ecusi bear degu**, nola guertatu oi dan au. Asi gaitecen bertatic.” (B 353); “Orregatic neurri oei beguiratuaz, **ecusi bear degu** gaur, nere Cristaua... (B 323); “Onetaraco itzeguin dizuet len... **Ecusi bear degu** lenengo lecuan, cer debecatzen...” (B 129).
- “Ecusi **NAI**” ez da ageri jorratu dugun adieran.
- **Progresiboa/regresiboa**: ikus, esaterako, nola hasten duen sermoia: “**Ecusi degu**, nere Cristauac, zer dan escandaloa..., ta au ongui ezagutzeco **uquitu ditugu** becatu onetan erortzeco...” (C 566). Baina sermoi horren aurretik zera zetorren: “Gai ederra izango lizaquee tentazioac garaitzeco neurrien gañean itzeguitea, baña gaur utziric au **itzeguin nai det** becatuako bidea... Onetaraco aurrena **aditzera emango det** cer dan escandaloa...” (C 547).

Adibide gehiago ere jar genitzake:

[IV 3] “**Ecusi degu** aurreco dotriñan zenbat becatu, cein estaliac... Gaur **ecusi bear degu** cer dan, eta cenbat eratacoa gure griña, ta pasioen ucatzea, ildura, ta eziera au. Au ecusi ondoan **beguiratuco du bacoitzac**, zer utseguin duan alde onetatic bere Jaun ona amatzeco aginte andiaren contra. Enzun arreta andiarequin” (C 613)

Horren aurretik, hala ere, zera zegoen:

[IV 4] “Gure griña, ta pasioac, berenez ez dira ez onac, ez gaiztoac; baña Adan becatuan erori zanetic... Atoz nerequiñ, Cristaua, ta **ecusico dituzu** oquer oetatic batzuec. Enzun arretaz” (C 602)

### a.3.) “ADITZERA EMAN”

- “**NI**”: “Azqueneco Eracusaldian **aditzera eman nizquitzen**, gazteac, Mezaco sacrificio izugarriaren berriac, eta ondoren uqitu nuan...” (B 244). Aditzera eman nagusiki da emango det/emango dizkizuet, emango ditut.
- “**GU**”: ez du agerraldirik “GU”rekin (\*aditzera eman genduan/\*aditzera emango degu. Erabilera horiek ez dira agertzen. Soilik behin agertzen da gu-rekin: “aditzera eman gentzaquean”, baina deixi sozialekoa da.
- “**ZU**”: ez dago agerrerarik, hots, ez da onartzen mota honelakorik: \*aditzera eman dezu; \*aditzera eman zenduan; \*aditzera emango dezu/dezue... Kristauak ez du “aditzera ematen”.
- “**BEHAR**”: “Aditzera eman + BEHAR” beti da 3. pertsona (“aditzera eman bear da”). “BEHAR” eta “NAHI” beti orainaldian ageri dira, kutsu performatiboarekin. Mota honetakorik ez dago: \*aditzera eman behar nizuen; \*aditzera eman beharko dizuet.
- “**NAI**”: Aditzera eman nai dizut/dizuet/dizuedan asoziazioak onartzen dira.

Leneco itzaldi batzuec izan dira Jaunaren ... Gaur **aditzera eman nai** dizuet (B 208), ez da ageri \*aditzera eman nahi nizuen; \*aditzera eman nahiko dizuet.

- **Progresiboa/regresiboa**: Daitekeena da erabilera progresiboan “GU”reko egitea elkartzea eta hurrengo *Eracusen* haren ordeztu “NI” jartzea; edota inpersonala. Hainbat adibide ikusi ditugu jada. Oraingoan erkatu seigarren erakusaldia eta zazpigarrena:

[IV 5] “Aurrena **beguiratu bear degu**, *cer eta cembat guisatara dan batayoa.*” (A 45)

eta hurrengo *Eracus* alean, egitasmoa ez du GUREkiko lotzen, baizik eta NIREkiko:

[IV 6] “Azqueneco Eracusaldian **asi nintzan** Batayoco Sacramentuaren gañean itzeguiten” (A 56)

Eta bertan eta jarraian:

[IV 7] “Gaur **ecusi bear degu** lenengo lecuan: cer dan Sacramentu au eguitemo gaya. [...] Asi gaitecen bertatic” (A 56);

Eta:

[IV 8] “Azqueneco Eracusaldian **aditu cenduan**, Cristaua, cer dan batayoco Sacramendua eguitemo gaya. Aditu cenduan...” (A 63)

#### a.4.) “ITZEGUIN”

- **Inpertonala**: 3. pertsonan egiten da: “comunioren gañean itzeguin da” (A 468), “itzeguin da” (B 3).
- **“NI”**: gehien NI pertsonarekin lotuta agertzen da: itzeguin nuan, itzeguin dizut, itzegingo det. “Azqueneco Eracusaldian itzeguin **nizun...**” (A 599); “itzeguin **det**” (B 27); “Zeren Elizaren bost Aguinteen gañean **itzeguin uste dedan** gorago” (B 60).
- **“GU”**: “asi **guinan itzeguiten** baña ez **guenduan...**” (A 427); “Eta au onela bada, dan bezala, zer aurpeguirequin **itzeguin dezaquegu** gai onetan” (B 226).
- **“ZU”**: “itzeguin **dizut**” (A 417); “itzeguin **nizun**” (B 114; B 123; B 221), baina, adi, “ZU”k ez du hitzik egiten.
- **“BEAR”** eta **“NAI”** ere loturik daude Ni-rekin. “Orain itzeguin **bear det** (B 39); “Gaur, laburtxo bederic, itzeguin nai dizut (A 460); “Onetaraco gaur **itz eguin nai dizut**, Cristaua, Elizac anciñaco demboran ” (B 374).

#### e) “ESAN”

- **Inpertonala**: “**esan diran** (A 509); “**esan den** eran” (A 525); “**Esan diteque**” (A 401; A 481); “Orduan esan ciran gauzac “ (A 427); “**Esana dago**: *anz, azturac obiraño*” (B 281).
- **“NI”**: “**Esan det** “: (A 459); (A 473); (B 454); “**Esan ditut** gauza oec ceren (A 508); “**Esan det** gañera” (B 31) eta jarraian “esan det atzenean” (B 31). “Luceedegui lucatuco nintzaque” (C 414).

- “**GU**”: “**Esan degun** eran” (A 401); “len **esan ditugun**” (B 132); “Esan gidazu, Cristaua” (A 426).
- “**ZU**”: \*esan dituzu (A 418) baina ez guk aztertzen dugun adieran.
- “**BEHAR**”: BEHAR beti orainaldian eta 1. pertsona singularrarekin eta pluralarekin agertzen da: “Orain cerbait **esan bear degu**” (B 89). Onartzen du, baita ere, “**Esan bear da**” (B 230).
- “**NAI**”: beti orainaldian baina 1. pertsona singularrarekin: “Esan nai det” baina ez \*Esan nai degu. Ez \*esan nahi duzu eta \*esan nahi dugu. “Ez **det ecer esan nai**” (B 539) “**Esan oi det**” (A 605); “Ez **det esan nai**” (A 588); bai, ordea, “santuac esan nai du”.

#### a.5.) “ADITU”

- “**ZU**”: aditu bereziki “**ZU**”rekin agertzen da, nabarmen: “Garizuman asco egia izugarri **aditu badituzu** ere, etzera becatuaren lo astun orretatic esnatu” (C 498) “Azqueneco Eracusaldian **aditu zenduen** bezala”. Ondoko adibideak erakusten duen oposizioa interesgarria da oso:

[IV 9] “**Itzeguin dizut**, Cristaua, bost Eracusalditan Sacramentu guzien gañean. **Aditu dezu**, Sacramentuac dirala...” (A 45)

- “**BEAR**”: “Baña ez **da aditu bear** maiz...”, “Au bera **aditu bear da** Minerba egunetarako ere” (C 58); “mandatu oec **aditu bear ditugu** biotz umil batequin” (A 405)
- “**NAI**”: Nai-rekin agerraldi bakanak: “Zuec, uste det, nere enzunleac (sic), ansia andiarequin gauza oec **aditu naico** dituzuela” (C 85); “gertatzen da ascotan, eta iñoiz ere baño geyago egungo egunean, **guizonac edo aditu nai** ez izatea Jaungoicoaren itza” (C 137). Lehenengo bi liburukietan ez da agertzen “aditu + nai”.
- **Progresiboa/Regresiboa**: bi erabilerak aurkitzen ditugu, eta eszena enuntziaboaren berri emateko gaitasuna dute.

[IV 10] “Amaicagarren Eracusaldia da gaurco gai onen gañean: eta azqueneoan **aditu cenduan**, nola, becatuac ecarri oi dituan...” (C 96)

Eta horren urretik zera esana zuen:

[IV 11] “**Aditzera emango det** lenengo lecuan: zeñ miñanze gaiztoa dan becatuan erortzeco erraztasuna, eta oitura... **Enzun, becataria**, gaitz onetatic aldegitico gogo, eta asmo sendo batequin” (C 125)

Orobat, “**Entzun arretarequin**”, soilik agertzen da ZUrekin lotuta. Maiz-maiz aposizioz markatzen da solaskidea. “Entzun, Cristaua, arretarekin”.

#### a.6.) “BEGIRATU”

- **Inpertonala:** ez dago agerrerarik \*begiratu zan \*begiratu da motakorik.
- “**NI**”rekin ere ez da ageri: \*begiratu det/\*begiratu nuan/\*begiratuco dira.
- “**GU**”rekin agertzen da gehien, eta uztarketa hori gailentzen da: “federen argiarequin **begiratu genduan**” (B 409) “Urrena, **beguiratu genduan**, lenengo lecuan, nola Jaunac gizon galdua...”(B 410). Maiz agertzen da “begiratuco degu” ere.
- “**ZU**”: NAHI eta BEHAR modalitateekin agertzen da.
- “**BEAR**”: Hona gehien agertzen den batuketa: begiratu + bear + zu/gu. Horrelako jokoak ditugu: “**beguiratu bear diegu** beste gauz ascori ere. Au ongi ezagutu **dezazun**, Cristaua, enzun **esatera noana**” (B 214); “Beguiratu **bear degu** gaur” (A 493); “Au da **beguiratu bear deguna**” (A 496); “Urrena **beguiratu bear degu**” (A 618); “Aurrena **beguiratu bear degu**” (A 45)
- “**NAI**” + zu: “**Begiratu nai badiezu**”.
- **Progresiboa/Regresiboa:**

Ez du onartzen begiraturekin mugimendu regresiborik. Progresiboak jasotzen dira:

[IV 12] “Aurrena **beguiratu bear degu**, zer, eta zenbat guisatara dan bataioa. Urrena, zeñ gauza bearra dan Ceruraco. Atzanean, nolaco ontasun, eta amorioa agertu digun Jaunac bataiora deitzean. Enzun arretarequin, Cristaua.” (A 45)

Eta hurrengo *Eracus* alearen hasieran zera dakar:

[IV 13] “Azqueneco Eracusaldian asi nintzan bataioco Sacramentuaren gañean itzeguiten. **Aditu cenduan**, Cristaua, cer, eta cenbat guisatara dan bataioa. **Aditu cenduan** gañera, ceñ gauza bearra dan Ceruraco.” (A 56)

	INPER-TSONALA	NI	ZU	GU	MODALAK	PROGRES/REGRES
					BEAR/NAI	
	LOG	LOG	LOG	LOG	LOG LOG	
ADITZERA EMAN	Ø VV	VVV	Ø Ø Ø	V Ø Ø	VV	VV
ESAN	VVV	VVV	Ø Ø Ø	VVV	VV	VV
ECUSI	VVØ	Ø Ø Ø	VVV	VVV	VV	VV
UQUITU	VVV	VØV	Ø Ø Ø	VVV	VV	VV
ITZEGUIN	VVØ	VVV	Ø Ø Ø	Ø Ø Ø	VV	VV
ADITU	Ø Ø Ø	Ø V Ø	VVV	Ø Ø Ø	V Ø	VV
BEGIRATU	Ø Ø Ø	Ø Ø Ø	Ø Ø Ø	VV	VV	VV

L: lehen aldia; O: orain aldia; G: gero aldia



## b) Izenordainak banaka eta elkarrekiko

Aurreko orrialdeetan pertsona-izenordainek zein predikaturekin lotzen diren ikusi dugu. Metodologiaren baitan dauden hiru urratsen lehena ematen ari gara, hots, maila linguistikoko azterketa egiten. Orain pertsona-izenordainen gainean beste analisi bat eginez, banan-banan ikusiko ditugu.

Esan behar da, ezer baino lehen, pertsona-izenordain asko eta asko berbal-di ekarrietan edo berbaldi “txertatuetan” aurkitzen direla. Adibidez:

[IV 14] “Eguiten du gañera becataria *Jaungoikoaren adisquide*, au aditzera eman zuan Jesu-Cristoc, esan cienean Apostoluai: *emendic aurrera ez dizuet esango: nere servitzariac, baicic Nere adisquideac*” (A 128)

[IV 15] “Pitagoras fedegabea, eta gentilla zen: alaere bere icasleei esaten cien, autu bear zituela egunean bi denbora, eta gogora ecarri bear zituela iru gauza: *cer eguin det, nola eguin det, eta eguin gabe cer utzi det*” (A 131)

Adibide horietako “NI” horiek ez dira esatariarenak, beste pertsonaia batenak baizik. Beraz, printzipioz behintzat, ez dira kontuan hartuko.

Sermoiaren, edo areago, genero homiletikoaren barruan dautzan subjektuen arteko erlazioak aztertu nahian ari garela, interesatzen zaigu jakitea zein den sermoietan barreiatuak dauden “NI” horien erreferentzia. Munduko izakia? Izaki diskurtsiboa? Hainbat bereizketa egingo dugu NI horien artean, nahiz eta, esan gabe doa, beti ez da posible modu diskretuz erabakitzea.

Gatozen ondoren pertsona-izenordainen erreferentzia-balioen zerak ikusten:

### b.1.) NI

NI izenordainaren baitan honako NI hauek bereizi ahal ditugu:

– **NI-1** edo izaki (auto)biografikoa.

Gure hausnarketa, gogora bedi, oinarrituko da Ducrotek (1984: 199) defenditutako bereizkuntzan. Hala, Ducrotek bereizten du Esatariaren barnean halako desdoblamentu bat: Esataria, esataria den aldetik (L), eta Esataria munduko gizaki bezala ( $\lambda$ ). Lehena da enuntziatu baten agerrera egiten duen instantzia “*celui que l’énoncé désigne comme son auteur*” (Anscombe 1985: 7); bigarrena ez zaigu horrenbeste interesatzen analisisian, diskurtsoan errepresentatuta agertzen den neurrian jasotzen dugu soilik.

Jar dezagun adibide bat “NI” horiek ezaugarritzen hasteko:

[IV 16] “Noizbait, noizbait asitzera noa, nere Cristauac, aspaldi nai izan dedan lanean, edo Cristau aciai dotrina azaltzen, eta adirazten. [...] Cristau aciai arguitasun au ematea, eta Ceruraco bidean arretarequin ibiltzeko esnatzea da Eliz Ama Santac animen arzayai escatzen dien gauza bat (a); eta ona cergatic sall oni equitera noan. Ez naiz dotrinaco gauzac uquitzearequin contentatuco, baicic aditzera emango ditut gañera Jauna amatzeko, eta servitzeko ditugun bide, edo motivo andietatic cembait. Enzun ezazue bada viotz manso, ta umill batequin ... Enzun nazue contuz.” (C 399-400)

Zein da arestiko adibidean agertzen diren “NI” horien erreferentea? Edo, oraindik hobeto, “NI” horiek guztiek erreferente berbera ote dute?

Esan daiteke lehen erreferentetzat autorea dutela eta “autorea” esatean, testuaren egilea esan nahi da. Gure kasuan Agirre gizonarengandik oso hurbil dagoena. NI (auto)biografiko hau sermoietatik kanpo bizi da. Berak erabaki du sermoiak egitea, eta egin ere egin ditu. Sermoiak autore horren sorkuntzak dira, beraz. Nolanahi ere, autore horrek berbaldiak gauzatze aldera, narratzaile edo esatari bat sortuko du, testuaren erantzulea, testua bere gain hartzen duena.

Hona hemen beste adibide bat:

[IV 17] “Asco aldetara sayatu naiz, eta azquenean autu det modu bat... Nic (edo nere orde bestec) esaten du liburutic...: eta nic uste det, modu onec gañeraco Sermoi guciac baño on geyago ecarri duala. Emen ipifinico dira jayera biac...” (C 15)

“NI” horiek ere biografikoak direla esan daiteke (hala ere, bigarrena esatariari legokioke). Zer gertatzen da ondoko adibide honetan?

[IV 18] “Aditu det, guerrariac erri batzuetan nescachai nai duena aditzera emateco... Ez da basoetan oteric oei su emateco? (B 119)

Arestiko adibidean lekukotasun bat ageri da: esperientzia partikular baten berri ematen da. “NI” hori historikoa da. Nor da entzun edo jaso duena? Beraz, “aditu det” horren erreferentea autoreak behar du izan. Nork, bestela, jaso du lekuko hori? Hala ere, azkeneko adibideko “aditu det” instantzia enuntziatibo orokorrago izan daiteke. Hau da, nahiz eta “guerrariac” hitzak eragozpenak jar diezaiokeen, enuntziatu horrek bere horretan ber-enuntziatzeko baldintzak betetzen ditu (ez ahaztu gure *corpuseko* sermoiak non-nahi erreproduzitzeko ereduak direla). Gisa horretako anbiguotasun ugari aurki-

tzen dugu. Gure ustez, anbigutasun hori sermoiak abian jartzen duen elkarreagin estrategia baten barnean azaldu beharra dago. Nolanahi ere, galde daiteke, ber-enuntziatzearen baldintzak zeintzuk diren. Sermoiok erabiliko dituzten sermoilari guztiek, buruz ikasi eta bere horretan errepikatu ditzazkete testuak?

- **NI-2:** Esatari hau ez dago autorearekin nahasterik, NI-1 autobiografikotik desberdina da. NI-2 sermoien esataria edo narratzailea da, diskurtsoko izaki bat. Hau da obraren hasierako “*Carta a un amigo*” testuaren idazlea<sup>36</sup>. Hauxe berbaldiaren barneko antolatzailea eta arduraduna. Bere ahotik datozkigu ia hitz guztiak eta gutxitan onartzen ditu traslazioak (ikus beherako NI-3 eta NI-4ri buruz dioguna). Adibidez esateko:

[IV 19] “Atzo itz eguin nuan misterio onen gañean. Jesusen piztuerac aditzera ematen digu, S. Pauloc dionez, gure arimen piztuerac: orregatic gaur itz bi esan nai dizquitut onen gañean. Aditzera emango det lenengo lecuan...” (C 10)

Ez da dudarik, “atzo”, “gaur” deiktikoak gora-behera, esatariari dagozkio- la “NI” horiek. Duda gehiago daukagu hurrengo kasuan:

[IV 20] “Ascotan itzeguin dizut, Cristaua, gauz oen gañean goiceco Mesetan, eta jay arratsaldeetan, Doctrinaren parteac azaltzeco demboran, baña zazpi Sacramentuac dira gauz añ andi, ta miragarriac, non doctrinaco uquitze utsarequin ecin utzi ninzaquean. Orregatic artu det asmoa Sacramentuen gañean betaz itzeguiteco, Meza nagusietan. Ona da eguneco Evangelioaren gañean itzeguitea, baña gure errietan bearragoa da Sacramentuen berri, ta ezagüera cristauai ugari ematea. Ojala itzeguin albaneza nic gay andi onec escatzen duan eran! Gaur, sarrera ondo eguiteco, eman nai dizquitut, Cristaua, [...]. Ondoren beguiraldi bat emango diogu [...]. Enzun arretaz.” (A 6-7)

Ikus daitekeenez, NI autobiografikoaren (NI-1) eta Esatariaren NI-aren (NI-2) artean nolabaiteko jarraipena egiten da. “*Artu det asmoa*”, NI hori autobiografikoa da; “eman nai dizquitut” pasartekoa, ostera, narratzailea edo esataria. “Ojala itzeguin albaneza nic” NI-1ek ez ezik beste edozeinek (edozein sermoilarik) ere har dezake bere gain...

---

<sup>36</sup> Hauts batzuk harrotu ditu “*Carta a un amigo*” hasierako ohartxo horrek, hots, *Eracusaldiac* obraren hasieran agertzen dena (3. or.). Batzuek esan dute Mogeli idatzitako oharra izan daitekeela, beste batzuek obispoari idatzitakoa. Baina badirudi editoreei zuzendutako oharra dela, eta, esan bezala, sermoiarekin esatariari hartu behar du horren erantzukizuna eta ez izaki biografikoak.

“Aditzera emago dizuet Aguinte onec esaten diguna”: GU honek salatzen du dizuet hori ez dela autorea, baizik eta sermoilaria esatari den aldetik.

“*Iru gauza aditzera eman nai dizquitzuet*”: ez da autorea, autoreak sortu duen narratzailea baizik, eta ez dago autoreari atxikituta. “Aditzera emango det, cer debecatzen, eta cer aguintzen zacun bi aguinte oetan. Entzun, Cristaua, arreata onarequin” (B 165).

Informazio linguistikoari dagokionez, prozedura eta marka ugari dago NI-2 honen presentzia markatzen eta salatzen dutenak. Ez goian aipatutakoak bakarrik: berari dagozkio harridura-esaldiak, interjekzioak eta interpelazioak ere. Eta berari dagozkio “uquitu”, “aditzera eman”, “itz egin” aditzak, agertuko direnak “GU”rekin batera tartekaturik edo inpersonalarekin. NI-2 honek, orobat, bere ditu esamolde zenbait: “hasi gaitecen bertatic”, “enzun arrearequin”, “esatera noana”... Era berean, dakigunez, berari dagokio bikoiztea, Ducroten zentzuan: esan nahi da, enuntziatzailearen ikuspuntuarekiko harremanak erabakitzea eta azaltzea. Enuntziatzailearen eta enuntziatzaile-kidearen harremanek hiru balio edo posizio desberdin bil ditzakete:

NI-2 hau, autobiografikoa ez bezala, moldakorra da, hiru erlazio modutara egokitu ahal baita: a) autonomia, edo So; b) adostasunekoa, edo So = S1; eta, c) So ≠ S1, edo desadostasunekoa. Kontu hauek, dena den, interakziozko informazioa lantzean ikusiko ditugu sakonago.

Badira beste bi erabilpen ere kontuan hartu beharrekoak. Oso hurbil daude bata bestearengandik eta beharbada aurkeztu beharko genituzke aldaki gisa, huts-hutsean. Bi kasuetan, erreferentea anbiguotasunez ageri da, “lausotuta”, muga zehatzik gabe:

- **NI-3**: NI-1 autobiografikoaren eta NI-2 esatariaren artean sortu edo “fabrikaturiko” NI da. Erraz desplazatzen da testuetan batetik bestera. Modu horretara jokatuta, bermatzen dira sermoien ber-enuntziatze baldintzak; noski halaxe behar du, xede horiexekin ondu baitziren aztertzen ditugun testu-gidoiak. Hornidura linguistikoari dagokionez, aktualizazio ahul eta bigun baten ondorio da NI-3 hori. Diogunaren argigarri, hona adibidea:

[IV 21] “Asi **nintzan** azqueneco Eracusaldian ezconzaco Sacramentuen gañean itz eguiten. Aditu cenduan orduan, nere Cristaua, Sacramentu oni dagozcan cem-bait berri. Aditu cenduan gañera [...] Aurrena ecusico degu, cer doai [...]” (A 568)

Ohar bedi nola pasatzen den “Asi **nintzan**”-etik “Aurrena **ecusico degu**” mailara. Alderdi honetatik, sermoiak ez dira tokian-tokian erreproduzitzeko

“gidoiak” bakarrik, bere ñabardura eta “minimalismoan” ere, osotasunean hartu beharreko produktuak baizik.

- **NI-4:** NI-en desplazamendu bidez edo ondorioz gertatzen da NI-4 ere. Hornidura linguistikoa aurrekoaren antzekoa da. NI-4 honek nolabaiteko “hitzarmen polifoniko” bat salatzen du. Sortutako erreferentea traslazio bidez gertatzen da, hots, erreferente batetik bestera erraz pasatzerakoan. Zertan datza, baina, “hitzarmen polifonikoa” delakoa? Esataria beste izaki batzuen gorputzez eta hitzez baliatzen da, hots, bere inguruko izaki batzuk “maileguan” hartzen ditu eta haiei mintzarazten die. Bere burua ere hor barruan sartzen du. Prozedura linguistikoa, estilistikoa eta enuntziatiboa dugu, persuasiboki oso errentagarria. Jarraiko adibidean, David santuarekin batera mintzo da esataria; eta hurrengoan, berriz, herritarrarekin batera mintzo da:

[IV 22] “¿Cer eguin al dezaquegu becatu izugarri oen barcamendua Jaunagandic iristeco? Cer ezpada David Santuaquin Jaunagana biotz osoarequin biurtzea eta damuz otsegitea; Nere Jaungoikoa! Andia da, eta andia neurri, ta mugaric bague zure Urriquimendua; urricaldu zaitex nizaz, zure urriquimentuaren anditasunari dagocan eran: *Secundum magnam Misericordiam tuam*. Ez da asco au, becatu onen barcacioa iristeco, bear da gañera animetan eguin ditugun calteac desequitea aleguiñean ¿baña deseguingo dira, ezpadaquigu noraño zabaldu diran calteac? Zuc bati eman diozu becaturaco bidea, arc eracutsi die bide gaïstoa amarri, amarrac millari ..., eta eztaquigu noiz bucatu dan zuc eracutsi cenduan bide oquerra” (B 124)

[IV 23] “Nere Cristaua: au onela izan, eta guc utzi degu Jesus, eta esan degu obraz. Ez det Jaun au servituco? *Dixisti non serviam?* Baña goacen aurrera...” (B 251)

[IV 22] adibidean, hasteko, galdera erretoriko bat egiten du esatariak. Erantzun gisa, David Santuaren hitzak dakartza, baina, ohar bedi hitz horien izaera ekarria, txertatua edo polifonikoa oso-oso “ahul” markatzen dela: “*David Santuaquin... biotz osoarequin otsegitea*”. Erreparatu behar da, era berean, nola pasatzen den NI batetik beste NI batera, nola elkartzen diren sinbiotikoki Daviden eta esatariaren NIak. “*Nere Jaungoicoa...; urricaldu zaitex nizaz*”. Oso kontuan hartzekoa da estrategia horren espektakulu linguistikoa: estali egiten da, lausotu, aktante bakoitzaren identifikazioa, noraino iristen den bat, noraino bestea, nor den nor, zer dagokion bakoitzari. Aktualizazio ahulak, dudarik gabe, ahalbidetzen du ko-enuntziazioa eta, beraz, ber-enuntziatioa. Horregatik dira ugariak nominalizazioak (*Plat* testuetan horren uga-

ri den “*Otseguitea*”, esaterako); izan ere, nominalizazioak aktualtze-ingar ahula du. Ildo beretik interpretatu behar dira zenbait aditzen flexioak (“Zer eguin dezaquegu”...), zenbait esaldi mota, galdera erretorikoak, apelatiboak, bokatiboak edo harridura markak ere (“Nere Jaungoicoa!”). Esan bezala, egitura linguistikoak ko-enuntziatioa eta ber-enuntziatioa errazten du eta posible egiten.

Ber gauza gertatzen da otoitzetako testuekin ere, ez dute aktualizazio garbirik. Baina otoitzetan fusioa, erabateko bat egite mistikoa, separaziorik eza, guztien urtze-puntua gertatzen da, oso leku gutxitan bezala gertatu ere:

[IV 24] “Birjiña txit Santa, gugatik neque, eta naigabez bete! Zu cera bizitza ondu nai duen becatari gucien bitartecoa, eta Ama gozoa. Nai onequin zugana nator gaur, eta esqueintzen dizut Bederatziurren au zure neque, eta naigabeen icenean. Nik eskatzen dizudan ontarte, eta mesedea da, iritsi deguidazula zure Seme Jaunagandic, confesio on bat eguiteco, aurrera becatutic aldeguiteco, eta nere egunac ongi bucatzeco gracia. O Ama guciz bera! Zu cera nere vizitza: zu nere atsegin-contentua, eta esperanza. Ez arren ucatu, gaur escatzen dizudan mesede au, ez arren Ama maitagarria.” (B 399)

## b.2.) ZU/ZUEK

Hona hemen bereizi ahal ditugun desdoblamentuak:

– **ZU-1:** Entzule “arrunta”, iganderoko bezeroa, “aurrean” duena da ZU-1. Edozein modutan, ez da nahastu behar publikoa (elizan pulpitupean presentetzat hartzen duena), eta enuntziatzaile-kidea, zeren obraren destinatarioa askoz ere zabalagoa da (gogoan har obraren hedapen asmoak, *Eracusaldien* helburua eta eskaintza, eta abar).

Sermoiak kate motzean hartzen du ZU-1 hau, nahiz eta “ZU ↔ GU” jokoa bigundu/leundu presio hori. Sermoilariak hurbiletik eta ondotik segitzen du “ZU” hori, batzuetan konprenituz eta babestuz ere bai:

[IV 25] “baña jaquizue, nic esango ditudan gauzac izango dirala, ez zuen contra, baicic zuen alde, eta itsatsi ez daquizuen, gaizqui dirudian, azturen bat” (A 576-577)

– **ZU-2:** Jenerikoa edo orokortzailea da:

[IV 265] “Demagun, iristen dituzula munduac” (B 405)

Horren usu agertzen den “Zu, nere Cristaua...” ere gisa onetakoa da:

[IV 27] “Beraz, nere Cristaua, gure siniste, edo fedecac eracusten digunez **il** bearra cera zu, eta il bearra gucioc, eta utzi bear ditugu laster aurqueriac” (B 44)

[IV 28] “Nola arquiteuco **cera**, eta guera, nere Cristauac? (B 461)

[IV 29] “...esaten diozula: *Urlia, picherdicho bat ardo edan bear degu elcarrequin*” (B 121)

– **ZU-3**: Espezifikoa da: “emakume, nagusi, gazte...” nahiz eta sarritan horiek “ZUEC”-en bitartez enuntziatzen diren (senar-emazteak, eta abar). ZU-3 hau NI-3ren kidea da. Hau da, solaskide ez eze, enuntziatzaile-kidea da. Esan behar da “ZU” honi ari zaiola gehienetan, solaskide fisikoari (ZU-1) baino areago<sup>37</sup>.

### b.3.) GU

GU izenordainak biltzen dituen erreferente desberdinak honakoak dira:

– **GU-1**: Deixi sozialekoa edo akademikoa. Bestela esanda, NI-ren bertso soziala. Beste batekin erdibana enuntziatzen duen itxura egiten du, inpositibo edo gogorreki ez agertzeko-edo. GU-1en agertzen dira erdibana enuntziatzen dituen aditzak: “Azqueneco aldian itzeguin nizuen...; gaur **uquitu bear ditugu...**” (B 221); “Orain **uquitu bear ditugu...**” (B 77; B 80; B 221). Honela formula genezake GU-1: “GU” = “GU/-ZU”.

Forma horietan esatariak autoerreferentzia saihesten du, hala ere adierazten du bere presentzia zeharkako mekanismoen bidez, pluraleko lehen pertsona horiez. Hala ere, erreparatu behar da GU horiek ez direla “errealak” edo “benetakoak”. Zein da horien erreferentzia? Denotatzen dute subjektu multzo bat? Halako kasuetan, plurak horiek izendatuko ditugu “erreferentzialki motibaturik ez dauden” pluralak (Hernández Sacristán 1995: 482). Hau da, sasipluralak dira eta jotzen dira kortesiazkotzat edo fikziozkotzat. Sasi plural horietan, erreferentzialki benetakoak ez diren horietan, lehen pertsona, “ego”a

<sup>37</sup> Juan Garziak zera dio bigarren graduaren inguruan (1997: 433-34): “Joerak joera, bigarren gradua testuan bigarren pertsona gramatikalezko erreferentzia deiktikoaren batekin nahasteko, solaskide esplituren bat behar litzateke, eta horregatik erabil daiteke lasaiago eginkizun anaforikorako”. Agirre Asteasukoak justu kontrakoa egin zuen ia, eta akaso zerikusia izango du horrekin beraren *Eracusaldiac* jende aurrean irakurtzekoak izateak, bigarren graduaren erabilerrak entzuleak ziren pertsonekin nahastea saihestu behar baitzuen.

*desfokalizaturik* agertzen da. Erabiltzen dira, hala ere, adierazkortasun aldetik errendimendu handikoak direlako: elkarregerinerako oso aberatsak dira, “lankidetzaz” inplikatzeko dute, inklusiozko itxura baitute (solaskidea sartzen dugu hobeto komunikatu guran). Hala ere, “asi guinan” jarri dezakeen arren, edo “uquitu bear ditugu”, bietan, “asi” eta “uquitu” horietan, soilik dago “ego”a praktikan, nahiz eta enuntziatzaile-kidea sartu den arrazoi kooperatiboak direla-eta:

- **GU-2:** Kristau taldea; Adan-en ondoko Adan berriaren (Jesukristoren) jarraitzaileak eta salbatuak. Hauxe da gehien agertzen dena, hots, kristau-fededunen taldea. Esataria bera ere talde honetako kidea da, eta erdibana dituzte zenbait kontu taldekideok. Horrela, “GU-2” = “ZU/ZUEK+NI”. GU honi kontsentsuzkoa ere esan geniezaioke: kristauen (ar)taldea biltzea lortzen du:

[IV 30] “Gure fedea eracusten diguna...” (B 404; B 406)

[IV 31] “Heregeac, gure legueco Santuac ez onratzeagatic, legue zarrecoenac artzen ditue, eta guri dagoquigu gure Santuac onratzea” (A 82)

[IV 32] “Itzac onela esaten dira, ceren ezdaquigun escuan, edo oñean ematen dan batayoac balio duan, edo ez” (A 66)

Kristauen “GU” talde hau har daiteke “besteen” edo “haien” oposizio gisa. Binarismo hori, hala ere, ezkutuan gordetzen da edo behitzat gutxitan azaltzen da sermoietan. Batzuetan, GU hau dispositibo ideologiko batekin irmoturik dator, talde mitiko-erlijioso bati dagokion historia eta genealogia-aren sakontasuna duena: Salbazioaren historia: Adan → Noe → egoera berria → Kristo → Gu (Errebelazioaren depositarioak) → Eliza katolikoa. “GU-2”, beraz, kristauen ahotsa genuke.

- **GU-3:** Unibertatsala, gizakia. Integraturik daude: Cristauak + gure gura-soak + GU; beraz, GU = NI + ZU + HURA.

[IV 33] “¿Cetaraco eguin Jaunac guizona? ¿Cetaraco eguñiac guera gu?” (B 403)

[IV 34] “Eztaquigu noiz ilco garen” (B 449)

- **GU-4:** Predikarien taldea da, hots, “adituen eta arituen” taldea. Talde honen arrastoak gutxi dira eta aski anbiguoak: ez dugu adibide argirik eta zehatzik. Eta hori “a los párrocos bascondagos” gizataldeari zuzen-



duta daudela sermoiok. Autorea ia inoiz ez da biltzen talde honekin; aitzitik, egiten da kristauen eta hurbileko taldearen baitakoa, ikusi dugun bezala:

[IV 35] “Eztaquigu eguiaz biurtu zan...” (B 406)

[IV 36] “Eztaquigu, noiz Jaunac aurrari ematen dion anima” (B 118)

[IV 37] “Guc daquiguna da...” (B 440)

Ez dago esaterik, “GU” horien erreferentea predikariak talde gisa diren (NI + HURA – ZU/ZUEK), edota hemen ere “ZU” + “NI” + “HURA” den. Ez dago lerrozte beterik edo garbirik predikari-teologoaren taldearekin. Alderdi hau interesgarria da Agirrek eratu zuen ustezko taldearen auzia dela-eta (ikus gorago, 1.3. atala). Sermoiaren barneko ezaugarriak jarraituz, ezin konfirmatu ez ezetzatu ere taldearen hipotesi hori. “Aditu eta arituen” taldea ixiltzea eta ez aipatzea, generoaren baitako murrizketa bat dugu, bestela esanda, ezaugarri sozio-diskurtsiboa da, geroago ikusiko dugun bezala:

- **GU-5:** modestia plurala. Plural fikzionala da edo erreferentzialki ez-motibatua. Plural mota honek solaskidea baztertzen du argi eta garbi:

[IV 38] “Asco degu onenbesterequin, ta guchi esan badegu ere itzeguiteco gai onentzat, gueyegui bear bada ascorentzat.” (C 65)

Hala ere, sermoilariak ez ote du saihesten modestiako plurala? Itzuri egiten dio, esaterako, lehen pertsona erabiliz: *esan nahi det* darabil eta *ez horrekin ez dugu esan nahi*. Eta zer egiten du saiheste horrekin? Apaltasunari muxin ala modu errealagoan agertu? Burugainago? Inposatzailleago? Zuzenago? Asko dira “gu”ren anbiguotasun erreferentziala profitatzen duten moduak, baina Agirrek ez du nahastu nahi bere ahotsa predikari talde batekin, urrundu egingo bailuke erreferentzia mezua harengana eramanez gero. Ez du haiekiko konpliziterik bilatzen, ez du haiekiko integratzerik nahi. Ez da horregatik pentsatu behar, hala ere, interes pertsonalak ekartzen dituenik lehen planora.

Laburbilduz, hona hemen GUK biltzen dituen erreferentzia-balioak:

- GU = A; A = GU: “GU” adiera zabalenean, unibertsa; gizartea, gizon-emakumeak. Non GU = NI + ZU + HURA, adibidez, Jaungoikoaren aurrean: “Jaungoicoac egin gaitu...”.
- GU = B; B < A= “GU” lokala, hau da, intentsoagoa, hedadura murriztagoia: esataria + solaskidea, beti ere inklusiozko erlazioan; horrela

izatean, beharbada, berorren tokitasuna enuntziatzen du (GU = euskal-dunak?, “hemengoak”?, “gure artean”?), non GU = NI + ZU + ZUEK.

- GU = C; C < A: non GU talde gisa edo talde erreserbatua agertzen den. Gisa honetako erabilerak urriak eta anbiguoak dira. Non: GU = GU / - ZU.

#### b.4.) HURA/HAIEK

3. pertsona ez da horren ugaria, ez hegemonikoa sermoietan. Hala ere badu presentzia. Hara non topatzen ahal den:

- **HURA-1:** Dotrinaren azalpena, maiz narrazio gisa ematen dena, 3. pertsonan:

[IV 39] “Adan gure lenvicio gurasoa becatuan erori zan bitarteco demborari deitzen zayo *inocenciaco* dembora” (A 7)

Azalpenean dagokion pertsonaia jartzen du eszenan: Jesukristo, santusantak, Adan, Luzifer eta abar. Definiziorik bada, lotzen da 3. pertsonarekin: “deitzen zayo...”.

[IV 40] “Ongui nai ta amorio oni beguiratzen bazaio, erraz ezagutzen dira ezconduen eguin-bideac, eta au izango da gaurco itz aldiaren gaya.” (A 568)

Arruntagoa da, arestikoaren aldean, flexioen presentzia: “...beguiratzen badiegu erraz ezagutuco dezu...”.

Eztabaida teologikoak ere 3. pertsonan datoz:

[IV 41] “Cer ote da beldurrezco damua, edo Atricioa esaten diogun au? Au da damu bat biotzean sortzen da, lenengo lecuan, ceren gauza guciz itsusia da...” (B 299)

Elizaren prezeptuak eta betebeharrak 3. pertsonan datoz, nahiz eta konmutazioak onartzen dituen: da/duzu/dugu. *De facto*, esatariari irristatzen zaizkio “nahasteak”, interakzio-informazioan ikusiko dugun moduan:

[IV 42] “Batayoco itzac berritzea da oitura, edo usanza chit ederra, eta eguin diteque asco demboratan, eguin dezagun contu Confesio, ta Comunioco egunetan, urtearen asieran, batayoaren urte betean” (B 385)

[IV 43] “Jauna bear dan eran amatzeco, ez da asco beraren Ontasun baztergabea ezagutzea, baicic eguin bear dira beraren, eta Elizaren aguinguac; baña egingo ditu guizonac oec, oen berriric ezipadu?” (A 6)

– **HURA-2:** 3. pertsonan taldeak eta erkidegoak izendatzen dira: bekataria eta bekataria, bekatu egileen erkidegoa. Orokortasun kutsua du, beraz. Hurrengo “guizonac” balio unibertuala du, giza taldea du erreferente:

[IV 44] “Guizonac becatuari biotzean lecu ematen dionean, utzizen du bere Jaun, eta Jaungoicoa, eta ipintzen du biotza emengo gauza debecatuetan....” (B 292)

Balio orokortzaile honetan hainbat multzo aurkituko ditugu: bekataria, kristaua (beti ere aposizio ez denean):

[IV 45] “eta becatu larri gucien damua sortzen ezpada, ez da becataria biurzen Jaunagana biotz guticic, baicic erdizca, edo laurdenca, eta ez du eguiten biotz berria, baicic erdia zarra, eta erdia berria, edo obeto esateco gucia guerutzen da zarra” (B 297)

– **HURA-3:** Indefinituak genituzke. Berbaldi ekarriaren analisisa egitean ikusiko dira bereziki izenordain hauek:

[IV 46] “Norc eztacus, ceñ ongi nai, ta ontasun andia aguertu zuan gaganonz?” (A 11)

[IV 47] “Baña asco, eta asco dira sendagai au beren puzoi biurtzen duenac: batzuec ceren, escatzen duan, prestaera eguiteco sayatzen ez diran; besteac, ceren lotsaz, edo gaiztaqueriaz becatuac diran bezala, eta diran adiña aitortzen ez diuen...” (A 18)

[IV 48] “Edozeñec beregan ezagutzen du, gauz onac eguiteo guerala naguiac, eta gogo guchicoac” (A 21)

Ohar bedi, dena den, “GU”z osatutako erlazioek balio inbertsonala dute la euskaraz, eta behar bada joera horrek argia emango liguke GU-4ren auzia ebazteko ere. Hau da, “**Ez daquigu** noiz nescachac arima hartzen duen”, berterik gabe, inbertsonal balioa dauka, eta ez da talde bat erreferente.

Orain arte bildu ditugun datu eta analisi guztiak, honenbestez, begirada globalago batez ikusteko moduan gaude. Eta, hala, pertsona-izenordainen inguruan egin dugun analisi linguistikoaren gainean iruzkin batzuk egingo ditugu. Esan behar da lege zorrotzik ez dela betetzen, kasu batzuetan salbu. Baina, guztiarekin, badira joera batzuk eta horiek aztertu beharra dago, bereziki konfigurazio osoagoa kontuan hartzen bada:

- a) Hasteko, predikatu batzuek konbinazio gehiago onartzen dute; formula gehiagotan azaltzen dira. Adibidez: “Uquitu”, “Aditzera eman”.
- b) Bestalde, izenordainen arteko alternantziak nabari dira, txandakatzek edo konmutazioak. Hala, NI zein GU, edota inbertsonalak ager daitzke jorratu ditugun aditzekin. Gutxiagotan gertatzen dira inbertsonalak (“*Orain X ecusico da*”). Ikusi dugunez, inbertsonalak eta enuntziatio-ezkutatzeak beti ere atzetik aurrerakoan (ibilbide regresiboetan) agertzen dira, zer egin den esateko, nola izan den deskribatzeko, gogorarazteko eta ber-hartzeko.
- c) Enuntziatzaileak lehen pertsonan hitz egiten du salbuespenik gabe: “Dizut”, “Dizuet”. Inoiz ere ez du talde baten izenean hitz egiten, ezta euskaraz arrunta den “gu” horren bidez ere. \*DIZUGU/\*DIZUEGU.
- d) Nahiko arrunta da, hala ere, NI/GU alternantzia, ikusi dugunez bata zein besterekin azal daiteke predikatua. Halaz guztiz, joera horrek baditu muga batzuk. Faktore mugatzaileak dira, besteak beste:
- Aditza edo predikatua zein den. “Aditzera eman”, “adierazi”, “itzeguin”... Horiekin “NI”rekin egiten da konbinazioa, eta gutxiago konmutatzen da “GU”rekin. Konmutazio hori errazago gertatzen da, ostera, “uquitu” eta “ecusi” aditzekin.
  - Progresio eta regresiboetan, alderantzizkoa antzematen da: lehenbizikoetan GUTik NIRA joaten da; eta regresiboetan alderantziz.
  - Elementu modalen presentzia: “BEAR” agertuz gero, joera “GU”ren aldekoa da; “NAI”k, ordea, beti “NI” biltzen du.
- e) Inperatibo-subjuntiboak GUREN bidez egiten dira. Lehenbizi “GU” agertu, eta, segituan, bigarren pertsona markaz osatutako inperatiboa agertzea. Hau da: “Ikus dezagun”, “Demagun”, “Dacuscun orain”... baina, jarraian, “Enzun arretarequin” (hau da, ZUK).

#### 4.4.1.2. *Interakzio-informazioa*

Pertsona-izenordainen hizkuntza azterketa egin ondotik, orain elkarreragin balioak ezarriz estudiatu nahi ditugu. Semoietako subjektuen arteko erlazio-balioak argitara ekarriko dira, beraz. Analisi hori enuntziatio terminotan egingo da. Eta enuntziatio-hizkuntzalaritzaren zutabeen berri ematerakoan esan dugun bezala, enuntziatio-esanahia interpretazio bidez ateratzen da,

transposizioz edo metadiskurtsoz. Hori batetik. Bestetik, pertsona-izenordainen arteko erlazioak agertzeko, honako sinboloak erabiliko ditugu:

- a) “So”: sinbolo horrek subjektua errepresentatzen du baina autonomo gisa agertzen denean; bestela esanda, bere balioa ez da beste subjektu-mutur batean oinarritzen. Esaterako guk horrelako zerbait esango bagenu: *“Nire lana nola antolatu dudan kontatuko dizuet. Lehenengo 7 testu bildu ditut, 1. mailako ikasleena. Ondoren, beste zazpi testu bildu ditut, arituena...”*. Arestiko “antolatu dudan”, “bildu ditut”... ez genuke beste mutur batekiko erlaziopean enuntziatuko, adostasuna edo desadostasun terminotan, hori posible izan daitekeen arren. Subjektua beregaina da.
- b) “So = S1”: So subjektua, hots, enuntziatzailea, bat dator solaskide edo enuntziatzaile-kidearekin. Adostasun erlazio horretan kokatzen du bere esatekoa. Inklusiozko erlazioak agertzen dira.
- c) “So ≠ S1”: oraingo honetan, ostera, ez datoz bat enuntziatzaile biak, hau da, subjektuen artean ez dago akordiorik edo batasunik. Subjektuen arteko erlazioak, diferentziatze edo oposatze erlazio-sistemakoak dira. Esklusiozko erlazioa agertzen dute.
- d) “S\*”: erlazio modu hau askea da, ez dago NI-ZU muturretara itsatsirik, at geratzen da, desloturik dago. Adibidez esateko: *“Batek aztertzen badu...”*, *“Batek ez daki zer egin”*, agertuz gero, “bat” horiek “NI” izan daiteke, edota “ZU”, zein “HURA”. Edota ez bata ez bestea, edota denak batera. Oposiziotik kanpo baitago.

Pertsona-izenordaien erlazioak ikusteko sistema bat aurkeztu ondoren, azterketari ekingo diogu, eta horrenbestez, pertsona-izenordainen erlazio intersubjektiboen zenbait balio argitara ekarriko dira. Esan gabe doa  $S0 \neq S1$  erlaziopeko balioak interesatzen zaizkigula gehien bat.

#### 4.4.1.2.1. Izenordain eta predikatuen interakzio-balioa

Pertsona-izenordainen eta predikatuaren arteko asoziazioak ikusi ditugu azterketa linguistikoa egiterakoan. Zergatik egiten dira asoziazio mota batzuk eta ez beste batzuk? Zein faktoreren gorabeheran dago pertsona-izenordain bat edo beste aukeratzea? Zail da esatea zein faktore nagusitzen den; nolana ere, egin daiteke eskala “orientatzaile” bat.

Izan ere, badago modalitate bat indar diskriminatzaile handia daukana: “NAI” modalitatea, hain zuzen, soilik NIrekin elkarlotzen baita; inoiz ez da agertzen GUrekin (\*uqitu nai degu), eta ez da elkartzen, ezta ere, inpersonalarekin (\*uqitu nai da) birformulazioaren batean ez bada. Ez da agertzen “BEAR” + NI bezalako uztarketarik ere \*itzeguín bear det, \*uqitu bear det... Ondoko mota honetakoak dira nagusi, beraz:

[IV 49] “Noizbait, noizbait asitzera noa, nere Cristauac, aspaldi **nai izan de-**  
**dan** lanean, edo Cristau aciai dotrina azaltzen, eta adirazten. [...] Enzun nazue  
contuz.” (C 399-400)

Salbuespen hori kenduta, usu agertzen dira alternantziak eta konmutazioak pertsona-izenordainen eta predikatuen artean, hizkuntzako analisisietan ikusi dugun bezala. Galdera zera da, alternantziok aleatorioak ote dira? Egon daiteke faktore determinatzailerik? Ez dugu uste, baina galdera beste modu batera eginez gero, hobeto erantzun dakiok: badago faktore orientatzailerik izenordainen aldaketa eta aditzen uztarketa zedarritzeko? Galdera gakoa zera da: zer esan daiteke instantzia enuntziatiboari buruz aztertu ditugun erlazio predikatiboen argitan?

Zentzu horretan “GU”ren inguruan zerbait esatea inportantea da. Agertutako adibideetan ikusi dugun bezala, “GU” maiz asko, “NI”ren luzapena baino ez da. Gure ustez deixi sozial bat, homilietan taigabe “NI” inpositibo eta aspergarria saihestu nahiez egina (eta beharbada euskaraz horren arrunta den “GU”k daukan “NI”ren balioa ere hartzen duena). Baina, bestalde, muga garbi bat agertzen da “GU”ren barruan, zeren balirudike esatariak saihestu nahi duela “GU”ren presentzia talde edo “klase” erreferentzia gisa, “NI + HURA –ZU” formulakoa (apaizen taldea, Elizaren errepresentazioa, eta abar).

Edozein modutan, sermoietan oso ugari dira “anbiguotasunak” eta neurri handi batean bilatu egiten du esatariak anbiguotasun hori, bai konplizitate giroa sortzeko, bai ekintza pedagogikorako, edota hurbiltasuna erakusteko, solaskidea partaide egiteko.... Kontua da joko hori interakzio-estrategia baten osagai dela, izan ere, konfigurazio osoago bati begiratzen badiogu, hasiera bateko anbiguotasuna, hau da, “GU”rekiko hasierako hurbiltasun hori, sibilinoki ezkututzen da geroago. Esate baterako: “eta batzuec len uqitu ditut”, baina, esan bezala, hasiera batean, “GU”rekiko erlaziopean kokatua zuen egitasmoa (A 71). Horrelako adibideak erruz eman daitezke.

Esatariari ez zaio anbiguitatea axola, edo behintzat, jasangarri egiten zaio anbiguitate maila bat. Izan ere, interesatu ere egiten zaio horrelako estrategia

bat: hurbiltze/banatzeko joko bat, enuntziatioaren erdibanatze fiktizio bat, pertsuasioari begira oso atarramendu handikoa izan baitaiteke. Esatariak, uste dugu, atsegin duela anbiguotasun hori, eta espreski bilatzen eta eraikitzen duela.

Adibide bat jartzearen, ondoko konfigurazio hauek ere anbiguotasunean abiatzen dira, gauzak “GU”rekin eta “GU”rekiko enuntziatuz. Kontua da berehala inperatiboak disoziazioa/banaketa markatzen duela: “Entzun arretarequin”. Azken hori ez da erdibana enuntziatzen, sekula ere:

[IV 49] “... au da aurrena ecusi bear deguna. Urrena, Jesus onari costa zayonari beguiraturic. Au da bigarren lecuan ecusi bear deguna. Entzun arretarequin.” (A 22)

[IV 50] “Ondoren beguirada bat emango diogu, Jaunac onetan aguertu zuan, guganaco ongui nai, ta amorioari. Entzun arretaz.” (A 7)

“Esatera noana” esamoldeak ere agerkera ugari du eta “NI”ren ingurumari-rikoa da eskusiboki. Ez dago \*esatera goazena gisako alerik. Mementu bartzuetan, ikusi dugunez, ez dago “erdibanako” enuntziatorik.

Azpirarratzekoa da, halaber, markatze probresibo/regresibo estrategia ere: progresiboei kutsu performatiboa errepara dakieke, hots, funtzio erregulatzaila eta programatikoa. Erabilera regresiboetan, bestalde, galdu egiten da balio performatiboa deskripzio eta narrazioaren mesedetan. Adibidez esatearren, erkatu hurrengo hiru adibideak:

[IV 51] “Aurrena beguiratu bear degu, cer eta cembat guisatara dan batayoa.” (A 45)

eta hurrengo *Eracus* testuan berrartzen du gaia termino hauetan:

[IV 52] “Azqueneco Eracusaldian asi nintzan Batayoco Sacramentuaren ganean itzeguiten” (A 56)

Eta bertan eta jarraian:

[IV 53] “Gaur ecusi bear degu lenengo lecuan: cer dan Sacramentu au eguitemo gaya. [...] Asi gaitecen bertatic” (A 56)

eta hurrengo *Eracusean*, berriz ere, disoziazioa:

[IV 54] “Azqueneco Eracusaldian aditu cenduan, Cristaua, cer dan batayoco Sacramendua eguitemo gaya. Aditu cenduan...” (A 63)

Honaino pertsona-izenordainen eta predikatuen arteko interakzio-esanahiari buruzkoak. Informazio gehiago emango da alderdi horien erreferentzialioak aztertzen ditugunean.

Ondoren, pertsona-izenordainei ekingo diegu. Beraien erreferentzia argitu dugularik, zein interakzio-balioa eratoritzen da? Nagusiki esatariak bere rola nola markatzen duen aztertuko dugu.

#### 4.4.1.2.2. *Izenordainak banaka eta elkarrekiko*

##### a) **Gai jartzaile eta programaren arduradun**

“NI”ren roletako bat hitza hartzea da eta formazio-programa antolatzea:

[IV 55] “Ascotan itzeguin dizut, Cristaua, gauz oen gañean goiceco Mezetan, eta jay arratsaldeetan, Dotrinaren parteac azaltzeco demboran, baña zazpi Sacramentuac dira gauz añ andi, ta miragarriac, non dotrinaco uquitze utsarequin ecin utzi ninzaquean. Orregatic artu det asmoa Sacramentuen gañean betaz itzeguiteco, Meza nagusietan. Ona da eguneco Evangelioaren gañean itzeguitea, baña gure errietan bearragoa da Sacramentuen berri, ta ezagüera Cristauai ugari ematea. Ojala itzeguin albaneza nic gay andi onec escatzen duan eran. Gaur sarrera ondo eguiteco, eman nai dizquitzuT, Cristaua, ... Ondoren begirada bat dioGU (...) Enzun arretaz”. (A 6-7)

Hortxe dugu NI-2 deitu dugun hori hitza hartzeko daukan ardura erakusten; berak betetzen ditu eginkizun banaketak, eta gogorarazten ditu bakoitzari esleitu zaion egitekoa; “auto-moderatzailea” da eta “hetero-moderatzailea”. Bere gain du diskurtsoaren kontrolaren alderdia: jorratuko diren gaiak (“gure errietan bearragoa da”), sarrera-itxierak, progresioaren erantzukizuna, sermoiaren materialtasuna, erritua zuzentzea Gisa berean, bere gain ditu gaien aukeratzea, atalkatzea eta sekuentziazio-hierarkizazioak; berak ezartzen ditu premiak eta premiazko gaiak (“orregatic artu det asmoa Sacramentuen gañean”; “uquitze utsarequin ecin utzi ninzaquean”). Orobat, gogorarazten du irakasle izateko duen derrigorra. Paper horren atribuzioa nahiz justifikazioa maiz ageri dira (“eciñ alabaña biotzac maite dezaque nole-rebait ezagutzen ez duan Ontasuna”, “baña eguingo ditu guizonac oec, oen berriric ezpadu?).

NI-2 horrek, izan ere, paperak ederki asko banatzen ditu, adibideak aletuaz ikusiko dugun bezala:



[IV 56] “Asco aldetara sayatu naiz, eta azquenean autu det modu bat jayerdi gucietaraco, eta da; Meza nagusian, eta al balitz goicecoan ere bai, eguita goiceco, (edo arratseco) jayera. **Nic (edo nere ordez bestec)** esaten du liburutic, edo paperetic, eta **nic diodana** bera eranzuten due Mezatan daudenac.” (C 15)

Aurreko adibidean, gai jartzaile eta arduradun agertzen da, eta bada horretarako arrazoirik, izan ere, inplizituki agertzen da gaitua esataria (“Asco aldetara sayatu naiz” alegia, “gaur baino lehenago ere ekin diot”, “eta ondoren autu det”). Eta beraz, eskarmentuduna agertzen zaigu. Tradizio baten ildotik ari da (Elizaren misioa eta antolaketa, konbikzio epistemologikoak dituen talde baten partaide, gizartean *status quo* batean kokatua, eta abar) eta bere egin-kizunetarik bat da “Eracusaldiac” sortzea, Eracusaldien bidez “egitea”. “Ni” horren bidez inskribatzen da ez hizlari huts gisa soilik, baita bozgarailu eta bozeramaile bezala ere (*nere ordez bestec*). Adibide hauetarako definituko dugu esataria *aditua eta aritua*, entzuleak ez bezala.

Goiko adibide horretan posible litzateke “hautu duGU” esatea? Edota “hartu duGU asma”? Ezetz ikusi dugu, ez direla onartzen konmutazio horiek. Konmutazio eza horrek posizio batzuk markatzen ditu testuan, legitimizazio terminotan definituko ditugunak. Esatariak berea egiten du eta bere taldekoen errepresentante gisa jokatzeko du horrela.

Interesgarria da oso goiko “*NIC (edo nere ordez bestec)*” hori. Zer esan nahi du? Nor da “bestec”? Zer erreferentzia du? “Bestec” hori da *Eracusaldiac* obraren hasieran datorren “Nota”ren hartzailea:

[IV 57]

#### NOTA

«Ordenamos asi mismo á nuestros Párrocos, y á todos los demas Predicadores de nuestra Diocesis, tanto Seculares, como Regulares, que en las saluciones, de todos sus Sermones de cualquiera asunto, misterio, ó festividad que sean, expliquen catequisticamente un punto de doctrina Cristiana: con estilo facil, llano, y perceptible: *Littera Pastorales D.D. ab Irigoyen Episcopi Pompolonensis. pag. 65*». (azpimarrak geureak)

Zein komunikazio-efektu dauka Nota horrek? Hartzaile mota bat definitzen du: “nuestros párrocos”. Hizkuntza ere aldatzen du, euskeraz ez ezik gaztelaraz hitz egin eta irakur dezaketentzat da. Sermoilariak (kasu honetan Agirrek) asumitzen duen “Hitzaren transmisore” rol hau, ez da beste hartzaileekin erdibanatzen.

## b) Hitzaldia hasi, itxi, moztu, aldatu

Esataria da hitz hartzearen arduradun eta gidari (“Gaur uquituco ditut...”, “Asi gaitecen bertatic”, eta abar). Hitzari jare egitea ere erabakitzen du “Asco da”, “Asco da gaurco”, “Asco da onenbesterekin”, egin ere, arbitrarioki, berak nahi duen denboran.

Horietako esamolde/klitxe askok balio eta eragin performatiboa dute, “esan eta egin” egiten dute hainbat formularen bidez: ikusitako “asco da gaurco”, “demagun”, “eguin dezagun contu...”. Balio performatiboa agertuz gero subjektibitatea erabat dago konprometituta, zeren eta ezin da banatu edo disoziatu esatariaren eta enuntziatzailearen artean. “Ni (edo nere orde bestec)” da zeremoniaren maixu: luze-laburrak erabakitzen ditu, digresioak, perorazioak, eta abar.

## c) Bideratzaile eta programatzaile rola

Esataria *Eracusaldiac* obraren eta *Eracus* testuaren barruko antolatzailea eta banatzailea ere bada; berak du jarduera guztien “agenda” eta egitaraua. Berak erabakitzen du gaur-zer, eta hor ere bere subjektibitatea konprometitzen du, ez du ezer besteren esku uzten. Noski, generoaren kontratuean dabil, eta, berriz ere, kontratuak ezartzen dio betebeharra. Hala ere, ikusi dugunez, askotan itxurak egiten ditu, “ZU”rekin erdibana diharduela itxuratu “gu” jarritz (“Au bear dan eran guc eguitemo”). Baina delegatze hori fikziozkoa da, badakigunez:

[IV 58] “Au da festa gucien festa, dio S. Gregori Naciancenoc: au da Jaunac eguin, eta prestatu digun egun andia: poztu gaitecen egun onetan esaten digu Eliz Ama Santac: *Haec dies quam fecit Dominus, exultemus, eta laetemur in ea.* Au bear dan eran guc eguitemo, aditzera emango dizuet Misterio gozo-miragarri au. Urrena, uquituco det egun onetan eguin bear guenduqueana. Enzun arreta andirequin, Cristaua.” (C 3)

Hala ere, itxurak itxura, asko dira 1. pertsonaren markarekin hasten diren sermoiak. Praktikan, funtzio estrategiko batzuk dakartza rol honek, hara hor, gai jakin batzuei lehentasuna ematea, hizketarako gai jakinak hautatzea, eta horren arabera entzulea, beti ere nolabait “derrigortuz” posizio batzuk onartzera:

[IV 58] “Gai au añ ugaria da, non bera usic asco izan litequean urte gucico itzaldietaraco; baña ez da guchi izango gauzaric bearrenac ongui azaltzen baditut. Gaur azalduco det ume, eta mirabeac...” (B 62)

Programatzaile rola ematen dio aukera gaien atalketa, hurrenkera eta hierarkizazioa ere beregain hartzeko: zein sakramenturi gehiago ekin (bistan da konfesioa eta komunioa direla nagusi), zeini gutxiago. Gaien hurrenkera egitea ere programatzaile rolari dagokio: zer esan den eta zer esango den, loturak, urratsak, arrazoiak, noiz eta nola egin:

[IV 59] “Emen iru gauza aditzera eman nai dizquitzut. Lenengoa...” (A 8)

[IV 60] “Azqueneco bi Eracusaldietan alic onguiena aditzera eman dizut, Cristaua, ceñ miragarria dan doai au. Baña oraindaño esan degun gucia ez da, doai onen miragarritasuna adierazteco, diña. (...) Au da gaur lenengo lecuan aditzera emango dedana. (...) Au da bigarren emango dedana... au da azquena aditzera emango dedana. Enzun arreta andiarequin, Cristaua” (A 39)

[IV 61] “Asi guñan Confesioco Sacramentuaren gañean itzeguiten” (A 112)

Bada goiko adibide hauetan deiktiko multzo interesgarri bat: “emen” (hemen) (59) “gaur” (60) adizlagun pronominalak dira eta antolaketarekin daude lotuak, gaiaren antolaketarekin eta organigramarekin, hain zuen. Metadiskurtsiboak dira. Bestalde, adizlagun horiek ez dira tokiaren eta denboraren adierazle hutsak: ez daude hizketa-egintza non eta noiz gertatzen den markatzeko, baizik eta gai horiek nola erlazionatzen diren markatzeko. Izan ere, analisi zehatzago batek esango digu “NI” eta “GU”ren ordezkariak direla, hau da, hizketa-egintza egiten duen esatariaren ordezkari. Azken batean, esataria mantentzeko dira, “gaur”, “emen” esanez, “*eracusaldi onetan...*” esango balu bezala. Modu honetan baieztatzen da agentea diskurtsoan adierazia egon ez arren, erraz identifika daitekeela testuinguruaren laguntzarekin. Azterketa enuntziatibo baten arabera, adizlagun hauei balio metonimikoa zor zaiela esango da.

#### d) Irtenbideak, aholkularitza eta gidaritza

Esatariaren “ni”ak agerian jartzen du jakintza maila bat. Esataria, aurreko kapituluan ikusi dugunez, JAKINTZA eta BOTERE subjektu da. Eta rol multzo bat jartzen du agerian, modalitate horien jabetzaren erakusgarri:

[IV 62] “Jauna, esaten cidan batec: nere confesioac berritu nai nituquean. Erantzun nion: eztago orretaraco lecuric: ceren eriotza alde aldean daucagun; eguin dezagun aleguin gucia damu egiazcoa, eta vicitza ontzeco asmo osoa zortzeco.” (A 147)

[IV 63] "...eche urrutietan vici diran zarrac, eta aurdun diran emacumeac, eguraldi charretan, batecere neguan ez daude nere ustez beartuac Mezatara etortzea, gueyenetan beintzat" (B 50)

[IV 64] "Ezpadezu oraindic ongui ecusten, ta aditzen, atoz nerequin gauz oni beste alde batetic beguiratzera. Gure siniste onac eracusten digun eguia da, edo izango cerala betico zori onecoa Ceruan, edo betico zori gaiztocoa infernuan. Ez dago emen bi gauz oetatic igues eguiteco videric" (C 257)

Gure ustez, auto atribuzio hauek paper bati loturik daude, esatariak sermoietan barrena egiten duen "desdoblamendu" bati, *ethos* nahasketa bati. Gerogo arituko gara sermoilariaren *ethosari* buruz.

### e) Ebaluatzailea

Sermoilaria ebaluatzailea da. Eta auto eta hetero erregulazioarena beste rol garrantzitsu bat da:

[IV 65] "Emendic ez da ascó asmo erdi, edo laurdena sortzea, esaten dezula: *nai nuque, al banu, utzico balit paquean: aleguiña egingo det.* Era onetan itz egiten duen becatariac ez du..." (A 202)

[IV 66] "¿Cer esango det Aldareco Sacramentuari eguiten zaizcan bidegabeaz?" (A 18)

[IV 67] "Non da edanari jarraituaz umeac eta echeco guziac erquituric iduquitzea? Eta ondoren oec garbiro aitortuko dira? Ea, ez esan nic gogor itzegiten dizudala, esazu zerorrec zere biotzac aditzera ematen dizuna" (B 59)

### f) Erreziprozitaterik eza

Dakigun bezala, diskurtsoko izakiak bere buruari estatutu bat eman behar dio, halaber bere solaskideari ere, bere esatea legitimatuko badu. Gure kasuan, esatariak diskurtsuan posizio instituzional bat markatzen du eta halaber markatzen du bere erreferentzia, bere jakintza. Esataria bere enuntziatioan inskribatzen den unetik, eraikigarri diren arrastoak uzten ditu enuntziatuan, *enuntziatio modu* bat.

Gauzak horrela izanik, gure esataria mintzo da *intentzio* multzo bat agerian jarritz: "ojala itzezin albaneza" (A 5), "**ez da guchi izango** gauzaric bearrenac **ongui azaltzen baditut.**" (B 62); "nic ez bear lizaqueen adina, **baicic dezaquedana**", "sayatuco naiz", "nire asmo da..." (B 233-242); "gauza oec berac **no-laere bait** zuei adierazteco..." (C 85); "**uquitu uste** dedan asmo au" (A 164).

Modalizatzaile horiekin, asmoak eta intentzioak adierazten dira, eta beraz “intentzio” mailako moralak azaleratzen da. Baina holakorik esaterik eta egiterik ba ote kristauak? Inondik ere, kristaua betebeharraren subjektu da. Ez dago inolako modalizaziorik beretzat, ez zaio onartzen inolaz ere, “nahi det, alic eta ondoen eguiten saiatuko naiz” esaterik. Horra hor egoera asimetrikoaren azaleratze modalitate bat:

[IV 68] “Emendic ez da ascó asmo erdi, edo laurdena sortzea, esaten dezula: *nai nuque, al banu, utzico balit paquean: aleguiña egingo det.* Era honetan itzeguiten duen becatariac ez du...” (A 202)

[IV 69] “.. ez da asco asmo erdi, edo laurdena; ez da asco esatea: *nai nuque: albanu; utzico balit paquean, ez nioque nic bideric emango.* Era onetan itzeguiten duanac ez du becatua uzteco asmo osoric, baicic *nainuquezco utsa.*” (B 318)

Horrenbestez, bi neurri daude asmoak eta intentzioak neurtzeko: bata kristauarentzat eta beste bat sermoilariarentzat. “Nainuquezco utsa” moduko epairik ez du sermoilariak bere buruarentzako. Sailka daitezke beraz bi moralak: intentzio mailako moralak *vs* ekintzen gaineko moralak. Banaketa ez da neurri berean egiten, NI-2 hori ez da ekartzen kontuak emateko (modu lausoan ez bada). ZUren esparruko modalizazioak deontikoak dira (behar izana, derrigorra), ez bulomaikoak (nahi izatea, saiatzea, asmo izatea). Beste modu batean ere parafrasea liteke banaketa: batentzat (NIrentzat) estatutua; bestearentzat (ZUrentzat) erregelamendua eta araudia. Sermoian elkarrekikotasunik eza eta norabide bakarreko komunikazioa nagusitzen dira.

Hala ere, badira leuntze batzuk, esaten dugunaren kontra adibideren bakan batzuk:

[IV 70] “Eguin beza bacoitzac aleguiña, bere utseguiteac desguiteco, eta Jau-narequin ongui jartzeco” (B 178)

[IV 71] “Cristaua, aditu dituzun eguia oequin, azcartu zaite, eta eguizu aleguiña...” (A 491)

Guztiarekin ere, bi neurri aplikatzen dira: batetik, *Nik + nahi det* = positiboa; bestetik, ZU eta besteena, nahi izatea *ere* = aurkakoa eta negatiboa. Bi galga edo “bi neurri” daude. Argiago ere jartzen du horrek zein den instantzia zentrala: NIren arabera antolatzen dira ahotsak zirkulu konzentrikoetan. NI instantziak balio *kualitatiboa* dauka: esatariak label edo berme bat ezartzen dio diskurtsoari, esataria presente egiten da diskurtsoan eta garrantzia ematen bere

buruari. Beharbada horregatik NIren presentzia ondoen erakusten duten aditzak esatezkoak (*verba dicendi*) dira nagusiki:

[IV 72] “Atzo itz eguin nuan Misterio onen gañean. Jesusen piztuerac aditzera ematen digu, S. Pauloc dionez, gure animen piztuera: orregatic gaur itz bi esan nai dizquituet onen gañean. Aditzera emango det lenengo lecuan ... izan bear luquean gure animen piztuerac. Urrena (...) Enzun, Cristaua, arretaz” (C 10)

Gogora ekar ditzagun azterketa linguistikoan ikusitako datuak: NI lotzen den predikatuak, ez guztiak eksklusiboki baina bai maiztasun handiz, honakoak dira: *ukitu*, *hitz egin*, *aditzera eman*, *esan*, *esatera joan*, *erantzun*, *azaldu*... Baita jarrera proposizionala erakusten duen *uste* ere. Orobat, *hasi* eta *egin* ere baditu NIk. Instantzia honek maneatzen dituen modalitateak honakoak dira, beraz: NAHI IZAN, JAKIN, SINISTU, AHAL IZAN. Bestalde, enuntziatzaile-kideari ez zaio esatezko aditzen esleipenik egiten. “Enzun arretarequin” dagokio, erabat paper pasiboan “hartzaile” huts da: entzule eta kito:

[IV 73] “Zuec, uste det, nere enzunleac (sic), ansia andiarequin gauza oec aditu naico dituzuela, eta nic, gauza oec berac nolaere bait zuei adierazte...” (C 85)

[IV 74] “Bai, nere enzunleac (sic), bay; Mariaren jayotza gucz atseguin pozgaria da mundu guciarentzat, ceren Salvatzallearen Amaren jayotza dan” (C 90)

Modu horretan jokatuta, esatariak *enuntziazioan* uzten dituen arrastoen bidez definitzen du solaskide eta enuntziatzaile-kidearekiko erlazioak zein orientazio daukan. Enuntziazioan hain justu definitzen dira “subjektu” bakoitzaren eginkizunak eta espektatibak. NIren ostean agertzen den esatari eta enuntziatzaile horrek enuntziazio-esanahi bat *azaleratzen* du. Baina beti ere, metadiskurtsoz eraiki beharko dugu esanahi hori, ezen L esataria bere diskurtsoan analizatuz gero, ez zaigu bere buruaren gaineko diskurtso espliziturik agertuko (“ni naiz zuen kontseilari, ebaluatzaile, gidari” eta abar). Baina hor ditugu bere hitzaren modalitateak, eta modalitate horiek itxura bat ematen diote. Enuntziazioan, izan ere, ez dago aipamenik, baizik eta erabilera. Sermoilariak halakotzat erakusten du bere burua, esplizituki aipatzen ez badu ere.

Bistan gelditu da esataria/enuntziatzailea eta solaskidea/enuntziatzailekidea Elizan txertatzen direla, Eliza marko instituzional gisa kontsideratuz. Enuntziatioaren zama autore dominatzaileak eramaten du eta bakoitzaren lekuak argi eta garbi bereizturik eta hierarkizaturik daude. Sermoietan ez dago elkarrekikotasunik; bai, ostera, osagarritasuna.

g) **NI-ren urtzea**

Autoerreferentzia egiteko agertzen den beste adierazpen bat ere jorratuko dugu azkenik. Gehienetan, esatariaren autorreferentzia egiten da pertsonaren aditz morfemaren bidez emanda, esaterako, *det* aditzaren bidez. Hala ere, batzuetan aditzarekin batera izenordain subjektua agertzen da: “Eguingo **det nic**, nere Cristaua”, “**nic** esango **ditudan...**”.

Ikusten dugunez, ez da auto-erreferentziarik ezkututzen, gehitzen baizik. Zein da adierazpen horren enuntziatio-egitura? “Nic” forma erredundantea da kasu hauetan, eta balio modala eman behar zaio. Oso kasu bitxietan gertatzen da, testuinguru edota hizketa-egintza jakinetan. Erabilera hau pleonastikoa izanik, harrotasun edo hanpaketa efektua izan lezake (esaterako, “Nik erantzun nion” kasuan bezala, non “Nik” horrek efektu indartzailea izan dezakeen). Hala ere, guk darabiltzagun kasuetan, balio babeslea eta murriztailea luke, txikigarria. Ondoko adibideetan, esaterako, bere buruarentzako baino, erkidegoaren onerako ari den esataria agertzen da:

[IV 75] “baña jaquizue, nic esango ditudan gauzac izango dirala, ez zuen contra, baicic zuen alde, eta itsatsi ez daquizuen, gaizqui dirudian, azturen bat” (A 576-77)

[IV 76] “Cer nai dezue nic esatea? Cer, Jesusec diona baicic? (A 490)

Horiek horrela, ikusi dugu izenordainen interakzio-balioa, azterketa egin dugularik banaka eta elkarrekiko erlazioetan oinarriturik. Orain, pertsona-izenordainen erreferentzia-balioa ezartzea izango dugu helburu.

#### 4.4.1.3. *Informazio sozio-diskurtsiboa*

Hemen estudiatu ditugun izenordainen inguruko azterketak bide ematen digu sermoien praktika diskurtsiboaren ezaugarri errekorrente batzuk aletzeko. Ikus dezakegunez, enuntziatu batzuetara jo beharra dago: So motako agerraldiak oso gutxi ditugu, eta ez dute garrantzia handirik S\* erakoek ere. Ugarietak, nabarmen, So = S1 edo So ≠ S1 motakoak dira. Pertsona-izenordainen banaketa eta banaketa horren balioak, lehen begiratu batean, nahasian daudela iruditzen bazaigu ere, argi uzten da nor den nor. Anbigutasuna ere aipatu da, eta halaber traslazioak eta joan-etorriak ere, baina horiek xede pertsuasibo eta argumentatibo batetik sortuta daude.

Horiek horrela, orain, erabilpen hauen goitik beherako irakurketa egingo dugu, interakzionismo sozio-diskurtsiboaren printzipioei jarraituz.

4.4.1.3.1. *Pertsona-izernordainen banaketa kontrolatua*

Gure ustez, konbinazio maltzur bat dago inposizio eta motibazioaren artean, pertsuasio joko batean. Joko hori, marka deiktikoei dagokienez, neurri batean islatzen da etengabeko NI-tik ZU-ra, eta ZU-tik GU-ra pasatze horrekin, errekursiboki. Joan-etorri horiek sermoiei nolabaiteko “hurbiltasuna” ematen diete; era berean nolabaiteko anbiguotasuna ere bai. Azterketa zehatzago batek, ordea, argi uzten du egitura asimetrikoak eta osagarrikoak egiten eta eragiten direla. Horratx bada, sermoiaren hiru zutabe nagusi: hurbiltasuna, anbiguotasuna eta erlazio asimetrikoak baina osagarrikoak.

Gure ustez, “NI/ZU/GU” konbinazio horiek erlazio mota batzuk ekarzen dituzte bistara, “NI” hori esatari konplexua da, ahots eta interakzio desberdinak bideratzen ditu: NI, Elizaren partaide; NI, Artziprestzazgoko Diputatu Nagusi, estamenduan goiko aldean kokatua; NI, Asteasuko parroko... NI hori ez da soilik subjektu hizlari bat, baizik eta bere kondizio erlijiosoan errepresentazio mailak bereiztu ahal zaizkion subjektu bat. Agirrerri antzeman zaio erakuslearen paperari dagokion maila (*Eracusalodiac*) (“Eguia au **azaltzeco**, azqueneco aldian itzeguin nizun, Cristaua...” (C 117). Baina baita kontseilari eta ebaluatzaile maila ere. Maila honen identitate erreferentziala konfessorearena dateke, ulertzen baitugu marka horren bidez esatariak bere presentzia utzi nahi duela enuntziatuan, beti ere, hartzailearekiko erlazio eta kontrol-jarrera bat adieraziz, epaile terminotan ebazten dena:

[IV 77] “Zuc artu cenduan becatoren batean erortzeco oitura, eguiñ dezagun contu biruac lagun urcoari eguiteco, gurasoaren aguinduac ez eguiteco, gauz andietan ere: edanean igarotzeco: cere buruarequin, edo besterequin uquiera itsusiac eguiteco, edo itz loi araguizcoac esateco. Confesoreac eman cizquitzun sendagai egoquiac, oitura gaizto ori garaitzeco; baña etzera sayatu oitura gaiztoa uztera, eta erori cera berriz eta berriz” (B 276)

“ZUK”/“GUK” trukagarri lirateke askotan diskurtso homiletikoan, baina “ZUK” egiten du “mezua” pertsonalagoa eta sakonagoa. Eta hain da horrela bi horien konmutazio gaitasuna, ezen adibidez, hurrengo adibidean ZUK/GUK (eta baita HURA ere, balio orokor gisa) izan litezkeela aldagarriak, berdin esan lezake “dezuna” beharrean “deguna/dena”, eta abar:

[IV 78] “Zuc eguin bear dezuna da itsu itsuan Confesorearen esanera jartzea: eta au eguiñ nai ezpadezu, cere calte andian” (B 279)



“NI”k joko ugari egiten du. Agertzen da bere kabuz ari den aurkezle edo azaltzaile bezala; baina agertzen da, baita ere, beste testu batzuen iruzkingile bezala, hau da, alteritate iturri bezala edo beste ahots batzuen aurkezle gisa. Esango bailukeen “zuekin, San Pablo”, “orain, David Santuak hitz egingo dizue”, “uzten zaituztet dotrinak esaten duenarekin...”. Desdoblamentu enuntziatibo honek estilo desberdinak sortzen ditu erretorikoki.

Bestela esanda, NI horien erreferenteak *ethos* diskurtsibo bikoitza jartzen du agerian: batetik, iruzkingilea, “herritarrak bezala” hitz egiten duen esatariaren irudia; eta “predikariak” bezala hitz egiten duenarena (bere jakintzaren erreferentzia markatzen du Biblia, kontzilioak, Sakramentuak eta Aginduak). *Ethos* gorde-inplizituak dira eta eszenografia desberdinak ebokatzen dituzte: herritarrena, arazoz betetako mundua; erlijioarena, ia kosmos armoniatsua. Hizkuntza erregistro desberdinak dagozkie batari eta besteari, ahazkoaren e-  
struktura paraktikoak lehenari (solaskide eta enuntziatzaile-kidearekiko fikziozko elkarrizketak, kontuhartzeak, anekdotak kontatzea, ilustrazioak, konparazioak), bai eta izernodain batzuk ere (ni, hi, berori, zu, gu). Beste rolari, “erakusle” eta predikatzaileren eremuari alegia, erregistro espezializatua dagokio (“atrizio”, “contrizio”, “sakramentu”, latina, “anathema”...). Azken NI edo ahots horrek ere betetzen du sermoi generoaren komunikazio kontratua, hau da, “NI” eta “HURA”-ren artean kokatzen da predikaria “Jesukristoren ahoa” den aldetik. Beraz, gauzak horrela, *ethos* bikoitza dugu sermoietan, “*mélange d’ethos*” (Maingueneau 1993: 93).

Erregistro horiek eramaten gaituzte, esan bezala, enuntziatzaileak hitzhartzeetan asumitzen dituen roletara. Paperik esplizituena “eracuslea” da, obrari titulua ematen diona, programazio bat duena, erantzukizuna duena seminarioan ikasitakoak irakasteko, posizio pribilegiatuan dagoena (sentitzen duena) Jesukristoren “ahotsa” transmititzeko... Herriarekiko urrin dago, hona formula:  $So \neq S1$ . Baina, gure begietarako, badaude beste bi rol ere garrantzitsuak. Batetik, erkidego espiritual eta sozialarekin kezkatu dagoen “aita”, eliztarren bekatuak bereak bezala sentitzen dituen, gidatu eta aholkatu egiten duena. Halaxe, “Aita”... esaten diote kristauak laguntza/aholku bila doazenean. Hau da,  $So = S1$ . Beste aldean, elizaren norma edo dogma transmititzen duen enuntziatzailea dugu, *bidea* erakusten duena, baloreak, sinismen multzoa. Rol hori konfesoreak hartzen du, epaile gisa, ona eta gaitza juzkatuko du eta zorrozkiago ari da Aita baino. Berriz ere,  $So \neq S1$ :

[IV 79] “Ecusten dezu, Cristaua, ceñ gauza bearra dan becatuen barcacioa iristeco, oec Apaizari aitortzea?” (A 238)

[IV 80] “Onelaco becatarientzat ez da beste sendagairic, Confesoraren esanera itsu-itsuan jartzea baicic” (A 141)

Ahotsen gestioari dagokionez, kontsiderazio orokorrak egingo ditugu. Goitik beherako norabidean inposatzen den diskurtso honetan, rolik garrantzitsuena predikariak edo hetero-enuntziatzaileak du. Bera da enuntziatu-multzoa sortzen duen produkzio mekanismoa. Modu honetan, marka enuntziatibo desberdinen euskarria da; hitz-hartze modalizatzaile eta kualifikatzaileen iturburu da; “testu erregimenaren” antolatzailea da (letra beltzen markatzailea, letra etzanarena, intertituluak...).

Esataria agertzen da predikatze eginkizuna duen komunitate baten partaide bezala (“clama, ne cesses...”; “argue, increpa...”; “otseguizu”...). Paper edo designazio hori elementu ezaugarritzailea da: esataria autoritate bezala agertzen da (“*gauza bearra da...*, *Egia au...* *Dakigu...*”), subjektu kognitibo eta pragmatiko bezala. Esperientzia eta jakintza subjektua, konpetentzia profesionalaren bi osagai garrantzitsu dituena: egin-ahal-izatea eta jakin-araztea. Designazio honek (ixil-gordekoa, baina entzuleek identifikatua), argudiatze dimentsioa dauka: lejitimatzen du hitza hartzea objektu/jakintza batzuen gainean, zirkulazioan jarriz kristau bezala identifikatzen diren aktore batzuk, hau da, mundu pragmatiko batean parte hartuz. Botere eta prestigidun pertsona bezala agertzen da esatari indibidual positotik.

Egin deskripzioak ez dira “hitz kontuak” soilik, lotu behar dira eta interpretatu praktika sozio-diskurtsibo baten osagai bezala. Analisisien datuek, konfigurazioari datxezkiola, argi uzten dute nork erregulatzen duen, eta nor den nor (zein estatus duen). Baita rol bakoitzari zein izenordain dagokion. Horiek guztiek agerian jartzen dute esatariaren posizionamendua (*place*) kristauarekiko, nahiz enuntziatzaile-kidearekiko:

[IV 81] “Noizbait, noizbait asitzera noa, nere Cristauac, aspaldi nai izan dedan lanean, edo Cristau aciai dotrina azaltzen, eta adirazten. [...] Cristau aciai arguitasun au ematea, eta Ceruraco bidean arretarequin ibiltzeo esnatzea da Eliz Ama Santac animen arzayai escatzen dien gauza bat (a); eta ona cergatic sall oni equitera noan. Ez naiz dotrinaco gauzac uquitzearequin contentatuco, baicic aditzera emango ditut gañera Jauna amatzeo, eta servitzeo ditugun bide, edo motivo andietatic cembait. Enzun ezazue bada viotz manso, ta umill batequin.. Enzun nazue contuz” (C 399-400)

Jakina da zeini dagokion testua proposatzeko, azaltzeko, argitzeko eta interpretatzeko egitekoa. Orobat, argi dago nori dagokion entzutea, eroatea,

jasotzea... Ikusi baitugu ZU horrek ekintzetan “fikzionalki” soilik parte hartzen duela, soilik “minimalki” elkartzen baita zenbait predikaturekin: “uquituco degu...”, “aditzera emango degu...”.

Gauzak horrela izanik ere, esatearia/sermoilaria ez da soilik NI bezala hitz egiten duen hura, baizik eta bada, baita ere, NI bat beti GU bati eta inpersonal bati konfrontatzen dena. Modu horretan hobeto zizta dezake ZU hori interlokuzioaren dinamikan sar dadin. Laburbilduz, sermoia hurbileko subjektua da, baina disimetrikoa.

#### **4.4.1.4. Konklusioak**

Pertsona-izenordainen deskripzioa egin nahi bada, ezinbestekoa ikusten dugu subjektuen balioak eta subjektuen arteko erlazioak planteatzea. Erlazio horiek hainbat balio biltzen dituzte, eta subjektu psikosozialak zehatzago, konplexuago eta sakonago definitzeko argi-iturri dira.

Hipotesian jarri dugun bezala, ikusi da pertsona-izenordainen balore kodifikatua edo konbentzionala deskribatzea ez dela nahiko, karakterizazio finak egingo badira. Halaber, pertsona-izenordainen izaera eta funtzio sintaktikoak eta komunikaziozkoak ez direla biunibokoak erakutsi uste dugu. Izenordainak prozedura enuntziatiboak dira, eta horien bidez esateriak bere marka ezartzen dio enuntziatioari, berarekiko nola inskribatzen den eta kokatzen den adieraziz. Pertsona-izenordainek ematen dute, era berean, solaskide eta enuntziatzailekidearekiko posizioen berri; horrenbestez, izenordainek adierazten dituzte eta, are gehiago, ezartzen dituzten diskurtsoan dautzan erlazio intersubjektiboak.

Funtsean, alteritatea, heterogeneotasuna edo ahots desberdinen zirkulazioa eta interakzioak fenomeno lokalizagarriak dira. Horra hor hitz-hartzea eta beronen justifikazioa edo legitimizazioa, bakoitzari seinalatutako egiteko desberdinak, eta abar. Beraz, izenordain-pertsonalen arazoa ez da azalekoa, euren egitekoa deixia markatzea ez ezik, hizkuntza jarduera eraikitzeko eta ezaugarritzeko elementu ere baitira.

Gure kasuan, izenordain pertsonalen konfigurazioek kristau tradizioko sermoietan aurkitzen dituzte diskurtso-baldintza egokienak jaiotzeko eta gartzeko. Sermoietan atergabe datoz pertsona-izenordainak, erlazio sortzaile, *status quo* erakusle, diskriminazio eragile. Nor nor den jakiteko.

Horrela gauzak, sermoi jaduera pertsona-izenordainen erabilpen modu batekin lotuta dago.

## 4.2. ANALISIA ETA IRUZKINAK: BERBALDI EKARRIA

Kapituluaeren lehen atala estudiatu ondoren, bigarren azter-unitateari kingo diogu jarraian. Gatozen, bada, berbaldi ekarria (BE) aztertzeraz:

### 4.2.1. IZENAZ ETA IZANAZ

Berbaldi ekarria polifoniaren agerleku behinetarikoaz da, kapitulo honen sarreran esan dugunez, berbaldi ekarriaren auzia ahotsen zirkulazioaren problematikan kokatu berria da. *Berbaldi ekarria* izendapena sortu diogu “discours rapportée”, “discurso referido” fenomenoari, iruditu zaigu egokia izan daitekeela fenomenoak biltzen dituen bereizkuntzak itzultzeko.

Aztergai dugun fenomeno linguistikoa, hala ere, izendapen desberdinak ditu. Eta ez da zorizkoa: azken buruan, ondo erreparatzen bada, izendapenez haratago doa auzia: mamiari ere zuzen-zuzenean datzekien ikusmolde, azalpen, deskripzio eta helburu bereziak daude. Eta, dakigunez, hautu teoriko eta metodologiko desberdinak daude sakonean. Bakoitzak termino jakin batzuetan aztertzen du fenomenoaz. Diskurtso ekarriari gagozkiola, besteak beste, honako bereizketak ezarri izan dira.

Gramatikariek koordinazio eta subordinazio terminotan azaldu ohi dituzte aipatzen ari garen bi fenomenoaren desberdintasunak. Estilistika, bere aldeetik, estilo zuzenez eta zehar estiloaz mintzatu ohi da. Beste batzuk, osteraz, zuzeneko berbaldiaz eta zeharkako berbaldiaz mintzatzen dira. Berbaldi ekarriaren fenomenoaz “aipu” terminotan azaltzen duenik ere bada (besteak beste Reyes 1995), hau da, berbaldi ekarria aipu (*cita, citation*) gisa kontsideratu. Sperber & Wilson (1989) eta Clark & Gerrig (1990) autoreentzat, berriz, “komunikazio forma” litzateke berbaldi ekarria, eta ber-ekoizte mimetiko (“demonstration”) gisa planteatzen dute. Bestalde, Quine-k (1960) ondoko binomia bereizten zuen: *testuinguru ilunak vs testuinguru garbiak*. “Logika Modal-ak”, bere aldeetik, *Enuntziatio-modalitatea (De dicto)* eta *Enuntziatu-modalitatea (De re)* bereizketa egiten zuen...

Fairclough autoreak (1988) diskurtso “rapportée” edo “reprise” izendatzea baino egokiago dakusa “berbaldi errepresentatu” edo, gure ustez egokiago, “berbaldi irudikatu” baliatzea. Arrazoiak zera da: “rapportée” esateak aldeaz aurretik esana edo jaulkia izan dela adierazten du. Eta gerta liteke, osteraz, berbaldia inoiz ere esana ez izatea, edota beste batek esango lukeena izatea, edota aldeaz aurretik inoiz ere formulatu gabea izatea. Guri geuri egokia irudi-

tzen zaigu Faircluogh-en irizpidea eta “berbaldi irudikatua” deitura, baina arrazoi praktikoengatik “berbaldi ekarria” baliatuko dugu. Gurean, Garrok “berbaldi/diskurtso erreferitua” erabili ditu (2008). Bide batez, hemen egingo ditugun teorizazio zenbaiten oinarriak han jasota daude jada. Guk aztertuko ditugun berbaldi ekarri gehienak aipua izango direnez, sarri baliatuko dugu “aipu” hitza ere berbaldi ekarria izendatzeko.

Baina zer da berbaldi ekarria? Zein da bere “izana”?

Berbaldi ekarria norberaren berbaldira beste berbaldi bateko hitzak edo ahotsak ekartzean datza. Honela definitzen du Voloshinov-ek:

“Le discours rapporté, c’est le *discours dans le discours, l’énonciation dans l’énonciation*, mais c’est, en même temps, un *discours sur le discours, une énonciation sur l’énonciation*” (Voloshinov 1977: 161, Roulet-ek aipatua 2001: 277)

Alegia, “berbaldi ekarria diskurtso barruko diskurtsoa da, enuntziatioa enuntziatioaren barruan, baina baita ere, dikurtsoari buruzko diskurtsoa, enuntziatioari buruzko enuntziatioa”. Guztiarekin ere, testu ekarlearen, hots, ekarria bideratzen duen testuaren eta ekarriaren artean, nolabaiteko “antzekotasun” bat behar du egon; antzekotasun hori edukiari dagokionez izan daiteke, zein formari dagokionez.

Bibliografia ugaria eta zabala dago gai honi buruz, eta ildo eta perspektiba desberdinetatik aztertu izan da orain arte eginiko lanetan (ikus Rosier 1999). Halaz ere, orainago, berbaldi ekarriak marko teoriko berri batean aurkitu du harrobia: perspektiba *mediologikoan*, hau da, ahots eta diskurtso desberdinen zirkulazioaren esparruan. Halatan, gramatika formez haratago, “berbaldi ekarria” deritzan fenomeno auzi-arazo metadiskurtsiboa izatetik, pasatu da izatera *enuntziatio-heterogenotasunaren* eta *interdiskurtsoaren* esparruko gai izarra edo enblematikoa. Eta horrek soka luzea du ondorio gisa.

Dimentsio berri hori jorratu edo ustiatu dutenen izen batzuk genituzke: Ducrot (1984), Voloshinov (dakigunez mintzaira formei buruzko planteamendu sozio-diskurtsoaren aitzindariak, 1992/1929), Authier-Revuz (1981, 1982, 1984, 1995) eta Recanati (1979). Gurean eta gaztetxoaren euskarazko debateen inguruan, ikus Garroren lana (2008).

Edozein kasutan, bi dira *bistako heterogenotasunean* Authier-Revuz autorearen (1984) terminologian esateko, besteen ahotsak ekartzeko mekanismo klasikoak: Zuzeneko Berbaldia (ZuBe) eta Zehar Berbaldia (ZeBe).

Gure lanean, horrenbestez, ez dira berbaldi ekarriaren modalitate guztiak aztertuko, bi klasikoak baizik. Saihetsean uzten dira zehar berbaldi librea (ZeBeL) eta berbaldi zuzen librea (BeZuL). Hona zenbait arrazoi: ZeBeL diskurtso ekarri gisa kategorizatzeak ondorio epistemikoak ditu, zeren irizpidez aldatu behar da-eta. Maingueneau autoreak dio (1986: 98) ezin dela esan enuntziatu bat ZeBeL denik kontestutik kanpo, ezen ez baitago forma espezi-fikorik hura erabakitzeko. ZuBe eta ZeBe modalitateek, ordea, oinarri sintaktiko sendoak dituzte ezaugarritzeko, eta ez dago interpretaziora eta testuingurura jo beharrik. Vargas autoreak ere (1995: 29) uste du ZeBeL aski berezia dela, lotura baitu berbaldi ekarriarekin eta berbaldi ekarri ez diren beste gertakari polifoniko batzuekin ere.

Berbaldi ekarriaren izanari buruzko atal hau amaitzeko tarte bat egin behar zaie Compagnon autoreak aipuari buruz egindako oharrei (Compagnon 1979: 50-56; 76-82). Autore honen arabera, aipuaz ari garenean bereizketa bat egin beharra dago: artikulazio *maila* eta artikulazio *modua* bi gauza dira. Lehenbizikoa berbaldi batetik bestera ekarritako zerbait da, beraz, berbaldi edo diskurtso artekoa –interdiskurtsiboa– litzateke. Bigarrenari dagokionez, moduari hain zuzen, aipua “errepikapena” litzateke, ez, ordea, edozein errepikapen. Izan ere, berbaldi batean asko dira errepikatzen diren elementuak (fonemak, monemak, hitzak...), baina errepikatze horiek ez dira zeinu, hots, ez dira hizkuntza gertakari bilakatzen. Aipuak, dio Compagnonek, “organo txertatuak edo injertatuak” dira, “elementu arrotzak”, beste berbaldi batetik ekarritako zatiak diren heinean, eta, ildo beretik, mintzaira fenomenoak.

Orobat “errepikapena” dela esateak, esan nahi du “*bigarren eskuko*” zerbait dela, izan ere, bi sistema semiotiko gurutzatzen dira berbaldi ekarrian: batetik,  $S1 (A1, T1)$ , eta, bestetik,  $S2 (A2, T2)$ ; non S = sistema; A = autoreak; eta T = testua. Sistema bakoitzak, beraz, bi osagai biltzen ditu: batetik testua (T) eta bestetik autoreak (A). Horrela gauzak, eta Compagnonen arabera, errepikapenak elementu horien arteko erlazio mota desberdinak sor ditzake, zehazki lau erlazio mota:

$$T1 - T2; A1 - T2; T1 - A2; A1 - A2$$

Erlazio horiek guztiak konkurrenteak dira, baina, jakina, ez dute indar eta garrantzi bera, ikerlariak jarriko ditu lehentasunak. Zein errepikapen-modu interesatzen zaizkigu guri? Ikus, beheraxeago “Berbaldi ekarriaren sailkapenak” atala.

#### 4.2.2. HIPOTESIAK

Sermoietakozuzeneko eta zeharkako berbaldi ekarriak, beren presentziari, banaketari eta konfigurazioari dagokienez, instantzia enuntziatibo-diskurtsiboen isla dira, eta intantzia horiei erreparaturik soilik azal daitezke beren izaera eta deskripzioa. Berbaldi ekarria, hala zuzeneko nola zeharkakoa, indar diskriminatzaile handiko baliabide gertatzen da enuntziatiboa ezaugarritzeko, beti ere parametro sozio-diskurtsiboaren adierazle eta eragile baita berbaldia osatzeko. Sermoiaren balioztatze eta legitimazio-iturri ere bada. Sermoietakoz instantzia enuntziatibo-diskurtsiboa kristau erlijio erakunde jakin bat da (Eliza), eta sermoiek kristau-fededunen bizitzarako instrukzio erlijioso-moralak izan nahi dute.

#### 4.2.3. BERBALDI EKARRIAREN SAILKAPENAK

Lehenik eta behin, gauza beharra da zenbait bereizketa egitea, berbaldi ekarri guztiek ez baitute balio eta funtzio bera.

Hasteko, Compagnonek egindakoak ekarriko ditugu. Gorago esan dugu berbaldi ekarria, besteak beste, “errepikapena” dela, eta errepikapenaren lau erlazio-mota aipatu dira. Zeintzuk agertzen dira gure testuetan? Zein dira gure lanerako interesgarrienak? Egon, lau errepikapen-motak daude present, baina soilik bati egingo diogu arreta. Hona hemen lau moten azalpena:

- a) “T1-T2”: bi testu muturrak daude, zein bere aldetik. Bi berbaldiak dira beregainak. Bataren errepikapenak sinbolo balioa du; horrelakoak ditugu, esaterako: otoitzak, liturgiako formulen errepikatzea, sakramentuetako formulak... baita *Anathema sit*, *Abraenuntio Satanae* eta mota horretarako formulak ere. Gisa horretakoak lirateke zientzietako lege edo teoremen formulazioak ere. Subjekturik ez da ageri: teorema “adierazi” egiten da huts-hutsean.
- b) “A1-T2”: Enuntziatio-subjektua ageri da, baina ez da enuntziatio-subjektu “betea”. Aipua, T1 autore jakin batena dela adierazten da, patronimikoa da, hari dagokiola. Indize balioa du aipuak. Mota honetakoak dira sermoietan ageri diren oin oharrak eta parentesi artean datozen aipu ugariak –(a), (b)...–. Izendatu edo aipatu egiten da objektua, besterik gabe. Mota honetako errepikatzeak asko ditugu.

- c) “S1-S2”: teorikoki posible da, baina berezia eta gertagaitza. “*Ce serait le case d’une citation absolument déconcertant, tant pour le symbolique que pour l’imaginaire: une tache, un cri.*” (Compagnon 1979: 80).
- d) “S1 (A1-T1) - A2”: aipamenaren muturrak T1 eta A2 dira. Bi horien artean nolabaiteko mimesia dago, eta antzekotasun fisikoa ere bai, kopia baita. Aipatzaileak bere gain hartzen du enuntziazioa. Izaera analogikoa errepara dakiok. Errepikapen hau “irudia” da, eta hortik “irudikatua” Fairclough-en hitza erabiliz. Berau da guk kontuan hartuko dugun errepikapen modu bakarra.

Horiek horrela, jarraian, Roulet eta bestek (2001) dakarten sailkapena ekarriko dugu.

#### 4.2.3.1. **Berbaldi *ekoiztua* vs berbaldi *ekarria***

Autoreok egiten duten lehen bereizketa berbaldi ekarlearen eta berbaldi ekarriaren artekoa da, edota zehatzago esanda, *berbaldi ekoiztuaren vs berbaldi ekarriaren* artekoa. Horietako bakoitzari enuntziatio-estatutu propioa dago, zeini berea. Adibidez esatearren:

[IV 82 ] “Getsemanico baratzaren sarreran esan cien Apostolui (A): Zaute emen, nic nire Aitari otoiz, edo oracio eguiten diodan bitartean. Sedete hic donec orem (B). Sartu zan aurrerasêago, S.Pedro, Santiago, eta S.Juan berequin cituala. Bereala asi zan, bere barrengo nequea arindu nayeiz dabilen baten eran, eta esan cien iru Apostolui (A): Illuntasun, eta tristurac inguratua dago nere viotza, alaco eran, non iltzeco zorian nagoala deritzadan: *Tristis est anima mea usque ad mortem*. Zaudete zuec emen, baña zaute ernai: *Sustinete hic, et vigilate* (B)” (C 113)

Arestiko adibidean, bi enuntziatio-plano bereiz daitezke: plano batek bere barruan hartzen du bestea; bata ekarlea edo bideratzailea da, hots, biltzailea (A); bestea, ekarrita dago, bilduta (B). Lehenbizikoari berbaldi *ekoiztua* esaten zaio; bigarrenari *ekarria*, edota *irudikatua*. Plano bi horiek tipografikoki ere, partzialki bada ere, markatuak agertzen dira jarritako adibidean. Bi enuntziatio-plano ageri dira eta bi enuntziatu:

[IV 83] “...ceren Luteroc beste heregia ascoren artean eracutsi zuan bat gai oni dagozana, esaten zuala (A), edoceñec, naiz guizonac, naiz emacumeac, duala confesioac aditzeco escua (B)” (B 343)



Aurreko adibidean, aitzitik, plano bakarra dugu, edo, hobeto esanda, bi planoak enuntziatu berean agertzen dira. Integrazio hori *-(e)la* atzizki bidez egina dago. Oraingo honetan, antzekotasuna edo mimesia ez da forma mailan egina, edukiaren gainean baizik. Bi enuntziatio enuntziatu berean genituzke. Batetik, (A) segmentua “berbaldi ekoiztua” da; eta bestetik, (B) segmentua “berbaldi ekarria”.

Ikus daitekeenez, auzian dagoena honako oposizioa da: ageriko enuntziatioaren (berbaldi zuzenaren) eta enuntziatio ekarriaren (zehar berbaldia-  
ren) artekoa. Kontu hauek ondoko taulan laburbil daitezke:

1	2	3	4
Pertsona markak	Aditz denbora	Deiktikoak (espazio/denbora)	Lexikoa, “hizkuntza mailak”

Zuzeneko berbaldian, lehenengo hiru kategoriak fidel agertu behar dira: pertsonak, denborak, deiktikoek abiaburuko egoerara bidaltzen dute. Norbaiten hitzak geurera ekartzean ez ditugu, hala ere, alderdi guztiak zintzo gordezten, eta aldaketarik handienak lexikoaren eremuan egiten dira, “esku-sartzeak”, “interpretazioak”, eta abar, hortxe agertzen dira. Gure *corpusean* ere badugu horrelako adibide ugari. Bestalde, zeharkako berbaldiari dagokionez, abiaburuko enuntziatioaren markak ezabatu egiten dira, eta esatariaren enuntziatio-sistemeekin jarduten da. Baina egoera ez da beti garden-garbia. Esaterako, kakotxen bidez –edo beste marka batzuen bidez– gorde daitezke zuzeneko berbaldiaren atalak zeharkako berbaldiaren barruan. Horrelako kasuei eredu “bitar” edo “mistoia” deritze. Adibidez: Lehendakariak esan du “oso kontuan” hartuko dituela bakerako proposamen guztiak.

Modu honetan enuntziatio agerikoa egingo da goiko eskemaren eskuinetik hasita: lexikoa da lehenengo gordetzen dena, gero deiktikoak. Askoz zailagoa dirudi sorburuko enuntziatuaren denbora sistemari eustea; pertsona-markei dagokienez, errepresentatzen duen enuntziatioarenak dira marka horiek.

Nolanahi ere den, ondo erreparatuz gero, eta hala ohartzen du Kuyumkuyan (2000) autoreak, bai berbaldi ekoiztua eta bai berbaldi ekarria, nozio erlatiboak dira bi-biak. Halatan, litekeena da berbaldi ekoiztua berbaldi ekarri bilakatzea. Adibide asko jar litezke. Demagun, esaterako, argitaratzaile batek argitaratzen duela idazle baten testu antologia bat. Kasu horretan, argitaratzailea izango litzateke esatari-biltzailea (hots, irudikatzea egiten duena) eta

testuak, berbaldi irudikatuak. Holakorik ere badago gure kasuan (editoreek ukitu zuten *Eracusalldiac-2* liburukia eta apailatu *Eracusalldiac-3* liburuki osoa, cf. gorago 1.3.4.).

Horregatik komeni da argitzea zein den berbaldi gorena edo biltzailea, eta zein bildua. Gure kasuan, esanak esan, sermoilaria litzateke esataria, hots, testu-ekartzeta egiten duena:

[IV 84] “Confesio on bat eguiteco bear dan bigarren gauza, edo eguindaco utseguiteen damua izan da azqueneco iru Eracusalldien gaya. Orañ lenvico Comunioco liburua asten da itzeguiten, confesio onac escatzen duan, irugarren gauzaren gañean, eta galdetzen du guisa onetan.

«Confesio on bat eguiteco bear dan irugarren gauza ceñ da? Erantzuten du: “ontzeco, edo «aurrera becuric ez eguiteco asmoa”. “Nolaco asmoa ote da asmo au?... ». Orra lenvico Comunioco Liburuac gai onetan dacarrena.” (A 199-200)

Bereizketa horri ez zaio behar zaion garrantzia ematen analisi askotan. Bada hor nolabaiteko erreduktionismo arrisku bat, “metonimizazio” bat, ezen beti ez baita kontuan hartzen bi atal horien artean, zati ekoiztuaren eta irudikatuaren artean hain zuzen, haustura bat dagoela, ezin dela bata bestearen ordeztatu. Bereizketa hori aintzakotzat hartu ezean, batek pentsatu ahal du produkzio-egintza zerbait inozoa dela, garbia eta gardena, ideologikoki neutroa. Baina instantzien balioak oso dira desberdinak.

#### 4.2.3.2. *Berbaldi izendatua, formulatua eta inplizitua*

Berbaldi izendatuak hainbat modutan markatu daitezke: aditz bidez (esatezko aditzez, *verba dicendi*, eta zenbaitetan baita *verba sentiendi* edo pentsamendu aditz erakoen bidez ere); baita izen sintagma bidez ere (normalean, nominalizazio bidez). Hau da, propio izendatuak azaltzen dira. Adibidez:

[IV 85] “Aimbesteraiño amatu guinduan Jaunac, **dio S.Juanec**, non eman zuan bere seme bacarra: *Sic Deus dilexit mundum, ut filium suum unigenitum daret* (cap.3).” (C 107)

Hurrengo adibidea izen sintagmaz hornituta dago:

[IV 86] “Enzun-bide au **cerbait luceago ipiñia dago** lenbico liburuan...” (A 523)

Ager daitezke “X-n ahotan, esanetan, hitzetan” bezalako formulak ere.

Berbaldi formulatuari gagozkiola, izan daiteke: a) *zuzenekoa*, edo b) *zeharkakoa*. Goiko adibide guztiak dira berbaldi zuzenak. Hona zeharkako adibide batzuk:

[IV 87] “Orain *dio*, aspertu *dala* gaizqui vicitzez, eta confesio on batequin jarri *nai luqueala* Ceruraco bidean; baña eztaqui noizdanic *asico* duan bere confesioa, edo aurtasunetic, edo azquena eguin zuan Confesio generalitic, eta *galdezen* du, cer eguin bear duan.” (A 154)

[IV 88] “...ceren Luteroc beste heregia ascoren artean eracutsi zuan bat gai oni dagocana, *esaten* zuala, *edoceñec*, *naiz guizonac*, *naiz emacumeac*, *duala confesioac aditzeco escua*.” (B 343)

Berbaldi ekarria modu *implizituan* ere “ager” daiteke, azaleko “markarik” edo arrastorik gabe. Hau da, ez da markatzen ekarria dela, ez eta hala izendatzen ere; hots, aditz iragarlerik gabe agertzen da. Hala ere, esatariak aditzera eman dezake intonazio bidez, edota solaskideentzako jakina eta *ezaguna* den esaldi baten bitartez, memoria komuna lagun. Muturrunean hortxe ditugu ironia kasuak, esaterako:

[IV 89] “Ezagutzen *ezpadezu* arguiro, cembat diran, baña bai *guchi gora bera*, esazu: *onembeste bider guchi gora bera erori nintzan* becatu onetan, edo artan (e). Ezagutzen *ezpadezu*, cembat ciran, *guchi gora bera ere*, baña bai batzuetan erori ciñala becatu onetan, edo artan, esan au, eta ongui esana izango da. Atocea, eta neque au añ izugarria da, non ecin garaitu dezaquezun?” (A 151)

Norenak dira “guchi gora behera” horiek? Lehenbizikoa badirudi “bestearena” dela; bigarrena esatariarena berarena da; hirugarrena, metalinguistikoa da. Ohar hiruretan kurtsibaz markatzen dituela.

Hurrengo adibidean kurtsibaz datorkigu berbaldi ekarria eta lehen pertsonaren markarekin. BE asmatua izan edo oihartzun hutsa izan, “aipamen” balioa ematen zaio, kurtsibek salatzen dutenez:

[IV 90] “Ecusico dituzu asco, *damu det Jauna* esan arren, biotzic ez duenac...” (A 165)

Berbaldi ekarri implizituaren presentzia oso zabala da eta ondorio sakonekoa. Memoriari eta konpartitzeari loturik dago genero homiletikoan. Aipua ez markatzeak ez du esan nahi inondik ere solaskideak ez dakienik aipua dela;

izan ere, askotan entzun baitu gauza bera aldez aurretik: ebangelioak direla, parabolak direla (horra hor gure sermoietan ageri diren seme hondatzailearena, artzain onarena, Lazarorena, eta abar; ikus geroago “*particitatio*”-z esaten dena.)

Gure *corpuseko* sermoietan hain ugariak diren astinaldiak eta kontuhar-tzeak “Atocea”rekin hasten dira askotan. Eta hain zuzen “Atocea” horien ja-rraian errazago agertzen dira BE implizituak. Horretarako bide ematen dute, halaber, galderak:

[IV 91] Atocea, Cristaua, nola asmo, ta sasoi onen prestua izan centzaquean confesatu ceranean: baldin prestatzeco arretaric izan ezpadezu? Nola izan cen-tzaquean asmo, ta sasoi onen prestua, edoceñ bide asco badezu birauac eguiteco? Nola izan centzaquean... Nola izan centzaquean asmo oso, eta sasoi prestu au, baldin asco izan bada, lagunac becatura, perilletara dijoacela icustea:” (C 516)

#### 4.2.3.3. **Berbaldi *autofonikoa* vs *diafonikoa* vs *polifonikoa***

Bereizketa hau oso lotuta dago interakzio mailako auzi-arazoarekin, hots, dimentsio polifonikoarekin, hain justu.

Berbaldi *autofonikoak* dira esatariak bere hitzak edo berbaldia –aldez au-rretik esanak edo *ez-* ekartzen dituenean: “Len ecusi degun bezala” (A 426); “Esan dedan bezala” (A 541); “Len esan nuan bezala” (B 43).

*Diafonikoa* da ekarritako enuntziatua edo sekuentzia aurrez aurre dagoen solakidearena denean, solaskideari jaulkitako zati baten errepikatzea denean. *Diafonikoak* oso ugariak dira ahozkoan eta elkarrizketetan, eta zailago da hor-tik kanpo agertzea. Sermoietako pertsonaiek, solaskideek... egindako erreplika eta erantzunetan maiz agertzen dira.

*Polifonikoak* gainerakoak dira. Berbaldi hauetan ez da aurrez aurreko so-laskidearen berbaldirik ekartzen. *Diafonikoak* elkarrizketa baitakoak dira; izaera dialogala erakusten dute; *polifonikoak*, berriz, *polifonikoak* eta dialo-gikoak (ikus Espuny 1997).

Hona hemen sailkapen hau ilustratzeko adibideak. Ondokoak *autofo-nikoak* dira:

[IV 92] “Esan det, aitortu behar dirala examinan arquitu diran becatuac, ceren, examina arretaz eguinda, gogoratzen ezpadira becaturen batzuec, confesio

ona izan diteque gogora etorri diranac esatearequin. (...) Esan det gañera, aitortu bear dirala becatu eriozco edo mortalac; ez dala alabaña premiazco gauza venialac esatea ” (A 125-126)<sup>38</sup>

[IV 93] “Esan det gañera, edoceñ guizon, eta emacumeri eman bear zayola batayoa, *jayo bada;*” (A 66)

Azken adibideko, [IV 93], “Jayo bada”, aipamena da; aurretik sermoilariak berak esandako hitzak dira. Idem hurrengo ere:

[IV 94] “Esan det isilic *galde dezazula;* baña oraiñ diot gañera, urliaren con-traco gauzaren bat jaquiten badezu, isilic gorde bear dezu ceregan;” (A 601)

Hurrengo adibidean bi segmentu bereizi behar dira: batetik, “aitortu behar dirala”, eta, bestetik, “*eriozco edo mortalac*” eta “*venialac*”, zeinetan kurtsibek azpimarratze-funtzioa egiten duten soilik. Ez dute BE markatzen<sup>39</sup>:

[IV 95] “Esan det gaiñera, aitortu bear dirala becatu *eriozco* edo *mortalac;* ez da alabaña premiazco gauza *venialac* esatea” (A 126)

Hona hemen aditz sintetikoarekin adibide bat:

[IV 96] “Alaere badira guizon batzuec añ aberequiac, non ecin eraman duen, emazteac dembora apur batzuec obra onetan igarotzea, echearen caltegabe au eguiten badu ere. Diot echearen caltegabe; ceren echea ta umeac nola nai utziric, dembora luceaz igarotzen baditu Elizan...” (A 587)

#### 4.2.3.4. Berbaldi *benetakoa* vs *birtuala*

Autoreek beste berbaldi ekarri mota bat ere aipatzen dute: a) *benetakoa* edo *erreal*, efektiboa, eta b) *potentziala* edo *birtuala*. Hau da, dagoeneko benetan ekoiztua edo gauzatua izan dena vs asmatua, imajinatua, alde aurretik burutu gabea. Edo izan daitekeena, litekeena, izan beharko litzatekeena. Zentzu honetan, guk beste bereizkuntza bat egin beharra dugu.

<sup>38</sup> Erretorikan errepikapen hau “epanortosis” edota “atzeraelikadura” ere deitzen da. Dikzio-figurekin lotzen da.

<sup>39</sup> Gogora beza irakurleak gure corpuseko testuetan letra etzanek hainbat balio hartzen dutela: batetik, BE markatu dezakete; bestetik, hitz baten azpimarratzea edo enfatizatzea seinatu dezakete. Hots, “apaiz euscaldunec” sermoiaren *actio* erretorikoan ahoskeran berariazko indarrez ebakitzeak markatzen dira kurtsiba bidez.

Izan ere, hortxe ditugu, lehenago gutxi baziren birtualak... prosopopeiak ere. Hots, hildakoak eta joanik direnak hitz egiten jartzea. Fikziozko berbaldi zuzenaren mota da, zeinetan bat jar arazten den hizketan, normalean arerio bat, diskurtsoan hark duen ustezko posizioa hartuz. Prosopopeiaren ezaugarria da irudipenezko asmoak transkribatzen dituela, hau da, pertsonaia batek egoera jakin batean izan litzakeenak, baina ez dituenak izan, edo gaur izango lituzkeenak, baina hilik dago eta, beraz, ez ditu izango. Prosopopeiaren forma honi *sermocinatio* deritzo:

[IV 97] “Badatorquio lasterca becatari gaisoari bere ordua, Norgana biurtuco da becatari tristea trance onetan. (...) Biurtuco ote da Apostoluetara? Baña onec esango dioe: Judases saldu zuan Jesu-Cristo ogueita amar diruan, baña saldu dezu ascoz merqueago. Saldu dezu itz desonesto bategatic; saldu dezu queñada bategatic.” (C 575)

[IV 98] “Ezagutzen due au an arquitzen diran doacabec. Badaquie beste ascó (bearbada becatari andiangoac) Cerura joan cirala, ceren garai onean centzatu, ta biurtu ciran Jaunagana ; eta ay! esango due !! Ni emen, eta betico! betico! betico! *Betico* au izango da ar bat, animari ozca bezala beti arico zayona, eta beñere ilco ez dana. () Bucatu naico du bere burua, eta otseguingo die mendiai, eta aitzai: amildu zaitetzte nigana: *cadite super nos*; baña alperric, ceren igues eguingo duan eriotzac an arquitzen diran doacabeetatic, dio S. Juanec: *Mors fugiet ab eis* (b)” (A 178)

Proposopeiaren indarra eta espektakulu linguistikoa oso kontuan hartzeako dira. Orobat, aipu asko dira birtulalak. Sermoilariak askotan jotzen du solaskidearen ezpainenetan esan-beharko-lituzkeen hitzak eta berbaldiak jartzera. Esanarazi egiten dizkio gauzak. Erreparatu behar dugu hemen oso fenomeno desberdinez ari garela hitz egiten: alegia, gauza bat da norbaiten hitzak erabiltzea zitazio gisa, eta besterik norbait honako edo halako hitzak esatera behartzea, eta, ondoren, esandakoa harena balitz bezala –aipu gisa– ekartzea. Berbaldia ekartzetik berbaldia ordezkatzearainoko bidea egiten da horrela.

Jarraiko adibideetan ikus daitekeenez, aipatze horietan besteen hitzen ekartze edo/eta irudikatze desberdinak ageri dira: batzuk lotuagoak, beste batzuk askeagoak, badira egokituak, asmatuak ere, ezarriak beste batzuk... Erabat pertsuasio diskurtsoari egokituak:

[IV 99] “Eta cer esango degu, queñada lotsagarriac eguitemco oitura duenaz? Añ lasayac, eta aberequiac dira cembait, non, obrazco becatuaz osteronceco guciac, ecertan artzen ez dituen: *ez det Jauna ecer seigarrengoan*, esango due. Atozea, eta ez ote dira izan queñada lotsagarriac, eta araguien izendatzea? Ez ote dira izan musu, laztan, eta goyetaco uquierac? *Oriec*, bai Jauna, baña ez ditugu gauz oec

certan artzen: unore ona igarotzea besteric ez da izan. *Unore ona besteric ez da izan?* Unore onaren aitzakiua bada eguizu edoceñ gauza. Atozea, ori da Cristauari dagocan itzeguitea, eta vicitza? Becatu eraguiteco asmoric gabe ematen du gañera ascoc becuraco bidea, onestidadeac escatzen duan, modu ona gorde gabez. Au guertatzen da, batzuetan mutillac igueri eguiten duela, emacumeac dabilzan toquietan, edo beguira daudela.” (B 336)

[IV 100] Jauna, esango didazu: dembora lucean gaizqui vicitu danac nola bada ateraco ditu eguindaco becatuen contuac? Era onetan: beguira beza aurrena; *cembat demboran* mandamentu aren contra gaizqui vicitu dan? Urrena, *egunean ascotan*, edo *illean* bataz beste, cembat bider erortzen zan *obraz*, *itzez*, eta *pensamenduz?*” (A 152)

[IV 101] “Becatarien artean asco dira Confesioac berritzeco premia estuan vici diranac, baña lan oni equiteco biotzic ez duenac. *Nor oroitu, dioe, equin dituan becatu guciac? Ezta ori nire buruarentzat eguindaco lana.* Aitzakiua onequin...” (A 150)

[IV 102] “Batzuetan edertasun baztergabearen aurrean gaudela gogorac esan dezaquegu: *O edertasun anciñacoa, baña beti berria! Non nabill zuzaz azturic, eta ceren billa? izanic ondasun gucién jabea ta iturburua?* Besteetan beraren contra aimbeste bider alcha guerala, ezaguturic, esan dezaquegu: *Ta zuc, Jauna, ecusiric nire esquer gabequeria itsusiac, nire becatu izugarriac, ez nazu alaere betico su, eta garren artera bidaldu?* Nola erantzungo diot zure ontasan, eta misericordiari?” (C 327-328)

Puntu honetan egokia deritzogu zehaztapen bat egiteari. Berbalde ekarriaren esparruko fenomeno batez bi hitz esango ditugu: “participation” fenomenoaz hain zuzen. (Maingueneau 2004: 111-125).

“Partizitazioa” berbalde ekarria erdibana erregimenean kudeatzean datza, berbalde ekarri konpartitu bat egitea, partaidetzan bezala. Fenomeno honek garrantzi handia du sermoietan. Izan ere, sermoietan berbalde ekarria agertzen den modu behinetariko du gu berau.

Zer ezaugarri ditu “partizitazioak”? Lehena eta garrantzitsuena zera da: ez dela BEren markatzaile espliziturik agertzen, hotz, ez da iturririk edo autorerik aipatzen, eta ez da sarrera-aditzik agertzen, ez subordinazio-markarik ere. Testuak berak hitz egiten du patxada onean, marka-premiak isilduz. Baina, hala ere, ez dago inolaz ere “markatu gabea”, erdibana izaera horrek markatze esplizitua bazter uzten du, ez baita beharrezko markatzea. Baina bada beste seinalerik; hona hemen “partizitazioaren” zenbait ezaugarri:

- enuntziatu osoak ekarri ohi dira, ez enuntziatu-atalak bakarrik;
- marka espliziturik gabe ere aiputzat jotzen du solaskideak;

- errepikatzeak adierazlea harrapatzen du, hau da, ideia ez ezik hitzak edo adierazpena ere bai. Aipatu testua memoriari lotuta dago, eta alderantziz.
- mota honetako aipuak ez dira “sasi-aipuak”, birtualak, edo itxurazkoak... benetakoak baizik;
- aipuak ber-hartzean interpolazio edo ikutu batzuk jaso ditzake testuak;
- esataria ados dago aipuan agertzen den edukiarekin eta onartze hori alde z aurretikoa da.

Inferitu dezakegu “partizitazio” fenomenoaren esloganetan, suporterren kantuetan, esaera zahar eta abarretan ere gertatzen dela. Gure kasuan, sermoinen “partizitazio” fenomenoaren “Thesaurus bibliko” batekin lot daitezke (Maingeneau 2004: 117-118). Horrenbestez, solaskideek super-enuntziatzaile baten bermea dute (gure kasuan, Biblia), ziurtatzen duena esandakoaren balioa, erdikidego baten oinarri eta baloreetara egokitzea. Adibidez hurrengo parabola osoa “partizitazio” adibide bat da:

[IV 103] “Au gucia berac bezala, eta guciz ederqui aditzera eman cigun Jesus onac, emacume Samariarrequin izan zuan, izquetan. Cijoan beñ Jesus Galilearra. Bideco nequearequin aunatua cijoan, eta eguardico demboran gueratu zan *Siquen* ceritzan erriaren sarreran putzu baten aldean. Apostoluac errira joanac ciran bazcalzeco bear cituen, gaucen billa, eta bitarte onetan etorri zan emacume bat putzutic ura eramatera. Esan cion Jesusec: *indazu ura*. Emacumeac ezagutu zuan, janciac eta itzeguiteac cirudianez, Judutarra zala Jesus, eta Judutarrac ceduzqueen eregetzat Samariarrac. Orduan erancun cion emacumeac Jesusi: *Nolazuc, izanic Judatarra, ura escatzen didazu niri?* Esan cion orduan: Baciñaquí, cer doaya bidaldu dion Jaunac munduari!

*Si scires donum Dei!* Baciñaquí, nor dan zuri ura escatu dizuna! Cerrorec escatuco cenion, eta emango cizun ura, baña nolacoa? Emango cizun ur vicia: *Aquam vivam*, Ur au iturri biurtuco da, eta alaco eran igoco da, non saltatuco dan Ceruraño, edo betico vicitzaraño: *Fiet in eo fons aquae salientis in vitan aeternam*. Etzuan aditzen emacumeac, cer ur zan Jesusec cion ura, eta esan cion: Jauna, indazu ur orretatic, ez nabillan beti atzera, ta aurrera ur billa. Orduan esan cion Jesusec: *zoaz, deitu zayozu zure guizonari, eta atoz guero*. Eranzun cion emacumeac: *ez det guizonic*.” (A 40-41)

[IV 104] “...Evangelioico seme ondatzallearequin guertatu zan bezala. Gas-tatu zuan onec, atseguin lizunen ondoren cebillela, echetic cegocan gucia: ecusi zuan bere burua ecer gabe, goseac erquitua, eta jarri zan morroi; baña suertec eman cion nagusi bat an cicoitza, eta cimurra, non ipiñi zuan cherrizai, eta che-



rien bazcatic ere etzuan gosea iltzeco diña. Gure ezcutari erguela etzan bere Aita onagana biurtzeaz oroitu orduraño;” (A 124)<sup>40</sup>

Antzeko erabilpen bat da ZeBeLibrearena ere. Baina anonimo izateak ez du izaera bera kasu bietan; zuzeneko berbaldi librearen kasuan esataria ez dago komunikazio uhin berean, ez dago ko-enuntziatio harian; areago, ez dago super-enuntziatzaile baten menpe ere. Finean, bi logika desberdin daude azpian.

Alderdi hauek garrantzitsuak zaizkigu aipu-iruzkin hurrenkera, sermoietan horren funtsezkoa dena, hobeto azaltzeko. Aipu-iruzkin erlazio horretan luze arituko gara kapitulu honen hondarrean.

Gatozen orain analisisira. Pertsona-izenordainekin egin dugun bezala, berbaldi ekarrariaren kasuan ere hiru informazio-esparru bereiztuko ditugu: a) informazio linguistikoa, b) interakzio-informazioa, eta c) informazio sozio-diskurtsiboa edo erreferentziala.

#### 4.2.4. BERBALDI EKARRIA: INFORMAZIO LINGUISTIKOA

##### 4.2.4.1. *Ezaugarri sintaktikoak eta beste adierazle batzuk*

Jarraian BE seinalatzeko adierazle batzuk aletuko ditugu, izan ere, enblematikoa gertatzen da adierazle horien analisisa BEren fenomenoaren ezaugarritzeko. Elementuak banan-banan aztertuko dira maila linguistikotan lehenik, eta, ondoren, analisi honetan oinarrituko dugu bi mailen deskripzioa: interakzioarena eta erreferentzialarena.

##### a) **Berbaldi ekarria markatzeko baliabideak:**

- a.1) Lehenik, berbaldi ekarriaren kopurua seinalatu beharra dago (kopurua marka esanguratsua baita);
- a.2) Markatzaile sintaktikoak ere aztertuko dira (koordinazio/subordinazio egitura, deiktikoak eta abar);
- a.3) Berbaldi ekarriaren “markoa” osatzen duten elementuak oso aintzat hartzekoak dira. Horra hor, sarrera-aditza, esatezko aditzaren kokakunea, ispilu-jokoa, tipografia alderdiak (kakotzak eta kurtsiba), latina eta elementu axiologikoak;

<sup>40</sup> Ikus, orobat, A 403 (Cafarnaum) eta: A 390-391; A 402; A 375; A 372-374.

- a.4) “Ala-bezala-dioenez” saila aztertuko da;  
 a.5) Azkenik, beste ahotsak edo diskurtsoak ekartzeko iturri/adierazpide zehaztugabe edo indefinituak aztertuko dira.

Bistan denez, marka bat baino gehiago ager daiteke aldi berean.

Aurrena, aipu kopuruari dagokionez marka linguistikotzat hartu da sermoietan, kopurua aintzakotzat hartu beharreko datua delako ustea baitugu. Izan ere, gure *corpuseko* testuak alderik alde daude berbaldi zuzenez zein zehar berbaldiz zeharkatuta (aipu “inflazioaz” mintza gintezke?). Eta, areago: berbaldi ekarriaren adibide berbera toki ugarian topa daiteke errepikaturik, bai sermoi berean, bai sermoi baten baino gehiagotan. Kontu honi behin baino gehiagotan helduko diogu kapituluan zehar.

Gatozen orain hautatu ditugun berbaldi ekarriaren bi modalitateen (ZuBe eta ZeBe) markatzaile sintaktikoak deskribatzera. Honatx zuzeneko berbaldia-ri (ZuBe) dagozkion markak:

- ZuBen aipuaren markoa eta aipua bera bereizi ahal dira, lokabeak direnez gero;
- Aipatzen den hiztunaren sistemako erreferentzia deiktiko guztiak gordezten dira; ez da aldaketa deiktikorik egiten;
- Besteren ezaugarri indibidual edo fisikoak (tik, ahots..) maiz nabarmendu edo imitatu egiten dira;
- Sarrera-aditza agertzen da eta sarrera-aditzik ezean, lokailuak agertzen dira: “*ordu*an *hark*”, “*horregatik*” ...;
- Harridura adierazpideak ager daitezke: “*Ene!*”, “*Pú...*” (A 600);
- Berbaldi ekarria jatorrizko hizkuntzan, dialektoan edota soziolektoan agertu ohi da.

Hona, bestalde, ZeBeri dagozkion markatzaile sintaktikoak:

- Sarrera-aditza eta esaldi subordinatua loturik agertzen dira, beti ere *-(e)la* juntagailua lagun dutela;
- Ekarrirako hitzek aldaketa batzuk jasaten dituzte egoera komunikatibo berrira egokitu alde;
- Berbaldi ekarria da markoaren menpeko perpausa, enuntziatu berean ageri da subordinazio egoeran;
- Sarrera-aditzak, askotan, aditz espezifikoak izan ohi dira, bai esatezkoak zein bestelakoak. Hizketa-egintza ere marka dezakete;

- Aipuaren egoera komunikatibora egokitzen dira erreferentzia deiktiko guztiak;
- Ez da zilegi imitazioa;
- Ez dago jatorrizko galdera, harridura edo aginterarik;
- Aipatzen den atalak marka morfologikoa izan ohi du ondoan; hona hemen marka horietako batzuk:
  - Baieztapena: -(e)la
  - Ezezkoa: -(e)nik
  - Aginduzkoa: adizki jokatua -(e)la eta jokatugabea -t(z)eko
  - Erregua: -t(z)ea
  - Bai/ez: baietz/ezetz
  - Galdera: (ea) -en

Ikusi ondoren zein marka sintaktiko duen modalitate bakoitzak, galde dezakegu orain: bada faktorerik baldintzatzen duenik berbaldi ekarri mota bat edo beste hautatzea? Erantzuna baiezkoa da, badirela hurbileko testuinguruan (ko-testuan), bataren edo bestearen alde eragiten duten faktoreak. Hiru eragile-mota ditugu: sintaktikoak, semantikoak eta pragmatiko-diskurtsiboak. Jarraian aurreneko biak ikusiko ditugu; beste biak, nagusiki, informazio sozio-diskurtsiboaz aritzean ikusiko dira (ikus Andersen 2000: 201-210).

Alderdi sintaktikoak eta semantikoak aletuko ditugu jarraian:

- Sarrera-aditz espezifikokoak. Aditz batzuk ZeBeren presentzia eskatzen dute ia beti. Hala: adierazi, aditzera eman, aitortu, gaztigatu (A 56), erregutu (A 472), eracutsi (A 472), agindu, aldarrikatu, otseguin (A 415), ecusi... Izan ere, aditzaren “rekzio-indarrak” edo gobernauak, ZeBe aipatze-aditzaren balioa harrapatzen du, eta mendeko marka sintaktikoak eragiten, horrela aipua aditzaren objektu dela argi eta garbi uzten da. Aitzitik, ZuBerekin, aditza soilik markatzaile da. Funtzio fatikoa du;
- Eragin dute, orobat, berbaldi-moduak eta denborazko osagaiek: izan ere, kontakizunak, narrazioak, lehen aldiak... ZeBeri errazten diote bidea;
- Zehaztugabe edo indefinituek, eta baita autore askoren artekoak, ZeBeren aldeko joera garbia dute: “**batzuec diote... beste batzuec...**”; “**cenbaitec dionez...**” (C 497); “**jaquintsu ascoren** iritzia da...” (C 73);
- Ezezko esaldia izateak bideak zabaltzen dizkio ZeBeri: “**Etziran** atrebitzen esatera, balio zuala...” (A 60); “**Ezetz** dio Florenciaco Concilioac” (A 10);

- Elementu modalen presentzia ZeBeren aldekoa da: “S. Ciprianoc, eta beste ascoc uste zuen, **etzuala balio...**” (C 286); “Esan diteque... obe **litzaquela**” (A 586);
- Galderaren erabilpenak ZeBe ziztatzen du: “cer esango da zure asmo, eta negarraz? Esango da, asmo, eta negar anzuac **cirala**” (B 321);
- Berbaldi ekarria, baldin eta kausazko proposizio batean txertatuta bada-go, joera ZeBe da; ZuBe egitura hobeto ezkontzen da baldintzakoekin eta “dioenean, era honetan, guisa honetan, esaten dezula...” formulekin;
- Hala konparaziozko proposizioetan, nola “-nean” bidezkoetan, joera ZuBeren aldekoa da: “era onetan”, “guisa onetan” formulekin bezala;
- Lehen aldiko lehen aldia, hots, “pluscuamperfecto”-a, ZeBerekin uztartzeko joera dago; lehen aldiko burutu gabea eta baldintzakoak, aldiz, aukeran ZuBerekin egiten dira:

[IV 105] “*Ibilli zan Enoch Jaungoicoarequin ta ezcutatu zan*, zeren Jaungoicoac quendu zuan, dio Escritura Santac, Patriarca aren gañean itzeguiten duanean ( ): Ni naiz testigu dio berac.” (C 321-322)

- Erlatibozko esaldiak ZeBe gisako errejimenaren aldekoak direla dirudi:

[IV 106] “Santo Tomas Villanuevac dio urtetik urtera **confesatzen diranac** nequez oartuco dirala **becatuen amarrenaz ere**” (A 308)

[IV 107] “S. Pauloc dio, ez duela Ceruco Erreñua izango, araguizco atseguin ciquiñetan **dabiltzanac** (g).” (B 132)

[IV 108] “Oetatic batec dio: *Poztucu nintzateque ni, baldin Misio batean Jaunagana biurtzen direnetatic eunetatic ogue ta amarrac iraungo balue, becatura biurtu gabe: baña esan deguiquezuet, ozta dirala oguei*. Au letraz ezarria utzi zuan Aita Calatayud-ec” (C 286)

- Enuntziatu autofonikoek ZeBeren aldeko joera nabarmena erakusten dute. Ikus gorago [IV 93], [IV 94] eta abar.

Pragmatika eragileei dagokienez, hona hemen zenbait alderdi ZuBe/ZeBeren bideratzaile-edo:

- Ahozkoa/idatzia moduetara lerratzea.
- Argi dago ZeBek gramatika-denbora eta pertsonen mugimendua izugarri errazten dituela. Horrek eragina dauka erreferenteen desanbigua-

tzean, bereziki berbaldi ekarri txertatuen kasuetan. Adibidez: “confesoreac esango dizu...”.

- Kontaera: ZuBe da kontakizunaren bihotza eta erdigunea; ber gauza gertatzen da elkarrizketa kasuetan ere. Horrelakoetan, sarrera-aditzaren funtzioa aipuaeren iturria esataria ez den beste batena dela markatzea da. Aditz parentetikoek “rekzio-indar” edo gorbernu ahula dute. Ez dira zehatz-espezifikokoak. Ugarietak “neutroak” dira: “dio”, “esaten du”...

## b) Esatezko aditzak

Esatezko aditzek (*verba dicendi*) gizakion hizkuntza jarduerak adierazten dituzte, jarduera komunikatiboak, zerbait komunikatzeko xede nagusia dutenak.

Hala, topa ditzakegu komunikazio aditz batzuk, aipuari sarrera eman ez ezik, informazio bat edo iruzkin bat gehitzen dutenak ekoiztutako hizkuntza jardueraren gainean. Esanahiari lotutako ñabardura horiek direla-eta, esatezko aditz batzuk ugariago dira ZuBen eta beste batzuk ZeBen; esaterako, “kontatu”, “erakutsi”, “aitortu” errazago lotzen dira ZeBerekin.

Blanche-Benveniste autoreak (1988 in Clauquin 1993) bereizten ditu komunikazio aditzen artean erabilera ahulekoak eta rekzio-gaitasuna dutenak. Lehenengoek diskurtso-markatzaile soil gisa funtzionatzen dute (“dio, esaten du...”). Bigarrenetan ZeBeren interesa neur daiteke, izan ere, rekzio gaitasuna duten aditzek indar zehatz bat garraiatzen baitute, eta zehaztasun hori egokia izaten da modalizazio efektu bat fintzeko, doitzeko eta neurtzeko.

Desberdindu ditzakegu, era berean, aditzen hiru erabilera mota kontuan hartuta enuntziatuan zein posizio hartzen duten: hasierakoa edo prolepsea, tarteko edo anaplepsea, eta bukaerakoa (Cerquigliani 1981).

Rekzioa duten aditzak (*aitortu, eracutsi, aldarricatu...*) oso bakanetan agertzen dira sermoietan posizio parentetikoan, eta ia inoiz –beharbada inoiz ere ez– bukaerako posizioan. Aditz bakarra dago aipatu hiru posizioetan agertzen dena, baina markatzaile estatutua du: “esan”.

## c) Esatezko aditzaren kokagunea

“Esan” aditzaren kokagunea dela-eta, gauza bitxi bat antzeman daiteke. Aditza aldatu egiten da posizioz sermoietako aipuetan. Eta aldaketa horrek munta du eta ondorio sakonak. Horrela bada, esanguratsua bilakatzen da aditzaren tarteki gisako kokagunea, baina, bereziki interesgarria da esaldiaren azkenekoa. Jar ditzagun adibide batzuk:

[IV 109] “Aimbesteraiño amatu guinduan Jaunac, dio S. Juanec, non eman zuan bere seme bacarra: *Sic Deus dilexit mundum, ut filium suum unigenitum daret* (cap.3)” (C 107)

Eta aditza bukaeran:

[IV 110] “Baña cer dirala uste dezu gauza oec guztiac, diran eceñ andiac izan da-ere, Jaungoicoaren izate andiaren aldean, edo pare ipintzen badituzu? Ecer ezpallira bezala dira guztiac Jaunaren izatearen aldean. Ceruaren erpiña baño goragocoa da Jaungoicoa: infernuaren ondo baño ondoragocoa: igarotzen ditu lurraren bazter, ta muga guztiac, ta itsasoa baño zabalagoa da, dio Job Santuac.” (C 310)

[IV 111] “*Ezpada bat jayotzen uretic, eta Espiritu Santuagandic, ecin sartu diteque Ceruetaco Erreñuan, esaten digu Jesu-Cristoc (a)*” (A 63)

Itxuraz, eta lehen begiratu batean, aditzaren “dantza” horrek ez du ezer berezirik. Ezer izatekotan arazo erretorikotzat har liteke, edota erritmo kontuengatik egindako bariazioztat, edota estilo jokotzat. Halaz ere, ondo erreparaturaz gero, joko hau ez dela inozokeria ikusiko da.

Izan ere, kokagune horiek (tartekoak eta bukaerakoak) “erreserbatuta” daude, segun eta nork hitz egiten duen; hots, iturrien arabera agertzen dira posizio horietan aditzak. Horrela bada, arestiko adibideetan, “Job Santua”-ren hitzak errepresentatzen dira eta Jesukristorenak. Baina zer gertatuko zen berbaldi-iturria Lutero izanez gero, edo Ilustrazioaren jarraitzaile bat? Horrelakoetan aditza ez da azken posizioan agertuko: kokagune horietatik baztertuturik dago kompetentzia. Geroago, interazioaren atalean, ikusiko dugu sermoiak asoziazioak eta disoziazioak egiteko makinaria dela. Ikusi ditugu alderdi horiek pertsona-izenordainak aztertzean ere.

Bigarren konstatazio bat ere egin beharra dago: aditzaren kokapena ez da gertakari isolatua, baizik eta multzo osoago baten adierazle bat. Multzo edo konfigurazio horretan ekartze eta baztertze kontuak sermoiaren asmo argumentatiboarekin lotu behar dira. Eta lerratze edo errefuxatze horiek ez dira koinzidentzia hutsa. Zerbait zabalagoaren aurrean gaude, eta marka horiek icerber-gailurra bezala dira. Izan ere, gure ustez, azpi-intentzionalitatea dago hautaketa horietan.

Horrela bada, ondorengo adibidean “etsaia” mintzatzen da. Egia da aditza azken kokagunean agertzen dela eta itxura batez gure planteamenduaren aurka argudiatzen dugula. Baina ohartu behar da dagoeneko argi utzi duela alde zuzenetik zein den zati horren “balioa”: “*eta etsaiac itzeguin zion suge baten*

*autic*”. Beraz, kristauak ez du nahasteko arriskurik. Enuntziatzailea erabat baztertuta gelditu da:

[IV 112] “Bacebillen Eva Paradisuan, eta etsaiak itzeguin cion sugue baten autic: *cergatic ez dituzue Jaunac eman fruta gucietatic jateco escua?* Esan cion: Eranzun cion Evac...” (C 100)

Esatezko aditza, bukaeran eta erdian ez ezik, hasieran ere jartzen du sermoilariak. Aditzaren politika oso bat dago esataria A, B edo C barrutikoa izan (gogora bedi A barrutia “ortodoxia”ri dagokiola –Biblia, patristika, kontzilioak, eta abar– ; B barrutia “doxa”ri dagokio, herritarari eta kristauari; eta, azkenik, C barrutia “heterodoxia”ri lotzen zaio, herejeei: Lutero, ilustratu jendea eta abar).

Esan bezala, aditza tarteki eta bukaerako posizioetan azaltzea badirudi erresebatuta dagoela A barrutiko aipugintzarentzat. Hala ere, badira kontraadibide batzuk polikiago ikustea merezi dutenak. Esaterako, ondorengo adibideetan aditza tarteki posizioan agertzen zaigu, eta enuntziatzailea ez da A barrutikoa:

[IV 113] “*Jauna, esaten cidan* batec: *nire confesioac berritu nai nituquean.* Eranzun nion: *eztago orretaraco lecuric: ceren eriotza alde aldean daucagun;*” (A 47)

[IV 114] “*Atocea, Cristaua, janciera au Erreguegandic iristen duana, ez da izango Erregueren Seme? Bere izatez ez, esango didazu, baina bai aintzacotzat artua.* Au bera guertatzen da bada graciaren janciera ederra iritsi duanarequin” (A 24)

[IV 115] “*Nor oroitu, dioe, eguin ditudan becatu guciacz?*” (A 150)

Lehenbiziko adibidean, apelatibo bat (“Jauna”, apaizari deitzeko modua da noski) agertzen da, eta argi gelditzen da enuntziatzailea aldatzen dela; bestalde, enuntziatuak zerbait positiboa dakar, bai hizketa-egintza bai eduki mailan (kontsulta egitea eta konfesioak berritzea). Hau da, tarteki bezala agertu bai, baina testuingurua positiboa da. Ber gauza gertatzen da beste bi adibideetan ere. Azkenengoan, gainera, galdera baten hasiera da, hots, aski da beste enuntziatzaile bat sartzea. Badakigu, bestalde, molde honetako tartekiak gutziz normalak zirela latinez (*inquit, ait...*).

Guztiarekin ere, ekartze horiek kristau edo fededunekin izan ohi ditu esklusiboki; Lutero eta beste etsai batzuekin ez dago horrelako jokabiderik. Are gehiago, kristauen aipuetan ere, oso gutxitan agertzen da aditza tarteki kokagunean, eta inoiz ere ez azken posizioan.

Banaketa horrek hasieratik bertatik ematen digu zerbaiten arrastoa: bada-la nolabaiteko elkartzetxe/urruntze prozesu bat aipuen iturriari lotuta. Baina oraingoz banatze hori hasberria da... Beste fenomeno batzuk aztertu ahala sendotuaz joango da. Dena den, martxan dago jada sermoiaren asoziazio/disoziazio printzipioa.

#### d) Sarrera-aditzen ispilu-jokoa

BE zein unitate linguistikorekin eta unitate horien konfiguraziorekin gertatzen den xehatzen ari gara. Orain, sarrera-aditzekin jarraituz, sakonago zulatuko dugu.

Gorago esan dugunez, badira sarrera-aditz batzuk espezifikokoak, hau da, hizketa-egintzaren nolakoa adierazten dutenak. Beste aditz batzuek, ostera, ez dute zama semantiko berezirik, markatzaile hutsak edo neutroak dira. Gure testuetara etorritik, aditz espezifikoen agerrerra oso lotua dago aipuaren iturriaren barrutiari. Eta, hala, nekez agertuko da rektzio-indarreko aditzik edo aditz espezifikorik B barrutikoetan, eta inoiz ere ez C barrutikoetan. Esate baterako, ez da gisa honetako adierazpiderik: “Luteroc *aitortzen* du”, “Macedonio herejeak *aditzera ematen* du...”, “Becatariac *aldarricatzen* du...”. Besterik gertatzen da baldin eta aipua “aldeko” sailekoa bada. Orduan bai “aldarrikatu”, “aditzera eman”, “ots eguin”, “aitortu”... Baina aditz horiek ez daude “etsaiaren” eskura, ez dira C barrutiko enuntziatzaileen hizketa-egintzak markatzeko erabiltzen. Kasuren baten bakarrik agertzen da Luteroc (etsaia izanik) “eracutsi zuan” zerbait. Baina errepara lehen aldira eramanez duela enuntziatioa eta erabat dela deskriptiboa:

[IV 116] “Luteroc beste heregia ascoren artean eracutsi zuan bat gai oni dagocana, esaten zuala, edoceñec, naiz guizonac, naiz emacumeac, duala confesioac aditzeco escua.” (B 343)

Puntu honetan gogora ekar dezakegu aurreko kapituluaren hizketa-egintza kontrolatzaileez esaten genuena. Ikus daitekeenez, kontrola enuntziatioaren gainera ere hedatzen du sermoiaren enuntziatzaileak.

Beste ildo batetik, sarrera-aditzek “nori” flexioa hartzen dute baldin A barrutiko aipua bada (ikus gorago [IV 111] “**esaten digu Jesu-Cristoc**”). Aipua C barrutiko bada, sarrera-aditzek ez dute inoiz ere horrelako flexiorik hartzen (\*Luterok esaten digu). Baina guztiz ohikoak dira A sailean: “esaten digu”, “aditzera ematen **digu**; “esaten **dizu**, eracusten **digu**...”.



Zenbait sarrera formula ere (“*Orregatic dio*”, “*Argatic dio...*”) ohikoak dira A barrutiko aipuak ekartzeko. Sermoi enuntziatzaileak justifikazioak eta edukien argitzea eskaintzen du horien bidez. Gisa horretako formularik ez, ahatik, C barrutiko aipuetan. Ez eta B-koetan ere:

[IV 117] “Orregatic S. Bernardoc itz eguiten dio era onetan: Aditu dezu...” (C 108)

[IV 118] “Orregatic cion Davidec: Ez dedilla, Jauna, ichi nere gañean nere becatuen putzua: *Neque urgeat super me puteus os suum*”. (C 505)

[IV 119] “Argatic arrituric dio Baruc Profetac...” (C 324)

[IV 120] “Argatic David Santua...” (C 338)

Horiez gain, bada beste “ispilu-jokorik” ere. Segmentuak errepikatzean datza: “*Eztaquizue, dio, eztaquizue*” gisako egiturak egitean. Egitura hauetan segmentu bera errepikatzen da esateko aditzaren ezkerretara eta eskumatara:

[IV 121] “Eztaquizue, dio San Pauloc; eztaquizue, zuen gorputz oriec dirala Espiritu Santuaren vicilecu, edo Eliza? *An nescitis, quoniam membra vestra templum sunt Spiritus Sancti?* (n) Au dio San Pauloc, eta edoceñ becatari arrituric utzi bear luqueen gauzac gogora datoz emendic.” (A 118)

[IV 122] “Ar ezazue, esan cien Jesu-Cristoc Apostolu Santuai; ar ezazue Espiritu Santua: zuec parcatzen dieztezuenean becatuac barcatuac izango dira. *Quorum remiseritis peccata remittuntur eis*.” (C 521)

[IV 123] “Ez beldurtu, esaten dizu Isaiyasen autic; ez beldurtu, zeren ni zuerequin, eta zure alde naizan: *Ne timeas, quia ego tecum sum* (j). Jauna, esaten cion Job Santuac, jarri zaite nere alde, eta betor nor nai nere contra: *Pone me juxta te, et cujusvis manus pugnet contra me* (l)” (A 215-216)

[IV 124] “Garbituko ditu -dio Isaiasec- garbituko ditu Siongo alaben edo animen erdoiak su ta garraren espirituarequin”. *Abluet Dominus sordes filiarum Sion in spiritu ardoris*.

[IV 125] “Banoa ni, esan cien Juduai, banoa ni, eta nire billa ibillico cerate, baña alperric: illo cerate ceren becatuan: *Ego vado, et qauretis me, et in peccato vestro moriemini* (Joan 8)”

[IV 126] “¿Non ciñan, esaten dizu Jaunac, non, lurraren cimenduac ezartzen ari nintzanean? *Ubi eras, quando ponebam fundamenta terrae?* (j)” (C 341)

[IV 127] “Ona ni, dio umiltasun andiarequin, ona ni...” (C 109)

[IV 128] “Ez, dio Santuac: ez eriotzac, ez vicitzac...” (A 125)

Adibide horietan, ikus daitekeenez, bi gertakari jasotzen dira: batetik, esatezko aditza tarteki posizioan dago; bestetik, segmentu zati bera ezkerrean eta eskuman azaltzen da. Errepara bedi latinezko testuan ez dela lehen segmentua errepikatzen; beraz, esatariak berak sartua da.

Egituraren banaketari begiratzen badiogu, ez da agertzen horrelako erre-pikapenik B barrutiko aipuetan. Horra beste baztertze edo disoziazio bat. Kontu honetan ere banaketaren printzipioak agintzen du eta horren arabera dantzatzen du testuak. Banaketa enuntziatio-eszenaren antolamenduaren osagaietarik dugu, dudarik gabe.

### e) Tipografiaren erabilera

BE seinalatzeko kakotxak eta kurtsiba dira elementu tipografiko nagusiak. Kakotxak soilik erabiltzen dira beste testu bateko zati luzeak ekartzeko eta bereziki sermoi hasieretan (zehazki dotrinaren liburuko aipua, CCTik hartua). Ohar kakotxak lerro bakoitzean ageri direla esaldiaren hasierako posizioan («). Sermoi osteko oharretan ere, apaizei zuzenduak, kakotxak darabiltza egileak:

[IV 129] “Ienvicio Comunioaren liburuac dio era onetan.

«Esan dezu, nola eguin behar dan azqueneco confesiotik oraindañoco examina. «Demagun, aurtasunetic, edo gueroz eguin dituzula confesio gaiztoren batzuec ;nola eguingo «dezu, oec berritzeco bear dan, examina? Eranzuten du. Lenvici jarrico naiz Jaunarena urrean, «eta adoratuco det umiltasun, eta errespeto guciarequin...” (A 139)

Oso gutxitan, dozena erdi kasutan bakarrik, erabiltzen ditu kakotxak testu barruan eta aipu laburrak egiteko:

[IV 130] “Arritzen da S. Agustin, Jesusen gunganaco onguinai geyegui oni beguiraturic, eta dio: «Izanic gure Jaungoicoa Guicialdun, edo Omnipotentea, ecin gueyago eman cezaquean: izanic guciz jaquintsua, etzuan jaquin cer gueyago eman: eta izanic guciz aberatsa, etzuan izan zer guyago (sic) eman»...” (B 251)

[IV 131] “Oroitzen cera zure soro onaz, eta beguira jarriric esaten dezu: «Oh! Soroa, soroa! Soro nere nagitasunez galdua! Orain horrela bazaude ere laster beste moduz ecusico zaitue». Atocea, Cristaua, baldiñ au esanda epadezu guero arretarequin zure soroco sasiac, larrac, arantzac, eta belar gaistoac ateratzeco;” (C 512)

Jarraian BEko pasarte baten zatia dakargu, kakotxen bidez markatuta. Erreparatu azken hitzak, sermoilariarenak izanik ere, komatxo artean datozela:

[IV 132] «Zazpigarrena, cembat bider utseguin dedan oroitu ecin banaiz, alic onguiena contu ateraco det, cer oitura gaizto izan dedan Mandamentu bacoitzean, astein edo illean cembat bider erortzen nintzan, *pensamentuz, itzez, eta obraz guchi gora behera*». Orra zer eracusten digun lenvicico comunioco liburuac...”. (A 140)

Esan behar da, orobat, kurtsiba beste eginkizun batzuetarako ere erabiltzen dela. Besteak beste, zerbait azpimarratzeko, irakulari nola irakurri gomendatzeko, termino baten izaera metadiskurtsiboa markatzeko, izaera autonimikoa markatzeko, eta abar.

## f) Latina

Oro har, nahiko handia da latinaren presentzia. Edozelan ere, bi presentzia mota bereizi behar dira: azken oharretakoa eta sermoiaren barnekoa. Lehenengoa apaizei zuzenduta dago eta kontsulta funtzioa betetzen du. Soilik bigarrena da kristau entzuleentzat edota sermoi barnekoa.

Aipu bera euskaraz eta latinez etor daiteke, hau da, bi hizkuntzetan. Biak agertzen direnean, normalean, latinez datorrena bakarrik agertzen da propio markatua: bi puntuz, eta, batez ere, kurtsibaz. Euskarazkoa ere aipua dela latinaren itzulpena delako dakigu, baina ez hala markatzen delako. Latinezkorik ezean, maiz ez dago jakiterik aipua den ala ez, horregatik mintzatu gara “*particitatio*” estrategiaz gorago.

Sermoiko aipua latinez datorrenean, haren ondoren oharra jartzen du, nondik jasota dagoen adieraziz. Parentesi artean jartzen dituen letra bidez egiten du: (a), (b), (c)... Eta sermoi bukaeran ematen ditu erreferentziak: autore-obra-kapitulu. Edozein modutan, aipua euskara hutsean datorrenean, ez du beti jartzen iturriari buruzko nota, bereziki berbaldi zatia testu bibliko batetik hartuta badago (ikus gorago, [IV 103] eta [IV 104] adibideak).

Aipua latinez etorritz gero, nahiz eta erreferentziarik egin ez, aski da latina erabiltzea enuntziazioaren barruan nolabaiteko jautzia dagoela adierazteko. Dakigunez, fenomeno hau estuki lotuta dago “*particitatio*” erregimenarekin.

## g) Adierazle axiologikoak

Berbaldi ekarriaren markoan elementu axiologiko ugari ageri da. Hala nola, berez denotatzen duten adjektiboak, maiuskulak, adberbioak, osagai modaltzaileak... Iruzkin laburrak eta bidenabar eginiko oharrek ere badira. Fraseologia oso bat dago martxan:

[IV 133] “... eta *guciz ederqui adierazten due Jesusen gurutzeco eriotza*” (B 246)

Asko dira axiologiabidezko markatzeak, esan bezala, eta horiek diskurtso jakin eta zabal baten zantzu dira. Balorazio eta desbalorizazio markak agertzen dira. Positiboak dira esaterako: “Escritura Santac dio”, “Dio S. Bernardoc”, “Jeremiasec esaten digun bezala (C 109), “Erantzun cion Virgíña Txit Santac” (C 323):

[IV 134] “Eguiten ere du *Jesu-Cristoren senide*; Aita baten umeac alabaña senideac dira, eta Jesu-Cristo da gure aita Cerucoaren Semea, ez nola nai, baicic bere izatez, edo naturalezaz eta bera gatic ditu Aitaren edertasun, eta *perfeccio guciac*. Orregatik *eguiaz esan dezaquegu S.Paulorequin Jesu-Cristo dela gure senide nagusia*” (A 118)

Badira deskalifikaziorako erabilitako beste baliabide batzuk ere. Negatiboa da “herege”, “heregia” berbak agertzea:

[IV 135] “Ez da ipiñi bear Idolo, edo Jainco guezurrezcoen icenic. Ezta berez gaizqui dan gauza legue zarreco Santuen icena ipintzea, eguin dezagun contu: Abraham, Isac, Jacob, David; baña obe da legue berrico Santuren batena ipintzea, eta ala aguindua dago emengo legueetan. *Heregeac*, gure legueco Santuac ez onratzeagatic, legue zarrecoenac artzen ditue, eta guri dagoquigu gure Santuac onratzea”. (A 82)

Bitxia da “soldadu” hitzaren joku bikoitza eta antibalentzia. Kristoren soldadua edo gerraria bada, balioa positiboa da; bestela, “soldadua” zein “gerraria” gaitzetsiak dira:

[IV 136] “...*Jesu-Cristoc bere guerrariaquin Confirmacioco Sacramentua- ren bidez, ipintzen die animan bere soldaduen marca*”. (A 94)

[IV 137] “Baña ecusten badu, prest arquitzen cerala, becatutic aldeguiteco, eta umilqui aguertzen dituzula zure zauri, edo becatuac, cer, uste dezu, beregan esango duala Confesoreac? Esango du, *guerrari, edo soldadu ona cerala, leneco pelean gaizqui irten bacera ere*. Demagun, gudari edo soldadu bat, etsayaquin pelean dabillega, guertzen dala zauriz betea.” (B 362)

– Arestiko gerlariak balioespen negatiboa dauka, aldiz, hurrengo adibidean:

[IV 138] “Aditu det, *guerrariac erri batzuetan nescachai nai duena aditzera emateco*, ... eta eyaca dijoacela guerrarien escolara” (B 119)

Horiek horrela, irakurlea berehala konturatzen da, ondo konturatu ere, aipatzen ari garen fenomeno guztiak batera doazela. Maila linguistikoa fenomenook banaka aletuaz joan arren, sermoietan elkarlotuta daude.

Horrenbestez, mekanismo eta elementu horiek guztiak adierazten dute berbaldi ekarri orok sare kontzeptual zabalago eta sakonago batekin duela lotura, eta sare zabal horren itzalpean interpretatu behar direla hizkuntzazko datu hauek.

#### h) “Ala, bezala, dioenez”

Beren ostean agiri diren markak ditugu ala-bezala-dioenez saila. Formula markatuenak “ala” eta “bezala” dira; “dioenez” formula ez markatua da. Horrela bada, “ala” A saileko aipuetara lerratzen da. “Bezala” ere A barrutikoa da nagusiki, soilik kasu batean agertzen da C barrutian, eta oso gutxitan B barrutian, azken honetan esamolde lexikalizatueta ageri da soilik, “esan oi dan bezala” eta horrelakoetan.

Hiru markatzaile horietatik, aurreneko biak dira interesgarrienak darabilgun arazorako. Sakonago azter ditzagun formula horiek hurrengo adibideen bitartez:

- *X-k esaten duen bezala /esaten digun bezala...*
- *X-k aditzera ematen duen /digun bezala...*
- *Ala esaten, adierazten, eracusten duldigu X-k*
- ..., *X-k dioenez.*

Arestiko adibideei erreparatuz gero, bi dira planteatzen zaizkigun arazoak: a) zein erreferente dagokio bakoitzari, ZuBe ala Zebe?; b) markatzaile horiek badute indar diskriminatzailerik, hots, lotura berezirik barrutiekiko?

Batetik, eta erreferentearen auzia erabakitzeari dagokionez, hau da, bakoitzari (ZuBe ala ZeBe) dagokion erabakitzeko, bi galdera hartu behar dira bidea argitzeko, zehazki “NOLA” eta “ZER” galderak. Aurreko adibideek, finean, biak onartzen dituzte, eta, areago, adibideen azpian galdera horiek dautza.

Modalitateetan, badakigu ZuBe formak direla malguenak, izan ere, ZER eta NOLA galderak batera biltzen baitituzte. Ikus nola erantzuten diren bi galdera horiek ZuBe eta ZeBe erabiliz:

*NOLA* dio errefrauak?

ZuBe: “gaitzak bere du gaitzago”

ZeBe: \* gaitzak bere dueLA gaitzago

ZER dio errefracuak?

ZuBe: “gaitzak bere du gaitzago”

ZeBe: gaitzak bere dueLA gaitzago

Eta eskema hori gure sermoietara egokituz gero, zera dakusagu:

NOLA?

ZER?

Onartzen du [+ZuBe – ZeBe]

Onartzen du [+ZeBe + ZuBe]

NOLA galderak soilik modu bat onartzen du (ZuBe) eta ZER galderak bi moduak. Beraz, esan genezake:

NOLA? a) Ala dio Bibliak: “...”; b) Bibliak dion bezala “...”; c) Nola esan du Bibliak? “...”.

ZER galderak bi modalitateak onartzen ditu ZuBe eta ZeBe. Beraz, aurreko lerroan zerrendatukoak lirateke ZuBe-z emanak, eta baliagarriak lirateke horiek ZeBe eginez gero ere. Jarraiko adibideetan dauzkagu esamoldeok tes-tinguraturik:

[IV 139] “oec gabe alabaña ez da gai pentsantu on bat, edo Jesus bear bezala esateco ere, S. Pauloc esaten digun bezala: *Nemo potest dicere: Dominus Jesus nisi in Spiritu Sancto* (p).” (A 119)

[IV 140] “Confesioco Sacramentuac ascotan dacarren bostgarren ondasuna da animaco paque, eta sosegu gozo bat, Trentoco Concilioac esaten digun bezala (q).” (A 119)

Eta galdera zera da auzi honetan, arestiko adibideetako “bezala” horrek zer motatako pronominalizazioa onartzen du? “Trentoco Concilioac HORI(XE) esaten digu”? Ala, beste hau: “Trentoco Concilioac HORRELA esaten digu”?

Ondoko adibideak ere “ala” erabiltzeagatik, zer dio “zehatz-mehatz”? “Horixe” ala “horrela”?:

[IV 141] “Confesio ona eguiteco bear dan irugarren gauza da vicitza ontzeco, eta aurrera becatuic ez eguiteco asmoa. Ala esaten digu Trentoco Concilioac (e). *Cum proposito non peccandi de cetero*.” (A 124)

“Ala-bezala-dioenez” formak, guztiak ere, oso hurbilekoak dira, an-tekotasun handikoak. Ondorioz beti ez dago garbi zein pronominalizazio

edo erreferente mota dagokion bakoitzari. Ondoko adibideetan ere ikus dezakegu iluntasun hori:

- a) **Hala** dio San Agustinek: “amor meus, pondus meum”
- b) San Agustinek esan **bezala**: “amor meus, pondus meum”.

Zera esan daiteke, *ala* eta *bezala* kategoria berekoak direla: izen segmentuak ordezkatzeko gaitasuna erakusten dute, ZuBe balioa erantsiz. Edozein modutan, BEZALA-k bere balio erlatiboari eta subordinatzaileari eusten dio, eta ALA-k ez, ostera. Arrazoi horregatik, ALA/HONELA-k egituretan bereganatzen duen nukleotasuna, mendeko bilakatzen da BEZALA jarriz, eta alderantziz. BEZALA-ri funtzio erlatiboa errepara dakiok:

- a) Adibidean nukleoa zera da: “Ala dio San Agustinek”; b) adibidean, ostera, “amor meus, pondus meum” da.

Gauzak horrela, BEZALA-k balio relatiboa eta subordinatzailea du; eta traspositore rola. Horrelakorik ez du ALA-k: ALA-rekin nukleo den segmentua, BEZALA-rekin mendeko segmento bilakatzen da.

Eta gurera etorritz eta laburbilduz:

- “dio(e)nez”: forma ez-markatua da; beraz, edozein barrutitan agertzen da;
- “ala” eta “bezala” forma markatuak dira, bereziki “ala”, erabat delako A barrutikoa. “Bezala” kasu baten bakarrik agertzen da C barrutian. Ikus adibidea ere:

[IV 142] “Jauna ongui dago ori gucia, baña esan bequit, Apaizac gora jasoric eracusten duanean, cer ecusten degun. Batzuec esaten due, au dotrinan galde-tzean, ecusten duela beren Jauna, edo ecusten duela Jesu-Cristo. Baña engañatzen dira, Jesu-Cristo alabaña gorderic, ta ezcutaturic arquitzen da (...). Beste batzuec erantzuten oi dute ecusten duela oguia, ta au gaistoago da. Au da alabaña nolere bait uste izatea ostia Consagratuan oraindic badala oguia, **Luteroc esaten zuan bezala.**” (C 65)

B barrutian oso gutxi agertzen da bezala, eta esamolde lexikalizatuetan:

[IV 143] “**Esan oi dan bezala**” (B 211); (C 362)

Eta aldiz ugari dira A barrutikoak:

[IV 144] “Sacramentu oec dira zazpi, **fedeac eracusten digun bezala.**” (A 29)

[IV 145] "...S. Juanec esaten digun bezala, *Videte qualem charitatem dedit nobis, ut filii Dei nominemur, et simus.*" (A 30)

Berbaldi ekarria seinatzeko beste markatzaile batzuk ere ageri dira, esaterako: "dizula", "dioenean", "itz eguiten du guisa onetan", eta abar. Baina horiek ez dute indar diskriminatzailearik.

### i) Erreferentzia zehaztugabeko berbaldi ekarriak

Sermoietan oso ugariak dira mota honetako BEk. Hona hemen zehaztugabeen formak eta adibideak:

- a) Zenbatzaile zehaztugabearen bidez, bat baino gehiagoko kopuru zehaztugabearen adierazlea erabiltzea:
  - "Batzuec dioe... Beste batzuec..."
  - "Batzuec dioe... Batzuec dioe... Batzuec dioe... Beste batzuec..."
  - "... oen artean asco dira..."
  - "Badira esaten duenac..."

[IV 146] "Atocea, ta arimarequin bacegoan? eztaquigu, noiz Jaunac aurrari ematen dion anima. Batzuec dioe, aurrac sortzen danean bertan artzen duala anima; besteac dioe guerosêago au guertatzen dala: besteac berrogeigarren egunean, mutilla bada, eta larogueigarrenean, nescacha danean. Orregatic batzuen iritzia da..." (B 118)

- b) *Urlia, Sandia, Berendia*: zehaztu gabeko pertsona bat izendatzeko erabiltzen dira izenok:

[IV 147] "5. Beguira, urlia, edo sandia gogora ecarriric, ceregan igaro dezun arequin becauren bat egiteco naya, esaten dezula ceregan: *arc nai balu, aserratuko ezpaliz?* edo bestela: *bidea emango balit,...*" (C 465-466)

- c) "...dioenez"; "aditu det"; "omen"; "bide"

"Aditu det" (B 119), "dioenez", tarteki gisa agertzen denean eta subjektu zehatzik gabe, iturria baino gehiago zurrumurra dela adierazten du. (Ikus A 308 vs A, 306: "*Legueak dioenez...*").

*Omen, bide*... Beste batek esana dela edota informazioa hirugarren bati igortzen diola markatzeko erabiltzen dira. Hau da, esaten ari dena besteren bati entzundakoa dela markatzeko. *Esaten du(t)e* eta *dio(t)e*-ren pareko dira. Halako balioa dute partikula hauek Agirrearen arabera:



“(…) adierazkizunari buruzko modalizazioa, norbaiti edo norbere buruari erreferituriko esames, berri edo jakintasun gisa emanez, baieztapen ziur, frogatu edo borobilaren orde. Balioztapenaren autoritatea, honakoan, albiste, entzute edo jakitearen mugaketa kokatzen da.” Agirre (1991: 892)

*Omen* eta *bide* partikulek balio epistemikoaz gain balio ebidentziala ere badute: alegia, iturri zehaztugabeak markatu egiten baitute (B 184); (B 188).

Iturri zehaztugabeetan, ikusitakoaz gainera, badira beste adierazpen batzuk ere: a) “*jauna, esan cidan batec...*”; b) “*esaten badiozu erosleari ...*”:

[IV 148] “Jauna, esaten cidan *batec...*” (A 147)

[IV 149] “Emendic ez da ascó asmo erdi, edo laurdena sortzea, *esaten dezula: nai nuque, al banu, utzico balit paquean: aleguina eguingo det.*” (A 202)

Formula batzuetan “*zu*” pertsona izenordea azaltzen da aditzean. Alabaina “*zu*” horrek ez du balio deiktorik, esataria ez zaio ari aurrean dagoenari, edozeini baizik, jeneralizazioa egiteko modu bat da (Amossy 2002: 45).

Ondoko adibideetan ez da esatezko aditzik agertzen, ez eta iturriaren gaineko erreferentziarik ere; hala ere, aipua dela salatzen dute beste elementu batzuek: kurtsibak, deikari edo apelatibo baten presentziak, osagai deiktikoen presentziak, prosodiak agian... Edozelan ere, balio orokortzailea nabari zaie enuntziatu hauei:

[IV 150] “Cer da, nere Cristauac, gaurco egunean alde gucietatic datorquigun berri negargarri au, esaten *diguna: Aituaz dijoaz Cristauac: aldeguin due alde aldean guciac* beren Salvatzalleagandic, eta galdu dira. *Omnes declinaverunt, simul inutiles facti sunt*”. (B 248)

[IV 151] “Ecin sinistu det emen guertatzen dirala onelaco modu itsusiac, baña asco berri txar *aditu dira* azqueneco dembora oetan, eta beldur naiz, cer edo cer guertatuco zala.” (B 191)

Hurrengo adibidetan ikus daitekeenez, ez da sarrera-aditzik agertzen BE sartzeko; halaz ere inplizituki honelako zerbait adieraziko litzateke: “*esatea*”, “*esaten dezula*”, “*Batec esaten duala...*”:

[IV 152] “Bigarren lazoa: *nic eguiñ nuan gauza itsusi ura, baña ez nuan nai becatu eguitea, ta ez det cer confesaturic*. Atocea, etziñan cere nayez...

Irugarren lazoa: *Gauza itsusi oec eguiñ nituanean chiquichoa nintzan, ¿cer nequian nic...?* Atocea...” (C 527-529)

Arestikoaren ildotik, besteren berbaldia ekartzeko moduak ugariak dira. Esaterako, [IV 153] adibideko “Jauna...” horrek zerbait du gordean: “esaten zuen batek”-edo. Aldiz, [IV 154] adibideak esplizitatu egiten du aditza, “dio besteak”:

[IV 153] “Au da gogortasun izugarria. Jauna, egun guchi izan cezaquean. Atocea, ta arimarequin bacegoan?” (B 118)

[IV 154] “Igoal au berez usura da. Jauna, ez nuan nic artoric saltzeco asmoris S. Juan alderaño. Ongui: ori eguia bada, (...). Jauna, **dio besteak**, eguia aitortu nai det; ez nuan asmoris S. Juan artean artoa gordetzeco, baña precio andiaren zaleac escaerazo cidan guerocoa.” (B 189)

Orobat, indefinituen multzo honetan sartu behar dira errefrauiak eta esae-  
ra zaharrak ere. Ale gutxi da gure corpusean. Jakintza konpartitua eta iturri  
orokorra adierazi ohi du paremiologiak:

[IV 155] “Esana dago: **ecusten ez duan beguiac negarric ez**” (A 26)

[IV 156] “Esana dago: **Anz azturac obiraño (i)**” (B 147)

Ohar, [IV 156] adibideak (i) oharra jartzen duela, baina ez dakar erreferen-  
tzia oharrik sermoi ostean, hala beharko bazuen ere.

Laburbilduz, multzo honetan bildu daitezkeen mekanismoek aipatze-  
moduaren arlo berezi bat osatzen dute. Berriz ere Maingeneau autoreak (2004,  
bereziki 112-113) “partizitazio” deritzon aipatze erregimen berezi hori dugu.  
Erregimen hau, horrenbestez, bereziki garrantzitsua zaigu sermoietako aipatze  
modua eta erdua ulertzeko.

Galde dezakegu orain: zein ezaugarri dute erreferentzia zehaztugabez  
markatutako berbaldi ekarriek? Asko eta asko dira horrelako hetereogeneota-  
san adierazleak. Zer azalpen eman “ahots iturri” zehazgabe horiei? Ze funtzio  
lukete zehazgabeek?

Esango dugu ziplo: indefinituak, gutxi batzuk izan ezik, ez dira bene-  
takoak; asko edo gehienak asmatuak eta potentzialak dira, esatariak berak sor-  
tuak. Badira kontzesio itxurak egiten dituzten adibideak, benetan esanak izan  
balira bezala: “*Baten batek esango du/esango duzu...*”. Hala ere, esatariak horre-  
lakoak solaskideari eta haren diskurtsoari aurrea hartzeko baliatzen ditu.

Formula horien bidez markatutako berbaldi ekarriak zuzenekoak zein ze-  
harkakoak izan daitezke. Zuzenekoak izanez gero, kurtsibaz markatuta ager-  
tzen dira askotan. Ez beti, ordea.

Zer esan marka zehazgabe horien erreferentzia-modua dela-eta? (hots, gisa honetako oposizio batean agertuko litzatekeena: “Santo Tomasek dio...” vs “Teologo batek dio...”. Zein ere den bi formulen arteko desberdintasuna (azalpen erreferentzialista, zein enuntziaziozkoa) ondorio bazuk atera daitezke (Ducrot 1970: 91-111) eta guretzat garrantzitsuena, hona: indefinituen bidezko enuntziatio-ezkutatzeak, balio orokor eta tipikoak egiteko aukera ematen du.

Darabilgun planteamenduan eta aztertze-moduan, haatik, uste dugu iturri zehatzak eta zehaztugabeak emateak baduela beste arrazoi-iturri bat ere: jokabide honen gakoa eta esanahi nagusia, berriz ere, hizkuntza arrastoen distribuzioan eta konfigurazioan aurkitu behar dela uste dugu. Hain zuzen ere, enuntziatio-eszenaren antolamenduan eta barrutien osieran, barruti horiek bereizteko premian. Eginkizun horretan pertinentzia osoagoa du zehaztugabeen auziak ere.

#### 4.2.5. BERBALDI EKARRIA: INTERAKZIO-INFORMAZIOA

Behin BEren adierazle linguistikoak aztertuta, ondorengo orrialdeetan adierazle horien interakzio-balioak aztertuko ditugu.

##### a) Kopurua

Lehenbiziko konstatazioa horixe da. Irakurleak berehala antzematen du aipu ugaritasuna edo puztutasuna; “inflazioa”z ere hitz egin dugu. Zer interpretazio egin horretaz? Zein da ugaltasun horren elkarreragin-balioa?

BE ugaritasuna ez da zorizko fenomeno. Ez da, ezta ere, estilo edo hautatze indibidual baten ondorio, ez eta erretorika batena ere. Ugaritasuna ez da esatariaren banitate edo harrokeriagatik egiten, eta ez da inondik halakotzat hartu behar. Sermoilariak ez darabil BE jakintza plantak egiteko, behinola Montaigne autoreak bezala. Esataria ez da exhibizionista. Izan ere, kopuru eta ugaltasun horren azpian beste lege batek agintzen baitu, geroago ikusiko dugunez. Arrazoi sakona zera genuke: sermoia den “makinak” ezin du, ezin duenez, aipurik gabe funtzionatu.

Beraz, argi izan behar dugu aipuen auzia ez dagoela esatariaren izakerarekin edo formazioarekin ezkondata, soilik behintzat. Esatariari enuntziatio-eszenan dagokion posizioarekin baizik. Horrela bada, BEren presentzia zabala oro har, eta aipuen bereziki, beste talaia batetik interpretatu behar dela uste

dugu. Eta interpretazio horrek, orobat, bere egin behar ditu nahitaz beste fenomeno batzuk ere; hain zuzen ere: aipua partaidetzan, aipua-iruzkina erlazioa, eta aipua-memoria fenomenoak.

Aipu ugaritasunaren konstatazioaz gainera, beste bat ere egin beharra dago: aipu ugaritasuna interakzio tresna bat da, begien aitzinean (eta belarrien aintzinean) dagoena. Ugaritasunak helburu jakina du: sermoiak nahi duen ikuspuntuari atek ireki unean-unean, autoritate itxura eman diskurtsoari eta sermoiaren lan mediatikoa justifikatu.

## b) Zuzeneko berbaldia eta zehar berbaldia

Atal honetan, BEren aipu edo zitazio funtzioa ikusiko dugu batez ere. Horrela bada, BE eta aipua baliokidetzat hartuko dira, badakigunez aipua (zuzenekoa zein zeharkakoa) beste berbaldi bateko hitzak ekartzean datzala. Beti ere aipua benetakoa izan daiteke, edota asmatua, fikziozkoa, eta abar. Aipu-ekartze hori, bestalde, ez da modu “neutroan” egiten. Aipua, den modukoa dela, ez da, ez denez, fenomeno inozoa edo epela.

Bajtin-ek azpimarratzen du honen kariaz, esatariak, mintza-elkarreraginarenean baitara, besteren ahotsak eta diskurtsoak ekarri ohi dituela, baina beti ere hautatze prozesu baten ondoren, aldian-aldian datozkeen premien eta kasuan kasuko egoera diskurtsiboaren arabera. “*Tout discours est dirigé sur une réponse, et ne peut échapper à l’influence du discours-réplique prévu*” (Bajtin 1978: 103).

Aipu oro, nolabait esan, “itxura” da. Eta itxura oro trikimañu bat. Aipua, azken finean, diskurtso kontu bat da, ez hizkuntzako kontu. Zehatzago oraindik, aipua enuntziatio-auzi da. Ez da aipurik soil-soilik enuntziatuaren muge-tara makurtzen denik. Izan ere, ez dago enuntziatio-subjektuari ez ikusiarena egiterik, eta ez dago, ezta ere, aipugintza subjektu horrek dituen pertsuasio-asmotik landa uzterik.

Horrela, bada, handia da aipuak duen manipulazio-arriskua. Dagoeneko aipatu ditugu berbaldi ekarri birtualak, potentzialak... Sermoieta nasai dabil-tza hitz hartze fikziozkoak; horra hor, eztabaida asmatuak, erantzun posibleak, apostrofeak, kontzesio-bidezko aurre-hartzeak, prosopopeiak... Aipugintza, gauzak horrela, manipulazio-iturri dugu. *Konnotazio* balioa dauka.

Hel diezaiogun zuzeneko aipuari.

Balirudike zuzeneko aipuak sorburu testuarekiko erabateko errespetua eta fideltasuna bermatzen duela. Eta halakotzat hartzen dugu, izan ere, bi enuntziatzaile independenteren presentzia markatzen du ZuBe-k, bakoitzak bere

ikuspuntuari eusten diotenak. Printzipioz, berez, ahots ezberdintasuna edo polifonia erabatekoa litzateke (Authier 1978: 51). Nolanahi ere den, errealitate enuntziatibo-diskurtsiboa bestelakoa da. Aipatze-egintza ez da *kopiatu eta erantsi*, *copy and paste* gisako ekintza simple eta errugabea. Kontrara, *azpimarratu* eta *ber-ezarri* gisako operazio da. Halatan, koordinazio sintaktikoak mendekotasun sakonagoa izkutatzen du, eta subjektuen arteko elkarreeraginak mamitzen dira bertan.

Edozein aipatzek, eta zuzenekoak ere bai noski, dakarren lehen manipulazioa genealogiarena eta sorkuntzarena da. Eta horrek badu bere konnotazioa. Ikus dezagun zein den A barrutiko aipuen harrobia: Biblia, Patristika, Elizaren gurasoak, kontzilioak –bereziki Trento– ; santu-santak –S. Agustin nagusi–; teologoak, oro har, eta bereziki Santo Tomas... Horrelako aipuak egitean, iturri bibliografikoa ere zehazten da. Argi dago esatariak testu zati idatziak maneiatzen dituela eta eskura dituela. Orobat tradizio luze bat dago enuntziatioaren iturburuan berau legitimatzen. Sermoilariak, jakina denez, “eskura” izaten zuen holako aipu-zerrenda edo aipu-biltegi bat, “Thesaurus” bat. Horregatik aipu berberak errepikatzen dira autoretik autorera. Gure sermoilariak ez zuen Biblia bere liburutegian, orduko ohitura horrelakoxea zen. Baina Calmet-a erabiltzen zuen, eta ez zuen Bibliaren “beharrik”.

B barrutiko aipuei dagokinez (*doxa*, herritarren ahotsak), ez dute euskarri idatzizkorrik. Entzundako gauzak dira, esatariak berak jasotakoak, bere horretan edo... asmatuak, imitatuak, sasi-aipuak. Hau da, sermoilari indibidualaren eskura daude. Horrelako aipuak ez dira sermoilari batetik bestera errepikatzen. C barrutia den bezanbatean, ez dago zuzeneko aipurik: C barrutia ez da aipu gisa inoiz ere ekartzen.

Zuzeneko aipuak, esan dugunez, fideltasunez jokatu behar du, eta, beraz, baliokide izango litzateke kopiarena, edo ia erabateko “mimesiarena”. Modu honetan, konfidantza osoaren pragmatikaren bihotzean kokatzen da zuzeneko aipua. Nolanahi ere den, sermoiarene esatariak egiten du esku-hartzerik aipuan: “ukituak”, gehitzeak, egokitzapenak... Esku-hartze horiek, jakina, euskarazko testuek jasaten dituzte, inoiz ere ez latinezkoek. Eta hain da horrela, gerta daitekeela latinezko testu berak bi itzulpen edo egokitze desberdin izatea, berbaldiaren zirkunstantzien arabera. Ekar ditzagun adibide batzuk konparagarri:

[IV 158] “Asmo au aguertu zuan S. Pauloc, esan zuanean ¿Cerc galeracico ote dit niri Jesus onaren onguinai, eta amorioa? *Quis nos separabit á charitate Christi?* ¿Cerc galeracico dit niri Jesus onaren onguinai, eta amorioa? (A 124)

Eta hurrengo, kontrasterako:

[IV 159] “Asmo au guciz ederqui aditzera ematen digu S. Pauloc, orain esatera noan eran. Gogora ecarri cituan Apostolu Santuac Jesus maitagarriac guri onguinaiez eguin cituan gauzac (...) Eta galdetzen dio bere biotzari: *norc galera-zoco digu Jesus maitagarria amatzea, eta servitzea? Quis nos separabit á charitate Chti?*... (A 202)

Ondoko adibidean, latinezko aipu batean gehiketa dago:

[IV 160] “Sartu zan Ainguerua Virgíña chit Santa cegoen guelara, eta itz eguin cion era onetan S. Lucasec dionez: *Agur graziaz betea, Jauna da zurequin, bedeincatua cera andre gucien artean: Ave gratia plena, Dominus tecum.* Arrituric gueratu zan Virgíña chit Santa agur añ onragarria Aingueruagandic aditu zuanean: nastu zan beregan dio S. Lucasec, eta gogoan cerabillen, cer esan nai ote zuan agur onec: *Turbata est in sermone ejus, et cogitabat, qualis esset ista salutatio.* Argatic esan cion Aingueruac: Ez beldurtu, Maria: *Ne timeas Maria*” (C 107)

Ohar gehiketaz “bedeincatua cera andre gucien artean” atal hori ez dago latinezko bertsoian.

Ondoko aipuak ere badu gehiketarik. Markatutako zatia ez da agertzen latinezko aipuan:

[V 161] “Etorri nintzan dio mundura, *Jaungoicoaganaco amorioaren sua animetan zabaltzeco* ¿eta cer nai det, su au eracequitzea baicic? *Ignem veni mittere in terram, et quid volo, nisi tu accendatur?* (c)” (A 411)

Hona hemen beste “egokitzapen” bat. Ikus daiteke gehiketa ez dela, inondik ere, itzulpen akatsa:

[V 162] “Au aditzera ematen digu Jaunac Isayas, eta Ezequiel Profetaren autic. Garbi zaitezte becatuen loyetic, eta ez galdu garbitasun au becatu berriquin, esaten digu Isayas Profetac: *Lavamini, mundi estote: ayena itzatzue zuen gogoracio gaistoac, utzi itzatzue gaiztaqueric, eta icasi ezazue obra onac eguiten.* Era onetan elurra bezala zurutuac gueratu dira zuen becatuac, grana beceñ gorriac balira ere: *Quasi nix dealbabuntur* (Isaia 1º)” (B 317)

Orobat hurrengo ere, “itzulpen” librean:

[V 163] “Cer da, nere Cristauac, gaurco egunean alde gucietatic datorquigun berri negargari au, esaten diguna: *Aituaz dijoaz Cristauac: aldeguin due guciac*

*beren* Salvatzaileagandic, eta galdu dira. *Omnes declinaverunt, simul inutiles facti sunt.*” (B 248)

Kasuistika asko dago. Ondokoak, esaterako, zentsuratzen du edukia, ai-puari erotismo kutsua kenduz (“Unica est columba mea: perfecta mea”) santitate eta graziarekin ordezkatzeko bere iruzkinean (“au bacarric santidadez, graciaz, doayez ta virtutez osotoro betea”):

[V 164] “Ecin konta al dira nere servitzari oec guciac, dio Jaunac. *Adolescentularum non est numerus*; baña au bacarric da nere ederra, dio aur onegatic; au bacarric santidadez, graciaz, doayez ta virtutez osotoro betea. *Unica est columba mea: perfecta mea* (i)” (C 89)<sup>41</sup>

A barrutia edo ortodoxiaren barrutia, esan dugunez, latinez mintzo da eta, ukituak ukitu, erreferentzia bidez seinalatzen da. B barrutia euskaraz ari da beti eta ez da iturririk aipatzen. Aipatuz gero ere, beheko ezkutariaren kasuan bezala [IV 168], lauso egiten da:

[V 165] “Jauna, esango due: *eztaquit confesio generalean bear adiña esan nuan, edo ez: eztaquit onelaco, edo alaco becatu aditzera eman nuan, edo ez, bear bezala*. Atozea: etzenduan orduan esan, ciñaquin, eta ezagutzen cenduan gutzia?” (A 141)

[V 166] “Jauna, esango didazu: eta cer eguingo det nic. Jaunaren dei, eta borondatea ezagutzeco.” (A 595)

[V 167] “Esaten bide due: *gu Jaungoicoarequico ezconduac gaude*. ( ) Ez det uste, inguru oetara zabaldu dala onelaco usanza itsusiric; baña contuan ipintzen zaituet, engañatu etzaitzetzen (h).” (A 604-605)

[V 168] Jaquizu, *asco ezcutari dirala* nescach erguelac losenchaquin cuturzen dituenac becatura, eta nai duena eguiñ ondoan, igues eguiten due, *esaten duela isecaz: Pú quiratsa dacar*. Sarritan guertatzen da au...” (A 599-600)

[V 169] “Ecusten dezu zure auzo, aide, edo adisquidea on dan adiña, edo gueyago cargatua, eta asitzen zatzaizca berriro edateco bidea ematen, *esaten diozula: Urlia, picherdicho bat ardo edan bear degu elcarrequin*. Itz gozoa dec ori, erantzuten dio besteac” (B 121)

<sup>41</sup> Adibide gehiago ere jar litezke. Errepikapena gerta daiteke hala sermoi berean nola ale desberdinean. (ikus aipu bera errepikaturik: A 124; A 127; A 134. Eta: A 20; A 30. Baita A 24; A 30. Eta A 38 eta I.38).

Latinezko aipuak, ez gutxitan, testu-pusketa gisa ekartzen dira, aipu “mutilatuak” bailiran, bere horretan zentzurik gabeak. Nola liteke hori? Aipuak, horrela jokatura, esaten du esatariak esanarazten diona. Hona hemen zenbait enuntziatu-pusketa: “*Ad agonem*” (A 73); “*Fame pereo*” (A 224); “*Vestem nuptialem*” (A 38); “*Si scires domum (sic) Dei!*” (A 31); “*Si scires donum Dei!*” (A 39-40); “*Si scires donum Dei!*” (A 23); “*Fons aquae salientis in vitam aeternam*”. (A 41); “*Unde hoc mihi?*” (A 50) *Unde hoc?* (A 51). Ikus adibideak:

[IV 170] “Ay! eta baciñaqui ceñ miragarria dan doai au! *Si scires donum Dei!* Doai onec animan sartzen dan unean bertan eguiten du gizona Jaungoicoaren beraren seme, ...” (A 33)

Eta jarraian, (A 35):

[IV 171] “Baciñaqui, Cristaua, ceñ andi, ta miragarria dan animaco gracia-  
ren doaya! *Si scires donum Dei!* Au da doai bat, ...”

Egia esan, bederaziurreneko itzaldiak –bederatziak!– josita daude gisa honetako testu zatiekin. Ikus, orobat, aipua-iruzkinaz esango dena.

Aipuak testua ↔ memoria, eta alderantzizko ibilbidea egiten du. Arestiko kasuetan agertzen den interakzioak balioko luke aipua “ekartzea” eta aipua “gogoratzea” lotzeko. Horrela bada, “ekartzea” = “gogoratzea”, bi-biak balio-kideak gertatzen dira. Horra hor sugestioak gora egiteko bidea. Fededunek testu horiek ezagutzen zituzten askotan entzuteagatik, eta aipu-pusketekin lelo moduko efektua lortuz, errazago ekar zitezkeen gogora lehenagotik entzunda zeudenak.

Aipuen funtzioez ari garela, nabarmen da aipuek funtzio eta estatutu desberdina dutela, beti ere, barrutiaren arabera. Aski da aipuaren markoa aztertzea, alderdi linguistikoan azaldu dugunez: sarrera-aditzak, kokatzeak, markatzaileen balioa... Horiek horrela, aipua iruzkinarekin lotuta dago eta iruzkin asko aipuaren alde ekarrita daude, aipua bera justifikatzeko, edukiaren hedatze edo *amplificatio* gisa, hain zuzen. Gainera, aipuaren sorburu-testua A barrutikoa izanez gero, askotan justifikazioa elkartzen zaio: “Orregatic...” “Orra...” eta abar. Dena dela, “aipua-iruzkina” estrategia propio jorratuko dugu geroago, interpretazio eta exegesi bide ere badenez gero aipu ekartze atergabe hau.

Orain, zeharkako aipuari dagokionez, esan behar da ZeBe-k ere nolabaiteko “mimesia” agertzen duela, nahiz eta, lehen begiratu batean, subjektiboa-



goa-edo dela pentsa daitekeen. Beti ere esatariaren eskurago baitago zeharkakoa. Oihartzun bidezkoztat-edo har daiteke. Zehar berbaldian ez zaigu horrenbeste interesatzen jakitea besteen hitzak, solasaldiak eta pentsamenduak formaz leialak diren ala ez. Beste arreta bat eskatzen du zeharkakoak: “hemen eta orain” hura erabiltzeko sermoilariak duen premia, hain zuzen.

Horrela bada, zeharkako berbaldietan esatariak beste norbaiten berbaldien irudikapena egiten du, baina solaskidetzat hori interakzio-proiektu beraren altzoan dago. Zentzu honetan, zeharkako aipua hasieratik bertatik da iruzkina.

### c) Esatezko aditzak

BEren hizketa-egintzak markatzen ditu esatezko aditzak, eta eskuarki, hizketa-egintza positiboak markatzen dira soilik. Hizketa-egintzek (*aldarrikatu, otseguizu, eracutsi, adierazi, aditzera eman...*) aldeko balioespenak dira. Eta “metafora” tzat har genezakeen sare oso baten baitakoak, beti ere multzo baten aldera lerratzen baitira, eta hizketa-egintza osoago eta orokorrago baten adierazle puntualak baitira. Horrela “esan” (oinarrizkoena eta orokorra) “esaten diGU” bihurtzen da, etab. Garatze desberdinak izan ohi ditu “esan” aditzak, ikusi dugunez, abiaburua nor den arabera.

Hizketa-egintzak horrela markatzeak postura hartzea ere esan nahi du, eta orientatu egiten du solaskidea. Azken buruan, nolabaiteko definizio bat egiten zaio “esateari”, demarkazio edo mugatze bat. Gure kasuan, manipulazio eta interakzio-erlazioak egiten ditu.

### d) Esatezko aditzen kokagunea

Gatozen aditzen posizioaren interakzio-balioa aztertzea.

Esatezko aditzen analisi linguistikoa egitean, ikusi dugu aditzok kokapen desberdina izan dezaketela enuntziatuan: hasierakoa, tartekoa eta bukaerakoa. Orain ikusiko dugunez, posizio hori pixuduna da eta balio enuntziatiboa dauka.

Izan ere, hasierako kokagunean, sarrera funtzioaz gain, “iragazki-lanak” ere egiten ditu aditzak. Hau da, markatzen du bi enuntziatzaile desberdinen presentzia, eta, printzipioz, euren arteko autonomia. Baliteke bi enuntziatzaileak bat etortzea, edo ez, baina bakoitza bere aldetik enuntziatzen da. Hortik bere elkarreragin-garrantzia. Izan ere, esatariak aditza hasieran jarrita, adierazten du ez dagoela, oraingoz behintzat, aipatzen duen subjektuaren eta enuntziatio-subjektuaren artean nahasketarik egiterik. Beraz, distantzia markatzen da.

Tarteko kokaguneari dagokionez, aditzak badu rol estruktural bat, hots, enuntziatuaren mozketaren egiten du, eta jarraian enuntziatziora itzultzen da. Hori horrela izateak, badu balio enuntziatiborik? Baina zein balio? Bukaerako kokaguneari dagokionez ere ber gauza esan daiteke.

Aditza aipuaren bukaeran kokatzen denean, eta, beraz, aipuak mozketarik ez duen bitartean, hau da, tartekiaren bidez egiten den mozketarik ez badu, sermoiaren argudiatzeak eta haribideak aurrera egiten du, arian ari da sermoia eta isotopiak ildo batetik egiten dute aurrera. Sermoia aribide horretatik diharduenean elkarrekikotasuna edo erreziprozitatea adierazten du, bestearekiko joan-etorria errazten eta laguntzen du. Eta beraz, ez dago inolako oztoporik bestearekiko (uler bedi BEko beste ahotsarekiko). Bat datoz bi ahotsak, konforme daude. Esaten denak aditzaren argudiatze norabide edo isotopia mantentzen duela adierazten du.

Izan ere, aditzaren kokaguneari solaskideari zuzentzeko modu berezi bat adierazten du (Jaubert 1988). Kontu hau argi eta garbi ikusten da aditza azken posizioan datorrenean. Aditza bukaeran jarriz gero, zitaren zati batek pasatzen du muga zita estatutua adierazi gabe. Modu honetan, inongo kontrolik gabe pasatzen da aipua, norberarena balitz bezala. Fenomeno honi “jarraipena” deritza, eta jarraipen horrek erreflexibitatea ahalbidetzen du, hots, enuntziatzaile biak elkartzea, ez dadila markatu iturri enuntziatibo eta iturri aseberati-boaren arteko banaketa edo distantzia:

[IV 171] “*Ezpada bat jayotzen berriro uretic, eta Espiritu Santuagandic, eciñ sartu diteque Ceruetaco Erreñuan, esaten digu Jesucristoc (a)*” (A 63)

Arestian bezala jokatu gero, instantziario bat baino gehiago gogora ekarzte bat egiten da, edota instantziario berantiar bat. Posizio eta izate parentetikoak balore fatikoa du, ber-gogoratze hutsarena. Eta esatera dator, mezuaren zati bat pasatu dela, pasatzen ari dela, eta, indukzioz, *pasatuko dela*, eta pasatu ere norena den oso ondo adierazi gabe.

Gauzak horrela, aditzaren kokaguneari banaketak balio enuntziatiboa dauka. Ildo horretatik, banaketa adierazle argia izango da berbaldi ekarriarekiko esatariak duen ikuspuntua adierazteko. Sermoietakiko esatariak ez die aipu batzuei inolako aukerarik ematen aditza bukaeran kokatzeko, bereziki hereje eta exkomiku-esparrukoei, Elizatik kanpokoei alegia. Horrelakoetan, esatezko aditza, badaezpada ere, hasieran jarriko du “iragazki” bezala. Kontuak argi eta garbi hasieratik bertatik.

B taldeak, kristau eta fededunenak, nolako konfigurazioa du tartekiari dagokionez? Talde honetako aipuetan, noizean behin, baina oso gutxitan, aditza tarteki posizioan agertzen da. Posizio hori beti ere “dio” aditzak betetzen du. Ohikoa zen latinez “ait”, “inquit” aditzekin gauza bera egitea. Nolanahi ere, tarteki gisa jarrita ere, inolaz ere hiru elementu baino gehiagoren ostean.

Beste aipu-harrobian, A multzokoa, kontara, zein erraz eta ugaritan agertzen den aditza posizio parentetikoan. Eta, berriz diogu, aditzaren kokagunearen auzia ez da erretorika edo erritmo kontua soilik, bidebatez izango den arren.

### e) Sarrera-aditzen ispilu-jokoa

Ispilu-jokoa erabili dugu izendatzeko esatezko aditzaren ezker-eskumatara segmentu bera errepikatzea. Joko hau, alde batetik, zuzeneko berbaldietan da ohikoena; beste alde batetik, abiaburuko berbaldian ez dago errepikapenik.

Fenomeno honek badu zerikusirik aurrekoarekin, hau da, aditzak enuntziatuan hartzen duen posizioarekin. Batetik, tartekiaren egitura den modukoa izanik, erraztu egiten du segmentu baten bi alboetako errepikapena. Erraztasun hori handiagoa da aditzak balio markatzaile hutsa edo fatikoa badu (Blanche-Benveniste 1988, in Clauquin 1993) Kasu horietan, ederki ezkontzen dira bi fenomenoak, hots, aditzaren tarteki posizioa eta ispilu-jokoa. Are gehiago, segmentu bat errepikatzeak baieztatu eta sendotu egiten ditu ikuspuntuen erreziprozitatea eta konplizitatea. Kide bihurtzen ditu.

Errepikatzeak, orobat, indartu egiten du adierazkortasuna. Gehiago oraindik elementu apelatiboak lagun baditu. Enuntziatio-markoa eta, horrenbestez, ilokuzio-egintza, markatu eta goraiatu dezake errepikapenak. Bistan denez, jokamolde hori ondo dago norberaren mesederako bada. Baina kalterako ere izan daiteke. Autoreak ez dio estrategiari izkin egiten bere onerako bada, eta, horrela, behin eta berriro ateratzen da aipuen iturburua Elizaren doktrinaren baitakoa bada. Inoiz ere ez, ostera, hortik kanpo. Eta izan du okasierik; esate baterako, jarraian datorren adibidean, baldintza erretoriko guztiak alde izan arren, ez du segmeturik errepikatzen (\* Nor oroitu, dioe, nor oroitu...). Noski, badakigu zein barrutitakoa den ahots horren jabea:

[IV 172] “Becatarien artean asco dira Confesioac berritzeko premia estuan vici diranac, baña lan oni equiteco biotzic ez duenac. *Nor oroitu, dioe, eguin dituan becatu guciaz?* Ezta ori nire buruarentzat eguindaco lana. Aitzaquia onequin.. (A 150)

Laburbilduz, errepikapenean “A + aditza + A” formulari jarraikiz, berreskuratuz, segurtatu eta onetsi egiten da hizketa-egintza. Beti ere, errepikapenean, formulazioa mantendu egiten da-eta. Eta ondo erreparatuz gero, ispilu-jokoan hitzak eta berbaldiak irabazi egiten dio munduari, gailendu egiten zaio hitza munduari, hitzaren aldeko jokabidea da. Agirrerengan errepikapena munduari hitzaren alde irabazitako lehia da. Horregatik, hitza zenbat eta erritualezkoagoa izan, zenbat eta biluztuago eta askeago informazio-baloreetatik, errepikagarria egiten da, hitzak bere burua txunditzen du. Liluramendu bihurtzen da. Horra beste pertuasio modu bat. Geroago itzuliko gara kontu honetara.

### f) Tipografiaren erabilera eta latinaren balio enuntziatiboa

Elementu tipografikoen erabilera batez ere latinarekin dago lotuta. Daitekeena da aipu bera batean latinez eta euskaraz agertzea eta beste batean soilik euskaraz. Euskaraz soilik datorrenean maiz ez da kurtsibarik baliatzen. Kurtsiba baliatzen du B barrutiko testua-zatiak markatzeko ere.

Ohar txiki bat atal hau bukatu baino lehen esatezko aditzean agertzen den *nori* morfemaren presentziaz (“esaten *digu*, adierazi nai *digu*...”). Bistan denez, hurbiltasuna adierazten da, esaten duena “gutarra” dela, uhin berean kokatuta dagoela. Eta gainera, solaskidearen arretaren alde jokutzen du, interes zuzena denotatzen baitu hartzailearentzat. Adierazten du morfemak, orobat, alde zuzeneko onartze bat. Hortik esaten dena onuragarri izatea.

Latina zeinua ez ezik, zerbait sinbolikoa ere bada. Hizkuntza perfektuaren estatutua dauka. Gainera, iturri legitimatuen hizkuntza da. Aipuak, soilik kurtsibaz jarriz gero, begietara jotzen du; baina, kurtsibaz eta latinez ere jarriz, begietara ez ezik belarrira ere jotzen du. Talisman edo fetitxe bihurtzen da.

Herritarrak, hala ere, ez dira inoiz latinez mintzatzen, formula liturgikoren batean ez bada (*volo*, *abrenuntio*). Ez deabrua, ez Adan eta Eba, ez Luterok. “Etsai” edo aurkari bat ere ez. Bai santu-santak, Jesukristo, Elizaren gurasoak eta Kontzilioak. Latinak gorde zuen hizkuntza liturgikoaren eta magikoaren (?) estatusa. Kardaberaz arabera, latina beharrezkoa da “Elizako gauzak, edo Doktrina aditzeko”, eta arrazoi hauxe jartzen du: “Guk esan al baño Misterio ezkutuagoak dituzte”. Eta ez da harrizkoa Kardaberaz gogoeta hri:

“Elizako gauzak, edo Doktrina aditzeko, gauza asko Latiñetik artu bear dira: Meza santuak, eta komunioak, guk esan al baño Misterio ezkutuagoak dituzte: gure ditxa guzien iturri orijinal, edo jatorrizkoak oriek dira.” Kardaberaz “irakurleari abisoa” (*Meza eta komunioa*, <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KardaberazMezaKomunioa002.htm>)

Hondarrrik gabeko gordailua eta ahitu ezinezkoa da latinetik datorrena. Estabilitate eta sakontasun handikoa da hizkuntza horren bidezko aipua: ez du sekula inziso edo interpolaziorik onartzen. Latinez datorrena mugiezina da. Ia beti kurtsibaz “babestuta” dator. Horregatik, ZuBe-rekin uztartzen da. Azken oharrak ere, apaizei zuzenduak, latinez datoz. Latinez datorrena beti da positiboa, aldekoa, eta kalitate bermekoa.

Latinak, orobat, barruti enuntziatiboen zedarritzean parte hartzen du, bestela esanda, asoziazio eta disoziazio faktore eragile da. Noski, *auctoritas* kutsua ere badu.

### g) Adierazle axiologikoak

Mekanismo axiologikoez esataria kalifikatzen dute, esatari den heinean egin ere. Besteak beste, gaitasuna onartzen diote esatariari mintzatzeko eta azaltzeko (bestela esanda: interpretatzeko eta erakusteko), zentzu juridiko batean egin ere. Haren pertsona eta diskurtsoa onartzen eta aitortzen dute publikoarekin duen hitzarmen gisa. Horrela, osagai axiologikoez esker, sermoiak homologatu egiten dira, subjektuari erantsitako “balioespena” medio. “Labela” bereganatzen dute. Ohar balorazio hori, onartze hori, *a priori* egin dela askotan. Erreparatu beharrekoa da balorazio hori ez dela analisi edo logika baten ondorio gisa egiten askotan (Combettes 1990).

### h) “Ala-bezala-dioenez”

Zenbait formularen azpian bada nolabaiteko tirabira, formula horiek barrutiek ezkonduz gero. Aipua “*Ala, bezala, dioenez*” gisako formulekin jantziz, aipua erakiko oposizioak indarra galtzen du. Are gehiago, esan daiteke zenbaitetan, formula horiek direla kausa, aipuan bertan indarririk gabe uzten dela ekoiztu berbaldiaren eta berbaldi horri buruzko arduraren hartzea. Alegia, aipua balio polifonikoa ahuldu egiten dela, adostasuna sendotuz.

Egintzaren enuntziatio-balioa ez dator tarterki aditzaren semantikatik, baizik eta tartekiak dakarren enuntziatio bikoitzetik. Konparazioa beti da bestearen bilatzea, beti dakar besteari hurbiltzea, egokitzea, hura kontutanago hartzea. Horrela bada, “*ala, bezala...*” formulek nolabaiteko enuntziatio-iraulketa eragin ohi dute, eta antzekotasun markatzaile diren neurrian edukia ber-jabetze bat bideratzen dute.

“Ala” adberbioz markatutako berbaldi ekarrietan, adostasunaren alde egiten dela esan daiteke. Horrela izanez gero, ederki ulertzen da “ala” eta “bezala”

markatzaileen distribuzioa. Hain zuzen, “ala” eta “bezala” ez dira B eta C barrietan agertzen. “Dio(e)nez” hiruretan agertzen den bitartean.

Esan daiteke badagoela sermoilariarengan arreta bat esataria identifikatzeko, esatariaren arabera egiteko formulen distribuzioa, eta kontuz ari dela ez nahasteko. Beharbada horregatik errepikatzen da aski sistematikoki formularen bat edo beste: “*ala dio Escritura Santac*” + ZuBe. Ideologiaren ikuspuntutik, formula horiek markatuko lituzkete errealitate eta egia bakarrak. Bada hor Hitzaren edo hitz onaren apropiazio sentimendu baten aztarna.

### **i) Erreferentzia zehaztugabeak**

Esana dugu jada ekoiztutako berbaldiaren eta ekarriaren artean beti ere nolabaiteko jauzi bat dagoela. Esan dugu, orobat, harreman hori ez dela uste bezain gardena eta errugabea, subjektuen arteko erlazio-moduak baitaude beti tartean. Zein ote da elementu indefinituen interakzio-eragina gure *corpuseko* testuetan? Ohar, fenomeno hau ere dela medio, manipulazio arriskua erreala dela.

Lehen egiaztapena zera da: adibide ugari dago gure testuetan zehaztugabeekin. Baina hori esan eta beste konstatazio bat ere erantsi behar dugu: ugaritasun hori ez da “indiskriminatua”. Kontrara, bereiztu ditugun barruti horietako batera lerratzen da, B barrutira eskusiboki. Beste hitzetan esanda, hizkuntza elementuek presentzia desberdina dute enuntziatio-barrutien arabera.

Horrela bada, berehala ohartuko gara barruti jakin batera lerratze horrek baduela balio bat. Izan ere, beste batzuek esan dutenaz informazioa emateaz gain, nolabaiteko balio “modala” ere beregatzen dute. Erreferentzia zehaztugabeko berbaldi ekarria ere, ikusten ari garen beste fenomenoak bezala, interakzio-faktore da.

Bildu behar dugu orain funtsezko dimentsio bat aztergai ditugun adierazpen zehaztugabeen elkarreragina aztertzeko, bai eta elkarreragin horren nondik norakoa ulertzeko ere. *Dialogismo* dimentsioaz ari gara, oro har, baina bereziki *polifonia* dimentsio eta balioaz. Berbaldi ekarri orotan, dakigunez, enuntziatzaile bikoiztua dugu, bi enuntziatzaile, alegia. Kontua da jakin behar dela zein den bi enuntziatzaile horien arteko erlazio-modua. Elementu bat polifonikoa dela esateak, bere adiera hertsian, esan nahi du bi enuntziatzaile horiek kantitatez ez ezik ikuspuntutuz edo iritziz ere elkarrekiko beste-lakoak direla. Hau da, printzipioz, ez datozela bat, edota, gutxienez, beregainak direla.

Hori horrela da polifoniaren adiera *stricto sensu* hartuz gero (ikus Ducrot eta Bajtin autoreen interpretazioa nozio horren inguruan, in Perrin 2004). Are gehiago, enuntziatuaren muga-barrutietatik irteren ez bagara. Baina, berbaldi luzeagoetan “distantziatze” edo “bestelako” izate hori ez da horren argia eta agerikoa izaten, mailakoa edo graduzkoa baizik. Eta testuinguruak badu zeresanik (ikus Recanati 1981: 45-46 eta Trognon 1986: 89-94).

Nolanahi ere, adierazpen zehaztugabe hauen balio polifonikoa oso altua da, dexente altuagoa batez ere A barrutiko aipuekin erkatuz gero. Adibidez esatearren:

[IV 173] ¿Cer eguingo da onela dagoan aurrarequin? Batzuec dioe, ecin batayatu ditequeala, ceren jayo ez da. Besteac dioe batayatu ditequeala, ceren munduaren beguietara aguertu ezpada ere, Jaunaren aurrean sortua, eta jayoa dagoan. Aingueruac jayoa deitu cion Jesu-Cristori Amaren sabelean cegoan demboran ere: *Quod enim in ea natum est, de Spiritu Sancto est* (m). Beste batzuec dioe, ecin jaquin dezaquegula, amaren sabelean dagoanari emandaco batayoc balio duan, edo ez; eta orregatic eman bear zayola ura, sabelean badago ere, esaten dirala itzac guisa onetan: *Batayoa artzeco gai bacera, nic batayatzen zaitut zu Aitarren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren icenean*. Iritzi onetacoa da Benedicto amalagarrena...” (A 66-67)

[IV 174] “S.Buenaventurac dio, beartua dagoala becataria Jaunagana biurtzera, becatuan erortzen danetic bereala, baita confesatzera ere, garizumari ichedoten egon gabe. Besteac dioe, dembora luzea dala aste bat igarotzea becatuac, besteac dioe illa bete, besteac lau, edo bost illabete. Atzanean beste batzuec dioe, eguiaz Jaunagana biuritzen bada becataria confesatzeco aguinteac estutzen duanean, ez dala izango zabarqueria larri, edo mortala bitarteco luzapena (d); Eta cer nic esatea nai dezue, guizon jaquintsuac onembeste iritsi elcarren contracoac badiue? Nic esan dezaquedana da, Escritura Santan Jaunac esaten diguna. Ez deza zula, dio, egunetic egunera luzatu Jaunagana biurtzera...” (A 186)

Baina ikusi zer gutxi irauten duen B barrutian beregain edo autonomo izate horrek:

[IV 175] “Batzuec esaten due, au dotrinan galdetzean, ecusten duela beren Jauna, edo ecusten duela Jesu-Cristo. Baña engañatzen dira, (...) Beste batzuec eranzuten oi due ecusten duela oguia, ta au gaistoagoa da.” (C 65)

[IV 176] “Becatarien artean asco dira Confesioac berritzeco premia estuan vici diranac, baña lan oni equiteco biotzic ez duenac. *Nor oroitu, dioe, eguin dituan becatu guciac? Ezta ori nire buruarentzat eguindaco lana. Aitzaquia onequin...*” (A 150)

[IV 177] “Jauna, ez diet ordea biotzetic birau eguin. Atocea, eta eztaquizu...”  
(B 435)

[IV 178] “Eta gai onetan beti izan bada cerbait munduan, cer etzan guertatuco guerra onetan? Guerrariac etziaquien... non batec esan cidan: *Jauna, miretsitzen da gure itzeguiteaz? Jaquin beza bada, onelaco erreñu, Provincian, emacumeac ere gure eran aitatzen dituela araguiaren icenac.* Norc esan, cer calte emendic etorrico diran animetara? (f)” (B 145)

[IV 179] “Bidutzien gañean ipui asco barreatu izan dira munduan. Batzuec siñistu oi due (...) Baña oec dira ipui utsac guizon jaquintsuen iritzian (c)” (A 64)

Beste ahots batzuek ekartzean tolerantziari tokia egiten zaiola ematen du, *doxaren* ikuspuntu horiek eztabaida-gai izango direla. Malgutasuna agertzearen seinale izango dela besteen iritziekiko. Balirudike polifoniaren aldeko saioak direla, baina, arestiko adibideek erakusten dutenez, hurbiltze horiek iraupen laburrekoak dira.

Izan ere, besteen hitzak eta esanak, ekarri ekartzen ditu, baina “polifoniarri” bitarte txikia irekita, ziplo mugatzen da haren esparrua. Berehala itotzen da ahotsa. Eta gutxietsiz, bazterrera uzten da.

Adibide horietan dimentsio polifonikoaren maila desberdinak antzeman daitezke. Baina ondo erreparatuz gero, ikuspuntu eztabaidatueta ez da inolako askatasunik edo polifoniarik, ez da ahots desberdinik onartzen. Subertiorik edo kontrako iritzirik ezean, dena errazago onartzen da; are gehiago oraindik, transgresiorik edo dotrina urratzerik egin ezean, orduan, dena da armoniatsua eta ederra. Ez, ordea, bestela.

Esatariak besteen esanak, hitzak, iritziak... ekartzeko asmoa erakusten du. Ez du erreferentzia zehatzik egiten baina aipu horiek badakigu nondik datozen: kristauen/fededunen giza taldearenak dira. Modu horretan, kristauen hitz-txanda dela adierazten zaigu. Aukera du kristauak berba egiteko, jokabide polifonikoari jarraituz. Baina, lan horretan, manipulazioari soka luzea ematen zaio: izan ere, konstatazio hutsa duten erabileretatik, ordezkatzearainoko bidea egiten baita, ikusiko dugunez. Horrela, jakina, oposizioaren berbaldia kodetu dezake esatariak, eta irakurgarri/entzugarri bihurtu. Berbaldi hori entzuleriaren aurrean ere jartzen du, eta eginkizun horretan aipatu elementuak pertinentek bilakatzen dira: izan ere, B barrutiaren identitate propio eta berezia zirriborratzea lortzen dute. Modu honetan, barruti horren berbaldiaren berri ematen zaigu.

Baina itxura, adierazle eta sintoma estilistiko guztien gainetik (horra hor lekukotasunak, imitazioak, idiolektuak...), azken buruan, indefinituen ekar-



tzea domestikatzen eta isiltzeko estrategia bat baizik ez da. Herria isilaraztekoa.

Nabarmendu behar dugu *corpusean* erreferentzia indefinitua duten berbaldi ekarriek dimentsio polifoniko eta dialogiko altua dutela. Gainerakoei baino gehiago darie alderdi hori, zeren A barrutiko aipuek alde aurretiko adostasuna baitute beti. Horrexegatik diogu markatzaile zehaztugabeak erabat direla polifonikoak eta dialogikoak: besteen hitzak eta berbaldiak ez ezik, *bestelako* berbaldiak ekartzeko erabili ohi dira. Are gehiago, bereizketa edo *bestelakotasun* hori markatzailei esker eraikitzen eta bideratzen da, neurri batean. Nolabait esateko, erreferentzia zehaztugabe hauek dira denetan subertsiboak, aldentzea edo bestelako iritzia modu gordin eta gardenean markatzen baitute. Hona hemen, esandakoaren argigarri, zenbait adibide:

[IV 180] “Batzuec esaten due, au dotrinan galdetzean, ecusten duela beren Jauna, edo ecusten duela Jesu-Cristo. Baña engañatzen dira, (...) Beste batzuec eranzuten oi due ecusten duela oguia, ta au gaistoagoa da.” (C 65)

[IV 181] “Eta esaten omen du: *Au oraiñ ¿cer izango da guero?*” (A 604)

[IV 182] “Esaten diezala bear bada: *zaute zaute, guero ere elcarrequin vici bear dezue!*” (A 604)

[IV 183] “Esaten bide due: *gu Jaungoicoarequico ezconduac gaude.* ( ) Ez det uste, inguru oetara zabaldu dala onelaco usanza itsusiric; baña contuan ipintzen zaituet, engañatu etzaitetzen (h).” (A 604-605)

Mota horretako dudak eta eztabaidak jakintsuen artean gertatuz gero (edo adituen eta arituen artean), esatarariak horren berri ematen du, eta bere iritzia ere agertzen du. Baina ez du bestearena ezabatzen, isilarazten edo ordezkutzen.

Adibide horietan ikus daitekeenez, bi subjektu enuntziatzaileak bereizita ageri dira, zuzeneko berbaldia izan, zein zeharkakoa. Adibide horietan guztietan, bestalde, ez dira bakarrik besteen hitzak ekartzen, ekartzen dira, baita, beste iritzi edo abiaburu batzuk ere. Beste modu batera esanda: bi enuntziatzaileen arteko aldentzea markatzen du esatariak, distantzia. Horrela betetzen da guztiz, Ducrot eta Bajtin autoreek polifoniaz diotena: polifonia ez da bakarrik aniztasuna edo dialogismoa, baizik eta ikuspuntuen arteko bestelakotasun eta kontrajarpena ere bai.

Baina ez dago jokamoldearen azterketa horra mugatzerik, interakzioaren erlazio-moduaren karakterizazioan sakonago joan gaitezke. Interbentzio eta manipulazio ugari eta sakonen gertaleku dira erreferentzia zehaztugabe berbaldi erreferituak.

Zehazgabeen bitartezko aipugintza ez da “tribuna libre” gisako zerbait ere. Esataria ez da bere kabuz edo autonomikoki aritzen. Izan ere, beste norbaiti –kristauari– eman nahi dio hitza, haren hitza jaso nahi du, zuzenean edo oihartzun bidez: “*batzuec dioe...*”, “*aditu de!*”, “*berria dabil*”, “*asco dira...*”. Hurbiltzen da, “mimesia” praktikatzen du, imitazioa, ahots horiek presente egiten ditu... *Urlia, Sandia, Berendia...* Horien guztien pentsamendua, hitzak eta ikuspuntua ekartzen duelako ustez egiten du. Baina... paradoxa dirudien arren, azterketa arretatsu batek besterik adierazten digu: alde batetik, itxurak itxura, berbaldi ekarri horiek ez direla uste bezain polifonikoak; eta, bestetik, indefinitu horiei esker manipulazioa irristatu daiteke.

Ohar bedi molde honetako berbaldiak beti direla berbaldi potentzialak, birtualak, asmatuak, sasi-berbaldiak... Zeren manipulazio ibilbide luze honetan, zuzeneko aipuak dauden bezalaxe jasoak izan direla esango zaigu, eta horietatik abiatuz sortu direla birtualak, potentzialak... Hala, esanetatik hasi, eta esatariak berak asmatuetera, inoiz esan ez direnetera, edota, are oraindik, esan beharrekoetara jauzten da. Azken mota horretako aipuak ere bai-baititugu.

Jarraian ematen ditugu jokamoldearen urratsak eta moduak.

a) Ez dago beste modu batera pentsatzerik edota esaterik:

[IV 184] “Zuc, nere Cristaua, iritsi nai dezu, eguin dituzun becatuen barcaioa? Gauza bearra da bada oec aitortzea, edo confesatzea. Au da zure siniste, edo fedea eracusten dizuna, eta besteric esatea da *heregia* deritzan becatua, eta debecatzen du Elizac Excomicu nagusiarequin: *Anathema sit* (a).” (A 233)

[IV 185] “...eta esaten omen du: (...) esaten diezala bear bada: (...) Ah! Guraso madaricatua, umeen becatuen estalquiña!... eta lotsa guchirequin esaten bide due: gu Jaungoicoarequico esconduac gaude. Au da *heregia* bat, bada ez da Jaungoicoaren, eta Elizaren aurrean ezconzaric, Apaizaren, eta testigüen aurrean eguiten dana baicic” (A 604)

b) Hurrengo adibideetan esandakoa bere horretan jaso dela edo aditzera ematen du:

[IV 186] “(...) esaten diozula: *Urlia, picherditxo bat ardo edan bear degu elcarrequin*. Itz goxoa dec ori, erantzuten dio besteac.” (B 121)

[IV 187] “Ecusten dezu zure lagun urcoa edanean ya chit igaroa, ta osotoro galduco dala convidatzen badezu, brindatzen badiozu, ta alere esaten diozu *vecino, hermano, cuñado, ez dezu gaur nere convitea artu gabe echera bear, brindo cuñado*,” (C 555)

[IV 188] “Jauna, biraua ote da esatea *ay amorratua*, edo *gogaicarria!* Ez, itz oequin alabaña ez gaitzic, ez onic opa diozu lagun urcoari. Jauna, ascotan esaten det *ah puzoi txarra!* Au ere ez da birau. Jauna, ta *arranoa* esatea? Ori ere ez. Atozea: *arranoa* cer da? egazti andi bat, eta ori attatzea, edo *belea*, saizuria, edo sapelaitza esatea berdinda (sic)” (B 31)

[IV 189] “Beguiria, urlari laudatu ote diozatzun bere ibillera gaiztoac, esaten diozula: orain da zure dembora: *choraqueri andia da amamen artean lizuntzen egotea: ederqui eguiten dezu unore ona igarotzean*. Ah! Losenchari *madaricatu!* Deabruaren escola-maisua, eta becaturaco zucia!” (B 120)

c) Elkarrizketa guztia ere asmatu dezake, ahozkoaren piper eta gatza falta ez duena!:

[IV 190] “Galdetzen dizu erosleac, *cembat urte ditu bei onec?* Nabill alabaña umeac ta esnea ongui eman ditzaquean bei baten billa. Zuc quentzen diozatzu beiari bi, edo iru urte, eta saltzen diozu bei zarra gaitzetaz. Ez du balio igual onec; biurtu bear dezu gaizqui eramana, eta calteac ere bai. Galdetzen dizu bestea, *eznetzuac* (sic) diran saldu nai dituzun beiac? Erantzuten diozu: *ea jaten eman guiezu ongui, eta emango dizue nai dezun eznea*. Badaramaizqui erosleac beiac; ematen die jaten ongui, eta ecusten du, ez duela ezneric, edo chit guchi duela. Ez du balio igoal onec. Galdetzen dizu, *eztulic*, edo beste gaitzic duen? Erantzuten diozu: *arbia, edo belarra bustia, edo inceza betea emanda, inoiz eztulen bat, edo beste aditu diegu, baña gañeracoan ez*. Eta guero? Erosleac ecusten du, eztanda eguin nai duela, eztulca...”. (B 184-185)

d) Beste honetan, berriz, aitortza nola ez den esan behar ilustratzen du; beharbada hizketa femeninoaren ezaugarriak aipatzen ditu inplizituki?:

[IV 191] “...nastutzen ditu milla contu era onetan: *Jauna, irten zan gure Pepe goizean mendira: eguin nituan taloac, eta baratzuri zopac, eta etzan agiri*: Emacumea, ceñ da *gure Pepe?* nere suya, zori gaitzoan neretzat aguertu zana. Emacumea utzi itzatzu naspilla oriec, eta esazu gerta zatzun becatua. *Bai, Jauna*, bere-bereala. *Juan zan bada* mendira: eguin nituan taloac, eta baratzuri zopac *eta dembora lucean egon guñan ari ichedoten*. Emacumea esazu eguin dezun becatua, *alferric dembora igaro gabe*. *Bai, Jauna, bereala bucatuco det guzia*. Etorri zan *noizbait*, esan nion, nola egon guñan ichedotez gogaituac. Au asco izan zan equiteco neroni isecaz, eta edozeñ gauza esaten. Orduan bota nion birau bat, esaten niola: *Niri ematen cizquidan naigabeac ecusico al cituala bere gañean*. Orra *cembat itz alfer esan oi diran itz guchian aditzera eman litequean becatua aitortzeco*. Acusatzeco denboran utzi bear diran beste itzac dira loiac, edo aragizco izenac.” (A 316)

- e) Oraingoan, zer esan behar duen esaten zaio eta, halaz ere, berbaldi ekarri gisa ematen du:

[IV 192] “Lenengoa da, enzutera zoazen Meza Jaunari esqueintzea, esaten diozula: *Trinidad guciz Santa, Aita ta Semea, eta Espiritu Santua, Jaungoico bat* bacarra, eta iru Persona zerana! Adoratzen zaitut umiltasun, eta errespeto guciarrequin. Esqueintzen dizut, (...)” (B 245)

Kristauaren ahots propioaren desplazatzea eta ordezkatzea bete-beteak dira *zer esan behar duen* esaten zaionean. Holakoetan aipua ez da konstatazioa, baizik performatiboa. Aipua ez da aipu, baizik eta agindu, esan beharrekoaren aipu. Argi geratzen da gisa horretako laginetan zein den handia enuntziatzailearen presentzia, eta noraino iristen den:

[IV 193] “Ala ere zu, Cristaua, oitu zaitte lagun urcoaren utseguite, eta tachac ez sinistera, bide chit andiric ezpadezu: esazu ceregan: *ez det nic zer egin lagun urcoaren utseguiteaquin: nere buruarequin daucat zer eguiñic asco. Jaunac lagun deguiola bacoitzari.*” (B 490)

[IV 194] “Bigarrena: examina arretaz eguiñ ondoan, ceregan arquitzen dituzun, becatu eriozcoac, edo mortalac aitortu, edo Confesatu bear dituzu, ez nolana, baizic arqitu dituzun eran. Oroitzen cera, eguin cenduala onelaco, edo alaco gaiztaqueria? esan bear dezu bada, *eguin zenduala.* Etzera ongui oroitzen, eta zabuan bezala zabilta, *eguin nuan, ez nuan.* Esazu *duda au eta bayetzera* etziñagoa bazaude, esazu ori. Au da becatuac *aitortzea*, edo *Confesatzea* bacoitzac beregan arquitzen dituan bezala, eta asco da au, Trentoco Conzilioac eracusten digunez.” (A 150)

Modu horretan jokatura, berbaldi ekarriak intimidazioa sortzen du, agintzen diona entzulari berea balitz bezala onartzera esatariak proposatutakoa. Dirigismoa eta zuzentzea da. (Gogoan izan aurreko kapituluan ikusi ditugun erregulazio mailak).

Esatariak, modu honetan jokatura, berak eraikitzen du, “bere kabuz” eraiki ere, kristau-fededunen doxa-sistema:

[IV 195] “Aditu det, guerrariac erri batzuetan (...) *ez ote da basoetan oteric oiei su emateco?*” (B 119)

[IV 196] “Baña asco berri txar aditu dira azqueneco dembora oetan, eta beldur naiz, cer edo cer guertatuco zala” (B 191)

[IV 197] “ez dirudi beste gauzaric, ezpada elcar artu duela Luciferrec, guizonac eta emacumeac...” (B 118)

Laburbilduz, erreferentzia zehaztugabez hornitutako BE asko eta asko –ia gehienak– ez dira benetakoak; baizik birtualak, asmatuak eta esatariak berak sortuak edo formulatuak. Bistan da horrek esku-hartzeari eta manipulazioari bidea errazten diola, hots, subjektibitateari. Era berean, jokabide honek subjektuen arteko interakzioa argitzen digu.

Geroago ikusiko dugunez, iritzi horiek guztiek doxa mailakoak ez ezik, asko eta asko uste mailakoak ere badira; eta usteak, erdia ustela... Ez die kris-tau eta fededunen iritzi-pentsamenduei inolako sendotasunik ematen, eta, beraz, esan aurretik ere, baztergarriak dira.

Ikusi dugunez, ahots horiek ez dira besterik gabe integratzen, hau da, alde-z aurretiko galbahetik pasatu gabe. Horra hor “atocea” eta erreplikak. Horrelako iruzkinik ez du A barrutiak, alderantziz baizik. Batean, errefusatzea eta aldentzea. Bestean, aintzakotzat hartzea eta maiz justifikazioa. Batean, “atocea”; bestean “ala” eta “bezala”.

#### **4.2.6. BERBALDI EKARRIA: INFORMAZIO SOZIO-DISKURTSIBOA**

Orain, egokitzen zaigu informazio linguistiko eta interakziozkoetik urrats bat haratago joatea, gogoan izanik interakzionismo sozio-diskurtsiboaren perspektiba esku artean dugula.

Esan dugu jada, pertsona-izenordainak ez bezala, berbaldi ekarria ezinbestean dela berbaldi-arteke gertakaria. Dugun ikuspegitik, berbaldi ekarriari, Voloshinov (1992/1929) autorearen hitzetan esateko, “goitik beherako” begirada egingo diogu. Beraz, aurretik egindako analisiak beste begirada batetik aztertuko ditugu. Banan-banan barik, multzoka egingo dugu lan, nahiz eta banan banakako emaitzak jasoko diren.

##### **a) Hiru barruti: A/B/C**

Hasteko, A/B/C barrutien arazoari helduko diogu, horixe baita sermoigintzaren elkarreraginaren “estrategia globala”. Sermoiaren irakurlea berehala ohar-tzen da oposizio diskurtso baten presentziaz, eta konturatzen da badela prin-tzipio bat funtzionamenduan biltzea/baztertzea egiten etengabe. Bestela esanda, bada, sermoiaren barnean des-homogeneizazio printzipio bat. Ikerla-ria analisi zehatzagoak egiten hasten denean, ohar-tzen da auzi hori ez dela azalekoa. Kontrara, elkarreragin sakonen abiaburu dela.

Izan ere, gure interpretazioaren arabera, banaketa hirukoitz hori enuntziatio-egoerak sermoi-jarduerari ezarritako eskakizunetarik da. Esango genuke, “neurri” sozio-diskurtsiboa. Ez da esan beharrik hiru barruti horiek zein sinboliko eta zein esanguratsu diren sermoietan. Aurreko analisisietan ikusi ahal izan dugunez, barruti horietako bakoitza gertakari eta konfigurazio linguistiko diskriminatzailez osaturik dago. Gure ustez, gisa horretako banaketa zehatza eta sistematikoa soilik esplika daiteke printzipio erregulatuak bat presupuestatzen bada. (Asoziozioaz eta disoziozioaz, ikus Perelman & Olbrechts-Tyteca 1994 [1958]: 627 eta hh).

Gatozen, bada, barruti bakoitzaren konnotazio-balioak agertzeraz, eta sermoietako interakzionismo sozio-diskurtsiboaren lehen ezaugarria zirriborrazteraz. Deskripzioan C-A-B ordenari jarraituko zaio.

### **C barrutia**

Heterodoxiaren eremua da. Ez du izen onik, eta balioespen negatiboa jaso ohi du. Diskurtsiboki zein enuntziatiboki, marginaturik agertzen da. Hereje eta exkomikoen esparrua da, eta eksklusioa praktikatzen da. Fisikoki ere, sermoietan oso leku txikia egiten zaio barruti honi. A barrutiarekiko aurkaritza, inolaz ere, apurtu-ezina da eta elkar-ezina. Exklusio hau, ikusi denez, elementu linguistikoetara hedatzen da: gertakari eta mekanismo zenbait ez daude presente (berbaldi zuzenez ez dira inoiz ekartzen, esatezko aditza beti hasieran...). Orobat, indar handia dute elementu axiologikoez, hasi lexikotik eta gainerako elementu diskurtsiboetaraino.

Lutero, Zuinglio, Macedonio, Frantziako eta Cadizko ilustratuak... aipatu aipatzen dira, hala behar eta. Baina herejeak izaki, ez dira inoiz ere beren baitan aurkeztuak, soilik agertzen dira ezarri zaizkien akats, “bekatu” edota “keria” guztien aitzakiatan, ortodoxiaren onerako.

Analizatu ditugun baliabideen erabilerak ispilatuko luke, gure aburuz, orduko gizartean presente legokeen binarismo hegemonikoa.

### **A barrutia**

Ortodoxiari dagokio. C barrutiarekin kontrakarrean edo oposizio bete-betean dago.

Beti dago positiboki markatua: determinazio positiboen bidez (“San”, “jakintsu”...), modalizazioen bidez, elementu tipografikoen bidez (letra larriak...), lexikoarekin... Hain ditu muga argiak barruti honek, ezen ez dagoen

irakurlea nahasteko arriskurik. Analisi linguistikoan aztertu da zenbait mekanismoren ugaritasuna eta presentzia diskriminatzailea: horra hor berbaldi ekarrian ugaritasuna, ZuBe/ZeBe modalitateen banaketa, sarrera-aditzena, aditzaren kokapena, ispilu-jokoa, tipografia eta hizkuntzaren erabilpena, aipuen iturburua, axiologia eta abar. Geroago helduko diegu aipua-iruzkina erlazioari eta errepikatze-estrategiari.

A barrutia da sermoietako instantzia nagusia. Bera da sermoigintzan dagoen diskurtso oso eta bete bakarra.

## B barrutia

Ustearen eta doxaren barrutia da. Barruti honen erreferentziala kristau-fededunen taldea da, eta beronen usteari eta iritziari buruzko enuntziatioa biltzen da. Barruti honen estatutua diskurtsiboa da batez ere. Garrantzia handikoa da; izan ere, berau da eztabaida gune edo iruzkinaren helburuaren objektu.

Ikus dezagun nola kokatzen den kristau-fededuna eszena enuntziatiboan, zer estatutu dagokion. Kokapen hori, jakina, ikuspuntu sozio-diskurtsibo jakin bati makurturik dago, bestela esanda: *izatezko heterogeneotasunari (hétérogénéité constitutive*, Authier-Revuz 1984).

Kristauen hitzak edota aipuak jasotzen dira, hala ZeBe bidez zein ZuBez. Ekartze honen argitan ikusten da sermoilariak aintzakotzat hartzen dituela kristauen hitzak eta iritziak, eta ekarri ere errespetu handiz ekartzen dituela, alegia, enuntziatu bezala ekartzen dituela (esapideak, modalizazioak, eta abar kontuan hartuz). Baina dakigunez horietako asko –edo gehienak beharbada– asmatuak, birtulak edo potentzialak direla, bestela esanda, sasi-aiпуak.

Zenbaitetan B barrutiari puntu positibo batzuk esleitzen zaizkio. Baina ez dira asko, ez eta sakonak ere, ahazkorra baita kristaua:

[IV 198] “Badaquit, eta atseguin andiarequin aitortzen det, guraso asco dirala emen, eta inguruco errietan, ederqui daquienac ongui confesatzeco, ta comulgatzeco prestaera, eta aleguiña eguiten duenac beren aurrai ere eracusteco. Baña beste asco arquiteuco dira non nai guciz jaquinezac, zabarrac, eta sasico abereac bezala vici diranac.” (A 489)

Oro har, baina, kristaua bekatari den aldetik enuntziatzen da. Kristaua jakintasun-ezak jota dago kristaufedeari dagokionez. Edota, gutxienez, jakiteko premia larrian, “bide” zuzenetik joateko. Arina eta alferra da:

[IV 199] “Emendic ez da ascó asmo erdi, edo laurdena sortzea, esaten dezula: *nai nuque, al banu, utzico balit paquean: aleguiña eguingo det*. Era honetan itz eguiten duen becatariac ez du...”. (A 202)

Kristaua ez-gauza da bera bakarrik moldatzeko, ez da gai “Jesus bat ere bear bezala esateco”, nahiz eta “Jaunaren gracian arkitzen dan”:

[IV 200] “Gañera Jaunaren gracian arkitzen danean ere, ez da gay (sic), edo gauza onelaco irabaciac eguiteco, ez eta Jesus bat bear bezala esateco ere: *Nemo potest dicere Dominus Jesus nisi in Spiritu Sancto* (a).” (A 6)

[IV 201] “*Ezpada bat jayotzen uretic, ezta Espiritu Santuagandic, ecin sartu diteque Ceruetaco Erreñuan*, esaten digu Jesu-Cristoc (a).” (A 63)

Eta diskurtso hau luze eta zabal dabil sermoigintzan. Horiek horrela, diskurtso honetan ez zaio kristauari posizio-gune oinarritzakorik aitortzen, ez maila epistemologikoari dagokionez (beti ere ez-jakintasuna esleituko zaio-eta); ez ontologia mailari dagokionez (ez gauzatzat, ahalmenik gabea enuntziatzen baita); ez portera mailari dagokionez, praxiari (narras eta gogo gutxirekin ibiltzen baita).

Eta besterik badirudi ere, kristauak ez du ahotsik. Presentzia baldintzatua du. Soilik agertzen da enuntziatzailearen diskurtsoaren harilkatzea errazteko, hizpidea emateko, zer esana eta “edukia” hornitzeko. Enuntziatio-eszenan ez daude A eta B parez pare jarrita: diskurtsoa ez dago plano berean. Kristaua ez da bere ikuspuntuaren eta iritziaren jabe eta kudeatzaile. Nahiz eta imitatua den bere hizkera hainbat mekanismo eta estrategia diskurtsibo medio, *kanpotik* enuntziatzen, eta, are, kanpotik kudeatzen da: *entzun det, omen, bide, batzuek dioe...* Definitu gabea, funts gabea, orokorregia... horrelakoxea da kristauaren diskurtsoa. Pairatzen duena nolabaiteko “alienazio” diskurtsiboa.

Nolanahi ere, tarteka, badirudi mundu hori diskurtso baten jabe dela. Esaterako:

[IV 202] “Eta gai onetan beti izan bada cerbait munduan, cer etzan guertatucio guerra onetan? Guerrariac etziaquien itz eguiten araguien icenaren gatzagabe, aim-besteraño, non batec esan cidan: *Jauna, miretsitzen da gure itzeguiteaz? Jaquin beza bada, onelaco erreñu, Provincian, emacumeac ere gure eran aitatzen dituela araguiaren icenac*. Norc esan, cer calte emendic etorrico diran animetara? (f). (B 145)

Badirudi kristaua-fededuna gai dela, baduela ikuspuntu bat, eta, orobat, gaitasuna duela nolabaiteko diskurtsoa sortzeko eta burutzeko, bere kabuz



pentsatzeko. Baina, argi dago, ez da kristau-fededuna diskurtso horren kontzeptuen ekoizlea, horiek denak kanpotik ezartzen zaizkio-eta. Kristauari, guztiarekin ere, aitortzen zaizkio baliabideak, eta, halaber, erramintak diskurtso edo ikuspegi propioa izateko. Berak ere badu kontzeptu mundu eta ideologia bat. Baina horri guztiorri erabilgarritasuna eta etekina ateratzeko gakoa ukatu egiten zaio kristauari. Gogora bitez tratabideak (IV 180); eta, orobat:

[IV 203] “... eta dioe: *orrelaco gabe igaro degu gure dembora.*” (A 489)

[IV 204] “... eranzuten due: *ez da gure errian orrelaco gauzaric galdetzen.*” (A 489)

Baina sermoilariak inoiz ere ez du kristauaren iritzia beretzat hartzen, ez zaio inoiz makurtzen hari:

[IV 205] “Nic daquidana da Santo Tomasequin Theologoac eracusten digüela, becatu larri, ... (A 146)

Kristaua dorpe agertzen baita. Ez du asmatzen eta okerreko bideari jare egin ezinka dabil, behin eta berriz. Eta bere gauzak eta pentsamenduak bere hitzetan esaten uzten zaiola irudikatzen du. Baina maileguan ematen zaizkio hitz horiek, ez dira bereak, esatariak jarri dizkio ahotan. Horrela, herriaren hizkera erabiltzea adotrinamendu estrategia da; kristauen hizkera eta hitzak (“baserritarrak bezala” hitz egitea) ez dira ekartzen kolaborazio edo solidaritate printzipio bati jarraituz, baizik eta etekin jakin bat ateratzeko asmoz.

Kristaua, baina, zirikatzen da arrazoitu dezan, aurrera egin dezan, baina beti ere esatariak aurkezten dituen ondorioetara iristeko. Ez da azaldutakoaren entzule pasibo huts izan behar, haratago joan behar du: “Atocea...”, “Ecusten dezu, nere Cristaua?”:

“[IV 206] Orregatic ez da asco esatea: *nai nuque, albanu; utzico balit paquean, ez nioque nic bideric emango.* Era honetan itz egiten duanac ez du becatua uzteco asmo osoric, baicic *nainuquezco utsa.*” (B 318)

B barrutia, dakigunez, erreferentzial zehaztugabea –aipu anonimo edo indefinituena– kokatuta dago. Badu, beraz, toki oso bat. Hala ere, “uste” mailakoa da toki eta diskurtso hori. Kristau taldeak ez du erakusten ideologia “laiko” propio edo autonomorik, zeren beste ideologia baten mende baitago. Ondorioz, topatzen dugu orto-doxiaren aurrean (A) eta hetero-doxiaren ondoan (C), bitarte horretan, ez dagoela benetako “para-doxarik”, hots, “doxa”

paralelorik, edota bilaka zitekeenik. Kristauarena ez da, inondik ere, “paradoxa”, zeren eta ez du horretarako sendotasunik.

Nolanahi ere den, B diskurtsoarekiko eta haren erreferentzialaren aldeko interes handia du esatariak, izan ere, horren *gainean* jardungo du eta *kontraste* lana egingo baitu. Finean, diskurtso ortodoxoak berak bakarrik eta bere horretan ez du funtzionatzen pertsuaditzeko...

Doxa ekartzen duten adibideek funtzio diskurtsiboaz gain, funtzio kognitiboa ere badute. Adibideok modu sintetikoan funtzionatzen dutelarik, analisi errazak, sinpleak eta argiak egiteko aukera ematen diote kristauari. “Aerio bakarraren” taktika praktikatzen da; beraz, partiketari, bereizketari eta analisiari muzin egiten zaie, eta buruhauste-katramilak bazterrean uzten. Entzuleak, bestalde, erraz identifika eta memoriza ditzake jarrerak eta edukiak modu honetan jokatu.

Barrutiak egiteko intentzioak, hots, modu bitarrean funtzionatzeko jokabideak, hiru abiaburu sozio-diskurtsibo edo ideologiko ditu: batetik, errealitatea bera halakotzat hartzea; bigarrenik, kristauentzat zerbait anbibalentea edo debate-gai izan daitekeena, ezabatu nahi izatea; eta, azkenik, bilakaera dialektikoa eta historikoa bazter uztea. Alegia, sermoiak beti uste sendo eta osotasun itxura ematea.

## **b) Berbaldi ekarriaren ugaritasuna bai, ez edozein, ordea**

Ondoren dakargun konstatazioa sermoi orori dagokio, baina bereziki *Era-cus* moldeari (ikus 2.4.2.2.). Sermoia da berbaldi mota bat aipua ezinbesteko osagai duena. Baieztapen hori egiteko kontuan hartu behar da “partizitazio” edo “partaidetzako aipua”; izan ere, ohar bedi, sermoia ahoz gora publikoki ematerakoan aski zela berbaldi ekarriaren markatze prosodikoa, edota hizkuntza aldatzea (latina). Autofonikoak eta diafonikoak, ostera, ez dira beharrezko. Arrazoa sinplea da: testu eta berbaldi barneko kontuak direnez gero, benetako polifonia edo ahots aniztasunetik bazter samartuta gelditzen dira.

Esana dugu sermoietako aipuak ez direla jakintza plantak egiteko ekarriak. Are gehiago ere esan behar dugu: aipua sermoien *erregulartasun diskurtsibo* bat da, eskakizun soziologiko bat. Bestela esanda: aipua zeinu ere badela, baina zeinu saussuretarraz guztiz bestelako zeinua, zeren gurean premiazkoa eta motibatua baita. Aipugintza ez da kutixia, sinbolo baizik.

Horrela, aipua benetako talisman eta fetitxe bilakatzen da sermoietan eta sermoigintzan. Sermoia, azken buruan, aipuari estu-estuki lotua dago: *aipuen*

*inguruan* mamitzen den mintza-praktika baita. Ez da gehiegi esatea erakusaldi-diskurtsoa *aipatze-genero* bat dela, eta ezin dela bata bestea gabe ulertu.

Aipu ugaritasunak behera egiten du *Plat* eta *Bed* sermoietan, berebiziko hizpidea portaerak, gogo-jardunak eta kontzientzia azterketak direnean. Bi molde horietan, era berean, aipuaren erreferentziala aldatu egiten da. Bistan denez, eta esan dugunaren ildotik, jarrerak, portaerak, bekatuak... nekez izan daitezke material egoki aipuak egiteko. Halaz ere, BE badago presente: BE asmatuak, fikziozkoak, birtualak, sasi-aipu deitu ditugunak. Edota Agindu edo Mandamentuen gaineko argibideak ematerakoan: zertan datzan, pasadizo go-goangarriren batzuk, eta abar. *Plat* eta *Bed* testuetan jaitsi egiten da aipu kopurua, baina, hain zuzen, horietan dira sermoi-antza gutxien duten berbaldiak.

Aipuen ekartzeak eta ugaltzeak beste arrazoi sakonagoak ditu gure uste-tan. Izan ere, esatariari hizpidea ematen dion enuntziatio-egoera hartu behar da oinarriagoko faktore eragileztat. Hala, modu esplizituan esan daiteke ugaritasun horren kausa instantzia soziologikoaren eraginez datorrela. Lagun ditu, estrategisa gisa, beste fenomeno batzuk ere: horra hor sarrera-aditz jakin batzuk, aditzaren posizioa, markatzaileak, elementu axiologikak, eta, bereziki, jarraian datorren aipu-modalitatea. Hain zuzen, aipua kudeatzeko modua, hots: aipuen erreferentziala, aipuaren eta iruzkinaren arteko joko eta errepikapen-printzipioa. Lehenbiziko fenomenoak (sarrera-aditza, posizioa...) baliabide linguistiko heterogeneoak dira, eta euren balioa nahiko zirkunstantziala da, joko jakin batek sortutakoa. Bestela esanda, norabide jakin batean lan egiten dute eta horregatik esanguratsuak bilakatzen dira. Baliabide horien interpretazioa globalki egingo dugu, besteen arrimura.

### c) **ZuBe/ZeBe modalitateen balio sozio-diskurtsiboa**

Erakutsi nahi da orain, aipatu modalitateek, erregela linguistiko eta kointestual batzuen menpe lan egiten badute ere, beren hautaketa ez dela erregela horien kausaz egiten. Beste faktore batzuk daude hor tarteko, pragmatikoak eta ideologikoak, hots, soziologikoak. Gauzak horrela, eta esan denaren erakusgarri, BEren diakroniaren gaineko puntu batzuk azaldu beharko ditugu ezinbestean.

Platonek eta Socratesek dudak zituzten aipuaren balioari buruz. Platonek *Gorgias* lanean erreflexatu egiten du aipuak bere forma tipikoan duen balio dialektikoa, alegia, lekukotasun edo testimonio juridikoa izatea (Compagnon 1979: 121). Sokrates lekukotasun kantitate handien kontra zegoen, eta pentsatzen zuen ez dagoela aipurik frogatu baliorik zuenik, soilik juizio balioa bai-

tzuten. Aipu erretorikoa *gnome* figurarekin lotzen da, eta lekukotasuna esleitzen zaio. Figura honek berbaldiaren formarekin lotu gabe, “sententzia” funtzioa du; horrela, orokortasuna ez legoke ez forman ez eta proposizioaren edukian ere, baizik eta sententzia hura sostengatzen duen elkartean; bestela esanda, haren ardura enuntziatiboa duen elkartean (Compagnon 127. or.).

Geroago, Port-Royaleko gramatikak ZeBe pribilejiatuko du, eta pribilejio hori azaldu behar da haien uste batetik, alegia: aipatzen duen enuntziatzaileak ezin duela asumitu hitz erlijiosoa (Jesukristorena eta Jainkoarena) edota hitz politikoa (Erregearena) bitartekaritza edo mediaziorik egin gabe. Beraz, iturri predikatiboa eta enuntziatiboa gordetzea eta ixiltzea derrigorra izango da: “*Il s’agit de garder l’unité prédicative et énonciative et toute forme paratactique ou hybride est condamnée (comme le discours direct avec “que” que les messieurs de Port-Royal repèrent dans des textes grecs).*” (Rosier 1999: 99) (azpimarrak geureak)

Arnauld eta Nicole autoreek, Malebranche-k egingo duen bezala, salatu eta deitoratu egiten dute Michel de Montaigne idazlea: hark, batetik, gehiegi darabil aipugintza (usatu eta abusatu egiten omen du); bestetik, ZuBe aipua nartzisismo, nahasketa eta “lapurreta” sinonimo litzateke (Compagnon op.cit. 241, 321, 322, 351. or.) Honela interpretatzen dute berbaldi ekarriaren fenomeno autore horiek, Compagnonek dioenaren arabera:

“le commentateur ou le citeur abusif, Montaigne par exemple, s’aime comme un autre dans la représentation qu’il (se) donne de lui-même. Ayant perdu par le péché d’amour-propre l’idée claire et distincte de soi qui se trouve en chacun, dans la communication avec Dieu, il la projette sur une infinité de choses, les objets de sa concupiscence ou de son désir dans lesquels il est condamné à chercher toujours, sans jamais la trouver, la félicité ou l’harmonie première. Voilà comment se nouent l’amour-propre et la citation: les citations sont engendrées par l’amour-propre comme la foule ou la série des idées confuses, fausses et obscures de soi quand l’idée claire fait défaut.” (Compagnon 321. or.)

XVIII. mendean, berriz, izen ona eskuratuko du zuzeneko aipuak, eta, horrela, hiztun/idazlearen eskura jarriko da. Urrats honetan zeresan handi izango zuen inprentaren aurrerapenak, posible egin baitzuen kakotxak eta kurtsibak erabiltzea.

XX. mendean, Bally, Bajtin eta Voloshinov autoreekin, topatuko dugu beste eztabaidagai bat BEren inguruan. Hala, BEren arazoa ez da neurtuko gramatika auzi bezala, ez eta gramatikaren historiako auzi-arazo bezala ere.

Zeren BEren fenomenoa hartuko da ahots zirkulazio adierazle gisa, eta, horrela, sorburu sozio-diskurtsiboaren ikuspegia abiatuko da.

Berbaldi ekarriaren indar ezaugarritzailea, zentzu honetan, handia da oso. Bada lekukotza interesgarriarik. Esaterako, Bokobza Kahan autoreak karakterizatzen ditu Dulaurens idazlearen *Le Compère Mathieu* nobelako hiru pertsonaje nagusiek darabilten BEren arabera. Haien pentsamendua eta jokabidea azaltzen dira, hain zuzen, besteen diskurtsuok eurenganatzeko dituzten moduen arabera<sup>42</sup>. Garbi ikusten da BE diskurtsuok ezaugarritzeko duen potentziala, baita literatur obrarena ere.

Ikusi ahal izan dugunez, aipuaren diakroniak argi uzten du honen erabilpena eta hedapena ezin dela bilakaera gramatikalaren argitan azaldu, baizik eta jo behar dela instantzia sozio-diskurtsiboetara, hots, ideologietara. Izan ere, soziologia-instantziek dantzatzen dituzte hizkuntza fenomenoak. Nahiz eta aipatze formak neutroak diren erakundeekiko, erakundeak—hau da, instituzio diskurtsiboak— ez dira neutroak aipatze-formekiko. Guztiz gertatzen da hori sermoien kasuan, erakusten saiatu garen bezala.

Zer interpretazio egin? Ze konnotazio-balio erantsi du aipugintzak?

A barrutian esatariak zer erlazio bideratzen du? Barruti horretan, esatariak bereganatu egiten du aipatzen den testua. Eta haren alde jartzen da. Bereganatze urrats hau “bitarteko” urratsa da, eta esatariaren identitatea bertan egiten da. (Bitartekaritza lan hau ikusi da hizketa-egintzen azterketan, orobat pertsona-izenordainetan). Esatariaren hitza onartzen duenak hark errepresentatzen duena ere onartzen du. Esataria “ordezkoa” da. Bereganatze honen adierazleak dira aipuaren ondoren agertzen diren: “*orregatic*”, “*orra*”...; “Orregatic doctrinac dio, Sacramentuac dirala...” (A 30); “Orra cer dioen”; “Orra, nere cristaua...” (A 299); “Orregatic (A 306); “Orra cer dan...” (A 296).

B barrutiari dagokionez, hitzaren behin-behineko kudeatzea onartzen da. Baina, edozein kasutan, argi geratzen da esatariaren eta aipuaren arteko bereizketa. Enunziatuak askotarikoak dira, “bere horretan” jasoak edo “berrartuak”, baina horien ulermena “periferikoa” da, ez dago indagaziorik horietan, benetan pentsatzen denera hurbiltzeko ahaleginik. B barrutiaren ahotsaren aldeko justifikazio-formulen ordez, “atocea”k eta errefusatze formulak agertu ohi dira. Aipatze hauekiko erlazioa sinbolikoa da, fikziozkoa, eta,

<sup>42</sup> Bokobza Kahan, M. “Hétérogénéités discursives dans *Le Compère Mathieu* de Dulaurens”, in Amossy R, eta Maingeneau, D. (2003) *L'analyse du discours dans les études littéraires*, Presses Universitaires du Mirail, Paris, 123-147. or.).

sarritan, ordezkapenezkoa, inpositiboa. Horrela, erlazio hori irudikapen mundukoa izanik eta “periferikoa”, tarte zabala uzten zaio manipulazioari. Esataria ez da inoiz “beste” en hitzetara “alienatzen”, A barrutian gertatzen ez den bezala.

C barrutian, bestalde, ez dago ZuBe-rik; eta ZeBe, berez da besteren hitzen gaineko iruzkina. Barruti honekiko erlazioa “kanpoko” da; ohar bedi gehienetan lehen aldian datorrela, iraganekoa edo beste garai batekoa bailitz enuntziatuz. Barruti honek ez du inongo balio diskurtsiborik. Horrela bada, sermoia benetako mediatizazio-lana dugu, ideologia “haragiz” janzen den modalitate bat, non enuntziazioa toki sozial batekin artikulatzen den.

Ildo honetatik, Compagnon autoreak, teologiaren diskurtsoa aztertzen duelarik, azpimarratzen du aipuek diskurtso horretan duten garrantzia. Dio Compagnonek (op.cit. 157-231. or.) “aipatze-sistematika” jakin bat erakusten dutela aipuek, eta sistematika horren ezaugarriak seinalatzen ditu. Pertinenteak iruditzen zaizkigu sermoien kasuan ere ohar horiek aintzat hartzea, sermoiek bai-baitute antzik eta zorrik diskurtso teologala deritzan diskurtso moldearekiko.

Esan gabe doa aipatze-sistematika honek soilik balio duela A barrutiko aipuentzat. Izan ere, A eta B barrutietako aipuak desberdinak dira, ikusi dugun bezala, bai egituraz, bai funtzionamenduz eta bai funtzioz.

Horrenbestez, gatozen diskurtso teologalaren ezaugarri horien berri ematera.

#### **d) Aipuen harrobia dela-eta**

Sermoietan aipu gisa ekartzen diren testuak dagoeneko exegesi-objektu izan dira. Areago, exegesi eta hausnarketa luze baten jira-bueltaren emaitza eta ondorio dira. Alderdi honetatik, betea-betea da aipatzen den testuaren eta testu aipatzailearen arteko harremana. Aipuaren eta testu aipatzailearen artean, dakigunez, bestelako harremanak ere egon baitaitezke, B barrutian kasu, edota azalpen testuan, edota saiakera testuetan, debategian edota prentsan.

Compagnon autoreak, orobat, zera diosku teologiaren diskurtsoari dago-kionez: historian zehar, berau izan dela testu-teoria bakarra zeinetan aipua eta aipugintza auzi-arazo *nagusi* izatera iritsi den.

Sermoietakoa aipuak ez dira lehen aldiz ustiatuak izan, dagoeneko “hausnartuak” izan dira. Iturri nagusia Biblia da (Itun Zaharra eta Itun Berria), hondarrik gabeko harrobia, agortezina. Hor ditugu ondoren Elizaren gura-soen hausnarketak, “patristikan” bilduak. Geroago, batez ere Trentoko Kon-

tzilioa izango da iturri nagusietarik bat. Beraz, santu-santak, profetak, teologoak, gizon jakintsuak... Tradizio luze eta zabala dugu. Tradizio hierarkizatua gainera<sup>43</sup>.

Ohar daitekeenez, diskurtso jakin baten *corpusa* dugu, historian zehar ongi kokatua, eta horixe da sermoietako informazio erreferentzialaren harrobia ere. Horixe izango da, orobat, “aipua-iruzkina” jokoaren erreferentziala.

Horratx aipuaren genealogia, eta bere bi alderdiak: alderdi teknikoa, hau da, nolatan egin, eta alderdi morala, hots, erreferentzialaren ondaretik hartu beharra. Horrela eraikitzen da exegesia. Aipuak, izan ere, *corpus* batetik ateratzen dira, eta *corpus* berera itzultzen. Eta aipua da tradizio luze eta zabal horretako alderdiak historikoki eta metodologikoki biltzeko erraminta.

### e) Aipua-iruzkina bikotea

“Aipua-iruzkina” hurrenkeraren egitura irekia da, eta hainbat modutara uztartzen dira biak. Esaterako, hurrengo adibidea aipu-iruzkina ezkontzeko eskema posible bat da:

[IV 208] “Asmo au agertu zuan S. Pauloc, esan zuanean ¿Cerc galeracico dit niri Jesus onaren onguinaia, eta amorioa? *Quis nos separabit á charitate Christi?* Galerazoco ote dit neque, edo naigabe andiren batec? *An tribulatio?* Galeracico ote dit goseac, eta larrugorritasunac? *An fames, an nuditas* ¿Galeracico ote dit ez-pata nere lepoan eracusteac? *An gladius?* Ez, dio Santuac: ez eriotzac, ez vicitzac, ez dit galeracico nere Jesus ona amatzea. *Neque mors, neque vita.* Orra ceñ venaz, eta osotoro erabaqui zuan S. Pauloc...” (A 124-125)<sup>44</sup>

Ohikoak dira sermoietan gisa horretako aipuak eta aritzeko moduak. Aipuaren osteko iruzkina funtsezkoa da homiletikan. Formalki iruzkina beti ere joan-etorrian egiten da, aipua eta iruzkina hainbat modutara txirikordatzen dira. Iruzkina zer ote den? Aipuaren “luzapena” edo anplifikazioa, horra.

A barrutiko zitazioak eta iruzkinak estatutu berezia daukate. Aipuaren funtzioa mezuaren eta Hitzaren aurkezpena da; iruzkinaren funtzioa aipuak esandakoa errepikatzea eta “azaltzea”. Oratoria sakratuaren gaia eta helburua, San Agustinentzat, Eskritura Santuen zentzua argitzea eta azaltzea da. Azaltzea eta interpretatzea, entzuleek hitz sakratuaren zentzuak ulertu ditzan, horrega-

<sup>43</sup> Ikus Salaberriren sailkapena Axularren aipugintzaren inguruan (1997: 263 eta hh).

<sup>44</sup> Ikus adibide hori berori, iruzkin luzeagoaz eta beste “gehitze” batzuk lagun dituelarik osatuta (B 318).

tik bilatzen du esatariak asoziazio egokiak egitea iruzkinetan, adibide hurbilak jartzea, konparazioak baserriaren munduarekin, doxa ekartzea, eta abar.

Kontua zera da: aipuan dagoeneko esana dagoena ber-esatea. Hitz errebelatuaren mezua azaltzea eta didaktifikatzea. Aipua inguruan egiten den iruzkina, jakina, adierazlearen gainekoa da, inolaz ere edukiaren gainekoa. Horregatik, iruzkinean aipuan esandakoa ber-esaten da, baina beste era batera esaten da, nahiz eta ez den gauza berririk esaten. Iruzkina da idazlearen estilo pertsonalaren agerlekua, aipuak ekartzean ezin baitu ezarrita dauden moduetatik kanpo ibili. Iruzkinak, beraz, ez du informazio berririk ekartzen, baina esan esaten du, beste modu batean esan ere jada esana. Iruzkinak, izan ere, “Lectio” eta “Meditatio” biltzen ditu: irakaskuntza eta hezkuntza da. Jesukristoren nekaldiaren irakurtzea, seme hondatzailearen parabola, emakume samariarraren jasoera, Kafarnaum herrian gertatutakoa... Pasarte horiek amaierarik gabeko hausnarketa iturri eta iruzkin iturri dira.

Gauzak horrela, iruzkina, sermoietan, *errepikapena* baino ez da: esateko, ber-esateko, mezuari ekiteko tresna. Iruzkina, baina, mota batekoa da: ez da edukiaren gainekoa, edukia eztabaidatzeko, zehazteko edo errefuxatzeko. Errepikapena esandakoaren gainekoa da, memoria eta pertusio bide. Ez da analisi tresna, integrazio baliabide baizik. Sermoiak, nolana ere, ez dira iruzkin hutsak, ez eta errepikapen hutsak ere; aipua sermoietako osagai garrantzitsuena da, baina ez bakarra.

B barrutiari dagokionez, hor ere agertzen da “aipua-iruzkina” hurrenkera. Baina ez du estatutu bera, ezta funtzio bera ere. Aipu horien erreferentziala “iritzia” da, “doxa”, eta gauzak aldatu egiten dira orduan. Baina, horiek horrela, B barrutiko berbaldi ekarria beharrezkoa ez ezik, ezinbestekoa da diskurtsoa ontzeko. Hots, “doxarik” gabe ez dago sermoirik. Sermoiak, izan ere, funtzionatzen baitute termodinamikaren legearen arabera. Hots, bi iturri behar dira: batetik, aire beroa; eta bestetik, aire hotza. Bata *Logos*-a da, A barrutiko “airea”; eta bestea, kristauarena, doxarena. Beraz, A barrutiko printzipioaren funtzionamendua aski bitxia da: zer esan eskaintzen du, baina horretaz gain, eta era berean, *nola erabili* ere esan behar du. Eta horretarako, ezinbesteko sostengua B barrutia da.

Gauzak horrela, aipua-iruzkina hurrenkerak sermoien edukia eta forma, bi-biak, moldatzen ditu. Sermoiak, orobat, lurrin makinak bezala funtzionatzen du; bestela esanda, ur korronte “beroa” eta ur korronte “hotza” behar ditu. Korronte beroak, huts-hutsean, ez du baliorik eragiteko.



Laburbilduz, iruzkina mamitzen da testuak esaten duen eta esan nahi duenaren gainean. Sermoiaren eginkizuna *Logos*-aren aurkezte eta interpretazio lanak egitea da. Ikusi besterik ez dago idazleak zer-nolako interpolazioak, gehiketak, egokitzapenak, zehaztapenak... egin ohi dituen.

Alabaina, errepikapenaren fenomenoaren beraren eremutik are urrutiago eraman beharra dago. Errepikapena sermoiaren ontologiari dago-kio. Izan ere, Trentoren ostein finkaturik geldituko da Errebelazioa gordeko duten liburuen zerrenda (guztira 72 liburu), eta, horren ondorioz, ez da ezer berririk sortzerik, ez esaterik. Trentoren ondorio izango da *Nihil nova sub sole*: ezer berririk ez zeru azpian. Eta hortaz, sermoiak gauza berririk (*nova*) ezin esan duenez, mugaturik dagoenez 72 liburuetara, beste erremediorik ez du izango *berriz* (*nove*) esatea baino. *Nihil nova sub sole... sed nove*. Hau da, ez dago gauza *berririk* esaterik, beraz, *berriz* esan behar. Errepikatuko egingo da jada-esana. Ezer ez berririk zeru azpian. Esan beharrekoa esanda dago. Baina beste modu batera ere esan daiteke. Agortezina da iturria. Horregatik da sermoia errepikatze bat, azkenik gabeko errepikatzea.

Zer errepikatu bereziki, Bibliako pasarteak eta parabolak. Francisco Terrones del Caño erretorikaren teoriko famatuak, Biblia hatzen du predikaziorako iturri agortezin gisa: "*la Escritura es verdadero virote, para que tire el predicador, con un mismo lugar se puede tirar muchas veces*" (Terrones del Caño 1946: 62, Bravo Arriagak aipatua 2001).

#### 4.2.7. KONKLUSIOAK

Aipugintzaren fenomenoaren aztertuko bada, ikuspegi tradizionalak gainditu beharra dago eta, beraz, alteritate, heterogeneitate eta ahotsen zirkulazioaren problematikan zentratuz ekin behar zaio ZuBe eta ZeBe modalitateen azterketari, hots, ikuspegi mediologikoan oinarriturik. Aipugintza ez da *a priori* pentsa daitekeen bezain fenomeno aseptikoa. A barrutikoari dagokionez, ez da aski pentsatzea autoritate argudio gisa ekartzen direla aipuak, sermoia Bibliaren eta santu handien autoritatearekin hornitzeko. Izan ere, ikuspegi enuntziatibo batetik, erraza da asmatzea non kokatzen diren sermoietan balioak eta kontrabalioak, eta erraza da erakustea nola deitzen dioten mekanismoek eta estrategiek batak besteari. Prediktibilitate handia dago hizkuntza mekanismo eta estrategia diskurtsibo batzuen distribuzioan; esate baterako, non egongo den esatezko aditz bat bukaerako posizioan, aditz bat *nori* morfemarekin, segmentu bat sarrera-aditzaren ondoan errepikaturik ezker-eskumatar, formula

bat (ala-bezala-dionez). Areago, sermoiak arreta pixka batez irakurtzen dituenak, aurreikus dezake kurtsiba bat edo ZuBe zati bat. Alegia, jabetzen da makinariaz, sermoiaren muntaia arteaz.

Polifoniaren bidez egiten den interakzio-eraikuntza lan bat dugu aurrez aurre, antolaketa enuntziatiboa diseinatu bat duena, elkarreraginari begira. Eta jokabide bat seinalatzen duena: inklusioa/exklusioa/partehartze partziala. Praktika horiek baliabide kognitiboa dira, forma antitetiko moduan emanda datorrena. Orobat, harreman interaktiboen erregulazio estrategia dira, munduak sortzeko eta banatzeko tresna bat. Beti ere izatezko heterogenetasun baten arabera. Garbiago esanda, bistako heterogeneitatea, izatezko heterogeneotasunaren agerleku da.

Diskurtsoaren modalitateari buruz, sermoia ahotsen gatazkan eta berformulazioan oinarritzen da. Izan ere, diskurtsoa etengabe luzatzeko eta errepikatze beharra du sermoigintzak. Oposizio binarioa eskaintzen du sermoiak. Mundu ikuskera eta “errealitatea” balorazio positiboetara eta negatiboetara polarizaturik errenditzen du, ebaluazio axiologikoak eta balore subjektiboak direla medio. Enuntziatzailearentzat ez dago erdibiderik, ez eta gizakia ebaluatze beste modurik, A barrutiak agintzen duenaz kanpora. Antitesiak elikatzen du, sakon elikatu ere, sermoiaren motorea. Zentzu honetan, koherentea bihurtzen da 3. kapituluaren egindako azterketa. Barrutiak korrelazioan daude hizketa-egintza nagusiekin. Horrela, A barrutien ahotsa JAKINTZA eta BOTHERE modalitateei atxikiturik agertzen da. Kristaua, berriz, modalitate horietatik kanpo, BETEBEHAR subjektu bezala.

Sermoia definitzen da, horrela bada, diskurtso ideologiko bat bezala, errepresentazio itxiko *corpus* bat manciatzen duen aldetik; aipugintzan asoziatzen da, afinitatearen printzipioari jarraituz, *Logos*-ari, Bibliari, eta abar, eta ihes egiten dio enuntziatzaile batzuk aipatzeari. Horrela, sermoilariak legitimitatea eraikitzen du instituzioaren barruan dauden aipugintzaren arauak betez. Azkenik, bihurtzen du bere enuntziazioa entzungarria, jada-esana errepikatzen duen aldetik; eta, aldi berean, aurkezten da jakintza-subjektu eta esateko moduak dakizkien subjektu bezala. Baina beti ere, jakintza eta esateko modu horiek konsagratuak daude, ez dago horietatik irteterik. Sermoiak ez du beste intenbiderik jada-esana *ad nauseam* errepikatzea besterik.

5. KAPITULUA

**SERMOIA ERRETORIKAREN  
ARGITAN**



## 5.0. SARRERA

Azken kapituluari heldu behar diogu orain, eta hegaldi erretorikoa egingo dugu. Pentsatzen dugu XVIII-XIX. mende mugako sermoigintza karakterizatzeke talaia egokia dela erretorika, neurri batean sermoiarene auzia erretorika auzia ere badela. Izan ere, orain arte ikusitako hainbat alderdik norabide horixe seinaltzen dute, esaterako, 3. kapituluko “motiba arazteak” eta ziztatzeak, edota 4. kapituluko errepikapenak... Jarraituko dugu, beraz, sermoia zedarriz eta deszifratuz. Orain, sermoien aribide erretorikoa estudiantuko dugu, erretorika talaia ezinbestekoa denez generoa deskribatzeko.

Erljio katolikoaren kulturaren, beti ere “hitz sakratua”ren gestioan eta hedapenean, erretorika teknika “pribilegiatua” kontsideratu izan da, eta aha-lerin handiak egin izan dira erretorika kristautzeko (cf. 1.3.1.).

Erretorika nozioa zedarriztea, nolana ere, ez da dirudien bezain samurra. Ba-dirudi erretorikaz mintzo garenean bi ikuspegiz, ikermoldez eta kontzeptuz ere aritu gaitzkeela; eta bakoitzak, jakina, bere arazoibide eta azterbideak ditu. Eta are gehiago, balirudike erretorikari buruzko lan oro molde horietako batekin bat etorri behar dela ezinbestean, hots: *argudioen* erretorika edo erretorika *orokorra* (ardatz sintagmatikoa), edota, bestela, *figuren* erretorika, erretorika *elocutioa* (ardatz paradigmaticoa). *Grosso modo* kontzeptzio horien pean banatzen da erretorika, nahiz eta formulatu daitekeen beste terminotan, beti ere dualitatean. Erretorika *pathosean* jartzen bada, publikoaren emozioetara hain zuzen, konbentzimenduak behera egi-ten du eta pertsuasioak gora, manipulazioaren erretorika litzatekeena. Indarra *logos-*ean jartzen bada, berriz, logikaren eta argudiatzearen ikuspegia ematen zaio erreto-rikari eta demostrazio zientifikotik hurbil kokatzen da.

Jakina denez, banaketa eta bitartasun hori historikoa da, eta hein batean, topikoa ere bihurtu da horrela esatea.

Sermioia den generoa eta mintzaira-ekintza zedarrri liteke erretorikoki. Ez da horretarako arrazoirik falta: taiuketa erretorikoa du sermoiak. Egin kontu erretorikak “berbaldi” bezala kontsideratzen duela mintzaira bere jaiotzatik bertatik, K.a. IV. mendetik. Sermoiak, helburu erretoriko klasikoak ditu, noski. Esaterako *movere*-ri dagokionez, sermoiak persuasiora eramanez nahi du eta audientziaren atxikimendua bilatu. *Delectare*-ri dagokionez, hitzaren ederra lantzen du (sermoia arte bilakatu zela, *littera*, esan genuen cf. 1.3.1.). *Docere*-z den bezainbatean, irakatsi nahi du, argudio multzo bat mugiarazten du (Sakramentuak, Aginduak, eta abar). Gainera, sermoia genero aldetik, *genus didascalicum* (genero didaktiko) horretan txerta liteke (López Muñoz 2000); alegia, erretorika kristauak irakaskuntza bideratzeko apailatu zuen generoa (nahiz eta sermoiak elikatuko diren genero epidiktikotik ere). Orobat, sermoiak *psikagogia* erabiltzen du, hots, *egiantzekoa*, eta ez egia, printzipio epistemiko bezala. Eta, azkenik, efektuei dagokienez, gogoia gatibatzea eta emozioa sortzea du jomuga. Sermioia berbaldi erretorikoa da. Bestearengan eragiteko hitza da.

Sermoiak hartzailearengan inpaktu bat izatean dute funtsa. Bestela ere formula liteke: sermoiak eduki formal batez gain, eduki morala (ideologikoa) ere badute, izan ere, fedea sendotzea/bidera ekartzea edo konbertsioa bilatzen dutelako. Posizio hartze bat. Horrela gauzak, estrategia multzo bat behar da praktikara eramanez inpaktu hori –*ekintza* eragitea– erdiesteko. Horren transmisio katea pertsuasioa da. Erretorika horretaz arduratu da eta injinerutza oso bat ere sortu du. Erljio katolikoaren kasuan, erretorika erabili du bere helburuen barreiatze eta hedatzeko asmoz, eta, beraz, bada erlaziorik konfigurazio linguistikoa eta konfigurazio sozio-diskurtsiboaren artean. Gogora ekarri, jada esana badugu ere, diskurtsuaren analisisian ezaugarri bereizgarri intrintsekoak bilatzea ez dela nahikoa, diskurtsuaren beraren eta kanpoaldearen (exteriorités) arteko erlazio moldeak deskribatzean datzala analisisa (“les formes de l’intrication d’un mode d’énonciation et d’un lieu social déterminés” Maingueneau 1995a: 7-8; Maingueneau eta Charaudeau-tik hartua 2002: 574).

Galdera hau da: zein erretorika darabil sermoiaren esatariak kristauari *bide zuzena* erakusteko, eta erakartzeko?

Orain arte ikusi dugunez, sermoiaren hautaketa linguistikoak (estudiatu ditugun izenordainak eta diskurtsu ekarria, kasu) modalitate eta formazio diskurtsiboen arabera banatzen dira, eta, beraz, mintzaira deskribatzeko dugun ikuspegia izanik, ezin dugu mugatu Agirrerren erretorika estilo pertsonalari. Ezen mintzaira eta estiloa guretzako ezin dira erabat bereiztu instantzia sozio-

diskurtsibotik. Erretorika, zentzu horretan ez da adierazpen (huts), eraikuntza historiko baizik. Agirrek ez du erretorikarik “asmatzen”, existitzen da jada, soilik bilatu behar du; “ekarri” eta ez “sortu”. Beraz, erretorikaz mintzo bagara, sermoi generoaren erretorikaz galdetu behar dugu. Bestela esanda, Agirre Asteasukoa plazara erretorika egitera etorri ote zen galdetu beharrean, esango genuke jada barnetik (historikoki) mugatuta eta finkatuta zetorren erretorika baten kontsumoa egin zuela. Agirre *ethos* erretoriko propiodun izaki bainoago, sermoiaren erretorikaren (egiletza kolektiboaren emaitza gisa) erreproduktorea da. Ezen sermoi generoak inposatzen baitio erretorika modu bat.

Gure ikuspegiak, gauzak horrela, ez du bat egiten erretorika *per se* estudiatzearekin, ez baita Agirre bere erretorika (bere argudioak, tropeak eta figurak) hautaketa pertsonal baten bidez antolatzeko (hain) libre.<sup>45</sup>

Hala eta guztiz ere, sermoiak beharizana du erretorikarekiko. Haren uretatik edan behar ezinbestean. Munta handiko eragilea dago auzian: hunkigarritasunaren auzia, hor ebazten da atxikimenduaren arazoa. Sermoiak, beste ezer baino gehiago, *sensibilia* direlakoak handitu eta hazi behar ditu... Azken buruan, ikusi dugunez, Trentorekin Errebelazioa itxi zen (*Nihil novo sub sole...*), sermoiak, horrela bada, arazo bati egin beharko dio aurre: nola esan esan beharrekoa, dena jada esana badago...? Beraz, errepikatu egin behar jada-esana, berriro esan (... *nove*). Erretorikak, erlijioaren xede-asmoei erantzuteko, utzi beharko du alderdi logikoa alde batera (konbentzimendua, demostra-

<sup>45</sup> Hizkuntzaren erretorikari buruzko lanak ia erabat egon dira osatuta estilistika indibidualuz. Guk erretorikaren auzia kolektiboan jarri dugu, mintzairak instituzio gisa duen alderdi sozialean. Hala ere galde daiteke: noraino dira *Eracusaldiac* ekarpen propioa, noraino instituzioarenak? Ezin baita ukatu Agirrek estilo pertsonala duenik, zehatzago esanez, komunikazio kontratuak ezartzen dion marka orokorren ondoan, indibiduatze prozesu bat dago eta hori da bere ekarpen estilistikoa: beste egile batzuren sermoien artean ezagun da zeintzuk diren Agirre-renak. Guk ez dugu gure lana Agirrerren estilo pertsonalean kokatu, oraingoan, nahiz eta onartzen dugun estilo pertsonalaren eta taldekoaren arteko hartu-emanak funtsezkoak direla; izan ere, egiletza indibidual eta kolektiboen arteko tentsioetan ontzen dira generoak. Hartu-eman horiek nola artikulatzen diren argibiderik badu Bajtin-ek: “Los grandes destinos históricos del discurso literario, ligados al destino de los géneros, se encuentran disimulados por las pequeñas peripecias de modificaciones estilísticas ligadas a artistas individuales y a corrientes particulares”. (Bajtin, in Combe, 37. or.). Gehiago ere esan liteke honetaz, Combe autoreak (46. or.) horrela laburbiltzen du generoen estilistikaren auzia. “El género aparece como un *proceso* a doble sentido de individualización del discurso socializado, y recíprocamente, de generalización del estilo individual de cada autor”.

zioa), eta emozioatzeari ekin beharko dio. Ikusi dugu jada, konbenzimentuari dagokionez, esatariak ez dakarrela froga sendorik (zita intertestualak, eta abar). Jakina, sermoigintza ez da produktu bat neurtzen dena egiaren konstatazio edo eztabaida teologikoen mailagatik. Baina, hala ere, sermoiak indarra du, oso berbaldi boteretsua da. Indarra, baina, konbenzimentuan baino gehiago emozioan kokatu behar da. Sermoia ez da eduki-nozio berriak sakonki ikasteko toki bat. Aitzitik, emozionala da, haren pragmatikak edo efektu interpretatiboak atxikimendua bilatzen duenez gero. Diskurtsoaren “afektibitatean”, hortxe du sermoiak indarra.

Orain, bada, emozioa nola lortzen da? Zein eredu erretoriko bilduz? Ze “erregistro” diskurtsibo dauka sermoiak? Kontuan izan bedi eraman behar dela arazo erretorikoa zentzua sortzera ez ezik –semiosira– baita *sensibiliak* sortzera ere. Sermoiak erretorika egiten du, bai, baina “bigunaren” erretorika, “hurbiltasunaren” erretorika... Eta baita “gogorren” erretorika ere (astinaldien, izutzeen, mehatxuen erretorika), ikusiko dugunez.

Izan ere, errebelaioaren auzia ez eze (nola esan dena esanda badago?), “sinistearen” edo “fedearen” auzia dago, publikoaren erantzunaren auzia hain zuzen. Publikoak sermoiarri erantzuna mementuan bertan emateko modurik ez du (hitzez, imintzioz, portaeraz, ezagutzaz). Erantzuna (sinistea edo fedea) *a posteriori* izango duen portaeran neurtuko da. Sermoiaren edukia bizitza pertsonal eta sozialean jardutean ispilatuko da, nahiz ideologia nahiz identitate jakin bat erakutsiaz. Sermoiak, horregatik ere, ezagutzetan baino gehiago, emozio-jarreretan eragin behar du. *Proiektiboa* du helburu

Guk, jada esan dugunez, ez dugu figuren erretorika bilatzen, ardatz paradigmatikoa. Agirreraren sermoiak ez dira tropoen gertaleku, ez dago *ornatus* aberatsik; beraz, ez du eskatzen *corpusak* berak horrelako hurbilpenik. Jarraian ikusiko ditugu erretorika aztertzeko erabili diren talaia klasikoak eta gure hau-tua egingo dugu. Horrela, erretorika ulertzeko moduak berbisitatu ditugu, baina gu diskurtsoen *dimentsio erretorikoaz* mintzatuko gara. Horrela kontuak, figura lokalak barik, *diskurtsoaren antolaketa* bideratzen duten figurak aurkeztu, eta aintzat hartuko ditugu.

## 5.1. OINARRI TEORIKOA

Erretorika nozioak izaera polimorfoa dauka. Adiera ugariko kontzeptu/teoria dugu (cf. Meyerren zazpi adierak, 1994). Erretorika zientzia zaharra



delako beharbada, eta azken buruan, bi “grandeurs discursives” biltzen dituelako (ardatz paradigmaticoa eta sintagmaticoa). Erretorika zentzu zabalean mintzatuz hauxe genuke: “le lieu de rencontre de l’homme et du discours” (Meyer 1991; Bertrand 2002: 30-tik hartua).

Aristotelesek osagai pertzeptibo eta afektiboak esleitu zizkion erretorikari (*logos* eta *pathos*), baita oradorearen izatea, karisma, entitatea (*ethos*). Hirutasun aristotelikoak aintzat hartzen ditu: hizkuntza eta arrazoitzea (*logos*), publikoa (*pathos*) eta hizlaria (*ethos*). Baina bereziki arrazoitzean jarri zion indarra; izan ere, erretorika aristotelikoa silogistikoa da, logika “degradatu” bat (Barthes 1974: 17). Baina jada Gorgiasekin beste bide bat ere hartuko du, eta jada, erretorikaren arazoa ez da izango “frogatzea”, ezpada estilo-konposizio arazo bat. Denboragarrenean, erretorika *ondo* hitz egitea eta idaztea bihurtuko da: adierazpide ederraren sinonimo, kualitate desiragarria.

Uztarketa hori gertatzean, hots, diskurtso erretorikoa *elocutio* terminotan ulertzean, hau da, estilistikarekin lotzean (paradoxikoki zer eta egia eta gertae-rekiko hutsa eta azalekotzat jotzen denarekin) etorriko da, finean, *tejné* klasikoaren dekadentzia XIX. mendean. Aristoteleseen erretorikatik urruntze horrek ekarri zuen “erromantikoek” arbuiautzea erretorika, adierazpidea senarekin lotu baitzuten eta ez normarekin (figuren zerrendak, eta abar).

Historikoki, baina, erretorika berbaldiaz arduratu izan da. Ez edozein berbaldiz. Egite pertsuasiboa duenaz baizik. Kintilianoentzat ideal erromatarra *vir bonus dicendi peritus* izango da: “gizaki ona, trebeki hitz egiten duena”. Baina zer da “trebeki” (*peritus*)? Mintzaira pertsuasiboki erabiltzen duena, horra. Eta erretorika zer da? *Ars bene dicendi*. “Bene” horrek bi azepzio dituelarik: bat, *ongi* hitz egitea; eta, bi, *ongiari buruz* hitz egitea. Beraz, erretorikak bilatzen zuen gizakiaren profila litzateke pertsuasioa eragiten dakiena ondo hitz eginez eta dimentsio etikoarekin (Platonen erretorikaren heredentziaz).

Gaur egun bi hurbilbideen disoziazio bitxi horrek indarrean jarraitzen du. Badago erretorika murriztu bat, edergailu eta “dekorazioarekin” lotua, estilistika eta poetika praktikekin. Eta, beste aldean, erretorika orokor bat dago, argudiatzeari lotuagoa, *logos* aristotelikotik hurbilago, argudiatzearen zutabe dena. Azken honetatik elikatu zen Perelman autorearen erretorika “berria” (1958), hots, XX. mende erdiaz geroztik erretorika klasikoa “osotasunean” berreskuratzeko egin diren ahaleginetan aipatuena eta aipagarriena.

Horrela, egungo egile eta eskola batzuek arreta jarri dute argudiatzean eta argudioetan (grek. *pisteis*, lat. *inventio*); esaterako, gauzatze kondizioei, argudio motei, argudioak errefuxatzeko moduei. Argudiatzearen auzia eraman da,

orobat, persuaditzeko helburu garbia (esplizitua) duten berbaldietara, Perelmanek esango zukeen “de adherencia de mentes a las tesis dadas” (1969: 14), hots, publizitatea, diskurtso politikoa, eta abar.

Kontua da gure *corpusera* urreratzeko gainditu behar direla, ez digutela erantzunik ematen, ez Perelmanen argumentazioak, ez Anscombe eta Ducroten planteamenduak (1988), ezta pragma-dialektikaren argudiatze bir-eraike-tak ere (van Eemeren eta Grootendorst 1987, 2002). Ildo horretatik, Plantin (1998) autorearen lanez ere ezin balia gintezke, argudiatze teoriari ekarpen interesgarririk egin dionik ukatuko ez dugun arren. Plantinen hurbilpen teo-riko-metodologikoa, alegia, bere “trilogia”, argudiatze teorian mamitu diren hiru tipologia garrantzitsuren urak ekarriz osatu du (Toulmin autorearen; Pe-rlman eta Olbrechts-Tyteca autoreen; eta van Eemeren eta Grootendorst-en tipologia). Baina Plantinek ere erretorika *invention* kokatzen du nagusiki, alegia, argudio eta froga mailan.

Zer aterabide dugu, hortaz, erretorikaz jarduteko ez badugu aintzat har-tuko ez troposen erretorika, ez argudiatzearen erretorika? Zirriborratzen ari garenez, *erretorikaren auzia enuntziazio-auzia da*, dimentsio sozial eta histo-rikoan ulertuta.

Kontua ere ez da teoria erretoriko berria proposatzea, baizik eta eraikitzea berbaldien *dimentsio* erretorikoa (Bordron eta Fontanille 2000). Egileok ez dira kokatzen ez argudioen erretorikan, ez figuren erretorikan, baizik eta jar-tzen dituzte harremanetan ardatz sintagmatikoa eta paradigmaticoa. Horrela bada, ez dira kontuan hartzen figura zerrendak edo inbentarioak, ezen berbaldien dimentsio erretorikoaren auzia hasten da jokoan jarritako *kategoria diskurtsiboak* aztertetik. Toki horietan gauzatzen dira balore, posizio eta es-trategia enuntziatiboak. Eta *praxi* enuntziatiboa da kategorion kontzeptu “antolatzailea”.

Hain zuzen ere, berbaldia ekintzan perspektibatik, badirudi tendentzia dela ia ezinbestean figurak eraldatzearena. Baina zein modutan eraldatu figu-rak? Hona erantzuna: figuren gertaera erretorikoa fenomeno lokal barik, *feno-meno global* gisan ulertuz. Figurek tradizionalki beren existentzia eta izatea maila lokalean izan dute; orain, berriz, diskurtsoaren edota pentsamenduaren propietate globalak izatera pasatzen dira. Horratx ardatz sintagmatikoa. Modu honetara ekarrira, hots, figuren “deslokalizazioa” dela-eta, (idem, 14. or.) bes-te eginkizun bat esleitzen zaie. Alegia, beste zerbaiten alde ekarriko genituzke figurak. Hain zuzen, *figuran jartzea* (figurazioa edo eskematizazioa), bihur-tuko litzateke gure diskurtsoen aktibitate garrantzitsuena.

Zertan dira, bada, kategoria diskurtsibo horiek? Zeintzuk dira errekurren-teak? Zeintzuk dira sermoia ezaugarritzeko indarra dutenak? Agirrek erretorika barreiatua du, eta hortik eratortzen da zentzuzko efektua...

## 5.2. LAN METODOLOGIA

Kontsideratzen dugu esku artean dugun auziari ekiteko –nola deskribatu *sensibilien* erretorika–, gainditu behar dugula bi poloen problematika, eta hipotesipean jartzen dugu *dimentsio* erretorikoak bi lehiakideak elkar-bizitzan jar litzakeela. Finean, uste dugu *dimentsio* erretorikoak argia ematen digula sermoiarenekin bai bai ez ezik, bere emaitza (efektu pragmatikoa) aztertzeko.

Gure *corpuseko* testuetan emozionatzea bultzatzen delarik prozesu integratzailea errazteko, deitzeko, *bidera*-ekartzea estimulatzeko, kategoria multzo bat behar dugu operatibizagarri. Hona hemen Bordron eta Fontanille autoreek (2000) erretorika enuntziatiboa zedarrizteko proposatzen duten hurbilbidea: *intentsitatea*, *kopurua* (*extentsitatea*), *gatazka* eta *kontu hartze enuntziatiboa*. Kategoria horiek ez dira figura mailan agertzen, baizik diskurtso ekintzan leudeke, eta figura erretoriko multzoak bilduko lituzkete, ahalbidetzen dutenak figura erretorikoak biltzea eta hierarkizatzea testuen estiloa estudiantu alde. Horrela hel liezaioke *dimentsio erretorikoari*.

Kategoria horietako bakoitzak bilduko lituzke barnean “makro-figurak” edo figura trans-lokalak (Fontanille 2002: 59), eta praxi enuntziatiboaren eraikuntzan pisu handia lukete. Izan ere, “figura antolatzaile” izango lirake.

Gure hurbilpenerako garrantzi handikoa da figura antolatzailearen auzia. Azken finean, sermoiarenekin kasuan ezingo da erretorikako azterketa zuzenik egin aplikazioa, adibidegintza, edota kontuhartze enuntziatiboa aintzat hartu gabe. Sermoia figura-motoretarik baitira. Gure metodologiaren arabera, aplikazioa errepikapen-figura izango litzateke eta, beraz, *intentsitatearen* kategoria diskurtsiboari lotua. Aplikazioa, beraz, ez dugu kontsideratuko “figura lokal” gisara, baizik eta “figura antolatzaile” moduan. Figura antolatzaile hauek figura lokal multzo bat hartzen dute altzoan, hierarkikoki azpikoak direnak, “mikro-figurak” hain zuzen. Aplikazioak mende hartzen dituen figura lokal edo “mikro-figura” multzoa honakoa litzateke: analogia, anafora eta hiperbolea, esate baterako.

Gure analisirako jorratuko ditugu *intentsitatea* ez ezik, *kontuhartze enuntziatiboa* makro-figura, baita *extentsitatea* ere. *Gatazka*ren kategoria kanpoan

gelditzen da, alderdi polifonikoak kontsideratzen baititu, ahotsen zirkulazioa eta hierarkia, eta alderdi horiek ikusi ditugu hemen baino sakonago aurreko moduluan.

*Kontuhartze enuntziatiboa* da, ausaz, erretorika modu berri honetan kontsideratzearen alderdirik berriena. Izan ere, estilistikaren kontua desplazatu da *asuntzioara* ere, hau da, diskurtsoaren instantzien posizioa bere enuntziatuekiko, modalizazio prozedurei esker eta baita enuntziatuaren orientazio axiologikoa bideratzen duten markei esker. Kontuhartze enuntziatiboaren kategoriak biltzen ditu, orobat, *distantzia/hurbiltasuna* nozioak ere, sermoia aztertzeko errendimendu handikok izan daitezkeenak.

Jarraian kategoria eta nozio hauek operatibizatzeke ahalegina egingo dugu.

### 5.3. ANALISIA ETA EMAITZAK

Gure *corpusean* aurkitzen ditugu errepikatzen diren testuak/berbaldiak, horra hor, otoitzak, forma liturgikoak, hasiera eta bukaera errituak, zitak eta aipuak... Horien erretorika ekarrita makro-egintzaren pentzutan dago, *move-re* erretorikoaren zerbitzuan, *egin-arazi* eta *izan-arazi* modalitate diskurtiboen bidez. Modalitate eta efektu horiek sortzen dira, gure ustez, aipatu kategorien ustiapenez (*intentsitatea, extentsitatea...*). Ikus ditzagun.

#### 5.3.1. INTENTSITATEA ETA EXTENTSITATEA

Intentsitatearen nozioa loturik dago hizlariaren ekinaren ekinez edo insistentziarekin. Intentsitatea *anplifikazioaren*<sup>46</sup> makro-figurarekin lotu dugu arestian. Ilokuzio-indarraren handitze bat sortzen du amplifikazioak, enuntziatioaren espazioan eta denboran kontzentrazio bat gertatzen baita. Argudio metatze sentsazio hori litzateke sermoi mota hauek (sermones *ad populum*) pertsuasioa biltzeko bideetako bat, erretorika kristauak egokitzen hartua. Fray Luis de Granadaren arabera:

“Pues así com los oidos eruditos gustan de la brevedad y agudeza de las sentencias, y de un estilo sucinto; así los rudos é indoctos se mueven con la copia ó

---

<sup>46</sup> Amplifikazioa gai bertsuaren inguruan biratzea da behin eta berriro estrategia desberdinen bidez (Mortara Garavelli 1991: 273).

abundancia de razones. A esta copia pertenece que traigamos á la causa cuanto se puede decir apta y cómodamente, según el asunto lo pidiera (Granada, *Retórica*, 611; Salaberritik hartua, 1997: 243 azpimarrak geureak).

Anplifikazioa diskurtsiboki *kantitateari* lotzen zaio horrela, arrazoiak bata bestearen atzetik jaulkitzeak azalean jartzen du gai berberaren inguruko meta-tze bat, efektu erretoriko bistakoekin. Ikus adibidea:

[V 1] “Cer dala uste dezu infernua? Ura da Demonioaren, eta bere servizarien lice (sic) izugarri bat non beticotasun gucian egon bearrac diran oñacez lertzen. Ura de beti sutan dagoan labe icaragarri bat, beñere itzalico ez dana: ta becatariac berac izango dira ango egurra, ilinchac, eta illentiac. Ura da sufre era-cequiz irakuten dagoan aincira, edo putzu bat, non Satanas, Ante-Cristoa, eta becuaren eracuseac egon bearrac diran betiraunde gucian. Ura da neque, eta pena guciac onaren cutsuric gabe arkitzen diran lecu. Au gucia, ta gueyago aditzera eman digu Jaunac Escritura Santan toqui izugarri aren gañean. Ara amiltzen dira biraugilleac, eta umeac ongui acitzeco arretaric ez duanac. Ara amiltzen dira, edanari, ta aisiari ederretsiric, echeaz, zorrax, eta beste eguimbideaz aztuta bici diranac. Ara amiltzen dira lagun urcoari becuraco bidea ematen diecenac, dala itzez, dala ezcontzaren ustearequin, dala bestela. Ara amiltzen dira becuraco bideac, echeac, eta lagun gaiztoac, ibillera lotsagarriac utzi nai ez dituenac. Ara amiltzen dira... An daude oñacez lertzen, adiaz, eta orroaz.

Gaitz erdi litzaque, noizbait bucatu bearrac balira neque oec; baña ez dira beñere bucatuco. Joango dira urteac urteen gañ, eta etzate puscaric chiquiena ere quenduco. Galde Luciferri, galde Caini, galde an arkitzen diran beste guciai. Lucifer munduaren asieratic an dago, eta asieran bezala daude aren oñaceac. Sei milla urte bezala dira Cain ara jachi zala, eta ez dira batere arindu aren penac: milloica joango dira urteac, eta ez dira guchituco aren nequeac. Ezagutzen due au an arkitzen diran doacabeac.” (A 177-8)

Anplifikazioaz baliaturik mehatxu efektua sortzen du testuak, mikro-figura batzuek andamiatzen dutena: anaforen bidezko errepikapenak: “Ura da..., Ura da...” eta “Ara amiltzen dira... Ara amiltzen dira...”. Errepikapen figurorok, abiadura edo *azelerazio* (Fontanille 2002: 59) sentsazio bat sortzen du, sekuentziaren ilokuzio-indarraren intentsifikatzaile gisa lan egiten duena, plastizitatea sortuz. Bigarren paragrafoko behin behineko objezioak indartzen du anplifikazioa eta ondorioz mehatxua. Figura hiperbolikok lagundurik (“beñere ez da bucatzen”, “milloica joango urteac”, eta abar). Ohar halaber interlokuziorako elementuez (“Galde Luciferri, galde Caini”). Anplifikazioak sortzen du azelerazio bat era berean kantitatea (extentsitate) eta intentsitatea

uztartzen dituen, enuntziatioaren denboran eta espazioan metatze horrek ilokuzio-indarraren handitzea sortzen baitu.

Aurkitzen dugu, orobat, aplikazioaren makro-figuraren azpian *analogia* fenomeno multzo kontsideragarria: bide onen eta txarren ilustrazioa, santu-santak, Jesukristoren bizitza eta obra, eta abar. Adibideak jartzen dira baita *a contrario*: bide eta bizitza txarra, bekatariak, zoritxarrak (Lot, Sodoma eta Gomorra, eta abar). Exemplumak duen indar analogikoa sasoi orotan ustiatua izan da, eta Elizak ere ugari erabili du *res religiosa*-ren esplizitazioaren alde.

Ikerlariak ezin dio fenomeno honi izkin egin, sermoiak adibidez gainezka baitaude.

Analogia zaku zabala izanik, Perelman-en (1998[1958]: 536-563) sailkapen klasikoari jarraitzen gatzaizkio eta ondoko multzokatzea egin: *eredua*, *adibidea* eta *ilustrazioa*.

Ereduari dagokionez, entzuleentzat eredugarri diren pertsonaiak ilustratzen dira, modelo direnak, horiek imitatzeko “incitation impérative” eragiten dutenak (Maingueneau 1976: 170). Kristo da eredu (*imago*) paradigmatikoa eta santu-santak Kristoren imitazioan jarraitu beharreko portaeraren ispilu. Noski, gure *corpusean* agertzen diren imagoak ez dira ez orijinalak ez lehen aldiz erabiliak: literatura erlijioso zein paganoan figura kanon finko bat aurkitu daiteke arketipo bihurtuta (Curtius 1999: 95 [1948]).

Denbogarrenean apailatu dira etsenpla-bildumak pertsonaia eredu horien gertaera gogoangarriekin, kontakizun labur gisa emanda (narrazio egitura baitute), azaltzen den edukiaren baieztapen gisa ekar daitezkeenak. Harrobi hori sasoi orotan ustiatu du oratoria laikoak zein erlijiosoak.

Exemplumari dagokionez, gizarte maila altuetako pertsonaiak dira: damak eta zaldunak, errege-erreginak, gobernariak, eta abar. Bekatuan erori baina altxatu egin dira, galdu dira munduko tentaldietan eta gero konbertitu... Estetikoki ederrak dira<sup>47</sup>, eta sermoiaren giro estuan balio zuten atsedean gisa, arreta foko gisa, bai eta edukia memoriari iltzatzeko ere. Exempluma, izan ere, harira ekarri den enuntziatua frogatu edo errefuxatzeko erabiltzen zen. Horiek horrela, baina, oroz gain, gure ustez, emozionatzea bilatzen zuten. Pasadizo hauek egiazkotzat ematen dira, lezio bihotz-altxagarri gisa, pedagogizazioaren alde ekarriak, baina beti ere sermoiaren indar ilokutiboaren menpean, persuasioaren menpean esan nahi da (cf. Valentziako dama, eta abar).

---

<sup>47</sup> Agirreren exempla bilduma Mujika Iraolak eman zuen argitara (Agirre: *Arpoi baten eran*. Alberdania, Irun, 1996).

Etsenplu hauen ekartzea ez da alperrikakoa: sermoiak sistematikoki exijitzen du exempluaren aplikazioa: zuk (edo guk) terminotan, “atozea” batekin, galdera erretorikoekin (interlokuziorako elementu ezagunak). Erabiltzen dira kristauaren portaeraren kontrajarpen edo ekintza zuzenen afirmazio moduan, eta ostean “atozea”-ren bidez sermoien erritmo aldaketa bortitza gertatzen da, aposiopesi figura erretorikoaren bidez, intentsitate figura baita ere (Mortara Garavelli 1991: 291). Exempla, gainera, froga bezala ustiatzen dira, lokailu konklusibo batez: “**Orra** etsaiaren irudipenei leku emateak ekartzen dituen ondorenak...”, “**Onela** aditzera eman zuan Jaunak zein bekatu itsusia den...”, “**Ala** eracusten du...”, “**Orra**, Cristaua, Confesioco Sacramentuac zurequin eguiten duana” (A 118). Exemplek “akuilatu” egingo lukete ondorio hori, iruzkin eta balorazio gisa datorrena.

Exempluma diskurtsoaren autoerreferentziarako elementu bat da, diskurtsoa luzatzeari eta anplifikazioari lotua. Diskurtsoa uneka ber-itzultzen da bere buruaren gainean, eta jada-esana praktikatu, nolabaiteko esloganizazio prozesu bati ekiten dio. Zentzu honetan, argudio zirkularra (A, beraz, A) elikatzekeo estrategia bat da: entzulea ahots bakarrarekin jartzen da harremanetan, edo ez da ahots multzo anitzera zabaltzen: Ilustrazioaren mundu zientifikoa, pentsamendu disidentea, eta abar. Estrategien errepikapen akonpasatu eta programatiko bat erabiltzen da, argudio berberak baina *corpusaren extensitatean* berrituak.

Azkenik, *ilustrazioari* helduko diogu, tokia eta garrantzia duen estrategia denez gero. Kontuan izan behar da konfesio bekatuaren kasuistika guztia “azaltzen” dela bekatuen ilustrazioz. Ilustrazioak ez du ezartzen generalizatorik, baizik arau baten indarra ekarri nahi du berorren aplikazioaren interesa erakutsiz. Hementxe sartzen dira herritarren ahotsak, urlia/sandia/berendia (“urliak ez daki..., sandiak egin du..., berendia bekatutik bekatuta dabil”). Ikusi dugu indefinituen ahotsa ekartzeak duen egitekoa eta bere horretan utziko dugu kontu hau.

Egin daiteke bereizketarik ilustrazioa *vs* exemplum eta imago? Ikusi dugunez, exempla eta modeloen pertsonaiak identifikagarriak dira: hierarkikoki goi-maila dute, gizartean zein organigrama erlijiosoan (noblezia, santu-santak, aita santuak, Jesukristo, eta abar). Ilustrazioetakoak, aldiz, indefinituak eta despertsonalizatuak dira, herri “xehearenak” (urlia/sandia...). Ahots hauek ere badute beren funtzioa baina mugatuta agertzen dira, zertarako urri batzuekin (ez daki, ez da gai...). Oposizio terminoetan planteatzen dira: exempla-imagoak Jesukristoren imitazioarako jakintzaren iturri gisa *vs* ilustrazioa, jardun inperfektuen agertoki (herritarrek). Imagoak eta exenplumak “izateko

gogo” eta desioa pizten dute; ilustrazioek, obligazioa. Ondorio bat: botere erlazio jakinen arabera artikulatzen dira sermoietan harremanak, bestea ez da kontsideratzen *alter ego* bezala “joko argumentatiboan” (Grize 1990).

Adibideen banaketaz den bezanbatean (“adibideak” esatean aurreko hiru motak biltzen ditugu), formalki, adibidearen propietate mikro-estruturalak ez dituzte elementu bereizgarriak sermoietan: lokailuek (“bezala”, “moduan”...) ezartzen dute ekibalentzia erlazioa gaiaren (ezkerretara dagoena) eta *phore* artean (eskuinetara). Gure sermoiotan, ohikoa da “demagun” inplikatio batekin abiatzea adibidea. Baina testura baino interesgarriago zaigu estruktura, edo adibideen distribuzioa diskurtsoan. Adibideak modu irregularrean agertzen dira, ez daude sarreran eta amaiera fasean, eta ugari dira azalpen eta argudiatzean. Sermoietan, adibidea presente dago *pertzepzio* argumentatiboa handitzen den tokian. Esaterako, ilustrazioa atxikimendu fasean kokatzen da, *narratio* fasean bainoago: rol aktantzial batzuek ekartzearekin lotzen da zu/zuek/gu eta forma iteratiboekin eta interpelazioekin, sermoiarene bukaera fasearen *intentsitatearen* alde lan egiten dute. Gogora bedi, era berean, bai exempluma eta bai imagoa, konbinaturik agertzen direla latinezko aipuekin eta iruzkinarekin tradizio homiletikoak preskribitzen duen gisan (cf. Gallo apezpikuaren oharrak, Robles 1978). Imagoak eta exemplak agertzean, “aktante periferikoak”, intentsitatea atonoa edo difusoa da; kontrara, predikatuek eragin nahi duten aktantea aipatzen dutenean (gu/zu) *pertzepzioa* intentsoa bihurtzen da. Ilustrazioak sermoiarene tona intentsoago (estua, hurbil, pertsonal efektuekin) jartzen du, atoniatik *in crescendo* kurban, sermoi askotan ilustrazioa klimax-arekin lotzeraino. Sermoiarene komunikazio-erritualaren barruan, horixe entzutera ohituta zeuden solaskideak eta enuntziatzaile-kideak. Noski, sermoiak emozioak biztea, damutzea, konbertitzea, eta abar bilatzen duenez, intentsitate horren bidez sermoiarene ilokuzio-indarraren alde jokatzen da: diskurtsoaren zertarakoaren edo makro-egintzaren alde. *Sensibilien* biderkatzean (emozionatze, motibatze, grinatze) horretan kokatu behar da ilustrazioa eta, oro har, analogia fenomenoak. Emozioak sermoigintzan, beraz, baluke bere gramatika...

Baina, sakonago zulatuz, ikus dezagun zein kualitate duen analogiak sermoian.

Jakina da adibideek ez dutela funtzio bera prosa zientifikoan eta erlijiosoan. Analogiari aitortzen zaizkio balio azaltzaileak (Grize 1990: 97). Prosa zientifikoan adibideak azalpenaren mende daude, edo, bestetara esanda, analogiak irakurleak ustez ulertzen ez dituen kontzeptuak beste hitz batzuekin edo errepresentazio ezagunen bidez emateko funtzioa du. Adibideak kontzeptuen argigarri jartzen dira, ustez irakurlearen *esperientziarekin* lotuago dauden nozioak eta hitzak ekarriz.



Adibidea, izan ere, lotzen da, Aristotelesek egin bezala, indukzioarekin (esperientzia), eta entimema dedukzioarekin (pentsamendua). Baina, adibidea indukzioz gertatzen ote da sermoigintzan? Sermoiaren adibidea ez da “esperientzia”, baizik *sentimendua*. Ez da, azalpen zientifikoan bezala, kognizio mailako eragiketa, baizik eta sentimenduari hitz egiteko modua. Adibidea esaten denarekiko lotua dago, memoriaren eta sentimenduaren lehentasuna emanez, arrazoiaren eta pentsamendu zientifikoaren aldean. Adibideak, “konpetentzia pasionala” aldarrikatzen du, eta berau lotzen da sermoiak duen “gu”-rekiko obsesioarekin. Greimasi jarraituz esango genuke *gizabanako kolektiboak* zize-lkatuko lituzkeela (1982: 38), eta, horretarako “*passion communautaire*” inbokatu behar (Parret 1983: 85). Adibidegintza, beraz, ez dago lotuta esperientziarekin, Kintilianoren “*hecho sucedido*” (1942a: 294), ez azalpenarekin (“*pour mieux comprendre*”). Emozioen erretorikak ezaugarritzen du sermoigintza, eta bertan adibideak duen balioa ez da indukzioz eta ez dedukzioz gertatzen, baizik eta *abdukzioz*, Pierce edo Kant-ek esan bezala (Parret op.cit.).

Egia da, ikusten ari garenez, adibideak testuaren helburuaren zerbitzuan (persuasioaren, emozioaren zerbitzuan) daudela ekarrita. Baina galde dezakegu, baita ere, sermoiaren teknikaren alde ekarriak ote dauden; alegia, testuaren eraikuntzari lotutako lanabes “logikoak” ote diren, testua eratzeko idazleak darabilen estrategia, sermoiaren taiuketari begira (eta entzunketari begira ere bane kausalitatea gidatzen baitute). Esan dugu gorago adibidea intentsitatearekin lotuta dagoela, beraz, testuaren unitate osakin garrantzitsu da. Baina aldi berean ezin dugu ahaztu adibidea zerbait azaleko ikusten dela, eta kengarri den zerbait bezala, Coltierrek dioen gisan,

*“n’apporte rien au contenu global du discours dans lequel il est introduit et qu’il est, en particulier, supprimable sans dommage pour le sens général du discours”.* (Coltier, 1986: 25).

Coltierren ideia interesgarria da: adibideak kentzeko zerbait dira testuaren laburpenak egitean, testuaren makro-egituretan. Zergatik da sermoietan hain joria adibidegintza? Ez ote dute exemplek diskurtsoetan betelana egiten? Horrela, adibideen balio polifonia, intertestualitatea, zalantzan jarriko genuke: gehiago lirateke intratestuaren elikagarri, ekiteko helduleku, anplifikaziorako estrategia bat, *intentsitate* estrategia ez ezik, baita *extentsitate* bide ere.

Bukatzeko, zenbait ohar extentsitateari buruz:

Bat. Sermoiaren egitura kontuak, semantika testualean ikusi dugunez, erregularak dira. Sermoiak berdin hasi eta berdin bukatzen dira beti. Funtzio hori, errepika eta lelo hori extentsitatean ulertu beharko litzateke, kristaua sermoiaren tempo magikoan sartzeko eta irteteko resorte bezala.

Bi. Diskurtso ekarriaren funtzioa ere extentsitatearen arazo da. Esan beharrekina lotu behar dugu, diskurtsoa etengabe errepikatzeko beharrekina. Zita-iruzkin erlazioa problematika honetan kokatuko litzateke baita ere.

Hiru. Insistentzia patetismoarekin lotu dugu, gauzak higuintzeraino errepikatuak daude katekesi euskaldun hori finkatzeko. Gaien zirkularitatea bilatzen da teknika eta helburu gisa. Baina Agirreraren erretorika (edo estilo) pertsonalaz ohartzea egitea gauza beharra da. Agirre bera ez da luzatzen. Insistentzia eta errepikapena bai, baina kontzeptismoaren barrutietan beti.

### 5.3.2. KONTUHARTZE ENUNTZIATIBOA

Aurreko adibidea [V 1] hartzen badugu berriz, antzematen da definizio bat dela, zehazki infernuarena. Definizioak sermoian dituen helburu erretorikoen artean *docere* izango luke, irakatsi. Baina definizioaren barruan, zein kontuhartze enuntziatibo dagoen erreparatuz gero, ugari dira kutsu subjektiboko hitz eta esapideak (“lize izugarri bat”, “sufre eracequiz iraquten dagoan aincira” eta abar). Definituriko nozioarekiko asuntzioak dakar izendapenak egiteko “subjektibemak” erabiltzea Kerbrat-Orecchionirekin esateko (1984). Sermoiak irakatsi egiten du, baina ez noziorik, definituriko kontzeptuekiko sentimendu multzo bat baizik.

Sermoiaren anbiguotasuna ikusi dugu aurreko kapituluaren, kristauarekiko distantzia eta hurbiltasuna, denok batera, bai, baina bakoitza bere ertzean. Sermoilariak hurbildu nahi du, taldearen eta artaldearen ale izan nahi du, baina gogorra ere izan behar. Diskurtsiboki dramatismoa sortu beharra dauka.

Kristauarekiko hurbiltasuna bilatu beharrak kontuhartze enuntziatiboan eragina dauka, batetik, eguneroko bizitzaren erretorika dakusagu (herriko gauzak, eguneroko adibideak, sal-erosketarako tratua). Sermoiak, alde horretatik, bizitzarekin konektatuta daude. Predikariak kristauaren mundua ondo ezagutzen du eta zehaztasunez dakartza enuntziatziora (toponimiako elementuak, Peraltako ardoa, Lezo, Herniora eta Arantzazura erromeriak, (B 84; C 83-84; C 552). Ez da autore librea, instituzioaren idazlea baizik: herriko hitzak darabiltza erabili behar dituelako. Gomendio bat da generoaren baitakoa<sup>48</sup>. Hurbila izateko duen premiagatik... Horregatik da sermoia XIX. mendeko Gipuzkoako bizitza ezagutzeko toki egokia.

<sup>48</sup> Gogora bedi Iruñeko apezpikuak sermoigintzarako emaniko aholkuak, Agirrek berak jasotzen dituenak: «Ordenamos asi mismo á nuestros Párrocos, y á todos los demas Predicador»

Hurbiltzearen erretorikan kontuan hartu behar dira predikariaren ahobero-keriak eta zakarkeriak, herriaren idiosinkrasiaren ezagutza duela erakutsi behar du:

[V 2] “Aditu det, guerrariac erri batzuetan nescachai nai duena aditzera emateco... Ez da basoetan oteric oei su emateco?” (B 119)

[V 3] “Alaere askotan gertatzen da munduan, gizonak begi onez ez ekustea emaztea, batezere azalprinza zimurtzen, eta ortzak erortzen asi bazaizka, edo nekeari jarraitzeko gauz ezpada. Esan diteke: asko gizonen emazte izatea baño obelizakeala mundurako esne-bei izatea”(A 456)

Kristauarekiko hurbiltasuna, bategitea eta intimitatea bilatzeko “baserri-tarrek” bezala hitz egin behar du. Doxaren tokia da. Esaera zaharrek ere funtzio bera lukete:

[V 4] “Esana dago: *anz, azturac obiraño.*” (A 281)

[V 5] “Esana dago: ecusten ez duan beguiac negarric ez.” (A 26)

Enuntziatzaileak asmatzen du adierazpenean, estilo soila darabil herriko elkarrizketak erreproduzitzeko. Piperra eta gatza ez zaie falta atal askori, umore ukitua, baina beti ekartzeko mezua direkzio-markatze batera. Herriarrek bezalako erregistroa erabiltzeko premia hori, hitzak eta esapideak, hitanoa... Hau da, maila diastratikoa erreproduzitzea beharrezko du “bategitea” lortzeko. Sermoilariak ondo ezagutzen ditu ekonomia kontuak, jokoak, arau sozialak, familia... badaki gizartean zer korritzen duen... Baina horien inguruko praxia beti da indibiduala; “cristaua” ia beti singularrean darabil, eta forma apelatiboetan ere bada hurbiltasun horren zantzurik: “nere Cristaua”, “nere Cristau ona”... Zentzu horretan, kontuhartze enuntziatiboa kategoria *intentsifikatzailea* litzateke.

Hurbiltzearen erretorikaren korrelatiboa da urruntzearen erretorika, bestela esanda, “hurbil baina bakoitza bere tokian” erretorika. Sermoia hurbiltzen eta mugak jartzen ari da, anbiguoki, etengabe. Hurbiltzearekin batera, presentzia handia du sermoian beldurrak eta mehatxuak. Bi-biek, hain segur, *sensibilien* biderkatzea lortzen dute. Kristauak sermoian pairatu behar dituen larri-

---

res de nuestra Diocesis, tanto Seculares, como Regulares, que en las saluciones, de todos sus Sermones de cualquiera asunto, misterio, ó festividad que sean, espliquen cathequisticamente un punto de doctrina Cristiana: con estilo fácil, llano, y perceptible: *Littera Pastorales D.D. ab Irigoyen Episcopi Pompolonensis.* pag. 65». (azpimarrak geureak)

tasun eta estutasun horiek ohartarazpenekin eta bidera ekartzearekin loturik daude. Kristauarengan efektu pragmatikoak lortzeko, autokontrola. Norbere buruaren (eta besteren) kontuhartzeak.

Gogorraren erretorika honek marka erregular batzuk ditu: “Beguiria”-ren presentzia, *Plat* eta *Bed* sermoi-moldeei sarrera ematen dieten aipuak “*Clama, ne cesses...*” (Otsegizu, ez ixildu, ...) eta “*Scrutemur vias nostras...*” (Azter ditzagun gure bide eta ibilerak...). Horrela arakatzearen eta astinaldien dinamika bat sortuz.

Mehatxuaren eta promesaren arteko tentsioa litzateke sermoiarena. Bate-tik, mehatxuan, Eliza katolikoaren etsaien eremu semantiko ohikoa aurkitzen da: deabrua, haragia, mundua. Baita Jesukristoren justiziaren mehatxua, betiko su eta garren presentzia eta izaera formulistikoa, zigorraren irudia berrituz diskurtsoan... Infernuaren deskripzioak, apokalsipia (Bederatziurrenetan agertzen dira bereziki horrelako elementuak, sugestioak gora egin beharra du konfesioa eragiteko). Sermoiak, aleka gehiago, beldurra eta ikara sortzen dute. Tarteka, gozoagoak eta suhartsuagoak izan daitezke, anbiguotasunean.

Modu honetan gauzatzen da, gure analitik, kristauarekiko distantzia eta muga, sermoiak eta sermoilariak jartzen duena. Entzuleen emozioen igurzketan hau erretorikatik hartu zuen sermoigintzak, *inventiok* daukan bide batetik, *animos impellere* deritzanetik.

Beste eskuan emozio gozo bat aurki daiteke, suhertasuna eta beldurra barretu eta justifikatzen duena, esperantza. Sermoietan agintzen da noizbait gozamenaren hartzeko bidea, sakrifizio bizitzaren ondorena, salbazioa, “beti-beti iraungo duan Ceruco gloria”. Bi tentsioen artean ebazten da kristauaren bizitza, muturreko gertalekuetan banatua: zerua eta lurra; zerua eta infernua. Sermoi guztiak salbuespenik gabe formula itxurako esamolde batekin bukatzen dira: “iristeco era onetan Jaunaren gracia, eta beraren gracion irauten dezula betico gloria. Amen” (C 479). Bukaera formulistikoa, bukaerako toki estrategikoan, hitz gozoa patetikoki markatua, ematen dio *peroratio* erretorikoari *slogan* itxura. Irrati eta telebistetako publizitateak azken orduan ematen duen gomendio hori bezala. Gure lokutoreak seduktorearen desira eta esperantza sortzen daki, eta mehatxugilearen intimidazioa eta beldurra. Gaude, sermoilaria gauza biak ote den.

Mehatxuarekin batera, emozio konbinazioa bat iradokitzen da irakurketa-tik: kristauarekiko trataerak (urlia... sandia... berendia.../batzuk... beste batzuk...) kristau utzitzat eta txartzat hartuak (izena kendu zaienak, ahotsa eman ere egin ez zaienak), mesprezu sentimenduak irabazten dituzte. Forma

aldetik, “emozioaren sintaxiak” ilustrazio bidezko argudiatzearen gainean egingo litzateke, anplifikazioaren makro-figurarekin, errepikapen eta insistentziaren bidez, indar ilokutiboaren intentsifikatzaile gisa interpretatu behar direnak, *intentsitate* terminotan, eta, orobat, *extentsio* terminotan ere, izan ere, sermoietan errekursiboki, topiko diskurtsibo gisa agertzen dira ilustrazioak termino berberetan (seigarren aginduaren presentziak, moda berriak, azken juizioa, heriotza, etc). Mezuaren eta informazioaren erredundantzia errepikapenaren bidez, *extentsio* figura bezala. Insistentzia horrek lagunduko luke memorizatzen (ondorioztatzen duena memoriaren hegemonia arrazoiazen gainetik) eta beharbada ahozkoari zor zaion zirkulartasuna. Gauzak horrela, diskurtso lineal bat bainoago diskurtso zirkular bat genuke.

#### 5.4. KONKLUSIOAK

Erretorika indar ezaugarritzaile handiko erreminta izan daiteke. Orobat erretorikak ber-kokatze sasoa bizi du, ez dena osotoro gauzatu, enuntziatioaren barnean. Horregatik gaude berbaldien *dimentsio* erretorikoa hurbilpen egokia dela eta ondo erantzuteko gaitasuna duela aztergai dugun *corpusean*, bat egiten baitu gure *corpuseko* sermoiek duten erretorika barreiatsu horrekin. Egin dugun ahalegina erretorikaren berrikuntzari begira eginikoa da, beraz.

Horrenbestez, hunkigarritasunaren erretorika zedarritzeko metodo egokia genuke figura erretorikoak hierarkizatu eta kategoria nagusiagoetan biltzea (figura makroak edo trans-lokalak), diskurtsoa ekintzaren markoan.

Ikusi dugu sermoien erretorikak bi ardatz nagusiren inguruan eusten diola bere buruari: intentsitatea eta extentsitatea, proiektu enuntziatioaren aldeko diskurtsoa ontzeko baliagarria, hau da, kristauaren prozesu integratzaile erdiesteko, kristau erkidegoa handitzeko edota hedatzeko.

Sermoiak *abduzitu* egin behar du, erantzun emozionala bilatzen duen aldetik (ezin fedea arrazoibidetik eratorri). Sermoi mendeetan ondutako al-daketa finito batzuek zirrara eragiteko diskurtso baten materializazio historikoa da.

Aplikazioari begira, sentimendua eta faktore emozionala nagusitu behar dira, eta, horrenbestez, ikusi da adibidegintza estrategia heteroerregulatzaile gisa agertzen dela. Hartzailea betetzailer egin nahi du sermoiak, aditu edo jakitun baino areago. Linguistikoki, Eliza erakundearen errepresentazio sozialak

eta ideologikoak testu endogamiko gisa agertzen dira, gaien gehiegizko errepikatzean (ahozkotasun marka bezala) oinarrituta. Beraz, adibidea ez da *aditzeko bidea*, baizik eta *jarraibidea*.

Ondoriozta daiteke sermoiaren elementu espirituala ez dela hegemonikoa, ohartarazpen, izan-arazpen eta praxiari emana baitago. Horrela, bada, sermoia *pathosak* gobernatutako berbaldua da, genero epidiktikotik izango lukeena, koherentea dena bere izatearekin (hortik ikuskizun edo espektakuluaren diskurtsoa, sermoiari “funtzio”, “puntzio” esatea).

Sermointza hilabeteetan eta urteetan luzatzen den diskurtso bakarra eta diskurtso jarraia da. Progresiboki entzuleak barneratzen du munduari buruzko eszenografia bat beste bat(zu)en ezabatzea dakarrena (Ilustrazioaren mundua eta beste sinisteena –heterodoxia, praktika paganoak–, erlijio katolikoa eskusibista delarik). Erretorikak eszena enuntziatiboaren banaketaren berri ere ematen du, nork nori zertarako hitz egiten dion eta zein komunikazio kontratu jartzen duen, legitimatzen dituelarik (edo deslegitimatzeko) botere erlazio jakin batzuk, hierarkia batzuk. Kristauak onarpen eta ekintza gisa hartu behar sermoian isurtzen diren baloreak. Berbaldu hauek badute indarra, Lacoffen hitzetan esateko, “esperientzia egituratzeko” (“*structuration de l’expérience*”, Bordron & Fontanille 2002: 8-tik hartua).

Tropoak eta figurak erabiltzeko premia dauka sermoilariak (exemplak, konparazioak, hiperboleak, adjetibazioak, eta abar). Edertasuna eta emozioa ahozko eraikuntzak dira, hitzaren formulazioaren bidez txunditu eta hunkitzeko bidea egiten du sermoilariak, efektu praktikoak bilatzeko (*revertere ad me*). Alde horretatik, sermoiak elaborazio literarioa dauka: bai edukian eta bai forman, kezka dago. Sermoiak harritzen duten gauzak esateko premia du. Erretorika behar zuen horretarako, baina erretorika ez da erregela bilduma arbitrarioki erabil daitekeena, baizik, gure kasuan, sentimendua eta emozioa hartaratzekoa.

Bukatzeko, kontsiderazio bat: zer erretorika dagokio Elizari eta zein, propio, Agirrerri? Eliza erakunde bezala aktante kolektiboa da baina bere burua adierazten du espezialisten bidez, delegazioz. Nola dago egina norberatzeko prozesuaren afera? Agirrerren tropoak ezin dira originaltzat hartu, soilik egile euskaldun batek erabiltzen dituen (eta publiko batek entzuten dituen) lehen aldiz hartu beharko lirakeke, agian? Sermoilariak hainbat modutara izan du generoarekin harremana, mendeetan onduak eta konbentzionalitatez ezarrita dauden pausoak emanek. Badira sermoiak formulatzeko gidak, maniobrak eta kontsignak. Iragan horrek jokatzen du bere jardueraren konkretuaren berme be-

zala. Tradizioaren aurrekariak kontsumitu egiten ditu eta generoari jarraipena ematen. Erretorikoki, baina, beste sermoilari batek berdin ekin beharko lioke? Neurri batean bai, intentsitate bat eta abar, eman beharko lioke. Agirrerren ekarpena, estilo pertsonala, non da? Dударik gabe ekarpena egiten dio genero homiletikoari, besteak beste, euskarara ekarri (fraseologia, esateko moduak) eta aurrerabidea ematen... Sermoiaren hizkuntza euskalduntzea esango dugu, oraingoz, ikerketa sakonagoak gerorako utziz.





## **KONKLUSIO OROKORRAK**



Konklusioak eman bidean, ekar dezagun gogora ikerketa hau “modulu” edo kapitulutan banatuta dagoela arrazoi metodologikoak direla kausa. Modulu bakoitza kala bat da sermoiaren alderdi garrantzitsuetako baten gainean egina, ipartzat izanda ikerketaren helburua. Hori horrela, modulu bakoitza beregaina da neurri batean, eta metodo zientifikoaren ohiko urratsak ematen ditu: a) sarrera; b) marko teorikoa; c) metodologia; d) analisiak eta emaitzak, eta, e) konklusioak. Beraz, modulu bakoitzaren bukaeran topa daitezke formulatutako hipotesiei dagozkien konklusioak.

Hala ere, eta lanari orokortasunean begiraturik, moduluen konbergentzian, beste zenbait ondorio ere eman litezke.

Sarrera orokorrean erabaki baten berri ematen nuen, eta asmo zahar eta berriagoak azaltzen nituen. Mintzairari buruz egin dudan ikuspegi aldaketa dago tesian hartutako bidearen muinean. Hala, mintzaira ontzen eta fintzen da zeinuaren eta munduaren –instituzioen– artean egiten diren interakzio eta egokitzapenei esker. Hizkuntza, orobat, Austinen ildotik, ekintza da. Baina hizkuntza markak loturik daude instantzia sozio-diskurtsiboekin eta denboragarrean ontzen dira diskurtso molde egonkorrak eta generoak. Horregatik da, hain zuzen ere, sermoia mintzairaren produktu historikoa.

Mintzaira eta instantzia sozio-diskurtsiboen arteko lotura eta bata bestearekiko doitze-egokitzapenak azaltzeko diskurtso analisiaren azter-moldeetara jo dugu, zehazki, Interakzionismo Sozio-Diskurtsiboaren ildora (Voloshinov 1992/1929; Bronckart 2005). ISDa ez du testua soilik objektu empiriko gisa kontsideratzen, baizik eta “pertsona arteko harremanetan” kokatzen du eta talaia horretatik aztertzen. Haratago joanda, enuntziatio-egoera ere kontuan hartzen du, hots, testuaren produkzio-baldintza instituzionalak, sozialak eta ideologikoak.

Sermoia, orobat, objektu literariotzat kontsideratu nahi dugu. Literatura pedagogiko bezala, xede morala edo edifikantea duen aldetik. Edo baita ere

“zirkunstantzia literatura” bezala, sermoia derrigorrez inskribatu behar denez baldintza sozio-historikoetan (hortik sermoia “genero antropologikoa” izendatzea, Bravo Arriaga, 2001).

Obra literarioaren azterbidean, Erromantizismoak irekitako estetikan (1960 urte bitartean) aztergai ia bakarra edo pribilegiatua autorea izan zen. Zuzenean haren bizitza eta biografia aztertuz eta, zeharbidez, haren “sortze-testuingurua” estudiatur. Beste batzuetan, autorearen estiloa ere aztertu zen, estilistikaren ikuspuntua hartuz, erretorikarena edota, besterik gabe, autorearen munduarekiko ikusmoldea bera.

Estrukturalismoak, aitzitik, “testua” hartuko du azterketaren ardatz eta zutabe nagusi. Testua aztergune tinko gisa kontsideratu eta hartara errenditzen da ikerlaria, testutik bertatik irten gabe.

Oraintsuago, baina, literaturaren eremuan diskurtsoaren planteamendua sartu delarik, sortu da idazlana bere baitatik ateratzeko ahalegina, eta, horrenbestez, gora egin du literatur lana historiari zein ekoizpen-egoerari lotzeko joerak. Gure lana, hain zuzen, hortxe kokatu nahi dugu: literatura diskurtsoetik kontenplatzeko talaiatik.

Diskurtsoaren ikuspuntutik enuntziatio literarioa egon dadin, ez da aski arima bat beste arima batekin elkartzea eta kontrastatzea (Voloshinov, 1929/1992: 157), hots, gizabanako bat gizabanako den aldetik beste gizabanako batekin konparatzea, zeren arima edo gizabanako horren barneko estatutua eta izaera bera historian zehar kokaturik dauden mintza-instituzioekin lotu beharra baitago. Ezinbesteko da idazlana posible egiten duten baldintzak aztertzea: ekoizpen-espazioa, balioespen-espazioa, kudeatze-espazioa... Eta denbora. Beraz, diskurtsoaren *topografia* eta *kronologia* kontuan hartzea. Izan ere, enuntziatio-egoerak baldintzatzen du elkarrekintzako partaideen egoera, eta baita esatariarena, eta diskurtso-motarena ere. Esana dugu jada, baina esan dezagun berriz: *esatearen* baldintzek zeharkatzen dute *esaten dena*, eta *esaten denak* bidaltzen gaitu bere enuntziatio-baldintzetara, horietara hain estuki loturik baitago esaten den hori (Bajtin 1995/1929, Voloshinov 1992/1929).

Arestiko ikuspegia gogokoago izan dudala aitortzen dut, eta horren faboretan utzi nuela albora erretorika eta estilistika hutsaren hurbilbidea... Zeren erretorikatik hasiz gero, ez ginen diskurtsoa azaltzera iritsiko, ezta berbaldi ekarriaren auzira ere. Gure ustez sermoiek ez dituzte oszilazio subjektibo eta psikologikoak ispilatzen, baizik eta hitzunen arteko elkarreragin soziala. Buelta eman nion ikuspegiari. Eta aldatu zen sistema baina ez zen gaia aldatu.

Beraz, ISDren marko teoriko-epistemikoaren uretatik edan dugu. Baina metodologiari dagokionez, ISDak operatibizaziorik edo metodo egirik ez du. Izan ere, dakigunez, ez da metodo zehatzik eta bakarrik “masa berbal handiak” aztertzeke (“La syntaxe des grandes masses verbales [ ] attend encore d’être fondée” Bajtin 1978: 59 ; Adam 2002: 83-tik hartua). Bide ugari badira, beraz, eta interakzionismo mota bat baino gehiago ere badago (Bronckart 2005: 153-154). Azken puntu honi gagozkiola, interakzionismo moten arteko bereizketetan, lehen motaren barruan kokatzen da gure lan hau; bestela esanda, mintzairaren eta giza instituzioen arteko interakzio-espazioan. Horrela bada, mintzaira-ekoizpenaren eta gizarte-testuinguruaren arteko elkar-mendekotasun harremana kontuan hartzen da, bi norabideetan gertatzen dena. Bestela esanda, badago dialektika bat ekintza diskurtsibo baten eta berau jaulkitzen duen instituzio edo giza estrukturaren artean. ISDaren printzipio nagusia da azterketa “goitik beherako” norabidean egin beharra, instituzio-erakundeetatik hizkuntza unitateetara. Ikuspegi honetatik, hizkuntzaren eta soziologiaren arteko lotura egin daiteke, baina soziologiaren uretan erabat murgiltzeke arriskuari itzuri eginez.

Aipatu arazo metodologikoari dagokionez, irtenbidea aurkitu dugu Roulet, Fillietaz eta Grobet (2001) autoreen proposamenean, eta geure egin dugu. Alde batetik, planteamendu honek eutsi egiten dio interakzionismoaren “goitik beherako” norabideari; eta, bestetik, “modulu” bidezko hornidura metodologikoa jartzen du eskura. Gure ustez, autoreok proposatutako irtenbidea egokia da, bereziki testuen konplexutasunari (gure kasuan XIX. mendeko sermoiari) aurre egin ahal izateko atalkatzea ahalbidetzen du-eta; hau da, kalak egitea, azterketaren diseinu modularra planteatzea.

Guztiarekin ere, ikerketa hau mamitze eta ontze bidean, egokitzapenak eta moldaketak egin beharra izan dugu. Hots, ez dugu azterketa molde jakin eta finkorik eskura izan. Iparrizarrean izan dugu beti “goitik beherako” begirada, begirada bertikala, eta baita hasieran geure buruari jarri genion helburua ere: sermoien ezaugarritze diskurtsiboa egitea. Halaz ere, eginkizun horretan begirada “horizontala” ere geureganatu izan behar dugu, eta hipotesiak *ad hoc* egin ditugularik, beti ere xede-asmoei ahalik erantzun beteena eman nahian, zenbait hurbilbide desberdinetatik edan behar izan dugu. Ezin uka, zentzu horretan, “brikolage” teknikaz baliatu behar izan dugula. Baina guztiarekin ere, pragmatikaren barrutian mugitu gara nagusiki, eta eredu koherente, praktikoa eta integratzaile bat osatu uste dugu; edo behintzat, horren alde egin dugu lan.

Guztira bost modulu egin dira lan honetan, bat kapitulu bakoitzeko. Modulu bakoitza beregaina da, erlatiboki behintzat, eta hortik ulertu behar da

bakoitzerako hipotesi partikularra(k) egin izana. Baina moduluak ez dira erabat autarkikoak eta isolatuak, dinamikoak eta elkarri begirakoak baizik. Halaxe eskatzen du esplizituki baliatu dugun metodologiak (Filliettaz, et al. 2001). Horrela, lehenbiziko moduluan ematen diren datu biografiko-soziologikoen laugarren moduluko instantzia eta erregulartasun diskurtsiboak kokatzeko eta esleitzeko balio dute. Agirre bere sasoiko figura espiritual, sozial eta beharbada intelektuala da. Teologo kontziente eta pedagogikoa. Baina, noski, ISDren ikuspuntutik, zedarritu behar da zer den Agirre autorearena, eta zer den rolarena. Agirre asko baititugu, eta beti dago bereizi beharra esatariaren posizionamenduaren artean (alderdi soziala) eta haren rolaren artean (alderdi indibiduala). Sermoiak produktu historiko gisa nola ontzen den ikusi dugu 4. kapituluan, eta ikusi ere produkzio-egoeraren eta mintzaira-formen arteko harremanean sortzen dela. Ber gauza gertatzen da 5. moduluarekin ere. Zenbait alderdi erretoriko diskurtso motari zor zaizkio, eta ez esatari-gizabanakoari.

Ildo beretik, 3. moduluko hizketa-egintzen banaketa hobeto esplikatzen eta ulertzen da instantzia enuntziatibo eta enuntziatio-egoera baten existentzia suposatzen bada. Eta zer esan, testu-egiturari dagokionez, sermoiak mintzajarduera egituratuak direla baizik? Egitura hori, horren bariazio urrikoa izanik, “transportagarria” da, sermoiak egiteko formatua edo eredu-patroia antzeman dugu. Azken buruan, artxisermoi edo “artxitestu” bat ekoizten du enuntziatzaileak, baina beti ere lan sozio-linguistikoko baten emaitza gisa kontsideratuz be-  
 rau. Eta ezinbestekoa da sozio-linguistika horretara jotzea, gure ustez, ezaugarritze diskurtsiboak rigorez egingo badira. Gure enuntziatzailearen obran, horrenbestez, bada egonkortasuna eta derrigortasuna, hala mezuan, nola egituran ere. Bajtin argigarri da: “Los géneros elevados y oficiales poseen una alto grado de estabilidad y obligatoriedad” (Bajtin, 269. or). Eta generoak proposatzen du be-  
 rau ekoizteko eta ulertzeko bidea, zer idatzi behar den eta nola, zer interpretatu behar den. Alegia, Agirre ez den beste sermoilari bat predikuan hasiko balitzaigu, hautu epistemiko eta estrategiko ber-berak egin beharko lituzkeela.

4. moduluan interakzio sozio-diskurtsiboaren bi fenomeno aztertu dira: pertsona-izenordainak eta berbaldi ekarria. Luzeen alderdi horiek jorratu ditugu, izan ere, beroriek dira subjektuen arteko erlazioen faktore eragileak eta produktuak ere bai. Interakzio sozio-diskurtsiboak atzemateko leku pribilegiatuak, hain zuzen. Bi fenomenoon azterketari ekiteko, Roulet et beste (2001) autoreei jarraikiz, hizkuntza unitateen barruan hiru informazio iturri bereizi dira: *linguistikoa*, *interakziozkoa* eta *diskurtsibo-erreferentziala*. Interakzio-informazioa enuntziatio terminotan egin da, zeren sinisturik gaude enuntziatioaren bideak ematen duela berbalditik diskurtsorainoko langa

igarotzeko aukera. Baliatu dugun ereduak, azken finean, mintzairaren determinismo sozialari so egiteko aukera ematen du

Horixe izan da, hain justu, 3. eta 4. moduluen arteko bereizketa egiteko arrazoia. Ezen hizketa-egintzen teoriak (pragmatika ilokutiboak), enuntziatiboa izanik ere, soilik komunikazioa erdiesten du: enuntziatuek testuinguru jakin baten barruan hartzen duten esanahia mugatzen du. Eta mugatze hori enuntziatu mailakoa da gainera. Ez du, haatik, subjektuen arteko interakziorik planteatzen, zeren ilokuzio-pragmatikak ez du indar ezaugarritzaile hori. Ez du, orobat, testuen eta enuntziazio-egoeraren arteko lotura egiteko balio, teoria horrek ez baitu horrelako gogoetarik egin.

Interesgarria da konstatatzea hainbat tokitatik egindako azterketek emaitza beretsuak ematen dituztela: 2. moduluko blokeak (euforikoa eta disforikoa) erabat dira koherente 3. kapituluan ikusitako modalitateen banaketarekin, kristauari esleitutako BETEBEHARRAK eta sermoilariari esleitutako JAKINTZA eta BOTEREA (savoir et pouvoir); eta koherenteak dira, halaber, 4. moduluko barrutiek A barrutiarekin eta B barrutiek; hots, sermoiak taiutzeko behar den termodinamikaren legeekin. Asoziazio eta disoziazio horiek betetzen dira, baita ere, pertsona-izenordainen eta predikatuen esleipenetan, eta NI/ZU/GU izenordainei egotzen zaizkien erreferentzia balioekin ere. Ildo beretik, 5. kapituluan kontuhartze enuntziatiboaren auzia. Intentsitatea loturik dago noiz A barrutiarekin noiz B barrutiarekin, eta extentsitatea loturik dago zita-iruzkin fenomenoarekin, alegia, sermoiak etenbageko errepikatzearekin. Kapitulu guztien azpian latente legoke diskurtsuaren espazio-denbora, Trentoko Kontziliotik ateratako ondorena, Ilustrazioak eragindako arrisku sentimendua, eta Agirre Asteasukoaren bokazio eta obsesio ebanjelizatzailea.

Eta hain juxtu, enuntziatio-erakundeari esker, hots, enuntziatio-baldintzei esker bilakatzen da esataria subjektu ideologiko. Baldintza horiek betetzean, erakundearen arauak betetzean, errituala gordez, iristen da “rol”a betetzera. Azalpen diskurtsibo argi baten bidez, mundua antitetikoki aurkeztuz, positiboan Jainkoa eta negatiboan haren ukatzea edo ezabatzea, eta abar. Horrela gauzak, egintza diskurtsiboak dagoneko praktika diskurtsiboak ere badira.

Erakutsi uste dugu hizkuntza formak bere horretan neutroak eta indiferenteak badira ere giza-erakundekiko, berauek ez direla indiferenteak hizkuntza forma eta mintzaira praktikatzeko moduekiko. Horrela, sermoiek soziologian eta historian dituzte sustraituta erroak, sakon sustraituta gainera.

Moduluak hainbat modutara irakur daitezke eta irakurketak ere desberdinak izan daitezke, esan gabe doa. Hasiera bateko hurbiltze “erretorikoa” utzi

genuen beste bati bidea irekiz, alegia, diskurtsiboari. Diskurtsiboari ekitean, baina, erretorikara iritsi gara. Ondorioz esan dezakegu “bide berririk” ez dugula asmatu. Berrikuntza zera litzateke, modulu bakoitzari emandako rolean. Orain artean linguistikaren eremuan egin izan diren azterketak baliatu ditugu, baina beste modu batera antolatuta aurkeztu dira. Aukera izan dugu analisiak beste modu batera hierarkizatzeko, baina beti ere efektu konbergente bat bilatuz, zeren modulu bidezko antolaketak banaketa adina lotura baitakar; datu asko eta karakterizazio sendoa egiteko bidea ematen baitu.

Orobat uste dugu beste modu batean uler daitezkeela diskurtoaren eta literaturaren gaineko analisia eta ikerketa, bi arloen artean dagoen hartu-emanari dagokionez. Uste dugu Maingueneau autorearekin batera, literaturak linguistikara jotzea ez dela soilik baliabide oinarrizko bat, askoz gehiago ere bada, benetako ikerketa tresna:

“Le recours à la linguistique n’est plus seulement recours à un outillage élémentaire, comme dans la stylistique traditionnelle, ou, comme dans le structuralisme, à quelques principes d’organisation très généraux: il constitue un véritable instrument d’investigation” (Maingueneau 2003: 21).

Ildo horretatik gertaera literarioa hizkuntzalaritzaren talaiatik azter daitezkeela uste dugu, zeren, bai diskurto ekarriak, bai erretorika diskurtsiboak, edota hizketa-egintzen teoriak berak, literatur lana ezaugarritzeko atarramendu handikoak izan baitaitezke. Hitz gutxitan esanda, harrigarri ere bada hizkuntzalaritzarako joera eta literaturaren estudiorako isuria horren adiskide zailak izatea. Horren distantzia handia balego bezala, hizkuntzaren eta literaturaren artean, Barthesen hitzetan esateko:

“*como si la lengua estuviera aquí y no allí, como si se la pudiera detener en algún lugar, más allá del cual sólo habría suplementos innecesarios como la literatura*” (1974: 28).

Sermoiak hizkuntza jardueren ondorio dira, eta adskripzio soziala duten aldetik, formazio horietan parte hartzen dute, beren helburu, interes eta asmo jakinen arabera. Nabarmen utzi nahi dugu sermoietako berbaldi ekarria – aipugintzaren fenomeno– bazter ezinezkoa dela sermoiaren taxuzko karakterizazioa egin nahi bada. Sermoi instantzia enuntziatiboa ezaugarritzeko saiakera egin dugu, beti ere tradizio katolikoaren barneko sermoia. Hemen haizeratu diren ezaugarriak ez dira arbitrarioak, edo erabateko aukeraketa pertsonalean oinarritutakoak, baizik eta generoaren baitako *erregulartasun diskurtsiboak*. Horrela bada, bereziki berbaldi ekarriaren fenomeno aztertuz, tradi-



zio luze baten baitara joan gara, izan ere, tradizio katolikoaren eta teologiaren diskurtsoaren tradizioetik heldu zaigun berbaldia dugu sermoia.

Aipua, ezeren gainetik, sermoien ezaugarriarik nabarmenetakoa da. Historian zehar ez da izan beste intentorik horrenbesteko garrantzirik eman dionik aipuari. Eta ez da beste diskurtsorik horrela jokaten duenik. Horixe litzateke sermoia *diskurtso esparrua*. Aipuaren errepikapena eta ondotiko iruzkina sermoia bapote-motorea elikatzeke iturria litzateke (iturri beroa eta iturri hotza). Sermoia artea, errepikapenean oinarriturik ere, tautologian ez erortzea izango da. Eta ez da meritu literario gutxikoa arestiko hori, horren testu indartsua eta inpaktagarria izanik sermoia. Gogora bedi errebelazioa bukatu zela San Juanen apokalipsiaren ondotik. Eta errebelazioa bukatu, Trentoko Kontzilioak erabaki zuela zein ziren errebelazioa “biltzen” zuten liburuak (72 liburuk osatzen dute “Errebelazioaren biltegia”). Sermoiak, hortxe mugaturik esan daitekeena, eta, besterik esan ezinik, *inefablea* izango du mintzagai.

Adan gure lenvico gurasoa becatuan erori zan bitarteco demborari deitzen zayo *inocençiacoc* demborara. Arqizten zan Adan Jaunaren gracion, eta adisquidetasunean. Arqizten zan Zucentasun, edo justicia originalaren doayarequin apaindua. Au zan doai bat añ miragarria, non Adan, bera nor izatera, gordeco zuan gaitz gucietatic, zartze, eta eriotzatic. Doai bat, guizonaren gura guciac ceduzcana ezagüera zuceñaren, eta vorondatearen mendeen. Orduan guizonaren biotza cegoan paque osoan; etzuen alabaña asaldatzen bere gurac. Zori oneco dembora onec irauñ zuan, Adanec Paradisuco arbola baten fruta debecatua jan zuan artean. Etzan orduan Sacramenturic batere izan Theologoac eracusten digueenez (b).

Erori zan Adan becatuan, eta ordutanic asi zan legue *naturalaren* dembora. Deitzen zayo onela, cetera mundua vicitu zan dembora lucean letraz ezarritaco leguegabe. Bitarte onetan jayo ciran ecin conta al aur, eta guciac ciran becatu jatortzicoaren

—8—

mancharequin sortuac, eta etzan artean batayoco Sacramenturic becatu au barcatzeco. Ez ote zan aur gasóai becatu au barcatzeco moduric batere? Ez digu Escritura Santac izic esaten gay onetan; baña ez da sinisteco gauza, Jaunaren Ontasun baztergabeac aimbeste aur utzico cituala becatu original, edo jatorrizcoaren sendagai gabe. Au da S. Agustinen irritzia (c) S. Gregoriot dio, gurasoen siniste, edo fedea orduan barcatzen zuala aurren becatu original, edo jatorrizcoa oráin batayoco barcatzen duan eran (d) Gurasoac sinistaco zuen etorrico zala bere demboran munduaren Salvatzailea: siniste onequin emango cioen aurrai bendicioeren bat, edo esquenico ciozqueen Jaunari doai, edo ofrenden batzuec, eta guitsa onetan quentzen citzaten aurrai becatu jatorrizcoaren mancha, eta guertatzen ciran Ceruraco bidean. Au aditzen da aurrentzat; ceren ezagüeran sartutacoac baciran oec iritsi cezaqueen becatu jatorrizcoaren barcacioa fede, esperanza, eta caridadearequin.

Onela joan ciran gauzac Abrahamen demboraraño becatu original, edo jatorrizcoari cegocan aldetic. Abrahami agündu cion Jaunac, marca cezala bere burua, baita ondorengo semeac ere *Circuncisio* marca, edo epayarequin (e); Abrahamen odoletic etorri bear zuan alabaña Salvatzaileac, eta nai zuan Jaunac ezagutua izan cedin non nai; Abrahamen jatorria marca atequin. Emen iru gauza aditzera eman nai dizquituz. Lenengoa: *Circuncisio* etzenden beartuac Abrahamen ondorengoac batic. Bigarrena, guizon jaquintsu ascoren iritzian Circuncisio-co epayarequin barcatzen citzaten Abrahamen ondorengoai becatu jatorrizco, edo originala. Irugarrena: emacumezcoai barcatzen citzaten gurasoen fedearrequin, len esan dan eran.

—9—

Becatu jatorrizco, edo originala barcatu ondoan, asco, ta asco erorico ciran becatuan, gaitzaren, eta onaren ezagüera iritsi ezquero, oráin batayatuquin guertatzen dan becela. Etzan orduan confesioo Sacramenturic. Ez otezan becatariarentzat barcaciore? Bai, baldin fede, esperanza, ta onezco damu, edo conficio osoarequin biurtzen baciran Jaunegana. Gañera esquentzen ciozqueen doai, ofrenda, edo Sacrificioac, S. Gregoriot dionez (f), baña estaquigu Sacramentuen icena cegoten, edo ez. Orra nola egon zan mundua legue naturalaren demboran: etzan liburic, etzan Elizaric, etzan gurasoaz osteroncean Jaincoaren itza, eta Ceruraco bidea eracusten zuanic: eta Adanen umeac amilduz joan ciran becatuaren bideetan, aimbesteraño, non damutu citzayon Jaunari eta Adanen umeac amilduz joan ciran becatuaren guizona egulü izateaz. Bere aserrearrequin bidaldu cituan mandu gucia estali zuen ujolac, eta Noe, ta bere echezoac ez beste guciac bucatu cituan.

Goacen oráin legue zarraren, edo Moysesen leguearen demborara. Jacob Patriarcaren ondorengoac, edo Israelitic urte ascoan vicitu ciran Egipton cativertio gogorrean. Oec ciran Abrahamen jatorri, Jaunac esletila, eta ántua, munduari salvatzailea emateco, Urricaldu zan oen nequeaz; atera cituan cativertio onetatic, eguiten cituala gauz arrigarri asco: eta Sinaico mendian eman cien leguea tetraz ezarria; eta deitzen zayo Moysesen leguea, ceren Moysesen bidez eman cien. Deitzen ere zayo legue *zarra*, ceren Jesusac bere legue edorra ipini zuanean, aitu ciran aren ceremonia, sacrificio, eta modua. Atzeman deitzen zayo *letraz ezarria*, ceren ala ipini zuan Moysesec. Legue zar onetan bada baciran asco ceremonia, doai, eta Sacrificio, eta batzuei eman oizate legue zarreco Sacramentuen icena. Oetatic ciran becatuen confesioa, eta oen barcacioreco esquin-

—10—

izen ciran doai, ta sacrificioac: Pazoaco aparía bil-  
dots errearequin: Apaizac, eta Alta Santua consagra-  
tzeo ceremoniac. Galdetu oi da, legue zarreco cere-  
monia, edo Sacramentuac indarric ote zuen, gracia-  
ren apaidura emateco? Ezeiz, ditio Florenciaco Con-  
cilioac: *Non causabant gratiam*; baña nola ciran gau-  
za Santuac, leguntzen zuen Jaunagana biotza alcha-  
tzeo, eta betaren gracia iristeco (g).

## § II.

Ecusten dezua, Cristaia, cer Sacramentuac izan  
ciran munduaren asteratic Jesu-Cristo etorri zan ar-  
tean? Etziran gure leguecoen guereiza baitic, eta  
alacoe ederqui adierazien due Jaunaren gudanaco  
onguinai, eta ontasuna. Eguin cituan Aingueruac, eta  
Lucifer beste ascorequin alcha zan Jaunaren contra:  
berrealta bota cituan betico su, eta garren artera. An  
egon bearrac dira belicotasun gucian. Eguin cituan  
gure lenvico gurasoac, eta ipiñi cituan Paradisuco  
Jecu atseguintean. Autsi zuen Jaunaren Aguintea.  
Aserratu citzayon, eguia da; aserratu citzayon Jau-  
nari: bota cituan Paradisuic, baña ez Aingueruac  
becela, betico su, eta garren artera. Au eguin le-  
cuan, eman cien dembora, ezagutzeco beren esquet-  
gabequeri itusua: aguindu zuan, bidaiduco zuata be-  
re Seme bacarra mundura, eta onec, arturic guizon-  
ren jancia, garaiuco zuata becatuan amilderazo ci-  
tuan, etsai galgarria. Urruti cegoan Salvalzalle onen  
etorrera; eta bitarte onetan iritsi ceceen Adanen  
umecac becatuen barcacoa, beguiratu cion, demboraz  
Salvalzalleac gurutzean esquentico zuan, Sacrificioari,  
eta ipiñi cituan aditzera eman ditudan Sacramentu,  
doay, ta sacrificioac. Atozea, Cristaia, neurri an  
eder-miragarriac guizon esqergabearen oneraco ar-

—11—

tu bacituan Jaunac, norc ezlacus, ceñ ongui nai,  
ta ontasun andia agueru zuan gudanonz? Eta Jau-  
n au ez degu amatuco, eta servituco? Au da, nere Cris-  
taia, gure eguiteco andi, eta bacarra: jarri deguio-  
gun bada, ta gure saria izango da ugaria, au da  
betico vicitza doatsua. Amen.

(a) 1.<sup>a</sup> ad corint. 12 et 2.<sup>a</sup> ad corint. 3(b) Antie peccatum Adami nullum fuit Sacramentum: et  
quavis Matrimonium institutum fuit in statu innocentiae, non  
autem ut Sacramentum, sed ut officium naturae. Haec est com-  
munis T. T. sententia cum D. Thoma.(c) Nec ideo credendum est ante datam Circumcisionem  
» famulos Dei (quandoquidem illis inerat Mediatoris fides in car-  
ne venturi) nullo Sacramento ejus optulatos esse parvulis suis,  
» quamvis quid illud esset, aliqua necessaria causa Sacra Scrip-  
» tura tacera voluerit S. Augustinus lib. 5 contra Julianum  
c. 11 apud Suarez.(d) « Quod apud nos valet aqua baptismi, hoc egit apud  
» veteres vel pro parvulis *sola fides*, vel pro majoribus vir-  
» tus Sacrificij, vel pro his, qui ex Abrabae stirpe prodie-  
» rant, mysterium Circumcisionis S. Gregorius Lib. 4 Mo-  
» raliu. Hic autem excitantur quaestiones sequentes.1.<sup>a</sup> Quaestio: an sola fides interior sufficeret ante circum-  
» cisionem ad remissionem peccati originalis? Communis sen-  
» tentia docet non fidem mere internam, sed aliquo signo ex-  
» terno applicatam fuisse remedium pro parvulis. Vide Suarez,  
et Billuart.2.<sup>a</sup> An remedium illud fuerit verum Sacramentum? sen-  
» tentia communis docet, fuisse verum Sacramentum. Vide  
» Suarezium.3.<sup>a</sup> An in lego naturae fuerint alia Sacramenta? Alij affir-  
» mant cum Melchiorre Cano, Billuart &; alij vero negent cum  
» Suarez, qui docet, fuisse quidem in illo statu cultum Dei ex-  
» ternum per sacrificia, oblationes, sed haec non fuisse vere Sa-  
» cramenta.

(v) Hoc est pactum meum, quod servabitis inter me, et

vos, et semen tuum post te. Circumcidetur ex vobis omne masculinum, et circumcidetis carnem præputij vestri, ut sit signum fœderis inter me, et vos; Genes 17. An circumcisio causaret gratiam sanctificationem, disputant Scholastici. Vide Benedictum XIV de festo Circumcisionis. Hic sequentia advertenda videntur. 1.º remedium originalis peccati, ante datum circumcissionem pro parvulis fuisse fidem parentum alicui signo externo manifestatam: pro adultis autem fidem cum charitate, quibus fortasse addebatur aliquod sacrificium. 2.º Etiam post institutam Circumcissionem faminis remittebatur originale pro fidei parentum, sicut antea: et idem dicendum de masculis, qui forti non fuerint de semine Abrahæ. 3.º Pueris non ministrabatur Circumcisio, saltem in lege veteri, ante octavam diem propter periculum mortis, unde morientibus ante prædictum diem, applicari debebat remedium ipsum, quod in usu fuit ante circumcissionem. 4.º Circumcissionem ceteris nationibus, secundario autem pro remissione originalis peccati, nimirum uti signum fidei Mediatoris. 5.º Circumcissionem causasse gratiam vel ex opere operato, ut tenent multi cum Scotis, vel ex opere operato passive, v' docet Billuart, aut ex opere operantis, ut opinatur Benedictus XIV ubi supra. 6.º Circumcissionem secundum aliquos causasse characterem, negare autem id plures.

(F) Vide quod littera d dicitum est.

(E) Concilium Florentinum anno 1439 sub Eugenio IV. An Sacramenta veteris legis causarent gratiam? disputant Theologi. Alij docent, causasse, non ex opere operato active, sed passive, id est,posito Sacramento, eo tamen actus non concurreret, collatum fuisse à Deo gratiam. Hanc sequitur Billuart. Alij autem sentiunt Sacramenta illa infirma esse elementa, gratiam non presentem, sed futuram significantia, ut expressè docet Florentinum: et solum contulisse gratiam ex opere, seu merito operantis. Ita Suarez, et communior sententia.

## BIGARREN ERACUSALDIA,

eta Jesu-Cristoc bere Elizari utzi ciozcan zazpi Sacramentuen gañean tenengoa.

### ALABATUA &

Maenengo Eracusaldian itzeguin nizon, Cristaua, munduaren asieratic Jesu-Cristo etorri zan artean izan ciran Sacramentuen gañean. Aditu centuan orduan, nola gure lenvico gurasoac autsi zuen Jaunaren Aguintea, eta galdu zuen Jaunaren gracia, eta Ceruraco escu gucia, ala berentzat, nola ondorengoentzat. Aserratu citazon Jaunari, eta erbestetu cituan Paradisutic; baña elzituan bidaldu betico su, eta garren artera, Aingueru gaiztoac bidaldu cituan eran, baicic eman cien dembora, ezagutzeco beren utseguite andia: agindu cien, bidalduco zuala mundura bere seme bacarra, eta onec guizatasunaren jancia arturic, garaituco zuala, enganatu cituan, etsai galgarria. Baña urutti cegoan Salyatzalle onen etorrera, eta bitartean iritsi ceceen Adanen umeac becatuen barcacioa, beguiratu cien Jaunac bere Se-mearen guruzeco eriotzari, eta ipini cituan, uquitu guinduan, Sacramentuac: eta agueru zuan onetan onginañ, ta ontasun gueyegui bat.

Igaro ciran era onetan lau milla urte becela: osca cegozquion Jaunari Patriarcac, Profeta, ta anima onac, bidal cezala agindu zuan Salyatzallea. Bete ciran Jaunac marcatu cituan demborac, eta etorri zan Salyatzallea: vicitu zan oguei, ta amairu urtean, eracusten zuala Ceruraco bidea: eman zuan guruzean bere vicitza, eta irabaci zuan guretzat, Adanen becatuerequin galdu guenduan, graciaeren doai, ta apain-

—14—

dura ederra, eta Ceruraco escubidea. Etzan au asco guc; ondasun, oec iristeco; baicic bear ciran, irabaci zuan gracia gure animetara igarotzeko, bideren batusuec. Orregatic utzi ciozcan Elizari zazpi iturri, edo Sacramentu animaco graciaren ur gozoac, eta virtuteac beli ematen ari diranac. Oec dira dotrinan gutic ocasi ginduanac, edo *Batayoa*, *Confirmacioa*, *Penitencia*, edo *Confesioa*, *Comunioa*, *Oleccioa*, *Ordena*, eta *Escozza*, edo *Matrimonioa*. Urrutitic be- ginaratu cien Isayas Profetaeac Jesusen zazpi iturri oei, eta dio: atseguin-contentuz artuc dezue *Salvatzallea- ren iturrietatic bear dezuen ur gucia Haurtetis aguas in gaudio de fontibus Sabatoris* (Isaie c. 12). Zazpi iturri, edo Sacramentu oen gabeen itzeguingo dizut gaur nere Cristiana. Aurrena beguiratu bear degu, ceñ mi- ragarria dan zazpi Sacramentu oec ipintzean, Jesu- sec aguerthu digun ontasun, eta amorioa. Urrena, nola eranzun diogun ontasun, eta amorio oni. Enzun arretaz.

## § I.

Zure simiste, edo fedeac eracusten dizun eguia da, Cristiana, etzala guri onguinayez aspertu Jesus mai- tagarria gurutzean gugatic vicitza ematearequia; baicic, bere eriotzarequin guretat irabaci cituan gracia, ta virtuteac gure animetara igaro citecen, ipini cituala zazpi Sacramentu, eta besteric esatea da heregia, eta, escomicu nagusiarequin Elizac debe- ciatu daucan, gauza, *Anathema sit* (a). Au asco- dala, dirudi, Jesusac alde onetatic aguerthu digun ontasun, eta amorio miragarria ezagutzeko. Baña ascoz obeto, ta arguitoago ezagutuco dezu au, Sacra- mentu bacoitza ipintzean egun zuanari beguiratzen badiozu.

Ecusten zuan Jesusac, guizona sortzen danetic ar-

—15—

quitzen dala. Adanen becatuarequin loitua, eta Jau- naren aserreetan azpian: ez dala, onela dagoan bi- tartean gai, edo gauza Ceruraco irabacitic chiquiena ere eguiteco. Ecusten zuan, gaitzaren, eta onaren ezagueran sartzen danetic asi bearra dala Ceruraco bidearequin, simisten dituala fedeco misterioac, es- peratzen duala betico vicitza, eta amaitzen, eta ser- vitzen duala Jauna; baña onetaraco etsai andi, eta trebeac arquituco dituala; Cer eguin zuan Jesus onac? Ipini zuan batayoco Sacramentua becatu jator- rizo, edo originala quentzeko. Sacramentu onec, ar- tizen dan uanean bertan, isirtzen du artzalkaren ani- man graciaren doai-miragarria: onec barcatzen du becatu jatorrizcoa: eguiten du guizona Jaungoicoa- ren seme, ta Ceruaren jabegai, edo heredero. Ema- ten dioxa fede, esperanza, eta caridadearen virtu- teac, cequin garaitzeko Ceruraco bidean arquituco dituan nequeac. Cer gueyago? Gogoz, eta gustoz ari dedin eguiteco andi onetan, isirtzen ditu Espiritu Santuac bere doayac batayaten danaren aintzan. At- zenean ezartzen dio Jesu-Cristoren artaldeco marca. Baña au gucia ez da asiera besteric.

Ecusten zuan Jesus onac, ascotan alaco perillac inguratzen duela anima dala fedea- ren, dala beste Mandamenturen baten contra, batzuelan munduaren, bestectan bere gara charren aldetic, non erraz amil- du lezaqueen becaturen batean, sendoro jartzen ez- pada bere Jaunaren Aguintea gordetzeco, naiz aser- ratu dedilla mundu gucia, naiz ez; naiz aicha ditce- la beraren contra aideac, auzoac, adisquideac, naiz ez; naiz costa daquiola vicitza, eta norc ez du ezagut- zen ceñ lan andia dan au? Orregatic ipini zuan Jesu- sec bigarren Sacramentu bat *Confirmacio devizama*, Sacramentu onec ugaritzen du animaco gracia, eta isirtzen ditu Espiritu Santuaren doayac Cristiauren

—16—

animan batayon baño ascoz naroroago: eta atzencan ezartzen dio Jesu-Cristoren guerrari, edo soldadua-rens marka. Onela sendotzen du Jesu-Cristoc anima, etsai gucien contra peleoatzeco.

Ecusten zuan Jesusc, bere gudari, edo soldadue-tatic gueynac, edo alde-aldean guciac etzirala venaz, eta bear bezala peleoatuco etsayaren contra, eta ber-riro illac gueratuco cirala becatuaren erioztarequin. An argala, eta Ceruraco egin bear diran gaucean narra, ta nagia gueratu zan guizona Adanen beca-tuarequin! Cer egin zuan Jesusc? Ipiñi zuan iru-garren Sacramentu bat *Pentencia*, edo *Confesio* de-ritzana, eta itz bian anima illac piztutzen dituana.

Ecusten zuan, aldapa gogor, eta luceac arquitzen dirala Ceruraco bidean, eta bidezcoa aunatu, edo aricatu ditequcala, sarritan artzen espadu cerbait janari, eta edari; eta au ongui cecusanac bezala, egrin zuan Jesusc mirari gucien miragarritasuna berequin duan gauza bat, au da ipintzea Aldareco Sacramentu guciz miragarria, guri emateco bere gorputza, eta odola, eta bera dan gucia: guri la-guntzeco Ceruraco bidean, eta premia gucietan. Cer gueyago asma citequean gure alde? Jaquizu bada, Cristauna, etzala onembestebean gueratu Jesusen guga-naco onguinai, ta amorioa.

Ecusten zuan, ill bearrac guñata, eta ordu ura alderatzen danean, perill andien artean arquituco guerala. Perill au jayotzen da gure grñia charreltic, eta victiza gaiztoac animan uzten dituan cuitso, eta arras-to gaiztoetic, nola diran oneraco narra, eta go-go gabe gueráteea, baña gaitzeraco macurtua. Perill au jayotzen da urrena etsai galgarriaren aldetic. De-cusanean onec, aintuzen, edo bucatzen zayola, guer-ra eguiteco, dembora, prestatuco ditu anima gal-soa galtzeco, edo achiltzeco sare, eta lazo guciac. Pe-

—17—

ril onetan galdu etzitecen animac, ipiñi zuan Jesus onac botzgarren Sacramentu bat, eta da *oleacio*, edo *asquen oleadura*, edaraz *Extrema-uncioa deritzana*. Sacramentu onec quentzen ditu, edo osotero, edo cer-bait igratoco victzaren cuitso, ta arrasto gaiztoac: alaitzen du anima, ematen dioza indarrac etsaia ga-raitezco, bai ta batzuetan gorputzaren osasuna ere.

Ecusten zuan gañera, Sacramentuac ongui, eta bear diranean emateco, bearco cirala Sacramentu bear eguiteco, eta emateco, escua zuenac, eta oec beti izan citzan Elizac, ipiñi zuan *Ordena* deritzan Sa-cramentua. Sacramentu onen bidez ditu Elizac Alta Santua, Obispo Jaunac, Apaizac, Diaconoac, eta ba-coitzac badu bere mallari dagocan escua. Oraingoac iltzen diraneco, etorrico dira berriac, eta au bera guertatuco da guero ere munduaren bucararaño.

Atzanean ecusten zuan Jesus onac, munduaren asiatic batzala ezcontza, baña etzala Sacramentu: be-ragatic etzuan graciaren gozagarriric. Orregatic al-cha zuan ezcontza Sacramentuen mallara.

Esan zadazu orain, nere cristaua, ez da guciz mi-ragarria gauz oec eguitean Jesusc gugaonoz ague-ru duan ontasun, eta amorioa? Gucatic guruzean vict-iza emateari S. Pauloc deitzen dio onguinai, ta amo-rio guiequia: *Nimiam charitatem*. San Juanec dio, Al-dareco Sacramentua ipintzean amatu guinduhala az-querarano, edo ecin guetiagorano: *in finem dilexit* eos. Cer esango degu bada zazpi Sacramentuaac ipin-tzean agueru digun ontasun, eta amorioac? Arritu-ric esan dezaquegu Davidequin: Jauna, cer da guizo-na, zu artaz guisa onetan oroitzece? *Quid est homo, quod memor es ejus?* Baña nola eranzun diogu Jauna-ren ontasun, eta amorio omi? Au da orain beguiratu bear deguna.

5

Bere vicitzaren costuz irabaci zuan guretzat Jesus onac graziaren dosia, eta Ceruraco escu, ta derecha, eta au eman cigun batayoco Sacramentuarequin. Non da orduan artu guenduan apaindura ederra? ! Ay do-ric, eta ecer balio etzuan gauza becela galdu guen-duan! Eguin guinduan Jaungoicoaren beraren Same, ta Ceruaren jabeagai: eta onra au gucia trucatu degu gure grina charren atseguin apur bategatic.

Confitiacioco Sacramentuarequin eguin guñian Jesu-Cristoren gudari, edo soldadu, demonioaren, munduaren, eta aragiaren contra pelezteco. Baña cer eguin degu? Cer, ezpada munduaren beldurrez, edo gura charrac garaitzeco nequea ez arteagatic, Jauna uzita etsayagana igarotzea?

Confitioco Sacramentua utzi cigun gure animaco eritasunetic gu sendatzeco. Baña asco, eta asco dira sendagai au beren puzoi biurtzen duenac: batzuec, ceren, escatzen duan, prestaera eguiteco sayatzen ez diran; besteac ceren lotsaz, edo gaitzaqueriaz beca-tuac diran bezala, eta diran adiña aitortzen ez dituen; batzuec, ceren dotriña icastera sayatzen ez diran; besteac, ceren becaturaco bideac, eche, ta lagun gaitzoac ulzi nai ez dituen; batzuec, ceren lagun ur-cosari becaturaco bidea ematen dioen, itzeguite loiac, quenada itsusiac lajatzeco biotzic ez duen; besteac edanean igarotzeco, birau, ta juramentuac eguiteco oitura zarren vici diran: batzuec, ceren lagun urco-ri, edo erriari eguindaco calleac deseguiten ez di-tuen; besteac besteren gauza jabearen vorondatearen contra dauqueen. Aizanean beren estadu, eta carga-ren eguin-bide, edo obligacioac ezagutu nai ez di-tuenac. Oec gucia ceren puzoi biurtzen due Confesio-co Sacramentua. ¡ Cer esango det Aldareco Sacra-

mentuari eguiten zaizcan bidegabear? Cer, beste Sa-cramentuquin guertatzen danaz? orregatic esan de-zaque Jesusec, len Israelarrai Jaunac esaten cien: gende zoro, ta cenzugabea; au da zure Jaun eta Jaun-goicoari zor diozun erantzera? *Hæcæne reddis Domi-no, popule stulte, et insipiens?* (Deuteronom. 32).

Cristiana, ezagutu dezagun gure esquer gabequeri izugarri; eta damu eguiazcoarequin barcaioa esca-tu degulogun Jesus onari. Aurreracoan bala gaitze-cen, berac utzi dizquigun, Sacramentuaz hera amatze-co, ta servituzeco, eta iristeco beti—beti iraungo duan Ceruço gloria. Amen.

(a) Siquis dixerit, Sacramentia novæ legis non fuisse omni-nia à Jesu-Christo Domino nostro instituta; aut esse plura, vel maiora quam septem; videlicet Baptismum, Confirmationem, Eucharistiam, Penitentiam, Extremam Unionem, Ordinem, et Matrimonium, aut etiam aliquod horum septem non esse verè, et propriè Sacramentum, anathema sit. Tridentin. Sess. 7 can. 1.º De Sacramentis in genere. Et ibidem can. 6, 7, et 8.





IRUGARREN ERACUSALDIA,

*Baña Jesu-Cristoc bere Elizari utzi ciozcan, zazpi Sacramentuen gañean bigarrena.*

ALABATUA &.

**A**ditu cenduan, cristaua, azqueneco Eracusaldian, ceñ miragarria dan, zazpi Sacramentuac ipintzean, Jesusec agurteri digun ontasun, eta amorioa. Aditu cenduan gañera, ceñ gaizqui eranzun diogun amorio oni. Orañi dotrinac galdetzen digu guisa onetan.

»Cer gauza dira Sacramentuac? Erantzuten du: Jesu-Cristoc bere Elizari utzi ciozcan, sinale aguri »diran batzuec, oen bidez gracia, eta virtuteac guri »emateco. Cer gauza da gracia? Da Jaincozco izate, »edo doai bat, guizona Jaungoicoaren Seme, ta Cerua- »ren jabegai, edo heredero eguiten duana. Cer virtu- »te graciarequin batean ematen ditue Sacramentuac? »Berezquiro iru Theologalac, edo Jaungoicoaganon zuzen begiraten duanac. Cein -dira? fedea, esperan- za, ta caridadea. Orra cer eracusten dizun dotrinac, Sacramentu gucien gañean; baño Cristauen artean as- co dira, dotrinac itz pisca oetan dacarrena aditzen ez duanac. Orregratic gauza bearra da beñi, ta berriz, eta ascotan azaltzea, eta agurtezca dotrinac emen era- custen digina. Sacramentu oec dira zazpi, fedea- c eracusten digun becela. Ez dira, guizonac asmatuta-

co gauzac, baltic Jesu-Cristoc bere Elizari utziac (a), fedea- c eracusten digun becela. Dira sinale aguri di- ranac; zoaz experen, Sacramentu bacoitza ematen da- nean, cer eguiten dan ecustera. Batayoan isurtzen du batayatzaliteac ura aurraren buru-gañera, eta esaten ditu Sacramentuari dagozan itzac. Orra nola bata- yo dan sinale aguiria: eta au bera guertatzen da bes- te Sacramentuetan ere. Sinale oec aditzera ematen ditue animara dacartzien ondasunac: oec ez dira ecus- ten, baltic fedea- c eracusten ditu. Ondasun oetatic an- dienac dira gracia, ta virtuteac: orregratic dotrinac dio, Sacramentuac dirala Jesu-Cristoc bere Elizari utzi ciozcan, *sinale aguri diran batzuec, oen bidez gracia, ta virtuteac guri emateco.*

Sacramentuac, ongü artzen badira, ematen dioe animari *gracia* deritzan apaindura ederra: au da doai bat Espiritu Santuac Sacramentuen bidez animari ematen diona, eta deitzen dio Jesu-Cristoc eztaietaco janciera: *Vestem nuptialem* (b). Ezta doai au gaitzen, becatu mortalarquin baltic (c). An miragarria da doai, eta apaindura au, non eguiten duan guizona Jaincoaren Seme, eta Ceruaren jabegai, edo herede- ro (d).

Baña Ceruco erreñua iritsi nai duanac amatu, eta servitu beardu Jauna, eta onetaraco bear ditu virtute egoquiac, necazari batec, lana ongü eguiteco, lana- bes egoquiac, bear dituan eran, eguin dezagun contu achurra, layac, arec, cerra, gubia. Orregratic Espiritu Santuac graciaren doai, eta apaindura animari ema- ten, ematen diozca Ceruaco lanac eguiteco virtu- teac, nola diran fede, esperanza, ta caridadea, bai ta beste virtute asco ere (e).

Edocencec beregan ezagutzen du, gauz onac egui- teco guerala maguiac, eta gogo guchicoac; eta go- soaren contra ari dan languillea ascotan zabartu oi

da. Eritasun au sendatzeco, cer eguiten du Espiritu Santuac? Virtutequin batean isurtzen ditu animan bere zazpi doaiac, oequin eguin ditzan Ceruraco eguin bear dituan lanac, ez nolanal, baicic gogoz, eta gustoz (f).

- Atzanean bear ditu animac, gauz onac eguiteco, Ceruco lagunzac; oec gabe alabaha ezguera gai, edo gauza gogoracio on bat eguiteco, ez eta *Jesus* bear bezela esateco ere, dió S. Pauloc (g). Ceruco lagunz oetatic asco dembora egoquitian ematen ditue Sacramentuac. Orra cer, ta certaco diran zazpi Sacramentuac. Gauz oen cerbait ezaguera izan dezazun zuec nere Cristauna, berritucó ditut, oraiñ esan diran eran, arrango bi Eracusaldietan ere.

Dotrinac aqutzen dituan gauz oen artean gracia- ren doia da guciz miragarria, lenengo lecuac: ani- marentzat dacarren onraren aldetic: au da aurrena ecusi bear deguna. Urrena, *Jesus onari costa zayona- ri beguiraturic*. Au da bigarren lecuac ecusi bear de- guna. Enzun arretaz, Cristauna.

### § I.

Graciaren icenez batzuetan aditzen degu edocen onlarte, eta mesede, eta era onetan guc ditugun doai ta gauz on guciac dira Jaunaren gracia; guciac dira alabaha beraren escu onguileac emanac, dala vi- citeza, osasuna, dala vicitzeco bear degun gucia; ba- ña ez degu emen gracia- ren icenez aditzen edocen mesede. Beste batzuetan gracia- ren icenez aditzen di- tugu, becatutic irteletco, edo aldeguiteco, obra onac eguiteco, eta oei jarraitzeco Espiritu Santuac bidal- tzen dizquitugun gogoracio onac, eta biotzeco uqui- tzeac. Oec dira Ceruco mandatari batzuec, mandatuac animari eguin ondoan, gudan guelditugabe aurrera

figarotzen diranac. Espiritu Santuaren mandatu oec- quin ascotan esnatzen, eta cuturzen da anima, be- catutic irteleta, baña beste ascotan gueratzan. da becatuaren lo astunean. Ceruco lagunz oec gabe be- ticotasun gucian egongo guinaque gogoracio on bat eguingabe (h); eta guretzat irabaci cituan oec *Jesu- sec* bere erlotzarquin. Orregatic mandatu oec aditu bear ditugu biotz umil batequin, bestela erraz guer- ta ditekue galtzea betico vicitza. Baña ez degu gauz itzeguiten Ceruco mandatu, ta lagunz oen ganean. Atzanean gracia- ren icenez aditzen da gueyenetan araco Espiritu Santuac animari Sacramentuac. bidez ematen dión doai, ta apaladura eder ura. Doai au gueraltzen da animan, eta ez da galtzen becatu larri, edo mortalarquin baicic. Lenengo aldi- an artzen du animac doai, ta apaladura au batayoan, guero con- fesio ona eguiten duanean, eta ugarcitzen zayo gañe- raco Sacramentuac. Beraz zuec, Cristauna, batayoco egunean, eta ongui confesatu ceranean, artu dezue gracia- ren doai, eta apaladura ederra. Au da eguia bat zure siniste, edo fedeac eracusien dizana, eta gucioc sinistu bear deguna. Bacinaqui, Cristauna ceñ miragarria dan doai au! *Si scires donum Dei.* (i) Nai dezue au nolerebait ezagutu? beguira bada benicben, ceñ onragarria dan.

Graciaren doai, eta jancier a onec, animan sartzen dan unean bertan, guizona eguiten du Jaungoicoa- ren beraren Seme, ez bere izatez, baicic aintzaco- tzac Jaungoicoac artzen dualaco. Guizona bere izatez ecin izan ditekue Jaungoicoaren seme; onetaraco alabaha bearco luque Jauncotasuna, eta ecin dateque au. Era onetan *Jesu-Cristo* bacarric da Jaungoicoa- ren semea, eta Jaungoico eguiatzcoa. Baña aimbeste- raño maite izan gaitu Jaunac, non onratu nai izan gaituan bere Semeen icenarequin, eta aintzacoatzac

—24—

artu gaituan graciaren doayarequin. Demagun Españaco Erreguec seme bat bacarra duala, eta onez gafierra semetzat artu nai duala beste bat. Eraguiten du soñeco, edo janciera guicz eder bat, eta aguintzen du, janciera au daramana onratu deceela guciac Erregueren semetzat. Atocea, Cristaua, janciera au Erreguegandic iristen duana, ez da izango Erregueren Seme? Bere izatez ez, esango didazu, baña bai antzicolzat-artua. Au hera guertalzen da bada graciaren janciera ederra iritsi duanarequin. Ez da, eta ecin izan diteque bere izatez Jaungoicoaren Seme, ceeren Jaincoasunic ecin izan dezaquean, baña graciaren soñeco ederrarequin artzen du Jaunac bere Semetzat. Orregatic esan zuan S. Juanec: *ecusi ezazue, nolaco onguinai, eta amorioa guganonz aguer-tu duan Jaunac: Videte quatem charitatem dedit nobis*: bada eman digu bere Semeen icena, eta izatea: *Ut filij Dei nominemur, et simus* (j).

Graciaren doai, eta jancierac, guizona Jaincoaren Seme eguiteaz gahera, dembora berean eguiten du Ceruaren jabegai, edo heredero. Semea Altaren ondasunen jabegai da, edoceñec daquian becela: beraz graciaren doayac, guizona Jaincoaren Seme eguiten badu, dembora berean eguiten du Ceruaren jabegai: ala esaten digu S. Pauloc: *Si filij, et heredes* (f). Gauz andi bat dala, ustie degu, España, Francia, Alemania, eta Rusiaco Erreñu, eta ondasunen jabegai izatea? baña cer da au, Ceruco erreñu eta ondasunen jabegai izatearen aldean ipintzen bada? Ecer ez. Emengo izan guciac gorotza becela dira Cerucoen parrere ipintzen badira. Ango ondasunac dira garbiac, asperitzen ez duenac, eta beticoac: eta Jaunaren edertasun neurri, ta mugaric ez duana izango da animaren sari, ta betegarria, Jaunac berac Abrahami esan cion eran: *Ego merces tua magna nimis* (m).

—25—

Ecusten dezu, Cristaua, nola graciaren doayac guizona eguiten duan Ceruaren jabegai?

Eguiten eré du *Jaungoicoaren beraren adisquide*. Anima bat, graciaren doai, eta apaindura gabe dagoan bitartean, arquitzen da becaluaren loyecz ciquindua, eta Jaunaren aserirearen azpian, S. Pauloc dion bezala: *Filiij iræ* (n). Bana ozta jartzen da Jaunaren graciaren eguiten da Jaungoicoaren adisquide. Ala eracusten digu Trentoco Concilioac (o). Au aditzera eman zuan Jesu-Cristoc, esan cienen Apostoluac: *emendic aurterra es dixit esango nere servitziaric baicic nere adisquideac* (p) Miretsitzen da S. Gregorio, onrebeste onra guri Jaunac eman nai izateaz, eta dio: ez guera servitziaren icenaren diña, eta onratzen gaitu adisquideen icenarequin: *O mira Divinie Bonitatis dignatio! Servi non sumus digni nominari, et amice nominamur* (q).

Ez dira onetan bucatzen, graciaren doayac dacar-tizan, onrac; ceren doai enec guizona eguiten du Jesu-Cristoren senide. Jesu-Cristo da Aita Cerucoaren seme bacarra bere izatez, ceren Altaren izate, eta Jaincoatasunac duan. Seme bacar onex gahera graciaren doayarequin semetzat artzen ditu beste agoco, edo graciaren soñeco ederrarequin dauden guciac, eta oec guertatzen dira Jesu-Cristoren senideen onra abdiarequin; Aita baten umeac alabaña senideac dira. Orregatic Jesu-Cristo da gure anai nagusia.

Azqueanean graciaren doayac guizona eguiten du Espiritu Santuaren vicitecu, eta Eliza bezala. Doai au animari ematean, S. Pauloc dionez, ematen zayo Espiritu Santua ere, eta an vici da animaren gutiaria bezala, eta an vici naico luque bere gogoco jaunreguiatan bezala, toqui gucietan espalego ere (r). Orregatic Jaunaren graciaren dagoan animari. S. Pauloc

4

deitzen dio Espiritu Santuaren Eliza : *An nescitis, quamam membra vestra templum sunt Spiritus Sancti?* (s).

Ecusten dezu Cristaia, ceñ onragarria dan animarentzat graciaren doai, eta soñeco ederra ? Ecusten dezu, ceñ miragarria dan alde onetatic ? Eta ez da guchiago, cer costa citzayon doai au Jesus onari beguiratzen badegu. Au da oraiñ ecusi bear degua.

## § II.

Zuc nere Cristaia, ez dezu ecusten beguiaquin graciaren doai, eta janciera ederra, eta janciera au galdu arren, ez dezu negar andiric eguin, esana dago : *ecusten ez duan beguiac negarrie ez.* Baciñaqi, cernbat costa citzayon Jesus onari, doai au zuretzat irabaztea ! Galduzen doai au gure lenyitico gurasoac, Paradisuco arbola baten fruta debeatua jaten zuala, eta galdu: zuen ez berentzat bacarric, baita ondorengo-gucientzat ere. Etzan guizonen, eta etzan Aingueruen artean ere arguitzen oquer au zucendu cezaquëanic, eta Jaunac bere gain artu bear izan zuan lan andi au. Aita beticoac eman bear izan zuan bere Seme bacarra, guizon eguñic, deseguin cezan becatua. Seme Jaungoicoa guizon eguin zan Virgña hit Santaren sabelcan Espiritu Santuaren obratz. Oroi zaitte, Cristaia, guero igaro cituan neque, ta oñaiceaz. Oroi zaitte, cer illuntasan, edo tristurac ecusi cituan bere azquenecco arratsean. Oroi zaitte, nola jarri zan odolezco icerditan, eta ilizeco zorrian. Oroi zaitte, nola azotetz urratu, ta aranzaz corootu zuen, eta atzanean, nola gurutzcan eman zan bere viciza: eta jaquizu, au gucia costa citzayola Jesus onari graciaren doaya guretzat irabaztea. Esan guidazu oraiñ: ceñ miragarria izango ez da bada doai au; alde onetatic beguiratzen zayola ?

Ay ! eta alaere daldu degu doai au añ erraz, edo ecezagatic ? Galdu doai bat, Jaungoicoaren Seme, eta adisquide : Cernuaren jabegai, Jesu-Cristoren senide, eta Espiritu Santuaren vicitecu eguiten guinduaña ? Galdu, Jesus onac aimbeste nequerequin guretzat irabaci zuan apaindura ederra ? Eta ezagufuric au gucia, ez guera damuz deseguingo ? Lotsa gaitecen gure centzagabeceriaz: eguin dezagun aleguña graciaren doai miragarri au biltzeco, eta ongui gordetzeco. Onela emango digu Jaunac guretzat prestaturie daucan betico vicitza. Amen.

(a) Concilium Trident. Ses. 7 de Sacramentis in genere can. 1. Hic queritur, an sit de fide, omnia Sacramenta nove legis esse immediate, et per se inflata à Christo Domino? Alij affirmant, id esse de fide post Tridentinum. Alij autem negant, quia Concilium in sua definitione non dicit *immediate* esse inflata à Christo Domino.

(b) Math. 22.

(c) Concilium Tridentinum ses 6 cap. 15 de justificatione. De fide est, gratiam sanctificantem esse donam supernaturalem. Intrinsicè inherens animæ; quemvis enim dicat Calvinus, justificationem formalem sitam esse in sola remissione peccati absque ulla infusione gratiæ; Mathias Illiricus *in obedientia, et justitiæ Christi*, nobis imputatæ: ostiander, illum ipsam justificationem, qua Deus essentialiter est justus; Lutherus vero asserat, gratiam gratam facientem esse solam fidem, aut fiduciam; hæc tamen omnes hæreses damnant Concilium Tridentinum ses. 6 de justificatione cap. 7.º et canone 9, 10, 11, 12. Disputant quidem scholastici, an Deus ce potentia absoluta possit remittere peccatum absque infusione gratiæ; at hic sermo est de presentis providentia.

(d) 1.º Juan. c. 3. Ad Rom. c. 8.

(e) Unde in ipsa justificatione cum remissione peccatorum hæc omnia simul infusa accipit homo per Jesum-Christum, cui inseritur, fides, spes, et Charitatem. Tridentinum ses.

**YANEGODICAREN**  
**LEGUECO AMAR AGUINTEEN GAÑEAN**

*ERACUSALDIAC*

DON JUAN BAPTISTA AGUIRRE ASTEASICO ERRETORE, ETA  
GUIPZOACO ARCEPRESTAZCO NAGUSIAN DIPUTADU GENE-  
BALAC, CRISTAU AGAI MEZA NAGUSIETAN EGUINAC.

*Esquetiden diezte Apatez Euscaldunazi.*

Glama, ne cesses, quasi tuba exalta vocem tuam, et annuntia  
populo meo scelera eorum. Isaie 58.

**BUENICO GURE APAIZ NAGUSIAREN BAIHENDUQUIN.**

*St. Juan Bautista de Montecoronari*

**BIGAREN LIBURUA.**

HORDAGO, S. A.  
EDITORIAL LUR (Plaza de Guipúzcoa, 11-1.º Donostia)  
I.S.B.N. 84.7099.045/4  
Dep. Leg. S.S. 380/78  
Impreso en Alvelez Iracle - B.º Igara - San Sebastián

**TOLOSAN:**

Andres Corosabalen moldetegiuan  
1880 garren urtean.

ez egnitera, guré gañera etorricó dirala Jaunaren aserri, la madericacio guciac? eta usa da emengo meque gucia gueroçoaren aldean. Ascotan guertatzen da, Jaunac emen becatariari ez bidaltzea bere vicitza gaiztoarequin irabaci dituan nequeac; baña laster bucatzen dira emengo aurqueriac, eta amiltzen da becataria beti-beti irauungo duen nequeetan. Oroí gaitecen, nere Cristaia, amar Aguinie oec gordet- zeco itza emian guenduala batayoco egunean. Oroí gaitecen, Eliz Ama Santac esan cigula: Betico vicitza doatsua nai badezu, gorde itzatzu Mandamentuac: *Si vis ad vitam ingredi, serva mandata*. Eguin dezagun su venaz, eta gogotic, eta emango digu Jaunac guretzat prestatuac daucan betico vicitza. Amen.

(a) Sexcenta tria millia virorum quingenti quinquaginta. Levitic autem in tribu familiarum suarum non sunt numerati cum eis. Numer. 1.º



## BIGARREN ITZALDI, EDO PLATICA.

*Azaltzen da Jaunaren Legueco lenengo Aguiniea.*

ALABATUA &

*Clama &*

OTSEGUIZU &

**A**metaraco asi naiz Jaunaren legueco amar aguinieac azaltzen, ispillu onetan ecusi ditzan bacoltzac bere utseguiteac. Gaurco itzaldia izango da Jaunaren legueco lenengo aguintearen ganean. Ezun artetaz.

Sinaico mendiaren gañetic aditzera eman zuanean Jaunac amar aguinteen legues, lenengoan esan cten Israeldarrai era onetan: Ni naiz zure Jaun Jaungoicoa: *Ego Domini Deus tuus* (Exodi 20): Egiptoco lur- retic eta cativeritoco ebetic zu atera zaitudana. Ni- sas landara, edo osteroncean ez dezuz izan bear Jain- coric. *Es dezuz* egingo idoloric, edo Jainco guezur- rezcoen anz, eta iduriric: *ezeta* Ceruan, lurteap, edo urtan lurraren azpian arquitzen diran gaucen anz, edo imagniaric ere (aditzen da Jaincoa bezala onrat- zeco). Ez dituz gauc oec adoratuco. *Ni naiz, ni bacer- ric zure Jaun Jaungoicoa*. Orra cer esan cten Jaunac Israeldarrai lenengo aguintean.

litz oetan ez da arguiro esaten lenengo aguintea dala *Jauingoicoa gauza gucien gañean amatzea*; baha aia aditzera eman cien Moysesec Israeldarrai, esan cienen: *Enzun esazu Israel gure Jaua Jauingoicoa bat* »baccarra da: eta amatuco dezu zure biotz guciaz, »zure anima; zure indar, eta aleguin guciaz: eta »gaur nic aditzera eman dizudan, Aguinte onen il- »zoc gordeco dituzu zure biotzean: contactuco diez- »zu zure umeai: gogoan erabillico dituzu, echean »goeldiric zaudonean, bidean zabiltzanean, lotara »zocneanean, eta lotatic jeltzitzean. Ipiñico dituzu »ocscuan, sinaletzat loturic: erabillico dituzu begui »batalburuan, eta atocetan (Deuter 6). Orra cer guisatan »bitzeguin cien Moysesec Israeldarrai Jaunari zor di- »gun onguinai, ta amortioaren gañean: eta Jesu- »Cristoc deitzen dio Aguinte oni gucien artean *andze- »na ta tenena* (Math. 22). Orregatic ederqui esaten da dotriñan, Jaunaren legueco lenengo Aguintea dala: *Jauingoicoa gauza gucien gañean amatzea* (3)

Lenengo Aguinte oni guc ongui eranzuteco gauza boarra da lenengo lecuan fedeco Misterio, eta guri dagozquigun gauzac jaquitca eta sinistica, ecin aia- baha amatu dezauega Jauna biotz osoz, beraren Ontasun baztergabea aguerizen diguen Misterioac jaquin, eta sinistu gabe. Orregatic alde onetatic use- guiten du lenengo lecuan dotrina jaquiteco sayalzen ez danac. Bigarrena, fedeco Misterioac sinisteco ne- que pisca artu nai ez duanac, edo *Acto fedecoac*, eguin bear diran demboran, eguiten ez dituanac. Irugarrena fedeco gauzaren bat ucaten duanac. Onelaco asco izango dira gaurco egunean erri andie- tan; badira alabaña chorasca asco, gure auzoco gu- darielatic fedearan contactuco gauzac icasi dituenac, eta *inquisicioaren* beldurra quendudan ezquero, no-

kanai itzeguiten duenac. Beguirra, Cristaua, zaudc sendoro Eliz Ama Santa Erromacoac eracusten dizu- aaren sinistean. Ama au da eguiaren irozgarri, eta Coloma, eta ecin utseguin dezaquezu onec eracu- ten dizuna sinistean. Laugarrena, utseguin ditekue lenengo aguinte onen contra fedeco gauzaren bat, oartua zaudela, dudan ipintzen badezu.

Lenengo aguinte oni guc ongui eranzuteco gauza bearra da bigarren lecuan Jaunagan uste, edo espe- ranza izatea, Jesusen eriotza bitarteco dala; eta be- raren lagunzarequin aleguñia eguiten deguila bear dan damua sortzeco, eta confesatzeco, barcatuco diz- quigula gure becatuac, eta emango digula aguin- duc dautan betlico viciza: gañera emango digula Ce- ruraco bidean bear degun gucia. Uste edo esperan- za au da Cristauaren gurutzc, eta neque gucien go- zagaria. Onec Maririac aiatzen cituan onace izugar- rien artean, eta onec aimbeste gazte prestu ezcuta- raci ditu bacardadeetan eta parel-artean. Au da mun- ducotz itasao onetan animaren oncia gordetzen duan aingura. Cai onetan utseguin ditekue lenengo lecuan. *Acto esperanzacoac* eguin bear diranean, eguin ga- bez: eta guizon jaquintsun iritzia da sarritan e- guin bear dirala. Bigarrena, Jaunaren urricaltasun, edo Misericordiaz etitzzen bada, Cainen, eta Judasen ecran. Irugarren lecuan, esperanzaren contraco be- catua da Cernuaren ustea, hacoitzac bere aldetic vi- ciz onari jarraitzen ez diola: au da heregia bat, Lu- tetero eracusi zuana. Laugarrena, uste izatea, nola- nai, eta Jaunaren lagunza gabe irten ditekueala be- catuic: au ere heregia da. Bostgarrena, becatuan irautea, eriotzaco orduan vicitza ontzeco ustearequin. Seigarrena, bere naye becatuaren perill urcequin saritzea; esaten duala batec heregan: *Jobingo nats*, *baha uste del gordeco nauada Jaunac, edo Ama Virgi-*

viciac, eta illac juzgatzera? Nondic daukizu, ipiñi cituala Jesus maitagarriac zazpi iturri, edo Sacramentu graciaren ur gozoa beli ematen ari, eta bere agortizen ez diranac oen artean Confiteoco Sacramentua batayoa ezquero eguindaco becatuac barcatzeco, eta Comuniocoa gure animen janari, eta edarri izateco? Gauz oen berriric ez degu fedearen arguitandic baicic: eta oen ezagüerarequin igurrizten degu, au gucia guri ongui natez eguin duan Jauna nai, ta nai ez (esan oi dan bezala) beregan dala ontasun neurri, ta mugaric ez duana: eta era onetan amateza da lenengo arguiteac escalzen digun eran amateza, eta au sarritan eguin bear degu, onetaraco ipiñi da Acto fedecoac, esperanza, eta caridadezcoac eguiteco usanz ederra (b). Juana, ecin nere buruan sartu dira Acto fedecoac Elizan esaten diran eran. Atozea eztaquizu dotrina? Eztaquizu *Credoac*? Sarritan esazu bada, eta onela eguingo dituzu Acto fedecoac. Eztaquizu *Aita gurea*? Esazu sarritan, eta eguingo dituzu Acto esperanzacoac. Eztaquizu *Acto Contriciocoa*? Esazu maiz biotzetlic, eta onela eguingo dituzu *Acto Cardedezco, eta Contriciocoa*.

Atzanean lenengo aguite ongi erantzuteco, gauza bearra da Jauna onratzea, eta adoratzea gauza gucien asiera, eta iturburua bezala: eta era ascotara au eguiten degu, batzuetan itzez, beraren alabarzac cantlatzen, eta adirazten ditugula, besteetan gueren buruac, eta ondasunac esqueintzen diozcagula; bañi gauza gucien artean onragarriena da Meza Santa, esqueintzen zayo alabaña bere Seme bacarra, gucien berearequin berdina.

Jaunac nai du, bera ezecic, Virgüña chit Santa, Aingeru onac, eta Santuac ere onratzea, ez ordea Jaincoaren eran, baicic gure biartecoac, eta Jaincoaren adisqueideac bezala. Nai du gainera Jesusen,

*ñac becatlic*. Au da centzugabeco ustea; Jaunac alabaña laguntzen digu becatuaren bidecatic aldeguiteco; baña gueren naye aratzen baguera, ez digu bere laguntzaric emango, ez erortzeco, eta perilllean era onetan sartzea bera becatu da.

Lenengo aguite ongi erantzuteco gauza bearra, da irugarren lecuan Jauna biotz osoz amateza gauza gucien gañetic, ez nolanan, baicic beraren ontasun baztergabeari fedearen argiarequin beguiratariç. Ecin guc ezagutu dezaquero ontasun au beregan dan eran; baa nolerebat ezagutzen degu, eguin dituan, obra miragarrietatic. Obra oec batzuec dira guerenegun arguitasunarequin ezagutzen ditugunac. Ecusten dituzu Ceru eder orieç gau argui balean. Ecusten reco lorcaç, arbolac, arri ederrac, urre, eta cillarrac eta diozu ceregan: *gauz oec aia onac, eta ederrac ñandira, eer izango da oca Eguillea? Ceñ on, eta maitagarria!* Orra, nola cerez dezun arguitasunarequin igurrilizen dezun Jauna dala guciz on, eder, eta maitagarria, baña ezagüera onecquin Jaun bera amateza ez da asco lenengo Mandamentuari erantzuteco. Beste obra batzuec dira fedecac bacarric eracusten dizquingunac, eta oen bidez ezagutzen, eta amaten degula Jaunaren ontasun neurric, eta mugaric ez duana. Atozea, Cristaia, nondic daukizu, Ceruraco eguin cinduala Jaunac? Nondic Adanec galdu zuala esubide, edo derecha au gucia bere becatuarequin beretzat, eta guretzat? Nondic daukizu, coquer au zuentzeco guizon eguin zala Trinidadeco bigarren Persona Virgüña chit Santaren Sabelean. Espiritu Santuaren obratz, gurutzean eman zuala bere vicitz: irugarren egunean piztu, ta berrogeigarrenean Cerura igo zala, eta etorrico dala




Viñia chit Santaren, eta Santuen anz, edo imagi-  
ña: re onratzea, ez ceren gai onequin, edo are-  
quiu eguinac diran, baicic cerean Ceruan dagcana  
aditzera ematen digüen.

Mandamentu onen contra alde onetatic utseguiten  
da era ascotara. Lenengo lecuan, baldin Meza es-  
queintzen bazayo gurutzeari, imaginaren bati; Me-  
za alabaña Jaincoari bacarri esqueintzen zayo; eta  
imaginaren baten aurrean Meza esaten dancan ere,  
Jaincoari bacaric au esqueintzen zayo, ez imagina-  
ri berari: era berean aste, edo esperanza ex da  
ipintzen imaginan, baicic Jaungoicoagan. Bigarren  
lecuan gurutze, eta imaginac onratzen badira duen  
gayagadic, au da gauza debecatua. Irugarren lecuan,  
Mandamentu onen contra utseguiten da, baldin De-  
monioaren lagunaz baltiatzen baguera bide onez ecin  
jaquin dilzaquegun gauzac jaquiteco, edo gaitzen bat  
sendatzeco. Laugarren lecuan Mandamentu onen con-  
tra beccatu eguingo dezu Jaunaren eche, ta itzari,  
gurutzeari, eta imaginai gaitzen badiezu dagoten  
beguiramentu, edo errespetoa. Asco degu gaurco.

Orra, Cristaua, Jaunac bere lenengo Mandamen-  
tuan aguintzen diguna. Amatu bear degu gure Jaun  
Jaungoicoa, fedearen arguiarequin beraren Ontasun  
baztergabeari beguiratzen diogula. Amatu bear degu  
sarritan, eta amatu bear degu gucien gane-  
tic, esan nai det, añ biotz prestuarequin, non prest-  
egon bear degun edocñi neque, eta calle iroztozeco,  
Jaunaren onrac ala escatzen badu. Oitu gaitecen one-  
taraco fede, esperanza, ta caridadezeco afectioac e-  
guitera: aldegun dezagun beccatuenen bidetatic,  
onela iristeco belico viciliza doatsua. Amen.

(a) Queri hic solet, an precepta fidei, spei, et charita-  
tis pertineant ad primum Decalogi preceptum? Communis  
sententia tenet, precepta fidei, spei, et charitatis esse presam-  
bula ad Decalogum, et contineri in primo precepto, at ex-  
plicitate non pertinere ad illud. Vide Salmanicenseas, et ca-  
techismum Romanum.

(b) Queri etiam solet, quodnam sit motivum charitatis?  
Alij asserunt, quodlibet Attributum Divinum. Alij objectum  
formale, et motivum charitatis esse Deum ut nostrum sum-  
mus bonum, ac felicitatem. Hanc sententiam est Bolgenius, con-  
tra quem strenue pugnavit Herrers tractatu de Charitate. Ter-  
tia sententia communis cum S. Thoma docet, motivum cha-  
ritatis esse Deum in se summe bonum, vel summam Dei Bo-  
nitatem absolutam.



diteque dotrina; baña nola eracutisico du ez daqui-  
nac? Eta jaquin arren, eracusteco betaric, edo go-  
goric ez duanac? Gañera urte oro guertatzen da ne-  
que andi bat morroi berriaquin. Nagusi batzuec ez di-  
ra orcitzen morroi, eta nesameal dotrina gal detzeaz,  
eta nola icasico due, ezpadaque? Elizan, eta escolan  
ez due icásico, ceren etortzeco eraric ez duen gue-  
yeneac. Echean ere nequez icasico due, ceren edo era-  
cusleric ez duen, edo mendian demboraric gueyenaiga-  
rotzen duen. Bitatic bat gurasoac, edo ez artu morroi,  
edo nescameric, edo icaserazo bear diezue dotrina.

2. Beguira, icasi dezun, nola molda zaitzequean  
zure becatuen damu eguiazcoa sortzeco. Au ezlaquia-  
nac, cer egingu du, iltzeco perillac artzen badu ere-  
mu batean bacarric, edo eracusteric baguc? Onezco  
damu, edo conetricioa sortzeco, itzac bederic daquiz-  
quianac cerbait egin dezaque Jaunaren lagunzare-  
quin, baña cer egingu du itzac ere icasi ez dituanac?

3. Beguira sarritan egin dituzun Acto fedecoac?  
Dotrina ongui daquianac sarritan egingo ditu Acto  
fedecoac, oarcabeen ere; baba dotrinarie ezlaquia-  
nac ez du ecer egingo zuten. Au bera diot esperan-  
zaren gañean (a).

4. Beguira, fedeco gauzaren bat ucatu dezun, da-  
la bacarric zaudela, dala lagun artean, egin deza-  
gun contu : *es da Purgatorioic* : au da Luteroren  
heregia : *argui-olac alperric ecarten dira* : au ere  
heregia da: ceren fedeco gauza da, Mezarequin batean  
Jaunari batec bere doayac esquiteintzea obra ona eta  
laudagarria dala, eta ala egin izan da Elizaren le-  
nengo demoretatic, eta S. Carlos Borromeoc dio,  
gorde bear dala usanz eder au, eta utzi bada, alegui-  
ña egin bear dala bere oñera biurtu dedin. Gañera,  
baldin edocen beartsuri ur piscabat ematea obra ona  
bada, cer izango da Meza Santuan bacoitzac bere doai-

---



---

## IRUGARREN ITZALDI, EDO PLATICA.

*Uquitz-en d'ora tenengo aguinte, edo Mandamentuaren  
contraco becatuac.*

ALABATUA &

*Ciama* &

OTSEGUIZU &

**A**nelaraco azqueneco aldian itz egin nizuen Jauna-  
ren legruco lonengo aguintearen gañean. Gaur uqui-  
lucico ditut aguinte onen contra erraz guertlatu ditez-  
quean utseguiteac. Enzun arretarequin.

4. Beguira, dotrina icasteco, eta eracusten dituan  
gauzac ongui adiltzeco, sayatu ote ceran? Baña nola  
sayatuco cinan Jaunaren itzagandic iguesti ibilli bace-  
ra? Emen itz bat gurasoai. Gurasoac, eguizue alegui-  
ña, umeac escolara bidaltzeco, ongui icasi deceen do-  
trina; bestela ceroc, eta umeac vicico cerate, ceren  
animaç betico galtzeco, perill andian: eta ez esan,  
ecin bidalduco dituzuela, ceren Elizatic urrutu vici co-  
raten; urrutian, eta aldean vici diranac alabeña gu-  
ciac daude beartuac, Ceruraco jaquin bear diran gau-  
zac icastera, eta au egulteco bideric erracena da aur-  
rac escolara bidaltzea. Jauna, echean ere eracutsi

choac Jaunari esquitezta? Ez duanac cer esqueñi, esqueñi begitio bere biotza. Jauna, orrelaco gauceñ, gauceñ ez due cer esaten guc-enzun ditugun Pre-dicariac. Enzun esatera noana: nic ez det cer sartu bestequin, baicic nere eguin-bidea da heregia ecar-ri dezaqueen crausiac ez utzitzea dagoten ateleca eman gabe. Goacen aurrera: fedeco gauzaren bat era onetan ucatzen duana guerutzen da exomicu nagusiaren azpian, eta barcacioa iristeco salatu bea-rcu du bere burua Obispo Jaunaren aurrean, eta arc-arguintzen dioga eguin bearco du: eta Inquisicioa jaritzen bada bere onean, Confesoreac esango ditu cer eguin bear dezun.

ceren Jaungoicoac prestatzen dion: bacoitzari here estada, batari ezcontza, bestoari beste modu bat. Gai onetan umeari dagozana da garai onean gurasoari adiraztea, cer estadu artu nai duan; eta estadu au ezconditena bada, ez du ezcontzeco itzic eman bear gurasoen baimena gabe. Atzenean morroi, ta nescameac ere ez daude beartuac berai dagozten gauzac eguitera baitci.



Orra, Cristaupa, cer aguintzen dien laugarren mandamentuac ume, ta mirabeai; eta gai onetan gurtzen diran becatuac uquituco dira urrengo itzaldian. Ea gaztea, onra itzatu zure gurasoac, dio Jaunac; onra itzatu, luzaro vici zaitecen zure Jaun Jaungoicoac emango dizun lurrean, eta guero beatico vicitza doatsuan. Amen.



(4) Vide Ligorium.

GURE BECATUAC QUENTZEN DITUAN,  
 BILDOTS JESUS MAITAGARRIA PASCOETAN  
 ONGUI ARTZEKO

## ERACUSALDIAC

### IRU ZATI, EDO PARTEAN.

LENGOAN IPĪNI DIRA, LENVICICO COMUNORACO PRESTA-  
 TZEN DAUDEN, AURRENTZACOAC (a) BIGARRENEAN IPĪ-  
 ÑICO DIRA, LENVICICO COMUNIDA EGUIN ZUEN GAZ-  
 TEERTZACOAC. IRUGARRENEAN ITZEQUINGO DA,  
 ADINEAN AURRERATUAC DAUDEN CRISTAUAGUIN.

### BIGARREN ZATI, EDO PARTEA.

*Adolescens juxta viam suam, etiam cum senaverit, non  
 recedet ab ea, Prov. 22.*

— 250 —

ra eman dira aguinte bacoitzean Jaunac debecatzen,  
 eta aguintzen diruigun gauzac. Oec gorde bear di-  
 tugu gucioc betico vicitza iritzi nai badegu. Andiac,  
 eta-chiquiac, aberatsac, eta beartsuac, ez due zori  
 ona iristeco beste bidoric. Ala esan cigun Eliz Ama  
 Santac balayoco eganean: *Si vis ad vitam ingredi  
 serva mandata*. Au onela izan, eta alacre Adanen u-  
 imeac vici dira ecusten dan eran? Beguira ezperen  
 a diñ eta malla gucielara, cer ecusico dezu? Ay! e-  
 cusico dezu, guchi dirala Jesusen legue eder-gar-  
 biaz lotsatzen ez diranac. Aitù dira Cristauac, eta  
 amar aguinteen bidetic ibilli nai duenac. Balzuec  
 atsegin lotsagarrien locatzetatic itren nai ez due,  
 eta besteac emengo izan, edo ondasunen ondoren  
 erquilturic dabilza, eta ez dira lotsatzen besteren-  
 ri atzaparra egotzitzeaz. Balzuec erriz erri dabilza  
 guerrarien ondoren, esanmesa andiac ipintzen di-  
 rala, besteac....Baña utzi ditzacun gauz oec. Biur gai-  
 tecten, nere Cristanac, gure Aita onagana: besoac  
 zabalduric dago, seme ondatzalica artu zuan eran  
 artzeco: Nigana biotz osoz biurtzen ceraten unean  
 bertan aztuco naiz, dio, zuen esquergabequeri gu-  
 ciaz. Goacen bada beragana, gorde ditzacun bera-  
 ren aguinteac, eta emango digu, beti-beti iraungo  
 duan vicitza. Amen.



(a) El autor llama primera parte al libro que dió á luz el año de 1803 con el título de *Confesioes eta Comandoes Sa- cramentales* ganacien Eracusaldiac lenvicico Comunionaca pres- tatu bear diran aurrentzat, eta bidez Cristau acienzat ere bai.

## GAZTEENTZACO ERACUSALDIAC ASITZECO

## ITZAURREA.

*Pazcoa loratutic urrongo igandean.*

**B**eti gaitzerontz macurtuac izan dira, eta dira Adamen umeac, eta beti munduan guertatu dira asco becatu; baña gaurco egunean, dirudianez, gañez e- guindu grizlaqueriac guerraren aitzakian; ez da ala- baña erlotzen, lapurreta, eta ibillera lotsegarrien ota besteric adiltzen, eta esan ditque Jeremiasequin: gallez galdua dago mundua, eta ez da alacere bere- gana biurtu; eta Ceruraco bidea artu nai duanic: *Desolatione desolata est omnis terra, et nullus est qui recogitet corde* (c. 12). Cer eguin aldezaquet, aro, edo sasoi añ charrean arquitzen badira Cristauric gueyenac? Nere asmoa da, benichen becatuaren bi- dectan itsulturic, eta oatnac bezala daudea zarrai guchi itzeguitea, eta Jaunari erregutzea, argui-dit- zala, ecusi deceen beren betico galteraren perill izu- garria. Urrena leneco urteetan bezala, lenvico co- muntia eguin bear duen, aurrai Ceruraco bidea alic onguiena eracustea. Atseguin andiarequin ecusi det, aurrac; iracartzen ez daquienac ere, icasi cueta le- nengo Partean ipini dedan gucia, eta ederqui pres- tatu dirala lenvico comunioraco: eta oraindaho Onetaraco letraz ezarriac ipini dira lengo Partean aurrentzaco Eracusaldiac. Irugarren lecan Avendu- rño jardun uste det igandectan, lenvico comu- 50

nioa nerequin eguin zuen, gaztequin; ceren uzien bazate beren erara, aztuko zate len icasia: esnatu-co zaitze gaizeraco gura charrac, eta erraz gail-zoronz colacatuco dira. Onela lenivico Comunioare-quin ipini zan mintegui ederra becatuen sasiz, eta aranzaz beteco da, eta landarenic guyenac oquerrac iritengo dira. Avenduratio Eracusaldiac izango di-ra lenivico Comunioraco eracutisi citizaizien gauen gañean, baña ugarituco dira batzuetan, ceren gaz-teen adinari ala dagocan. Avenduaren ondoren e-tingu da Bederatziurren bat Virginia chit Santa gure becatuac gatic naigabez betearen onran. Bederatzi-urren onetan eguingo degu gure becatuen exami-na, eta ondoren fedearen argiarequin gogora ecar-rico degu gure becatuen damua sortzeco bide ego-quiren bat. Onela ederqui presta ditezque gazteac confesio onac eguiteco, eta Ceruraco bideari go-gotic equiteco. Ea gazteac, atozte Jaunaren Itza en-zutera biotz umill, eta mansoarequin, eta Jaun be-rac naroro isbrico ditu zuen biotzetan bere onca-sun, eta bendicioac. Amen.

#### LENENGO ERACUSALDIA.

##### *Goiceo jayeraren ganean.*

Comunioraco eracutisi citzatzun zuri, gaz-toa, goiceco jayera, edo devocioa, baña ez dezu iguerri bearrada, ceñi ederra, eta balio andicoa dan: emen-dic erraz guerta citequean, zabartzea zu, edo nola-nai utliztea jayera au. Au guerta ez daukizun emen-dic aurrera, aditzera gaur eman nai dizut, nolaco

jayera dan au, eta cer ondasunac ecarti dizaqucan. Enzun, gaztea arretaz.

Nolacoa dan goiceco jayera ezagutzeco, asco dezu gaztea, beguiratzea astiz, edo belaro, cer eguiten dezun jayera onetan. Lenengo lecuan eguiten dezuna da *Jayra adoratzea*. Gure Juan, eta Jaungoicoa da gure, eta gauza gucien astera, eta iturburua, eta be-re nai utsez gordetzen digu eman cigun izatea. Bere-ren Lelart, Providencia, edo nai onetatic cincili-ta bezala gaudé. Orregatic ezguiera onequin adora-tu bear degu. Ala aguintzen ere digu bere lenengo Aguinte, edo Mandamentuan. *Dominum Deum tuum adorabis, et illi soli serves*

Goiceco jayeran eguiten dezun, bigarren gauza da, Jaunari, eguin dizquigan, ontarte, edo mesede gucien esuerrac ematea. Mesedea artzen duanac zor diozea guchienez bere onguilleari esuerrac, eta go-guan idiqui bear du eguin dion mesedea. Ongui; eta izanic guc degun gucia, Jaunaren escu Onguilleac emana nolaco esuerrac ez diozcagu zor? Orregatic esaten digu S. Pauloc: Izan zaitzete esquer onecoac: *Grati es'tote* (1.<sup>a</sup> ad Thesalo. 5). Guciaren esquerrac eman guiozcatze Jaunari. *Gratias agite in omnibus* (ibidem).

Goiceco jayeran eguiten dan irugarren gauza da Jaunari esqueinizea egun gucico Itz, pensamentu, eta lanac, eta oec ongui eguiteco lagunza, eta gra-cia berari esatzea. Elzerate cerenac, baicitc Jesu-Cristorenac, esaten digu S. Pauloc: *Non estis vestri*. Jesu-Cristorenac, ceren Jaungoicoa dan bezambat ecerezetic eguin ginduuan. Jesu-Cristorenac gañera ceren Jaungoico-guizona danez bere odolaren costuz erosi, eta Ceruraco bidean ipini ginduuan. Ongui-eta Jesu-Cristorenac baguera alde gucietara, noren-iztat izat bear due gure Itz, pensamentu, eta obrac?


**VIRGINIA CHIT SANTA**

GURE BECATUACGATIC NAIGABEZ BETEARI

**BEDERATZIURENA**

CONFESIO ONAREN PRESTAERA GAZTEAI ERAGUITECO.

*Scrutemur vias nostras, et quæramus, et revertamur ad Dominum. Jerem. 2.º*



**G**azteac : herriro aditzera eman dizquitzet, le-  
 nengo Comunionaco eracutsi citzaizquitzen gauzac.  
 Uste det, eracusaldi ocquin arguiro ecusi duela zue-  
 tatic batzuec, nola Confesio gaiztoac eguin dituen,  
 edo vicitza ontzeco asmo osoa sortu gabez, edo ce-  
 ren ascotan lotsaz confesatu gabe utzi dituen becatu-  
 ren batzuec. Uste det ganera, gazteac ezecic cem-  
 bait zarrec ere ezagutu duela, era ascotara confe-  
 sio gaiztoac eguin dituela, eta confesio on bat egui-  
 teco prestatu bearrean daudela. Prestaera au ongui  
 eguin deceen gazteac, eta ocquin batean zarrac,  
 eguingo degu, asteratic esan nuan bezala, Virginia,  
 chit Santa Doloretacoaren onran Bederatziurren bat;  
 eta asico da onelaco egun, eta demboran.

## IRACURLEARI

*Bederatziurren au equin izan del urte balzuetan garizumaco arratsaldeetan guis-onetan.*

1. Ipintzen zan Virgüña chit Santa Dolorreetacoa Aldare nagusian.
2. Bederatziurrenera etortzeco jayera zueñac ugari ecarri oi cituen candelac; eracequizen ciran bederaziurrena asizean, eta bucatzen zanean, egun oro arizen zuan bacoitzac bere candela.
3. Platica bucatzean Arzaya, edo beste Apaicen bat jartzen zan Aldare-aurrean *Sobrepeltiz*, *estola*, *eta caparequin*.
4. Corutic cantatzen zan *Miserere*.
5. Au bucatzen zanean, Aldareaurreco Apaizac esaten zuan: *Ora pro nobis Virgo dolorosissima: Coruac: Ut digni efficiamur promissionibus Chiti: Apaizac Oremus: Deus in cuius Passione &*

Era onetan ederqui irteten zan *Bederatziurren* au, eta beti ongui irtengo lizaque Donostian, Hernanin, Tolosan, eta edoceri erri andietan, ceren erriarrac erraz joan ditezquean Elitzara, naiz goicean, naiz arratsaldean, egun jarraituetan; baña ez da onelaco eracic erri chiquietan, eta Elizatic urrutli echeac dituen actan. Orregatic aurtien asmoa arin del eguitico Bederatziurren au igandeetan Meza nagusian bertan, asitzen nat zala garizuma baño len.

## BEDERATZIURREN ONEN LENENGO EGUNERACO

ITZALDI, EDO PLATICA.

*Scrutemur vias nostras: et queramus, et revertamur ad Dominum. Trenor 3.º*

**V**irgüña chit Santa, gugatic neque, eta naigabez belea! Zu cera vicitza ondu nai duen becatari guicien hitarteco, eta Ama gozoa. Nai ohequin zugana nator gaur, eta esquetnizen dizut Bederatziurren auzure neque, eta naigabeen icenean. Nic escatzen dizudan ontarte, eta mesede dá, iritsi deguidazula zure Seme Jaunagandic, confesio on bat eguitico, aurrera becatutic aldeguitico, eta nere egunac ongui bucatzeco gracia. O Ama guciz beraa! Zu cera nere vicitza: zu nere atseguin-contentua, eta esperanza. Ez arren ucatu, gaur escatzen dizudan mesede au, ez arren Ama maitagarria.

Aspaldi da, nere Cristaua, bederaziurren onen uste, edo esperanzac eman nizquitza, guisa onetan ongui presta cindeen confesio on bat eguitico. Noizbait etorri da lan oni eguitico dembora egoquia, Virgüña chit Santaren lagunzarequin, eta gaur degu asiera.



gaiztoen, eta lenengo Mandamentuaren contraco becatuen gañean. Oec ongui esagutzeco, escatu deguogun Espiritu Santuari bere laguntza esaten diogula.

*Atoz, ó Espiritu Santua, atoz beartsuen gurasa, atoz doayen emallea: argui ezazu nere adimentua, nic nere utseguiteac esagutzeco: mugut ezazu, nere biotza, oen ganean damutzeco eta aurrera becatutic, eta becatuaren bideatitc aldegitico, eta confesatzeco.*

1. Beguira orain, Cristaia, combat urte dituzun?
2. Beguira, combat urte cinduan, lennego Confesioa eguin cenduanean, eta combat lenvicio Comunioa eguitean?
3. Beguira urtean beñ, edo combat bider confesatzen cinan lenvicio Comunioraño?
4. Beguira lenvicio Comunioa eguin cenduanecoric oraindano, urtean combat bider guchi gora bera confesatu, eta comulgatu ceran?
5. Beguira confesto gaiztoac eguin dituzun, eta noizdanic? Au guertatu oi da ascotan vicitza ontzeco asmo osoa sortugabez, edo becatuaco bide edo perill andiac utzigabez; eta ez guchitan lotsaz confesatugabe uzten dirala becatu larriren batzuec.
6. Beguira, arreizquero urtean combat bider confesatu, eta comulgatu ceran? Eta confesatzen cinduan, ezagutzen cenduan, gaizqui confesatzen cindala?
7. Beguira, emandaco penitenciac, eguin bagne uzten cinduan? Combat bider, eta cer penitenciac cinduan oeci?
8. Beguira lenengo Aguinte, edo Mandamentuan, doirina icasteco ongui sayatu ceran, eta Jaincoaren liza entziteco ardurá oncooa izan ceran?
9. Beguira, Acto fede, esperanza, eta caridadezcoac sarritan eguin dituzun?

Bi gauza escatzen ditu confesio onaren pretaerac: bata gure becatuen examina, edo gogora ecaritzea, eta au eguin ditque edo azqueneco confesioitc, edo confesio gaiztoac asi ciran demboratic, eta gai onen ganean luzaro itzeguin det. Bigarrena da, gure becatuquin galdu degun Jauna billatzea, eta beragana gure biotzac biurtzea, eguindaco becatuen damuarequin, eta aurrera becatuic ez eguitico asmo osoarequin; baña ez dira gure biotzac Jaunagana bear dan eran biurtzen, fedearen arguiarequin gogora ecarizen expadira damubide egoquiren batzuec, len betaro aditzera eman dedan bezala. Bi gauz oec itz guchian adiraci cituan Jeremiasec, esan zuanean: Beguira deguiegun gure bide, eta ibillerai: *Scrutemur vias nostras*: eta billa dezagun gure Jauna, eta biur gaitceen beragana. *Et queramus, et revertamur ad Dominum*. Asteraco itz oec gueyencac beste itzaldi edo Platiquetan ere ipiñico dira, ceren arguitasun andia ematen duen ezagutzeco, cer eguin nai dan Bederatziurren onetan. *Au eguitea izango da Bederatziurren onetaco gure lan andia*. Gaurco examina izango da Confesio, eta Comunio gaiztoen, eta lenengo Mandamentuaren contraco becatuon ganean. Urrena fedearen arguiarequin beguirtuco degu: *Norc, eta ceñ eguiteco, edo fin andiraco eguin gaituan*: Bigarrena: *ceñ gauza bearra dan eguiteco oni cinez, edo venaz jarraitzea*. Emendic erraz ateraco degu gure utseguite, eta esquerqabequerien ezagiera, eta oen damua sortzeco bidea. Asi gaitceen bertatic.

## § I.

Beguira deguiegun gure bide, eta ibillerai, esaten digu Jereiasiec: *Scrutemur vias nostras*: au da examina eguitea, eta gaurco da Confesio, eta Comunio

Asco dira galde oec gazteenizaco. Zarrentzat gueryago ipini litezque; baña premian daudenac, beude Confesorearequin, eta onec eracutsico die bear dan gucia. Dacusun oraiñ, *Norc, eta ceñ eguiteco, edo fin andiraco eguin gaituan: eta ceñ gauza bearra dan eguiteco oni cñez, edo venaz jarrailzea.*

## § II.

Beguiraturic Ceru eder oriei, eguzquiari, illarguiari, izarrari, lurrari, eta emengo gauza guciai, galdetzen du Isayas Profetac: norc eguin ditu gauz oec? *Quis creavit hæc?* (c. 40). Fedecac eracusten digu, Jaunac eguinac dirala gauz oec guciac munduaren asteratic: eta fedecac eracutsico ezpalu ere, gauzac berac. Davidec dionez, nolerebait deadar eguiten due: Jaunac eguin gaitu, ez gueroc gueren buruac: *Ipsæ fecit nos, et non ipsi nos* (Psalm. 98). Eta gañeraco gauza guciac Jaunac<sup>o</sup> eguin bacituan, norc eguiñac izango guera gu? Fedecac eracusten digu, Jaunac eguin zuala lenvicio guizona, eta berac eguinac dirala aren ondorengo guciac ere (Genes. 4, et Act. 17). Guizon a eguin bano len prestatu cituan berarentzat, eraz vicitzeo bear cituan gauza guciac. Eguin zuan munduco eche eder galant au, eta ornitu zuan, guizonac bear dituan gauza guciac. Eguin zuan Paradisuco vergera ederra, non nequeric gabe vici cituetequen eraz bete. Eguin zuan gañera Paradisuco arbolen artean bat, *vicitzarena* Escriptura Santac deitzen diona. Arbola onen frutarequin vici citequencan guizona eritasun, zaritze, eta eriotzaren beldur gabe. ¿Cer gucyago? Emengo egunac betetzen cituaneco, eguin zuan Jaunac guizonarentzat Ceruco erri ori, eta ará eramango zuan eriotzaren alzaparretan erori gabe.

Baña, ¿certiaco eguin ote zuan Jaunac guizona? ¿Certiaco eguinac guera gu? ¿Eguin ote zuan guizona, emengo onra, eta goimallen ondoren vicitzeo? Ez, onra billa gabe zan mundu gucico Jaun, eta Erregue. ¿Eguin ote zuan emengo izan, edo ondasunen ondoren gau, ta egun erquiruric vicitzeo? Ez; eta onetaraco eguin lecuac, lenago prescota cituan, guizonac bearco cituan gauzac, eta eguin zuen gucienc jabe, dio Davidec: *Et constituiti eum super opera manuum tuarum* (psalm. 8). Guertateque guizona, becatuan erori zan ezquero, arquiteza premiaren batean; baña ori izango da, ceren bere aldetic eguin bear zuana eguin ez duan; edo ceren neque au gabe galduco luquean Ceruraco bidea. Au eracusten digu Jesu-Cristoc, dionean: Ez quezquetan ibili jan-edaneraco, eta jancitzeo bear dezenaren ganean:  *Nolite solliciti esse*. Beguiraterean dabilizan egaztai: ez due creiten ecer, ez eta biltzen ere aleteguira, eta alaere zuen Aita Cerucoac bazcatzen ditu, edo ematen die bear duen adina janari. Beguirac campoetan jayotzen diran lili, edo lirioai: ez dira necatzen soñeraco bear duenaren billa, eta ez due onetaraco ardatzean eguiten. Alaere elizan oec beceñ ederqui apaindu Salomon bera ere, cituan jaquinde, eta ondasun guciaquin. ¿Eta gaur bat, eta bigar ez dan, edo sartara botatzen dan belarra onela apalaten badu Jaunac, ¿cemen batez obeto zuec bear deuzen guciac oroituco da? Ez bada quezquetan ibilli, esaten dezueta, cer jan, eta cer edango degu, eta cerequin estalico guera? Galde oec eguiten ditue federic ez duenac. Badaqui zuen Aita Cerucoac gauz oen bear ceratela. Billaeazue lenengo lecuac Ceruco Erreñua, edo betico vicitza, eta emango zatze bear deuzen gucia: *Hæc omnia adjicientur vobis* (Math. 6.º et Luc. 12). Et-

la irabaztea betico viciliza. Beraz gauza bearra da, nere Cristauna, eguiteco oni venaz jarraitzea. Au aditza ermaten dign Jesu-Cristoc dionean : zori onecoac *justitaren* gose, eta egarri diranac, edo berea dana, Jaunaren Leguea ongui baño obeto gorde nai duenac. *Beati, qui esuriant, et sitiant justitiam.* Eguiteco onetan ongui jardutean dago gure zori ona, eta guchi esan nai du gañeracoetan oquer irteleac. Lazaro beartsua egon oi zan aberatsaren atecian goseac igaroa, eta zauriz beteac: alacere zori onecoa izan zan, ceren venaz amatez, eta servitzen zuan Jauna. Il zuan, eta Jaunac eraman zuan betico atseguin contentuen artera. Bana beste gauza guciac guc nai degun bezala irtingo balira ere, utsa, edo ecezez lizaque au, baldin animaren eguitecoan venaz ari nai ezpadegru. Demagun, iristen dituzula munduac eman ditzaquean onra guciac, izan, edo ondasunac: baita zure beguiac, belarriac, esceac, eta gorputzac escatzen dituen atseguin guciac ere : ¿ cer prochu izango dezun galtzen badezuz zure anima, esaten dizuz Jesu-Cristoc? *Quid prodest homini, si mundum universum lucratur, animæ vero suæ detrimentum patiatur?* (Math. 16).

Eguia au chit arguitu ecusten degu Salomonegan, Erregue jaquintsu au asi zan zabartzen Jaunaren legueac aguintzen ciozcan gautetan, eta bere zori ona arguitu nai izan zuan emengo atseguin contentuetan. Cogoac eman cion eguzquiaren azpian dauden gauza guciac ezagutzea : eta neque andien ondoren esan zuan : utsa, edo ecer etzala au gucia. Asi zan jauregipintzen : eta ecusi zuan, gauz oec len becen ipintzen uzten znela biotza. Asi zan aberatstasunac biltzen, eta aimbeste bildu cituan, non aren demoran citillarra ecertan elzequegan Jerusalemendarrac, baña ondasunetan elzuan quezcac besteric arquitu. Eracarri

zuan beraz Jaunac eguin guizona, emengo izan, edo ondasunen ondoren bere burua aunnatzeco, eta deseguiteco. ¿ Eguin ote zuan aragiariaren atseguin lot-sagarrietan bere egunac igarotzeo? Are guchiago: ez dira onelacoac Ceruan sartuco, dio S. Pabloc (Ad Ephes. 3): eta becatu onegatic Mundu gucia es-tali zuen ujaldeac; biñaldu cituan Jaunac, eta Noe, ta bere ehecoac ez ganeraco guizon, eta emacume guciac bucatu cituan.

Certaco eguin ote zuan bada Jaunac guizona? Eguin zuan bera ezagutzeo, amatzeo, servitzeo, eta beticolasun gucian Jaup berarequin Geruñ vicitzeo. Au da eguia bat gure siniste, edo fedecac eracusten, eta guciqç sinisten deguna. Eguia bat, gure emengo gurutze, eta sampitastunac arintzen, eta gozatzen dituana. Eguia onec alaitu cituan ecin con-tia al Martiri Jesu-Cristogatic aimbeste oñace, eta erlotza igarotzeo. Eguia onec igueseraguin cien mundu galdu onen perillelatic aimbeste gazteri. Oe-latic asco vicitu citan eremuelan, eta arcaitzen zu-loetan ezcutaturic, belarren sustrayac baicic jaten etzuela: beste asco gorde citan paretarteetan, utzi-ric munduac esquetintzen cietzen onrac, era, eta on-ric dasunac. Beraz, nere Cristauna, gure eguiteco, eta fin andia da ezagutzea, amatzea, servitzea gure Jauna, eta irabaztea guisa onetan betico zori ona, eta vicit-za doatsua. Au da gure eguiteco bacarra, eta gañe-racoac, andienac ere, arren arazoac bezala dira. Baña goacen aurrera, eta dacuscun, ceñ gauza bea-rra dan gure eguiteco andi oni venaz jarraitzea.

§ III.

Gure eguiteco andia, esan dan bezala, da gure Aita Geruñcoa ezagutzea, amatzea, servitzea, eta onco-

cituan bere jaureguira soñulari, eta cantariac ugari, eta oequin ere guertatu citzayon beste gauzaquin guertatua. Alzenean gogoac eman cion atseguin lot-sagarrien gurari escatzen zuan gucia ematea. Inguru-co Erregueen alabac, eta gañera beste asco aru cituan emaztetzat, eta oen artean ez guchi idoloac adorauz cituenac. Era onetan izan cituan Salomonec, guraz zuan bezala, mundu onetaco onrac, izanac, eta atseguin-mota guciac. *¿*Norc izango, eta daslatuco ditu nic adina atseguin, dio berac: *Quis delictijs affluet ut ego?* *¿*Eta cer prochu alera zuan, baldin galdu bazuan bere anima? Eztaquign eguiaz biurtu zan, edo ez Jaunagana: guc daquigna da, berac esan zuala: *Ut saren ulta, eta ecer ez dirala munduco gauzac: Vanitas vanitatum, et omnia vanitas* (Eccles. c. 1. et 12, et 3 Reg. c. 11).

*¿*Aditzen dezu, Cristauna, ceñ gauza bearra dan gure animaren eguilecoari citez, edo venaz jarraitzea? Eguiteco au da gure Aita ona ezagulzea, amaltea, servitzea, eta onela irabaztea betico zori ona, eta vicitza doatsua. *¿*Eta alaere vicitu guera eguileco onez aztuac? *¿*Vicitu guera, certaco eguin guinduan gure Aita Cerucoac beguiratu gabe? *¿*Non da gure siniste, edo fede? *¿*Non gure cenzea? *¿*Ez ote guera gure Aita onagana biuriuco? Aita au da añ Ona, eta maitagarria, eta aimbesteranocoa beraren edertasuna, non bera ecuste ultsa asco dan Aingueru, eta anima on guciac betico doatsu eguileco. Cer gueyago? Doatsuc Jauna ecustean duen atseguin-contentuaren chingar bat, asco lizaque, S. Agustinec dionez, infernuan dauden gucien onace, eta samilasunac arinizeco, eta gozatzeco. *¿*Eta on-tasun, eta edertasun baztergabe ura amatzeco, eta servitzeco, ez ote guera orain lederic esnatuco? *¿*Ea, Cristauna, gaurdanic asi gaitteen gure Ait ona

servitzen, eta amatzen, onela inisteco betico vicitza. Amen.

## BEDERATZURREN ONEN BIGARREN EGUNERACO

ITZALDI, EDO PLATICA.

*Scrutemur vias nostras &.*

*Virgña chit Santa & Lendavicico Platica bezala.*

**B**ederatzurren au asi degu, nere Cristauna, Confesio onaren prestaera ongui eguileco. Bi gauza escatzen ditu presiaera onec; bata da gure becatuen examina, edo gogora ecaritza, eta au eguin ditekue, edo azqueneco confesiotic, edo confesio gaiztoac asitiran demboratic, eta gai onen gañean luzaro itzequin det lep. Bigarrena da, gure becatuquin galdudegun, Jauna billatzea, eta beragana gure biotzac biurtzea, eguindaco becatuen damuarequin, eta aurera becaturie ez eguileco asmo osoarequin; baña ez dira gure biotzac Jaunagana, bear dan eran biurtzen, fedarean arguiarequin gogora ecartzen ezpadi-damubide egoquiren batzuec. Bi gauz oec itz gu-chiua adiraci cituan Jeremiasec, esan zuanean: *Beguira deguign gure bide, eta ibillerai: Scrutemur vias nostras*: eta billa dezagun gure Jauna, eta biur gaitteen beragana: *Et. queramus, et revertamur ad*

— 408 —

*Dominum*. Onetaraco lenengo egunean- examina e-  
guin guenduan Confesio, eta Comunio gaiztoen, eta  
Jaunaren Legueco lenengo Aguinte, edo Mandamen-  
tuaren contraco becatuen gañean: eta ondoren fedea-  
ren argiariquin begiratu guenduan, *Norc*, eta *ceñ*  
*eguiteco*, edo *sin andiraco eguin gaituan*: eta ceñ gau-  
za bearra dan *eguiteco* oni cinez, edo venaz jarrail-  
zea. Gaurco examina izango da Jaunaren legueco bi-  
garren Mandamentuaren contraco becatuen gañean.  
Urrrena begiratuco dego: *Nola eguin*, eta *nolaco doa-*  
*yaquin orritu*, eta *apañidu zuan Jaunac guizona*. *Bi-*  
*garrena: cer guertatu zan*. Emendic erraz ezagutuco  
degu, ceñ gauza gaiztoa dan guc gure Jaunaren con-  
tra becatu eguitea, eta atera dezaquegu gure beca-  
tuen damua sortizeco bidea. Asi gaittecen bertatic.

## § I.

Beguiru deguiegun gure bide, eta ibillerai, esaten  
digu Jeremia: *ec: Scrutemur vias nostras*: au da exa-  
mina eguitea, eta gaurcoa da Jaunaren Legueco bi-  
garren Mandamentuaren contraco becatuen gañean.  
Oce ongui ezagutuzeco, escatu deguiegun Espiritu  
Santuari bere legunza esaten dioguita.

Aloz, ó Espiritu Santua, aloz bearsuen gurasoa,  
atoz doayen emallea: argui ezazu nere adimentua,  
nic nere ulseguiteac ezaguteco: mugit ezazu nere  
biotza, oen gañean damuteco; eta aurrera becatutic,  
eta becatuaren bideatatic, aldeguiteco, eta confesat-  
zeco. Zoaz orain, Cristiaua, Jaunaren legueco bigar-  
ren Mandamentura.

4. Beguiru Jaungoicoaren, Virgíña chit Santaren,  
edo Santuen onraren contraco itzen batzuec esan  
dituzun? edo Santuen contra isecaren batzuec eguin  
dituzun? Becatu au da blasfemia esaten dioguna. S.

— 409 —

Gregorioc dio, host urteco muticho bat esaiyac era-  
man zuala betico su, eta garren artera, ceren *blas-*  
*femia* esaten icasi zuan, eta ez omen cituan host  
urte baicic. Jaunari esquerrac ez da euscaldunen ar-  
tean esaten *blasfemia* dan itziç; baña ascotan guer-  
tean esaten *Jaungoicoaren*, eta *Jesusen* icen Santua be-  
ta ditekue *Jaungoicoaren*, aitzatea, eta ez da orrela-  
guiramentu guchirequin aitzatea, eta ez da orrela-  
co oitura charric artu bear: bada Jaunac esaten di-  
gu: Ez dezu autan artuco alperric zure Jaungoicoa-  
ren icen Santua: *Non assumes nomen Dei tui in vanum*.

2. Beguiru, Confesio gaiztoac berritu nai dituzun  
demбора artatic oraindano, Juramenturic eguin ote  
dezun guezurraren, edo ongui ez dauzizun gauzaren  
gañean? combat bider?

3. Beguiru, izan ote dezun juramentuac sarritan  
eguiteco oitura, eguiaren gañean eguiten dituzula  
aitzaquiatzat arturic? Oitura au chit ilusua, eta be-  
catu ascoren sustraya da, eta ayenatu bear da Cris-  
tauen echeatatic. *Juramentua sarritan eguiten duana*  
*beteco da becatuz*, eta *ez da aren echehe irtengo neque*,  
*eta neigabea*, dio *Espiritu Santuac*. Ez da sinisteco  
gauza, sarritan juramentuac eguiten dituanac egui-  
ren gañean eguiten dituala. Orregatic beartua dago,  
oitura au utzizera.

4. Beguiru, izan ote dezun oitura juramentu di-  
ran izac esateco beguiratugabe, eguiaren, edo gue-  
zuraren gañean esaten dituzun: eguin dezagun con-  
tut: *Ala Jaincoac saba nazala: emendic mugui ez na-*  
*dilla, Deabrucac naramala, au onela espada*. Oitu-  
ra au duana becatu larri, edo mortalean vici da  
guyenac dioenez, eta uzteco neurri egoquiac artu  
nai expaditu, ecin Sacramenturic artu dezaque.

5. Beguiru, esan ote dezun: *nere animan au*, edo  
*ura onela da? Combat bider?* Oitura, edo usanza  
charra da au, eta guizon jaquintsu ascoren irkitian

uramentu, eta utzi bear da (Vide Suarezium, ac Sal-manticenses).

6. Beguira, esan ote dezun *nerre conciençian au onela, edo ala da*. Gueyenac eracusten due ez dala esatera au juramentu, eta ez da aintzacolzat esan bear, baña onena da ez arizea oitura au. Esatea *nola naizan Cristauna, nola naizan Pedro, edo Maria, nola emen ecusten nazun, edo emen nagoan*, ez da juramentu. Diot au, ceren ascotan gazteac juramentutzat arizen dituen ala ez diranac.

7. Beguira, birarequin nastutzen dan juramenturic guezurraren gañean eguin dezun: eguin dezagun contu: *Deabruac naramala, emendic magui ez nadilla, onda nadilla, au onela espada*. Cernbat bider eguiaren, eta cernbat bider guezurraren gañean?

8. Beguira, birauric eguin diozun lagun urcoari? Cernbat biderbiotetic, eta cernbat bider bestela? Biraua da esatea itzen batzuec, adirazten dala, lagun urcoari opa diogula gaitzen bat, eguin dezagun contu: *iloco al aiz: deabruac eramango al xaitu: arrayo gaiztoc puscatuco al xaitu*. Oitura chit itsusia da au, eta utzi nai ez duenac, vici oi dira becatu larrian, eta ecin Sacramenturic artu dezaquee batezere gurasoac, ceren berengan danez umeai, eta echecoai oitura eracusten diezau, birauac biotzelic botlaco ezpallitue ere.

9. Beguira, cere gurasoari, edo gurasoaren le-cuan daucaunari birauric hota diozun? cernbat bider? Gurasoac aditzen zuala, edo bestela. Eriotzaren pena zuan becatu onec legue zarrean: *Qui maledixerit Patri, vel matri, morte moriatur* (Levit 20).

10. Beguira, zure etsayaren contra esan ote dezun: *miri eman dizquidan naigabeac elorrico al xaisca berari ere, ez guchiago, eta ez guchiago. Amen*. Cernbat bider esan dezu au? eta cernbat demboran vicitu ce-

ra sasoi gaizto orretan? Jaquizu, dembora orretan gucion vicitu cerala becatu larri, edo mortalean, baldin arc zuri emandaco naigabeac andiac baciran. Jauna, ez diot nic berac eman dizquidan neque, eta naigabeac baicic opa izan. Atozea, eta ceren arc gaizturi eguin duan, zue ere eguin bear dezu? Ez daukizu debecatzen duala au Jesu-Cristos?

11. Beguira, idiai, bejai, edo guizonari ez, beste gauzai hota dieztezun birauac? Ez da au becatu larri, edo mortala, jabeaganonz nastutzen espada gorrotoai; baña izcunza charra da, eta ez due Cristaunac icaisi bear.

12. Beguira, esan ote dezun ascotan *Deabrua, Demonioa, Arrayoa*. Ez da au becatu larri, edo mortala, ascotan esan dizuedan bezala. *Deabrua, Demonioa, Satanas*, gucia bat da, baña batzuec uste due *Demonioa* esatea becatu mortala dala. Engañatzen dira. *Arrayoa* esalea ez da becatu, *chimista* esalea ez dan bezala. Era berean *galzagorria, madaricatua, puzoya* esalea berez ecer ez da. Gazteac, ascotan esan di-zuet, eta orain diot berriro: *elzaitzela oitu Deabrua, Demonioa, arrayoa* esatera, baña guertlatzen bazat-zue inoiz, edo berriz esalea, ez dezazuela becatu an-ditatz artu.

13. Beguira, *promesaric* eguinda, agunduia le-yalqui eguin dezun? Bi gauza emen gogoan arrit-zatu, Cristauna. Lenengoa: gauzaren bat eguiteco asmoric andiena ere ez dala promesa. Bigarrena: ez eguin *promesaric* cere Confesorearen baimena gabe.

14. Beguira, urliarequin itzeguiteco, edo ibillera izateagatic, eguin dezun *promesa* Lezora, edo beste le-curen batera joateco? Oec ez dira *promesac*, baicic becatu itsusi *blasfemiara* biurtzen diranac, ce-ron gauza gaiztoa jaunari agrardatzen zayola adit-zeta ematen dan.

tnan, gauza guciac. Asi zanean gauzac eguiten, lenengo egunean egin cituan Ceruac, eta lurra, Illumpean cegoan gucia, etzan alabaña artean eguzquiric. Esan zuan Jaunac: *egin bedi arguia*, eta bereala aguertu zan eguina. Bigarren egunean egin zuan beguini aurreran daucagun Ceru au. Irugarren egunean bildu cituan lecu batera, lurraren ganean zabalduac arkitzen ciran urac eta eman cien *isasoen icena*. Aguindu cion lurrari, eman citzala Iqreac, belarrac, arbolac, eta bereala aguertu ciran oec: eta dirudianez, irugarren egun onetan egin zuan Paradisuco lecu, edo vergera miragarria ere. Laugarren egunean egin cituan eguzquia, Ilarguia, eta izarrac. Bostgarren egunean egin cituan arrayac, egaztiac, abere, edo ganadu mola gucia. Prestaturic era onetan guizonarentzaco gauza guciac, seigarren egunean esan zuan Jaunac: *Egin dezagun guizona gure ancera*. Lurputza: ecer ezetic egin zuan anima, eta eman cion gorputzari; aguertu zan eguina lenvicio guizona, eta eman cion icena: *Adan*. Guizon au egin zuan Jaunac, ondoren jayoco ciran guizon gucien buru, eta lenengo guraso izateco, eta bear zuan onetaraco bere aneco lagun bat, eta au eman cion era onetan. Quendu cion Adani, lo cegoala, sayets-ezur bat: onequin moldatu zuan lenengo emacumearen gorputza; ecer ezetic egin zuan anima, eta eman cion au gorputzari, eta aguertu zan eguina lenengo emacumea. Esnatu zan Adan: ecusi zuan Jaunac bere laguntzat prestatu cion emacumea, eta esan zuan: *Au da nere ezurretaco ezurra, eta nere araguiaren zati, edo pasca*. Orra nola egin cituan Jaunac gure lenvicio gurasoac. Adanec ipiñi cion emazteari icena *Eva*. Bi bacar oetatic eta oen ymetatic jayo dirā oraindano izan diran guizon, eta e-

15. Beguira, atera ote dituzun Mezac, egin lirmosnac, edo erreguren batzuec, edo Santuen aurrean ipini argui eracequia, lagun urcoari gaitz, edo calteren bat etorri daquion, egin dezagun contu: *urbiaren ezconza galdu dedin*, edo sandiac iritsi ez dezan onelaco, edo alaco era, Blasfemiara biurten dan becatua da au ere.

Galde oec asco adina badira gazteentzat. Gurasoac, eta zarrac beude Confesorearequin, eta onec eracutisico die bear dana. Ecusi dezagun orain: *Nola egin, eta nolaco doayaqin ornitu, eta apaindu zuan Jaunac guizona*: Bigarren, *cer quertatu zan*.

§ II.

Aditu cenduan, Cristaua, lenengo egunean, norc, eta ceñ eguitico goi, eta andiraco egin cinduan: eta ceñ gauza bearra dan eguitico oni cinez, edo venaz jarraitzea. Orain jaquin nai dezun, nola egin, eta nolaco doayaqin ornitu, eta apaindu zuan Jaunac guizona? Enzun bada contuz esatera noana.

Eztaquigu noiz egin cituan Jaunac Aingueruac, edo mundua baño lencheago, S. Basilio, eta S. Gregorio Nacianenoc uste duen bezala, edo mundua egin zuan demboran bertan, gucyenac eracusten diquenez (a). Guc daquiguna da, Jaunac egin cituala demboraz, ez beiraumdetic: eta aetatic asco antuste, edo arrotasenez alcha cirala Luciferrequin batean Jaunaren contra, eta bat batetan, edo ecertaco lecu-ric gabe bola cituala Jaunac betico su, eta garren artera. Oec dira guizonaren etsai izugarriac. Sei milla urte oetan beti ari dira, nondic galduco duen guizona, eta nondic amilderazoco duen *infernuan* (b).

Aingueruen ondoren egin nai izan zuan Jaunac guizona: eta ederqui prestatu cituan, onec bearco ci-

macume guciac, eta era berean bi bacar oen jatorria izango dira emendic aurrera jayoco diranac ere. Ala esaten digu Jaunac Escritura Santan (c).

Adan, eta Eva etzituan Jaunac ipiñi munduan nolainai, baicic doai miragarriz ornitu, eta bete cituan. Arquitzen ciran Paradisuco vergera ederrean, eta etzuen jateco, eta edateco bear zuenaren quezaric, ceren an bertan cegoan gucia. Etzuen gañera soñe-coac eguileco-gai ederren billa necatu bearric, ceren orduan bearric etzuen. Janciac ceuden animaren aldedic graciaren, eta *Zucentasun originala* deritzan doayarequin, etzizaten gaitzic gogoratzen, soneco-ric gabe egon arren: etzuen eritasun, eta eriotzaren belduyric; ceren Paradisauren erdian ceuqueen arbola bat *vicitzarena* ceritzana, eta onen fruta jaten zuela, vicico ciran eritasunic gabe, eta emengo demborac betetzean viciric joango ciran Cerura (d). Esan det, animaren aldedic janciac ceudeta *Zucentasun*, edo *justicia originalaren* doayarequin. Au zan doai bat, irudimendu, edo imaginacioari eragozlen ciona, gogoracio gaiztoaquin guizona, eta emacumea asaldalzea. Doai bat guizonaren gura guciac ce-duzcana ezagüera zucenaren, eta vorondatearen mendean: eta vorondalca prest arquitzen zan Jaunac nai zuana eguileco. Eziran orduan guizonaren gurac jolsagabetzin, edo asaldatzen vorondatearen contra; baicic ceuden morroi umill batzuen eran prest eche-co nagusiac, edo vorondateac aguintzen ciena eguileco. Guizonac, orain bezala, bazuan orduan ere jateco, eta edateco gura; bana etzuan burua aichta-zen vorondatearen contra; baicic premia, zanean, ezagutzen zuan au adimentuac, eta vorondateac aguintzen zuan, cer, eta combat jan, edo edan bear zan, eta utzitzen cion gogoari bear zana eguiten. Jateco, eta edateco guraren ganean diodana aditu

hear da gañeraco gura gucientzat ere. Guisa onetan Adan, eta Eva ciran munduan izan diran Erreguñaric andienac; ciran alabaña beren buruen, edo gura gucien Jaunac: eta munduco errequeac arquitzen dira eren gura charren azpian. Ciran gañera mundu gucico Jaunac, eta Paradisuco arbola baten fruta ez, beste gauza guciac berentzat cituen. Orregatic cion Davidec: Jauna, onraz bete ceuduan guizona, eta ipiñi ceuduan zure escuetaco obra gucien ganean: *Gloria, et honore coronasti cum, et constituisti eum super opera manuum tuarum* (psalm. 8). Esan det *Paradisuco arbola baten fruta* ez, beste gauza guciac berentzat citucela: ceren debecatu cien arbola baten fruta: eta aguinte au aultzetic. etorri ciran, eta datoz ecin esan al adiña ondoren negargarri. Dacus-cun cer guerlatu zan.

## § II.

Paradisuco arbolen artean bazan bat *onaren* eta *gaitzaren jaguindecoa* Escriturac delitzen diona. Icen au ematen zayo, ceren aren fruta janda, icasi zuen Adanec, eta Evac, cer ondasunac galdu, eta cer calteac beren gañera ecarri cituen. Debecatu cien Jaunac aren fruta jatea: *Ez jan* esan cion Adani: *Ne comedas*: ceren jaten badezu, ilco cera. *Morte morieris*. Ilco cera gorputzaren aldedic, eta era berean ilco dira zure ume, eta ondorengo guciac ere. Ilco cera animaren aldedic ere, eta zure jatorticoac beren sortzetic egongo dira becatuz loituac, eta animan illac. Ecusten zuan Luciferrec, nola onraz, eta zori onez bete cituan Jaunac Adan, eta Eva, eta envidiaren suac erretzen, eta erquitzen zuan, eta asizan aec, eta gu gaitzeco bidcac billatzen. Bacebillen Eva Patadisuan, angó lore, eta arbola ederrac ecus-



— 416 —

ten: sartzen da Lucifer sugre baten barrumbean, eta esaten dio Evari. *Cerpatie debecatu dizue Jaunac Paradisuco arbola quietatic jateac?* Eranzun cion Evac: Paradisuco arbolen frutatic jaten degu; baña aguintu digu Jaunac, Paradisuaren erdian dagoan arbola baten fruta ez dezagula jan, ezeta uquitu ere, ill ez gaitelen. Esan cion Luciferrec: *Elzerate ez ilco orregatic: badaqui Jaunac, andic jaten dezuen unean berlan idiquico dirala zuen beguiac; eta izango ceratela Jainco balzun eran, ona, eta gaitza ezagutzen dozuena.* Agrádatu citzaizcan Iosench oec Evari, eta Paradisuaren erdira joanic, jartzen da sagar debeccatuari beguirra. Ecusten du, sagar eder, eta elduz beitea: *Pulchrum oculis, aspectuque delectabile.* Quen zaiten ortic Eva, quen zaiten; bestela galduco dezu cere burua, eta mundu guciac; baña etzan perillitic quendu, eta quendu bearrean, artu zuan, eta jan sagarra. Gaitz erdi izango zan onetan gueratu baliz; baña eramán cion Adani, eta jan zuan onec ere. Onela galdu cituen Adanec eta Evac beren buruac, eta mundu guciac; becatu ura alabaña jatortiz igarotzen da oen ume gucielara, eta guciac sortzen dira becatu arcuin loitua. Ozta Adanec autsi zuan Jaunac Aguintea, an zan Adanen ondoren Jauna bera. Ezcutatu zan Adan arbola artean: soñecoric gabe arquitzen ciran, eta loisaz nolerebait estali ciran arholen ostloaquin. Au izan zan munduan lenengó jauciera. *Adan*, oisequin cion Jaunac, *non cera?* Eranzun cion Adanec: *aditu del, Jauna, zure oisa, eta nota soñecoric gabe nengoañ, loisatu, eta ezcutatu naz.* Atozea *eta norc*, edo cerc aditzera eman dizu, soñecoric gabe arquitzen cifala, debecatu nizu, *zan sagarra jatcac baicic?* esan cion Jaunac. Jauna, eranzun cion Adanec: *laquitzat zue eman didazue andreauc ecarri dit sagarra eta jan del.* Biurtzen da

— 417 —

Jauna Evagana, eta esaten dio: *cerpatie equin dezu eri?* Eranzun cion Evac: *sugreac enganatu nau, eta jan del.* Orduan esan cion sugreari, edo sugreagan Luciferri: Madaricatua izango cera: nic guerra vicia ipinico det zure, eta andre baten artean: andre arc bere seméaren bidez zapalduco dir zure burua: *Inimicitias ponam inter te, et mulierem... ipsa conteret caput tuum* (e). Ilz oetan aditzera eman zuan Jaunac, bidalduco zuala demoraz bere Salvatzailea, eta onec zapalduco zuala etsai galgariaren burua.

Eizuan Adanec becatuan efori zan artean jana eta edanaren quezaric, ceren Paradisuán zuan bear zuen gucia nequeric gabe; baña becatuarquin galdu zuan era au; eta betico bota cituan Paradisutic, eta esan cion Adani: *zure aurpeguico icerdiarequin jaango dezu ogui.*

Eizuan Adanec soñecoen billa bearric, len esan dedan bezala, baña becatuan erori ezquero bai: eta Jaunac eman cien abere, edo ganaduen larruz egingudaco zamarra bana. Jaucieraren polita Mundu gucico Erregue, eta Erreguiña batentzat.

Eizuen Adanec, eta Evac eriotzaren beldurric Jaunac Aguintea autsi zuen artean: ceren vicitzaren arbolaren frutarequin vicio ciran gaisotu, eta zartu ere gabe; baña fruta artatic jateco era, eta bide guciac quendu ciezen Jaunac, botatzen cituala Paradisutic (f). *Autsa cera*, esan cion Adani, eta autsi *biartuco cera*. Emendic etorri dira Adanen umeentzat ambeste gaitz, edo eritasun, eta atzencan ill bearra.

Len guizonaren gura guciac paquean ceuden, baña becatuarquin galdu zuen zucentasan, edo justicia originalaren doaya, eta gríña guciac asi ciran, gaitzeronaz, eta gueroztic mundua darabilte guerra vician. Gaur asaldalten da antuste; edo soberbia,

— 448 —

guero cuticia: gaur atseguin lotsagarrietaraco grinda, bigar beste bat: eta ez dioe paquearic eman nai antima galsdari. Orregatic esan zuan Davidec: Onraz bete-a egoanean, etzuan ezagutu bere ona; *Homo, cum in honore esset, non intellexit: ipiñi zuan bere burua centzuric ez duen astoen pare, eta eguin zan aen an-coco: Comparatus est iumentis insipientibus et similis factus est illis* (psalm. 48).

Len Adan mundu guccio. Erregue zan, eta abere, ta ganadu guciac beraren mendea ceuden: asco da au ezagultzeo gogora ecartzea, nola joan citzaizan, cegoten icena ipiñi ceguien. Baña becatuan erortzearequin galdu zuan bere aguintea, eta gueratu zan guccio ecusten degun erab.

Atzenea sagar baten jatearequin galdu zuan Jan-naren gracia, eta adisquidetasuna, eta Ceruraco escu gucia, eta galdu ez beretzat bacarric, bala gureztat ere. Gueratu zan becatuaren loycan ondatur, eta aundic iriteco bideric gabe, eta era berean Adanen u-meac. Ay Adan! ceñ samina izan zan zureztat, eta ceñ samina dan gureztat zure sagar-mocadu ura.

Orra, nere Cristaia, nola eguin ta nolaco doayez bete zuan Jaunac guizona, eta orra cer guertatu zan. Alaere añ urricaritsua, eta ona izan zan gure Aita Ceru-roa, non utseguite au deseguiteco, eta gu Ceru-raco bidean ipintzeo, bidaldu zuan lurrera bere Se-me bacarra: eta Semeac eman zuan gurultzean bere viciza. Eta ezaguturic au gucia, ez guera beragana biurtuco? Eta ez degu Aita maitagarri au amatuco? Eguin dezagun au biolz prestu batequin, eta emango digu betico viciza doatsua. Amen.

---

(a) Veteres Patres ante Augustinum consuerunt, Angelos creatos fuisse, antequam crearentur Cæli, et terra; sed Augusti-

— 449 —

nus, et communis sententia docet, creatos fuisse cum ipso mundo. Vide Calmet, et Menochium.

(b) De peccato Angelorum vide T. T.

(c) Actor. 17. De hæresi Præ-Adamitarum vide Feijoum tom, 5 Discursu 15.

(d) De vi, et efficacia ligni vite duplex est sententia. Prima docet, lignum vite productum fuisse ad arcendam mortem, que conlingere solet ex senio: unde frequenter sumere deberet homo de fructu hujus ligni ad arcendam mortem. Hæc est communior sententia. Secunda tenet, lignum vite eam vim habuisse, ut vel semel gustatum perfectum afferret immortalitatem, atque huic sententiæ favere videtur caput 3 Genes. De just. autem originali vide D. Thom. q. 4 de malo Art. 1.º et Bellarminum.

(e) Vide Menochium.

(f) Vide caput 3 Genes.



---

**BEDERATZIUURREN ONEN IRUGARREN EGUNERA**

CO ITZALDI, EDO PLATICA.

*Scrutemur vias nostras* &.

*Virgîña chí Santa* &. *Lendavico Platican bezala.*

**C**onfesio onaren prestaera da Bederatziurren onetan billatzen deguna. Bi gauza escatzen ditu prestaera onec: bala da gure becatuen examina, edo gogora ecartzea, eta au eguin ditekue edo azquene-co confesiotic, edo confesio gaiztoac asi ciran demoratic: eta bigarren examina-modu oni gueyago beguiratuco diogu egun oetan lenengoari baño. Confesio onaren prestaerac escaltzen duan, bigarren gauza da, gure becatuquin galdû degun Jauna billatzea, eta beragana gure biotzac biurtzea, eguidaco becatuen damuarequin, eta aurvera becatu-ric ez eguiteco asmo osoarequin; baña ez dira gure biotzac Jaunagana bear gan eran biurtzen, federe-aren arguiarequin gogora cartzen ezpadira damubide egoquiren batzuec. Bi gauz oec itz guchian adiraci ci-tuan Jeremiasec, esan zuanean: beguira deguegun gu-re bide, eta ibillerai: *Scrutemur vias nostras* eta bi-lla dezagun gure Jauna, eta biur gaitecen beragana: *Et queramus, et revertamur ad Dominum*. Onctara-co bigarren egunean examina eguin guenduan Jaun-pairen Legueco bigarren Aguinte, edo Mandamen-

tuaren contraco becatuen ganean: eta ondoren fedea-ren arguiarequin beguiratu guenduan, *Nota equin, eta nolaco doayquin ornitu, eta apundu zuan Jaunac guizona, eta cer guertatu zari*. Gaurco examina izango da Jaunaren Legueco irugarren Aguinte, edo Mandamentuaren contraco becatuen ganean. Urrrena beguiratuco degu, lenengo lecuan, nola Jaunac guizon galdua Ceruraco bidean ipintzeco, aguintu zuan bidaltzea bere Salvatzailea, eta nolaco eresi, edo an-siarequin escaltzen zuen anima onac onen elorrera. Bigarren, demborac bete ciranean, cer gure alde eguin zuan Trinitade guciz Santiac. Emendic erraz ezagutuco degu alde batetic Jaunaren Ontasun baz-tergabera, eta bestetic gure esquergabequerien itsus-tasuna. Asi gaitecen.

§. I.

Beguira deguegun gure bide, eta ibillerai, esa-ten digu Jeremiasec: *Scrutemur vias nostras*: au da examina eguitica, eta gaurcoa degu Jaunaren le-gueco irugarren Aguinte, edo Mandamentuaren con-traco becatuen ganean. Oec ongui ezagutzeco, esca-tu deguogun Espiritu Santuari bere lagunza, esa-ten dioguia:

*Aloz, ó Espiritu Santua, aloz beartsuen gurasoa, aloz doayen emallea: argui ezazu nere adimentua, nic nere udeguiteac ezagutzeco: mugui ezazu nere biot-za, oen ganean damutzeco eta aurvera becatuic, eta becatuaren bidetatic aldeguiteco, eta confesatzeco.* Zoaz orain Jaunaren Legueco irugarren Aguinte, edo Mandamentura.

1. Irugarren Aguinte, edo Mandamentuac dio: *Festac, edo jai egunac santificatzea. Festac morc santi-ficatzen ditu? Meza osoa enzunda, lanic premia gabe eguiten ez duanac.* Mandamentu onetara biurt-

**JESU-CRISTO,**  
**ETA VIRGIÑA CHIT SANTAREN**

MISTERIOEN, ETA BESTE CEMBAIT GAUCEN GANEAN  
**ERACUSALDIAC**

DON JUAN BAUTISTA AGUIRRE ASTEASUCO ERRETORE, ETA  
 GUIPUZCOACO ARCIPRESAZCO NAGUSAN DIPUTADU GENE-  
 BALAC, CRISTAU ACIAI MEZA NAGUSIETAN EGUÏÑAC.

*Esquetulzen diezte Apaitz Euscaláunai.*

IRUÏCO GUBE APATZ NAGUSIAREN BAINENANENTY.

IRUGARREN LIBURUA.

TOLOSAN:

Andres Gorosabelen moldeteguan.  
 1850 garren urtean.

*Salazar*

HORDAGO, S. A.  
 EDITORIAL LUR (Plaza de Guipúzcos, 11-1.º Donostia)  
 I.S.B.N. 84-7099-045/4  
 Dep. Leg.: S.S. 380/78  
 Impreso en Alvarez Ircoila - B.º Igarra - San Sebastián